


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**FIKZIOA J.-P. SARTREREN DISKURTSO TEORIKOAN:  
FIKZIOAREN ANTOLAMENDUA *L'ÊTRE ET LE NÉANT*  
OBRA FILOSOFIKOAREN “BEGIRADA” KAPITULUAN**

---

**JUAN MARI AGUIRREURRETA ELOSEGUI**

Doktorego tesia

Zuzendariak

**Agustin Arrieta Urtizberea (EHU)**

**Cristina Lasa Otxoteko (EHU)**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
BALIOEN FILOSOFIA ETA GIZARTE ANTROPOLOGIA SAILA  
UPV / EHU  
DONOSTIA, 2017

*Baldinba ugalduko dira  
Sartreteren euskal irakurleak!  
Agian bai, mila aldiz!*

Txillardegi

## ABSTRACT

Ikerketa honek J.-P. Sartrearen *L'Être et le Néant* tratatu filosofikoaren idaztankeran jartzen du arreta, eta obra horren irakurketa berri bat eskaintzen du, hain zuzen ere, diskurtso teorikoak baliatzen duen fikzioaren ikuspegitik. “Begirada” kapitulu luze eta funtsezkoa ikerketa-corpustzat hartuta, eta berau euskaratuta, ikerketa honen helburua da baliabide horren eginkizun nagusia ulertzea. Xede horrek eskatzen du ikerketa honi diskurtsoaren analisiaren esparrutik heltzea, fikzioa irizpide enuntziatiboen argitan zedarritzeko eta diskurtso-antolamenduaren baitan ulertzeko. Halatan, ikerketa honek erakusten du, alde batetik, testuko fikzioa diskurtso teoriko nagusiarekiko etendura gisa enuntziatzen dela, teoria beste erregistro enuntziatibo batean adierazteko; eta, beste alde batetik, fikzioak adarkadura bat osatzen duela diskurtsoan, diskurtsoaren antolamendu teorikoan parte zuzena duena; eta, halaber, testuaren jomuga teorikoa bermatzen duela.

### **Hitz gakoak:**

J.-P. Sartre, *L'Être et le Néant*, Fikzioa, Diskurtso Filosofikoaren Analisia, Begirada.

Ce travail de recherche prend pour objet le discours philosophique de l'œuvre majeure de J.-P. Sartre, *L'Être et le Néant*, et propose une nouvelle lecture de ce traité théorique à travers son recours à la fiction. Par une analyse discursive d'un chapitre clé, partie décrivant le concept philosophique de *regard*, nous tentons de mettre en lumière le caractère énonciatif de la fiction, d'une part, et son rôle structurant et global, d'autre part. Ainsi, cette analyse vise à mettre en rapport le développement théorique avec l'irruption de la fiction comme outil discursif. C'est donc dans l'analyse du discours que cette recherche trouve le cadre théorique et le point de départ. Nous constatons que la fiction se présente comme une scène de type narratif, un régime énonciatif désebrayée par rapport au discours principal mais qui renvoie aussi au contenu théorique, constitue un réseau propre, organise l'enjeu théorique du texte et le consolide.

### **Mots-clés:**

J.-P. Sartre, *L'Être et le Néant*, Fiction, Analyse du Discours Philosophique, Le Regard.

## ESKER ONA

Bihoaz lehenengo eskerrak Jean-Paul Sartre berarentzat. Sartreren filosofia deskubrimendu bezala bizi izan dut eta bizi dut. Niretzat, Sartre errebelazio-moduko bat izan da bai bizitza bere pentsamenduaren iragazitik ulertzeko eta baita lehio bezala ere filosofiara gerturatu eta beste autore batzuk ezagutzeko, hala nola, M. Heidegger, G. Bachelard, M. Merleau-Ponty eta S. de Beauvoir. Ikerketa honetan zehazki *L'Être et le Néant* obrari heltzen diot, Sartreren obra esanguratsuen baita eta gehien maite dudana. Eskerrak bihotzez, beraz, Jakin aldizkariari ikerketa honetako corpusaren itzulpena argitaratzeagatik (2017) eta Sartreren filosofia euskaratzeko ohorea posible egiteagatik.

Eremu akademikoan, eskertu nahi diet, lehenik, EHUko Filosofia Fakultatean 2012an proiektu honi buruz egin zen lehen bileran, ikerketarako ateak zabaltu zizkidaten Joxe Azurmendi, Andoni Ibarra eta Agustin Arrieta irakasleei; eta, halaber, horren ondotik ikerketa honen tutoretza eta gidaritza borondate eta seriotasun bikainarekin hartu duten Agustin Arrieta bera eta Cristina Lasa irakasleei. Era berean, eskertu nahi diet, metodologiako ikasgaiari (2013-2014) zuzenean nahiz zeharka, probetxuzko aholkuak eman zizkidaten Andoni Ibarra eta Thomas Mormann irakasleei.

Eta, bigarrenik, eskertu nahi diet atzerrian nola edo hala lagundu didatenei. Esker mila Michel Rybalka Sartreren adiskide eta obran adituari, bere etxean hartu baininduen eta ikerketa honetaz luze jardun baikenuen. Eskerrak ere Hezkuntza Ministerioari 2014an ikerketa honi emandako diru-laguntzagatik, Frantziako unibertsitate eta liburutegietan hilabetez tesian aurrera egiteko. Horren ondotik, Parisen Jean Bourgault *Groupe d'Études Sartriennes* elkarteko idazkariak Sartreri buruzko material dezente pasatu zidan eta ikerketa honetako gaiari aditu diren François Noudelmann (*Sorbonne-Paris III* unibertsitatea) eta Malika Temmar (*Jules Verne* unib.) irakasleek aholku dezente eman zizkidaten.

Eremu pertsonalean, eskerrak Yera Sánchez Morán emazte kuttun horri, ikerketa honi tinko eusteagatik eta hamaika aldiz amore ematen ez uzteagatik. Lagundu ahalko dizut horrenbeste nik, laztana, zure ikerketan!

## IKERKETAREN AURKIBIDEA

<b>ABSTRACT</b> .....	3
<b>ESKER ONA</b> .....	4
<b>SARRERA</b> .....	11
<b>I. Ikerketa honen helburu nagusia</b> .....	11
<b>II. Ikerketa-corpusaren justifikazioa</b> .....	12
<b>III. Ikerketa honen hipotesi nagusia eta ikerketa-galderak</b> .....	13
<b>IV. Ikerketa honen antolamendua</b> .....	14
<b>V. Sartrearen obren laburduren zerrenda</b> .....	14

## LEHEN ZATIA: ATAL TEORIKOA

<b>1. Ikerketa-corpusaren egitura atzemateko irizpide nagusiak</b> .....	18
<b>1.1. Bi ikuspegi ikerketa-corpusaren egiturari erreparatzeko</b> .....	18
<b>1.1.1. Egitura testu ororen nahitaezko baldintza gisa</b> .....	18
<b>1.1.2. Testua vs. Diskurtsoa</b> .....	20
<b>1.2. Lehen egitura-irizpidea: testuaren egitura sekuentziala</b> .....	22
<b>1.2.1. Testuaren makroegitura eta superegitura</b> .....	22
<b>1.2.2. Sekuentzia-bidezko testu-plana</b> .....	26
<b>1.3. Bigarren egitura-irizpidea: testuaren egitura diskurtsiboa</b> .....	33
<b>1.3.1. Enuntziarioa, enuntziatua eta diskurtsoaren ardatzak</b> .....	33
<b>1.3.2. Metadiskurtsoa diskurtso bideratzailatzat</b> .....	38

<b>2. Diskurtsoaren fikziozkotasuna zehazteko irizpide nagusiak .....</b>	<b>41</b>
<b>2.1. Bi begiratu fikzioari filosofiaren ikuspegitik .....</b>	<b>42</b>
<b>2.1.1. Errealitatearen ikuspegi mimetikotik betekizun diskurtsibora .....</b>	<b>42</b>
<b>2.1.2. Fikzioaren arbuiozko ikuspegitik filosofiaren eskakizunera .....</b>	<b>44</b>
<b>2.2. Fikzioa literaturaren ikuspegitik: hiru gogoeta-ildo .....</b>	<b>48</b>
<b>2.2.1. Orainaldi tabularra .....</b>	<b>49</b>
<b>2.2.2. Zehar estilo librea .....</b>	<b>50</b>
<b>2.2.3. Autotestua .....</b>	<b>53</b>
<b>2.3. Fikzioa hizkuntzaren hiru jakintza-arloren ikuspegitik .....</b>	<b>54</b>
<b>2.3.1. Pragmatikaren ikuspegia .....</b>	<b>55</b>
<b>2.3.2. Semantikaren ikuspegia .....</b>	<b>57</b>
<b>2.3.3. Diskurtso Filosofikoaren Analisiaren ikuspegia .....</b>	<b>60</b>
<b>2.4. Fikzioa diskurtso fenomenologikoan .....</b>	<b>63</b>
<b>2.4.1. Fikzioaren unekotasuna diskurtsoan: fikzio puntuala .....</b>	<b>64</b>
<b>2.4.2. Fikzioaren etsenplaritatea diskurtsoan: fikzioa eta adibidea .....</b>	<b>68</b>
<b>2.4.3. Fikzioaren eskematizazioa diskurtsoan: fikzioa eta irudia .....</b>	<b>73</b>
<b>2.5. Fikzioaren aparatua formala .....</b>	<b>78</b>
<b>2.5.1. Aurkezpen-markatzaile baten presentzia .....</b>	<b>79</b>
<b>2.5.2. Enuntziatzaile orokortzaile baten presentzia .....</b>	<b>80</b>
<b>2.5.3. Denborazkotasun efektiboaren neutralizazioa .....</b>	<b>84</b>
<b>2.5.4. Hizkuntzaren erregistro narratiboa .....</b>	<b>86</b>
<b>3. Ikerketa-corpora hobeto ulertzeko oinarrizko testuingurua .....</b>	<b>88</b>
<b>3.1. Autorearen ibilbidea: Jean-Paul Sartre (1905-1980) .....</b>	<b>89</b>
<b>3.1.1. <i>L'Être et le Néant</i> argitaratu aurretik (1905-1943) .....</b>	<b>90</b>

3.1.2. Existenzialismotik konpromisora (1943-1947) .....	93
3.1.3. Hamaika frontetako gizona (1947-1980) .....	94
3.2. <i>L'Être et le Néant</i> (1943) tratatu filosofikoaren zutabe teorikoak .....	97
3.2.1. Tratatuaaren atalak eta aurkibidea .....	99
3.2.2. Izatearen osagabetasuna .....	104
3.2.3. Izatearen transzendentzia .....	105
3.2.4. <i>Bestearentzako</i> izatea ( <i>l'être-pour-autrui</i> ) .....	108
3.2.5. Izatearen askatasuna .....	110
3.3. <i>Begirada</i> kontzeptuaren ikuspegi filosofikoa eta ikuspegi literarioa .....	113
3.3.1. <i>Begirada</i> kontzeptuaren ikuspegi filosofikoa .....	114
3.3.2. <i>Begirada</i> kontzeptuaren ikuspegi literarioa .....	120
3.4. Aldez aurreko hiru gogoeta obraren idaztankeraren fikziozkotasunaz .....	125
3.4.1. Sartrearen idaztankeraren hautuari buruzko gogoeta .....	125
3.4.2. Diskurtsoaren <i>NI</i> polifoniko bati buruzko gogoeta .....	129
3.4.3. Tratatuaaren 'situazio' kontzeptuari buruzko gogoeta .....	133

## BIGARREN ZATIA: ATAL ENPIRIKOA

4. Diskurtsoaren fikziozkotasuna <i>fikzioaren aparatu formalaren argitan</i> .....	138
4.1. Fikzioaren enuntziatzailea: kontzeptu teorikoaren ahotsa .....	138
4.1.1. <i>Nia</i> kontzeptua <i>NI</i> pertsona izenordainaz emana .....	138
4.1.2. <i>Bestea</i> kontzeptua <i>BESTE</i> izenordain zehaztugabeaz emana .....	142
4.1.3. Etadura enuntziatiboa .....	145

4.2. Fikzioaren denbora: idazketa-denboraren neutralizazioa .....	149
4.2.1. Denborazko deikien presentzia .....	149
4.2.2. Aditzaren puntukaritasuna .....	152
4.2.3. Baldintza eta Ahalera .....	157
4.3. Fikzioaren aurkezpena .....	160
4.3.1. Markatzaile esplizituak .....	160
a) Erakusle ezohikoa .....	160
b) Presentaziozko esapideak .....	161
4.3.2. Bestelako markatzaile batzuk .....	161
a) Eszena narratibo baten irrupzioa .....	161
b) Marka tipografikoak .....	162
4.3.3. Markatzailearen absentsia .....	163
a) Isilpeko esapidea edo esapide inplizitua .....	163
b) Paragrafo-aldaketa .....	164
4.4. Fikzioaren hizkuntza erregistroa: situazioaren gutxieneko konposizioa ..	166
4.4.1. Situazioaren gertakizun nagusia .....	167
4.4.2. Gertakizunaren subjektua(k) .....	170
4.4.3. Gertakizunaren espazioa .....	172
4.4.4. Situazioaren beste elementu batzuk .....	173
<b>5. Testu-mailako fikziozkotasuna .....</b>	<b>175</b>
<b>5.1. Fikzio-bidezko eta irudi-bidezko kontzeptu teorikoa .....</b>	<b>175</b>
<b>5.1.1. Kontzeptu teorikoa adierazteko bide nagusiak .....</b>	<b>175</b>
<b>5.1.2. Irudi-bidezko kontzeptu teorikoaren eskematizazioa .....</b>	<b>177</b>
<b>5.1.3. Fikzioa irudi-bidezko kontzeptu teorikoan .....</b>	<b>179</b>



5.2. Fikziozkotasunaren egitura .....	185
5.2.1. Testu-mailako fikziozkotasuna: fikzio-unitatea .....	185
5.2.2. Fikzio-unitatearen adarkadura: fikzio osagarria .....	188
5.2.3. Fikzio-unitateari ez dagokion fikziozkotasuna: fikzio gehigarria .....	193
5.3. Ikerketa-corpuseko fikzio-egituraren zerrenda .....	196
5.3.1. Fikzio-unitateen zerrenda .....	196
5.3.2. Fikzio osagarrien zerrenda .....	198
5.3.3. Fikzioen arteko igorpen nagusiak .....	209
5.4. Fikzio-multzoak ordain teorikoaren arabera .....	213
5.4.1. <i>Ni</i> -subjektua situazioan: <i>Beste</i> -objektuaren agerpena .....	217
5.4.2. <i>Ni</i> -objektua situazioan: <i>Beste</i> -subjektuaren bizipena .....	219
5.4.3. <i>Bestearen</i> jatorrizko presentzia situazioan .....	221
<b>6. Fikziozkotasuna “Begirada” kapituluaren oinarri teorikoan .....</b>	<b>224</b>
6.1. “Begirada” kapituluaren abiapuntu teorikoa .....	224
6.1.1. “Begirada” kapituluaren oinarritzko ardatz teorikoa .....	224
6.1.2. “Begirada” kapituluaren zedarritze teorikoa .....	228
6.2. Diskurtso teorikoaren antolamendua “Begirada” kapituluan .....	231
6.2.1. Sekuentzia-bidezko antolamendu diskurtsiboa .....	231
6.2.2. Fikzioaren presentzia diskurtso teorikoaren antolamenduan .....	244
6.3. Fikzioaren betekizuna diskurtso teorikoaren antolamenduan .....	247
6.3.1. Fikzioaren betekizun nagusia diskurtsoaren antolamenduan .....	247
6.3.2. Teoriaren eta fikzioaren uztartzea: ikuspegi globala .....	251

## ONDORIOAK

<b>7. Ondorioak</b> .....	256
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	263
<b>ERANSKINAK</b> .....	275
<b>I.</b> Eranskina. Bibliografia nagusia Sartreri eta Sartreren obrari buruz .....	276
<b>II.</b> Eranskina. Sartreren obren zerrenda .....	281
<b>III.</b> Eranskina. Ikerketa-corpusaren itzulpena .....	285

## SARRERA

### I. Ikerketa honen helburu nagusia

Oparoa da Jean-Paul Sartre (1905-1980) buruz eta honek idatzitako obraz arlo akademikoan idatzi den literatura. Luze aztertu da Sartreren *opus magnum* den *L'Être et le Néant* (1943). Baina zehazki obra horren idaztankeraz den bezainbatean, ordea, hain hemenka aurki daitezkeen artikulua, kapitulu, erreferentzia eta aipu zenbaitez aparte, ez da hainbeste idatzi. Ikerketa honen helburu nagusia obra horretan sakontzea da, hain zuzen, filosofia adierazteko baliatzen duen idaztankeraren argitan.

*L'Être et le Néant* obra filosofiko teoriko mardula da, baina lehen begiratuan, edozein orrialdetatik zabalduz ere kasik, berehala atzeman daiteke bertan hizkuntzaren erregistro teorikoa tarteka txandakatu egiten dela literarioa edo literarioagoa den hizkuntza erregistro batekin, edo besterik ez bada ere, bigarrena txertatu egiten dela lehenengoan, kontzeptu teorikoen fikziozko eszenografia moduko bat balitz bezala. Hautu diskurtsibo horren eginkizuna da ikerketa honek zehaztu eta ulertu asmo duena.

Horrekin batera, ikerketa-asmo horrek berarekin dakar *L'Être et le Néant* bestelako ikuspegi batetik irakurtzeko eta ulertzeko bidea ere, alegia, filosofiaren esparrutik ez ezik obrari literaturatik ere heltzen diona. Horrela, bada, ikerketa honek bidea zabaldu nahi lioke ikergai duen obra filosofikoaren hurbilpen literarioari, izan ere, intuizioa zilegi da tratatuari ikuspegi literariotik arreta jartzeak irakurle ez adituari filosofiari aitortzen zaion hizkuntza erregistro hertsia irakurketa arinduko diona.

Zalantzarik gabe, ikerketa honen emaitza ez da izango *L'Être et le Néant* obraz esango den azken hitza. Baina, hori garbi izanik ere, Sartre buruzko ikerketetan, bere obra filosofiko nagusiari aspektu zehatz horretatik heltzea oraindik egin gabe dagoen ekarpena da. Zer esanik ez euskarazko ikerketei dagokienez; ez dago euskaraz idatzitako doktorego tesirik zuzenean Sartreren obra aztergai duenik. Nolabait ere, beraz, ezin uka ikerketa honen helburua ere badela Sartre euskarazko arlo akademikora hurbiltzea.

## II. Ikerketa-corpusaren justifikazioa

*L'Être et le Néant* obraren idaztanka aztertzeko, testu osoa barik, azpi-atal bat hartu dut oinarritzat, hain zuzen ere, *begiradaren* fenomeno hitzordearen kapituluak: “3.1.4. Le Regard” (Gallimard, 1943: 310-364). Berez, atal jakin horri buruzko emaitzak obra osoan zehar berdin edo antzera betetzen diren neurtzeko, zehatzak izan nahi badugu, ikerketa berri bat beharko genuke edo, bestela, *L'Être et le Néant* osoa ikerketa berean aztertu. Ordea, hiru arrazoik naramate azpi-atal horren hautua nahikotzera.

Lehen arrazoia kapituluaren luzerari dagokio. Ikerketaren marko teorikoak, ikusiko dugunez, fikzioaren hautu diskurtsiboa enuntziatrazio-terminotan ulertzera garamatza. Bada, nekez eman daiteke kontu enuntziatzaile-subjektu diskurtsibo heterogeno eta konplexu baten ezaugarriez, Bouachak (1995: 87) Descartesenaz gogoeta egin bezala, ez baldin bada testu-segida aski luzea kontuan hartzen. *Begirada* hitzorde hartzen duen kapituluak 50 orrialde ditu eta obrako luzeena da, ustez enuntziatzaioa nola gertatzen den atzemateko beste. Gainera, 50 orrialde horiek ez dira zoriz hartutakoak; kapitulu oso bat osatzen dute eta bloke teoriko itxi bat.

Bigarren arrazoia kapituluak obra osoaren egitura teorikoan duen kokapen estrategikoari dagokio. Testuak hitzorde dituen ‘begirada’ eta ‘*Bestearentzako-izate*’ kontzeptuak giltzarriak dira obra osoaren argitan. *Bestearentzako* izateak bloke teoriko bat ixten du, kapituluak ez ezik, Kremer-Marietti (2005) autoreak proposatzen duen ‘Izatearen teoria’ dei litekeena, eta beste bat jartzen du abian, ‘Askatasunaren teoria’ litzatekeena. Hala, kapituluak obra osoari begira funtsezkoak diren kontzeptuak biltzen ditu, esaterako, *ezereza*, *bere baitarako izatea*, *bestearentzako izatea*, *transzendentzia*, *faktikotasuna* eta *askatasuna*. Nolabait esateko, nahiz eta alferrik bilatuko dugun kapitulu horretan obra osoaren sintesia, berau abiapuntu hartuta, *L'Être et le Néant* uler daiteke.

Hirugarren arrazoia ikergaiaren eta ikerketaren arteko hizkuntza-talkari dagokio. Gogoan izanik, batetik, Sartrek bere obra osoa frantsesez idatzi zuela, ez bakarrik *L'Être et le Néant*; eta, bestetik, ikerketa hau euskaraz egin nahi izan dudala, ikerketa-corpusa euskaratzea erabaki dut, itzulpena ikerketaren parte egiteko eta bertatik bertara aztertzeko asmoz; areago kontuan izanik ikerketa honek sarri igortzen gaituela aztertutako corpusera. Liburu osoa itzultzeak ikerketa honen mugak gainditzen zituen.

Ikerketa-corpusaren itzulpena (“Begirada”) eranskinetan txertatu dut. Bide batez, itzulpenaren hautu horrek bultzatuta, corpus aztergaia euskaratu izanaren koherentzia gordetzeko, ikerketa honetan zehar euskaratu egin dut zeinahi aipu ere Sartrek berak idatzitakoa denean; eta ez, ordea, beste zeinahi iturri bibliografiko, zeina erabilitako edizioak dakarren hizkuntzan ematen baitut hitzez hitzekoa denean, baina ez, noski, delako erreferentzia hori nire hitzekin azaltzen dudanean.

### III. Ikerketa honen hipotesi nagusia eta ikerketa-galderak

Ikerketa honen hipotesi nagusia eta ikerketa osoaren iparrorratza dena horrela formula daiteke: *L’Être et le Néant* obra filosofikoan, *begiradaren* fenomenoaz diharduen “3.1.4. Le Regard” kapituluan, diskurtsoaren fikziozkotasunak diskurtsoaren eduki teorikoa egituratzeko eta antolatzeko betekizuna du. Hipotesi hori betetzen den edota zein puntutaraino betetzen den atzemateko, ondoko hiru ikerketa-galdera hauek erantzutea ezinbestekotzat jotzen dut:

- **Lehen ikerketa-galdera:** Nola zenbatu dezaket diskurtsoaren fikziozkotasuna eta hori nola ulertu behar dut ikuspegi teoriko batetik?
- **Bigarren ikerketa-galdera:** Zein da zehazki kontuan hartu behar dudana fikziozkotasuna diskurtso teorikoaren antolamenduan?
- **Hirugarren ikerketa-galdera:** Zertan bermatzen du fikziozkotasunaren egiturak diskurtsoaren antolamendu eta jomuga teorikoa?

Errepara daitekeenez, ikerketa-galdera horien hurrenkera ez da ausazkoa, integratzailea baizik. Alegia, ondokoak aurrekoa jakintzat edo argitutzat ematen du. Horrela, bada, ikerketa honen antolamenduari dagokionez, ikerketa-galdera horiek ikerketa osoa bideratzen dute eta, beraz, lan-hipotesi nagusia argitzeko beharrezko urratsak bezala ulertzen ditut. Ikerketa honen azterbidea ere, hortaz, hiru ikerketa-galdera horien arabera antolatu dut, hau da, ikerketaren atal enpirikoan diskurtsoaren fikziozkotasunaz eta egituraz kontu ematerakoan.

#### **IV. Ikerketa honen antolamendua**

Ikerketa honek bi atal nagusi ditu, atal teorikoa eta atal enpirikoa. Atal teorikoa hiru lehen kapituluek osatzen dute (1-3); eta atal enpirikoa, aldiz, hurrengo hirurek (4-6). Horien ondotik, zazpigarren kapituluan ikerketaren ondorioak ematen ditut; eta jarraian, berriz, iturri bibliografikoak. Azkenik, eranskin gisa, ikerketa-corpus euskaratua txertatu dut, batez ere ikerketa honen irakurketa errazteko, aztergai den testu-oinarrira uneoro joan-etorriak egiteko premia izatekotan.

Atal teorikoari dagokionez, lehen kapituluan, ikerketa honen marko teoriko orokorra zehazten dut; eta, horrela, ikerketa ‘diskurtsoaren analisisa’ deritzon jakintza-arloan kokatzen dut eta corpusaren egitura atzemateko diskurtso-irizpideak ematen ditut; bigarren kapituluan, fikziozkotasunari hainbat ikuspuntutatik heltzen diot eta, diskurtso filosofikoaren analisisira hurbilduz, zehazten dut ikerketa honetan zehazki fikziotzat zer jotzen dudan; hirugarren kapituluan, ikerketaren oinarri eta aztergai dudan corpusa testuinguruan kokatzen dut; horretarako, Sartrearen ibilbideari, *L'Être et le Néant* obrari eta *begirada* kontzeptuari heltzen diet.

Atal enpirikoari dagokionez, laugarren kapituluan, atal teorikoan emandako diskurtso-irizpideen baitan, urratsez urrats, corpuseko diskurtsoaren fikziozkotasuna zein den zedarritzen dut; bosgarren kapituluan, ikuspegi kuantitatibo batetik, diskurtsoaren fikziozkotasunaren kontu ematen dut eta zerrendatzen dut ondoko kapituluan tresna diskurtsibotzat baliatuko dudan fikziozkotasuna; seigarren kapituluan, diskurtso nagusiaren egitura teorikoa deskribatzen dut eta, ondoren, fikziozkotasunak diskurtso-antolamendu teorikoan hartzen duen tartea nabarmentzen dut.

#### **V. Sartrearen obren laburduren zerrenda**

Ikerketan zehar, Sartrearen obretako hitzez hitzeko aipurik egin dudanean, erreferentzia emateko izenburuen laburdurak erabili ditut. Agertzen diren hurrenkeran ematen ditut hemen. Laburdura gehienak Noudelmann & Philippe (*Dictionnaire Sartre*, 2004) autoreek izenburu horiek laburtu bezala laburtu ditut nik ere. Bi salbuespen daude: batetik, “Visages” artikulua, ezen aipatu hiztegi horrek, laburdurarik eman gabe, testu hori *ÉdS* (*Les Écrits de Sartre*, 1970) testu-bildumaren barrukotzat jotzen baitu;

bestetik, Sartreren eleberriak, hiztegi horrek ez baititu laburduraz ematen. Eleberrietarako, beraz, inizialak erabili ditut.

Bestalde, ondoko zerrendak erakusten duenez, jatorrizko edizioa baliatu ez dudanean, obraren erreferentziaren ondoan ematen dut erabilitako edizioarena. Dena den, ikerketan zehar, Sartreren obra bat aipatu badut baina hitzez hitzeko aipurik eman ez, laburdura barik, urtea edo izenburu osoa ematen dut erreferentzia gisa. Eta, arestian aipatutakoa gogoratuz, hitzez hitzeko aipuak Sartreren hitzak direnean, euskaratu egin ditut. Jakina, bere horretan utzi ditut obra jada euskaraz badago.

Azkenik, obra bat baino gehiago biltzen dituzten edizioei dagokienez, *Le Mur* eleberri-bildumako lehen eleberri laburra, adibidez, euskaratuta dagoenez, bere horretan ematen dut; baina ez ondoko beste eleberriak. Halere, bilduma horretako beste eleberri laburren izenburua komatxoan artean zehazten dut; eta guztiak, nolana ere, *LM (Le Mur)* iturri-kodearen azpian doaz. Berdin jokatu dut, esate baterako, *Les Mouches* antzerki-lana komatxoan bitartez zehaztu dudanean, hori eta *Huis Clos* antzerki-lanak biltzen dituen *HC* iturri-kodea ematearekin batera.

*EN: L'Être et le Néant* (Gallimard, 1943).

*M: Les Mots* (Gallimard, 1964). Éd. Folio, 1972.

*TE: La Transcendance de l'Ego (Recherches Philosophiques)*, 1936). Vrin, 2003.

*S1, S2, S3 (...)* *S10: Situations I, Situations II, Situations III (...)* *Situations X* (Gallimard, 1947-1976).

*SG: Saint Genet, comédien et martyr* (Gallimard, 1952).

*EH: L'Existentialisme est un humanisme* (Nagel, 1945). *Existenzialismoa humanismo bat da* (Itzultzailea, Juanita Atxabal). Kriselu, 1989.

*RQJ: Reflexions sur la question juive* (Paul Morihien, 1946). Gallimard, 1954.

*CM: Cahiers pour une morale* (Gallimard, 1983).

*B: Baudelaire* (Gallimard, 1947). *Baudelaire* (Itzultzailea, Aurora Bernárdez). Alianza Editorial, 1984.

*HC: Huis Clos suivi de Les Mouches* (Gallimard, 1944). Éd. Folio, 1972.

**LS:** *Le Sursis* (Gallimard, 1945). Éd. Folio, 1972.

**V:** Visages. In M. Contat & M. Rtbalka (ed.). *Les Écrits de Sartre* (Gallimard, 1970: 560-564).

**LN:** *La Nausée* (Gallimard, 1938). *Goragalea* (Itzultzailea, Monika Etxeberria). Alberdania, Elkar, 2003.

**TS:** M. Contat & M. Rtbalka (ed.). *Un théâtre de situations* (Gallimard, 1974). *Un teatro de situaciones* (Itzultzailea, Mirta Arlt). Losada, 1979.

**LM:** *Le Mur* (Gallimard, 1939). Éd. Folio, 1972. *Paretaren kontra* (Itzultzailea, Mikel Lasa). Kriselu, 1980.

**MS:** *Les Mains sales* (Gallimard, 1948). Gallimard, Livre de Poche, 1963.

**AR:** *L'Âge de Raison* (Gallimard, 1945). Éd. Folio, 1972.

**K:** *Kean, adaptation de Jean-Paul Sartre* (Gallimard, 1954).

**JF:** *Les Jeux sont faits* (Nagel, 1947).

**SG:** *Saint Genet* (Gallimard, 1952).



# LEHEN ZATIA

## ATAL TEORIKOA

Obra mardula izanagatik, Sartrek *L'Être et le Néant* azkar idatzi zuen (1940-1942), kontuan hartzen badugu, behintzat, maila sozialean garai zaila izan zela, gerrako okupazioaren urteak zirela eta Sartre obra idazten joan zela aurretik zenbait koadernotan jasotako oharrekin, kafetegietan idatzitako zirriborroekin eta Simone de Beauvoir lagunarekin egindako bidaietan eta irtenaldietan paper solteetan hartutako oharrekin. Sartrek berak aitortzen duenez, filosofia etenik gabe eta bat-batean idatzi ohi zuen, literatura ez bezala:

Filosofia idaztean ez dut zirriborrorik egiten [...] hartzen dut orri bat, hasten naiz idazten buruan ditudan ideiak, aspalditik ez ditudanak, eta muturreraino daramatzat; agian ez orri bukaeraraino, baina urrun (Beauvoir, 1981: 225).

Beraz, obrak erakusten duen ‘barrokotasuna’ ilustraziozko adibideei dagokienez, baldin eta fikziozkotasunaren presentzia egituratzailea eta estrategikoa bada, ikerketa honen hipotesi nagusiak adierazten duen bezala, fikziozkotasunaren distribuzioak patroiren bati obeditu behar lioke. Maristanyk (1987: 268), esaterako, adibideen aukeraketan inprobisazioa baino askoz gehiago ote dagoen susmoa du: “¿Qué subyace en la selección de los ejemplos? Estaba decidido el juego por Sartre desde el principio”.

Ikerketa honetan, Maristanyren gogoeta hori hartu dut abiapuntutzat obraren fikziozkotasuna teoriaren egituratzailea ote den hipotesia formulatzeko. Ordea, hipotesia argitzeko, ezinbestekoa da lehenik zehaztea testuaren egitura zein irizpide teorikoren arabera ulertzen dudan; bigarrenik, fikziotzat, adibidetzat edota pasarte literariotzat zer ulertzen dudan eta zein irizpideren baitan; eta, hirugarrenik, ikerketa-corpusak zer adierazten duen ikuspegi filosofiko-teoriko batetik. Atal hau ikerketaren eskakizun hori betetzera dator.

## LEHEN KAPITULUA

### 1. Ikerketa-corpusaren egitura atzemateko irizpide nagusiak

#### 1.1. Bi ikuspegi ikerketa-corpusaren egiturari erreparatzeko

##### 1.1.1. Egitura testu ororen nahitaezko baldintza gisa

Testua testu izateko, ausazko eta nolanhiko segida transfrastiko hutsa izatea ez da nahikoa. Testu orori suposatzen zaio batasuna, koherentzia eta izaera beregaina (Beaugrande & Dresler, 1981). Testua testu da ehundura bat den heinean, etimoari jarraiki, izan ere, *texte veut dire tissu* (Barthes, 1973: 100). Haatik, ‘testuaren ehundura’ adierazpena nolabait tautologiatzat har badaiteke ere, testu batean ehundura hori gauzatzen duten bitartekoak askotarikoak izan daitezke, testu bakoitzak bere parametro propioak eta egituratzeko estrategiak izan baititzake.

Semantikak aspalditik baliatzen ditu egitura adierazten duten hainbat kontzeptu: *artikulazioa*, *makroegitura*, *hierarkia*, *mezu globala* eta *isotopia*, esaterako. Jada Greimasek (1966), adibidez, arreta mezuaren batasunean jarri zuen eta esanahia unitate-egituratan antolatutako osotasuntzat hartu zuen. Era berean, pragmatikaren ikuspuntutik, Austin (1975 [1962]) aitzindariak ikusi zuenez, testuan situazio komunikatibo-ilokutibo osoa hartu behar da kontuan, situazio linguistiko globala ezin sinplifikaturik.

Hizkuntzalaritzan jakintzat ematen da testua emendio hutsa barik esanahi eta hizketa-egintzen antolamendu bat dela goi-helburu bat duena. Adibide konkretu batera jotzearen, Botet (2007) pragmatikariarentzat, esaterako, Nietzschek *Also sprach Zarathustra* obra filosofikoaren barne-antolamendua, osotasun gisa, diskurtsoaren ilokuzioan datza, zehazkiago dei eta sedukzio bidezko antolamenduan, informazio kateatu eta lineal batean baino gehiago.

Testuaren teoriaren arabera, 60-70ko hamarkadakoan batez ere, semantikak eta pragmatikak bermatzen du testu-egitura. Hala, testu batean gauzatzen den batasuna eta kohesioa ez du zertan konektibo, lokailu edo ageriko zeinahi beste gailuren presentzia hutsak bermatzen. Gailu horiek ez dira ezinbesteko; areago, egonik ere, testua semantikoki eta pragmatikoki ere lotuta ez badago, ez dira nahikoak batasuna

bermatzeko; horrek zeinahi testutarako balio du: (Van Dijk, 1980a: 234): “los mismos principios generales son necesarios para regular la producción de cualquier tipo de información compleja”.

Barthesi (1966) jarraiki, esate baterako, testu baten irakurketa, testua ehundura den heinean, ez da inoiz ez horizontala ez homogenoa izaten; testu ororen irakurketan intentsitateak eta erritmoak daude. Autore horrek ‘artikulazio’ eta ‘hierarkia’ adigaiak aipatzen ditu; horrela, testu-unitateak artikulatu egiten dira, hierarkikoki antolatzen eta konbinatzen dira.

Ikuspuntu kognitibo batetik ere, testuaren teorian gertutik doaz barneratzen den informazio-multzoa eta testu-egitura. Van Dijk autorearen lanak (1980b; 1983; 1996), esate baterako, ildo horretatik doaz. Zera, testu bat ez da sintaktikoki barneratzen eta gogoratzen, semantikoki eta pragmatikoki baizik, proposiziotan eman litezkeen egitateen errepresentazioen bidez. Ezin da ere gogoratu informazio osoa edota bere aspektu guztiak. Memorian, oro har, ulermenerako informazio baliagarria gelditzen da batik bat: beti egiten da informazioaren selekzioa, nahitaez.

Zeinahi dela testu-mota, testu orok antolamendua eskatzen du, ez derrigorrez logiko-kronologikoa, eta antolamendu gisa irakurtzen da. Bachelard (1970: 137) autoreak, esaterako, E. Poeren narrazioa hizpide duelarik, irakurketa logiko-kronologikoaren alboan, ametsean eta irudimenean oinarritutakoa proposatzen du. Eta Grossmann (2010: 10) autoreak, adibidez, diskurtso teorikoek sarri baliatutako erreferentziei eta aipuei balio bideratzailea egotzen die: "Los nombres propios de los autores funcionan como balizas que identifican la fuente de un saber".

Ikerketa honetako corpusari, beraz, hasteko, osotasuna eta egitura aitortzen dizkiot. Hori hala da, hala behar du, hori ez dut lan-hipotesi bezala baliatuko. Ordea, egitura hori zertan oinarritzen den azaltzeko, hobeto esateko, aditzera emateko zeren baitan gauzatzen den egitura hori edota zeri erreparatu behar zaion, kontuan izanik askotarikoak direla testu baten egituren parte hartzen duten elementuak edo aspektuak, ikerketa honetan, lehen urrats eta zedarrri gisa, testuaren teoriako funtsezko bereizketa batean ipiniko dut arreta, alegia, ‘testu’ eta ‘diskurtso’ adigaien arteko ñabardura teorikoan.

### 1.1.2. Testua vs. Diskurtsoa

Adamek (1990, 1992) bi adigai horiek bereizi zituen eta bi teoriiazazio-ardatzen baitan banatu zituen: alde batetik, testu-gramatikarien ikuspuntuari dagokiona, hots, *testua*; eta, beste alde batetik, diskurtsoaren analisia deritzan arloarena, hots, diskurtsoaren ekoizpena erdigunetzat duten ikerketena. Autore horrentzat, eta gerora hainbat autorek ere definitzen duten bezala, Bassols & Badia (1997) autoreen lanak kasu, *diskurtsoa* hitzez egindako objektu bat den neurrian, berez *testua* ere bada, baina ez, ordea, bere adiera hertsian edo teknikoan.

Bere adiera hertsian, testua objektu teoriko eta abstraktua da, zera, ekoizpen-baldintzak alde batera uzten dituen idazketa-emaiza enpirikoa. Eta diskurtsoa, berriz, nolabait esateko, zera litzateke, testua ‘funtzionamenduan’ ulertuta edo interakzioan. Horra Adamek (1990, 1992) baliatzen duen eskema:

***DISCOURS = TEXTE + CONDITIONS DE PRODUCTION***

***TEXTE = DISCOURS – CONDITIONS DE PRODUCTION***

Egunerokoan ‘testu’ terminoa erabiltzen dugu bi adigaietarako, izan ere, biak baitira hitzeko objektu enpiriko. Kontua da, terminoak termino, hitzeko objektu horren analisia bi ikuspegi orokorretatik egin daitekeela. Nolabait esateko, testu-gramatikak testua hitzeko ekoizpen enpiriko gisa eta hainbat osagai esanahidunen unitate-antolamendu gisa aztertzen du; eta diskurtsoaren analisiak arreta testuaren ikuspegi enuntziatibo-komunikatiboan jartzen du.

Zera, testua printzipioz ulertu behar da hitzeko objektu enpiriko abstraktu bezala; eta diskurtsoa, aldiz, hitzez ‘igortzen den’ ekoizpen bezala. Horrela, bada, Van Dijk (1996) autoreak irizten dionez, testu-gramatikak ez ditu aintzat hartzen testu-igorlearen ekoizpen-baldintzak, horren hurbilpenak bakarrik egin ditzake. Gramatika batek testuak deskribatzen ditu bakarrik, beraz, diskurtso-egitura atzemateko, hurbilpen hutsean gelditzen da; errepikakorrak diren eta sistematikoki agertzen diren egituren kontu eman dezake, baina hori bakarrik.

Kontua zera da, Azpeitiak bere tesian (2012: 56) adierazten duen bezala, “diskurtsoa, aztergai bihurtzen den unetik bertatik, unitate izatera iristen da, eta zentzu horretan

produktua da, estatikoa da. Beraz, alde horretatik, praxis mailan edo analisi-unitate bezala, biak sinonimo lirateke eta batak zein besteak objektu bera ematen du aditzera”. Ikerketa honi dagokionez, ordea, corpusari erreferentzia egitean, ‘testu’ zein ‘diskurtso’ adigaiak printzipioz sinonimotzat harturik ere, hitzezko objektu enpirikoari (hots, corpusari) nola deituko zaion baino gehiago, argitu behar da batik bat zertaz dihardugun horiek aipatzean.

Ikerketa honetan, testu-egituraz bainoago diskurtsoaren egituraz jardungo dut batik bat. Izan ere, azalduko dudan bezala, fikziozkotasuna nahiz testuaren egitura globala atzemateko, enuntziatioan erreparatuko dut; eta zehatzagoa izateko, enuntziatzailean. Horregatik, corpusari ‘testu’ edota ‘diskurtso’ deiturik ere, berau ikuspegi komunikatibo batetik ulertzen dut beti, hau da, hitzez ekoiztutako objektu-emaiza bukatu eta autonomotzat esatari batek norentzako bati igorria dena testuinguru jakin batean eta ekoizpen-baldintza eta ekoizpen-asmo batzuen arabera. Halaber, ikerketa-corpusa den testuari, definizioz, perpausa baino maila goragoko hizkuntza-unitate mugatu baten kohesio-koherentziatzko antolamendua aitortzen diot.

Funtsean, ikerketa hau diskurtsoaren arlora hurbiltzearen hautua ikerketaren beraren eskakizuna da. Diskurtsoa (hots, testuaren ikuspegi komunikatiboa), hasteko, adigai zabalagoa edo orokorragoa da testu soila baino. Martín Menéndezek (1995), *testu / diskurtso* bereizketa egitean, diskurtsoa ulertzen du testuaren eta testuaren subjektuaren [sic] emendiotzat; horren arabera, diskurtso-azterketaren abiapuntu naturala testu-azterketa litzateke. Eta zehazki diskurtsoaren egiturari dagokionez, autore horrentzat, nahitaez subjektuari jarri behar zaio arreta, entitate horrek antolatzen baititu testuko baliabideak norentzakoak testua koherenteki berreraiki eta interpreta dezan.

Adigai-kontuei gagozkielarik, antzeko bereizketa zor zaie *kohesio / koherentzia* terminoei ere. Kohesioa gramatikako ezaugarria da eta testu-ezaugarriek definitzen dute; hori lexikoari eta gramatikari esker lor daiteke; koherentzia, ordea, diskurtsokoa da, estrategia-mailakoa (Martin Menéndez, 1995, Charolles, 1988). Oro har, hizkuntzalariak bat datoz, ez hainbeste terminologian baina bai ekoiztuaren eta ekoiztearen arteko bereizketa bikoitz horretan, hau da, *testu / diskurtso; kohesio / koherentzia*; edota, azken batean, baita *perpaus / enuntziatu* ere (Slakta, 1977).

Dena den, ikerketa honen xedea ez da hiztegi bat zehaztea eta definizio zehatzena asmatzen ibiltzea, baizik eta garbi uztea corpusari aitortzen dizkiodan bi ezaugarriak, alegia, objektu enpiriko antolatua izatea eta esatari-subjektu ‘antolatzaile’ baten hizketa-egintza izatea; eta biak hartzen ditut egituraduntzat. Hala, testuaren azterketaz dihardudanean, testuaz bezainbat diskurtsoaz jardungo dut.

Edozein kasutan, diskurtsoaren subjektu egituratzaile (koherentzia bermatzaile) bat egoteak ez du adierazi nahi testu-objektuak enuntziatio-subjektuaz landa, elementu egituratzaile propiorik ez duenik (kohesio bermatzaile); alderantziz, elkarren osagarri dira (Conte et al., 1989). Autore horiek bereizten dute testuaren kanpo-koherentzia (subjektu esatari batek ematen diona testua koherentzetzat interpreta dadin) eta barne-koherentzia (testuari aitortzen zaion berariazko koherentzia). Ildo horretatik, nireak egiten ditut Azpeitiaren (2012: 59) tesiko hitzak:

Interpretatzea “puzlea” egitearen pareko egintza da. Helburua, koherentziako irudia eratzea da, eta horretarako hainbat pieza sortu beharrean aurkitzen gara [...] baina subjektuak koherentziako irudia eratzeko ezinbestekotzat jotzen dugu testuak berak barneko koherentzia izatea. Alegia, kanpoko koherentziaren oinarri-oinarrian dago barneko koherentzia, eta bata bestea gabe hanka-motz dakusagu.

Horrenbestez, ikerketa honetako corpusari buruz, bi antolamendu-mota izango ditut gogoan. Alde batetik, testuaren sakoneko egitura hierarkikoa testu-unitateka ordenatzen da eta unitate-multzoka eratzen da; testu-unitateak proposizio-terminotan adierazten dira. Beste alde batetik, enuntziatzailearen enuntziatio-prozesua informazioa ordenatzeko, egokitze eta antolatzeko intentzio komunikatibo baten ikuspegitik egituratzen da. Enuntziatioa ere proposizio-terminotan adierazten da.

## **1.2. Lehen egitura-irizpidea: testuaren egitura sekuentziala**

### **1.2.1. Testuaren makroegitura eta superegitura**

Testua testu izateko ‘makroegitura’ behar duela esaten denean, testuaren koherentziari egiten zaio erreferentzia. Makroegitura ikuspegi semantikotik ulertzen den testu-egitura da. Testu baten makroegitura zein den adierazteko tresna ‘proposizioa’ da. Baina adigai hori ez da hartzen logikaren ikuspegitik ulertzen den bezala, hau da, egia edo faltsua izan daitekeen enuntziatutzat, baizik eta testu-hizkuntzalaritzak ulertzen duen bezala,


zera, testu edota testu-zati baten informazio semantikoa biltzen eta laburbiltzen duen enuntziatutzat.

Beraz, testu-makroegitura batek jakintzat ematen du egitura horretako parte diren osagaiak semantikoki lotuta daudela, hain zuzen ere, testuaren mintzagai edo topiko jakin baten baitan. Testu-mintzagaia horrela definitzen du García Berriok (1983: 145): “estructura semántica nuclear de un texto [...] resumen mínimo del texto, el resultado mínimo de la recepción de un texto, de la cual forma parte una serie de operaciones de sumarización”.

Horrela, testu-makroegitura batean, informazioa multzokatu egiten da eta multzo horiek elkarri lotzen zaizkio. Lotze-funtzio horri ‘funtzio topikoa’ esaten zaio. Hala, informazio-multzoak ulertzen dira informazio zahar edo ezagunaren (topiko edo mintzagaiaren) eta informazio berriaren (iruzkin edo fokuari) arteko kateatzea bezala. Multzo bakoitzak, berau biltzen duen mintzagai eta iruzkina barne, makroegituaren lehen osagaiak dira, testu-unitate zabalenak. Unitate horiek, ostera ere, informazioaren antolamendu propioa baitute, azpi-multzotan banatzen dira.

Testu baten makroegitura proposizio orokor batek biltzen duen bezala, berorren azpiatalek edo osagaiak ere proposizio batek (labur)biltzen ditu. Proposizio horiei ‘mikroposizio’ esaten zaie. Horrela, bada, testu-makroegitura batean informazioaren zerekikotasuna, hots, erlatibotasuna kontzeptu giltzarria da: testuan (horizontalean, nahi bada) interdependentzia bat gertatzen da geruza bereko osagaien artean; eta baita egituraren gorago eta beheragoko geruzekin ere (bertikalean, nahi bada). Van Dijken (1983: 56) grafikoaren arabera:

1.2.1. Grafikoa: Makroegituraren antolamendua proposiziotan (Van Dijk, 1983).



Dena den, testu batek mintzagai bat baino gehiago eduki dezake, edo testu bakar batek topiko partzialak eduki ditzake hierarkikoki antolatuta, adibidez, atal autonomo batena liburu osoarekiko edo pasarte autonomo batena atal batekiko. García Berriok (1983) horri ‘*tópico de episodio*’ deitzen dio. Haatik, ez dute zertan bat etorri beti kapituluaren mugak eta topikoarenak; topiko partzial batek kapitulua gaindi dezake edo kapitulua baino txikiagoa izan daiteke. Makroegitura, azken batean, liburu baten epigrafeen argitan barik, testuko mintzagaien argitan ulertzen da. Eta, beraz, 1.2.1. grafikoa kontuan hartuz, testu bakoitzak bere ‘zuhaitz-forma’ propioa daukala esan daiteke.

Bestalde, makroegitura oro errekurtsiboa dela esatea zilegi da, proposizioen geruzetan beti gorago jo baitezake, baita liburu oso batera eta autore baten obra osora ere helduz. Horregatik, makroegitura berez testu jakin baten sakoneko egituraren ‘marrazki’ bukatu bat bezala uler daitekeen arren, azken batean, testu osoagoa aztergai hartuta eta proposizio-geruzetan gora joz gero, zeinahi makroegitura izan daiteke, funtsean, egitura handiago, zabalago eta osoago baten mikroegitura bat. Horrela, Van Dijentzat:

La macroestructura no se obtiene por creación de uniones locales suplementarias, sino que es el resultado de una especie de transformación semántica, que asocia las secuencias de proposiciones del texto con macroproposiciones de un contenido más abstracto, más general, más global. (Van Dijk, 1983: 116)

Oro har, makroegitura zein mikroegitura bat proposizio batean biltzeko, paragrafoa da testuan bistaratzen den lehen elementua perpausaz harago dagoena, unitate-semantikotzat ere jo daitekeena eta proposizio batean eman daitekeena (Longracre, 1979). Baina paragrafoaz harago, testu baten unitate semantikoak atzemateko, Van Dijkek (1983, 1996) hainbat *makro-erregela* proposatzen du. Makroerregela horiek bi multzotan sailka eta laburbil daitezke:

**i) Informazioaren ezabaketa:**

- Errelebantea ez den informazioa ezabatu egiten da.
- Lehen eta bigarren mailako informazioa bereizi egiten da.
- Makro-operazio honetan informazioa errekueraezina da.



## ii) Informazioaren ordezkapena:

- Proposizio batek beste proposizio bat edo hainbat ordezkatzeko ditu.
- Informazio ordezkaturik testuko ez ezik berria ere izan daiteke.
- Informazioa orokortu egiten da, baina orokortzeak gutxienezkoa izan behar du, gehiegizko orokortzeak absurdora eramanez baitezake, mugarik gabe testu oro muturreraino erreduzi baidateke: [*norbaitek zerbait egin du*] edo [*hori*].

Nolanahi ere, testuaren makroegituraz gain, bada beste testu-gainegitura bat kontuan hartzea merezi duena: testuaren superegitura. Superegiturak ez dio sakoneko egiturari erreferentzia egiten, baizik eta hurrenkerazko eta azaleko distribuzioaren antolamenduari, nolabait ere, irakurketa gidatzeko balio duen antolamenduari. Makroegitura bezalaxe, superegitura testuaren globaltasunari dagokio bete-betean, baina koherentzia gisa baino gehiago jokatzen du egitura sintaktiko eta egokiro ordenatu gisa.

Bestela esateko, superegitura testuari egokitzen zaion testu-eskema globala da, baina ez da definitzen beste unitate isolatu batzuen arabera, makroegitura batean mikro- eta makroproposizioek egiten duten bezala, baizik eta testu-hari osoaren arabera. Horrela, testu batean, informazio-multzoak modu batera edo bestera ordenatzen eta konbinatzen dira (konbentzioz, oro har); adibidez, errekapitulazioa, aurrerapena, laburpena, episodioa, trama, konplikazioa, iragarpena, arazoaren azalpena, korapiloa, demostrazioa, justifikazioa, suposizioa, batzuk bakarrik aipatzearen.

Testu-mota zenbaitek, gainera, superegiturazko 'arau' propioa izan dezakete: sermoia, konferentzia, akusazioa, eskaera, akta, ipuina, legea etab. Zehazki ikerketa-corpus honi dagokionez, Philippe (2002a), Leak (2011) eta Temmar (2013) autoreek *L'Être et le Néant* obra filosofikoari tratatu baten tankera eta programa filosofiko eta akademiko baten tajua hartzen diote, nahiz eta liburua berez saiakeratzat aurkezten den bigarren izenburuan: *essai d'ontologie phénoménologique*. Izan ere, obra horrek modu kategorikoan formulatzen eta garatzen ditu tesiak, baina frogatzeko asmoa baino gehiago urratsez urrats programa jakin bat azalduko balu bezala, diskusio posiblerik ez balego bezala, eztabaidarako tartea txikia balitz bezala.

Ordea, testu-generoan baino gehiago hizkuntza-markatzaileetan arreta jarritz, testu baten superegitura-unitateak atzemateko, badira errepara daitezkeen hainbat espresio-mota lagungarriak gertatzen direnak, superegitura bateko sekuentzia edo unitate baten aldaketa adierazten duten heinean. Espresio markatzaile horiek indikadore topikoak dira, ‘*topic indicators*’ (Van Dijk, 1980b: 103, 223). Horrelakoak, testu teoriko-zientifikoetan agertzen dira batez ere, eta sarri metadiskurtsoari dagozkio, adibidez: *hitz egingo dugu...; atal honetako gaia...; errepika dezagun...;* eta abar. Kotschi (1986: 208) autoreak ere metadiskurtsoaren funtzio egituratzailea gogorarazen du:

Les procédés discursifs COMMENTER et EVALUER (ainsi que beaucoup d’autres, comme p. ex. PARAPHRASER, PRECISER, THEMATISER, COMPLETER) sont en fait des actes verbaux d’un type particulier que nous dénommons “actes de composition textuelle”.

Beraz, superegiturak ordena batez hornitzen du testua eta horrek testuaren ulermena gidatzen du eta testuari testuinguru eta euskarri kognitibo bat ematen dio, alegia, testua barneratzen laguntzen du. Testuaren interpretazioa erraztu egiten da superegiturari esker, izan ere, testu-mota ezagutuz gero, egiturari buruzko espektatibak sor baitaitezke (Van Dijk, 1983: 147, 165).

Haatik, Van Dijken (1996) beraren iritziz, testu izateko testu orok makroegitura behar duen bezala (beronek bermatzen bide baitu testuaren testualtasuna), superegitura ez da ezinbestekoa (tradizioak markatutako testu-ezaugarria baita, konbentziosko eskema bat). Edozein kasutan baina, superegiturarik baduten testuetan, testu horien interpretazioa eta ulermena erraztu egiten bide da nabarmen.

### **1.2.2. Sekuentzia-bidezko testu-plana**

Testu-antolamendu jakin bat arras instituzionalizatuta egon daitekeen arren, esaterako, filosofiako tratatu akademiko klasiko bat, testu bakoitzak bere tankera propioa erakuts dezake eta erakusten du. Ez da ikerketa honen mugetan sartzeko ikerketa-corpusari genero eta testu-tipologiaren esparruetatik heltzea; baina tentuz jokatu behar dugu testu-mailako kontzeptuekin, esaterako, [*tratatu filosofiko = argudiozko testu*] eta [*fikzioa = narraziozko testu*] bezalako igorpenak ez egiteko.

Testugintza ez da modu hertsian ulertu behar, alegia, pentsatuz testu batek testu-tipo jakin bati dagozkion ezaugarri guztiak izango dituela eta ezaugarri horiek bakarrik, gainera. Azpeitiak (2012: 73 eta hurr.) bere tesian gogorarazten duenez, nekez esan ahalko dugu argudioa, azalpena, deskripzioa eta abar testu-tipoak edo testu osoak direnik, horiek gehiago baitira testu zatiak sailkatzeko balio duten kategoriak. Oro har, testu-tipoak uztartuta agertzen dira.

Adamek (1987: 54 eta hurr.) ikusten duenez, areago, testu-hizkuntzalaritzak testu-tipologia albo batera utzi behar du, ekoizpen diskurtsiboa den heinean, testua objektu aski konplexua delako osotasun gisa; unitate erabilgarriagoei erreparatu behar zaie. Autore horrek testu-heterogenotasunaren aldarria egiten du eta berezko testu-unitatetzat 'sekuentzia' hartzen du.

Nolabait esateko, testu-sekuentzien teoriak *superegitura* eta *makroegitura* adigaiak uztartzen ditu. Sekuentziek eta mikrosekuentziek osatzen dute testu-plana (Adam, 1987: 57): "un plan de texte ou une super-structure comprennent *n* séquences de *n* macro-propositions comprenant elles-mêmes *n* micro-propositions". Hala, testu batean sekuentziak kateatu egiten dira eta katebegi bakoitzak sakoneko egitura bat ohi dauka.


Horrela, Adamek (1992: 30) adierazten duenez, sekuentzia nagusi batean, txertatze-harremanak gertatzen dira (*relation d'insertion*) azpi-sekuentzien artean (narrazioa, deskripzioa, argudioa, azalpena eta dialogoa) eta elkarri lotzen zaizkio: [sek. argudio (sek. narrazio)]; [sek. narrazio (sek. deskripzio)] eta abar. Beraz, sekuentzia nagusi batean (*dominante séquentielle*), sekuentzia txertatzailea (*insérante*) eta sekuentzia txertatua (*insérée*) bereiz daitezke.

#### **[# Texte # [Séquence(s) [Macro proposition(s) [Proposition(s)]]]]**

Diskurtsoaren Analisia ikerketa-arlo gisa agertu aurretik, estrukturalismoak jada arreta ipini zuen 'egitura' eta 'sekuentzia' adigaietan. Barthes (1966: 13-14) autorearentzat, esate baterako, sekuentzia bat zera da, "une suite logique de noyaux, unis entre eux par une relation de solidarité [...] ce que l'on pourrait appeler des "micro-séquences", celles qui forment souvent le grain le plus fin du tissu narratif". Diskurtsoaren Analisisian, ordea, testu-egitura beste zerbait da.

Adam (1987, 1990, 1992) autorearen lanen ondoren batez ere, testu-egituraren ikuspegi semantiko-sintagmatikoari baino gehiago, arreta ikuspegi diskurtsiboan jartzen da. Zalantzarik gabe, testu-egitura bati hainbat ikuspegitatik hel dakioko. Adamek (1992: 17) berak diskurtso ororen konfigurazioa diagrama batean biltzen du, non eta *sekuentzialitatea* hartzen baitu testu-heterogenotasunaren adierazle behinena bezala (ondoko grafikoan B2 testu-antolamenduari dagokiona).

1.2.2.a Grafikoa: Diskurtsoaren antolamendua J.-M. Adamen (1992) arabera.



Genevako eskolak Adamen lanei jarraipena ematen die. Genevako ereduak testuaren konfigurazio-moten konbinazioaz eta interakzioaz kontu ematen du eta, horretarako, testu-konfigurazio moten erlazio heterarkikoan erreparatzen du. Hala, Genevako eskolako hainbat lan teorikok (Roulet, 1991a, 1991b; Roulet, Filliettaz, Grobet, & Burger, 2001) diskurtsoaren dimensio egituratzaile guztiak ardatz hirukoitz batean sailkatzen dituzte: ardatz linguistikoa, ardatz diskurtsibo-testuala eta situaziozko ardatza. Testu-egitura oro konfigurazio-modulu zerrenda mugatu baten barruan sailkatzen dute, non eta helburutzat batik bat modulu horien arteko osagarritasunari erreparatzea hartzen duten.

Ikerketa honetan, corpora sekuentzia-unitatetan bereiziko dut eta sekuentzien egituraz emango dut kontu. Horretarako, Genevako eskolako moduluen teoria hartuko dut oinarri, baina testualtasunaren dimensio egituratzaile posible guztien artean, arreta ipiniko dut zehazki modulu-ardatz hierarkikoan eta ardatz horrek gordetzen duen

erlazioan testu-antolamendu enuntziatiboarekin eta sekuentzialarekin; nahiz eta jakitun izan Genevako eskolak modulu guztien uztartzea duela xedetzat, eta moduluen arteko osagarritasuna aldarrikatzen duela. Horregatik, izan ere, gurea baino askozaz testu laburragoak izan ohi ditu aztergai.

Beraz, analisi modular baterako Roulet et al (2001: 51) metodoak proposatzen duen ondoko eskemaren arabera, alde batetik, lehen zutabea dimentsio hierarkiko-testualari erreparatuko diot; eta, antolamendu-motei dagokienez, berriz, bigarren zutabea, hau da, testuaren oinarritzko antolamenduan, modulu enuntziatiboari eta sekuentzialari erreparatuko diet. Azken batean, ikerketa honek kontu eman behar du corpusak ikuspegi enuntziatibo eta sekuentzial baten ikuspegitik nola egituratzen den hierarkikoki, fikzioak egitura horretan tarterik duen atzeman ahal izateko.

*1.2.2.b Grafikoa: Modulu-analisirako eredia Genevako eskolaren arabera.*

	MODULES	FORMES D'ORGANISATION	
	dimensions	élémentaire	complexes
LINGUISTIQUE	lexical	phono-prosodique ou graphique	
	syntaxique	sémantique	
TEXTUEL		relationnelle	periodique
	hiérarchique	informationnelle	topicale
		énonciative	polyphonique
SITUATION		séquentielle	compositionnelle
	référentiel	opérationnelle	stratégique

Adamek (1993) gogorarazten duenez, testu oro heterogenoa ohi da, albo batera utzita noski sekuentzia-mota bakarreko eta bereko testu-zatiak. Beraz, diskurtsoaren analisi orok erreparatu egin behar dio lehenik heterogenotasun horri. Ikerketa honetan aurreikusten dudanez, corpusa hainbat sekuentzian ebakitzen da, non eta sekuentzia bakoitza hainbat proposiziok osatzen duten.

Dena den, Adamek (1987, 1992) bereizten dituen bost sekuentzia-moten artean, bereziki biren arteko uztartzean ipiniko dut arreta: narraziozko sekuentzia (gertakizun-sekuentzien segida) eta argudiozko sekuentzia (ideien sekuentzia logikoa). Baina sekuentzia narratibotzat eta argudiozko sekuentziatzat ez dut ulertzen itsu-itsuan, eta hurrenez hurren, fikziozkotasuna eta argudio teorikoa, gerta baitaiteke argudio teorikoa narrazio-bidez ematea eta, alderantziz, fikzioa kontzeptu teorikoen bidez ematea. Horra, beraz, definizioz, zer den bakoitza:

**-Sekuentzialitate narratiboa:** Sekuentzia-mota honek zerbait kontatzea du xedetzat eta kontaketa hori progresio lineal batean adieraz daiteke hainbat urratsetan; urrats bakoitza proposizio batean adieraz daiteke. Adamek printzipioz bost funtzio (*n* esaldidunak) ikusten dizkio gutxieneko narrazioari:

**[orientazioa → konplikazioa → ebaluazioa → erresoluzioa → morala]**

Baina eredu boskoitz hori (*modèle quinaire*) hiruko progresio gisa (*logique triadique*) ere eman daiteke eta progresio lineala sinplifikatu:

**[oreka → desoreka → oreka]**

**-Sekuentzialitate argudiozkoa:** Sekuentzia-mota honek konbentzitzea du xedetzat. Adamentzat, argudiozko sekuentzia izan daiteke progresiboa zein erregresiboa, hau da, argudiotik ondoriora eta alderantziz. Tesiak, tesien garapena eta ondorioak proposiziotan adieraz daitezke. Orobat, tesi baten alde zein kontra egiteko, prozedura bat bera da:

**[aurreko tesia + premisak ↔ argudio-hedadura ↔ ondorioa (tesia berria)]**

Nolanahi ere, ikerketa honetako corpusari dagokionez, fikziozkotasunari buruzko kapituluan azalduko dudan legez, sekuentzialitate narratiboan ez ditut aurreikusten derrigorrez sekuentzia narratibo osoak, bukatuak eta funtzio guztiak osorik betetzen dituztenak, baizik eta kontakizunaren tankera duten enuntziatu txertatuak, kontakizunaren urrats guztiak bete ez arren.

Era berean, sekuentzialitate argudiozkoari dagokionez, ez dut zentzu hertsian hartuko argudiozko sekuentziari aitortzen zaion frogatzeko eta konbentzitzeko bokazioa; ez dut neurtuko argudioak tesia eusten duen edo zenbateraino asetzen duen; eta ez dut xedetzat

testuko argudioaren dispositiboa atzematea eta testu-egitura argudio-sare baten argitan adieraztea. Besterik gabe, arreta argudiozko tesietan ipiniko dut, bai abiapuntuzko tesietan, bai tesi horien garapenean edo hedaduran eta baita ondoriozko tesietan ere.

Litekeena da ikerketa honen corpusean batzuetan bat etortzea azalpena eta argudioa, edo bataren eta bestearen mugak garbiak ez izatea. Oinarrian, halere, azalpenezko sekuentziak eta argudiozkoak bat egiten dute beren progresio-motan; sekuentzialitateak garbi markatzen ditu hasiera eta ondorioa. Helburu komunikatiboak desberdintzen ditu biak. Ikerketa honetan, tesien identifikazioari dagokionez, ez naiz ñabardura horretan sartuko, azken batean, Adamen sekuentzia-tipoen eskemari jarraiki, azalpenezko sekuentzialitateak ere informazioa linealki ordenatzen du eta progresio hori proposiziotan adieraz daiteke:

**[hasiera ↔ (arazoa/galdera---azalpena/erantzuna) ↔ ondorio/ebaluazio]**

Bestalde, aipatu behar da diskurtso-motak (definizioz ezaugarri eta helburu jakin bat dutenak) eta diskurtso-mota horiek testuan duten egitekoak ez dutela beti zertan bat etorri. Adamek kontatzea eta konbentzitzea egozten zien hurrenez hurren sekuentzialitate narratiboari eta argudiozkoari. Genevako ereduarentzat baina, antolamendu sekuentzialak, hirukoitza berau, testu-sekuentzia eta testu-konposizioa bereizten ditu. Hala, Genevakoentzat (Roulet et al., 2001: 312) hiru dira diskurtso-tipoak testu-sekuentziak antolatzeko:

**-Diskurtso narratiboa:** Diskurtso-tipo honek bi printzipio erreferentzial ezberdin ditu oinarrian: bata, gertakizunen kateatzea; bestea, munduen desitsastea. Bi erreferentzia-mundu bereizten ditu, ezberdinak espazio-denboraren argitan eta logikaren argitan: bata, uneko aktibitate linguistikoak parte hartzen dueneko (kontatzen den horrena); bestea, gertakizunen errekapitulazio-prozesuari dagokiona (narrazioaren enuntziaziokoa).

**-Diskurtso deskriptiboa:** Gai-ardatz bat finkatzen da (*ancrage*) eta ardatz hori berori aspektualizatzen da, erlazioan jartzen eta tematizatzen.

**-Diskurtso deliberatiboa:** Enuntziazioaren aspektu komunikatiboari eta interaktiboari dagokio.

Diskurtso-mota horiek isolagarriak dira. Ordea, testu-konposizioaren aldetik, adibidez, diskurtso deliberatibo batek efektu narratiboa izan dezake berez diskurtso narratiboa izan gabe, eta abar. Orduan, jada ez da ebidentea gertatzen konposizioaren ikuspegitik sekuentziak hartzen duen izaera. Genevako eskolak hiru efektu diskurtsibo bereizten ditu:

**-Efektu argumentatiboa:** Konektore, modalizazaile, hiztegi axiologiko eta denborazko konfigurazio jakin baten erabilera; era beran, argudioa, kontra-argudioa, birformulazioa eta argipena bezalako erlazio interaktiboak.

**-Efektu autotelikoa:** Diskurtsoaren dimentsio auto-erreferentzialera igortzen du. Efektu horiek izan daitezke foniko, sintaktiko, semantiko, lexiko zein testualak. Jakobsonen (1963) funtzio poetikoarekin lot daitezke.

**-Efektu narratiboa:** Denborazko organizazio-markek eta *aurrekari* eta *jarraipen* gisako erlazio interaktiboek, konposizioaren aldetik, tankera narratiboa eman diezaiokete diskurtsoari.

Horrela, bereizketa ez da hainbeste *narrazio / argudio*, baizik eta narrazioa eta argudioa diskurtso-tipo jakin batek har ditzakeen efektu zehatzak dira, eta ez diskurtso-tipo konkretuak. Ikerketa honetan, argudiozko sekuentzia ulertzen dut hasiera-ondoriozko progresioa duen tesi-kateatze bat bezala, eta, narraziozkoa bezalaxe, proposiziotan eman daitekeena.

Hala, sekuentzia narratiboaren kasuan bezala, kontuan hartuko dut, era berean, Maingueneauk (1976: 169; 1987: 116) azpimarratu bezala, argudioa ezin dela bereizi diskurtsibotasunetik, alegia, enuntziazio-situazio batetik eta esatari-norentzakoaren estatus diskurtsibo eta komunikazio-helburuetatik. Autore horrek aipatzen du argudioak (birtualki bederen) duen izaera dialogikoa.

Horregatik, irizpide erretorikoak ez ezik enuntziazioaren subjektibotasuna bezalakoak ere kontuan hartu behar bide dira testu baten argudiogintzari erreparatzen zaionean. Ildo horretatik, Ducrot (1973, 1980a) autoreak, adibidez, argudioa erretorikaren argitan barik enuntziazio-situazioarekin lotuta ulertzen du; eta esatariaren goi-helburuak direla eta, argudioaren ikuspegi pragmatikoaz mintzo da, nahiz eta batez ere konektoreak lantzen



dituen. Ducrotek bereizi egiten ditu argudioaren eta arrazoitzearen enuntziatu-kateatzearen bi dimentsioak, logikoa eta diskurtsiboa.

[...] dans un raisonnement, l'enchaînement des énoncés n'est pas fondé sur les énoncés eux-mêmes, mais sur les propositions véhiculées par eux, sur ce qu'ils disent ou supposent du monde. La situation est tout à fait différente quand il s'agit d'un discours. Là, l'enchaînement des énoncés a une origine interne, il est fondé sur la nature même de l'énoncé, ou, si l'on préfère, sur son sens, et non pas sur l'état du monde auquel il renvoie (Ducrot, 1980a : 10-11).

Ikerketa honetan, bat egiten dut ildo horrekin, hau da, argudioa, narratibotasuna bera bezainbat, diskurtsoaren koherentzia-faktore nabarmentzat jotzen duten hizkuntzalariekin, esate baterako, Maingueneau (1976), Vignaux (1988), Golder (1996) eta Philippe (2002a). Autore horientzat, testu baten argudioak diskurtsoari edota testuaren dimentsio enuntziatiboari dagozkio eta, beraz, testu baten argudio guztiak estrategia eta eskema global hierarkiko batek biltzen ditu.

Laburbiltzeko, corpusa sekuentzian ebakitzeko eta sekuentzien egituraren kontu emateko, idaztankera narratiboa eta argudiozkoa hartuko ditut batez ere kontuan, hain zuzen ere, narrazioa eta argudioa ez ezik, narrazioaren eta argudioaren enuntziatio-situazioa gogoan izanik. Izan ere, bi enuntziatio-situazio desberdin dira testuan argudioa eta fikziozkotasuna ekoizten dutena, edo enuntziatio-situazio berak sortzen ditu biak? Enuntziatioari erreparatzeak bigarren egitura-irizpidera garamatza: diskurtso-egiturara.

### **1.3. Bigarren egitura-irizpidea: testuaren egitura diskurtsiboa**

#### **1.3.1. Enuntziatio, enuntziatua eta diskurtsoaren ardatzak**

Enuntziatioaren teoriak hiru fenomeno biltzen ditu bereziki (Fuchs, 1980: 152): lehenik, enuntziatioaren instantziak edo enuntziatioaren aktoreak, alegia, subjektu enuntziatzailea (enuntziatu orok inplizitu duen enuntziatu-ekoizlea) eta subjektu enuntziataria (enuntziatu orok inplizitu duen norentzakoa); bigarrenik, enuntziatioaren aktualizazioa (*mise en discours* deritzana), alegia, hizkuntza diskurtso bihurtzen deneko operazio pragmatikoa edo ilokuziozkoa; eta, hirugarrenik, enuntziatua bera, hau da, enuntziatzaileak utzitako lorratza hizkuntza 'diskurtsoan jartze' horrekin batera.

Subjektu enuntziatzailearen instantziari dagokionez, ekintza enuntziatiboari hiru koordinatu egozten zaizkio enuntziatioaren teorian. Maingueneau (1987: 28) hizkuntzalariak azpimarratzen duenez, hiru koordinatu horiek funtzio deiktikoa dute eta, nolabait, enuntziatioa finkatzen duten ardatzak dira: enuntziatioaren **subjektua** (izenordainei erreparatu behar zaie, batik bat, baina aditzak ere sala dezake subjektu enuntziatzailea), enuntziatioaren **kronografia** (denborazko deikiei erreparatu behar zaie) eta enuntziatioaren **topografia** (demostratiboei erreparatu behar zaie). Maingueneauk (1987) eskema honekin adierazten du:

**[JE-TU ↔ ICI ↔ MAINTENANT]**

Zera, enuntziatioa da enuntziatio agertzearen edota ekoiztearen ekintza bera, Ducrotek (1980b: 33) horregatik defenditzen du enuntziatioa eta enuntziatua garaikideak direla eta ez dutela gordetzen kausa-efektuzko erlaziorik, funtsean, hizketa-egintza bakarrean batera sortzen direla. Hala, ikerketa honi dagokionez, enuntziatzailea ez da Sartre gizona edota filosofoa, baizik eta corpusak (alegia, enuntziatuak) berarekin daraman gehigarri moduko bat, hain zuzen, corpuseko ‘edukia esaten ari dena’, eta non enuntziatua, nolabait ere, ‘esate’ hori bera den.

Gisa berean, hartzailea ez da irakurlea, baizik eta enuntziatuak inplizitu daraman norentzakoa. Ageriko hizkuntza-markarik agertu ez arren, Azpeitiak (2012: 37) azpimarratu bezala, “enuntziatu orok bere enuntziatioari egiten dio erreferentzia, nahiz eta horren adierazle ageriko markarik beti ez agertu. Esataria enuntziatioaren beharrezko baldintzen artean sartzen du norberaganatze-prozesuak”. Horrenbestez, enuntziatu orok inplizitu darama enuntziatuaren norentzakoa, arestiko eskeman “*JE-TU*” (NI-ZU) horrek adierazi bezala. Eta enuntziatioaren teorian aitzindari den Benveniste (1970) autoreak adierazi bezala:

Mais immédiatement, dès qu’il se déclare locuteur et assume la langue, il implante l’autre en face de lui, quel que soit le degré de présence qu’il attribue à cet autre. Toute énonciation est, explicite ou implicite, une allocution, elle postule un allocutaire. (Benveniste 1970: 14).

Diskurtsoaren Analisisian eta Diskurtso Filosofikoaren Analisisian egun oinarriztat jotzen den Maingueneau (1987) autoreak, enuntziatioaren teoriaren funtsezko bost hipotesi

formalak azaldu zituen duela hiru hamarkada (Maingueneau, 1987: II. kap.). Ozaetak (2010: 127) euskaraz ematen ditu bere doktorego-tesiaren marko teorikoan. Horra itzulpena, beraz, dagoen-dagoenean:

- a) Enuntziazioak arrastoak uzten ditu enuntziatuan, eta, halaber, informazio implizituak; implizitu horien gainean eraikitzen da zentzua, hots, enuntziatio-esanahia.
- b) Implizitu horren egitura edo antolamendua asmatzea ez zaio batere erraza, ez soilik ikertzaileari, baita, zenbaitetan, unean eta gunean aurkitzen den entzuleari ere. Nolanahi ere, enuntziatio enuntziatua zerbait osoa eta estrukturagarria da.
- c) Enuntziatio *vs* enuntziatua oposizioa independentea da, ez dago baliatutako adierazpenari ezinbestean lotuta.
- d) Kontua da antolaketa horri esker bakarrik atzeman ahal dela zer motatako “enuntziatio-lana” egiten duen esatariak.
- e) Tokien, rolen eta posizio enuntziatiboen determinazioa diskurtsoaren bidez eta diskurtsoaren altzoan egiten da, ezen, hain zuzen, determinazio hori ekoiztutako mezuaren zentzuaren zati eta parte baita.

Enuntziatioa berbaldiaren figura antzolatzaile behinena bezala ulertu duten autoreen ildotik, esate baterako, López Alonso (1981), Ozaetak zera azpimarratzen du, “persona kategoria aztertzea, eta, bereziki, izenordainen erabilera abiapuntu tradizionala edo kanonikoa da berbaldiaren analisisa egiterakoan [...]. Eszena enuntziatiboa aztertzeko, pertsonen arteko erlazioak ebazteko, eta posizio diskurtsiboak atzemateko bide ziurtzat jotzen da”.

Hala, testu-egituraz eta diskurtso-egituraz dihardugun bezainbatean, Ozaetak (2010: 128) bere ikerketa zedarritzen duen ildotik zedarrituko nik ere ikuspegi enuntziatiboaren marko teorikoa. Beraz, diskurtsoaren entitate-enuntziatiboan ipiniko dut arreta, hain zuzen, berau diskurtso-egituratzailea den heinean; nahiz eta lehenik, ikerketa honetan azterkizun hartu dudan testuaren idaztankera propioari jarraiki, bereziki metadiskurtsoari erreparatuko diodan, printzipioz diskurtso filosofikoaren antolaketaren lehen geruzari dagokiokeen heinean.

Bestalde, diskurtso oso bat enuntziatu bat den bezala, ostera ere enuntziatu jakin hori printzipioz enuntziatu-unitate txikiagotan ebaki daiteke. Enuntziatu-unitate horiei erreparatzeko, azter-irizpideak diskurtsiboak izan behar dira. Enuntziatua enuntziatio-ardatzen argitan atzeman behar da. Enuntziatua denaz bezainbatean, beraz, Azpeitiak (2012) bere doktorego-tesian gogorarazten duenez, enuntziatuaren mugak berbaldiaren dinamikak besterik ez ditzake ezar, hau da, diskurtsoaren dinamikak, eta ez gramatikazko irizpideek.

Esatariaren esku-hartze bakoitza enuntziatu bat da; bestela esan, bere luzera esatariaren izaeraren pare-parekoa da. Enuntziatua, hortaz, bi eten edo pausaldiren artekoa da eta balizko esatari-aldatzearen baitakoa da. Honen arabera, interjekzio bat, liburu bat, izen sintagma bat nahiz pasarte oso bat, guztia izan daiteke enuntziatua. Horrek esan nahi duena da ez dagoela gramatika-irizpideez edo gramatika-neurriz neurtzerik enuntziatua; balio duten irizpideak berbaldi-irizpideak dira, ez bestelakoak (Azpeitia, 2012: 35 eta hur)

Horregatik, *perpaus* eta *enuntziatu* adigaiak bereizi egin behar dira, gorago *testu* eta *diskurtso* adigaiak bereizi ditugun bezala. Enuntziatua ez da perpausa; beti ez datoz bat, ez dute zertan bat etorri. Diskurtso-irizpideek bakarrik zedarri ditzakete. Lehena objektu teorikoa da, gramatika-unitatea, eta irizpide formalek deskribatzen dute. Eta bigarrena, ordea, unitate diskurtsiboa da, hizkuntza-adierazpen konkretua diskurtsoaren une eta situazio komunikatibo konkretu batean, irizpide diskurtsiboek definitzen dutena.

Enuntziatu baten interpretazioa egiteko, kontuan hartu behar dira gorago aipatu ditugun hiru enuntziatio-ardatzak, hau da, enuntziatio-instantziak (*NI-ZU*) eta enuntziatio situazioaren koordenatuak (diskurtsoaren kronografia eta topografia, nahi bada). Zera, ez da nahikoa perpausen segida sintaktikoari eta esanahiari heltzea; komunikazioaren eragile eta faktore guztiak hartu behar dira kontuan, eta, jakina, baita ere horiek testuinguruari nola egokitzen zaizkion.

Bestalde, dakigunez, enuntziatioa esaten zaio zehazki enuntziatua gauzatzen duen hizketa-egintzari. Horregatik, enuntziatioa ikuspegi pragmatiko batetik ulertu behar da beti. Benvenistek (1970: 12), egun enuntziatioaren teorian funtsezko testutzat jotzen den artikuluan definitu bezala, enuntziatioa hizkuntza ‘abian’ jartzen duen hizketa-egintza da: “L’*énonciation* est cette mise en fonctionnement de la langue par un acte individuel d’utilisation”.

Horrela, bada, hizketa-egintza baten emaitza hitzezko ekoizpen bat da, hiru enuntziatio-ardatzek finkatua, eta ‘enuntziatu’ esaten zaiona. Ikerketa honen helburu nagusia diskurtso-egitura atzematea izaki, azterkizun dudana batik bat enuntziatioaren ekoizpen empiriko hori da, hots, enuntziatua. Eta gogoan izanik ere enuntziatu oro ekoizpen-baldintza jakin batzuetan gertatzen dela, ez diot zehazki ekoizpen horren ikuspegi pragmatikoari eta ilokuziozko funtzioari sakon helduko, ez bada enuntziatua interpretatzeko argigarri datekeenean.

Halatan, ikerketa honen aztergaia mugatze aldera, bazterrera utziko dut enuntziatioaren ikuspegi pragmatikotik hizketa-egintza osagaien deskribapen agortzailea ematea, esaterako, Kerbrat-Orecchioniren (1980, 1998) lanen ildotik jorratzen den bezalakoa, esan nahi baita, deskribatzea enuntziatzaileak enuntziatioarekin gertatzen duen komunikazio-harreman osoa eta, horrekin batera, enuntziatuaren interpretazioan parte hartzen duten baldintza orokorrak, testuingurua eta abar. Ikuspegi murriztago batetik helduko diot aztergaiari.

Ikuspegi enuntziatibo batetik, hizkuntzaren subjektibitatea, noski, jakintzat ematen dut. Horren arabera, ikerketa-corpusa hizketa-egintza bezala ulertzen dut, hau da, testutzat ez ezik, diskurtsotzat hartzen dut. Eta, beraz, ikerketa honi badagokio diskurtso horretan entitate enuntziatzaileak utzitako markak deskribatzea; baina deskribapen hori egingo dut, kontuan izanik betiere ikerketa honen bi azter-unitate nagusiak diskurtsoaren fikziozkotasuna eta diskurtsoaren antolamendua direla eta soilik horiek argitzen laguntzen duten heinean.

Azkenik, ezin baztertu, bestalde, fikzizkotasunari erreparatzeko batez ere ezinbestekoa gertatuko baita, enuntziatioaren aspektu polifonikoa. Ozaeta (2010: 130 eta hur.) ohartzen denez, “enuntziatioaren arazoetako bat, ilokuzio-pragmatikak jasotzen ez duena, alegia, esatari bakarraren problematika [...] Orain artean inplizituki onartu dugu diskurtso ororen iturburuan enuntziatzaile bakarra dagoela, hau da, enuntziatu bakoitzak autore bakarrera eramaten gaituela, esatariarekin identifikatzen den autorera”.

**[enuntziatu bat ⇔ enuntziatzaile bat]**

Horrela, Ozaetarentzat (2010), diskurtso-egitura aztergai denean, Ducroten (1984) ekarpena gogoan hartzea oinarritzkoa da. Ducrotek (1984: 170), funtsean, baztertu egiten du enuntziatio-teoriaren eskema tradizionala, non eta enuntziatu bakoitzak egile bakarra duen eta, beraz, beste diskurtso-eskema bat proposatzen du hainbat igorle-motaduna. Hala, hezur-haragizko igorlea edota autorea (*sujet parlant*) albo batera, bi igorle-mota bereizten ditu: *esataria* eta *enuntziatzailea*:

**a) Esataria (*locuteur*):** Enuntziatuaren arduraren hartzen duen subjektua da. Entitate hori fikzio diskurtsiboa da eta ez dator bat edo ez du zertan bat etorri testuaren idazle fisiko eta biografikoarekin: “*un être qui, dans le sens même de l’ènoncé, est présenté comme son responsable*” (*loc. cit.* 193).

**b) Enuntziatzailea (*énonciateur*):** Enuntziatu batean hainbat ahots ager daitezke. Enuntziatzailea da esatariak eszenan jartzen dituen ahotsetako bakoitza, zeina posizio diskurtsibo propioa hartzen duen, nahiz eta bera ez beste esatari batengandik datorren diskurtsora.

Zera, esatariak enuntziatuan rolak bana eta antola ditzake eta adierazi, balizko beste enuntziatzaile batzuen bitartez, bereak ez diren posizioak. Orduan, hiru ardatz enuntziatiboak (subjektua, denbora eta espazioa) esatari nagusiari ez baizik eta berak diskurtsoan ‘ezarritako’ beste subjektu-enuntziatzaile bati dagozkio. Hala, esatari nagusia desagertu daiteke enuntziatitik diskurtsoaren kohesioa eta koherentzia deuseztu gabe. Ikerketa honen egitekoa bada, beraz, subjektu enuntziatzaileari erreparatzea eta diskurtsoan duen estatusa argitzea.

### **1.3.2. Metadiskurtsoa diskurtso bideratzailetzat**

Metadiskurtsoa enuntziatuaren aktibitate epilinguistikoari dagokio, hau da, birformulazioarekin, adibidearekin eta zehaztapenarekin lot daiteke, besteak beste (Culioli, 1990). Ordea, dimentsio antolatzaile eta egituratzaile ere aitortu daioke (Kotschi, 1986: 208): “*nous considérons les phénomènes de composition comme des résultats d’activités verbales réalisées par les interlocuteurs et interprétables à partir de la structure du texte*”.

Oro har, metadiskurtsoa ulertu behar da diskurtsoak diskurtsoari berari buruz erreferentzia egiteko baliabidetzat. Dena dela, testu batean, diskurtso-gaia edo

proposiziozko eduki nagusiarekin batera edo berorren alboan, hau da, *dictum* deritzan horri dagokionez, Azpeitiak (2012: 79-89) bere doktorego-tesian jasotzen duenez, ikuspegi enuntziatibo batetik, tradizioak bi multzotan banatu izan du metadiskurtsoa.

Kontuan hartzen badira metadiskurtsoaz egin diren kategoria-sailkapen gehienak (batzuk bakarrik aipatzearren, Vande Kopple, 1985: 83; Crismore, 1990; Dafouz Milne, 2000), autoretik autorera terminologia zehazki bat etorri ez arren, bi multzo nabarmen ditugu: metadiskurtso testuala eta metadiskurtso pertsonartekoa. Labur-laburrean helburu komunikatiboak bereizten ditu biak; lehenak, diskurtsoa ordenatu egiten du; bigarrenak, berriz, baloratu egiten du.

**i) Metadiskurtso testuala:** Diskurtsoaren antolaketaren kontu ematen duen metadiskurtsoari deritzo. Diskurtsoaren antolamendua hiru modutara gauzatzen da: dela testuko konektore edo funtzio lotzailea duten gailuen bidez (hizkuntza-markatzaile logikoak, denborazkoak eta azalpenezkoak, kasu); dela informatibotzat ulertu behar diren igorpenez (aurretik aipatuaz, helburuez edota unean unekoaz); dela adibidezko enuntziatuez.

**ii) Metadiskurtso pertsonartekoa:** Diskurtsoaren aspektu baloratiboari dagokion metadiskurtsoari deritzo; berau izan daiteke dela interaktibo-komunikatiboa (adibidez, ilokuziozkoa, iruzkinezkoa eta narraziozkoa) dela jarrerazkoa (adibidez, ñabartzailea, adierazpenezkoa, baloraziozkoa, parentetikoa edota intzisoak egitekoa eta enfasizkoa).

Ikerketa honen helburua ez da metadiskurtsoaren azterketa sakona egitea eta ezta diskurtso-mota horren salikapena egitea ere. Hala, testuaren elementu metadiskurtsiboei erreparatzea, betiere, diskurtsoaren egitura global baten argitan egingo dut. Horregatik, lehenengo metadiskurtso-motari erreparatuko diot batik bat, hau da, diskurtsoa antolatzen duenari, Leak (2011) autoreak Sartrearen tratatuari egozten dion *garapen-errekapitulazio* eskemari arreta jarritz.

The structure of the argument of *Being and Nothingness*, the exposition, the development, the end-of-section recapitulations before passing on to the next logical step – all of this is redolent of classical French academic composition. (Leak, 2011: 120)

Edozein kasutan, metadiskurtsoa identifikatzea problematikoa ohi da. Dafouz Milne (2000) ohartzen denez, ezin zaio ikergai horri irizpide gramatikal hutsekin heldu, izan ere, sarritan hitz bakarra edo puntuazio-marka hutsa metadiskurtsoa izan daiteke. Metadiskurtsoa ez dago markatzaile-mota jakin batzuen presentziara lotuta. Ostera ere, beraz, irizpide diskurtsiboei ipini behar diegu arreta, kasuan kasu, atzeman ote daitekeenez Leakek (2011) aipatzen dituen urrats logiko nagusiak diskurtsiboki nolabait ere aditzera ematen diren testuan.



## 2. KAPITULUA

### 2. Diskurtsoaren fikziozkotasuna zehazteko irizpide nagusiak

*Fikzioa* adigai irristakorra da. Etimologiari erreparatuz, latinezko *fictio*, *-onis* izena du jatorrian;  *fingere* aditzaren *fictum* partizipiotik eratorria da. Aditzaren esanahia nahasia da eta ez datoz beti bat aditz horrek iradoki ditzakeen kontzeptu guztiak, adibidez, *errepresentazioa*, *itxuraketa*, *asmaketa*, *moldaketa*, *simulakroa*, *antza* eta *imitazioa* (Schaeffer, 2000: 14-15). Are irristakorrago errealitatearen kontrakotzat definitu nahi bada, horrek eskatzen baitu orduan errealitatea zehaztea, ezagutzaren arlo desberdinetara igorriko gintuzkeena.

Tradizioari begira, Diderot & D’Alembert (1751-1772, VI: 679) entziklopedian, ‘fictif’ (fikziozko) eta ‘fictice’ (itxurazko) adjektiboak sarrera berean datoz, eta funtsik gabekoari egiten diote erreferentzia: “se dit, en *Philosophie*, des choses qu'on suppose sans fondement; un *être fictif*, une *hypothèse fictive*”. Entziklopedia horren arabera, ‘fiction’ adigaiak konposizio artifiziala adierazten du eta imitaziozko arteari dagokio, pinturari eta arte poetikoari, edertasunari eta apaingarritasunari; fikzioa egiazkoa denaren imitazioa litzateke, funtsean.

Egun ere, nahiz eta ez den fikzioaren *funsgabetasuna* zehatz eta mehatz azpimarratzen, ‘fikzio’ esaten zaio, oro har, irudimenaren eremukoa denari eta errealitate enpirikotik kanpo gelditzen denari. Horrela, sarean, *Larousse.fr* frantseseko hiztegiak, esate baterako, fikzioa bete-betean irudimenarekin eta imajinazioarekin lotzen du. Horren arabera, fikzioa ulertzen da, azken batean, erreal ez denari dagokion irudimensorikuntza bat bezala: “création de l’imagination; ce qui est du domaine de l’imaginaire, de l’irréel”.

Ikerketa honetan ez dago zehazki auzitan ‘fikzio’ adigaiaren definizioaren zehaztapena. Baina, ikuspegi metodologiko batetik, ordea, ahalik eta estuen zedarritu nahi dut zer adierazten dudan ikerketan zehar *fikzio* eta *fikziozkotasun* terminoekin. Horretarako, lehenik, fikziozkotasunaren *aparatu formala* ematera bidean, modu progresiboan, fikziozkotasunari buruzko gogoeta-ildo zenbait jorratuko dut; hurrenez hurren, arlo filosofikotik, literariotik eta linguistikotik.

## 2.1. Bi begiratu fikzioari filosofiaren ikuspegitik

### 2.1.1. Errealitatearen ikuspegi mimetikotik betekizun diskurtsibora

Filosofiak baliatzen duen diskurtso-tankerak egiazkotasuna izan ohi du jomuga. Aitzitik, dakigunez, edonork jo dezake, urrutira gabe, ikergai dugun corpusera, diskurtso filosofikoak sarri egiazkotasunaren argitan lausoagoa datekeen eremurik erakuts dezake, non eta egiazkotasunaren eta balidazioaren baldintzak bereziak gerta daitezkeen eta non, beraz, zilegi egiten den gogoeta egitea fikziozkotasunaren legitimitateaz doktrina filosofiko jakin bati dagokionez.

Filosofia, oro har, mesprexuzko kutsu batez hurbildu izan zaio fikziozkotasunari, sasikoa den eta egiatik urruntzen den zerbait bezala, nahiz eta ez duen (edo ezin izan duen) eman, horratik, adigai hori zehazteko definizio bateratu eta definitiborik. Platon eta Aristoteles filosofo klasikoen, esate baterako, horri buruzko gogoeta egin egiten badute ere, ez dute fikzioaren definizio zehatzik ematen. Klasikoentzat, fikzioa, nahi bada, errealitatearen imitazioa da funtsean.

Platonek *Errepublikan* (II. lib.) erakusten duenez, tentuz ibili behar da historien kontalariekin, asmatzaileekin eta mitoen sortzaileekin. Sofisten parekotzat jotzen dituelarik, imitazioa jotzen duten poetak kanporatu egin behar dira Errepublikatik, fikziozko diskurtsoa gezurrezkoa, zalantzazkoa eta sasikoa baita. Platonentzat, mitoa egiaztatu ezin den asmakizuna da; egiaren funtza printzipioz diskurtso filosofikotik etor daiteke bakarrik, alegia, *logosetik*.

Platonentzat, poeta tragikoen egiazkoa denaren itxura eta errepresentazioa egiten dute eta, beraz, faltsua eta egiaztaezina den zerbait. Ildo horretatik, Platonek (fikziozkotasunaren) zaku berean sartzen du mimesiarekin eta errealitatearen errepresentazioarekin lotzen den arte oro, hala nola, pintura, alegoria, alegia eta poema tragikoa. Eta mitoa ere multzo berean lihoake. Baina orduan, paradoxa baten itxura har dezake Platonek berak mitoa baliatu izanak.

Brisson (1996: 42) autoreak irizten dionez, mitoak Platonengan diskurtso filosofikoaren baliabide-mota baten tankera hartzen du eta, nolabait esateko, egia erdiesteko eginkizun diskurtsibo bat izango luke, zeina bereziki eraginkorra gertatzen baita, hain zuzen ere, kolektibo jakin batentzat ezaguna den eta guztiok partekatzen duten / dugun jakintza bat

‘garraiatzen’ duelako. Mitoa eta fikzioa nolabait asimilatuz, Brissonentzat (*ibid.* 38), funtsean, *mito* eta *logos* bereizketa klasikoak egungo *narrazio* eta *argudio* bereizketara garamatza.

Halatan, mitoa narrazioaren parean legoke, alegia, egiaztaezinak diren kontakizunzation segida kontingentetzat ulertzen den diskurtsoaren parean; eta logosa, aldiz, beharrezkotasunak ezaugarritutako diskurtso antolatutzat ulertuta, argudiozko diskurtsoaren parean. Horrek, hala ere, mitoa bihur lezake noranahikotze-jomuga lukeen errekurtso orokortzaile eta persuasibo baliagarria, nolabait: “un redoutable instrument de persuasion à visée universelle”.

Areago, mitoak paradigmaren rola izan lezake, azken batean, edonor (baita filosofoa ez dena ere, alegia, gehiengo) aise identifika daiteke mitoak erreferitzen duenarekin. Eta, horrez gain, Ricœur (1968: 531) autoreak adierazi bezala, diskurtso filosofikoaren kontakizun-tankerari ere aitor dakioket balio arakatzailerik, eta, beraz, baita jomuga zientifikorik ere: “La fonction fabulatrice a elle-même valeur prémonitoire et exploratoire à l’égard de quelque dimension de la vérité qui ne s’identifie pas avec la vérité scientifique”.

Aristotelesek jada bere *Poetikan*, nahiz eta Platonek bezala berak ere zuzenean ez aipatu ‘fikzio’ adigaia, imitazioz sortutako diskurtsoaz diharduela, baliabide hori arbuia barik eginkizun zehatza aitortzen dio: orokortze-funtzioa. Hala, poesiak adierazten dituen egoerak, esaterako, giza-egoerak dira, guztiontzat balio dute eta horietan edonor identifika daiteke. Funtzio horrek, beraz, *erreal* eta *fikzio* oposaketa leunduko luke, izan ere, Aristotelesentzat, diskurtsoak sortutako pertsonaia eta egoera asmatuek benetakoak eta konkretuak balira bezala jokatzan dute. Areago, alderantziz ere, poeta tragikoak tradizioko eszena ‘benetakoak’ eta ‘benetako’ pertsonaiak ekarri uste dituenean ere, hori ez da inondik ere faktuala, distantzia batetik eta imitazioz jokatzan baitu ‘benetako’ egoera eta pertsonaia horiekin ere.

Bestalde, egia jomugatzat duen diskurtsoa hizpide, Aristotelesek (1968: 271) *Erretorikan* dioenez, oro har, “el que enuncia algo lo hace con el fin de demostrarlo”, non eta *adibidea*, berau irudimenak (errealitatearen imitazioz) sortua, persuasiozko argudio-baliabidetzat jotzen baitu. Halatan, silogismo eta entimemekin batera (*ibid.* 188

eta hurr.), nahiz eta filosofoak *benetan* gertatutakoaz diharduten adibideak lehenetsi (lekukotasuna adierazten bide baitute), Aristotelesentzat, asmatutako adibideak ere izan daitezke zilegi (hala nola, parabola eta alegia). Izan ere, adibidea frogatze-helburu batera bideratu ohi delarik, eta geroan eta iraganean gauzak antzera gertatu izan ohi direlarik, adibideak esandakoa ‘errealitatez jantzi’ eta egia bermatzea du xede.

Ikerketa honetan, diskurtso filosofikoaren fikziozkotasuna termino orokor horietan ulertzen dut; alegia, printzipioz diskurtso filosofiko nagusi edo efektiboa ez den ‘zerbait’ bezala, argudio teorikoari ez baizik eta irudimenari edo, nahi bada, sormen literarioari dagozkion kontakizuneko egoera eta pertsonaia txertatuek osatzen dutena. Baina ez hori bakarrik, fikziozkotasuna filosofiaren tresna diskurtsibotzat ere ulertzen dut, zera, hain justu fikziozkotzat hartu behar ez den diskurtso filosofiko antolatu baten baliabide eta parte bezala. Eta, betiere, fikziozkotasun horrek berezkoa du printzipioz orokortze-funtzioa; esan nahi baita, berau osatuko lukete, imitazioz, errealitatean oinarritutako hainbat egoera eta pertsonaia konkretuk eta asmatuk, edonork bere egin ditzakeenak.

### **2.1.2. Fikzioaren arbuiozko ikuspegitik filosofiaren eskakizunera**

Erdi Arotik aurrera, fikzioarekiko arbuioa hizkuntzaren arbuio orokorrago baten baitan azal daiteke. Ñabardurak ñabardura, nominalismoaren eraginaren barruan kokatzen diren autoreak (Guillaume d’Occam, Hobbes, Locke, Hume eta Spinoza, adibidez), hizkuntzaren *higiene* moduko baten mesedetan, hitzen neurrigabekeria saihestu beharrekotzat jotzen dute. Hitzek ez dute zertan bat etorri objektu errealekin, nahaspila ekar dezakete; eta, beraz, engainuzkoak eta kaltegarriak izan daitezke. Hitzak ez dira beti fidatzekoak.

*Summa logicæ* (1327) obran, Occamek (*apud*. Temmar, 2012: 21) fikzioari existentzia-mota lausoa aitortzen dio eta konkretutasunaren kontrako zerbait bezala ulertzen du, zera, unibertsala den, eta funtsean gauza sinple, bakan, konkretu eta isolatuez haragokotzat. Fikzioa kontzeptu eta abstrakzioen maila beran ipinia, autore horrentzat, arbuia garria, baztergarria eta soberakoa da; hizkuntzaren nolabaiteko *purifikazioaren* argitan, bederen. Hitzek uneoro tronpa baikaitzakete, fikzioa filosofoarentzat arriskutsua da, neurriz erabili beharrekoa.

Ildo beretik, Spinozarentzat (2006 [1662]) ere, irudimenetik datorren zeinahi objektuekin bezala, hitzekin ez da itsu-itsuan fidatu behar; tentuz ibili behar da. Eta Humerentzat (2015 [1739]), esaterako, fikzioa, *sinesmena* ez bezala eta *sinesmenari* kontrajarritz, gurariaren eta borondatearen menpe dagoen heinean, manipulazioaren menpe ere badago, azken beltzean, irudimenak bere gisara eratu, aldatu, moldatu baititzake ideiak. Baina fikzioak nominalismoaren ildotik jaso duen erasoak J. Benthamen lehen idatziekin (1776-1782) jotzen du goia.

Fikzioa, Benthamentzat, ez da konpatiblea objektu enpirikoekin; mehatxua eta tronpatzen duen zerbait baita. Horregatik, proposizioak argiak izan behar dira; anbiguotasuna baztertzekoa da. Haatik, 'fikzio' kontzeptuak alde positiboa hartu ere hartzen du Benthamengan. Fikzioa zeharo baztertzetik, 'arrisku' horren erabilera neurtua aldarrikatzera igarotzen da Bentham, batez ere arlo juridiko, politiko eta elizakoari dagokionez; horretarako, aparatu formal bat eratzen du hitz anbiguoak atzemateko. Baina ez hori bakarrik, autore horrek (ikus Bentham, 1997) 'fikzio' kontzeptua nolabait ere diskurtsoarekin lotzen du.

Zera, fikzioa baliatzen bada, baliatzeko beharra ikusten bada, horrek adierazten du diskurtsoak errealak ez diren gauzak ere adierazteko beharra izan dezakeela eta, beraz, fikzioak izan dezakeela diskurtsoan betekizunik. Hala, ikuspegi linguistiko batetik, *txarra* deitzen duen fikzioaren aldean (legegizonak lerabilkeena, kasu), fikzio *ona* edo onargarria ere aipatzen du: batetik, literatur arlokoa; bestetik, hizkuntzak berezkoa, beharrezkoa eta itxura guztien arabera saihestezina duen fikzio logiko-metaforikoa. Proposizio bat ematen den unetik, hizkuntza mailan fikzioa jokoan sartzen da, entitate errealak eta fikziozkoak erlazioan jartzen dira errepresentazio modura diskurtsoaren garapenean.

Bestalde, fikzioa irudimenak sortzen duen hizkuntzazko sorkuntza den heinean, aise lot daiteke diskurtso literarioarekin eta diskurtso filosofikoari aiherriz zerbait bezala ulertu. Kantek (1991 [1798]), esaterako, eleberrien irakurketa distrakzioarekin eta ameskeriarekin lotzen du. Horren arabera, fikzioa testuan txertatutako digresioa litzateke, hain zuzen, pentsamenduaren dispertsioarekin eta fragmentazioarekin lotzen

dena; eta, beraz, adimenerako oztopoa da, hau da, filosofiaren jomugatik urruntzen den zerbait eta arreta galarazten duena.

Fikzioa gezurraren eremukotzat ipini dutenen artean, Rousseau (2011 [1817]: 4. kap.) aipa daiteke. Autore horrek fikzioa intentziorik gabeko gezurrarekin lotzen du, halere: “Mentir sans profit ni préjudice de soi ni d’autrui n’est pas mentir: ce n’est pas mensonge, c’est fiction”. Dena dela, Rousseauk bereizi egiten ditu fabulak eta bestelako fikzioak: lehenak helburu morala erdietsi gura dutenak dira; bigarrenak, aldiz, alferrekoak (*oiseuses*) direnak. Kanten ildotik, azken horiek Rousseauk dibertimendu eta distrakzioarekin lotzen ditu.

Dena den, fikziozkotzat aurkezten ez den testu batean (diskurtso espekulatibo-filosofikoa, demagun) fikzioa txertatu egiten dela baldin badiogu, orduan heterogenotasun diskurtsiboaz ere badihardugu eta, beraz, txertatze horri printzipioz leku eta funtzio bat aitortu ahal izan beharko diogu delako diskurtso filosofikoaren baitan. Ildo horretatik, Lardreau (1988) autorearen intuizioa aipatzekoa da. Lardreauk fikzioa ulertzen du filosofian bertan integratutako osagarri diskurtsibo bezala.

Filosofiak fikzioaz egin duen trataera hainbat filosofoen iragazitik berrikusten du, hala nola, Descartes, Leibniz, Condillac eta Fontenelle. Autore horrentzat, fikzioari heldu behar zaio betiere fikzioa baliatzen duen doktrina filosofikoaren baitan. Lardreauk, hasteko, diskurtso filosofikoan fikzioa baliatzea zuzenean esperientzia pertsonalarekin lotzen du, zera, fikzioa esperientzia filosofiko *bizi* bat litzateke, areago, filosofiak lukeen tresna edo bitarteko behinena doktrina jakin batek bere buruari bere postulatu propioak aitortzeko; nolabait esateko, testuan ‘mintzo dena’ doktrina filosofikoa bera balitz bezala.

Funtsean, Lardrearentzat, fikzioaren zilegitasuna munduaren kontingentziatik letorke, alegia, mundua bestelakoa izan zitekeen egitatetik. Halatan, fikzioa irudimenezko mundu baten sortzailea izateaz gain, fikzioak mundu *erreal* batekiko bariazioak sortzen ditu. Eta, beraz, bariazio, aldaketa eta moldaketa horiek ere, aldez edo moldez, fikzioa ezaugarritzen dute eta neurtzen dute berorrek sortutako objektuaren balidazio-baldintzak, koherentzia eta mugak.

Cassou-Nougès (2010) autoreak ere fikzioaren aspektu hori azpimarratzen du, hau da, ezin dela fikzioa erreduzitu ‘beste-mundu-bat’ delakoaren deskribapen hutsera. Alegia, oro har, fikzioak ez du xedetzat errealitate bat deskribatzea gure munduaz errotik desberdina litzatekeena eta euskarririk ez lukeena; eta, horregatik, edozein dela ere fikzioak operatzen duen gure munduarekiko bariazioaren gradua, norbere esperientziatik abiatuta atxikitzen gatzazkio (*loc. cit.* 279): “je fais varier mon expérience, en modifiant les caractères de telle sorte que cette variante reste une expérience que je peux imaginer vivre”.

Alabaina, fikzioa determinatzen baldin bada gure esperientzia propioaren baitan eta irudimenaren egitura baten baitan, orduan, zilegi da galde egitea fikzioa zein baldintzatan den pertinentea *a priori* horren beharrik ez lukeen filosofia batean. Filosofiak fikzioa darabilenean, fikzioa adimenari dagokio irudimenari bezainbat? Fikzioaren errekurtsioa filosofian adimenarekin lotu behar da Lardreauren (1988) iritziz. Fikzioa irudimenak sortuko luke, baina irudimenetik egiarik nekez sortuko da, ezpada fikzioa filosofiaren beraren partetzat ulertuta.

Intuizio horren arabera, filosofiaren ‘fikzio-beharra’ soilik justifikatzen da baldin eta fikzioari ere aitortzen bazaio *egiarekin* (egiaren bilatzearekin) harreman estua gordetzen duela eta, hortaz, fikzioaren sorkuntzarekin batera, adimena ere jokoan sartzen dela. Labur esateko, diskurtso filosofikoaren argudiatze-ulertarazte xedeak sarri fikzioaren presentzia erakusteak salatzen du *in fine* fikzioaren beharrezkotasuna filosofian (*ibid.* 76). “C’est dans cette rupture entre expliquer et comprendre, soutenir et prouver [...] que les fictions se trouvent non seulement justifiées mais proprement requises”. Beharrezkotasun horrek erakusten du, orobat, Arrazoiak mugak dituela osotasuna atzemateko:

Ainsi, les fictions témoignent-elles, à la fois, de la finitude de la raison humaine, de son impuissance à tout prouver et à tout comprendre, et du refus où elles s’entêtent de recevoir quoi que ce soit comme vrai, qu’elle ne le puisse expliquer et soutenir, en ne comptant que sur ses propres forces (Lardreau, 1988: 94).

Esanak esan, ikerketa honetan, fikzioa kontsideratzen dut testuak aditzera ematen duen filosofiaren eskakizuna halaberrez izan behar duen zerbait bezala, diskurtsoaren eskakizuna ere baden bezainbatean. Halatan, ikerketa honetako corpuseko fikzioa, beharrezko zein apaingarri izan, irudimenezkotzat zein egunerokotasunaren moldeko adibide konkretutzat eman, pentsatzen dut eduki filosofikoaren baitan funtziorik bete behar duela. Gorago aipatu bezala, ikerketaren lan-hipotesiaren arabera, testugintzaren argitan fikzioaren funtsezko funtzio edo zeregin hori uler daiteke, hain zuzen ere, testu-mailan filosofiaren garapen osoa atzeman baitaiteke, diskurtsoarena ez ezik.

## **2.2. Fikzioa literaturaren ikuspegitik: hiru gogoeta-ildo**

Fikzioa literaturan emankorra da. Semantikaren ikuspegitik ulertuta, behintzat, literaturak *unibertsoak* sortzen ditu eta, oro har, fikzio gisa irakurria izateko idazten dela esan daiteke. Horregatik, ohikoa da fikzioa literaturarekin parekatzea. Ordea, literatura osotasunean fikziotzat hartzeak ez du laguntzen, adibidez, linguistikoki fikzioa zer den zehazten. Literaturan guztia fikziotzat jotzen bada, fikzioa isolatu edota identifikatzearen auzia desbideratu egiten da.

Dakigunez, literatura, lehenik, hizkuntza bidezko komunikazioa da. Areago, hizkuntza-kode berbera du testu literarioak eta ez literarioak. Oro har, testu bat fikziotzat jotzen den edo ez, testu-generoen teoriari dagokion zerbait da. Ez da, beraz, ikerketa honen ikergaia. Alde batetik, badakigu *L'Être et le Néant* ez dela literatur testua. Beste alde batetik, ez da ikerketa honen asmoa testuko pasarte literarioak literario direla frogatzea. Bi aspektu horiek jakintzat ematen ditut.

Ordea, badago literatur arlotik egin den hainbat gogoeta fikziozkotasuna zehaztea eta literaturan bertan fikziozkotasuna atzematea xede izan duena. Narratologiaren ikuspegitik, hainbat autore bidegile (Genette, 1983; Hamburger, 1986; Banfield, 1982, 1995), fikzio-indizeak ematen ahalegindu da, izan ere, fikzioa, lehen-lehenik, kontatua den zerbait da, eta horrek nahitaez aztarnak uzten ditu hizkuntzan, edo, hobeto esateko, enuntziatuan. Horregatik, enuntziatioaren teoriak ere bere egin ditu ikerketa-ildo horiek.

Aipatutako autore horien arabera, fikziozko enuntziatua da enuntziatu (nagusi) jakin batean bere ardatz enuntziatibo propioak (subjektu, espazio eta denborazkoa) ezartzen dituen enuntziatua; eta, beraz, enuntziatu nagusia bera *suspentsoan* jartzen duena



(Hamburger, 1986: 116-117). Ikuspegi ‘kontakzaile’ horren ildotik, fikzioaren teoria narratologikoa oinarri hartuz, hiru dira batik bat enuntziazioaren teoriak aztertu dituen hizkuntza-markak.

### 2.2.1. Orainaldi tabularra

Kontakizunaren orainaldi tabularra (*praesens tabulare*) denborazkotasunaren taula-moduko bat bezala ulertu behar da kontakizunaren harian: ez lineala, ez historikoa, *aurrera* eta *atzera* egiten ez duena, batera ematen dena. Kontatzeko baliatzen da, funtsean, baina ez dagokio kontatutako gertakizunaren denborari. Guijarro García (2002: 344-345) autoreak azaltzen duenez, orainaldi hori instantzia narratzaile baten presentzia atemporal da, non eta presentzia hori, faktikoa bainoago, mamu-lekuko gisa ulertu behar den (*un témoin phantasme*).

Hala, Genettek (1983) eta Hamburgerrek (1986) kontakizunetako narratzaileak kontatutakoarekin gorde dezakeen erlazio-motei ipini diete arreta. Narraziozko testu bat *NI* (1. perts. sing.) batek orainaldian ematen duenean, esaterako, bat etor daitezke edo ez enuntziatio-situazio narratiboaren espazio-denborak eta kontatzen den gertakizunarenak. Gerta daiteke narratzailearen ikuspuntuak fokalizatzen dituen espazio-denborazko ardatzak ez izatea enuntziatio-situazio nagusiaren ardatz beretsuak: kontakizunaren aurkeztea *vs.* kontakizuna bera.

Genettek (1983: 198) orainaldi tabularren izaera parentetikoa azpimarratzen du. Zera, denbora parentesi artean geratzen da, nolabait esatearren. Horrela, iraganeko gertakizunei gagozkielarik ere, badago narratzaile atemporal baten intuiziorik: “l’événement appartenant au passé est décrit comme un tableau mis en face du locuteur et l’élément temporel est mis entre parenthèses”. Areago, iraganaldian ematen den kontakizuna berez zera da, *orainaldi* batean ematen den iragana da, hau da, ‘orain-hemen’ diskurtsibo batean.

Halere, orainaldi tabularrean ez dago interferentziarik bi fokalizazio desberdinen artean; kontatzea eta kontatua garaikideak dira eta koinzidentziak ezaugarritzen ditu. Hain zuzen ere, paradoxa gisa, narratzailea eremu diegetikotik at dagoen presentzia *nonahikoa* da (*ibid.* 70) eta narratzailearen eta kontatzen duenaren artean gertukotasuna iradokitzen da (*ibid.* 55): “plus ou moins la présence d’un narrateur qui –pense

inévitablement le lecteur- ne peut être bien loin d'une action qu'il donne lui-même comme si proche". Nolabaiteko lotura gertatzen da kontakizunaren iragan-izaerarekin eta diskurtsoaren orainalditasunarekin.

Ikerketa honi dagokionez, badakigu *L'Être et le Néant* ez dela narratibotasunak ezaugarritutako testu bat. Ordea, gogoan hartzekoa da tarteka agertzen diren pasarte literario horiek *nolabait* aurkezten direla eta 'nolabait' hori berez enuntziatio-terminotan azaldu ahal izan beharko dela printzipioz. Zera, fikzioa 'norbaitek' aurkezten du. Beherago ikusiko dugunez, gainera, enuntziatioaren teoriaren ikuspuntutik, hainbat autorek, hala nola, Culioli (1999 [1980]) eta Philippe (2002b, 2005) hizkuntzalariek, kontuan hartzen dute denborazkotasun tabularren ideia hori denboraren sistemaren 'neutralizazioa' aipatzerakoan.

### **2.2.2. Zehar estilo librea**

Hamburgerrentzat (1986), 'fikziozko' narratzailea izaera autonomorik ez duen esataria da, kontatzearen ekintzak kontatze-unean bertan bakarrik sortzen eta justifikatzen duena, lekurik ez duena kontatze beretik at. Banfieldek (1982, 1995) ildo horretatik fikzio literarioaren teoria enuntziatiboa proposatzen du. Autore horrek (1982: 57) arreta jartzen du batez ere esataririk ageri ez duten enuntziatuetan: barne-monologoa, bakarriketa eta zehar estilo librea. Horietan, esatariaren ikuspuntua desplazatu edo ezabatu egiten da enuntziatuan.

Banfieldentzat (1995: 380) zehar estilo librea bereziki esanguratsua da fikzio-marka gisa, kontzientzia moduko esatari *absente* baten adierazpena baitakar: "ce style fait apparaître le caractère essentiellement *de fiction* qui est obligatoirement celui de toute représentation d'une conscience". Kontua jadanik ez da *NI* batek, orainaldi tabularrean bezala, iraganean kokatutako gertakizuna aurkezten duela gertakizun horretatik kanpo, baizik eta zeharo eteten dela lotunea *NI-narratzaile* baten eta *NI-fikziozko* baten artean.

Demagun corpuseko adibide zehatz bat zehar estilo librean enuntziatzen dena. Bihoa azpimarratuta *suspentsoan* edo *aske* gelditzen den fikziozko enuntziatu librea, hau da, ez dena lotzen ez estilo zuzen eta katafora bidez, eta ezta zehar estilo arruntaren eta mendeko perpaus baten bidez ere. Zehar estilo librean, enuntziatzailea *ezabatu* egiten da. Horra adibide bera hiru modutara emana:

### **a) Zehar estilo librea:**

Hara non nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau: **norbaitek ikusi nau**. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa: **alerta faltsua zen**. Arnasa hartu dut. [EN: 336]

### **b) Estilo zuzena:**

\*[...] bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau **eta zera pentsatu dut nire baitan**: “norbaitek ikusi nau”. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa **eta zera pentsatu dut nire baitan**: “alerta faltsua zen”.

### **c) Zehar estilo ohikoa:**

\*[...] bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau norbaitek ikusi **nauela pentsatu dut nire baitan**. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa **alerta faltsua zela pentsatu dut nire baitan**. Arnasa hartu dut.

Etendura enuntziatiboaren ildo horretatik, zehar estilo librea azaltzeko, enuntziatioaren teoriaren ikuspegitik, jatorrizko esatariaren ezabatzea aipatu izan da. Horrela, Maingueneau (1987: 70) autoreak, esate baterako, eten polifonikoa azpimarratzen du esatariaren eta norentzakoaren artean, zehar estilo librean enuntziatuak zehar estilo ohikoaren errekurtsibotasuna galtzen duen heinean, inorena ez den espazio enuntziatiboa sortuz.

Ikuspegi funtzionalago batetik, Charaudeau (1992: 650) autoreak simulakro-moduko efektu diskurtsibo berezia ikusten dio zehar estilo libreari, nolabait esateko, diskurtsoak berak hartuko balu hitza esatariaren beharrik izan gabe. Eta Vion (2001: 334) autoreak aipatzen duenez, horrek diskurtsoan enuntziatzaile orokor unibertsal bat sortzeko ere balio dezake. Baina, ikerketa honi begira, zuzenena da Philippe (2002b) autoreak Sartreren pasarteetako zehar estilo libreaz egin gogoetari heltzea.

Philippek (ibid. 23) irizten dionez, zalantzarik gabe, Sartreren filosofiako pasarte literarioetan zehar estilo librea usu agertzea enuntziatzailearen balio orokortzaileak azal dezake. Sartreren diskurtso fenomenologikoak nolabiat aproposa egingo luke zehar estilora jotzea, horrek adierazi nahi baitu nornahik bere kasa baieztatu ditzakeen esperientziak deskribatzen direla, alegia, esatari ezabatua ez dela inor eta edonor dela,

enuntziazio-denbora ez dela inoiz eta edonoiz dela, enuntziazio-espazioa ez dela inon eta edonon dela.

Dakigunez, zehar estilo librea Sartreren filosofiako pasarte literarioen barruan gertatzen da, goiko adibide zehatzak salatzen duen bezala, alegia, jada literariotzat eta fikziozkotzat jotzen diren pasarteetan agertzen da. Aitzitik, zehar estilo librea gogoeta interesgarria da fenomeno enuntziatibo gisa eta lagun dezake esplikatzeko diskurtsoan literatura eta filosofia nola uztartzen diren. Zera, pasarte literarioa har ote daiteke bere osotasunean etendura enuntziatibo gisa enuntziatu filosofiarekiko, filosofiaren beraren barne-monologoak balira bezala?

Bestela esateko, Rabatel (2004) eta Provenzano (2010) diskurtsoaren teoriagileek adierazi bezala, zehar estilo librearen erabilpena bestelako arrazoirekin ere lot daiteke literaturaz landa. Adibidez, zehar estilo libreak sortzen den talka leun dezake, alde batetik, diskurtso teorikoari antza (diskurtso-mota horrek berezkoa lukeen *kontratu erretoriko* bat tarteko) zor zaion objektibotasunaren eta, beste alde bestetik, diskurtso orotan saihestezina den instantzia enuntziatibo subjektiboaren artean.

Horren bitartez, denboraz harago legokeen egia bat erakutsiko litzateke, iritzi subjektibo ororen gaindi eta espazio-denborazko ardatzetatik salbu legokeena. Jatorrizko instantzia enuntziatiboa ezabatzen duten enuntziatuek onargarritasun handiagoa lortzen dute, enuntziatzaile jakin eta zehatz baten iragazitik igarotakoek baino. Izan ere, horrek guztiak eramango gaitu beherago *L'Être et le Néant* obrako enuntziatzaile 'desberdinak' zehaztera.

Esanak esan, zehar estilo libreak ez digu zehazki balio ikerketa honetan fikziozkotasuna zedarrizteko irizpidetzat, arestian aipatu bezala, aurretik fikziozkotzat hartutako pasarteen barruan agertzen baita beti; nahiz eta gogoan izan badugun pasarte literarioaren barruan zehar estilo libreak etendura propioa gauzatzen duela eta etendura hori literaturaren teorian fikziotzat ulertu izan dela. Gogoeta bestelakoa da. Sartreren filosofian aldian aldiko pasarte literarioa gisa bereko haustura izan daiteke, hain justu, pasarte literario hori bermatzen duen filosofiarekiko haustura enuntziatiboa.

### 2.2.3. Autotestua

Ikerketa honen lan-hipotesiari jarraiki, testuaren fikziozkotasuna isolagarria den zerbait bezala ulertzen badugu eta fikzioa objektu enpiriko bezala, orduan, hasteko, testu berean fikziozkotzat jotzen dugun eta fikziozkotzat jotzen ez dugun testuen erlazioaz dihardugu ezinbestean. Beraz, ikergai dugun testuan, testuartekotasuna ulertu behar da testuak berak bere baitan operatzen duen berezko heterogenotasun baten argitan.

Aski ezaguna da Genette (1982) autoreak transtestualitateaz edo testuen ko-presentziaz egiten duen sailkapena. Hainbat mota desberdintzen ditu, hala nola, *intertestualitatea* (*extra-* zein *intra-*), *paratestualitatea*, *metatestualitatea*, *hipertestualitatea* eta *artxitestualitatea*. Ikerketa honi dagokionez, *L'Être et le Néant* obran gertatzen den testu-heterogenotasunaren kontu hobekien emango lukeena berez *intratestua* litzateke, hau da, testu batek duen erlazioa autore beraren beste testu batzuekin.

Ordea, sailkapen horretako adigaiak eragin eta deribaziozko ikuspegi batetik egiten diote erreferentzia erlazio horri. Hala, *intratestu* bainoago *autotestu* kontzeptuari erreparatuz, Dällenbach (1976, 1991) autorearen testuartekotasun *autarkiko* kontzeptuari jarraiki, testu jakin batean 'testu-txertatze' bat gertatzen baldin bada (eta *L'Être et le Néant* obrako fikziozkotasuna filosofiaren adibide literario modura *txertatutako* zerbait bezala ulertu behar da), txertatze horrek orduan ispilu moduko efektua lukeen fenomeno metalinguistikoa ahalbidetuko luke, horrela formula litekeena: 'Horra hauxe beste modu batera esanda'.

Baina testu txertatu, islatu, lotuak (fikziozkoa, ikergai dugun testuan), ez luke ezertan aldatuko testu txertatzailea (ez-fikziozkoa edo teorikoa, ikergai dugun testuan), alderantziz, bat egingo lukete biek, bata bestearen doblea litzateke eta eutsi egingo liokete elkarri. Zera, *testu autarkiko* edo *autotestu* adigaiak, beraz, testu bakarrari eta ez biri egiten dio erreferentzia, baina erlazio espiral moduko bat gordetzen duena berarekin bertan. Horrela, autotestu beraren 'bi' testuak elkarren aldagarri izaki, horrek, batetik, efektu iteratiboa eta anplifikatzailea luke; eta, bestetik, testuaren egitura sendotzea eta testuaren ulermena ziurtatzea xede. Orobat, Dällenbachek autodialogoaren funtzioa ere aitortzen dio autotestuari, alegia, testuak berarekin izango lukeena.

Horrela, bada, testu txertatua, funtsean, ez da *beste* testu bat, testu *bera* baizik. Baina, zalantzarik gabe, batetik besterako iraganbidea identifikagarria izan beharko litzateke printzipioz. Dällenbachek (1976: 283-284; 1991: 66) autotestuaren emergentzia-baldintzei buruz dioenez, txertatzen den testua formaren eta esanahiaren aldetik desberdina da, baina izaera erreflexibo moduko bat tarteko eta analogiaz, txertatutakoa gai bera bihurtzen da. Halaber, testu txertatuak, diskurtsoa islatzen duen arren, instantzia narratiboan etendura dakar; baina etendura horrek bermatzen du testu txertatzailearen eta testu txertatuaren arteko lotura, eta bigarrenak, beraz, ez dio lehenari ‘ihes’ egiten.

Bestalde, testu txertatuak transformazioak izan ditzake (Dällenbach, 1991: 74, 77, 133). Bi testuen ekibalentzia-erlazioa mailakatu egin daiteke, esaterako, erreproduzio hertsia eta identiko batetik aldaera soil batera edota, areago, transposizio zeharo libre batera. Horrela, testu txertatuak izan dezake testu txertatzailearekiko balio ordezkagarria, lagungarria, apaingarria eta abar. Dena den, edozein kasutan, testu txertatzaileak ez du zertan txertaturik testu txertatua ‘kolpe’ bakar batean, txerta dezake zatika, txandaka edo kateatuz.

Ikerketa honetan autotestuaren bi aspektu horiei erreparatuko diet. Alde batetik, testu txertatzaile teorikoak testu txertatu literarioa txertatzean enuntziatuan uzten dituen aztarna linguistikoei erreparatuko diet, hau da, funtsean, testu txertatuaren emergentzia-baldintzei. Beste alde batetik, bi testuen ekibalentzia-erlazioari erreparatuko diot, alegia, zer zeri dagokion (zein testu txertatu edo literario dagokion zein testu txertatzaile edo teorikori) eta zein neurritan.

### **2.3. Fikzioa hizkuntzaren hiru jakintza-arloren ikuspegitik**

Ikerketaren atal honetan ikusi dugunez, filosofiaren eta literaturaren ikuspegiak fikzioa diskurtsoaren eta enuntziazioaren eremura lerratu dute; hizkuntzara, azken beltzean. Horrek ez du adierazi nahi fikzioa hizkuntzaren arlotik modu orokorrean azterkizun dugunik. Filosofiaren fikzioaz den bezainbatean, Temmar (2013) autorearen tesiari jarraikiz, fikzioaren hainbat aspektu pragmatiko eta semantiko gogoan hartzekoak dira, fikzioa aspektu diskurtsibotik aztertu nahi bada. Gatozen, bada, fikziozkotasuna urratsez urrats zedarrizera.

### 2.3.1. Pragmatikaren ikuspegia

Enuntziatu bat fikziozkoa dela aitortzen baldin bada, orduan nahitaez agertu eta erakutsi beharko du zerbait fikziozkotasun hori identifikatuko duena, nahiz eta fikzioak eduki ez daukan berezko morfologiarik eta hizkuntza kode propiorik. Hizkuntza kode berbera da fikzioarena eta fizkioa ez denarena (Philippe, 2005). Fikziozkotasuna identifikatzeko, Austin (1975 [1962]) eta Searle (1969) autore bidegile eta aitzindariak oinarri hartuta, pragmatikak hizketa-egintzen teoria hartzen du indize nagusitzat, bereziki, enuntziatuaren ilokuzio-indarra.

Austinen hizketa-egintzen teoriaren arabera, enuntziazioan hiru aspektu dira kontuan hartzekoak: *lokuzio-egintza*, hots, zerbait esatea edo ahoskatzea; *ilokuzio-egintza* edo zerbait esatearen komunikazio-xedea, hau da, esatearekin batera *egiten* dena (adibidez, agindu, eskatu, mehatxatu, informatu, etab.); eta *perlokuzio-egintza* edo zerbait esatearekin hartzaileagan sortzen den efektua. Haatik, Austinek (1975 [1962]) eta Searlek (1969) batik bat ilokuzio-egintzan jartzen dute arreta, zera, badago loturarik antza proposizio baten (hau da, hitzak, sintagmak, puntuazioa, azentua, etab.) eta ilokuzio-egintzaren artean.

Halatan, fikzioaz denaz bezainbatean, pragmatikariek komunikazio-xedearekin lotzen dute enuntziatu baten fikziozkotasuna. Pragmatikarientzat, fikzioa fikzio da komunikazio-xedea suspentsoan jartzen duen heinean, hizketa-egintzaren etendura dakarren heinean. Horren arabera, hainbat autorek (hala nola, Austin, 1975 [1962]; Ohman, 1971; Gale, 1971; Searle, 1975) fikzioa ulertzen dute hizkuntz erabilera, itxuratu, simulatu, ez-asetu, sasiko, parasitariotzat.

Alabaina, pragmatikariak funtsean bat datoz zerarekin, komunikatzeko fikzioa balia badaiteke eta baliatzen bada, orduan fikzioa, azken batean, komunikazio-egoera jakin eta zehatz bat bezala ulertu behar da, hain zuzen ere, *fikziozko* deritzona eta fikzio-xede duena. Hala, Jacquenod (1988) autoreak jaso bezala, komunikazio bikoitz horrek (alegia, batetik, aldendu egiten dena komunikazio-egoera errealetik, eta, bestetik, fikzio-xedea duen komunikazio-egoera) implizitu darama ondoko enuntziatua: *egin dezagun fikzio batean bageunde bezala*:

[...] le cas du discours fictionnel revient, pour L [*esatari nagusia*], à placer son énoncé, lorsqu'il s'adresse à A [*norentzako*], sous la portée d'une phrase (implicite) telle que: "faisons comme si nous étions dans un monde fictif où...". Il s'agit donc d'un acte de fictivisation de la situation de communication. (Jacquenod 1988: 40-41)

Reboulek (1992) dioenez, gainera, fikzioa hizketa-egintza simulatutzat eta ez asetutzat hartuta ere, egon ere egon beharko du 'fikziozko komunikazioa' posible egiten duen komunikazio-baldintzarik, hain zuzen, komunikazioa berezko egintza komunikatibotzat bermatzen duena. Autore horren iritziz, irizpide linguistikoak ez ezik, irizpide kognitiboak ere kontuan hartu behar dira fikzioaren teoria pragmatiko batean, eta baztertu gabe fikziozko enuntziatu baten interpretazioa ahalbidetzen duten aspektu emotiboak eta estetikoak ere.

Ildo horretatik, zilegi da pentsatzea komunikazioaren fikzio-xedeak eskatzen duela fikzioa igortzea fikziozkotzat interpretatua izateko. Urrats bat harago, hartzailearen ikuspuntua gogoan, Currie (1990: 21) autoreak, adibidez, zera dio: "What distinguishes the reading of fiction from the reading of nonfiction is not the activity of the imagination but the attitude we adopt toward the content of what we read". Baina hartzailearenganaino jo barik, pentsatzekoa da esatariak berak bultzatzea dezakeela enuntziatu bat fikziozkotzat interpretatzera. Demagun ikerketa-corpuseko adibide bat:

[...] Horrela, begirada lehenik eta behin bitartekari bat da nigandik nigana igortzen duena. Nolakoa da bitartekari hori? Zer da niretzat ikusia izatea?

**Imajina dezagun** heldu naizela, jeloskortasunaz, interesaz, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zulotik begiratzera. [...] [EN: 316-317]

Adibideak erakusten duenez, diskurtsoak 'gonbitea' egiten digu fikziozko egoera zehatz bat imajinatzeko, ondokoa fikziozko erregistroan ulertu behar dela adieraziz. Eta ez da harriztekoa filosofian *gonbite diskurtsibo* modukoak atzematea, izan ere, Cossutta (1989: 139-141) autoreak gogoraraten duenez, diskurtso filosofikoaren analisisan saihestezinak dira aspektu pragmatikoak, filosofiak sarritan erreflexiozko eta partizipaziozko formatuan eman ohi du baitu aditzera bere doktrina. Gonbite diskurtsibo horrek eten egiten du enuntziatua.



Dena den, pragmatikak lagun badezake ere fikzioa identifikatzen, nekez izango da irizpide bakarra. Izan ere, pragmatikak arreta hizkuntzaren ekoizpenean eta komunikazio-xedean jartzen du, baina ez dio zuzenean heltzen fikziozkotzat hartzen den objektu enpirikoaren figurazioari. Goiko adibidean, esaterako, ‘imajina dezagun’ hizkuntza markak etendura enuntziatiboa erakusten du, xede komunikatibo berri bat adierazten baitu diskurtsoan, fikziozkoa, irudimenezkoa. Haatik, ez du kontu ematen ondotik aipatzen den ateko sarrailaz, ate-zulotik begira dagoen pertsonaiaz, fikzioak berak sortutako munduaz, eta abar.

### 2.3.2. Semantikaren ikuspegia

XX. mendearen hasieran, hainbat autorek, hala nola, G. Frege, B. Russell, A. Meinong eta P. F. Strawson, luze eztabaidatu dute hizkuntzaren analisiaren ikuspegitik asertzioaren erreferentziatasunaren mugez. Literatura zabala da, adibidez, "Frantziako erregea burusoila da" eta "laukia borobila da" bezalakoak zilegi edota faltsuak diren; Sherlock Holmes fikziozko izakia eta Zentauroa bezalako izaki mitologikoa existitzen diren edo nola existitzen diren. Sainsbury (2010) irakasleak panoramika zabala ematen du asertzioak adieraz ditzakeen munduen eta izakien posibilitateaz eta mugez eztabaidatu denaz.

Semantika formalak, hizkuntzaren filosofiak eta logikak ‘fikzio’ kontzeptua pentsamenduaren laborategi eta metodo analitiko bezala erabiltzen dute, hau da, funtsean, lan-tresna bezala. Ikerketa honi dagokionez, esan gabe doa semantikaren ikuspegi analitikoak nekez lagun dezakeela fikzioaren kontu ematen. Izan ere, auzia ez da fikziozkotzat hartuko ditudan enuntziatuen erreferentziari zein estatus ontologiko aitortu behar zaien edota zein den horien onargarritasuna, errepresentagarritasuna eta egiazkotasuna.

Arrazoi beragatik, ikerketa honetan, fikzio-irizpidetzat baztertzekoa da, esate baterako, Lewis (1973, 1978) autorearen ‘mundu posibleen’ teoria. Halatan, ‘mundu’ terminoa aipatzean, ikuspegi logikotik bainoago ikuspegi literariotik heldu nahi diot, hau da, enuntziatu batek adierazten duen egoera edo, nahi bada, egoera jakin baten *agertokia* eta gertakizunari dagozkion aspektuak hartzen ditut kontuan. Dakigunez, gainera, Sartreren obran adibide literarioek ez dakarte *mundua* ulertzeko hainbat eskema-moduko

desberdin, baizik eta ezagun eta gureak dugun giza-espazioko egoerak, egunerokotik jasotakoak.

Pragmatikaz ere aipatu bezala, ikerketa honen *corpusa dela* eta, semantikak bakarrik ez du ahalbidetzen fikzioaren definizioa. Semantikaren ikuspegitik, fikziozkotzat hartuko dut ilustrazio gisa teoriak aditzera ematen duen giza-egoera konkretua. Baina horren emergentzia diskurtsiboa ez dagokio soilik semantikari; areago, kontuan izanik fikzioa ez dela bloke-gisa ematen Sartrearen tratatuan, baizik eta teoriarekin batera uztartuta eta, gainera, han-hemenka. Izan ere, Temmarren (2013) tesiaren arabera, diskurtso filosofikoan fikzioak semantikoki erreferentzia osagabea eman ohi du, nonbait fikzioaren xedea filosofian ez baita fikzioa bera ematea eta garatzea, baizik eta filosofia *bestela* adieraztea. Zera, jomuga filosofikoa betetzeko beharrezkoa ez den informazioa printzipioz alferrikakoa da filosofian; eta, hortaz, ez dagoke ‘puztutako’ fikziorik.

Hainbat autorek fikzioaren bereizgarri eta identifikazio-irizpide nagusitzat erreferentziaren osagabetasuna hartu dute. Hala, Goodman (1972, 1978), Howel (1979) eta Martin (1983) autoreentzat, esaterako, fikzioa ezinbestez partziala da eta partzialtasun hori fikzioaren hartzaileak osatzen eta egokitzen du bere ezagutzarekin eta bere ezagutzatik, bere baitatik moldatzen eta interpretatzen du. Pentsatzekoa da, ildo horretatik, gorago aipatutako gonbite-tankerako markatzaileak (*imajina dezagun*), pragmatikoki, erregistro teorikoak nekezago ahalbidetuko lukeen partizipazioa gauzatzen duela, eta, gisa berean, fikzioaren osagabetasunak, zergatik ez, semantikoki. Horren arabera, fikzioak semantikoki eskatzen duen partizipazioak filosofia nolabait ‘gure’ egingo luke.

Aipatu dugunez, gainera, ikerketa-corpuseko fikziozko egoerak ez daude urrun gizakion esperientziatik, munduaz dugun oinarrizko eskematik eta ezagun ditugun espazio-denborazko koordinadetatik. Aipatzekoa da, dena den, Ryan (1980, 1981) autoreak horrela irizten dion bezala, fantasiako munduei dagozkien fikzioak (demagun munstro bat lilurazko mundu magiko batean) ‘urruneko’ edo ‘bestelako’ munduak dakartzanean, fantasiako mundu horiek ere eduki daukagun mundu-eskematik abiatuta interpretatzen omen ditugula.

Bestalde, nahiz eta fikziozkotasuna zehazki hizpide ez izan, ikuspegi kognitibo batetik, Van Dijk (1980a) autoreak testu-mailako osagabetasun semantikoan jartzen du arreta. Kontakizun batean (adib. *gizonak atea ireki zuen*) badago nahikitzen den informazioa eta isilpean geratzen dena (adib. *gizonak giltza patrikatik atera, eskua sarrailetik gerturatu, giltza sartu eta biratu egin zuen*). Oro har, egoera, ekintza, gertakizuna edota kontakizuna ulertzeko soberakoa datekeen informazioa hein batean saihestu egiten da.

Autore horrentzat, neurrizko osagabetasuna beharrezkoa da semantikari gagozkiolarik (horri 'zero gradua' esaten dio), betiere ulermena asetzen den heinean. Horrela, Van Dijk (ibid. 170-173) testuaren informazio semantikoaren konpletibotasun-mailaketa hirukoitza egiten du: informazio *in-konpletoa* edo komunikazio arruntaren *zero gradua*; informazio *supra-konpletoa* edo osagarria eta *soberakoa* den informazioa ere baduena; eta informazio *infra-konpletoa* edo behar beste informaziorik ematen ez duena.

Ikerketa-corpuseko fikzioari dagokionez, arestian aipatu bezala, fikzioaren presentzia aurreikusten da soilik teoriaren tesi bati atxikitzeko beharrezkoa den heinean, ez gehiago. Printzipioz salbuespena da fikziozko enuntziatu batek informazio supra-konpletoa ematea; baina badaude. Ondoko adibideari arreta ipiniz, azpimarratutako informazio soberakoa da, bigarren mailakoa; ez dio fikziozko egoerari (ezta ikuspegi filosofikotik ere) funtsezko ezer gaineratzen aipatu 'baserria' zuria izateak, zeruaren kontra nabarmentzeak eta muino baten gainean egoteak. Nahikoa zen 'baserri bat' ipintzea, berdin balioko zukeen.

Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek *saihesteko begiradatzat* hartzen dute ez bi begi baizik eta **baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena muino baten gainean** (EN: 315).

Leak (2011) adituarentzat, *L'Être et le Néant* obran tankera narratiboa duten adibide ilustratiboak [*sic*] hertsiegiak dira obraren filosofiaren argitan. Autore horrentzat, zenbait egoera zalantzagarrria dateke testuinguru edo munduaren ulermen-mota jakin batetik kanpo; eta horrek eragin semantikoa baino gehiago, eragin filosofikoa dauka, areago, giza-izatearen osotasuna xede filosofikotzat duen obra izanik Sartrearen tratatuarena. Eredu gisa aipatzen ditu, esaterako, *Emakumearen* eta *Homosexualaren* adibide konkretuak (2.2. kap).

Leakek (2011) dioenez, lehen ‘fikzioa’ nekez ulertuko litzateke, esate baterako, islamiar herrialde zenbaitetan; edota, bigarrena, Grezia klasikoan. Hori ez da berez ikerketa honen auzia. Baina, ordea, ez dirudi tratatuaren jomuga denik giza-izatearen marko posible guztien kontu ematea. Koherentzia semantikoaren ikuspuntutik, bederen, ez dirudi *L’Être et le Néant* obrak huts egiten duenik bere fikziozkotasunean. Tratatuak ‘eszenatoki’ propioa eratzen du, sarri 2. Mundu Gerra garaiko Frantziako gizarte urbano baten ikuspegitik uler daitekeena hobekien. Zeinahi jomuga filosofiko orokortzailek hortxe du nahitaez abiaburua.

### **2.3.3. Diskurtso Filosofikoaren Analisiaren ikuspegia**

*Diskurtso Filosofikoaren Analisia* ikerketa-ildoaren aitzindarietzat (Cossutta, 1989, 1995; Maingueneau, 1995, 2005; Maingueneau & Cossutta, 1995), diziplina hori ez da diskurtso-mota jakin bat (hots, filosofikoa) aztergai duen diskurtso-analisi soila, baizik eta berezko diziplina. Diskurtso filosofikoa auto-eratzailatzat hartzen dute. Azken batean, diziplina horren oinarrian dagoena zera da, filosofiak bere diskurtso propioa fundatzeko jomuga duela eta beste ezein diskurtso-motak ezin funda dezakeela. Halatan, diskurtso periodistikoak, esaterako, ezaugarri linguistiko propioak eduki badauzkan arren, jo dezake diskurtso filosofikoaren autoritatera, baina ez alderantziz.

Bost diskurtso eratzaile zenbatzen dituzte (Maingueneau & Cossutta, 1995: 113): erlijiozkoa, filosofikoa, juridikoa, zientifikoa eta literarioa. Hala, diskurtso filosofikoaren analisiak hartzen du diskurtso filosofikoa instituzio diskurtsibo propioz, zera, diskurtso bat bezala non eta bat egiten duten diskurtso filosofikoak eta horren adierazteak edo emergentziak berak. Ildo horretatik, Lhomme (2005: 59) idaztanka filosofikoa aldarrikatzen du; ez da nahikoa autore horren iritziz, filosofiari dimentsio erretorikoa aitortzea, filosofia idaztea bera pentsamendu-operatzailea da; bat datoz filosofia idaztea eta pentsatzea.

Horren arabera, diskurtso filosofikoa bereizgarria bada beste diskurtso-mota batzuen artean, arrazoa da diskurtso filosofikoak ez duela hizkuntzarekiko distantziarik hartzen: bera da hizkuntza, bere emergentziak bat egiten du diskurtsoa bera kudeatzeko moduarekin (Maingueneau, 1995: 40). Aktibitate diskurtsibo gisa, filosofiak mundu bat

edo parametro batzuk errepresentatzen ditu non bere enuntziatio-baldintzak ere parametro horien parte diren.

Dena den, diziplina horren helburua ez da diskurtsoaren analisi deskriptibo soila egitea. Horregatik, alde batetik, kontuan hartzen du kasuan kasu diskurtso filosofikoak markotzat duen doktrina filosofikoa; eta, beste alde batetik, balio heuristikoa ematen dio diskurtso filosofikoaren analisiari. Cossuttak (1995: 12) dioenari jarriki, adibidez, doktrina orok bere eskemen errepresentazio behinena du xede, harik eta obraren tankera determinatzen duena, hain zuzen, bere eduki-egituren eta espresio-formen arteko erlazioa baita.

Filosofiaren auto-eraketa mugimendu etengabe hori diskurtsoaren esentzia propioa litzateke, ez dena erabat totalizatzen, diskurtsoa eten gabe sortzen eta birsortzen duena. Antzera azaltzen du Lobo (2000: 85) autoreak ere: “L’histoire de la philosophie serait l’histoire de cette langue qui cherche à s’enfanter elle-même, en produisant le sol ou la matrice où elle s’engendre”. Horregatik, diskurtso filosofikoaren analisiak enuntziatioaren teoria hartzen du oinarri, eta testuen heterogenotasuna ardatz.

Enuntziatioaren teorian, abiapuntua hizkuntzaren ikuspegi pragmatikoa da: enuntziatioa hizketa-egintza bat da (Benveniste, 1966: 80): “la mise en fonctionnement de la langue par un acte individuel d’utilisation”. Marko teoriko horren arabera, diskurtsoa hizketa ‘akto’ bat da inplikatzeko duena komunikazio-xede bat (beraz, esataria, hizkuntzaren modalizazioa eta enuntziatio-ardatzak). Benvenistek (1970) enuntziatioaren aparatu formal izan beharko lukeenaren oinarriak ematen ditu, eta horiek diskurtsoaren analisiak bere egiten ditu.

**i) Enuntziatuaren *pertsona-indizeak*:** enuntziatzailea / koenuntziatzailea.

**ii) Enuntziatuaren *topografia*:** leku-denborazko deikiak (adib. erakusleak).

**iii) Enuntziatuaren *kronografia*:** aditz-paradigmaren erabilera.

Zehazki fikzioari dagokionez, diskurtso filosofikoan fikzioa testutik isolatu ahal izateko, Philippe (1995, 2005) eta Temmar (2003, 2007, 2013) autoreek fikzioaren aparatu formal baten oinarriak ematen dituzte. Fikzioak enuntziatioan uzten dituen aztarnetan jartzen dute arreta, hots, diskurtso filosofikoak berorren enuntziatioarekin duen

harremanean. Autore horientzat, elementu linguistiko jakin baten presentzia ez da nahikoa ezer fikziotzat jotzeko. Hala, espresio jakin bat fikzio ‘ekarle’ izan daitekeen arren, horrek ez du bermatzen agertu aldiro fikzioa sortuko duenik. Baina bai, ordea, alderantziz, zerbait fikziotzat jotzen bada, egon beharko da horren adierazlerik.

L’utilisation d’un tel appareil n’est bien sûr pas une condition nécessaire de l’assignation du status “fictionnel” à un énoncé; la reciproque est cependant vraie (Philippe, 2005: 76).

Philippek (1995, 2005) azaltzen duenez, fikzioa diskurtso filosofikoan haustura edo etendura enuntziatibo bezala agertzen da, eta hori hiru modutara gertatzen da. Horrela, bada, hiru irizpide nagusi ematen ditu:

**i) Fikzioaren aurkezpen-markatzaile** baten presentzia.

**ii) Entitate enuntziatzaileen talka**, diskurtsoarena eta fikzioarena.

**iii) Denboraren neutralizazioa eta fikzioaren denborazkotasun propioa.**

Horrez gain, autore horiek laugarren irizpide bati ere erreparatzen diote, zera, fikzioa diskurtso filosofikoan txertatzearen ‘hautu’ enuntziatiboak berezkoa du (gertukoa, bederen) hizkuntza-erregistro literarioa jotzea. Horrek nolabait ere fikzioaren mailaketa diskurtsiboaz jardutera garamatza, izan ere, irizpide horren arabera, hizkuntza-erregistroaren aldaketak markatuko luke fikzio-gradu edo, hobeto esateko, fikzio ‘xede’ graduetan gorena, idaztankera literarioa ez baita derrigorrezkoa, lehen hiru irizpideen arabera, enuntziatioan fikzioa gertatzeko.

Esanak esan, diskurtso filosofikoaren analisisian lerratzen diren autoreak bat datoz zerarekin, diskurtso filosofikoa aztergai duen ikerketa bat nekez izango da agortzailea inskripzio linguistikora bakarrik mugatzen baldin bada eta ez baldin badu kontuan hartzen, era berean, diskurtsoa bera ahalbidetzen duen jomuga filosofikoaren nolakotasuna. Ikerketa honi dagokionez, tratatuaren xede filosofikoaz gogoeta egiteak lagunduko digu argitzen zein harreman dagoen diskurtso filosofikoaren eta diskurtso hori adierazteko bidearen artean.

## 2.4. Fikzioa diskurtso fenomenologikoan

Fenomenologia doktrina filosofikoa baino gehiago irizpide metodologiko bat da filosofia *egiteko*. Zalantzarik gabe, metodo fenomenologikoaren hautuak *L'Être et le Néant* obraren idaztankera baldintzatzen du. Horrek bultzatuko du, izan ere, tratatuaren eduki teorikoa konkretutasunera lerratzea eta deskribatu xede duen ontologia hitzez adierazteko erronka linguistikoari aurre egitera. Loboren (2000) tesiari jarraiki, egunerokotasunera jotzea diskurtso fenomenologiko ororen berezko eskakizuna da, konkretutasuna hizpide, diskurtsoak gainditu egin behar baitu hizkuntza teoriko eta ohikoaren arteko traba terminologikoa.

Le positionnement du discours phénoménologique devra donc naviguer entre plusieurs écueils. Il devra d'abord éviter de choisir des expressions tombant en dehors du cadre de la langue philosophique pour cette raison qu'elles ne conviennent pas à l'usage qui doit être le leur. Par ailleurs, elle devra recourir avec parcimonie à des expressions extérieures à ce cadre, expressions qui sont de deux sortes: (a) technico-scientifiques et (b) communes, provenant de la vie quotidienne. (Lobo, 2000: 84).

Fikzioaz dihardugularik, Temmarrek (2013) bere tesian diskurtso filosofikoan agertu izan diren fikzio-motak sailkatzen ditu, diskurtso fenomenologikoa barne. Autore horrentzat, fikzioa diskurtso fenomenologikoan ez da apaingarri erretorikoa, baizik eta filosofia balioztatzekeo tresna diskurtsiboa. Beraz, fikzioak diskurtso nagusia baino presentzia diskurtsibo lausoagoa ohi du, funtsean, demarkazio gramatikala baitu erretorikoa baino gehiago. Diskurtso-mota horretan baliatu ohi den fikzioari 'fikzio puntuala' (*fiction ponctuelle*) esaten dio.

Filosofian baliatu izan diren fikzio-moten artean, Temmarrek fikzio puntuala beste bi fikzio-motarekin erkatzen du. Ilustrazioko eta Argien Garaiko autoreek (Condillac eta Rousseau aipatzen ditu) baliatu fikzioari, esaterako, itsaskorra esaten dio (*f. pregnante*). Fikzio-mota hori omnipresentea da eta dimentsio globala du diskurtsoan, sarri paratestu edo eranskin gisa. Maila semantikoan, antza du literatur fikzio-eredu prototipikoarekin: pertsonaiak, foku literarioa etab. Fikzioak izan dezaken euskarri-funtzio gorena du (*loc. cit.* 141): "Le recours à la fiction dans ce cas soutient l'ensemble du système [...] Loin d'apparaître comme une simple digression, la fiction est constitutive de la doctrine".

Bestalde, meditazio tankera hartzen duen fikzioa ere aipatzen du (Descartes hartzen du hizpide); fikzio-mota horri *scène méditative* esaten dio (*ibid.* 104). Eszena meditatiboa testuan urrunetik ohi dator. Horietan, filosofiaren narrazioak meditatzailearen figura sartzen du, hots, pertsona enblematiko bat diskurtsoari kutsu autobiografikoa ematen diona. Horrek irakurlearekiko identifikazio-polo bat sortzen du; irakurlea ‘meditatzaile’ bihurtu nahi da. Eszena meditatiboak konbertsio metodiko bat du eginkizun. Nolabait esateko, adierazitakoa fikzioak (*Ni*) kontzientzia baten bitartez janzten du eta errealitate propioa aitortzen dio.

Diskurtso fenomenologikoaren fikzio puntualari dagokionez, Temmarren (2013) tesiak berez Merleau-Pontyren diskurtsoa hartzen du eredu, baina aipatu egiten du, halere, Sartreren diskurtsoarekiko antza estua. Depraz (1997, 1999, 2011) autoreak, berau diskurtso fenomenologian aditua, azpimarratzen duenez, hainbat diskurtso fenomenologiko mota egonik ere, Sartrerena eta Merleau-Pontyrena diskurtso-mota berari dagozkio, hain zuzen, eta batik bat, autore horiek diskurtso teorikoa idaztankera literario edota fikziozkoarekin uztartzen duten heinean.

Temmarren (2013) tesia abiapuntu hartuta, fikziozkotasunak hiru jomuga ditu diskurtso fenomenologikoan; horien arabera banatuko dut ikerketaren azpi-atal hau. Lehena fikziozkotasunaren puntualtasuna da: fikzioa diskurtsoan etendura enuntziatiboa gisa eta modu xedatu batean agertzen da, nahiz eta fikziozkotzat jotzen den enuntziatua luzeagoa eta laburragoa izan daitekeen. Bigarrena fikzioaren ‘adibide’ izaera da. Hirugarrena filosofia ‘iruditan’ emateko xedea da.

#### **2.4.1. Fikzioaren unekotasuna diskurtsoan: fikzio puntuala**

Testu batean fikzio puntualari dagokion tartea aski luzea izan badaiteke ere, berau definitzen da maila asertiboan gertatzen den etendura (*décrochement*) enuntziatibo bezala. Hori dela eta, diskurtsoaren fikziozkotasuna printzipioz isola daiteke. Etendura horrekin batera, maila semantikoan, fikziozkotasunak orokor daitezkeen (giza) esperientzietara igortzen du; eta maila pragamatikoan, aldiz, esperientzia jakin bat irudikatzeraz eta testuan nolabait parte hartzeraz.

Fikzio-egoera *orain-hemen* konkretu batean gertatzen da eta *orain-hemen* hori *NI* batekin identifikatzea eskatzen da. Diskurtsoa giza errealitera zabalzen da, biderkatu



egiten dira esperientzia sensibleari mailegatutako objektuak (*mahaia, zelaia*, kasu) eta mundu-koordinatu batzuk sortzen dira. Funtsean, pertzepzio eta irudimenera jotzea fenomenologiaren ahalegintzat uler daiteke, hain zuzen, errealitatearen atzematea hizkuntzaren beharrezkotasunaren menpekotzat ez hartzekoa; nahiz eta, paradoxikoki, hizkuntza behar den horren kontu emateko.

Enuntziazioaren etendurari dagokionez, bi enuntziatu-mota txandakatzen dira: enuntziatu nagusia (berau diskurtsoaren argudio-hari logikoa eta lineala) eta menpekoa (berau narraziozkoa eta fikziozkotasuna dakarrena). Lehena diskurtsoaren idazketa-denborari dagokio eta testuaren barne-kohesioa ziurtatzen du; bigarrena, fikziozkotasuna dakarrena, txertatzen den enuntziatu orokortzailea da, plan enuntziatibo propioa du eta isola daiteke. Temmarrek (2013: 154-155), lau ezaugarri aitortzen dizkio etendura enuntziatibo horri:

**i) Txertatze-markak:** *hara...*, *demagun...*, *adibidez...*, *baldin...* etab.

**ii) Orokortasuna:** *NI* izenordain orokortzailearen presentzia.

**iii) Ilusio deiktikoa:** Erakusle ezohikoaren presentzia.

**iv) Denbora-ardatzaren neutralizazioa:** fikzioaren orainaldia.

Hortaz, fikzio puntuala agertzen da diskurtso batean printzipioz ez duena enuntziatio nagusia fikziozkotasunean oinarritzen. Baina, teoria eta fikzioa, haatik, bortxarik gabe txandakatzen dira. Enuntziatuen etendura lerratze bat bezala uler daiteke. Alde batetik, enuntziatu nagusiaren ardura hartzen duen esatari bat dago, berau idazlearekin identifika daiteke; eta, beste alde batetik, enuntziatzaile orokortzaile eta espezifikatu gabeko bat agertzen da *guztiok* garena eta *inor* ez dena, eta, oro har, *NI* izenordainaren forma hartzen duena.

C'est un "je" incorporant qui est le "je" de tout lecteur et, pourrait-on dire, de tout le monde et de personne. Ce "je" n'a pour référent que celui qui le fait fonctionner, il n'a aucune référence dans le texte, il est desembrayé. Il contraste avec le "je" comme repère énonciatif sujet; celui du philosophe, "vrai embrayeur" [...]. (Temmar, 2013: 155)

Dena den, diskurtsoa enuntziatiboki heterogenoa eta bikoitza izan arren, diskurtsoa bakarra da, gertaleku linguistiko-diskurtsibo bakarra, osoa eta batua. Aipatu bezala,

fikzioak hartzen du sekuentzia askatu baten tankera eta izaera narratiboa edo kontakizunezkoa (3. pertsonan ere eman daitekeena). Hala, fikzioaren helburua enuntziatu *askatu* horren erreferentea *ikusgai* ematea da. Baina zera, fikzioa ezegonkorra da, ordea, maila erreferentzian, zehatza ez den objektua aurkezten baitu. Egunerokoa eta ezaguna izan arren, ezin da identifikazio zuzena egin, aldi berean baita konkretu eta indeterminatu.

Erreferentziaren lausotasuna dela eta, Temmarrentzat (2003, 2007), esanguratsua da erakusle ezohikoaren (*démonstratif insolite*) presentzia. Erakusle-mota hori ez da ez anaforikoa ez kataforikoa ez deiktikoa, eta ez du seinalatzen hari narratiboan presente den inongo objekturik; erreferente lausoa dakar; izan ere, *aberrantea* ere esan izan zaio (adib. Gary Prieur & Noailly, 1996). Temmarrek (2013: 85) azaltzen duenez, diskurtso fenomenologikoan, erreferentziaren ziurgabetasunak eta osagabetasunak, paradoxikoki, ahalbidetu egiten du fikzioaren errepresentazioa irakurlearen imajinarioan.

Objektua testuak berak sortzen du, adibide gisa, bat-batean, birtualki eta modu orokortzailez presente bihurtzeko xedez. Urrutira gabe, ikerketa honetako corpusa erakusle ez-ohiko batekin hasten da.

Nigana etortzen ikusten dudana **emakume hori**, kaletik doan **gizon hori**, nire leihotik kantatzen aditzen dudana **eskale hori** niretzat *objektuak* dira, hori ez da zalantzazkoa. [EN: 310]

Ilusioaren efektua areagotu egiten da frantsesezko testuan, erakuslea izenaren aurretik baitoa eta kapituluaren lehen hitza erakuslea baita (*Cette femme...*), kapituluak izango duen estiloa hasieratik erakutsi nahi balu bezala. Adibide horri dagokionez, ematen du erakusleak gehiago isolatzen duela erreferentzia mugatzaile zehaztugabeak baino (*emakume bat*). Baina izen horiek balio orokorra dute: *emakume* ez da *emakume* jakin bat, baizik eta edozein gizaki.

Askotan horrelako izenak eremu semantiko jakin bati dagozkion meronimoak izaten dira, esaterako, *gizon*, *emakume*, *kale*, *gela* etab. edota *tintontzi*, *mahai*, *aulki*, *lehio* etab., Sartre kaletik paseoan edota idazten irudikaraz dezaketenak. Temmarrek (2013: 95) *scène d'écriture* deritzan fenomenoari egotzen dio filosofoek sarri dakartzaten adibide immediatoak eta egunerokoak; markatzaile kodetuak izaten direnak, non eta

objektuak (adib. *mahai*) eta pertsonaiak (adib. *Pierre*), objektu eta pertsonaia arketipoak baitira, ez egiaztatuak.

Hortaz, benetako deixia baino gehiago, erakusle ezohikoek fikzio puntualan 'keinu' deiktikoa dakarte, enuntziazioaren jarraipenaren ilusioa eragiten dute. Kontzientziari agertzen zaion *perceptum* bat markatzen dute; eta horrek azal lezake, adibidez, 3. pertsona izen berezi modura ekartzea (Paul eta *Anny*, kasu), *Bestea* erabili ordez (ez al dira Sartreren pertsonaia literarioak ere zeinahi izan zitezkeenak; esate baterako, *Les Chemins de la liberté* trilogiako protagonista Mathieu Delarue, literalki, 'kalekoa'.

Edozein kasutan, Temmarrek (2013: 160) eusten dionez, nahiz eta irudi lezakeen fikzioaren etendurak sarri enuntziatu nagusiaren argudio-tresneria frena dezakeela eta diskurtsoan zama dela edo, besterik gabe, gratuito eta ken daitekeen apaingarria, fikzioa diskurtsoan, bestelako baliabide batzuekin batera, heterogenotasunean, goihelburu frogatzaile baten alde agertzen da, nahiz puntuala izan. Beraz, testuan pausaldia dela iruditu arren, fikzioak leku hartzen du balidazio eta justifikazio filosofikoaren baitan.

Cossutta (1989: 141) autoreak jada aipatzen duenez, diskurtso filosofikoak argudioa ohi du oinarrizko ardatz diskurtsibotzat, eta ardatz horren bueltan lotzen eta saretzen dira estrategia diskurtsibo guztiak, baita fikzioa ere. Diskurtsoaren aspektu guztiek bat egiten dute egiazkotasunaren alde, argudioa aurrera ateratzeko eta, azken batean, hartzaileagan eragiteko. Fikzio puntualak ere, beraz, hots, aldizkako ikuspuntu enuntziatibo orokortzaile, indeterminatu eta narratiboak, parte osoa behar luke filosofiaren eraketan eta balidazioan.

Dena den, Temmarrentzat (*loc. cit.* 160), ez da baztertzekoa fikzioari diskurtso fenomenologikoan zeregin fatikoa ere aitortzea, alegia, filosofia hartzailearekin komunikazio-bidean mantentzeko eta, orobat, idazlearen eta irakurlearen arteko bitartekari moduko bat izateko: "la fiction philosophique constitue l'exemple parfait de cette nécessité qu'a le discours philosophique de chercher à intégrer l'autre dans le discours". Hortaz, fikzioak, jomuga orokortzailea eta unibertsala bezainbat, ikuspuntuaren efektua ere sortzen du, pertsonifikazioarena.

#### 2.4.2. Fikzioaren etsenplaritatea diskurtsoan: fikzioa eta adibidea

Sartreren diskurtso fenomenologikoan, fikzioa adibide-bidez testuraten da, *exemplum* gisa. Horregatik, ‘fikziozko adibidea’ esapidea tautologia bat bezala ulertu behar da ikerketa honetan. Adibideak berezkoa lukeen izaera ostentsiboa dela kausa, hainbat autorek irizten dionez (Lanteri-Laura, 1954; Lobo, 2000, 2001), fenomenologiako obrek aise jotzen dute errekurtsio horretara. Hala, ikuspegi erreferentzial batetik, adibideak ‘erakutsi’ egiten duela esango dugu.

Baina adibidea tresna linguistiko-diskurtsiboa ere bada, alegia, hizkuntza-bidez egiten den errepresentazio semantikoa edo, nahi bada, kontzeptuaren hizkuntzazko *marraskia* edo *argazkia*. Ulertzen da, beraz, diskurtsoan baliatzen den unetik, adibidea hizkuntzazko xede batekin baliatzen dela eta eginkizun bat duela. Ikuspegi horretatik, Mainguenearen (1976: 169-170) intuizioari jarraiki, xede hori enuntziatua noranahikotzea edota ‘orokortzea’ dela esango dugu.

Loborentzat (2001), nahiz eta adibide-bidezko argudioa ez den agian filosofiko eta zorrotzena, *fenomenologikoa* [sic] dateke, edo behintzat, fenomenologiari gertukoena eta egokiena zaiona: “l’exemple est le lieu du phénoménologique par excellence”. Azken batean, adibide ororen izateko arrazoi erreferentziazkoa da lehenik, adibideak zerbait agerrarazteko xedea du, izaera indikatiboa du. Eta fenomenologia ‘ager’ daitekeenaren zientziazat jo izan da (Díaz, 1973: 13).

Orobat, adibideari identifikazio-eginkizunik ere aitortzea ez dago lekuz kanpo, izan ere, adibideak analisirako kategoriak egunerokoari mailegatu ohi dizkio eta bere zentzua giza esperientziazko irizpideen baitan hartzen du. Gainera, gorago aipatu dugunez, ikuspegi pragmatiko batetik, adibideak adierazi denaren baliokide edo konparazio tankera hartzen du: *adierazi dudan hori beste era batean azalduko dizut, horren baliokidea den adibide batekin*.

Nolanahi ere, diskurtso-baliabidea den heinean, alegia, diskurtso nagusira *datorren* zerbait, adibideak badu diskurtsoarekiko bigarrentasunik, nahiz eta, Lobok (2000) defenditzen duenez, bigarrentasun hori (*sécondarité, auxiliarité*) ez den ulertu behar bigarren mailako edo sasiko zerbait bezala. Horrela, bada, adibideari izaera flotantea eta

protetikoa [sic] aitortuta ere, deskripzio eidetikoari bete-betean helduko lioke eta bidea zabalduko lioke esplorazio subjektiboari.

Adibidearen izaera esploratzaile horren ideia hobeto ulertzen da, Moreno (2000: 49-50) autoreak dioen bezala, kontuan hartzen bada fenomenologian testua nolabait *proba-eremu* esperimental dela. Autore horrentzat, adibidearen izaera orokortzailea ez ezik esploratzailea da. Horrek lagun dezake azaltzen diskurtso fenomenologikoaren paradoxatzat jo daitekeena lehen begiratuan: alde batetik, orokortasuna xede izanik, konkretutasunera jotzea (aulkia, mahaia etab.); eta, beste alde batetik, egiazkotasuna jomuga filosofikoa izanik, fikzioa balioestea.

Hain zuzen ere, Temmarrentzat (2007, 2013), adibidearen xede identifikatzailea dela kausa, adibideak diskurtsoko konkretutasun eta orokortasunaren arteko talka leunduko luke eta, horretarako, fikziozkotasuna zilegiztatuko. Eta, horrez gain, filosofiak adibidearen bidez errotze ontologikoa bilatuko luke eguneroko giza errealitatean (ez abstraktutasunean), nahiz eta erreferentzia, horratik, fikziozkoa eta lausoa izan.

La philosophie renonce à l'exemple si celui-ci n'est pas générique ou généralisable. Le philosophe recherche paradoxalement, au moyen de la fiction, un ancrage ontologique dans le réel, tant et si bien que la construction de la référence dans ses textes est toujours fictive (Temmar, 2013: 165)

Dakigunez, fenomenologiaren abiapuntua, alde batetik, Husserlen *Zurück zu den Sachen selbst* lema da, hau da, 'gauzetara bertara itzultzea', filosofiaren oinarriztat konkretutasuna eta egunerokotasuna hartzen duena. Beste alde batetik, 'intenzionalitate' kontzeptua funtsezkoa da fenomenologian, Sartrek kasik deskubrimendutzat jo zuena eta testu bat ere eskaini ziona (*SI*: 31-35): *Une idée fondamentale de la phénoménologie de Husserl: l'intentionnalité*.

Horren arabera, ez da ulertzen kontzientziaren deskribapenik, kontzientziaren zerekikotasunik gabe. Horrek guztiak garamatza hurrengo atalean aipatuko dugun Sartrearen 'situazio' kontzeptura. Kontzientzia beti *situazioan* dago; kontzientzia beti da 'zerbaiten' kontzientzia. Fenomenologiak fenomenoaren 'agertzeari' eta agertze-moduei jartzen die arreta, fenomenoaren artekotasanunik gabeko gauzen agertze eta atzemateari, baina atzemate eta agertze hori dira, hain justu, kontzientzia.

Zerekikotasunari dagokionez, Lanteri-Laura (1954: 58, 71) autoreak adibide fenomenologikoaren euskarri-izaera azpimarratzen du. Hala, fenomenologia bat letorke berau hitzez (adibide-bidez) garatzeko moduarekin. Baina autore horrek adibidearen ordezkagarritasuna ere azpimarratzen du, zera, ez dago adibide bakarria fenomeno bakoitza adierazteko; adibidea ez da berak 'eusten' duen fenomenoa, adibide bat dagoen lekuan beste bat ere ipini liteke.

Horren arabera, nahiz eta konkretutasunak ezaugarritu adibidea, adibidearen bitartez atzematen dena ez da konkretutasuna (hori ezinezkoa litzateke, adibidea sortu edo asmatutako zerbait baita). Adibidearen bitartez gertatzen dena fenomenoaren pertzepzioaren aktoa bera litzateke, nolabait esateko, adibide-kontzientzia moduko bat balego bezala (*conscience d'exemple*) kontzientziaren oinarrizko egituraren parte litzatekeena.

Fikziozko adibidea ulertzeko, Temmarrek (*loc. cit.* 85) ikuspegi diskurtsiboa du aipagai. Temmarrentzat, diskurtsoaren adibidegintzak fenomenologiaren funtsezko problematikari helduko lioke, hau da, ikusgai duguna printzipioz enigma dela eta mundua ezin dela mugatu *adierazitako* 'zera' batera. Baina, autore horrek eutsi bezala, hizkuntzaren bitartez errealitatearen kontu emateak, hain zuzen, estrategia diskurtsiboak eskatzen ditu ezinbestez. Ez du, bada, *L'Être et le Néant* obrak auzian jartzen gizakiaren *munduan-izatea* bera? Nola kontsideratu hizkuntza, errealitatearen kontu eman aurreko zerbait bezala?

Ez da posible hizkuntzarik gabe adieraztea fenomeno baten artekorik gabeko *agertzea*. Adibideak zeregin hori luke, hain zuzen, fenomeno hutsean eta soilean ematea, harik eta, hizkuntza bera *desagertu* ezinik, diskurtso nagusiaren esataria eta idazketa-denbora ezabatzeraino. Horregatik, fenomenologiari ezinbestekoak zaizkio errealitatetik eta egunerokotik jasotako maileguak. Temmarren iritziz, diskurtso fenomenologikoa proba-eremu aparta da idazketa-baldintzak berrasmatzeko, eta eremu espresibo horrek adibidea luke espaziorik behinena.

Bestalde, gorago aipatu ikuspegi pragmatikoaren ildotik, Lobok (2000: 87) erreparatzen dionez, adibideak ezin du dimentsio interlokutiboa pitzatu. Adibideak horrelako zerbait iradokitzen du: *hara zer diodan, hara zerk erakusten duen badela zerbait diodanarekin*

*lotuta dagoena*. Kontua da, autore horrek aipatzen duenez, ‘adibide’ terminoa pluribokoa dela, fenomeno diskurtsibo plurimorfoa, azken batean, sasi-kontzeptua, beti baita arbitrarioa eta irizpide jakin batzuen baitakoa zer hartzen den adibidetzat.

Husserl jada ohartu zen fikzioak (uler bedi horrekin fikziozko *adibideak*) ezaugarri propioak dituela diskurtsoan (1980 [1904-1907]):

- i) Proteiformea edo proteikoa da, hau da, aspektu aldakorra du.
- ii) Etadura dakar denboraren *continuumean*, intermitentzia modura.
- iii) Ez-presentetasunak ezaugarritzen du.
- iv) Pertzepzioarekin bainoago irudimenarekin lotzen da.

Aipatzekoa da Husserl hainbatetan egin zuela gogoeta irudimenaren erabilerari buruz metodo fenomenologikoan eta hori fenomenologian baliatzeko zilegi den tresnatzat hartzen zuela:

Para la consideración de esencias están en pie de igualdad la percepción y la representación de la fantasía; se puede destacar visualmente, se puede abstraer la misma esencia igual de bien a partir de ambas, y las posiciones de existencia que van enlazadas a ellas son irrelevantes [...] La fantasía, sin embargo, no sólo cumple iguales funciones que la percepción para la consideración de esencias; parece además contener en sí misma datos singulares y, por cierto, como datos efectivamente evidentes. (Husserl, 1982 [1907], V: 81-82)

El *eidos*, la *esencia pura*, puede ejemplificarse intuitivamente en datos empíricos, en datos de *la* percepción, del recuerdo” etc., pero igualmente bien *en meros datos de la fantasía* [...] esto no alteraría en nada el carácter originario de la forma de darse las esencias correspondientes, bien que datos imaginados no sean nunca datos reales. (Husserl, 1962 [1913]: § 4)

Llevamos a cabo, pues, por vía de ejemplo, cualesquiera vivencias singulares de conciencia [...] como hechos humanos reales en sentido estricto, o nos las representamos en el recuerdo o en una libre ficción de la fantasía. Sobre tal base ejemplar, que suponemos perfectamente clara, aprehendemos y fijamos en una ideación adecuada las esencias puras que nos interesan. (*ibid.* § 34)

En todo caso requiere [fenomenologoak] también aquí la libertad en la investigación de las esencias necesariamente el operar en la fantasía [...] *la “ficción” constituye el elemento vital de la fenomenología, como de toda ciencia eidética*; que la ficción es la fuente de donde saca su sustento el conocimiento de las “verdades eternas”. (*ibid.* § 70)

Diskurtso fenomenologikoari fikzioa ez zaio aiherr; areago, diskurtso-tresnaren tankera hartzen du. Baina, aipatu bezala, adibidea hizkuntzaren bitartez materializatzen da. Loborentzat (2001), adibideak, lehenik, egitura gramatiko-logiko propioa du eta etendura enuntziatibo gisa aurkezten da; bigarrenik, pragmatikoki, amuzki eta anekdota baliagarri gisa aurkezten da eta funtzio orokortzaile batekin; hirugarrenik, denborazkotasun batek biltzen du eta izaera inkoaktiboa du, uneoro hasiera-ekintzak balira bezala.

Adibidearen izaera inkoaktiboa aipatzeak gogorarazten du Temmarrek (2013) fikzio puntualaz azpimarratzen duena, alegia, berorren unekotasuna eta semantikoki duen izaera lausoa eta ziurgabea. Leakek (2011) dioenez, Sartrek filosofian baliatutako etsenplu ilustratuak bere literatur obretako kontakizunen hasierak izan zitezkeen. Horiek diskurtsoan identifikatzeko, Lobok (2001) lau ezaugarri nagusi aipatzen ditu:

**i) Aurkezpen-markak:** *demagun, adibidez etab.*

**ii) Ortotipografia:** *kakotxak, azpimarrak, parentesiak etab.*

**iii) Izenordainaren orokortzea:** fikzioaren enuntziatzaile propio bat.

**iv) Denborazko deikien presentzia:** fikzioaren denbora propio bat.

Esanak esan, ikusi dugunez, errealitatearen agertze-moduen kontu emateko, fenomenologiak ezin du hizkuntza saihestu. Modu gordinean esateko, hizkuntza fenomenologian zama da. Hala, filosofiaren eta espresabidearen arteko talka horretan, fenomenologoak ez du beste modurik; erredukzio eidetiko muturreraino eramanez ere, hizkuntza ezin du erreduzitu (Lobo, 2000: 78-79). Nola jarriko du fenomenologiak errealitatea suspentsioan (*époque* deritzona) noiz eta hizkuntza behar baitu erredukzio horren kontu emateko?

Fenomenologiak bisibilizazio-xede batekin eratzen du diskurtsoa. Sarritan irudimenera eta esperientzia konkretu partekagarria jotzen du. Horren arabera, Temmarrentzat



(2013: 76), fenomenologoak ‘dago’ eta ‘dager’ batekin lan egiteko joera du, ez bakarrik deskribapen fenomenologiko (diskurtsibo) batek eskatzen duen ‘darakus’ batekin. Fenomenologiaren *gauzetara bertara itzultzea* gauzatzen da, halaberrez, esperientzia konkretutik mailegatutako adibideak tarteko.

### **2.4.3. Fikzioaren eskematizazioa diskurtsoan: fikzioa eta irudia**

Sartreren *L’imaginaire* (1940) obrak azaltzen duenez, ikuspegi fenomenologiko batetik, irudia eta irudia irudikatzearen aktoa bereizezinak dira, batera sortzen dira biak. Ordea, irudiak talka egiten du bera denaren (bere iruditasunaren) eta bera zer den adierazten denaren artean, eta horrek bikoizketa sortzen du eta distantzia zabaltzen du kontzeptuaren eta irudiaren artean. Beraz, irudia ulertu behar da diskurtsoan dinamikoa den zerbait bezala, baina, era berean, izaera iheskorra, anbigua, problematikoa eta ezegonkorra duen zerbait bezala.

Alteritate hori nabarmena da Sartreren diskurtso filosofikoan (Vassallo, 2003, 2005). Autore horrentzat, tratatuaren fikziorako eta irudirako joera lotuta dago obraren oinarri teorikoarekin. *L’Être et le Néant* ontologia-tratatu bat da *nitasuna* fundatu asmo duena, baina horren kontu emateko, diskurtsoak ezin du saihestu entitate enuntziatzailea. Baina, gainera, tratatuak irudimenaz eta fikzioaz egin erabilera ulertu behar da obrak adierazten duen paradoxa ontologiko baten argitan, zeinaren baitan *Bere baitarako izatea* baden eta aldi berean ez den.

Ordea, Sartreren filosofiari helduko diogu hurrengo atalean. Irudiari dagokionez, Noudelmann (1996) autoreak bere tesian Sartreren filosofiaren irudi-sarea aztertzen du. Tesi horren arabera, irudimenak *L’Être et le Néant* tratatuan gorpuztu egiten du kontzeptu teorikoa, eta hori hiru modutara gertatzen da. Hiru harreman-mota bereiz daitezke kontzeptuaren eta irudiaren artean (*loc. cit.* 33-34): **(i)** inspekzio bisuala; **(ii)** eszena indeterminatua; **(iii)** eskema logiko-metaforikoa.

Lehenari dagokionez, aurkezten den objektua agerikoa eta nabarmena da eta eguneroko esperientzia konkretutik hartzen da, adibidez, gizon bat kalean (*EN*: 339): “Uste izan dezaket gizon bat dagoela nire zelatan ilunpean eta deskubritu zuhaitz-enbor bat dela gizakitza hartzen nuena”. Ordea, aipatu behar da, inspekzio bisualak konkretutasunera jo arren, elementu ostentsiboek balio orokortzailea dutela, baita pertsonaia zehatzak

aipatzen baditu ere (adib. Paul, *Pierre, Anny*). Horiek besterik gabe *bestetasuna* adierazten dute, izen kodetuak dira izenordainak bezainbat, kontzientziari erreferentzia egiten diotenak.

Bigarrenari dagokionez, kontzeptua modu lausoagoan adierazten da eta mugak gehiegi definitu gabe. Subjektu bat aurkezten da ez dena pertsonaia konkretua baizik eta nornahi izan daitekeena. *NI* baten iragazitik, oro har, egoera konkretu baten eszenografia ematen da baina balio orokortzailea duena (*EN*: 334): “Hizkuntzak salatu dukeenean ere Besteak gaiztotzat eta jeloskortzat naukala, ezingo dut inoiz izan nire gaiztotasun eta jeloskortasunaren intuizio konkreturik”. Fikzioaren efektua ez da inspektio bisualean bezain nabarmena.

Hala ere, batzuetan, inspektio bisuala eta eszena indeterminatua elkarren lagungarriak izan daitezke eta elkarren ondotik agertu, nolabait ere, lehenaren konkretutasunak bigarrenaren indeterminazioa indartzera baletor bezala (*EN*: 325): “Aldiberekotasunaren oinarrizko fenomeno zera da, **edalontzi hori Paulentzat izatea niretzat den *une berean*** [...] Besteak bere denbora zabaltzen *duenez* gero, berarekin batera zabaltzen *nau* denboran; eta bere denbora propiorantz jotzen duelarik, denbora unibertsean agertzen natzaio”.

Kontzeptuaren bi eszenografia-mota horien arteko desberdintasuna, Philippe (1995, 2005) autoreak eusten dionez, gradu-kontua da. Funtsean berdin jokutzen dute, nahiz eta, erreferentziaren ikuspegitik, inspektio bisuala eszena indeterminatua baino aberatsagoa izan. Haatik, bien arteko delimitazioa ez da beti garbia, sarri interpretazioaren esku geratzen baita. Kontua zera da, beti ez dago garbi *NI* izenordainak erreferentzia egiten dion diskurtsoaren subjektu-esatari nagusiarri edo fikziozko subjektu orokor eta espezifikatu gabe bati.

Begiradak ez **nau** unibertsoan nabarmentzen, bila **datorkit nire** situazioaren baitan eta, **nitaz**, tresnekiko lotura zatiezinak bakarrik atzematzen ditu: eserita bezala ikusia **banaiz**, “aulki-batean-eserita” bezala behar **dut** izan, makurtuta bezala ikusia **banaiz**, “sarraila-zuloan-makurtuta” bezala behar du izan. [*EN*: 321]

Era gordinean esan liteke eszena indeterminatua inspektio bisual bat dela baina elementu ostentsiboak falta dituen. Izan ere, horrela dioen enuntziatuan (*EN*: 330):

“**Begirutzen badidate**, objektu izatearen kontzientzia **hartzen dut**”, zilegi da konkreturantzko moldaketa egitea: *\*Teresak eta Paulek begirutzen badidate beren leihotik (...)*. Bietan *NI* subjektua entitate orokortzat jo daiteke, fikziozkotzat. Ordea, izen berezien eta elementu bisualen presentziak errazago egiten du enuntziatua diskurtsoaren idazketa-denboratik *desitsatsia* ikustea.

Jakina, moldaketak zehazgabetasunerantz ere egin dezake, pluraltasunera joz: *\*Begirutzen bazaigu objektu izatearen kontzientzia hartzen dugu*. Baina orokortasuna muturreraino eraman daiteke eta izenordainen presentzia erabat ezabatu: *\*Begiratu izatean, objektu izatearen kontzientzia hartzen da*. Kontua da tratatuaren oinarri teorikoan dagoen subjektua, funtsean, *giza-izatea* edo *giza-kontzientzia* dela. Maristany (1987) autorearentzat, horrek azaltzen du, hain zuzen, testua arras ‘barrokoa’ izatea errealitatearen erreferentzia bisualei buruz. Ikerketa honetan, kontua da zehaztea noiz diharduen esatari diskurtsibo batek *giza kontzientziaz* eta noiz *hartzen duen hitza kontzientziak* berak.

Bestelakoa da hirugarren eszenografia-motaren nolakotasuna, Noudelmannek (1996) eskema logiko-metaforikoa esaten diona. Horren bidez, kontzeptua irudi-eskema baten iragazitik ulertzen da, espazio-denborazko koordinatuetan baino gehiago. Gertakizun-tankerako eszenografiak ez du baliorik irudi-eskema aurkezteaz harago. Irudiak gertakizun bat adieraz dezake, baina ez du xede gertakizuna bera, zerikusi handiagoa du hizkuntzaren alderdi figuratiboarekin. Demagun hemorragiaren eta isurtzearen irudi-eskemaren adibide bat:

Baina, arestian, **barne-hemorragia** deitu ahal izan diogu *nire* mundua Beste-objektuarenganantz **isurtzeari**; orduan, hain zuzen, **odolustea** tinkatuta eta lokalizatuta zegoen, Beste hori *nire* munduko objektu gisa finkatzen bainuen, eta mundu hori bere aldetik **husten** zen. Horregatik, **odol-tantarik** ez zen galtzen, dena errekuperatzen, zedarritzen eta lokalizatzen zen, nik barnera ezin nezakeen izate batean baldin bazen ere. Baina orain, ordea, **ihesa** mugarik gabea da, **galdu** egiten da kanpoan, mundua mundutik kanpo **isurtzen** da eta ni nigandik kanpo **isurtzen** naiz. [EN: 319]

Hala ere, irudi-eskema sarri inspekzio bisualaren eta eszena indeterminatuaren alboan ager daiteke. Ondoko adibidean, esaterako, lehen partean *ihesaren* eta *desitsastearen* eskema logiko-metaforikoa ematen da; eta, ordea, bigarrenean, eskema hori aurretik

eman den inspekzio bisual bati aplikatzen zaio, hain zuzen ere, ‘zelaia’ eta ‘estatua’ hizpide dituen. Bigarrenak lehena indartzen du.

Bestea, lehenik, **gauzen ihes etengabea da muga baterantz** nik objektu gisa atzematen dudana, nigandik distantzia jakin batera, eta aldi berean **ihes egiten** didana bere inguruan bere distantzia propioak zabaltzen dituen heinean. Eta **desitsaste hori** pixkana handituz doa; baldin eta **zelaiaren** eta Bestearen artean lotura distantziarik gabea eta distantziaren sortzailea badago, egon ere badago derrigorrez Bestearen eta **zelai erdian** bere **oinarrietan** zutitzen den **estatuaren** artean. [EN: 312-313]

Zalantzarik gabe, Sartrearen obran ez dago komunikazio filosofiko aratzik non prosa bitarteko tresna tekniko-zientifiko huts-hutsa den eta non soilik nozio abstraktuak finkatzen diren, pentsamendua laborategi batean balitz bezala distantziara lantzeko. Alderantziz, prosa irudiaren (kasik ilustrazioaren) eremura hurbiltzen da. Horrek ahalbidetzen du tratatuak errealitatearen perspektiba bisuala edukitzea eta, bide batez, eduki teorikoari kutsu humanoa ematea, nahi bada, teoriaren adierazpena bera barne. Noudelmannentzat (1996), irudi-eskemak funtzio heuristikoa dauka erretorikoa eta estilistikoa baino gehiago. Tratatuan, irudi-eskemak Izatearen *ezerezen* oinarri kontzeptuala eusten du.

Les images ne sont pas des effets de style, mais sont produits au sein d'une pensée qui s'élaborent en associant images et concepts. Les images fonctionnent donc comme des schèmes que Sartre reprend continuellement au cours des analyses de *L'Être et le Néant*. L'image étant intervenue pour assister le concept dans la définition du néant. (Noudelmann, 1996: 60)

Analogiaz, irudi-eskemak enuntziatuak adierazi kontzeptuaren edo proposizio kontzeptualaren baliokidea da. Demagun *mundu-lapurketaren* irudia (EN: 313): “Horrela, bat-batean objektu bat agertu da **mundua ostu didana**”. Enuntziatu horrek ilustratzen du kontzeptu teorikoak adierazi asmo duena, hots, *Ezereza Izatearen barnera lerratu dela* edo *Nia ezereztu egin dela*. Haatik, esan gabe doa lehen adierazpidea ere metaforikoak dela, *barne/kanpo* eskema logikoari baitagokio; eta, bigarrenari dagokionez, ‘ezereztu’ (*néantiser*) Sartrek berak asmatutako hitza da, erregistro filosofiko propio baten bila balebil bezala.

Noudelmannek (1996: 59) adierazten duenez, Sartreren tratatuan zehar, irudi metaforikoek lau eskema logikori obeditzen diote. Hala, bi eskema simetriko bereizten ditu: lehena, Izatearen osagabetasunari (*Izatearen izate-hustuketari*) dagokio, eta bereizten ditu hustuketa aktiboa eta pasiboa. Bigarrena dela eta, Izatearen osotasuna (*Izatearen izate-betetzea*) ere, simetrikoki, bitan bereizten da, betetze aktiboa eta pasiboa. Horra taula batean sailkatuta, tratatuaren *Izatearen osagabetasuna vs. Izatearen osotasuna* oinarri kontzeptuala adierazteko, testuan zehar baliatzen diren irudi-eskemak:

2.4.3. taula: L'Être et le Néant obraren irudi-eskemen sailkapena

<b>IZATEAREN OSAGABETASUNA</b>	<b>HUSTE PASIBOA</b>	<i>Artesitu, Zulatu, Banandu, Bereizi, Desegin, Urtu, Gabetu, Galdu, Infektatu, Usteldu, Iragazi, Isuri, Irristatu, Lerratu, Jausi, Odol-hustu, Pitzatu, zartatu, Sakabanatu (...)</i>
	<b>HUSTE AKTIBOA</b>	<i>Askatu, Desitsatsi, Atera, Berpiztu, Sortu, Erauzi, Gainditu, Transzenditu, Ihes egin, Itzuri, Jariatu (...)</i>
<b>IZATEAREN OSOTASUNA</b>	<b>BETETZE PASIBOA</b>	<i>Ase, Bete, Ernatu, Estali, Gainezka egin, Garatu, Gorpuztu, Hazi, Likatu, Moldea bete, Osatu, Ugaldu (...)</i>
	<b>BETETZE AKTIBOA</b>	<i>Aglutinatu, Atzeman, Bentosarena egin, Bildu, Estatua bihurtu, Finkatu, Harri bihurtu, Inertzia hartu, Inguratu, Ito, Itsatsi, Konprimatu, Errotu, Lotu, Mugatu, Solidotu, Trinkotu, Xurgatu (...)</i>

## 2.5. Fikzioaren aparatu formala

Tratatuak hainbat espresio-bide arakutzen ditu, hainbat baliabide diskurtsiboren gertalekua da. Nabaria da hizkuntzarekiko kezka, esaterako, zeinu tipografikoei dagokienez, parentesi, marra, komatxo eta letra etzanen jarioa, hizkuntza traba balitz bezala edo adierazi ahal eta adierazi nahi dena beti bat ez baletor bezala. Horrez gain, teoria adieraztea bera sarri korapilatsua dirudi (EN: 50): “Ez-izatea ez da izatearen aurkakoa (*contraire*), bere kontrakoa (*contradictoire*) baizik”; (*ibid.* 134): “Giza errealitateak jasan egiten du bere izatea, izatera sortzen baita osotasun batek eten gabe habitatua, bera dena berau izan ahal izan gabe”.

Lexikoari dagokionez, aipatzekoa da, batetik, diskurtso filosofikoan ageri ohi ez den hiztegia bertara lerratzea, ez jada erregistro literarioan baizik eta erregistro teorikoan bertan, esaterako, *goragale*, *atsekabe* eta *biskositate*, batzuk bakarrik aipatzearren, Maristanyk (1987) ‘irudizko zinpartak’ (*chispazos imaginativos*) esaten diena; eta, bestetik, irakurlearen eremu pertzeptibo beretik ateratako hiztegia ekartzea, adibidez, *mahai*, *zelai*, *edalontzi* eta *tintontzi*. Horiek guztiek Sartreren filosofiaren egunerokotasunera jotzeko joera salatzen dute.

Konkretutasunera lerratzen diren analogiazko baliabideak asko dira, batez ere, irudia eta konparazioa. Horiek literariotasunera hurbiltzen dira, eszena konkretu bat iradokitzeko, (EN: 465): “oharkabean emakume bat begiradaz biluzten denean bezala”; (*ibid.* 431): “Bestea da niretzat nire izatea lapurtu didana”. Hainbat espresioaren lirikotasuna ere aipatu dugu; horiek ez daude irudiaren erabileratik urrun (*ibid.* 60): “ikusten dugu ezereza mundua irisatzen, gauzen artean distira egiten”; (*ibid.* 75): “uneoro gara mundura jaurtiak eta engaiatuak”.

Bestalde, autoreen eta obren erreferentzien zerrenda oparoa da. Oro har, filosofi, psikologi eta literatur arlokoak dira, baina izan daitezke Historia, Biblia eta Zientziakoak ere, besteak beste. Iturri horiek hiru modutara ekartzen dira diskurtsora eta, batzuetan, fikziozko eszena ahalbidera dezakete. Lehenik, aipu bat hitzez hitz txerta daiteke, esaterako, M. Prousten pasarte oso bat adibide gisa emana; bigarrenik, esatari nagusiak bere iragazitik erreferentzia egin diezaioke obra jakin bati, adib. (*ibid.* 324): “Aurretik ezin asmatu hori da Kafka baten jainua *Prozesuan* eta *Gazteluan* deskribatzen

saiatzen dena: nolabait ere, K.-k [...]”; azkenik, erreferentzia batek eszena bat iradoki dezake, adib. (*ibid.* 438): “Deskribapen hori aski bat dator Hegelen morroia eta nagusiaren arteko erlazioaren deskribapen ezagunarekin. Hegelen nagusia [...]”.

Ikerketa honetan, ordea, Temmarren (2003, 2013) eta Philippe (1995, 2005) autoreen lanei jarraiki, fikziotzat zera ulertuko dut, enuntziatio-ekoizpen bat diskurtsoan etendura enuntziatiboa gauzatu eta hizkuntza marka sintaktiko-semanticoko propioak uzten dituen eta barne-egitura narratiboa duena (Temmar, 2013: 8): “une opération linguistique marquée par le décrochement et qu’on peut retrouver à travers diverses marques syntaxiques et sémantiques”. Hori atzemateko, ondoko lau irizpide hauek jarraituko ditut.

### **2.5.1. Aurkezpen-markatzaile baten presentzia**

Oro har, fikzioari diskurtsoan *sarrera* ematen zaio eta sarrera hori atzeman egiten da enuntziatioan, enuntziatzaile batek aurkezten baitu. Ordea, nahiz eta, ikuspegi enuntziatibo batetik, aurkeztu fikzioak diskurtsoko hari nagusia eten, etendura hori ez da erabatekoa. Ilusio deiktiko bat gertatzen da enuntziatioan (Philippe, 1995). Alde batetik, aurkezpen-markatzailea esatari nagusiari dagokio; baina, beste alde batetik, markatzaile horrek aurkezten duena fikzioari dagokio eta ez esatari nagusiari berari.

Enuntziatuaren aldaketa markatzaile linguistiko batek gauzatzen du nolabait *leundu* egiten duena testuan dagoen *igarobidea* fikziozkotzat jotzen ez dugun enuntziatitok fikziotzat jotzen dugunera. Markatzaile-motak askotarikoak dira:

- i) Erakusle ezohikoaren presentzia (adib. *kaletik doan gizon hori...*).
- ii) Aurkezpenezko esapideak (adib. *horra non datorren gizon bat...*).
- iii) Partizipaziozko markatzaileak (adib. *imagina dezagun gizon bat...*).
- iv) Zeinu tipografikoak baliatzea (esaterako, bi puntuak eta komatxoak).
- v) Etendura-markatzailearen absentzia (fikziozko adibidearen aurkezpena sala dezake, besteak beste, paragrafo-aldaketa batek, hizkuntzaren erregistro-aldaketak eta izenordain enuntziatzailearen ezegonkortasunak).

### 2.5.2. Enuntziatzaile orokortzaile baten presentzia

Irizpide honi dagokionez, bi kontu hartu behar dira gogoan. Alde batetik, fikziozkotasuna xede orokortzailea duen enuntziatua da beti (enuntziatzailearen ahotsa edonorena denean). Enuntziatu horrek, oro har, *NI* izenordaina hartzen du enuntziatzailetzat. Beste alde batetik, ez dute xede orokortzailea diskurtsoan *NI* batek enuntziatuak diren enuntziatu guztiak. Gainera, beti ez dago argi *NI* horien izaera orokortzailea edota diskurtsiboa den.

Ikerketa honetan, beraz, ez ditut sistematikoki fikziozkotzat joko *NI* guztiak. Areago, nahiz eta interpretatu *NI* batek izaera orokortzailea duela, ez dut joko fikziotzat ez baditu gainerako hiru irizpideak ere betetzen. Enuntziatzaile orokortzailea diskurtso-baldintza da fikziozkotasuna gertatzeko, baina ulertu behar da diskurtso-eremu bat bezala non fikziozkotasunak leku hartzen duen, ez fikziozkotasuna bera bezala. Inoperantea litzateke lerroz lerro *NI* bakoitzaren estatusa zehaztea, ia dena hartu beharko baikenuke fikziotzat.

Zuzenagoa dirudi testua bokazio orokortzaile nabarmena duen diskurtsotzat jotzea, eta ulertzea bokazio horrek ahalbidetzen duela, hain justu, fikzioaren gainerako irizpideak ere zenbait enuntziatutan konbokatzea. Diskurtsoaren izaera orokortzaile hori obraren oinarri teorikoak azaltzen du. Tratatuan zehar, bi subjektu aurkezten dira: *Nire kontzientzia* (hots, *nitasuna*) eta *Bestearena* (hots, *bestetasuna*). Kontzientzia horiek adierazteko, sarritan *NI* orokortzaileak espazio *aske* bat irekitzen du esatari oro identifikatzera deitzen duena.

Beraz, esatari nagusia ez den subjektu baten presentziak (*NI* orokortzaileak) fikziozkotasuna sala dezake. *Esatari nagusia* esaten diot kapitulua ‘esaten’ duen ahots enuntziatzaile efektiboari. Kontua da maizenik esatari nagusi hori ere *NI* izaten dela (batzuetan *GU* maiestatikoa). Subjektu-entitate horrek izaera diskurtsiboa du, ez orokortzailea. Edozein kasutan, enuntziatu bat fikziozkotzat jotzeko, ulertu behar ahalko da izaera orokortzailea duela, eta ez diskurtsiboa.

Jatorrizko testuan, 1. pertsona maiestatikoa erraz atzematen da partizipioari erreparatuz, forma singularra hartzen baitu (*EN*: 358): “Gure ikerketaren maila honetan, Bestearentzako-izatearen funtsezko egitura argitu eta gero, **tentatuta gaude** [*nous*



*sommes tenté*], nola ez, galdera metafisikoa egitera”. Baina testuan *GU* uler daiteke singularizat edo *NI* anplifikatuztat, izenordain-aldaketari xede orokortzaile soila aitortuz gero (*EN*: 354): “Zeinuaren nozioak, izan ere, subjektibotasun batera **eramango gintuzke** nik atzeman ezin dudana”.

Horrela, esatari nagusiak izaera diskurtsiboa duen bezala, enuntziatzaile orokortzaileak izaera filosofikoa du (giza kontzientzia bera da). *NI* orokortzailea fikzioa dela diogu ez delako diskurtsoko ahots nagusia, ezin delako espezifikatu nor den (edonor da eta inor ez); balio prototipikoa du. Hala, izaera orokortzailea identifikatzearen traba nagusia 1. pertsonaren talkan datza. Batzuetan ez da aise atzematen zein *NI* den diskurtsibo eta zein orokortzaile. Jakina, esatari nagusia *GU* denean,  $GU > NI$  aldaketak xede orokortzailea salatu ohi du.

Operazio hori orokorrean posible den edo ez **esatea ez dagokigu** orain. Baina, **hizpide dugun** kasuan, *Bestea* ezingo luke jokoz kanpo utzi, zeren begirada-begiratzailerik, *Bestea* ez baitagokio munduari. Ni lotsa naiz nirekin Bestearen aurrean, genioen. [*EN*: 321]

Dena den, izenordainak konbinatzen dira ez soilik  $GU > NI$  baizik eta beste era batzuetara ere, esaterako,  $NI > GU$  (*EN*: 326): “Hala, ikusia izateak **bihurtzen nau** defentsarik gabeko izate bat **nirea** ez den askatasun batentzat. Zentzu horretan konsidera gaitzke ‘esklabo’, hau da, Besteari agertzen gatzazkion heinean”. Baina hor, adibidez, ez dago garbi *NI* esatari nagusiari dagokion edota, aldiz, orokortzailea den eta gorago legokeen esatari batekiko eteten den. Orobat, ez dago argi *GU* horren balioa bera ere orokortzailea ez ote den.

Izenordainaren xede orokortzaileari dagokionez, *ZU* ere jokoan sar daiteke, adibidez,  $NI > ZU$  aldaketa gauzatuz (*EN*: 329): “Traba material batek ezingo lituzke **nire** posibilitateak finkatu, **niretzat** hori ez baita [...]. Ez da gauza bera etxean geratzea euria ari duelako eta etxean geratzea debekatu zaizulako”. Baina hor ere zalantza egin daiteke enuntziatu osoa orokortzailea ez ote den. Labur esateko, izenordain-aldaketa soil batek ezin du berak bakarrik frogatu enuntziatuaren izaera orokortzailea edota interpretazio zorrotz bat bermatu.

Ez baldin badago ez fikzioaren aurkezpen-markatzailerik xede orokortzailea sala dezakeenik ez bestelako fikzio-ezaugarririk (adib. elementu ostentsiboak, gertakizunak, etab.) sarri enuntziatuaren izaera orokortzailea interpretazioaren menpe gelditzen da (Philippe, 1995, 2005). Baina, batzuetan, interpretazioa bidezkoagoa izan daiteke, esaterako, 3. pertsonan ematen den enuntziatua esatari nagusitik aise bereizten dugunean eta kontakizun baten tankera hartzen duenean, batik bat pertsonaiak eta gertaleku konkrituak agertzen baditu.

Aipatu bezala, enuntziatu bat osorik *NI* baten ikuspuntutik adierazten denean, nekezago atzeman ahalko dugu zein *NI* den orokortzaile eta tratatuaren ikergai, eta zein, aldiz, argudioaren ardura daramana. Batzuetan argiago atzematen da. Ondoko adibidean, esaterako, *NI* guztiek ez dirudite berdinak. Ematen du *NI* diskurtsiboak bide ematen diola *NI* orokortzaileari, *NI-1 > NI-2*: “**Azpimarratu dudanez, ni ezin naiz objektu izan objektu batentzat**: beharrezkoa da Bestearen aldaketa bat errotik objektibotasunetik libratuko duena” (*EN*: 314).

Demagun beste adibide bat.

Bereziki, lotsaren bitartez, presentzia zalantzagabea **aitortzen diogu** Besteari. Baina, **ikusi dugunez, probablea** baino ez da Besteak **niri** begiratzea. Baserri hori mendikaskoan, miliziako soldaduei begira *dirudiena*, ziurra da etsaiak okupatu duela [...]. [*EN*: 334]

Izenordainei dagokienez, *GU > NI > 3. perts.* aldaketa gertatzen da. Ez dugu tresna diskurtsiborik “*probablea baino ez da Besteak niri begiratzea*” enuntziatuan *NI* izenordaina aurreko *GU* (*diogu* eta *dugunez*) bezain ahots diskurtsibotzat ez jotzeko, ez bada izenordain-aldaketari printzipioz arrazoi diskurtsibo bat eska dakiokela. Enuntziatua ordezkari zitekeen fikziora lerratuz: \*...*probablea baino ez da Teresak niri begiratzea*. Eta diskurtsora ere lerra zitekeen: \**ikusi dugunez, probablea baino ez da Besteak ikusia izatea*.

Besterik da, ordea, ondoren 3. pertsonan ematen den kontakizun-tankerako enuntziatua eta elementu ostentsiboak dauzkana. Bada, hortxe dago fikzioa. Elementu ostentsiboak eta kontakizunaren tankera behegaro sailkatu dudana irizpide bati badagokio ere, errepara diezaiokenez, fikzioa hor izaera orokortzaile baten intuizioa izan dugun

enuntziatzaile batekiko eteten da (eta txertatzen, nahi bada). Horregatik, izaera orokortzailea irizpidetzat hartzen dut, sarritan bide eman baitiezaioke fikzioari.

Bestalde, testuan *Bestea* ‘bestetasun’ kontzeptutzat aipatzen denean, balio orokortzailea ohi du (*Bestea edonor* da) eta, beraz, fikziozkoa izan daiteke. ‘Beste’ izenordainaren izaera orokortzailea aise atzematen da izen arrunt edota berezi batekin ordezkari daitekeenean enuntziatuaren zentzua galdu gabe. Ondoko adibidean, esaterako, lehen eta bigarren ‘Bestearentzat’ errazago ordezkaturiko ditugu ‘gizon’ edota ‘Paul’ izenekin, hirugarrena baino. Itxura guztien arabera, hirugarrena aurrekoen ondorio teorikoa da.

Berriz ere bere baitarakoaren ihes ezereztatzailea finkatu egiten da, berriz ere bere baitakoa bere baitarakoaren barruan eratzen da, eta metamorfosi hori, beste behin ere, *distantzian* burutzen da. **Bestearentzat**, *ni eserita nago tintontzi hori mahai gainean dagoen* bezala; **Bestearentzat**, sarrailako zuloan nago makurtuta, zuhaitz hori haizeak *makurtuta* dagoen bezala. **Bestearentzat**, beraz, nire transzendentzia galdu dut. [EN: 320-321]

Aitzitik, tratatuaren bokazio orokortzaileak hainbat izen arrunt eta berezi ager ditzake kontzeptu teorikoei itsatsita. (EN: 312): “Hala ere, **objektu-gizonaren** eta **objektu-zelaiaren** arteko erlazio berri horrek ezaugarri berezi bat dauka”; (EN: 356): “Ihesi doan soldadu horrek **Bestea-etsaia** zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean”; (EN: 338): “Distantzia handia nahiz txikia izan, **Pierre-objekturen** eta **Teresa-subjekturen** artean, eta **Pierre-subjekturen** eta **Teresa-objekturen** artean, mundu baten geruza infinitua dago”.

Baina esapide horien zeregina ez da mugatzen kontzeptu abstraktuak elementu konkretu batzuekin ordezkatzera; kontzeptuak sarri eszena batean jartzen dira (EN: 354): “Beste-objektuaren **haserrea**, niri agertzen zaidan bezala bere **garrasien** bidez, bere **ostiko** eta **keinu mehatxatzaileen** bidez, ez da haserre subjektibo eta ezkutu baten *zeinua*”. Esan gabe doa kontzeptu bat ezin dela haserretu. Ageria da tratatuak errealitate konkretua teoriara eramateko duen xedea, nahiz eta konkretutasunak, paradoxikoki, izaera orokortzailea duen.

### 2.5.3. Denborazkotasun efektiboaren neutralizazioa

Denborazkotasun diskurtsiboari dagokionez, enuntziatioaren teorian, fikziozko enuntziatua batik bat forma hipotetiko eta baldintzakoekin lotu ohi da. Alabaina, horiez gain, Culioli (1999: 133-134) autoreak erreparatzen dionez, gerta daiteke espazio enuntziatibo bat agertzea fokalizatu ezin den espazio enuntziatiboa sortzen duena eta 'mamuzko' (*fantasmatique*) dei lekiokiena, "le repère fictif va fonctionner comme un repère absolu, séparé du repère-origine *Sit-0*", non eta fikzioaren hiru ardatz enuntziatiboez ez baitagozkio situazio nagusiari (*Sit-0*).

Ildo horretatik, Philippe (2005: 85) ohartzen denez, fikziozko enuntziatuak diskurtso fenomenologikoan nekez ordezkatzeko dira hipotesi eta baldintzaren hizkuntza-markekin, fikzioaren izaera presentatiboa galdu gabe. Hala, horiek ere tratatuan agertu eta fikziozko zatitzaile har daitezkeen arren (ikus behar gainerako irizpideak ere betetzen dituzten), fikzio puntualak eskatzen ditu bestelako markatzaile batzuk; horietako bat fikzioaren denborazkotasuna da. Hori ulertu behar da enuntziatio nagusiaren denboraren neutralizazio bezala.

Ikerketa honetan, fikzioaren denbora ulertzen dut inoizko denbora bat bezala, enuntziatio nagusitik at dagoena, orainaldi baten presentzia ez dena idazketa-denboraren orainaldia. Denborazko deikiak fikzioan ezin dira aktualizatu enuntziatio nagusiaren espazio-denboraren argitan, nahiz eta fikzioak onartu, espazio enuntziatibo autonomo eta isolagarri izaki, denbora-aldi desberdinak, zera, denborazko deikiak (*arestian, orduan, ondoren* etab.) ager daitezke fikzio beraren barruan, idazketa-denborarena ez den denbora-sistema propioa sortuz.

Bistakoa da horrela eratutako objektuak ez duela begirada adierazten probable gisa besterik. Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. [EN: 315]

Ikerketa-corpusa euskaratzean, hainbat enuntziatuk, hain zuzen, fikziozko zatitzaile jo ditudanak gerora, sarritan aditzaren aldia aldatzea eskatzen zuten. *Euskal Gramatika Osoak* (Zubiri & Zubiri, 2012: 441) horrela dio: "Euskaraz, orainaldiko kontakizunetan (txisteak, ipuinak, pasadizoak...), erdaraz ez bezala, orainaldi burutua erabili behar da", eta horixe da euskaraz jatorrena, nahiz eta orainaldi hori, noski, burutua barik

betierekotzat ulertu. Tratatuko hainbat adibideri erreparatuz, nabarmena da orainaldi burutua denbora ‘aparte’ bati dagokiola.

Gerta daiteke, pentsatuko du zenbaitek, tronpatu naizela deskubri dezakedala: hara non nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak **entzun ditut**. Lotsa-hotzikara batek **bildu nau**: norbaitek **ikusi nau**. **Zutitu naiz**, begiekin **zeharkatu dut** korridore hutsa: alerta faltsua zen. Arnasa **hartu dut**. [EN: 336]

Adibide horretan, baina, fikziozkotasuna salatzen duen elementu gehiago dago, hala nola, aurkezpen-markatzailea (*hara non...*) eta elementu ostentsiboak (*sarraila-zuloa, oin-hotsak...*). Denborazkotasuna, izan ere, ezin da irizpide bakartzat hartu fikziozkotasuna atzemateko. Elementu ostentsiboak agertzen ez badira eta fikzioaren aurkezpenik ez badago, nahiz eta enuntziatua orainaldian eman eta xede orokortzailea aitortu (hots, *NI* ez da esatari diskurtsiboa baizik eta tratatuak ikergai duen *nia*), orduan interpretazioa hankamotz geldi daiteke.

Bestearen begirada **nire ekintzaren** barruan bertan **atzematen dut**, **nire** posibilitate propioen solidotze eta alienazio modura. Posibilitate horiek, izan ere, **ni naizenak** eta **nire** transzendentziaren baldintza direnak, beldurraz, itzarote urduriaz edota zuhurraz, **sentitzen dut** beste nonbait Beste bati ematen zaizkiola, berak bere posibilitate propioekin transzenditu beharrekotzat. [EN: 321]

Aurreko irizpidean aipatutakoaren ildotik, denborazkotasuna ulertu behar da diskurtso-eremutzat, irizpidetzat bainoago. Enuntziatuaren denborazkotasunari erreparatzeko aditza besterik ez dugunean, tentuz jokatzea komeni da. Fikzioaz hitz egiteko, enuntziatua orainaldian emateaz gain, beharrezkoa da ‘gertakizun’ bat eta ‘eszena’ bat aurkeztea, eta ez soilik ‘bestearen begirada atzematen dut’ eta tankerakoak orainaldian adieraztea.

Sartrearen aztergaia kapitulu honetan begirada da eta horren teoria orainaldian ematen da. Hortaz, begiradaren gertakizuna aipatu aldiro hori fikzio-eszenatzat joko bagenu, guztia litzateke fikzio. Begiradaren fenomenoak ulertu behar da ‘plataforma’ bat bezala non eta horrelako eta halako eszena ilustratzen den. Funtsean, fikzioarekin ulertu behar dena da ‘Nia’ kontzeptua gorpuztu egiten dela, delako enuntziatuaren ahotsa kontzeptuak jartzen duela eta ez esatariak. Horri heltzeko, hizkuntzaren erregistro narratiboari ipini behar zaio arreta.

#### **2.5.4. Hizkuntzaren erregistro narratiboa**

Espazio enuntziatiboan, fikziozko adibide puntuala esplizitu aurkezten denean (2.5.1. irizpidea) eta diskurtso-eremu orokortzaile eta neutralizatu bat ematen denean (2.5.2. eta 2.5.3. irizpideak), orduan, Philippe (2005) autoreak eusten dionez, enuntziatuan hizkuntza erregistro narratiboak aiseago hartzen du lekua (2.5.4. irizpidea). Hizkuntza erregistro horrek bi elementu agertzen ditu: batetik, elementu ostentsiboak; eta, bestetik, gertakizuna edo ekintza narratiboa.

Ondorioz, diskurtso teoriko bezala aurkezten den testu batean, hizkuntza erregistro narratiboak, kontrastez, fikziozkotasunaren efektua areagotu egiten du. Baina aipatu dugunez, diskurtso fenomenologikoan, adibidea garatzea ez da berezko helburu bat, baizik eta diskurtso filosofikoaren tresna metodologiko bat. Horregatik, nahiz eta erregistro narratiboak xede erreferentziala izan, nabaria ohi da erreferentziaren ziurgabetasuna, nolabait esateko, adibidearen 'ekonomia' diskurtsoaren 'lege' bat balitz bezala.

Testu-sekuentzialitatearen teorian, Adamek (1984, 1992) zehazten duenez, testu-sekuentzia narratiboak ( $n$  proposiziodunak, gogora dezakegunez) berezkoa du ekintzaren progresioa. Progresio hori, azken buruan, horrela uler daiteke, kontakizun bat hainbat etapa edota egoeratan bereiz eta proposiziotan eman daitekeena: hasierako egoera orekatsua, egoeraren korapiloa, traba edo desoreka eta, ostera ere, orekazko amaierako, moral edo irakaspen bat ematen duena. Eta progresio horrek gutxieneko ezaugarri batzuk bete behar ditu:

- i)** Gertakarien segida denboraren ardatzean edo progresio kronologikoa.
- ii)** Gertakarien batasun tematikoa.
- iii)** Gertakizuneko pertsonaien eboluzioa progresioan zehar.
- iv)** Ekintzaren batasuna (bestela kontakizun bat baino gehiago da).
- v)** Gertakarien segida logikoa, kronologikoa ez ezik.
- vi)** Ondorio-irakaspena, berau esplizitua zein implizitua izan.

Ikerketa honetako fikziozko adibideak ez dira kontakizun bukatuak eta ez dute xedetzat irakaspen bat ematea. Gainera, batzuetan, luzeagoak izan zitekeen kontakizunen ‘argazkiak’ edo ‘fotogramak’ dira, ekintza ‘izoztuak’. Horregatik, adibide bat noiz hasi eta noiz bukatzen den zedarritzeko, ikerketa honetan batasun narratiboa izango dut irizpidetzat, hau da, batasun tematikoa (elementu ostentsiboak eta espazio-denborazkoak) eta gertakariarena (ekintza nagusia). Batasun narratibo hori adierazteko, proposizioa baliatuko dut:

**fikzio bat = proposizio bat**

Ikerketa honetako 1.2.1. atalaren ildotik (ikus ere Van Dijk, 1980a: 87; 1980b: 207), proposiziotzat ulertzen dut enuntziatu bat egitate bat (*a fact*) iradokitzen duena eta non egitate horrek enuntziatu-segida baten erreferentziazko edukia (labur)biltzen duen. Beraz, proposiziotan emana, fikziozko adibidea ulertuko dut gertakizun baten kontakizuna bezala, leku-hartzen duena espazio-denbora eta zirkunstantzia jakin batean eta hainbat koordenatu konbokatzen dituena, hala nola, eragile, objektu eta espazio-denborazko situazio-markak. Esan gabe doa, horren arabera, ez ditudala fikziozko tratatuan era soltean ager daitezkeen elementu ostentsiboak (*aulki, mahai, etab.*) situazio narratibo batetik at.

### 3. KAPITULUA

#### 3. Ikerketa-corpora hobeto ulertzeko oinarrizko testuingurua

Diskurtso filosofikoaren analisian, Maingueneau (1995) autoreak luze azaltzen duenez, enuntziatio filosofikoa instituzio diskurtsibotzat ulertuko bada, diskurtso filosofikoaren analisi agortzaile batek eskatzen du enuntziatioaren testuingurua ere gogoan hartzea eta, beraz, diskurtso filosofikoa ulertzea enuntziatioaren eszenografia baten argitan, bere kode linguistiko, ekoizpen-baldintza, autoritate enuntziatibo, genero eta biografia propioekin. Sartrearen adibiderik ere badakar.

Esate baterako, tratatua aski ezaguna den *zerbitzariaren* eszena enuntziatiboa nekez bereiziko dugu gerra garaian Sartrek Pariseko kafetegietan bizi izan zuen aro existentzialistaren bizimodu intelektual eta publikotik, kasik orduko eszena ‘filmatu’ bat baitirudi. Ordea, horrekin ez da ulertu behar diskurtso filosofikoaren analisiak *kanpotik* eman behar duenik kontu egileaz, testuinguruaz, etab. Alderantziz, diskurtsoz kanpokoari heltzeko ere, diskurtso filosofikoaren analisiak enuntziatioa hartzen du abiapuntu. Diskurtsoko *ethos* enuntziatiboak euskarri-funtzioa luke, filosofoaren ezinezko ahotsa azaleratuko bide lukeena.

Tout philosophe définit une trajectoire indissociable du statut même de son énonciation [...] Sartre animant des revues politiques, défilant en tête de manifestations [...] L'existence du philosophe se développe en fonction de cette part d'elle-même qu'est l'œuvre déjà accomplie, en cours d'accomplissement, ou à venir; mais l'œuvre inclut cette existence qu'elle habite déjà. La vie du philosophe est dans l'ombre de l'énonciation philosophique (*loc. cit.*, 1995: 47)

Louette (2005, 2009) autoreak *L'Être et le Néant* tratatuak izan dezakeen izaera autobiografikoa aztertu du. Hiru ikuspegi hartzen ditu kontuan, hurrenez hurren, psikoanalisiarena, enuntziatioarena eta kritika literarioarena. Ikerketa honetan, bigarren puntuari gagozkio, batez ere. Autore horrek, funtsean, arestian aipatu ditugun 2. eta 3. fikzio-irizpideak hartzen ditu hizpide, hau da, enuntziatioaren neutralizazioa eta denborarena, “une ligne chronologique qui fait tableau”. Bere ekarpena zera da, Sartrearen tratatua arakatzea autobiografia-zantzuen bila.



Egia da hainbat adierazpenek tratatuan kutsu autografikoa izan dezakeela; adibidez:

Edonork egiazta dezake esperientzia propiora joz; niri dagokidanez, aipatuko dut adibide pertsonal bat, ez frogatzeko baizik eta irakurlea gidatzeko bere bilaketan. Duela urte batzuk, ez gehiago erretzeko erabakia hartu [...] [EN: 686].

Alabaina, ikerketa honen xedea ez da enuntziazioaren aspektu hori sakontzea, nahiz eta ematen digun oinarritzko azalpen bat tratatuaren fikziozko adibideen batasuna esprika dezakeena; ez baitira alferrik adibide gehienak irudikatzen ahal hezur-haragizko Sartrearen ikuspuntutik bertatik (idazmahai, tabakoa, kafetegiak, soldadua, hiria, etab.). Aitzitik, gorago zehaztu bezala, ikerketa honen jomuga zera argitzea da, fikziozkotasunak diskurtso filosofikoan izaera egituratzailea duen, eta ez tratatuaren analisi enuntziatibo agortzailea egitea.

Horiek horrela, beraz, diskurtsoaren ikuspegi globala iparrorratz, zilegi da galde egitea, lehenik, filosofoaren ibilbideaz; bigarrenik, tratatuaren eduki teorikoaz; eta, hirugarrenik, nola ez, ikerketa-corpusaz beraz. Horiei erantzuteko, atal honetan modu zabalean jardungo dut, hartara, ikerketa-corpusari urrunagotik ere tankera hartzeko. Bihoaz hiru zertzelada *L'Être et le Néant* tratatuaren egileaz, obraren oinarri teorikoaz eta ikerketa-corpusean zehazki deskribatzen den 'begirada' kontzeptuaren trataera filosofikoaz zein literarioaz.

### **3.1. Autorearen ibilbidea: Jean-Paul Sartre (1905-1980)**

Sartrek obra oparoa eta askotarikoa idatzi zuen. Spinoza eta Stendhal batera izan nahi zuen, gaztetan Simone de Beauvoir betiko adiskide eta bidaide intelektual izango zuenari aitortu zionez. Maisuki idatzi zuen filosofian zein literaturan. Bietan ezagutu zuen arrakasta eta gertutik ezagutu zituen orduko literaturako eta filosofiko figura nagusiak. Hainbat generotan trebatu zen: eleberria, narrazio laburra, kaiera, antzerkia, saiakera, artikulua, hitzaurrea, biografia, autobiografia eta bera hil ondoren argitara eman diren makina bat gutun, adibidez, Beauvoir (1983) eta *Le Bon de Beauvoir* (1990) bildumetakoak.

Horrez gain, Sartre intelektual konprometitua izan zen. Politikaria izan gabe, dialogo zuzena izan zuen gerraosteko ideologia politikoekin eta ikur politiko nabarmena izan zen mundu osoan. Oldarkor agertu zen instituzio, militarismo eta inposaketa ororen

aurrean eta intelektualtasunetik inplikatu zen beti. Ez zuen bada oihukatu De Gaullek "Voltaire ezin da atxilotu!", Aljeriako gerraren aurka Sartrek *121en Manifestua* sinatu zuen garaian? Dena den, Sartrek, alderdikierietan nahasi barik, independentzia intelektuala gorde zuen beti.

### 3.1.1. *L'Être et le Néant* argitaratu aurretik (1905-1943)

Sartreteren haurtzaroa markatu zuen lehen gertakizuna bere aita hil ondotik etorri zen, berak bi urte zituelarik. Amaren aldeko Charles Schweitzer aitona bere gain hartu zuen familiaren sostengua eta bereziki Sartreteren heziketaren ardura. Gizon jantzia, hizkuntza irakaslea eta humanista zen. Sartrek gertutik ezagutu zuen musika eta liburuen zaletasuna. Liburuak objektu sakratuak ziren etxeko santutegia zen liburutegian (*M*: 51): “nire erlijioa aurkitu nuen, ez zitzaidan inoiz ezer iruditu liburu bat bezain garrantzitsua; liburutegia tenplutzat nuen”.

Aro kuttun hori 1917an amaitu zen. Ama ezkondu eta Arroxelara bizitzera joan ziren. Harreman zaila izan zuen aitaordearekin eta eskolan ez zuen lagunik. Besteen aldean txiki, zurbil eta betoker, gazte sentitu zuen bakardadea eta besteen epaia (berau tratatuan *bestetasunaren* teoria izango zenaren lehen zantzua); gaztaroa bere buruaren bilaketak markatu zuen. Horrek baldintzatuta, segurik, sedukzio-bide propioak garatu eta erakutsi zituen, oro har hizkuntz gaitasunari lotuak: zorrotza, argia, bizia, arretatsua eta zuhurra zen.

Lau urte geroago, Parisen, *École Normale Supérieure* ikastetxe ospetsuan sartzeko ikasi zuen. Mundua zabaldu zitzaion. Irentsi egiten zituen liburuak eta handituz joan zen filosofiarako grina. Adiskide minak egin zituen, esaterako, P. Nizan, R. Aron eta M. Merleau-Ponty. Orduan, bereziki, agregazio-oposaketa zuen gogoan. Azterketa hori bera prestatzen ari zen Beauvoir gaztea orduantxe ezagutu zuen, bizitza osorako bikote intelektuala izango zuena. Besteak beste, *L'Être et le Néant* eskaini zion: *Au Castor*. Bi emaitza onenak atera eta hamar bat urtez irakaskuntzan jardun zuten, idazteko zaletasuna ere pixkana garatuz.

Orduko idatzietan, idazle izan nahi duen gazte bat atzeman daiteke, estiloak eta erregistroak esploratzen dituen. Aipatzekoa da *Écrits de jeunesse* (ed. Contat & Rybalka, 1990) testu-bildumak Sartrek 1922-1927 urteetan idatzitako hainbat eleberri,

narrazio, gogoeta, pasarte eta aipu jasotzen dituela. Idazle-aro goiztiar hori ixten duen obra *La légende de la vérité* (1930) da, bere lehen obra filosofiko anbiziotsua. Bertan filosofia ipuin-tankeran eta estilo profetiko egiteko ahalegina erakusten du. Ordea, hori ez da bere pentsamendu filosofikoaren abiapuntua, baizik eta idaztankera propio baten bilaketa; garai horren amaiera.

Irakaskuntzan 1931ean hasi zen, Le Havren. Instituzio eta agintearekiko lehen gatazkak ordukoak dira. Ezohiko irakaslea zen, ikasleen adinkide eta adiskidea, hizlari aparta, probokatzaila, xarma berezia zuena, jakintza akademikoa baino gehiago kontzientziak itzartzea bilatzen zuena. Liluratuta zeukan Husserlen fenomenologiak eta, 1933-1935 urteetan, Berlinen eta Friburgon graduondoko ikasketak egiteko aukera lortu zuen. Orduan hasi zen idazten ondoko urteetan argitaratuz joan zen bere corpus fenomenologikoa (1936-1943).

*La transcendance de l'Ego* (1936) obrak azpimarratzen du intenzionalitateak definitzen duela kontzientzia. Kontzientzia ez da edukiontzi bat *nia* objektu edo subjektu moduan gordeko lukeena, baizik eta transzendentzia hutsa, bat-batekotasun eta *bizipen* intenzional hutsa (*TE*: 23-24): "kontzientziaren existentzia absolutua da, ezen kontzientzia *beraren* kontzientzia baita [...] ez da *posiziozkoa*; kontzientzia ez da bere objektua". Ildo horretatik, irudimenaren fenomenologiari heltzen dio (*L'imagination*, 1936; *L'imaginaire*, 1940): irudia eta kontzientzia ez dira ulertzen berezita: kontzientzia irudi-kontzientzia da.

Sartrek emozioaren dekrribapen fenomenologikoa ere egin zuen, luzeagoa izan behar zuen obra baten (*La Psyché*) kapitulu gisa (*Esquisse d'une théorie des émotions*, 1938). Emozioa eta kontzientzia batera doaz: emozioa ez da traba moduko bat kontzientzian leku hartzen duena, emozioa emozio-kontzientzia da eta, beraz, giza errealitatea bat-batean eta osotasunean jartzen du agerian. Horrez gain, aipatzekoak dira 1939ko bi artikulu: "Une idée fondamentale de la phénoménologie de Husserl: l'intentionnalité" (*SI*: 31-35), berau kontzientziaren intenzionalitateaz; eta "Visages", begiradaren transzendentziaz, *Les Écrits de Sartre* (ed. Contat & Rybalka, 1970: 560-564) testu-bilduman jasota dagoena.

*L'Être et le Néant*, 722 orrialdetako tratatu mardula, aro fenomenologiko horren amaiera da. Obraren asmoa giza errealitatearen *munduan-izatea* osotasunean deskribatzea da. Ordurako, Sartre literaturan ezaguna zen. *La Nausée* (1938) eta *Le Mur* (1939) obrek berehalako arrakasta lortu zuen. *La Nausée* eleberri filosofikoak giza existentziaren *kontingentzia* uzten du agerian. Horixe da bere filosofiaren hazia. Jainkorik gabeko mundura *jaurtia*, gizakiaren existentzia justifikaezina, soberakoa, euskarri gabekoa da; eta norbanakoaren esku dago.

Bestalde, II. Mundu Gerra hasi eta ordukoak dira Sartreren lehen gogoetak kolektiboaz, engaiamenduaz eta konpromisoaz. Mobilizatu eta urtebetera, preso hartu zuten Alemanian. Lehen antzerki-lana ordukoa da (*Bariona*, 1940). Ez zuen idatzi argitaratzeko, baizik eta *Stalag* bereko preso-kideek antzezteko. Eguberria zuen gai, baina kolektiboaren elkartasunaren eta erresistentziaren aldarria zen. Bestalde, makina bat gutun idazten zituen eta gogoeta filosofikoak eta egunerokoak hamabost koadernotan idatzi zituen. Bost bakarrik aurkitu dira, eta jasota daude: *Carnets de la drôle de guerre* (ed. Elkaïm-Sartre, 1995).

Sartrek preso zegoela Heidegger irakurri zuen (*Sein und Zeit*, 1927). Heideggerren ontologia, Husserlen fenomenologia eta Hegelen kontzeptu teorikoak, batik bat, bere eginez, Sartre *Izatearen* eta *Ezerezaren* teoria propio bat garatzen hasi zen. Aipa dezagun, Gadamer (1992) autoreak irizten dionez, hiru autore horien egokitzapenean dagokeela tratatuaren benetako enigma eta xarma. Autore horiekiko zorra eten gabe aipatzen da tratatuan zehar eta, azken batean, mailegatzen dienarekin eta deitoratzen dienarekin eratzen da obra.

Armazoi teorikoa jada gogoan zeukan Izatearen teoriari buruzko tratatuari heltzeko. Preso hartu eta urtebete geroago, ziurtagiri faltsu bat tarteko, Sartre libre geratu zen. Paris okupatuan, betiere intelektueltasunetik, erresistentzian hartu zuen parte. Nazien kontrako fronte ezkertiar intelektuala osatzearen aldeko agertu zen. Merleau-Pontyrekin eta Beauvoirrekin batera *Socialisme et Liberté* erresistentzia-taldeko militantea izan zen. Porrota izan zen arren, engaiamenduaren hausnarketarako lehen esperientzia izan zen.

### 3.1.2. Existenzialismotik konpromisora (1943-1947)

*L'Être et le Néant* 1943an argitaratu zen. Tratatu askatasunaren aldarriztat hartu zen. Sartrearen filosofiaren arabera, gizakia izate askea da eta ezin du aske ez izan; aske izatera kondenatuta dago. Askatasuna, ordea, zernahi egiteko lizentzia barik, egoeraren aurrean erabaki ahal (eta behar!) izatea da, nahiz eta situazioak baldintzatu (*SIII*: 11): "Alemaniar okupazioan bezain aske ez gara inoiz izan. Gure eskubide guztiak galdu genituen, hitz egitearena lehena [...] jazartzen gintuztenez, gure keinuetako bakoitzak konpromiso baten indarra zuen". Gizakiaren hautuak bere izatea definitzen du.

Beraz, askatasunak gizabanakoari bere izateari begira jartzen dio; bere esku dago, horrezkero, dela autentikotasunez dela asmo txarrez jokatzeko. Ikusmolde horrek markatu zuen Sartrearen hausnarketa filosofikoa, literarioa eta politikoa, eta bere pentsamenduaren abiapuntuan ezarri zuen. Urte horietako literatur lanek tratatu literaturara eraman eta eszenan jartzen dute: antzerkian, *Les Mouches* (1943) eta *Huis Clos* (1944); narrazioan, *Les Chemins de la liberté* trilogia (*L'Âge de raison*, 1945; *Le Sursis*, 1945; *La Mort dans l'âme*, 1949).

*L'Être et le Néant*, hasieran existentziaren filosofia zena, existentzialismoaren oinarri teoriko bihurtu zen. Bi urte geroago, hitzaldi jendetsu batean, Sartrek existentzialismo ateoaren zutabeak eman zituen. Hitzaldia liburuxka gisa argitaratu zen: *L'existentialisme est un humanisme* (1946). Existenzialismoaren abiapuntua existentzia da: "existentzia esentziaren aurretik doa". Alegia, ez dago molde jakin bat gizaki izateko, gizakia lehenik existitu egiten da eta gero definitzen. Horregatik, Sartreentzat, kontua ez da hainbeste Jainkorik baden edo ez den, baizik eta egoteak ere ez lukeela ezer aldatuko.

*Le Deuxième Sexe* (1949) Beauvoirren obra nagusiaren oinarrian ere formula hori dago (285. or.): "emakumea ez da emakume sortzen, egin egiten da". Sartre-Beauvoir bikotea miretsia zen. Saint-Germain-des-Prés auzo inguruan, egun *Place de Jean-Paul Sartre et de Simone de Beauvoir* den plazatik gertu, gauez jazz eta dantza, egunez eztabaida filosofikoak taberna ketsuetan eta idazle eta artista ezagunak liburutegi eta bulego-itxura hartzen zuten kafetegietan, existentzialismoa ez zen soilik pentsamendu filosofiko bat, gehiago zen, jarrera bat, janzkera bat, izateko modu bat: askatasuna.

Askatasunak ardura eskatzen zuen, izan ere, abstraktuan ez baizik eta situazio eta garai konkretuetan existitzen gara. Sartrek beharrezkotzat jo zuen idazle gisa ere arduraz jokatzea (*SII*: 13): "Idazlea *situazioan* dago bere garaian: hitz bakoitzak du oihartzuna. Eta baita isilune bakoitzak ere". *Les Temps Modernes* (1945-) aldizkari filosofiko-literario-politiko 'konprometitua' fundatu zuen eta, literatura konprometituari buruz, *Qu'est-ce que la Littérature* (1947) saiakera idatzi zuen. Idazle konprometituaren arketipo bihurtu zen. Hala, existentzialismoak Sartre Historiara begira jarri zuen.

### 3.1.3. Hamaika frontetako gizona (1947-1980)

*Les Chemins de la liberté* (1945-1949) trilogiaren laugarren alerik ez zen argitaratu, hasierako asmoa izan arren; ezta *L'Être et le Néant* tratatuak azken lerroetan agintzen zuen moralari buruzko 'hurrengo obra' ere. Ordukoak izan arren, moralari buruzko eskuidatzien argitalpena hilondokoa da: *Cahiers pour une morale* (1983); *Vérité et existence* (1989). Sartrek ez zuen eleberrigintza gehiago berrartu, eta ezta filosofia ere 1960 arte. Antzerkigintzazko jarduera nekaezin bati heldu zion: *Morts sans sépulture* (1946), *La Putain respectueuse* (1946), *Les Mains sales* (1948), *Le Diable et le Bon Dieu* (1951), *Kean* (1954), *Nékrassov* (1956), *Les Séquestres d'Altona* (1960), *Les Troyennes* (1966).

Sartreentzat, garaiak 'situazioen antzerkia' eskatzen zuen. Eta hori generotzat hartu zuen. Antzerkigintzaz idatzi zituen artikuluak eta hainbat elkarrizketa gerora liburu batean argitaratu ziren: *Un théâtre de situations* (ed. Contat & Rybalka, 1973). Labur esateko, situazioen antzerkian, *askatasuna* kontzeptua bera da eszenan jartzen dena, pertsona, egoera, ekintza konkretuen iragazitik, hau da, izate konkretu baten hautu existentziala zeinak bere izatea bere engaiamenduan asmatzen eta berrasmatzen doana (20. or.): "egia bada gizakia aske dela situazio jakin batean eta bere buruaren hautua egiten duela situazio horretan eta horrekin batera, orduan antzerkiak erakutsi behar ditu giza situazio arruntak eta situazio horietan beren hautua egiten duten *askatasunak*".

Zalantzarik gabe, Sartreren antzerkigintzak orduko bere proiektu filosofiko-politikoari obeditzen dio. Antzerkiak filosofia eta ekintza kolektiboa uztartzen zituen. Harrezkero, erreferentzia historikoak, politikoak, engaiamenduaren gaia eta horren inplikazio filosofikoak Sartreren literaturaren ezaugarri eta konstante bihurtu ziren. Antzerki-lanez

gain, Sartrek zinemarako bi testuren moldaketa (*Les jeux sont faits*, 1947; *L'engrenage*, 1948), judutartasunari buruzko saiakera bat (*Réflexions sur la question juive*, 1946) eta, uneko egoera filosofiko-literarioaren eta sozio-politikoaren harira, *Situations* testu-bildumen lehen hiru zenbakiak (1947, 1948, 1949) ere argitaratu zituen.

50eko hamarkadatik aurrera, Sartreren bizitza politikak markatzen du. Gerra hotzak 1947tik mundua bi bloketan bereizi zuenetik, komunismoaren aldeko agertu zen. Eta alderdi komunistarekin harreman gorabeheratsua izan bazuen ere, Sartrek komunismoa ideologia gisa langileriarentzat beharrezkotzat jo zuen beti, eta marxismoa gizarterako eredu gaindiezintzat; baita, esate baterako, Sobietarren kontzentrazio kanpoen existentzia jakin zenean ere, kritika zorrotza izan zuena *Les Temps Modernes* aldizkarian, edo baita komunistekin hautsi zuenean ere Hungariako interbentzio militar sobietarraren harira.

Sartre lider intelektuala zen jada Aljeriako lehen liskarretan aljeriarren alde agertu zenean. Errepresioa eta tortura egiteagatik, Sartrek Frantziako gobernu salatu zuen eta, beste idazle askorekin batera, *121en Manifestua* (1960) sinatu zuen gazteen insumisio eskubidearen alde. Intelektualek gizartera zabaltzen zuten boterearen gehiegikeriaren arazoa eta euren eragina orduan handia zen Frantzian. Eskuindar aktibistek lehergailuak ipini zizkioten Sartreri etxean eta mehatxatuta egon zen. Garai horretan, Sartre Kubako erreboluzioaren alde agertu zen eta Fidel Castro eta Che Gevararekin elkartu zen Kuban.

Filosofiari dagokionez, bigarren obra filosofiko handia argitaratu zuen: *Critique de la Raison Dialectique* (1960), nahiz eta II. tomoaren argitaraldia hilondokoa den (1985). Obra horretan, Sartrek giza izatea Historian kokatzen du, gizartean. Sartreren asmoa existentzialismoa eta marxismoa uztartzea da. Horrela, giza errealitateari, norbere (eta Bestearen) existentziaren kontzientzia ez ezik, dimentsio kolektiboa eta 'gizakitasuna' aitortzen dizkio. Gizakiak Historia zabaltzen, moldatzen du Historiak aldi berean gizakia baldintzatzen duelarik; izatearen osotasuna, banakakoa barik, historikoa eta soziologikoa da; ekintza bakoitzak zentzua du kolektibo baten abiapuntutik eta Historiaren argitan.

“Questions de méthode” hitzaurre luzean, Sartrek definitzen du gizabanakoaren *izate-proiektua*, ‘borondate’ gisa barik zentzu etimologikoan ulertzen duena (*pro-iectum*; aurrera jaurti). Proiektua izatearen izateranzko bulkada edo indar eragile-eratzaila da, hots, *izate-hautua*, sinkronian, diakronian eta testuinguru jakin batean definitzen dena. Baina Sartrearen metodoa ez da erredukziozko sintesia, joan-etorri etengabea baizik; metodo progresibo-erregresiboa da (96. or.): proiektu baten argitan, jarrera baten zentzua ulertzeko behar den ezagutza mugimendu dialektikoa da “ekintza esplikatzen duena amaierako esanahiaren baitan eta hasierako baldintzetatik abiatuta”.

Biografiatzko hainbat obra kritiko ikuspegi horretatik idatzi zituen: *Baudelaire* (1947), *Mallarmé* (1986 [1952]), *Saint Genet* (1952), *Les Mots* (1963). Azken hori argitaratu eta urtebetera, Sartrek Nobel saria irabazi zuen “bere obrak ezaugarritzen duen askatasun-minak eta egiaren bilaketak gure garaian izan duen eragin handiagatik”. Ordea, aurretik *Légion d’honneur* distintzioa, *Collège de France* katedra eta *Académie Française*-eko kide izatea baztertu zuen bezala, uko egin zion. Beauvoirrekin, ordurako idazle ospetsua eta emakumeen aldeko mugimenduaren erreferentea, biderkatu egiten zituen deklarazioak, posizio-hartzeak, topaketak, munduan ezkertiar borrokari babesa emanez.

Sartre buru izan zen, Bertrand Russellek hala eskatuta, Vietnameko gerran Estatu Batuek eragindako bortizkeriak salatzeke eratu zen Russell Tribunalean (1966). Era berean, 68ko Maiatzean, belaunaldi gazte oldartuak bere izenaren indarra eta ospea balia zezan utzi zuen eta eragile ere izan zen. Eta, hurrengo urteetan, ezker proletarioaren aldeko agertu eta erregimen maoistara gerturatu zen. *La Cause du peuple* insurrekzioaren aldeko aldizkariaren zuzendari izatea eskatu zioten, hura debekatu eta zuzendariak atxilotu zituztenean. 1970ean, aleak kaletik oihu batean saltzen zituela, atxilotua izan zen. 68ko Maiatzaren idealen ildotik, *Libération* aldizkari berritzailea eta iraultzailea ere sortu zuen.

Bestalde, Euskal Herriari dagokionez, Sartrek hitzaurrea egin zion G. Halimiren *Le procès de Burgos* (1971) liburuari. Aipatzekoa da *Les Temps Modernes* aldizkariak (2001, n. 614) zenbaki oso bat eskaintzen diola euskal gaiari. Txillardegiren (2007: 35) esanetan, kolonialismoa eta zentralismoa salatzeaz gain, “euskal arazo nazionala espainiar klase-arazoaren azpi-kapituluxka gisa aurkeztea oso modan zegoelarik, bere



ausardia eta zorroztasun osoez euskal arazoa nazio askapen arazo gisa aurkeztu zuen munduaren aurrean”.

Ordukoa da Sartrearen azken obra filosofikoa: *L'idiote de la famille* (1971-1972) fikzio-saiakera erraldoi amaitu gabea. Giza existentzia betiere osotasuntzat hartuz, Sartrek idazle jakin baten bizitza eta obra hartzen du ardatz: Gustave Flaubert. Obraren asmoa da *izate* jakin baten *izate* osoaren kontu ematea. Horretarako, filosofia eta fikzioa uztartuz, Flauberten errealitatea (obra, idazkera eta izaera) aldi berean ematen du ikuspegi literario, filosofiko, psikologiko, historiko, sozialetik eta Flauberten *proiektu* propioaren iragazitik.

*Niaren* bilatzaile nekaezina izateaz gain, Sartrearen erronka behinena gizakia bere osotasunean ulertzea izan zen, (*SG*: 132): "zeren gizakia ulertzeko pasioa baita nirea". *Les Mots* (1963) autobiografiaren azken lerroek Sartrearen erronka horri zentzua ematen diote (*M*: 206): "Ezinezko Salbazioa osagarrien biltegira baztertzen baldin badut, zer gelditzen da? Gizon oso bat, gizon guztiek egina, guztiak balio dituen eta guztiek balio dutena". Singular unibertsalaren ildotik, izan ere, Sartreentzat (*EH*: 95): "proiektu orok, dagoenik indibidualenak ere, balio unibertsala dauka".

Laugarren tomo batek *Madame Bovary* eleberria hartu behar zuen hizpide, baina 1973tik Sartre itsu eta makal zegoen eta, bizimoduak zahartuta (lan-gaubeilak, hartutako suspergarriak, bidaia zenbatezinak, eszena mediatiko etenik gabea etab.) eta gertukoenen menpeko zeharo. Elkarrizketak eta solasaldiak egin zituen, baina ez zuen gehiago idatzi. Alferrik saiatu zen bizi osoan zehar eraman duen eszena sozialeko bizitza intelektual aktiboa eta presentea eramaten. Abian zituen hainbat proiektu bertan behera utzi zituen. Sartre 1980ean hil zen. Kortejo funebrea arrunt jendetsua izan zen.

### **3.2. *L'Être et le Néant* (1943) tratatu filosofikoaren zutabe teorikoak**

Bigarren izenburutik bertatik, tratatuak fenomenologiari egiten dio erreferentzia: *essai d'ontologie phénoménologique*. Eta obraren hitzaurrea bera uler daiteke filosofoak fenomenologiarekin egiten duen dialogo luzetzat (Maristany, 1987). Sartrek sarri aitortu zuen fenomenologiarekiko zorra. Horrelaxe dio, adibidez, Astruc & Contat (1972: 39) autoreek jasotako elkarrizketa ezagunean: "Husserl zen, hain justu. Horregatik, [Raymond] Aronek esan zidanean: "Baina arrazoi daiteke edalontzi honen inguruan"

[...] Ba liluratu ninduen; nire buruari esan nion: ‘Hara azkenean filosofia’. Garai hartan buruan geneukan gauza zen”.

Bestalde, irudimenak Sartreren filosofian duen garrantziak azal dezake, batetik, Noudelmann (1996) autorearen tesiaren ildotik, tratatuko eduki teorikoaren proiektzio bisuala edo gorpuztea; eta, bestetik, Dolezal (2012) autoreak erreparatzen dionez, eta zehazki begiradaren fenomenoari dagokionez, teoriaren eskematizazio logikoa. Sartreren fenomenologia aztertu duen hainbat autorerentzat (adibidez, Bonnemann, 2007), badirudi *L'Être et le Néant* osorik dagoela irudimenaren eta pertzepzioaren fenomenoekin lotuta; edo, areago, obran zehar eten gabe kontzeptuen antzezte bat paratzen dela (Gély, 2012).

Sartrek irudia aztertu zuen ikuspuntu fenomenologikotik (*L'imaginaire*, 1940). Obra horretan, Husserlen (*Ideen... I*, 1913) pasarte bat bereziki du atsegin, Dürer-en grabatuarena. Grabatuaren pertzepzioa hasieran lotu beharko litzateke objektu materialarekin, baina kontzientzia pertzeptiboak figurak eta trazuak atzematen ditu ondoren, alegia, errealitate irudikatu bat izaera eta materia (*hylé*) propioa duena. Hala, grabatua ez da *izate* bat eta ez da *ez-izate* bat, baizik eta *sasi-izate* moduko bat. Operazio *irudikatzaile* bat gertatzen da objektua presente bihurtzen duena irudi irudikatu gisa. Ikusiko dugunez, ‘sasi-izate’ kontzeptua baliagarria da *L'Être et le Néant* ulertzeko.

Sartrek Beauvoirri Alemaniatik 1940an idatzitako gutunetan (*Lettres au Castor*, 1983) tarteka aitortzen dionez, *ezerezari* buruzko teoria bat garatzen ari zen orduan: "garrantzitsuena, azken batean, gogoan daukat: Ezereza. Liburu baterako gaia izango da" (ekainak 5); “giza errealitateak zerbaiten falta izateko, beharrezkoa da printzipioz zerbait falta dakioken modukoa izatea” (otsailak 22). *L'Être et le Néant* gogoeta horien emaitza da. Tratatuaaren abiapuntua *izatearen* osotasuna bada ere, *ezerezak* giza izatearen deskribapena jartzen du abian. Izate hori da obraren funtsa, ez izate abstraktu bat ez zentzu unibertsalean ulertutako giza izate bat ere, baizik eta gizabanakoa, konkretua.

Sartreren erronka gizabanakoaren munduan-izatea osotasunez deskribatzea da, alegia, giza existentziaren filosofia idaztea. Horretarako, giza errealitatearen kontu emateko,

Sartrearen ontologiak konkretutasunera jotzen du eta oinarritzat gizabanakoaren egunerokotasuna hartzen du, obraren hasieran *expressis verbis* aditzera ematen duen ildotik (EN: 38): “Ez gara mugatuko jarrera bakar bat aztertzeraz. Saiatuko gara, ordea, hainbat deskribatzen eta jarreraz jarrera *barneratzen* ‘gizaki-mundua’ erlazioaren sakoneko zentzuraino”.

Izenburuari dagokionez, *izatea* lehenik eta *ezereza* ondoren jartzea ez da kapritxozko hautua, kontzeptuen eskakizuna baizik. Sartrek dioenez, ‘*izatea* da’ eta ‘*ezereza* ez da’. Ezerezak ezin sor dezake ezer. Izateak sortzen du ezereza, ez alderantziz; bigarrenak lehena eskatzen du aurretik. *Ezereza izatearen* ezeztapena da eta hori *izatearen* barruan gertatzen da, ez datorkio kanpotik *izatea* eta *ezereza* bi kontzeptu isolatu balira bezala: oposaketa ez da simetrikoa. Horren irudi grafikoa lehen argitaraldiak (1943) azalean zekarren erreseinak ematen du: “Edalontzi batean axola duena tarteko hutsartea da”.

*Ezerezari* buruzko oinarria *L'imaginaire* (1940) obran dago. Sartrek pertzepzio eta irudiaren ezin bateratua aldarrikatzen du. Kontzientziaren aktoa da edo pertzepziozkoa edo irudizkoa, inoiz ez biak batera (*ibid.* 156): "kontzientziaren bi jarrera nagusi erreduziezinak dira; eta, hortaz, elkarren baztertzaileak dira". Irudiak, pertzepzioaren objektuak ez bezala, berarekin darama ezeztapena: irudiaren objektua edo absente dago edo ez da existitzen (*ibid.* 234): "Irudi bat ez da *munduaren ukapena*, hutsean eta soilean, bera ikuspuntu jakin batetik da munduaren ukapena, hain zuzen, 'irudian' presentifikatuko den objektu baten absentzia edota existentzia eza ezartzea ahalbidetzen duena".

### **3.2.1. Tratatuaren atalak eta aurkibidea**

Bigarren izenburuan *L'Être et le Néant* saiakeratzat aurkezten da, baina ulertu behar da, funtsean, tratatu edo programa teoriko bezala, subjektu izateduna fundatzeko xedez, izatearen teoria oso bat garatzen duena. Hala, kontzeptu teorikoak egitura arkitektonikoa du. Haatik, Husson (2001) autorearen tesiaren abiapuntua zera da, obraren koherentzia globalak *izatearen* osotasuna hartzen duela oinarri, hain zuzen, izatearen osotasun hori destotalizatua agertzen den aldi berean. Izateak alteritatetzat bizi du destotalizatze hori.

Izatearen ‘diasporak’ hiru osagabetasun-maila ditu, non eta hirugarrenak, (iii) *izatearen bestearentzako izateak*, aurreko biak bere baitan hartzen baititu eta jakintzat ematen

baititu, alegia, (ii) izate erreflexiboa eta (i) bere baitarako izatea. Horregatik, Varet (1948) autorearen lanean jada atzeman daitekeen bezala, proposatu izan da obran bereizten diren lau atalen irakurketa erregresibo-progresiboa edo espiral-modukoa; areago, Maristany (1987: 38-39) autoreak proposatzen duenez, atal horien irakurketa erregresiboa luza daiteke Sartrearen aro fenomenologikoaren barruan kokatzen diren beste obretara ere. Husson (2001) autorearentzat ere Sartrearen tratatuak egitura zirkularra dauka eta, eusten dionez, obra osoa da egitura teorikoaren ikuspuntutik, non atal bakoitzak, bere esatus propiotik, atzera-aurrerako igorpenak egiten baititu.

Dakigunez, *L'Être et le Néant* obrako hainbat kapituluren kokapenari buruz luze eztabaidatu da, batez ere, lehen ataleko "1.2. Asmo txarra" kapituluaz, Eshleman (2008) autoreak jasotzen duenez, nonbait 'asmo txar' kontzeptuak 'bestetasun' kontzeptua ere inplikatzeko duelakoan. Ikerketa honen corpusean auzi horrek ez du eraginik. Lan-hipotesia ez da fikzioak tratatu osoa puzzle modura saretzen eta lotzen duenik, horren aldaketarik txikiak piezak soberan utzi behar balitu bezala, baizik eta fikzioak bokazio egituratzailea duela obraren idaztanceran.

Beraz, Maristanyk (1987) irizten dionean, adibidez, obraren I. atalean *Pierre*ren adibidea lekuz kanpo dagoela, hain zuzen, artean III. ataleko 'Bestearentzako-izate' kontzeptua azaldu gabe dagoelakoan, Maristany eduki teorikoaren koherentzia globalaz ari da eta proposatzen duen irakurketa erregresiboaren argitan dihardu, ez zehazki filosofiaren idaztanceraz. Edozein kasutan, ikerketa honetako corpusak, hots, *begiradari* buruzko kapituluak, osotasunari begira ez du erakusten printzipioz batasunarekin lotutako oztoporik.

Errepara diezaiozun aurkibideari. Hitzaurraz eta ondorioaz aparte, *L'Être et le Néant* lau bloketan egituratuta dago. Kremer-Marietti (2005) azaltzen duenez, bi bloke dira, hobeto esateko: I-III atalek 'Izatearen teoria' bat osatzen dute, *ezerez* kontzeptua ardatz duena; eta, laugarrenak, ekintzaren teoria bat garatzen du 'askatasun' kontzeptua ardatz bezala hartzen duena, berau, funtsean, 'izatearen izateko desira' litzatekeena.

3.2.1. eskema: L'Être et le Néant *tratuaren aurkibidea*

**IZATEA ETA EZEREZA: FENOMENOLOGI ONTOLOGIA SAIAKERA**

*HITZAURREA: IZATEAREN BILA*

- I. Fenomenoaren ideia
- II. Izatearen fenomeno eta fenomenoaren izatea
- III. Cogito *aurre-erreflexiboa* eta *percipereren* izatea
- IV. *Percipiren* izatea
- V. Froga ontologikoa
- VI. Bere baitako izatea

**LEHEN ATALA**

*I. EZEREZAREN AUZIA*

**1) Lehen kapitulua: Ezeztapenaren jatorria**

- I. Interrogazioa
- II. Ezeztapenak
- III. Ezereza ikuspegi dialektikotik
- IV. Ezereza ikuspegi fenomenologikotik
- V. Ezerezaren jatorria

**2) Bigarren kapitulua: Asmo txarra**

- I. Asmo txarra eta gezurra
- II. Asmo txarreko jarrerak
- III. Asmo txarraren "asmoa"

## ***BIGARREN ATALA***

### ***II. BERE BAITARAKO IZATEA***

#### ***1) Lehen kapitulua: Bere baitarakoaren egitura immediatoak***

- I. Norberarekiko presentzia
- II. Bere baitarakoaren faktikotasuna
- III. Bere baitarakoa eta balioaren izatea
- IV. Bere baitarakoa eta posibleen izatea
- V. Nia eta ipseitate-zirkuitua

#### ***2) Bigarren kapitulua: Denborazkotasuna***

- I. Denborazko hiru dimentsioen fenomenologia
- II. Denborazkotasunaren ontologia
- III. Jatorrizko denborazkotasuna eta denborazkotasun psikikoa: erreflexioa

#### ***3) Hirugarren kapitulua: Transzendentzia***

- I. Ezagutza bere baitarako eta bere baitakoaren arteko harreman-mota gisa
- II. Determinazioa ezeztapen gisa
- III. Kalitatea eta kantitatea, potentzialtasuna, tresnatasuna
- IV. Munduko Denbora
- V. Ezagutza

## ***HIRUGARREN ATALA***

### ***III. BESTEARENZAKOA***

#### ***1) Lehen kapitulua: Bestearen existentzia***

- I. Arazoa
- II. Solipsismoaren oztopoa
- III. Husserl, Hegel, Heidegger
- IV. Begirada

**2) Bigarren kapitulua: Gorputza**

I. Gorputza bere baitarako izate gisa: Faktikotasuna

II. Bestearentzako-gorputza

III. Gorputzaren hirugarren dimentsio ontologikoa

**3) Hirugarren kapitulua: Bestearekiko harreman konkretuak**

I. Bestearenganako 1. jarrera: maitasuna, hizkuntza, masokismoa

II. Bestearenganako 2. jarrera: ezaxola, desira, gorrotoa, sadismoa

III. "-rekin-izatea" (*Mitsein*) eta "gu".

**LAUGARREN ATALA**

**IV. EDUKITZEA, EGITEA ETA IZATEA**

**1) Lehen kapitulua: Izatea eta Egitea: Askatasuna**

I. Ekintzaren lehenengo baldintza askatasuna da

II. Askatasuna eta faktikotasuna: Situazioa

III. Askatasuna eta erantzukizuna

**2) Bigarren kapitulua: Egitea eta Edukitzea**

I. Psikoanalisi existentziala

II. Egitea eta Edukitzea: Posesioa

III. Kalitatea izatearen agerrarazte gisa

**ONDORIOA**

I. Bere baitakoa eta Bere baitarakoa: Ikuspegi metafisikoak

II. Ikuspegi moralak

### 3.2.2. Izatearen osagabetasuna

*Ezereza*, nahiz eta ezer ez den, izatearen ezeztapena *den* neurrian, errealia *da*; lerratu egiten da izatean eta munduan. Baina *ezereza* ezin etor daiteke bere baitakoa den izate batetik (*être-en-soi*). Bere baitako izatea berberatasun eta positibotasun hutsa da, eta bera den bezalakoa definitzen da (*EN*: 33): "Izan ere, izatea berarekiko opakua da, berarekin osatuta baitago. Hobeto adieraziko dugu esanez *izatea dela bera dena*". Ez dago artetik bere baitako izatean eta, beraz, *ezereza* ezin iragaz daiteke. Horrelako izate batek ez du pitzadurarik bere izatean, bere alde guztiak batera erakusten ditu: 'da'.

*Ezereza* mundura datorreneko izatea bere baitarakoa da (*être-pour-soi*). Bere baitarakoa berarekiko presentzia gisa existitzen da, berarekiko distantziara eta alteritate gisa. Hori dela eta, ez dator berarekin bat; ilusio ontologikoa da. Haatik, izate-batasuna da, batera doaz dualtasuna eta batasuna. Sartrek islapenaren irudia baliatzen du sarri. Bere baitarakoaren egitura islatzaile-islatu modukoa da: islatzailea islatua da, eta alderantziz, baina berarekiko desitsastea adierazten du aldi berean: izate bakarra da eta bikoiztu egiten da. Izate horren batasuna ez da trinkoa, izate pitzatua da: 'bada eta ez da'.

Horrela, ezeztapena bere existentziaren baldintza duten munduko errealitateak adierazteko, Sartrek '*négalité*' terminoa asmatzen du ('ezeztasun' euskaratu liteke). Ezeztasunak askotarikoak dira: absentsia, galdera, distantzia, ukapena, alterazioa, sutsipena, damua, batzuk bakarrik aipatzearen. Ezeztasun horiek direla kausa, gizakiak alde orotatik dauka *ez-izatearen* eta *ezerezaren* susmoa (*ibid.* 60): "Ikusten dugu ezereza mundua irisatzen, gauzen artean distira egiten". Ezeztapenaren posibilitateak Sartre *ezerezaren* bidean jartzen du.

Baina ezeztasun horiek ez dira dauden bakarrak. Gizakiak bere buruarekiko jarrera negatiboak har ditzake. Hain zuzen, orduan hartzen du kontzientzia gizakiak *ezereza* bere izateari dagokiola. Norbere buruarekiko jarrera negatibo edo gezurretakoari Sartrek *asmo txarreko jarrera* esaten dio, alegia, 'ez izatea naizena' esapideak labur dezakeena. Ordea, gizakiak asmo txarreko jarrera har badezake, ezin du esentzia finko bukatua izan; baldintza zera da (*ibid.* 108): "giza errealitatea, bere izate berehalakoenean, alegia, erreflexio-aurreko *cogitoaren* sakoneko egituran, bera ez dena izatea eta bera badena ez izatea".



Kontzientziaren alteritatea obraren zutabe teorikoa da (*ibid.* 29): "kontzientzia izate bat da bere izatearen auzia bere izatean daukana non eta izate horrek bera ez beste izate bat inplikatzeko duen". *Izatearen* alteritateak beragandiko desitsastea, ihesa, desintegrazioa dakar eta *izatea* gabezia bezala agertzen da. Sartrek izate bikoiztu, osagabe eta izategabetu hori giza errealitatearekin bakarrik lotzen du (*ibid.* 129): "munduan agertzen da bakarrik giza errealitatea agertzen denarekin batera. Giza mundu batean bakarrik egon daitezke gabeziak". Giza errealitatea gabezia moduan existitzen da, halaberrez.

Beraz, mundua osatzen duen izatezko trinkotasunean, Sartrek tartea egiten dio giza izateari, hots, oinarritzko izate kontzientziadun bati. Baina izate hori ez da kontzientziaduna zentzu kognitiboan ulertuta, hau da, bere buruaren ezagutza lukeena eta subjektu gisa bere izatearen ikuspuntutik hartuko lukeena, baizik eta *cogito* erreflexiboaren aurreko kontzientziatzat ulertzen dena: kontzientzia ez erreflexua (adib. oinazearen kontzientzia oinaze horren bizipen hutsa da, eta ez oinaze horren ezagutza). Giza izate kontzientziaduna *bere baitarakoa* da.

Kontzientzia ez erreflexu eta bat-batekoa beti da bere izatearen bertsio posible bat; errealitatearekin erlazio autonomoa eratzen du. Izate horrek bere izatearen egituraren darama *ezereza*. Giza izatea izateke dagoen izatea da. Areago, izate hori ez da aurretik legokeen izate-esentzia baten gabezia. Izatea lehenik eta oinarrian izate izategabetua da, eta ondoren bakarrik jotzen du (alferrik) osotasunerantz. Hala, gabeziaren ontologiak askatasunaren filosofia bat jartzen du abian (*ibid.* 61): "Giza izatearen esentzia etenda dago bere askatasunean. *Askatasun* esaten duguna, beraz, ezin da giza errealitatearen *izatetik* bereizi".

### **3.2.3. Izatearen transzendentzia**

*Bere baitarako* izateak ez du bere izatearen osotasunaz inongo ikuspuntutik hartzen; transzendentzia hutsa da, bat-batekotasun hutsa, kontzientziaren bizipen hutsa. Ordea, bere kontzientzian isolatua barik, *bere baitarakoa* munduan existitzen da, gorputz batean, garai eta leku batean, situazio batean eta iragan baten jabe: bere mundua bere izatea da, eta alderantziz. Koordinatu horiek mundutasuna ematen diote eta horri esker existitzen da, azken batean. Sartrek horri bere baitarako izatearen *faktikotasuna* esaten dio. Eta, beraz, izatearen egoera 'hori' delarik, gerta zitekeen 'beste bat' izatea.

Halere, faktikotasuneko objektuek ez dute osatzen errealitate bat kontzientziaz eta munduaz aparte legokeena. Kanpokoak diruditen errealitate horretako objektuek tresnatasuna deritzona osatzen dute. *Bere baitarako* izateak berarekin darama tresnatasuna eta horrek bermatzen ditu transzendentziaren *posibleak*, hots, errealitate konkretuak (ate bat, adibidez, ez da existitzen nire mundutik at eta ni lekukotzat naukan objektu gisa, nire transzendentziaren errealitate posible gisa baizik: atea irekitzeko nire *posible* gisa, esaterako).

Halatan, bere baitarakoa bere posibleetarako transzendentzia da. Sartrek 'ipseitate' esaten dio bere baitarako izatearen eta bere posibleen artean dagoen izatezko igorpen etengabeari. Oro har, 'ipseitate-zirkuitu' terminotan azaltzen du (*ibid.* 146): "Bere baitarakoak bera den posiblearekin gordetzen duen erlazioari 'Ipseitate-zirkuitua' esango diogu, eta 'mundu', aldiz, ipseitate-zirkuituak zeharkatua den izatearen osotasunari". Alteritate horren bi poloek joan-etorriko erlazioa gordetzen dute, bere baitarakoak ezin baitu bere posible guztiak batera izan, oinarrian baita osagabea.

Baina Sartrek ez du izatearen gabezia modu pasiboan ulertzen, izateko desira gisa baizik (*ibid.* 131): "desira izate-gabezia da eta bere izatearen sakon-sakonenean darama bere desira den gabeziaren izatea". Adibide gisa azaltzen duenez, zirkulu amaitu gabeak eta ilbeherak ez dute zirkulu eta ilargi zatirik falta; ez baditu bederen giza transzendentzia batek kanpotik gaintitzen eta osotasuntzat zirkulu itxia eta ilbetea jotzen. Hor ez da gabeziarik, positibotasun hutsa da: hori da eta kito. Besterik da, esate baterako, egarriaren kasua: egarriaren funtsa gabezia da eta izateari utziko lioke gabezia asetuz gero.

Gabeziaren transzendentzia denboran zehar gertatzen da. Denborazkotasuna, izan ere, mundura izatearen bidez dator. Denborazkotasuna giza errealitateak bakarrik izan dezake, eta ez *bere baitako* batek, hots, izate trinko eta itxi batek, adib. ekaitz batek (*ibid.* 43): "ez dago *gutxiago* ekaitzaren ondoren ekaitzaren aurretik baino; dagoena da *beste gauza* bat. Eta espresio hori ere ez da zuzena zeren, alteritatea zehazteko, beharrezkoa da lekuko bat iragana nolabait ere gogora dezana eta orainarekin aldera dezana *jada-ez-gehiago* moduan".

Denborazkotasunaren hiru elementuak (iragana, oraina, geroa) ez dira datazio soilak, giza izatearen une egituradunak baizik. Bere baitarakoa, lehenik, presentzia gisa existitzen da, presente(an) dagoen presentzia propio gisa. Alteritate hori bere baitarakoarengan bakarrik gerta daiteke. Bigarrenik, iragana ere giza errealitatearen denboran bakarrik existi daiteke, izan ere, iragana bere baitarakoak orainean berarekin daraman (bere baitako) izate finkoa da. Iragana existitzen da bere baitarakoak bere oraina *bere-iragana-ez-izaten* bezala bizi duelako. Hori bere baitarakoaren lege ontologikoa da. Sartrek birformulatu egiten du *cogito* kartesiarra (*ibid.* 163): "pentsatzen ari naiz, beraz banintzen".

Orobat, oraina ez da iraganak lukeen geroaldi aktualizatua. Iraganak egitura propioa du, bere baitako izate bukatua da, geroaldi propioa duena. Sartrek magikotasuna aitortzen dio izate berean iraganaren eta orainaren identifikazioa gertatzeari, horien homogenotasuna faltsua izan arren. Azken batean, iragana izate-mortua izanik ere, *niak* orainean bizi du eta sintesi modukoa egiten zaio bi izate-motaren artean: bata, bere baitakoa (iragana) eta, bestea, bere baitarakoa edo *badena-ez-den-eta-ez-dena-baden* izatea (oraina). Horregatik, iraganera joan bagintez ere, jokoan kanpo geundeke, iragana orain *garen* izatea *baita, ez-izateko* moduan dena (*ibid.* 163): "iragana da ni naizena bizitu ezin dudalarik".

Bestalde, geroa ez da oraindik-ez-den oraina. Bere baitarakoaren izateko posibilitateak zabalik egonik, geroak ere izatearen alteritatea salatzen du (*ibid.* 170): "Geroa da nik *izateko dudana* ahal dudalarik ez-izatea [...] geroa badago Bere baitarakoak bere izatea izateko duen heinean, besterik gabe izan ordez". Sartreentzat, denbora giza errealitateak zabaltzen du, batasun osagabe gisa. Baina denborazkotasun hori ez da ulertu behar uneoroko "istante" eta alteritate huts bat bezala. Denbora ekintza bateratzaile batean integratzen da (*ibid.* 196): "Inoiz ere ez dago istanterik non bere baitarakoa badela baieztatu litekeen, hain zuzen, bere baitarakoa inoiz ere ez baita. Aitzitik, denborazkotasunak osorik zabaltzen du denbora istantearen ukapen gisa".

### 3.2.4. *Bestearentzako izatea (L'être-pour-autrui)*

Bestea ere, bere baitarako izatea den heinean, kontzientzia-transzendentzia da, bere izatea eta mundua zabaltzen du. Haatik, transzendentzia batek ezin du beste batekin topo egin, gailendu egiten zaio beti bata besteari. Sartrek baztertu egiten du Heideggerren 'Mitsein' (-*rekin izan*) denik Bestearekiko funtsezko erlazioa (*ibid.* 502): "Alferrik ahaleginduko da giza errealitatea dilema horretatik irteten: Bestea transzendentia edo Besteak transzendentia izan. Kontzientzien arteko funtsa ez da *Mitsein*, gatazka baizik".

Izatearen *bestetasunak* bi izate-erdiguneren talka adierazten du: bere baitarako izatearena eta Bestearena. Gatazka horrek *ezereza* dakar eta, beraz, pitzatu egiten da ostera ere bere baitarakoaren izatea. Bestea bere baitarako izatearen munduan begiradaren bidez lerratzen da; begiratu izateak bi kontzientziaren talka jartzen du agerian. Hori atzematen da, esaterako, lotsaren kasuan (*ibid.* 276): "ni lotsatzen naiz Besteari *agertzen natzaion* bezala". Lotsatzean, baina, nire izatearena ez baizik zeharo Bestearenaren menpeko nagoelarik, kontzientzien talka *batasun* bezala bizitzen da:

Nirea balitz bezala aldarrikatzen dut Beste baten askatasun hori, kontzientzien batasun sakona adierazten dut [...] izate-batasun bat, ezen ezaguna egiten zaidan izate bat nahi eta onartzen baitut Besteek aitortu diezadaten. [EN: 320]

Halatan, bere baitarako izatea bikoiztu egiten da, alde batetik, bere izatearen transzendentzia baita; eta, beste alde batetik, *Bestearen* faktikotasunaren parte baita eta *Beste-izate* baten iragazitik existitzen baita. Bestea agertzearekin batera, bere baitarako izatearen transzendentzia, orduan, *transzendentzia-transzendentia* da eta, beraz, begirada tarteko, bere baitarakoak bere izatea *alienazio* gisa bizi du, bere izatearen ihes, lapurketa, desitsaste eta suntsipen gisa. Labur esateko, *ezereza* lerratu egiten da, funtsean, bere baitarakoa 'bere baitarako' eta 'Bestearentzako' den izatearen artean.

Sarrailatik begira dagoen begiratzailerik begiratuaren adibidean, Sartrek izatearen 'inbasio' horren kontu ematen du (*ibid.* 321): "Bestearentzat, sarrailako zuloan nago makurtuta, zuhaitz hori haizeak *makurtuta* dagoen bezala. Bestearentzat, beraz, nire transzendentzia galdu dut". Zernahi egin ere ezkutatzeko, nire ahalegin horiek Beste baten munduari dagozkion ekintzak dira; niretzat, aldiz, posibilitate-hilak (*mortes-possibilités*) (*ibid.*

323): "Besteak *aldi berean* gainditzen ditu zoko ilunaren iluna eta nire ezkutatzeko posibilitatea, babesteko ezer egin ahal izan aurretik, zokoa eskuargiarekin argitzen duenean".

Bestalde, transzendentzia-transzenditu delarik, bere baitarakoa gorputz-objektu gisa agertzen zaio Besteari. Baina gorputz hori, hots, Besteak *beretzako* objektu bihurtzen duena, ez da bere baitako gorputz bat, bere baitarakoa baizik: gorputza kontzientziaren ekintza-tresna da. Bestela esateko, nik ezin dut aldi berean nire gorputza bat-batekotasunez *bizi* eta objektu gisa *ikusi* (edo mintzatu eta nire jarduna entzun). Kontzientziaren bat-batekotasunak existentziaren aspektu guztiak batzen ditu, eta ez da bere buruaren lekuko, bat egiten du *bere* gorputzarekin. Funtsean, bere baitarakoa kontzientzia-gorputza da.

Horrenbestez, Bestearen begiradak eta gorputzaren faktikotasunak Bestearen jabetza-bidean jartzen gaitu. Sartrek Bestearekiko bi harreman konkretu-mota bereizten ditu, eta giza harreman oro oinarritzko mota horien aldaeratzat hartzen ditu. Funtsean, Bestearekiko harreman konkretuak baldintzatzen duena zera da, nik *Bestearentzat-naizen-objektuari* buruz hartzen dudana jarrera. Lehen jarrera-motak bilatzen du Bestearen subjektutasunari nire objektutasunetik eragitea: Bestearen transzendentzia transzenditu nahi dut eta neroni eratu ni-objektuaren subjektu fundatzailatzat (horren adibidegarri, Sartrek atal bat eskaintzen dio maitasun, masokismo eta hizkuntza bidezko sedukzioari). Bigarren jarrerak Bestearen objektutasunetik eragin asmo du Besteagan, Bestea *niretzat*-den-objektu bihurtuz. Horren arabera, Bestearen askatasuna asimilatu asmo dut eta eratzen naiz Bestea objektutzat daukan subjektutzat (Sartrek atal bat eskaintzen dio ezaxola, sexu-desira, sadismo eta gorrotoari).

Beraz, printzipioz bi dira eta bi bakarrik Bestearen transzendentziarekiko hartu ohi diren jarrerak (*ibid.* 430): "Bestearen transzendentzia transzenditu edo bestela transzendentzia hori neureganatu transzendentziazko izaera kendu gabe, horiek dira Besteari buruz hartzen ditudan jatorrizko bi jarrerak". Baina Sartrearentzat, funtsean, porrota da harreman horiek xedetzat duten izate absolutua, hots, objektu eta subjektu batera litzatekeena; ezin baita saihestu bi transzendentziaren arteko talka; ezinezkoa baita

transzendentziak bateratzea edo transzendentzia izanik beste transzendentzia baten jabe egitea; ezinezkoa baita ‘*norbera izatea Beste gisa*’ eta ‘*Bestea izatea norbera gisa*’.

Transzendentzien talkan, maitasuna da gertuen agertzen den harreman-mota beste transzendentzia baten asimilaziotik, izan ere, aurretik eskatzen du Bestearen askatasuna aitortzea (*ibid.* 407): "Maitaleak ez du nahi maitatuaz jabetu objektu batez jabetzen den bezala; jabetza-mota berezia eskatzen du. Askatasun baten jabe izan nahi du berau askatasun delarik". Beraz, maitasuna da Besteak nahi dezan, hain zuzen, *nik* nahi dezadan berak maita nazan.

Gauzak horrela, Bestea *hor* dago, bere begiradaz betiro *hor* egon daitekeen izatea baita. Sartrearen ontologian, giza izatea, bere sakoneko egituran, bere baitarakoa (*pour-soi*) ez ezik Bestearentzako da (*pour-autrui*). Hala behar du. Kontzientziak mundua zabaltzen duenarekin batera, Bestea *hor* dago: gizakia *bere-baitarako-bestearentzako* izatea da. Tratatuaren arabera, lege ontologikoa da Bestearen existentzia. Haatik, *bere-baitarako-bestearentzako* izate isolatu eta banakako gisa aurkezten da, ez kolektibo eta gizarte baten seinale bezala.

Tratatu gizabanakoaren kontzientzian geratzen da. Sartrek ondoko obra filosofikoetan ‘gizarteratzen’ du gizabanakoa (*RQJ*: 72): “Batera dutena gizaki guztiek ez da izaera bat, baizik eta kondizio bat, hau da, muga eta traba multzo bat: hil beharra, bizitzeko lan egin beharra eta aurretik ere beste gizaki batzuk bizi diren mundu batean existitzea”; (*CM*: 124): “Besteen aniztasunik dagoen unetik, bada gizarterik. Gizartea da lehenengo bateratzailea, ontologiatik antropologiara garamatzana. [...] Besteen artean sortzen da giza errealitatea. Horrek antropologikoki esan nahi du gizakia gizartean existitzen dela”.

### **3.2.5. Izatearen askatasuna**

Tratatuaren hasieratik aldarrikatzen denez, *izatea* ‘izateke’ dagoen izatea da. Horrek zuzenean jartzen du *izatea* ‘izateko moduan’ eta izateko askatasunaren aurrean. Sartrearentzat, askatasunaren izatea existentziazkoa da, esentziazkoa barik. Askatasunaren abiapuntua askatasuna da, askatasun betiro aktualizatua; areago, askatasuna *izatearen* beharrezkotasuna da, ezin da *Ez* hautatu. Kontzientzia askatasun-kontzientzia da (*EN*: 515): "Horrek esan nahi du ezin zaiola nire askatasunari bera ez beste mugarik bilatu edo, nahiago bada, gu ez garela aske izateari uzteko aske".

*Izatearen* ezereza dela kausa, (giza) izatea beti posible gisa existitzen da, hots, *oraindik*-*ez* edota luzapen gisa. Bere izatea harago dago. Sartrek ‘balio’ (*valeur*) esaten dio *izateak* izatera jotzen duen izate horri. Baina ez dira bi izate bereizi (*ibid.* 137): "balioa izatearen barruan doa fundatu egiten delarik, eta ez badelarik: askatasunaren barruan doa". Hortaz, *izateari* dagokion heinean, askatasuna *ezerezari* ere badagokio (*ibid.* 516): "Askatasuna funtsean bat dator gizakiak barruan daraman ezerezarekin. *Nahikoa ez delako* da giza errealitatea aske, beragandik erauzia delako eten gabe".

Giza errealitatearentzat, *izatea* “norbere hautua egitea da”. Eta askatasuna ezin saihestuak atsekabea (*angoisse*) sortzen du. Areago, atsekabean jabetzen da gizakia bere askatasunaz. Bertigoaren adibideak (66.-69. or.) adierazten duenez, esaterako, leizezuloari begira, eta nire posibleak aurrean ditudala, ez da leizean *jausi* ahal izateak atsekabetzen nauena, *jausi* egin ahal izateak baizik. Ordea, askatasuna ez da espazio-denborazko une jakin batean kokatzen, uneko borondateari balegokio bezala, edo aukera baten arrazoi afektibo eta objektibo bezala. Askatasunak espazioa eta denbora zabaltzen du. *Ezerezarekin* batera, askatasuna betiro sortzen da osotasun osagabe gisa.

Izatearen askatasuna, beraz, osagabetasunarekin ez ezik (existitzen naiz, beraz, ez naiz eta ‘izateko’ dut), Sartrek transzendentziarekin lotzen du (existitzen naiz, beraz, aske naiz). Ikusi dugunez, *Bestearentzako* izatea ere askatasun-terminotan ulertzen du, Bestearen *aurrean*, bere baitarakoak bere transzendentzia-askatasuna baitu jokoan (*ibid.* 320): "Bestearen askatasuna agertzen zait berarentzat naizen izatearen indeterminazio larriaren bitartez [...] Dena gertatzen da izatearen dimentsio bat izango banu bezala non ezerez batek errotik bereiziko nindukeen: ezerez hori Bestearen askatasuna da".

*Izatearen* ezerezak, transzendentziak, faktikotasunak, denborazkotasunak eta bestetasunak bat-batekotasunez zeharkatzen dute bere askatasuna eta bere osotasuna. Bestela esateko, giza errealitatearen existentzia *situazioan-izate(n)* batek definitzen du, non eta errealitate hori ulertzen baita mundua atzeko planoan duen izate-batasun bezala. Horren kontu emateko, Sartrek *izatearen* 'izateko proiektua' azpimarratzen du (*ibid.* 537): "ekintza oro uler daiteke norbere proiektu gisa posible baterantz".

Horretarako, psikoanalisi existentziala proposatzen du metodotzat. Horren xedea izatearen jatorrizko hautua atzematea da, kontu emango duena bere proiektuaz.

Psikoanalisi existentzialaren arabera (*ibid.* 656), "gizakia ez da emendio bat baizik eta osotasun bat" eta horrek eskatzen du ekintza azalekoena ere osotasun horren erakusgarri izatea (*B:* 121): "Nahikoa genuke Baudelaire egun batez bizitzen ikustea, une bakar batez balitz ere, gure obserbazio sakabanatuak ezagutza oso batean antolatzeko".

Sartrek hiru modutara erreduzitzen ditu giza errealitatearen oinarriko kategoriak: *edukitzea*, *egitea* eta *izatea*. Ezin da ulertu giza errealitatea ez bada *izatearen* ekintzarik gabe. *Izatea* ez da, *egin* egiten da. *Egitea izatearen* modu bat da eta hertsiki lotuta dago arestian aipatutako 'izateko desira' ideiarekin. Horrela, giza errealitatearen existentzia dela eta, nolabait esateko, 'izan' aditza modu iragankorrean uler daiteke, non izate berbera diren aditzaren subjektua eta objektua eta non, beraz, 'egiten dut' eta 'existitzen naiz' bergauza den.

Orobat, edukitzea izatezko kategoria da. Subjektu-edukitzaileak eta objektu-edukiak barne-erlazio sintetikoa gordetzen dute (*EN:* 678): "*Edukitzeko* desira erreduzi daiteke, funtsean, objektu jakin baten harira izateko desirara *izatezko erlazio* moduko batean". Sartrek erlazio magikoa aitortzen dio jabetza horri, ezen 'daukat' 'naiz' batera erreduzi baitaiteke (*ibid.* 681): "ni *naiz* dauzkadan objektu horiek, baina kanpoan, nire aurrean; nigandik kanpokoak bezala sortzen ditut; daukadana *ni* naiz nigandik at, subjektibotasun orotatik at, uneoro ihes egiten didan bere baitako bat bezala eta nik uneoro betikotzen dudana".

Esanak esan, *izatearen* izateko jomugari dagokionez, Sartrek giza errealitatea *izateko pasiotzat* jotzen du, hots, izate bat bezala esentziazkoa izatera proiektatzen dena eta bere baitarakoa izateari utzi gabe bere baitakoa izatera jotzen duena (*ibid.* 708): "bere izatearen funtsa bera izanez, kontingentzia saihestuko duen Bere baitako gisa eratzeko, erlijioek Jainko esaten dioten *Ens causa sui*. Baina Jainkoaren idea kontraesankorra da, alferrik galduko gara horretan; gizakia alferrikako pasioa da". Giza izatea, izango bada, izate betiro fundatu gabea eta betiro *bere baitarakoa* behar du.

*L'Être et le Néant* moralari buruzko gogoeta batekin amaitzen da. Sartrek azaltzen duenez, ontologiak ezin du preskripzio moralik, konduktazko araurik edota jarraibiderik eman, baina agerian uzten du, haatik, *izatearen* etika baten abiapuntua. Giza izatearen etikak, horrela, (*ibid.* 720) "bere ardurak hartu behar ditu *situazioan* existitzen den giza



errealitate baten argitan", eta giza errealitatea bere izatea fundatzeko proiektutzat jo behar du lehenik. Horrek eskatzen du izate fundatu gabea zeharkatzen duen *ezereza* ez ulertzea gabezia pasibo bat bezala, baizik eta 'akuilu' modura, non eta askatasuna bera den abiaburu eta jomuga. *Cahiers pour une Morale* obrak, hain zuzen ere, gai hori berrartzen du:

Zer *falta* du gizakiak? Bada, bere funtsa izatea. Zertan eta zertaz agertzen da gabezia hori? Askatasunean eta askatasunaz; ezen askatasuna baita, hain zuzen, funtsa [...] Baina ezerez *pasibo* hutsa ez izateko, beharrezkoa da ezerez ez-fundatu hori mugimendu fundatzaile hutsa izatea. [CM: 455]

Amaierako gogoeta gisa, baztergarria da askatasunari ihes egiten dion asmo txarreko jarrera hartzea eta zeinahi balio moral aurretik emana balitz bezala ulertzea, hots, subjektibotasunaren aurretik. Sartrek horri *esprit de sérieux* esaten dio. Tratatuaren aldarria horixe da, *izatearen* aurrean autentikotasunez jokatzeko, non ekintza autentikoak, *izatearen* fundatu-gabetasuna ez ezik, askatasunaren aurrean duen ardura asumitzen duen (*ibid.* 639): "gizakiak, aske izatera kondenatuta dagoenez, munduaren zama osorik darama bizkar gainean [...] bere baitarakoaren ardura larria da, berak egiten baitu mundu bat *izatea*".

### **3.3. *Begirada* kontzeptuaren ikuspegi filosofikoa eta ikuspegi literarioa**

*L'Être et le Néant* Sartrearen obra-ardatza da, bere ibilbidearen lehen aroa ixten duena eta ondoko obra oparoaren abiaburua dena. Sartrearen 'marka' ere izan zen, nolabait esateko. *La Nausée* (1938) eleberriak maila literarioan egin bezala, tratatuak puntako filosofoen mailara igo zuen; eta sozialki ere obra arrakastatsua izan zen. Edozein kasutan, *Begirada* ez da ulertu behar kapitulu-zati 'galdu' bat bezala Sartrearen ibilbidean.

*Begirada* dago, adibidez, "infernua besteak dira" (HC: 93) eta "ikusia naiz beraz banaiz" (LS: 457) Sartrearen esapide sakonen atzean, eta baita, adibidez, Sartrearen obra ulertzeko funtsezkoak diren '*Bestearentzako-izate*' eta 'askatasun' kontzeptuen oinarrian ere. Ikusiko dugunez, Sartrek ez zuen 'begirada' kontzeptua bere tratatu filosofikora mugatu. Atal honetan, beraz, arreta ipiniko diot ez bakarrik 'begirada' kontzeptuaren ikuspegi teorikoari, baita horrek Sartrearen literatur ekoizpenean duen presentziari ere.

### 3.3.1. *Begirada* kontzeptuaren ikuspegi filosofikoa

Adigaiari dagokionez, tratatuaren corpus filosofikoaren indexazioak erakusten duenez (Adloff, 1981: 72), *begirada* kontzeptuak gainditu egiten ditu nabarmen izen bereko “3.1.4. *Begirada*” epigrafearen mugak; eta presente dago, esate baterako, *bestetasuna* aldez edo moldez hizpide duten kapituluetan, hala nola, asmo txarreko jarrerez, gorputzaz edota giza harreman konkretuei buruz dihardutenetan. Ez hori bakarrik, kapituluaren kokapena obran estrategikoa da.

Hasteko, “3.1.4. *Begirada*” atala “3.1. Bestearen existentzia” kapituluaren atal nagusia da. Aurrekoak atariko modukoak dira eta Bestearen existentziari buruzko zeinahi teoriarako baldintzak zehazten dituzte. Orobat, zati giltzarria ere bada “3. Bestearentzako” atalean, izan ere, *bestetasuna* (berau *begirada* kontzeptuaren argitan ulertzen dena) atal horretako kapituluaren abiapuntua eta gakoa da. Azkenik, egituraren aldetik, 3. atal hori lotunea da obrako bi teoria-blokeen artean, alegia, *izatearen* eta *askatasunaren* artean.

Dawans (2001) autorea harago doa eta, irizten dionez, Sartreren ‘*Bestearentzako kontzientzia*’ kontzeptua, tratatuaren arabera ‘lotsa’ sentimenduak ezaugarritzen duena, Sartreren obraren muina da.

Voilà qui devrait nous autoriser à défendre ici la thèse selon laquelle la “conscience-honte”, qui, en langage sartrien, “témoigne au cogito et d’elle-même et de l’existence d’autrui indubitablement”, est à la fois un élément capital et le noeud du problème dans la philosophie de Sartre. (Dawans, 2001: 30)

Testuak, halere, *begiradaren* deskribapen fenomenologikoa baino gehiago, ‘izate *begiratu*’ deskribatzen du, zehazki. Eta *begiradaren* analisisa ez du egiten ikusmenaren, hizketaz kanpoko komunikazioaren edota aspektu psikologikoen argitan. *Begirada* Bestea agertzearen fenomenoarekin lotzen du, kontzientzian gertatzen den Bestearen irrupzioarekin (*EN*: 315): “Nik Bestea munduan atzematea *izaten agian* gizaki bat, beraz, *berak-ikusia-izateko* dudan posibilitate etengabeari dagokio”.

*Begiradari* buruzko analisi fenomenologikoaren zirriborroa “Visages” (1939) artikulua filosofiko laburrean aurki daiteke. Testu horren arabera, *begirada* transzendentziaren bisualizazioa da; *izatearen* transzendentzia *begiradarekin* ikusgai bihurtzen da.

Aurpegia munduko objektuen pareko izate-objektu bere baitakoa da, baina aurpegia begirada bihur daiteke eta distantzia zabaldu, alegia, unibertsoan egon eta unibertsoa zabaldu eta bere burua transzenditu (*V*: 564): "aurpegiak bere aurrera bultzatzen du bere burua, espazioan eta denboran [...] aurpegi baten zentzua ikusgai den transzendentzia izatea da".

Bestea ere, hortaz, bere baitarako izatea baita, bere buruaren transzendentzia da eta bere izatearen 'erdigune' propioa zabaltzen du (*ibid.* 563): "Ordura arte, puf, kanape, sofa, diban eta abar nire inguruan zeuden jarrita, borobilean. Salako erdigunea orain mugitu egin da". Horregatik, bere baitarakoak lehenik bere erdigunearen alteraziotzat jotzen du Bestearen presentzia (*EN*: 312): "*Nire* unibertsoko objektuen artean, unibertso hori desintegratzera datorren elementu bat agertzeari, horri esaten diot gizaki *baten* agertzea nire unibertsoan".

Halere, kasu horretan, Bestearen transzendentzia oraindik transzendentzia-objektu bat da kontzientzia-lekuko (*ni*) batentzat. Kontua zera da, Besteak bere erara antola badezake bere mundua eta nik ikusten dudana ikus badezake, orduan ni ere ikus nazake. Ordea, Besteak begiratzen badit, bera subjektu delarik izan behar du (beraz, berak ni objektutzat hartzen naularik). Baina nik ezin dut Bestea atzeman *bere-objektu* naizelarik (subjektu ez naizelarik).

Hortxe dago auzia. *Besteak-ikusia-izan* deritzon erlazioa ezin da ondorioztatu ez niretzat objektu litzatekeen *Beste* batetik (objektu delarik berak ezin baitit begiratu) ez ni-subjektu aske batetik. Sartreentzat, *Bestea* (objektua) gizaki-izaten (subjektu-izaten) agertzeko probabilitateak Besteak-eten-gabe-ikusia-izateko posibilitatera igortzen du. Bestea begiratzen didana da (*ibid.* 327): "presente egiten zaidana berak begiratzen didalarik eta ez begiratu delarik".

Baina bere existentzia ez dago presentzia fisikoari lotuta, ezta objektu-gizaki edo objektu-begi bati ere. Gortinaren kulunka, sasitzaren karraska eta oinotsa ere, adibidez, begirada dira. Sartrek begia eta begirada bereizten ditu (*ibid.* 316): "begirada atzematen dut 'begiratzen didaten' begien suntsipenaren planoan. Atzematen badut begirada, begiak ikusteari uzten diot". Begirada ez da bi *Ni* bereiziren arteko zerbait, ez dago

kontzientzien ko-existentziarik: edo begiratzalea edo begiratu naiz, *balantzak* batera edo bestera egin behar du.

Horregatik, Sartreentzat, begirada nigandik nigana igortzen duen gertakaria da, alegia, kontzientzia batek bere buruarekin bizi duena. Horren adibide behinena lotsarena da. Lotsatzean, nire burua epaitua, arriskuan sentitzen dut eta *bestetasunarekin* lotzen dut sentimendu hori. Izan ere, *Besteak-begiratzeko-duen-objektu* bihurtuta ere, nire burua nolabait errekonozitu egiten dut Besteak begiratzeko duen objektu horretan.

Begiratu sentitu aurretik, nire kontzientzia (ez erreflexua) ez da tesi baten objektu, gauzen kontzientzia hutsa naiz, ez dago inongo ikuspuntutik nik situazio batean egiten ditudan ekintzak kalifika ditzakeenik, beraz, ez ditut nire ekintzak ezagutzen, baizik eta bizi egiten ditut eta beraiek naiz; eta nire baitarakoa naizenez, nire *ezere*z propioa ere banaiz. Ordea, begiratu sentitzean, besterik da: nire izatearen egitura astindua da eta sakoneko aldaketak gertatzen dira, baina ez nik munduaz edota objektu-presentzia begiratzaleaz dudak kontzientzian, baizik eta nire buruaz dudak kontzientzian.

Nola liteke, bada, objektu egiten naizenarekin batera (Bestearentzat), begiratu izatearen situazio berri hori nik objektu naizelarik bizitzea? Sartre *ihesaren* eta *isuriaren* irudiak baliatzen ditu hori adierazteko. *Ezere*za lerratu egiten da nire (bere baitarako) izate ez erreflexuaren eta nire (Bestearentzako) izate begiratuaren artean: izatezko (eta ez ezagutzazko) lotune bat gertatzen da bion artean. Ageri dena ni banaizen izate bat da, banaizena eta ihes egiten didana. Bestearen menpe gelditu den izate ezegonkorra eta indeterminatua naiz.

Orduan, nire izatearen 'pitzadura' hori saihesteko, nolabait, *izatearen* batasuna aldarrikatzen dut (*ibid.* 320): "ezen ezaguna egiten zaidan izate bat nahi eta onartzen baitut Besteek aitortu diezadaten". Baina larriena ez da Besteak eta nik nire buruari egozten diogun *izatea* bat ez etortzea, baizik eta batere ezagutzarik ez dudala Besteak ikusten duen-nauen objektuaz: nire izatearen isuria infinitua da eta erabat degradatuta gelditzen da. Nire izatea Beste baten askatasunari dagokio, eta niretzat askatasun hori inprebisiblea da.

Horra non, paradoxa gisa, objektu bilakatzen naizenarekin batera, hain zuzen, banaizen. Ordura arte ez nintzen, bere baitarakoa izanik, eten gabe izaten ari bainintzen. Besteak

dimentsio berri bat zabaltzen du nire izatean eta aitortzen dit kanpokotasuna (espazioa eta denbora). Besteak izate bat aitortzen dit. Horrela, ni izate bat naiz nik fundatu ez dudana, izate hori nire *Bestearentzako* izatea da. Sentitzen dut nire transzendentziaren baldintza diren posibilitateak, hor nonbait, *Beste* batentzat direla eta nire transzendentzia *Beste* baten posibilitateek transzenditzen dutela.

Bestela esateko, nire munduko faktikotasuna Bestearen munduko tresna-sare gisa antolatzen da eta ni jada ez naiz nire situazioaren jabe; situazioa Bestearena da. Horrela, nirea ez den askatasun baten menpeko, nik ez dut irtenbiderik, esklabotzan nago, arriskuan; nireak ez diren posibilitateen tresna naiz. Baina, orduan, nola liteke begiradaren aurrean jarrera bat edo beste hartu ahal izatea? Nork hartzen du jarrera hori, *nire* baitarako izateak edo *nire* bestearentzakoak?

Sartrek azaltzen duenez, begiradak existentziaren dimentsio berri batera garamatza: *izate ez agerikoa*. Bestearentzako objektu naizelarik, ez dut inongo eskumenik, nire izatea Bestearena da, izate hori ez-agerikoa da. Besteak begiratzen didanean, gainera, begiratzailea bera da, nik ezin dut bera begiratzaile gisa ikusi. Ildo beretik, Besteari begiratzen diodanean, bera objektua da niretzat, beraz, ez da begiratu sentiarazi didan subjektua. Bestea ezin da izan nire atenzioa beragan jarri dudalako agertzen den zerbait, subjektua delarik begiratzen baitit beti.

Horregatik, Bestea ezin da eratu nire esperientziaren kategoria bateratzaile edo erregulatzaile bezala, beti topatuz bezala agertzen baita (*par rencontre*). Bestea da berarengana arreta biratzen ez dudana hori. Sartreentzat, 'begiratu izatea' gertakari erreduziezina da. Bestearen begirada (begiratzailea) ezin da deduzitu ez nire subjektu-izateatik (orduan Bestea objektutzat joko bainuke) ez Bestearen objektu-izateatik (orduan Besteak ez bailuke ni begiratzeko ahalmenik). *Epoché* fenomenologikoak ere ezingo luke, Sartrek eusten dionez, Bestea isolatu eta parentesi artean jarri, zeren begiratzailea delarik, Bestea transzendentzia hutsa baita, ez-posiziozkoa, ez-tetikoa, nire 'mundutik' kanpo dagoena.

Sartreentzat, solipsismoa (*solus ipse*; ni bakarrik) oztopotzat hartu ahalko litzateke, Besteari subjektibotasuna ukatuz gero eta kontzientziak bizi duen *bestetasuna* ni baten iragazitik bakarrik ulertuz gero. Adibidez, solipsismoan erortzea litzateke Bestearen

begiradatik ni-objektua ondorioztatzea, eta gero objektibotasun hori *Beste* gisa hipostasiatzea. Baina, nire burua objektu gisa ikusi ahalko banu ere, Sartrek dioenez, objektu hori ez nintzateke ni, baizik eta kontzientzia degradatu bat, *Ni-Beste* moduko bat. Sartreentzat, ni-objektua atzeman ezin dudan eta, haatik, banaizen limitea da.

Bestea subjektu osoa da. *L'Imaginaire* (1940) obrak, irudimenaren ikuspegitik diharduen arren, ametsa hizpide hartuta, Bestearen beregaintasuna iradokitzen du. Ametsezko *munduetan*, osotasunaren ikuspuntu orokorra berez subjektu-ni ameslari batena bada ere, ametsak sortutako objektu-ni batek *berea* balitz bezala bizi du bere izatea. Zera, ametsa ez da kanpotik ikusia, osotasunez bizitua baizik, "ametsa mundu bat da" (215. or.). Sartrek dioenez (*ibid.* 222): "irudimenezko niak ez du ikusten mundu hori, eta lo dagoenak ez du hartzen izate jakin horren *lekua* gauzak bere ikuspuntutik ikusteko: bere ikuspuntu propioetik ikusten ditu beti, bere sortzaile-ikuspuntutik. Kontua da, ikusten dituen unetik, gauza horiek bizitzen eta jasaten dituen objektu-ni horren arabera orientatuta ikusten dituela". Bestea ere, beraz, ametsak sortua izan arren, Beste *aske* gisa agertzen zaio bizipenaren 'erdigunea' den kontzientzia-niari.

Horrenbestez, Bestea ez da nigandik ondorioztatzen (*EN*: 331): "ez da ezagutza bat, ez da nire izatearen luzapen bat, ez da batasunezko forma bat edo kategoria bat. Besterik gabe *da* eta ezin dut nigandik ondorioztatu", nahiz eta *bestetasunak* oinarrian bestetasun hori bizi duen kontzientzia-ni bat eduki badaukan. Bestea izatezko beharrezkotasuna da, eta hori hain da horrela, non bere existentziaren eta nirearen zalantzagabetasuna eta beharrezkotasuna berberak baitira. Nire izatearekiko ihesa bat dator Bestearen askatasunaren agertzearekin. Egoera hori atsekabe eta arrisku moduan bizi dut.

Jakina, senti naiteke begiratu eta ez begiratu izan (*ibid.* 335), "nigan finkatuta dauden begiak, ez da ziurra begiak izatea, izan daitezke benetako begien antzera eginak"; tronpa naiteke eta, begiratu sentitu arren, gerta liteke inor ez egotea begira. Orduan, hipotetikoa da Bestearen existentzia? Sartreentzat ziurra dena da ni begiratu naizela, eta gero, begiratzailea munduko presentzia den edo ez hori probablea besterik ez da. Bestea ez da zalantzazkoa; tronpakorra dena Bestearen *hor-egotea* da, bere faktikotasuna.

Obraren lehen bi ataletan azpimarratzen denez, bere baitarako izatea izate osagabea da eta bere izatea 'izateko duena'. Horren arabera, aipatu bezala, ni naiz izate bat ez-naizena-ni-naizena-eta-banaizena-ez-naizena. Eta Bestea ere bere baitarako izate bat da. Baina *ezereza* ez da lerratzen bi subjektuon artean, baizik eta nire baitarako eta nire bestearantzako izateen artean. Bestearantzako izatea gertakari konstantea eta beharrezkoa da nire izatean: hala, aldi berean bere baitarako izatea Bestearantzako izatea da. Orduan, zein da Bestearekiko dudan oinarrizko erlazioa? Zein da Bestearantzako izatearen izatea?

Bestea agertzen da ni-ez-izaten bezala: **Bestea da ni ez naizena eta ni naiz Bestea ez dena**. *Ezereza* bikoitza da: ni eratzen naiz *ez-izaten* izate bat ni *ez-izaten* eratzen dena. Era berean, Bestea ez-objektua da, nik ezin baitut Bestea *ez-izan* ez badiot Besteari subjektutasuna aitortzen. Laburki, ni *ez-naizena* ez da ez Beste-objektua, ezta ni-objektua ere, baizik eta Beste-subjektua. Kontua da nik ezin dudala Bestea *ez-izan* ni-subjektu bezala (orduan Bestea objektu hutsa baita), soilik izan naiteke Bestea-ez-naizen kontzientzia bezala.

Egoera dialektiko hori soilik gaindi daiteke bere baitarakoaren transzendentzia dela bitarte, alegia, nire posibleetara eta nire askatasunera jauzi eginez. Horrela, nire burua *Bestearantzako-objektu-den-subjektu* bezala transzenditzen badut eta, beraz, nire izatearen osotasunez, Bestearen transzendentzia ukatu barik 'baliogabekotzat' jotzen badut, *bestetasuna* nire izatearen parte egiten dut. Modu horretan, bere baitarakoa den nire izatea posibilitate infinituen iturri izaten jarraitzen du eta bere erdigunea berreskuratzen du.

Eta nola errekonozitu Bestea? Sartreentzat, hiru gertakarik agerrarazten didate nire *hor-nonbait* izatea Bestearantzako objektu bezala eta Bestearen *nire-eskumenetik-kanpo* izatea (Bestea subjektu bezala): lotsak, harrotasunak eta alienatua izateko beldurrak. Guztietan hiru elementu dira beharrezkoak: ni-subjektu bat (lotsatzen, harrotzen, beldurtzen dena); ni-objektu bat (lotsaren, harrotasunaren, beldurraren objektua); eta Beste-subjektu bat (noren aurrean lotsatzen, harrotzen, beldurtzen naizen). Hala, *bestetasunak* ez du deusezten nire baitarako izatea eta, aldi berean, subjektutasuna aitortzen diot Besteari.

Kapituluaeren amaieran, Bestea tentuz maneiatu beharreko lehegailutzat jotzen du Sartrek. Uneorokoa da nire munduaren isurtzea eta nire izatearen eta askatasunaren alienazioa gertatzeko arriskua. Hori nire izatearen konstante bat da. Aitzitik, begirada beti alderantzika daiteke eta, subjektuen 'lehia' horretan, nik Bestea objektu bihurtu, Besteak ni beharrean. Sartreentzat, begirada *begiratzaila* ekintza askea da eta existentziari dagokio; ordea, begirada *begiratu* objektu finkoa da, askatasun baliogabetua, esentzia mortua. Hala, Sartrearen literaturan begirada eta askatasuna hertsiki lotuta agertzen dira.

### **3.3.2. *Begirada* kontzeptuaren ikuspegi literarioa**

Zehazki begiradaz diharduten Sartrearen testu filosofikoak bi dira: bata, ikerketa honetako corpusa, hots, tratatuaren kapitulu-zatia; bestea, arestian aipatutako "Visages" (1939) artikulua. Lehen testuari dagokionez, irakurleak erreparatuko dionez, nabarmena da kutsu literarioa duten adibideen erabilera, Sartrearen zeinahi obra literarioaren pasarteak izan zitezkeenak (Leak, 2011). Eta hori tratatu osoan zehar gertatzen da.

Esanguratsua da, urrutira gabe, kapituluaren hasierako tankera narratiboa (*EN*: 310): "Nigana etortzen ikusten dudan emakume hori, kaletik doan gizon hori, nire leihotik kantatzen aditzen dudan eskale hori [...]". Lehen kolpean tratatuaren adibidegintza ahalegin estilistiko hutsa dirudien arren, metodo fenomenologikoa zilegiztatzeko baliabide bezala uler daiteke. Giza koordinatu horiek eta egunerokotasuna oinarri duten adibide, deskribapen, konparazio eta irudiek eszenan jartzen dute aparatu teorikoa eta gorpuzkera ematen diote.

Ordea, "Visages" artikulua libreagoa da estiloari dagokionez, Sartrearen corpus fenomenologikoa osatzen duten obren aldean. Bertan filosofikoa dena ez da hainbeste idaztankera, baizik eta hausnarketa eta gaiaren ikuspegia. "Visages" begiradari buruzko gogoeta fenomenologiko-poetikoa da, deskribapen teorikoa bainoago. *NI* baten ikuspuntutik eta kontakizun-sorta bezala, adibidez adibide eta metaforaz metafora, Sartrek begiradaren deskribapena iruditzen egiten du.

Testuaren arabera, begirada gorputzaren erlikia eta muina da, objektu-gorputzaren gauzatasunari bizitasuna dakarkion gertakari magikoa. Xarma hori zerak ematen dio, espazio-denbora zabaltzeko ahalmenak.



Begirik gabeko aurpegia zomorro hutsa baino ez da, ontzien kroskoan itsasten diren horietakoa, ur gaineko hondakinak erakartzeko, hankekin urari eragiten dioten horietakoa. Baina hara non begiak zabaltzen diren eta begirada agertzen den: gauzek atzera egiten dute jauzi [...] Begirada aurpegiaren noblezia da, mundua distantziara baitauka eta gauzak dauden lekuan atzematen baititu. [Visages: 563]

Ez da ahaztu behar bost orrialdetako testu hori Sartrek *Verve* aldizkarian argitaratu zuela, hau da, bi urte lehenago sortu zen aldizkari bat ez zena filosofikoa baizik eta, bigarren izenburuak salatzen zuenez, *artistique* eta *littéraire*. *L'Être et le Néant* idazteko lehen zirriborroak ordukoak dira. Beste gogoeta asko eta asko *Carnets de la drôle de guerre* (1995) obran jasotzen dira. Horrela, bada, ez da sekretua tratatuaren pentsamendu filosofikoa bere obra literario osoan zehar agertzen dela.

Gómez Garcíak (2002) bere tesian biltzen duenez, begiradari buruzko erreferentziak han-hemenka ageri dira Sartreren antzerki, eleberri zein biografiagintzan. Sartreren ia obra literario guztietan dago begiradari buruzko aipu, erreferentzia, pasarte eta gogoeta solterik, batez ere, pertsonaia jakin batek *bestetasuna* hizpide hartzen edota bizitzen duenean (*LN*: 50): "Beharbada ezinezkoa da norberaren aurpegia ulertzea. Edo, agian, bakarrik nagoelako ote da? Gizartean bizi diren gizakiek ikasi dute beren burua ikusten ispiluetan, lagun-en aitzinean agertzen diren bezalaxe".

Ordea, *Huis Clos* (1944) antzerki-lanean (*Ezin Irten* euskara liteke), *begirada* obraren ardatza da. Sartrek obra horrekin dakar nagusiki *bestetasuna* eta *begirada* literaturara. Gogora gaitezen, gainera, obraren jatorrizko izenburua "Besteak" izan zela (*Les Autres*). Sartrek hiru hildako (hiru kontzientzia) jartzen ditu eszenan, espazio itxian. *Begirada* plataforma-moduko bat da kontzientzia horiek elkartzen dituen. Hala, kontzientzia bakoitzak bere existentzia bere begietatik ez baizik Bestearen iragazitik jasotzen du. Begirada maiz aipatzen da (*HC*: 48): "Irribarre egingo dut: nire irribarre zure beginien barruraino joango da eta batek daki zer bihurtuko den"; "Begiak itxiko banitu, ez banizu gehiago begiratuko, zer egingo zenuke edertasun horrekin guztiarekin? Ez beldurtu, begiratuko dizut, nire begiak zabal-zabalik geldituko dira".

Noudelmann (1993) eta Lloyd (2014) autoreentzat, antzerki-lanak ekarpen interesgarria egiten du tratatuaren teoriaren aldean, izan ere, hiru pertsonaien triangelu-moduko begirada lekukodunak hautsi eta ezegonkortu egiten du tratatuaren *subjektu-objektu*

joko dialektikoaren simetria hertsia (Noudelmann, 1993: 95): “Sartre expérimente les nombreuses combinaisons par lesquelles un tiers déstabilise une relation à deux”. Antzerki-lanean *Bestea* jada hor dagoen izatea da eta, beraz, begirada-lehiaren lekukoa ere izan daitekeena. Eszenan jartzen dena zehazki begiradaren *ezin saihestua* da, alegia, norbere izatearen erabateko desjabetza eta Bestearekiko menpekotasun osoa.

Bestearen objektu bihurtuta, kontzientziak kanpotik jasotzen du bere berri eta, beraz, berea zeharo jasandako identitatea da. Bestearen begiradak kontzientziari kanpokotasuna inposatzen dion arren, gobernatu ezin eta ihes egiten dion kanpokotasuna da, guztiz Besteari dagokiona. Menpekotasun horri Sartrek ‘infernu’ esaten dio. Infernuaren tortura uneoro Bestearen biktima (objektu) izateko arriskua da.

Jaten nauten begirada horiek guztiak... (*biratu egiten da bat-batean*) A! bi besterik ez zarete? Uste nuen askoz gehiago zinetela (*barrez*). Orduan, infernua hori da. Ez nuen inoiz pentsatuko... Gogoratzen duzue: sufrea, sutzarra, grila... A! hori adarjotzea. Ez da grilaren beharrik: infernua besteak dira. [HC: 93]

Dena den, "infernua besteak dira" esapidea ez da modu ezkor batean ulertu behar, sarri gertatu den bezala, ezta gorrotozko sentipenaren zentzuan edo izateen artean komunikazioa ezinezkoa balitz bezala: infernua menpekotasuna da. Sartreentzat, Bestearen existentzia ez da kontzientziaren kondena bat, baizik eta Bestearekiko harremanen abiapuntua. *Bestetasuna* ezin da saihestu eta ezta Bestearen biktima zein borrero uneoro bihur gaitezkeen egitatea ere.

Horren aurrean, kontzientziaren erronka ez da Bestearen askatasuna eta begirada ukatzea eta suntsitzea, baizik eta aske irautea Bestea uneoro begiratzailer izan daitekeen munduan, begiradaren gatazka gainditzea eta asumitzea kontzientziaren eta *bestetasunaren* arteko erlazioa, Bestearen esklabo zein nagusi izan gabe. Esapideari buruzko gaizki-ulertua Sartrek irratir-Elkarrizketa batean azaldu zuen 1965ean:

Uste izan da horrekin adierazi nahi nuela gure besteekiko erlazioak pozoituak daudela beti eta infernuzko erlazioak direla. Zeharo beste gauza adierazi nahi dut. Esan nahi dut bestearekiko erlazioak aldrebesak badira, kutsatuta badaude, orduan besteak infernua izan behar du derrigorrez [...] jende asko dago munduan infernuan dagoena bestearen juzkuaren menpekoegia delako. [TS: 238]

Bestalde, gainerako literatur lanetan, begiradaren *alienazioak* ñabardurak hartzen ditu kasuan kasu. Adibidez, begirada aukeratzat eta irtenbidetzat jotzen da norbere burua Bestearen ikuspuntutik ezagutzeko eta bestetasunetik norbere izateari zentzua emateko. Begiradak, orduan, giza ispilu modura eta norbere izatea izate-objektutzat finkatzen duen gertakari modura, izate trinko bukatua aitortzen dio izate begiratuari, edota, tratatuak esplizitu ematen duen bezala, "nahikoa da Besteak niri begiratzea ni naizena izateko" (EN: 320).

Badakizu nire amets zaharrena ikusezina izatea zela. Hamaika aldiz desiratu dut aztarnarik ez uztea, ez lurrian ez bihotzetan. Hori bai etsipena bat-batean begirada hori deskubritzearena irten ezin dudan eremu orokor bat bezala. Eta hori atsedena, halaber. Azkenik badakit zer naizen. Nire erara eta zure haserre handienerako, aldatu egingo dut zuen profetaren "pentsatzen ari naiz beraz banaiz" esaldi ergel eta kriminal hori, hainbeste sufriarazi didana -zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta gutxiago naizela sentitu izan baitut- eta esango dut: "ikusia naiz beraz banaiz". Ez dut gehiago jasan beharrik nire isurbide likatsu horren ardura, hau da, ikusten nauena eta izanarazten nauena. Ni naiz berak ikusten nauen bezalakoa. [LS: 457]

Baina izate begiratuia izate begiratzaille bihur daitekeen heinean, izate finkatuia izate finkatzaile ere bihur daiteke. Eta, beraz, bi izateren artean sortzen den gatazkak adierazten duena zera da, azken batean, Besteak objektu gisa eratu eta mendean eduki nazakeen bezala, nik ere objektu gisa eratu eta mendean har dezaket Bestea.

Lucienek joko berri bat asmatu zuen: goizetan, bakarrik hartzen zuenean bere bainua garbigelan, norbaitek sarraila-zulotik begiratzen ziola imajinatzen zuen [...] Lucienek ez zekien zer egin bere gorputzaz. Egiten hasten zen edozertan, beti iruditzen zitzaion gorputz hori alde guztietara existitzen ari zela, bere iritzia kontuan izan gabe. Atsegin zuen imajinatzea ikusezina zela eta sarraila-zuloetatik begiratzeko ohitura hartu zuen, mendekua hartzeko eta ikusteko besteak, eurak jakin gabe, nola zeuden eginak. [L'enfance d'un chef, LM: 169].

Bestearen begiradak forma ematen dio nire gorputzari, taxutu eta moldatu egiten du (EN: 431): "sorrarazten du, zizelkatzen du, den bezalakoa egiten du. Besteak sekretu bat dauka: ni naizen horren sekretua". Eta nire izatearen ikuspuntuak Besterantz ihes egiten duenez, arriskuan dagoena nire izate bera da, nire mundua (*ibid.* 313): "bat-batean

objektu bat agertu da mundua ostu didana". Baina begiradaren erdiguneak batera edo bestera egiten du beti; ez da ekidistantea. Hala, begirada bi izate elkarrezinen arteko harresizat aurkezten da *La Chambre* eleberri laburrean (*LM*: 68): "harresi bat dago gu bion artean; ikusten zaitut, hitz egiten dizut, baina zu beste aldean zaude".

Ildo horretatik, begiradak izateen arteko lehia adieraz dezake eta armatzat jo (*HC*: 51): "Nire infernua hautatu nahi dut; begiak zabalik begiratu nahi zaituztet eta borrokatu aurpegia ageri"; (*LM*: 40): "Neri so ari zitzaidan, nik ere aurpegia altxatu eta begiratu nion"; (*MS*: 57): "Errenditu egin zara, amore eman duzu. Hitz egiten zizun artean, bere gorbatari begiratu diozu". Gainera, begiradaren aspektu erasotzaileak kutsu lizuna har dezake (*Érostrate*, *LM*: 84): "Hankartera begiratu diot eta arnasotsa atera dut [...] txundituta begiratu dit, gero zeharo lotsatu da eta hankak itxi ditu"; (*Intimité*, *LM*: 110): "Baina berak ez zuen ezer ikusi, ez dio nire aurpegiari begiratzen, nire titiei begiratzen zien"; (*ibid.* 121): "Uste dut aitzakia dela emakumeak komunetan sartzen ikusteko; irteten direnean, begietara begiratzen die lotsarazteko".

Alabaina, arestian gogoratu bezala, Bestearekiko menpekotasunak ez du eskatzen Bestearen presentzia fisikoa. Alegia, presentzia ez da ezinbesteko baldintza kontzientzia batean begirada gertatzeko eta, beraz, absentziak ez du *bestetasuna* baliogabetzen. Absentea begiratzailea izan daiteke (*Les Mouches*, *HC*: 159): "Ondo harrapatuta zaudete gero! Kiskali egiten dizue begirada ikusezin eta soil horrek, begirada baten oroipena baino tinkoagoa da"; (*AR*: 26): "Eta hor zegoen bera, gela arrosan, biluzik eta babesik gabe transparentzia astun horren aurrean, begirada bat baino deserosoagoa zena".

Azken buruan, absentziak ez du begiradaren objektutasuna suntsitzen, ezta heriotzak berak ere. Izate hila izate-objektu finkatua da betiko eta objektutasuna ez du galtzen. Heriotzarekin suntsitzen dena begiratzaile izateko aukera da (*K*: 123): "ezer ez dago gorpu bat baino biluziagorik". Bizitzaren 'partida' subjektutasunak posible dirauen bitartean jokatzen da (*JF*: 192): "Jokatuta dago guztia, ikusten duzu. Ezin da inoiz saioa berrartu".

Bizi deino, izate begiratuak uneoro du begiratzaile izateko posibilitatea, irauli egin dezake bere alienazioa. Sartreren pentsamenduan, begiradak askatasunaren bidean jartzen gaitu.

Begirada batek zulatua, tapoi batean finkatutako tximeleta bezala, biluzik dago, mundu guztiak ikus dezake eta txistua bota. Helduen begirada *botere eratzaillea* da eta bera *izaera eratu* bihurtu dute. Orain, bizi egin behar. Lepoa pikotan zintzilik eta barregarri, bizi egin behar, halere: gu ez gara buztin mokorrak eta axola duena ez da gutaz egiten dutena, baizik eta gerorrek egiten duguna gutaz egin dutenaz. [SG: 55]

### **3.4. Aldez aurreko hiru gogoeta obraren idaztankeraren fikziozkotasunaz**

*L'Être et le Néant* obraren fikziozkotasuna goitik behera aztertu beharrik gabe, eta testuaren ezaugarri batean edo bestean zehazki arreta ipini beharrik gabe, lehen irakurketan bertan, obrari idaztankera propio bat atzematen zaio. Ikerketa honek, dakigunez, idaztankera horri diskurtsoaren ikuspegi global batetik eta diskurtsoaren fikziozkotasunetik heltzen dio. Haatik, ikerketa ez da zerotik eta zurutik abiatzen; aipatu bezala, ezein azterketaren aurretik, saihestezinak dira testuari buruz aurre-gogoeta batzuk egitea. Hiru gogoeta-multzo bereizi ditut.

#### **3.4.1. Sartrearen idaztankeraren hautuari buruzko gogoeta**

Obraren idaztankeraz, Sartrek geroztik zera aitortu zuen (SX: 139): “Bai, erabiltzen nituen [...] tankera literariodun esaldiak hizkuntzak zorrozki teknikoak izan behar zuen testu batean, hau da, non hitzek gorde behar zuten zentzu unibokoa”. Jakina, Sartrek hor ez du hizpide (eta ez du gaitzesten) tratatuan fikziozko adibideetara jotzea, baizik eta sarri kutsu literarioa hartzen duela printzipioz erregistro teoriko zorrotza behar lukeen testuak. Hizpide duena da, azken batean, subjektibotasun-arrastoak teoriari dakarkiokeen zorrotasun eza.

Bigarren izenburuan, *L'Être et le Néant* saiakeratzat aurkezten da, tratatutzat hartu ohi dugun arren. Generoari erreparatuz, Philippek (2002a) bereizi egiten ditu *L'Être et le Néant* (1943) eta *Réflexions sur la question juive* (1946) saiakerak. Lehena tratatutzat eta bigarrena saiakeratzat jotzen ditu, tratatuak frogatzea baino gehiago azaltzeko eta aurkezteko xedea duelakoan. Hala, *L'Être et le Néant* obraren kasuan, jomuga Izatearen teoria bat aurkeztea da.

Ordea, auzia konplexuagoa dirudi, *L'Être et le Néant* tratatu edo saiakeratzat sailkatzea baino. Generoaren ikuspegitik, saiakerari oro har tratatuari baino idaztankera malguagoa aitortzen zaio. Brouillete (1972: 42) autoreak irizten dio saiakeran irakurlearen eta

egilearen artean konplizitate-hitzarmen bat gertatzen dela (*pacte de complicité*). Horren arabera, testuak *funtzionatuko* badu, irakurleak aurretik onartu behar du *jokoa*, alegia, badagoela errealitatearekiko distantzia (subjektibo) bat eta idazleak hortik interrogatzen duela mundua.

Baina ez da autore bakarra. Glaudes (2002) autoreak ere ‘saiakera’ generoa hitzarmen-terminotan azaltzen du, baina, irakurlearekikoa baino zehazkiago, enuntziazioak berezko ardatz lukeen norentzakoarekiko hitzarmena. Bestela esateko, saiakerari izaera dialogikoa eta partizipaziozkoa aitortzen dio. Saiakeran gailentzen den *ethosa*, Glaudesentzat, anaikorra eta enpatikoa izan ohi da (*ibid.* 15): “l’essayiste s’adresse à un double potentiel plutôt qu’à un adversaire [...] il espère toujours faire de son interlocuteur un complice”.

Tratatuarekin alderatuz, autore horrentzat, saiakerak ziurgabetasun-koefiziente altuagoa luke, saiakerak ez bailuke inoiz *egia* osoa lortu izanaren ziurtasunik. Nolabait esateko, tratatuak gehiago programa *itxi* eta *bukatuaren* tankera hartu ohi du; ordea, saiakera libreagoa eta irekiagoa ohi da. Bestalde, saiakerak, izaera malgua duelarik, errazago onartu ohi ditu, adibidez, estilo zuzena, eszena narratiboa eta bestelako lizentzia narratibo batzuk, esaterako, fikzioa.

Fikzioa narratibotasunaz harago dago, ordea, Audet (2002) autoreak irizten dionez, azken batean, narrazioa fikzioaren ezaugarri bat baino ez bailitzateke, hizkuntzaren erregistroarena. Fikzioa enuntziazioaren erreferentzialtasunean bilatu behar da, berau narraziozkoa izan ala ez. Autore horrentzat, saiakera batean, fikzioa lehenik enuntziatio-aktoa da (*loc. cit.* 139): “qui permet l’instauration d’un univers non soumis à la référentialité”.

Aitzitik, autore horiek ez dira hor gelditzen. Fikzioa saiakeran ez litzateke ez hizkuntza erregistro soila ez enuntziatio-mota bat erreferentziari hertsiki lotzen ez zaiona, baizik eta xede instrumental eta egituratzaile bati ere obedituko liokeen tresna diskurtsiboa. Ez dute nahikitzen saiakera generoaz egin izan den definizio klasikoa non saiakera joko litzatekeen “argudiozko helburua duen ez-fikziozko prosatzat”. Audetek (2002) zehazten duenez, fikzioak saiakeran eduki badauka parte, esate baterako, adibideak osatzerakoan.

En plus de la métaphore, le discours argumentatif permet l'instauration d'un univers fictif par le recours à l'exemple [...] Au fil de l'argumentation – décousue comme l'essai la présente souvent – sont donc intégrés des passages qui présentent un fait, fictif ou non, qui vient appuyer le propos ou du moins alimenter la réflexion. (Audet, 2002: 140)

Halatan, Audetek saiakera ulertzen du estatus enuntziatibo konplexua duen genero bezala; eta, ildo horretatik, forma betiere osagabea (*incomplet*) duen genero tranbertsal [*sic*] bezala ulertzen du. Audetentzat, saiakerak konpatiblea egingo luke genero desberdinen arteko bizikidetzan, baina ez emendiozko zentzuan ulertuta, modu integratzean baizik. Horrela, saiakeran, testu berak hainbat irakurketa-erregimen bilduko lituzke, osotasunari kalterik eragin gabe.

Réunis en un même texte, la fiction et l'essai suscitent deux régimes de lecture différents, non contradictoires, et appellent par conséquent deux modes d'appréhension distincts [...] sans que cet enchevêtrement ne vienne gêner sa compréhension de l'ensemble. (Audet, 2002: 153)

Ildo horretatik, Philippe (2002a) autoreak ere irizten dionez, saiakeran argudioa eta fikzioa ez dira erreflexio-eremu berekoak. Fikzioak izaera pragmatikoa du eta ulertu behar da enuntziatio-terminotan, nahiz eta ontologiarekin ere lotura baduen, hain zuzen, errealari eta posibleari dagozkion kontzeptuak dakartzan heinean. Argudioak, ordea, logikarekin du zerikusia, proposizioen antolamendu eta kohesioarekin, eta, azken batean, testu-hizkuntzalaritzarekin. Hor dagoke gakoa: saiakera aldi berean da logiko-argudiozkoa eta enuntziatibo-subjektiboa.

Aipatu dugunez, Philippek (2002a) bereizi egiten ditu tratatua eta saiakera filosofikoa. Tratatua objektiboagoa da eta azalpenezko izaera du, irakurlearen aurre-atxikimendua eskatzen du eta programa baten modura irakurtzen da. Hortaz, saiakerak duen argudio-xedearen 'zamaren' aldean, Philippek (2002a: 81) adierazten duenez, "le traité philosophique est libéré de ce souci [argudioa eta persuasioa]: il se présente comme un exposé et ressortit au moins formellement à un modèle explicatif et non argumentatif".

Zera, badirudi *L'Être et le Néant* bietara lerratzen dela. Alde batetik, testuak tratatu baten objektibotasun eta aurkezpen tankera hartzen du eta, funtsean, *Izatearen teoria* 'bukatu' bat aurkezten du, inorengan eragiteko jomugarik gabe, 'hori horrela da' balio bezala. Baina, beste alde batetik, testua diskurtso bezala ulertuz, enuntziatioak sarritan

kutsu subjektiboa eta dialogikoa hartzen du, eta baita poetikoa ere batzuetan. Aspektu diskurtsibo horiek gehiago dagozkio saiakerari. Bide batez, hortxe dagoke obra horren xarma eta berezitasuna.

Ikerketa honen asmoa ez da idaztankera horren zergatia bilatzea. Baina, hausnarketa baterako, proposa daiteke Leak (1995, 1996) autoreak egiten duen gogoeta obraren sedukzio-xedeaz. Leakentzat, obraren pasarte literario (sarri poetiko) ugariak, batetik, jomuga filosofikoan eragiten dute, testuko kontzeptu filosofikoei zehaztasun eza baitakarkiete, are gehiago obra hori aurkezten denean tradizio filosofiko klasikoan oinarritutakotzat; eta, bestetik, eragiten ere dute irakurlearengan [*sic*], enuntziazioan hartzailea bera konbokatu ohi baitute.

Leakentzat (1995: 69 eta hurr.), irakurlea seduzitzeko xedea dago idaztankera horren atzean (*ibid.* 71): “Literature could be viewed as the very essence of the project, inasmuch *L’Être et le Néant* is to be regarded as a tentative of seduction”; non eta beraz, testua ulertu behar den, batetik, plataforma bat bezala obraren objektu filosofikoa (alegia, *Izatearen* teoria) errepresentatzeko (*enactment*); eta, bestetik, baita filosofia horren adieraztearen dramatizazioa gauzatzeko eremu bezala ere, non eta hartzaileak parte zuzena lukeen.

Obraren idaztankera originala eta berezia da. Ez dirudi baztertzekoa obraren sedukzio-xedearen gogoeta egitea. Oro har, gainera, aitor dakioke filosofiari (jakintza-arlo bezala ez bada, bai bederen diskurtso filosofiko bezala, enuntziazio-terminotan ulertuta) *ahalegin* bat eremu teorikoa eta erretorikoa hurbiltzeko, eragiteko eginkizuna lukeena eta kontzientzia literarioa berezkoa lukeena (Reguera, 2002; Fermandois, 2008); ukatu gaberik oinarrian filosofia lotzen dela hizkuntza erregistro espekulatiboarekin eta argudio logikoarekin.

Huneman & Hulich (1997: 92) autoreentzat, *L’Être et le Néant* obraren xarma idaztankera da, batik bat fikziozko adibideak aukeratzeko, deskribatzeko eta filosofia literariotasuna bitarte aberasteko Sartrek erakusten duen talentuagatik. Ordea, obrarekiko lilura adierazten duten tankera horretako adierazpen asko, esaterako, *carneval de l’esprit, raz de marée* (Levy, 2000), *feu d’artifice* (Enthoven, 2004), *pulso expresivo* (Savater, 2008) etab. irizpide lausoak dira, adituek aipatuak izan arren.



Horrelakoek Sartre-idazle bat irudikatzen dute obraren aurrean produktu bati estetikoki eta kanpotik moldea ematen bezala.

Eta obrak berak eskatuko balu idaztankera hori? Ez dirudi sedukzio-xede soilaz eta hautu instrumental hutsaz jardun behar dugunik. Egia da fikziozkotasunak baduela izaera enpiriko eta txertatu bat, adibide orok bezala. Arias (2005) eta Vassallo (2003, 2005) autoreek, esaterako, tratatuak baliatu fikziozkotasunari balio enpirikoa aitortzen diote; fikzioa tresna da. Ordea, Sartreren filosofian, *L'idiot de la famille* (1971-1972) obrari aitortzen diote konplexutasun-maila gorena fikzioan, bertan fikzioaren erabilpen sinboliko bat egiten delakoan.

Nolanahi ere, tratatuaren fikziozkotasuna ezin da erreduzitu hautu edota tresna soil batera. Temmar (2013: 86) autoreak dioenez, ez zaio funtzio enpiriko hutsa egotzi behar diskurtso fenomenologikoaren adibidegintzari. Areago, baliabide erantsi soila barik, Temmarrek **fikzio-bidezko filosofia** bezala aurkezten du diskurtso-mota hori, non eta fikzioa tresna ez ezik filosofia bera baita, eta ez filosofiara kanpotik datorkeen zerbait. Edozein kasutan, zalantzarik ez dago tratatuaren fikziozkotasunean parte handia duela adierazten den filosofiak eta filosofia horren enuntziatioak. Horrek ondoko gogoetetara garamatza.

### **3.4.2. Diskurtsoaren NI polifoniko bati buruzko gogoeta**

*L'Être et le Néant* obra hizpide, Temmarrek (2013: 68) eusten dionez, fikzioak heterogenotasun enuntziatiboaren aurrean jartzen gaitu. Hizkuntzaren eremu denotatibo soila gainditzea balitz bezala asmoa, tratatuan aldiro bi hizkuntza erregistro txandakatzen dira: “un redoublement du discours argumentatif abstrait par un discours narratif qui prend la forme d'une réécriture de type romanesque de textes strictement philosophiques et vice-versa”. Bestela esateko, diskurtsoan kontzeptu teorikoa (adib. *niaren* osagabetasuna) eta kontzeptuaren eszenifikazioa (adib. soldadu baten ihesa) txandakatzen dira.

Horretarako, fikzioak bi enuntziatzaile oposatzen ditu: alde batetik, gorago “diskurtso-eremutat” ulertu dugun enuntziatu orokortzaile eta espezifikatu gabea; eta, beste alde batetik, idazketa-denborari dagokion esatari nagusia. Baina hizkuntza erregistroaren eta bi enuntziatzaileen oposaketa ez doaz beti bat, gertatzen baita batzuetan bata bestearen

barruan: “une projection sur un espace non embrayé d’une scène qui a d’abord été proposé dans un cadre embrayé” (Philippe, 1995: 100).

Zera, fikzioaren aurkezpen-markatzaile batek, adibidez, ez du zertan zeharo eten idazketa-denbora (*ibid.* 98): “**Errepara dezagun** zerbitzari horretan [...] ez da luzaroan begiratu behar konturatzeko: zerbitzaria izatera **jolasten dabil**”. Ordea, enuntziatzaile espezifikatu gabea, berau orokortzailea eta fikziozkoa, txertatutako pasartearen barruan agertzen da “zerbitzariaren funtzioak **betetzen baditut** ere [...]”, eta bi subjektuak jada ez datoz bat. Horrela azal liteke:

ERREGISTRO TEORIKOA	ERREGISTRO LITERARIOA
ESATARI NAGUSIA	ENUNTZIATZAILE OROKORRA

Bouacha (1995: 83) autorearentzat, subjektuen arteko talka ohikoa da diskurtso akademikoetan, teoriko-zientifikoetan eta filosofikoetan. Horregatik, ez da aski jakintza-arlo bakar batera mugatzea; diskurtso filosofikoan subjektuen talka gertatzen denean, subjektuaren estatusa zehazteko, kontuan hartu behar dira bai hizkuntzalaritza eta baita filosofia ere. Zilegi da galdetzea ‘nork’ *kontatzen* duen *L’Être et le Néant*, eta, adibide horretan, esaterako, nor den ‘betetzen baditut’ eta nor den ‘errepara dezagun’. Auzia oinarrian problematikoa da.

Horri erantzuteko, hau da, diskurtso nagusiaren idazketa-denborari ez dagokion enuntziatzaile orokor horren kontu emateko nolabait, Desanti (Contat, 1993) autoreak adierazten duenez, adibidez, Sartreren tratatuan *pentsemendua* [*sic*] da hitz egiten duena. Eta, ildo beretik, Philippek (1995) irizten dioenez, tratatua uler daiteke *kontzientzia* bera bezala bere existentziaren kontu ematen. Izan ere, *L’Être et le Néant* giza-izatearen teoria bat da, *Izatearen subjektua* bera fundatu asmo duena, artekorik gabeko giza kontzientzia fundatu asmo duena.

*Izatearen* kontu emateko, Descartesen *cogittoa* hartu arren abiapuntu, Sartrek *Egoa* bera ere metodo fenomenologikoaren menpeko ezartzen du, ez aurretik legokeen entitatetzat. Aspektu horretan, Husserlengandik zeharo aldentzen da Sartre: *NI* ez da kontzientziaren habitantea, ez dago instantzia bateratzailea litzatekeen jatorrizko *NI* bat. Beraz, dagoena

kontzientzia ez-tetikoa eta ez-substantziala da, eta ez edukiontzi bat non *NI* batek bere burua *ezagut* dezakeen. Eta nola adierazi, bada, artekorik gabeko *NI* bat-bateko hori?

Sartrek zailtasun linguistikoak ditu ez-posiziozkotasun hori aditzera emateko. Testuan sarri parentesia eta letra etzana erabiltzen da. Sartrek berak hitzaurrean azaltzen duenez:

[...] (Hemendik aurrera “ren” parentesien artean ipiniko dugu, traba gramatikal bati dagokiola adierazteko). Norbera(ren) kontzientzia hori, ez dugu hartu behar kontzientzia berri bat bezala, baizik eta litekeen existentzia posible bakarra zerbaiten kontzientzia batentzat. [EN: 20]

Horrez gain, dakigunez, tratatuak fundatu nahi duen izateak, hots, bere baitarako izateak edo giza kontzientziak, bakarra, bat-batekoa eta ez-posiziozkoa izanagatik, ezin du saihestu berarekiko distantzia hartzea bere buruaren kontu eman nahi duenean.

No hay aquí dos, sino una sola conciencia que, a la vez que pone el objeto, se percata de sí misma en un único acto que fenomenológicamente tiene esa complejidad dual. Ello, porque la conciencia, lejos de ser un poder unificador, se caracteriza esencialmente, por el contrario, como un principio que se revela al tiempo que introduce la dualidad o la escisión en todos sus actos. (Alvarez, 2008: 12)

Subjektuaren alteritate saihestezin horretan kokatzen du Vasallok (2003, 2005) *L'Être et le Néant* obraren fikziozkotasuna. Kontzientziak porrot egiten du bere izatea (subjektu gisa) fundatzean, fundatze horretarako, hain zuzen, subjektu baten beharra duenez gero. Horregatik, halabeharrez, Sartrek subjektu teorikoa fundatzeko subjektu diskurtsibora jotzen du eta horrek trabak sortzen ditu diskurtso filosofikoan. Ildo horretatik, Sartrek fikzioa baliatzea uler daiteke hitzezkoak irudizkoari bidea zabalduko balio bezala, besterik ezinean.

Soit qu'on prétende déduire cette expérience de la biographie de l'auteur (mais comment la vérifierait-on ?), soit qu'on la considère comme une pure construction littéraire, peu importe: la vérité exige une structure de fiction (Vassallo, 2005: 30).

Bestela esateko, diskurtsoaren fikziozkotasuna uler daiteke obrak fundatu nahi duen izateak bere buruarekiko hartzen duen distantzia bezala; badirudi testuan *Izatearen* fundatzearen aktoa bera dela eszenan jartzen dena. Eta fundatze horretan ‘soberan’ leudeke Sartre-idazlea bera ez ezik, fundatu asmo den *Niaren* ‘ahotsa’. Hortaz, funtsean

ez datoz bat, batetik, saihestu ezin den *NI* esataria (linguistikoa); eta, bestetik, fundatu nahi den *NI* orokorra (filosofikoa).

Bouacha (1995) eta Bordron (1995) autoreek, Descartes-en *Meditazioetako* subjektua aztergai hartzen dute. Subjektuaren erabilera heterogenoa problematikotzat jotzen dute. *NI* nolabait polifonikoaren soluzio edo azalpen modura, hirugarren *NI* batez dihardute, ez litzatekeena ez (i) *NI* linguistikoa, hau da, diskurtsoaren esatari nagusia (*sujet discourant*) eta testuaren kohesioa bermatzen duena; eta ezta (ii) *NI* filosofikoa ere (*macrosujet* eta *non-JE* ere deitzen dutena), hau da, meditazioen garapena bideratzen duena eta orokortze eta identifikatze operazioa abian jartzen duena (“pentsatzen ari naiz, beraz banaiz”), derrigorrez 1. pertsona eskatzen duena eta edonor eta denok izan gintezkeena. Hirugarren *NI* batek beste bien arteko tentsioa erregulatuko luke. Sakoneko subjektu hori instantzia enuntziatiboa baino gehiago kategoria kontzeptuala litzateke, testuaren beharrezkotasuna eta baldintza.

Il faut alors essayer de comprendre comment la textualité elle-même, et les opérations qu'elle comporte, se donnent à lire comme conditions de possibilité d'une telle instance. (Bordron, 1995: 73-74)

Horren arabera, *NI* hori diskurtsoan engaiatua legoke eta aldi berean diskurtsotik kanpo. Filosofia adierazteko bide propio bat litzateke.

La troisième valeur enfin, de loin la plus riche et la plus caractéristique des *Méditations*, est celle qui marque tout à la fois un engagement du sujet, inscrit dans un procès singulier et, dans le même temps, son désengagement, condition nécessaire à l'ouverture d'une classe de locuteurs. [...] une nouvelle manière de porter la parole philosophique. [...] Les *Méditations* peuvent ainsi se lire comme le lieu discursif où se joue la transformation de la première personne, passant du simple marquage indiciel au rang de catégorie conceptuelle (Bouacha, 1995: 93)

Pentsa liteke, Philippe (1995) autorearekin, izenordainen ezegonkortasuna eta heterogenotasuna nolabait ‘bildu’ egiten dela *NI* kategoria prototipatzaile (*prototypant*) baten baitan, instantzia kontzeptual eta euskarri modura, espazio birtual bat zabaltzen duena, non eta edonor identifika baitaiteke eta non enuntziatuak aurkezten duen ‘eszena’ edonori baitagokioke. Horregatik, testuan ‘*NI*’ adierazi edo ‘soldadu’ adierazi, funtsean berdina da: zu, ni, Sartre, esataria, enuntziatzailea, irakurlea, hots, giza izatea.

Identifikaziozko espazio horri esker, teoriako subjektuak (kontzientziak) badu euskarririk. Identifikazioa muturreraino eramanik, espazio birtual horretan, ondoko subjektuak bil litezke:

- a) NI-filosofoa: Subjektua fundatzea xede duen *Izatearen* teoriaren idazlea.
- b) NI-kontzeptua: *Nia* edo *nitasuna* izenordain gisa emana.
- c) NI-esataria: *Izatearen* teoria adierazteko ahots diskurtsibo nagusia.
- d) NI-fikzioa: Fikzioa dakarren ahotsa, subjektu orokortzaile eta arketipoa.
- e) NI-norentzakoa: Enuntziatzailearen adierazpenaren parte den hartzailea.
- f) NI-irakurlea: Irakurlea obraren teoriako subjektuarekin identifika daiteke.

*L'Être et le Néant* erreferentzialtasunak monopolizatuta dirudi. Hala, ez dirudi kasualitatea denik testuak erakusten duen partizipazio-xedea, fikzioaren interpretazioan parte hartzeko gonbitea, edonorentzat balio duen eta edonork bere egin dezakeen fikzioa imajinatzerara konbokatzea. Diskurtso filosofikoa kanpoko errealitate batera irekitzen da filosofoak sortutako *orain-hemen* batean eszena bat errepresenta 'dezagun'. Eta eszena horien subjektua, beraz, filosofikoa bezain konkretua eta indibiduala da.

Sartre turns to drama and fiction to resolve or investigate questions that cannot be investigated in the generality of the philosophical. Narrative preserves the specificity of the subject, while at the same time signifying what is generalizable [...]. In that sense, the vignettes used throughout *Being and Nothingness* do more than serve as examples; they function philosophically in form, formally describing the subject in his / her particularity and signifying that the subject is always particular, always individual. (Martinot, 2005: 50)

### **3.4.3. Tratatuaren 'situazio' kontzeptuari buruzko gogoeta**

Ikuspegi teoriko batetik, tratatuan 'faktikotasun' eta 'situazio' kontzeptuak lotuta agertzen dira (ikus tratatuan "4.1.2. Askatasuna eta faktikotasuna: Situazioa"). Giza izatea ez da izate abstraktua, baizik eta *munduan-izate* bat koordinatu jakin batzuetan finkatuta existitzen dena. Existituko bada, giza izateak ezin du zerekikotasuna saihestu; horregatik, Sartrek eusten dionez, gizakia (*bere baitarako* kontzientzia) 'ez da', baizik eta 'situazioan existitzen da'. Hala, Heideggeri (*op. cit.* 315) mailegatu zentzu berean,

Sartreentzat situazioa ez da zehazki marko finkoa eta emana non eta izatea existitzen den, baizik eta existitzea bera ulertu behar da ‘situazioan’ existitzen.

Situazioan ez balego, Izatea *bere baitako* izate bat litzateke, absolutua izango litzateke. Existentziak eskatzen digu *Izatea* modu faktikoan ulertzea, ezen faktikotasunak egiten baitu posible izate batek bere izatea proiektu eta posibilitate bezala bizitzea (funtsean, askatasun bezala). Areago, Sartreentzat, askatasuna bera ere faktikoa da, giza izateak ezin baitu aske ez izan. Izatea izate-askea da. Askatasuna da, faktikotasunaren aurrean, hautuz hautu, izatea betiro eratzea. Horregatik, ez dago situazio bat beste bat baino askeagoa denik.

Sartrek Heideggerri (2014 [1927]: 164) mailegatzen dion ideia da hori. *Dasein* (literalki ‘hor-izate’, uler bedi adigai horrekin Sartrearen *bere baitarako* izatea) ez da bera faktikoki dena baino gehiago (ezen faktikotasunarekiko baita bere izate-possible guztiak), baina ezta gutxiago ere (ezen oraindik-ez-dena ere posibilitate gisa eta modu existentzian baita). Nolabait esateko, *Izatea* transzendentzia da, eta bere egitura ontologikoari dagokio faktikoa izatea. Beraz, faktikotasuna izateko posibleen (askatasunaren) baldintza da, giza existentziaren baldintza.

Bestalde, osotasuna bakarrik existitzen da nire posibilitateen proiektu libre bati lotuta [...] Munduko osotasun hori da, bere determinazio bikoitz eta alderantzikatuan [...] *situazio* izendatuko duguna. Situazio horrek nire faktikotasuna eta nire askatasuna islatzen dizkit batera [EN: 317].

Halatan, Sartrek bost egitura funtsezko aitortzen dizkio ‘situazioan-izate’ orori. Nitasuna mundura agertzen da, beraz, jada hautatzeko aske delarik (*izate-askatasun gisa*), hezur-haragizko gorputz zehatz batean (*kontzientzia-gorputz gisa*) eta, horrez gain, egitura saihestezin batekin: **(i)** *Ma place*: nire (sor)leku eta espazio geografikoa; **(ii)** *Mon passé*: nire iragana (Sartrearen formula gogora ekarriz, “pentsatzen dut beraz banintzen”); **(iii)** *Mes entours*: nire inguruko objektuak (tresnak, *ustensiles*) eta bere disposizioa; **(iv)** *Mon prochain*: Bestea; eta **(v)** *Ma mort*: nire heriotza, betiro *hor* dagoen existentziaren limite gisa. Labur esateko, giza izatea ‘situazioan’ dagoen kontzientzia-gorputz bat da.

Beraz, Noudelmannen (1996) hitzetan gorago aipatzen genuen kontzeptuaren gorpuztea (*incarnation*), orduan, kontua bakarrik ez da tratatuak aldiro eszenan jartzen duen ‘nitasun’ eta ‘bestetasun’ (kontzientzia) kontzeptuei giza-izate-gorputz baten tankera aitortzen diogula eta pertsonifikatu egiten ditugula, baizik eta kontzeptu horiek, gorputzarekin batera, oinarrian daramatzatela bost egitura horiek ere, eta aitortu egin behar zaizkiela, nahiz eta diskurtso filosofikoak fikzioetan esplizituki denak ez eman.

Jakina, zalantzan jar daiteke, Marcuseren (1948) ildotik, *situazioari* balio ontologiko eta epistemologikorik aitor dakioken. Autore horrek auzian jartzen du ontologiaren eta existentzialismoaren arteko konpatibilitatearen zilegitasuna, errealitatea gizabanako-terminotan eta konkretutasuna abiapuntutzat hartuz deskriba daitekeen. Hala, gaitzetsi egiten du tratatuko konkretutasuna kontzeptu filosofikotik at geratzen delakoan, balio ontologikorik gabe eta “as a mere example or illustration” (*loc. cit.* 335).

Baina gogoan har daiteke ere, Beauvoirrekin (1948), existentziaren filosofia orok, errealitatea deskribatu ahalko badu, gutxieneko giza koordenatuak [*sic*] behar dituela, hain zuzen ere, erlazioan jarri eta uztartzeko, esate baterako, konkretua eta birtuala dena, objektiboa eta subjektiboa, denboraz kanpokoa eta denborari dagokiona, absolutua eta erlatiboa; funtsean, esentziaren kontu emateko existentziaren bitartez. Sartrek, gainera, sarritan *expressis verbis* ematen du aditzera etsenplutasunaren beharra.

Ez gara mugatuko jarrera bakar bat aztertzeraz. Saiatuko gara, ordea, hainbat deskribatzen eta jarreraz jarrera *barneratzen* ‘gizaki-mundua’ erlazioaren sakoneko zentzuraino [*EN*: 38].

Bestea eguneroko errealitatean agertzen zaigu eta bere probabilitatea eguneroko errealitateari dagokio. Zehaztu egiten da arazoa, beraz: badago eguneroko errealitatean Bestearekiko jatorrizko harremanik [...]? [*EN*: 311].

[...] uneoro *begiratzen dit* Besteak; beraz, erraza zaigu adibide konkretuekin oinarritzko lotura horren deskribapena egiten saiatzea, Bestearen teoria ororen funtsa izan behar duena [*EN*: 315].

Norberak bere esperientziara jo dezala: ez da inor ez dena noizbait atzemana izan jarrera errudunean edo, besterik gabe, barregarrian [*EN*: 326].

Ohar horiek konkretuago bihurtuko ditu edonork egin dezakeen honako obserbazio honek: agertzen bagara [...] [EN: 341]

Hurrenez hurren eta adibide zehatzen bitartez aztertuko ditugu situazioaren egitura desberdin horiek. [EN: 570]

*L'Être et le Néant* tratatuaren jomuga giza existentziaren kontu ematea delarik, situazioa uler daiteke, esaterako, bizitzaren 'argazki *bizi*' bat bezala (Contat & Rybalka ed., 1972: 85-87), 'bizitzaren adierazpena' bera bezala (Desanti, 1993), kontzeptuaren 'gorpuztea' bezala (Noudelmann, 1996), kontzeptuaren eszenan jartze edo 'teatralizazioa' bezala (Gély, 2013). Baina ez dio horrenbeste axola definizio zehatzak; funtsean, auzia da *situazioa* diskurtso filosofikoaren parte dela. Maizenik, giza-situazioaren koordenatuak diskurtsoan enuntziatuaren elementu ostentsiboek ematen dituzte. Horiek hiru multzotan banatzen ditu Temmarrek (2013): pertsonaiak, espazioak eta objektuak.

Ordea, gorago aipatu dugunez, elementu horien presentzia soilak ez du bermatzen diskurtsoaren fikziozkotasuna ikerketa honetan ulertzen dugun bezala; azken batean, situazio baten adierazleak barik, elementu horiek diskurtsoaren berezko idaztankerari dagozkion irudizko edo fikziozko 'keinuak' izan daitezke besterik gabe, adibidez, testuko azalpen teoriko batean, izen arrunt (adib. *aulki*), izen berezi (adib. *Pierre*) edo espazio geografiko jakin bat (adib. *Paris*) baliatzen direnean; eta ez izan, ordea, zentzu hertsian ikerketa honetan fikziotzat ulertzen duguna.

Labur esateko, situazio batek testuan derrigorrez elementu ostentsiboak eskatzen dituen arren, horien presentzia soilak ez da beti situaziotzat hartu behar; gogoan hartu behar dira irizpide enuntziatiboak ere. Bada, testuan diskurtsoaren fikziozkotasuna isolatzeko, beraz, dagoeneko zehaztu dut ikerketa honetako *fikzioaren aparatu formala* izango dena eta lau irizpide nagusik osatzen dutena. Ondoko kapituluaren jomuga, beraz, zera da, ikerketa-corpusean fikziotzat ulertzen dudana irizpide-tresna horren argitan zehaztea. Esan gabe doa, bestalde, tresna horrek balio dezakeela *L'Être et le Néant* tratatuko zeinahi atal fikziozkotasunaren argitan deskribatzeko. Ondoko kapitulan baina, irizpide metodologiko soilagatik, modu hertsian ikerketa-corpusari bakarrik lotuko natzaio.



# BIGARREN ZATIA

## ATAL ENPIRIKOA

Sartre's philosophy can be understood to some extent without reading his fiction, just as his fiction can be enjoyed with any knowledge of his philosophy, but to really appreciate the subtlety, profundity and humanity of Sartre's fiercely honest existential assessment of the human condition the two must be taken together.

Gay Cox (*Sartre and fiction*, 2009)

Tratatuaren “Begirada” kapituluan, diskurtsoaren fikziozkotasuna eta diskurtsoaren antolamendu teorikoa nola ezkontzen diren kontu emateko, ikerketa honen atal enpirikoak hiru urrats eskatzen ditu. Lehenik, diskurtsoaren fikziozkotasuna unekotasun edo puntualtasun enuntziatiboan zedarrizteko, *fikzioaren aparatua formal* deitu diogun irizpidearen lau atalak deskribatu behar dira, esan nahi baita, fikzioaren instantzia enuntziatzailea, fikzioaren denborazkotasuna, fikzioaren aurkezpena eta fikzioaren hizkuntza erregistro narratiboa. Bigarrenik, fikziozkotasunaren ikuspegi deskriptibo hutsean ez geratzeko, kontu eman behar da deskribatutako fikzioaren unekotasun horrek diskurtso-mailan duen irismenaz eta zehaztu behar da fikziozkotasun hori egituraduna den. Eta, hirugarrenik, diskurtsoaren antolamendu teorikoa deskribatu behar da eta, antolamendu horren argitan, zehaztu behar da fikziozkotasunak teoriaren egituran parterik duen eta zein betekizun duen.

## 4. KAPITULUA

### 4. Diskurtsoaren fikziozkotasuna *fikzioaren aparatu formalaren argitan*

#### 4.1. Fikzioaren enuntziatzailea: kontzeptu teorikoaren ahotsa

##### 4.1.1. *Nia* kontzeptua *NI* pertsona izenordainaz emana

Gorago aipatu dugunez, Sartreren tratatuan fikziozkotasuna atzemateko traba nagusia testuko izenordainen ezegonkortasuna da. Gogora dezakegunez, diskurtsoa gidatzen duen eta azalpen teorikoaren haria daraman enuntziatu nagusiak, oro har, *GU* pertsona izenordaina hartzen du. Enuntziatzaile ‘efektibo’ deitzen diogun hori diskurtsoaren enuntziatzaile nagusia da, eta, funtsean, tratatua azaltzen eta ‘kontatzen’ digun ahotsa bezala uler dezakegu. Aise errepara daiteke *GU* horretan, esaterako, metadiskurtsoan.

Baina hori ez da beti horrela gertatzen. Batzuetan, diskurtsoaren enuntziatzaile nagusiak, metadiskurtsoak salatzen duenez, *NI* pertsona izenordaina ere hartzen du. Eta, horrekin guztiarekin batera, kasu bakan batzuetan, enuntziatzaile efektiboak, *GU* eta *NI* pertsona izenordainez gain, orokortasunera ere jo dezake eta, horretarako, izenordain zehaztugabe bat baliatu, nahiz eta hirugarren bide hori ez izan ohikoena. Izan ere, izenordain zehaztugabea baliatzen denean ere, 1. pertsona gertutik agertzen da beti.

***GU:*** **Azter dezagun** hobeto: bere baitarakoa bere bakardadean **kontsideratu dugun** bitartean, **eutsi ahal izan dugu** ni batek ezin zuela kontzientzia ez erreflexua habitatu. [318]

***NI:*** **Azpimarratu dudanez**, ni ezin naiz objektu izan objektu batentzat: beharrezkoa da Bestearen aldaketa bat errotik objektibotasunetik libratuko duena. [314]

***Zehaztugabea:*** **Norberak** bere esperientziara jo **dezala: ez da inor ez dena** noizbait atzemana izan jarrera errudunean edo, besterik gabe, barregarrian. Orduan jasaten **dugun** berehalako aldaketa [...]. [326]

Enuntziatzaile efektibo horren iragazitik jasotzen dugun diskurtso filosofikoari dagokion bezainbatean, tratatuaren aztergai teoriko nagusia ‘*bere baitarako izatea*’ kontzeptua da (*l’être-pour-soi*), edo, bestela esateko, giza kontzientzia, giza existentzia,

giza transzendentzia edota, azken batean, *Nitasuna* adierazten duen ‘Nia’ kontzeptua. Jakina, horrekin ez dugu ulertu behar enuntziatzaile efektiboak bere kontzientzia propioa hartzen duenik aztergai, baizik eta, guztiz bestela, aztergai hartzen duena zera dela, *norbere* kontzientzia, *norbere baitarako* izatea edota, nahi baldin bada, ‘Nia’ kontzeptua bera, betiere ikuspegi orokortzaile batetik ulertu beharko litzatekeena.

Halatan, begiradaren kapituluak auzian dituen ikerketa-galdera eta hipotesia modu ireki eta orokorrean adieraz daitezke, nahiz eta zehazki eta esplizituki formulatzen ez dituen:

*Nola bizitzen **da** bestetasuna?*

*Bestetasuna begiradaren bitartez bizitzen **da**.*

Baina orokortasun eta zehazgabetasun horrek giza kontzientzia eta giza existentzia batera garamatza, hain zuzen, konkretua eta zehatza dirudiena. Horrela formula liteke:

*Nola bizi **du** kontzientziak bestetasuna?*

*Kontzientziak bestetasuna begiradaren bitartez bizi **du**.*

Halatan, enuntziatzaile nagusiak zehazgabetasuna saihesteko joera erakusten du. Eta, beraz, ez dihardu modu zabal eta orokorrean, baizik eta kontzeptua esplizituki aipatuz:

*Bere baitarako izateak nola bizi **du** bestetasuna?*

*Bere baitarako izateak bestetasuna begiradaren bitartez bizi **du**.*

Funtsean, ‘bere baitarako izatea’ kontzeptu teorikoak ‘Nitasun’ kontzeptura igortzen du. Beraz, goiko adibideak horrela ere eman litezke berdin:

***Niak** nola bizi **du** bestetasuna?*

***Niak** bestetasuna begiradaren bitartez bizi **du**.*

Diskurtsoak sarritan ordezkagarri egiten ditu ‘*bere baitarako izatea*’ kontzeptu teorikoa eta *NI* pertsona izenordain enuntziatzailea. Horren arabera, zera ulertu behar da, diskurtsoaren aztergaiak berak ahots propioa hartzen duela eta, beraz, diskurtsoak enuntziatzaile berri bat sortzen duela. Kontzeptuak bere enuntziatuaren ardura hartzen du. Hortaz, horrela ere formula genitzake kapituluaren ikerketa-galdera eta hipotesia:

***Nik** nola bizi **dut** bestetasuna?*

***Nik** bestetasuna begiradaren bitartez bizi **dut**.*

Nahi adina adibide dago ikerketa-corpusean, izenordainak eta kontzeptuak bat egin dezaketeneko eta ordezkagarri gertatzen direnekoa. Horra adibide bat:

*Bestearen begirada*, beharrezko baldintza dena **nire** [=Niaren] objektibotasunarentzat, **niretzat** [=Niarentzat] objektibotasun ororen suntsipena da. Bestearen begiradak munduaren barruan harrapatzen **nau** [=du Nia], eta ez da bakarrik **nire** [=Niaren] transformazioa, baizik eta *munduaren* erabateko metamorfosia. Begiratua **naiz** [=da Nia] mundu begiratu batean. Bereziki, Bestearen begiradak [...] ukatu egiten ditu **nire** [=Niaren] distantziak objektuei eta bere distantzia propioak zabaltzen ditu. [328]

Tratatuaren aztergaia '*bere baitarako izatea*' izenez adierazi ohi den kontzeptua da. Eta hori, oro har, 3. pertsonan ematen da, izan ere, kontzeptua bera 3. pertsonan adierazten da (*bere*), eta ez 1. pertsonan (*nire*). Salbuespen bakan batzuk badira '*nire baitarako izatea*' aipatzen denekoa, adibidez (*EN*: 332): "sakonean desberdinak dira **nire objektu-izatea** edo **nire Bestearentzako izatea** eta **nire baitarako izatea**". Baina, horietan ere, adibideari erreparatuz, kontzeptua 3. pertsonan adierazten dela atzeman daiteke (*dira*).

Kontzeptu hori berori '*Nia*' eta 'kontzientzia' izenen pean ere ager daiteke, nahiz eta hori oso gutxitan gertatzen den testuan. Orduan ere, kontzeptua 3. pertsonan adierazten da. Baina kontua zera da, '*bere baitarako izatea*' kontzeptua 1. pertsonan ere adieraz daitekeela, hau da, *NI* izenordainaren iragazitik. Horren arabera, tratatuaren kontzeptu-aztergai nagusiari helduz, alegia, '*bere baitarako izatea*', zilegi da kontzeptu hori '*nitahun*' kontzeptuaren baliokidetzat jotzea:

***Bere baitarako izatea = Nitasuna = Nia = NI***

Horra, adibidez, kontzeptu teoriko hori bera adigai desberdinekin adierazia:

***Bere baitarakoa***: **Bere baitarako** bakar batentzat litzatekeen mundu batek ezingo luke eduki aldiberekotasunik, baizik eta kopresentziak bakarrik, ezen **bere baitarakoa** beregandik kanpo **galtzen baita** munduan zehar eta bere presentzia bakarraren batasunaz **lotzen baititu** izate guztiak. [325]

***Nia***: Eutsi ahal izan dugu **ni** batek ezin **zuela** kontzientzia ez erreflexua habitatu: objektu gisa, **nia** kontzientzia erreflexiboarentzat bakarrik ematen **zen**. Baina hara non **datorren nia** kontzientzia ez erreflexua habitatzera [...]. **Nia**, beraz [...] [318]

*NI*: Orain aztertzea dagokigu **Nire** eta Bestearen arteko funtsezko lotura guri agertzen zaigun eran; edo, nahi bada, tematikoki zehaztu eta finkatu behar dugu [...] eta galdetu zein den **nire** Bestearentzako-izate horren *izatea*. [342]

Enuntziatzailearen ikuspegitik, kontzeptua *NI* izenordainaz adierazten denean, *NI* horrek izaera orokortzailea du; izate-arketipoa da; edonork egin dezake bere; guztiok gara ‘*bere baitarako izateak*’; guztiok gara, azken batean, *NI* hori. Fikziozkotasunak diskurtsoan leku hartzen duenean, hain zuzen ere, *NI* orokortzailearen bitartez egiten du. Horra adibide bat kontzeptuaren adierazpena aldatu egiten duena fikzioa txertatzeko:

### ***Bere baitarako izatea > NI***

Berriz ere **bere baitarakoaren** ihes ezereztatzailea finkatu egiten **da**, berriz ere bere baitakoa **bere baitarakoaren** barruan eratzen **da**, eta metamorfosi hori, beste behin ere, *distantzian* burutzen da. Bestearentzat, **ni eserita nago** tintontzi hori *mahai gainean dagoen* bezala; Bestearentzat, [**ni**] sarrailako zuloan **nago** makurtuta, zuhaitz hori haizeak *makurtuta* dagoen bezala. Bestearentzat beraz [**nik**] **nire** transzendentzia galdu **dut**. [320]

Ordea, nahiz eta fikziozkotasunak, testuratzeko, *NI* izenordainez ematen den ‘*bere baitarako izatea*’ kontzeptua baliatzen duen, horrek ez du esan nahi *NI* oro beti fikziozkoa denik, baizik eta, agertzekotan, soilik eremu horretan agertzen dela fikzioa. Horrela, zalantzaz joko dugu fikziotzat, esate baterako, ondoko enuntziatua:

Baina horrekin batera, Bestearen existentzia ez ezik, Ni-Bestearentzakoarena ere **onartzen eta aitortzen dut**; azken batean, nik **ezin dut** Bestea *ez-izan*, **ez badut onartzen** nire Bestearentzako objektu-izatea [345]

Hainbat esapide (adib. *Bestea-ez-izan*, *Bestearentzako-objektu-izan* etab.) erregistro teorikoarekin lotzen dugu arazorik gabe. Baina, adibide horretan, *NI* izenordaina ordezkatzeko badugu ‘*bere baitarako izatea*’ (aurrerantzean, *Nia*) kontzeptuarekin, hainbat aditzek traba eta zalantza sortzen dute. Esaterako, bitxia litzateke horrelako enuntziatu bat: “*Bestearen existentzia ez ezik, Niak onartzen eta aitortzen du [...]*”. Azken batean, kontzeptu batek printzipioz ezin du ezer ‘onartu’ eta ‘aitortu’. Baina kontua da kontzeptu batek ahotsik ere ezin duela izan, eta tratatu honetan baduela.

Beraz, enuntziatzailearen ikuspegitik, badirudi fikzioa mailakatu egin daitekeela. Horrela, testuak begiradaren fenomenoaz aztergai duelarik, begirada adierazten duten eta *NI* baten ‘ardurapean’ dauden enuntziatuetako aditzei erreparatuz, badira fikziozkoak bainoago teorikoak diruditen enuntziatuak, badira zalantzazkoak izan daitekeenak, eta badira ezinbestean fikziozkoak izan behar direnak. Ondoko adibidean, berau osorik *NI* batek adierazten duen arren, letra lodiz ematen duguna fikziozkoak izan behar da, nekez ordezkaturiko baitugu kontzeptu batekin, esaterako, *leihotik sei metrora* legokeen *NI* bat.

Begiratu naiz mundu begiratu batean. Bereziki, Bestearen begiradak, berau begirada-begiratuena eta ez begirada-begiratuena, ukatu egiten ditu nire distantziak objektuei eta bere distantzia propioak zabaltzen ditu. Bestearen begirada hori bat-batean agertzen da distantzia mundura datorreneko zera bezala, distantziarik gabeko presentzia baten baitan. **Atzera egin dut, nire munduarekiko presentzia distantzia gabeaz gabetuta nago eta Bestearekiko distantzia batez hornituta: horra atetik hamabost pausora nagoela, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila datorkit berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. Besteak eratzen nauenez berarekiko sei metrora, bera niri distantziarik gabe egiten zait presente.** Horrela, gauzekiko eta Bestearekiko nire distantziaren esperientzian bertan, Bestearen presentzia distantziarik gabea bizi dut. [328]

Adibide horrek aurretik eta ondotik dituen enuntziatuen kasuan, ordea, errazago adierazi ahalko genuke, esate baterako, *Niak* ezin dezakeela saihestu begiradaren fenomenoaz; ‘Nia’ kontzeptuak bere egitura ontologikoari dagozkion distantzia propioak dituela; begiradaren fenomenoak berezko distantzia horiek deuseztu egiten dituela. Baina, edozein kasutan, zalantzarik ez dago fikziozko eszenak ere, tartekoak alegia, eduki teorikoa berdin adierazten duela: *Besteak* distantzia zabaltzen du, distantzia-sortzailea da; *Besteak Nia* distantzia batera eratzen du; *Ni(begiratu)ak* distantziak galtzen ditu, eta abar. Azken batean, fikzioak adierazten duen ahotsa kontzeptuaren ahotsa bera da.

#### **4.1.2. Bestea kontzeptua *BESTE* izenordain zehaztugabeaz emana**

Izenordainak izenordain, eskema diskurtsibo nagusia tratatuan zera da, enuntziatzaile efektiboak *Nia* kontzeptua du aztergai eta kontzeptua deskribatzen du, eta, batzuetan, kontzeptu hori adierazteko *NI* izenordaina baliatzen du. Ikusi dugunez, trabak sor daitezke zer den kontzeptu eta zer pertsona izenordain huts determinatzerakoan, edo,

bestela esateko, noiz den *NI* fikzioz kanpoko enuntziatzaile bat eta noiz den fikzioa bera. Adibidez:

Jakina, distantziarik eta alderik gabeko erlazio hori ez da inola ere Bestearen eta **nire** [=Niaren] artean **bilatzen dudan** [Nork?] jatorrizko erlazioa. Hasteko, erlazio hori gizakiari eta munduko gauzei bakarrik dagokie. Gainera, ezagutzaren objektu da oraindik; **adieraziko dut** esanez [Nork?], adibidez, gizon horrek zelaia *ikus*i egiten duela [...] [312]

Azpimarratu dugunez, *Nia* fikziozkoa da hartzen duen ahotsa ezin denean zuzenean ordezkatu kontzeptuarekin, kontzeptua ez baizik eta kontzeptu-ahots bat baita. Hainbat aditz eta elementu agertzen dira eszena bat iradokitzen dutenak eta *Nia* hezur-haragizko bihurtzen dutenak. Eta aise errepara daiteke, halaber, diskurtsoak *Bestea* (*bestetasuna*) kontzeptu teorikoa ere hezur-haragizkotzat jotzeko joera duela. Aipatu dugu, esaterako, kontzeptu horrek izen orokorra jaso dezakeela (adib. *gizon*, *pertsona*, *jende*), izen arrunta (adib. *soldadu*, *eskale*, *etsai*) eta izen berezia (adib. *Pierre*, *Teresa*, *Paul*).

*Bestea* kontzeptuaren fikziozko lorratz horrek balio du, kasuan kasu, *NI* izenordaina fikziozkoa den erabakitzeke. Tratatuaren arabera, *Niaren* eta *Bestearen* transzendentzia aldiberekoa da, hau da, aldi berean naiz *Ni* nire baitarako eta *Bestea* bere baitarako. Adierazpen horretan ez dago fikziorik, kontzeptuen abstrakzioan gaude. Ordea, hori adierazteko, ‘*Beste*’ pertsona izenordaina barik, izenak aipatzen baditugu, efektua bestelakoa da:

Aldiberekoa da **Pierreren** presentzia munduari eta **nirea**. Zentzu horretan, aldiberekotasunaren oinarritzko fenomeno zera da, edalontzi hori **Paulentzat** izatea **niretzat** den une berean. [325]

Ez dira bakarrik **Pierre**, **René**, **Lucien** niretzat absenteak eta presenteak direnak jatorrizko presentzia baten planoan, ez baitira **ni kokatzen nauten** bakarrak. [339]

Bestalde, tratatuaren arabera, *Nia* eta *Bestea* elkarren subjektu edota objektu dira. Berez bere baitarako izate (edo *Ni*) batek ezingo luke izan subjektu huts bere transzendentzia eta bat-batekotasunean; eta, beraz, *Nia* subjektua da *objektu-Beste* batekiko, eta *Bestea* subjektua da *Ni-objektu* batekiko. Horrela, bada, *Niaren* eta *Bestearen* dialektikaren *jokoan*, bata zein bestea agertzen dira edo subjektu edo objektu izaten. Izate batentzat, bi aukera daude:

*Ni(objektu) Beste(subjektu)arentzat*

*Ni(subjektu) Beste(objektu)arentzat*

Baina tratatuan, ‘objektu’ esaten denean, erreferentzia egin dakioke, era berean, Izatearen faktikotasunari eta, beraz, Izateari inguratzen dioketen tresnei (*ustensiles*). Izate bat beste izate baten objektu bihurtzen denean, objektu bihurtzen den heinean, beste objektu posible guztien ‘paisaiari’ dagokio (adib. aulkia, mahaia, tintontzia). Hala, hainbatetan tratatuan *Nia* eta *Bestea* hezur-haragizkotzat irudika daitezkeen bezala, faktikotasunaren *objektu* ere izan daitezke:

Haatik, hipotetiko ez ezik *probablea* da aditzen dudan ahots hori gizaki batena izatea eta ez **fonografo baten kantua**, eta guztiz *probablea* da ikusten dudan oinezkoa gizaki bat izatea eta ez **robot perfektionatu bat**. [310]

Bestea bihurtzen da beste tresna guztiekiko harremanaz definitzen den tresna: [...] atzeman ahalko banu ez bakarrik **mailuak** eta **iltzeak** tresna-sare horretan okupatzen duten lekua, baizik eta baita **kalea**, **hiria**, **nazioa** eta abar ere, zehazki eta osoki definituko nuke Bestearen izatea objektu gisa. [353-354]

Halatan, enuntziatuan elementu ostentsiboak agertzen diren unetik, enuntziatua nomenklatura teoriko batekin ordezkatzek (*Nia-Beste-Objektua*) traba sortzen du, elementu ostentsiboek fikziozkotasunaren sententzia areagotzen baitute eta, nolabait esateko, diskurtsoaren fikziozkotasun-xedea salatzen baitute bide batez. Batzuetan ez luke zentzu handirik enuntziatuko elementuak kontzeptuekin ordezkatzeko bagenitu, nahiz eta elementu horiek beti adierazten duena horixe bera izan, kontzeptuak:

Nigana jauzika datorren oinezko gizen eta itsusi horrek begiratzen badit, akabo bere itsustasuna, bere loditasuna eta bere jauziak. [335-336]

*\*Besteak [Niarentzat objektua denak], bere begirada bitarte, objektutasuna galtzen du [Nia ni-objektu bihurtzen baita Beste-subjektuarentzat] [335-336]*

Dena den, ‘Beste’ izenordain soila agertzen denean eta elementu ostentsiborik kasik ez dagoenean, gerta daiteke *Niari* zein *Besteari* hainbat ekintza (hots, enuntziatuaren aditz-ardatz) aitortzea (adib. *ikustea*, *begiratzea*, *presente eta absente egotea*, *etortzea*, *joatea*, *irudikatzea*, *onartzea*, *distantzia batera egotea*, *lotsatzea*, *ihes egitea*) argi eta garbi giza



jarrerak adierazten dituztenak eta zaildu egiten dutenak, beraz, *Nia* eta *Bestea* kontzeptu abstraktoei aitortzea.

Horietako zenbait ekintza ulergarria eta onargarria izan daiteke erregistro teoriko baten baitan, kontuan hartzen badugu, batetik, testuaren ikergaia begiradaren fenomenoaren deskribapena dela eta tratatuaren teoriaren arabera *bestetasunari* aitortzen zaiola espazio-denboraren zabaltzea; eta, bestetik, funtsean, begirada dela *Nia* eta *Bestea* kontzeptuak aurrez aurre jartzen dituen ‘plataforma’.

#### 4.1.3. Etendura enuntziatiboa

Diskurtsoak enuntziatzaile ‘berri’ bat sor dezake, alde batetik, ezin egotz dakiokena kontzeptu teorikoari (nahiz eta jakin badakigun kontzeptuari egiten diola erreferentzia) modu esplizitu batean; adibidez, zera genioenean, esaterako, *Nia* ezin daitekeela egon, kontzeptu den aldetik, lehiatik sei metrora; baina, beste alde batetik, ezin egotz dakiokena enuntziatzaile efektiboari ere, ezen enuntziatzaile hori ez baitago, noski, idazketa-denboran lehiatik sei metrora, adibide berbera ipintzearren.

Halatan, fikziozkotasunaren etendura enuntziatiboak isolatu egiten du diskurtsiboki *NI* pertsona izenordainak dakarren eszena jakin bat. Kapituluaren hasieran bertan, esate baterako, aurreko kapituluaren bukaerarekiko etendura nabarmena atzeman daiteke ikuspuntu enuntziatiboaren aldetik. Etendura enuntziatibo hori enuntziatzaile berri batek sortzen du, fikziozkoa berau, ezin dena zuzenean ordezkatu kontzeptuarekin, hots, *Niarekin*, baina eta ezin duena ere enuntziatzaile nagusi eta efektibo batek aktualizatu.

[...] Ohar horiek oinarri hartuta helduko **diogu**, bada, **gure** aldetik, Bestearentzako izatearen auziari.

[hemen amaitzen da “3.1.3.” kapitulua eta hasten da “3.1.4.” kapitulua]

**Nigana** etortzen ikusten **dudan** emakume hori [...] [310]

Ikerketa honen lehen atalean azaldu dugunez, etendura enuntziatiboa erraz atzematen da etendura izenordainaren aldaketarekin batera datorrenean ( $GU > NI$ ), nahiz eta aldaketa hori ez den ezinbesteko baldintza etendura gertatzeko. Sarritan, beraz, fikziozkotasuna izenordainen aldaketarekin batera dator. Orduan, diskurtsoaren ardurak, enuntziatzaile

efektiboak ez baizik eta *NI* batek hartzen du, berau fikzioaren enuntziatzailea, fikzioaren ardura hartzen duena. Horra hainbat adibide:

Hori jakiteko, argiago **galdekatu behar da** Bestearen agertze arrunt hori **nire** [=Niaren] pertzepzioaren eremuan [...] azaldu ahal izan **beharko digu**, atzemandako errealitate gisa, behintzat, zer nolako erlaziotara igortzen duen. [ETENDURA] Lorategi publiko batean **nago**. **Nigandik** ez urrun, hara non [...] [311]

Imajina **dezagun** [ETENDURA] heldu **naizela**, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zulutik begiratzera. Bakarrik **nago** [...] Eta hara non entzun **ditudan** oin-hotsak korridorean: begiratzen **didate** [317-318]

Areago, *begirada* agertzen da, erakutsi **dugunez**, begirada agerian jartzen duen objektuaren suntsipenezko planoan. [ETENDURA] **Nigana** jauzika datorren oinezko gizen eta itsusi horrek begiratzen badit [...] [335]

Dena den, horrek ez **gaitu** zertan harritu, ezen, ikusi **dugunez**, inoiz ez baitira *begiak* begiratzen **digutenak** [...] [ETENDURA] hara non **nagoen** sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun **ditut**. Lotsa-hotzikara batek bildu **nau** [...] [336]

Ohar horiek urrunago eramango **gaituzte**. [...] [ETENDURA] Uste **nuen** Bestea presente zegoela gelan, baina nahastuta **nengoen** [...] [337]

Dena dela, zalantzazko kasuak ugari dira, zeren enuntziatuari fikziozkotasuna aitortzeko ez baitugu besterik gabe nahikotu behar *NI* izenordainaren presentzia, eta ezta elementu ostentsiboen presentzia ere. Izan ere, enuntziatuaren elementu ostentsiboak espazio-denborazko gutxieneko koordinatu batzuekin ordezkatzuz gero eta *NI* pertsona izenordainari ordain kontzeptuala (*Nia, Bestea eta Objektua*, kasuan kasu) emanez gero, orduan gelditzen den enuntziatua enuntziatzaile nagusiarena bezala uler daiteke.

Demagun *lorategi publikoaren* adibidea:

Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat pasatu da aulkien ondotik. Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitizat. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz *gizaki bat dela?* [312]

Fikziozkotzat joko dugu, zalantzarik gabe, paragrafoko lehen zatia (*Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak.*

*Gizon bat pasatu da aulkien ondotik*), hasteko, gorago ikusi dugunez, etendura enuntziatiboa sortzen duelako aurreko enuntziatzaile efektiboarekiko (adib. *azaldu ahal izan beharko digu*); baina, batez ere, enuntziatu hori ezin delako ulertu kontzeptu teorikoa hizpide lukeen enuntziatzaile batek emana bezala, baizik eta kontzeptua bera *hizketan* balego bezala.

Ordea, zalantzazkotzat joko dugu fikzio horri jarraitzen diona (*Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitzat*). Ohartu, izan ere, hau ez dugula euskaratu aurrekoa bezala, orainaldi burutuan (*\*ikusi dut gizon hori, aldi berean hartu dut objektutzat eta gizakitzat*). Azken batean, enuntziatu hori interpreta daiteke enuntziatzaile efektiboak, hizpide duen kontzeptu batez diharduela, fikziotik kanpo:

*\*[Fikzio horretan] Niak ikusten du Bestea eta aldi berean hartzen du objektutzat eta Bestetzat.*

Garbiago ikusten da paragrafoaren amaiera fikziotik kanpo dagoela. Enuntziatu horrek onartzen du, zalantzazkoak ere onartzen zuen bezala eta kortxeteen artean eman dugun bezala, 'isilpeko' esapiderik enuntziatzaile efektibo bati aitor lekiokoenik:

*\*Zer esan nahi du [eman dugun fikziozko adibide] horrek? Zer esan nahi dut [=da] adierazten dudanean [=denean] objektu horri [=bati] buruz gizaki bat [=Bestea] dela?*

Zalantzazko enuntziatua, nolabait esateko, erdibidekoa izan ohi da bi enuntziatzailearen artean, alegia, batetik, kontzeptua aztergai eta hizpide duen diskurtsoaren enuntziatzaile nagusiarena; eta, bestetik, kontzeptu teorikoa adierazten duen *Niarena*. Kontua zera da, fikziozko eszenak beti agertzen ditu elementu ostentsiboak eta enuntziatu nagusiak, aldiz, inoiz ez. Hala, zalantzazko eszena uler daiteke fikziozkotasunaren erdibideko bat bezala edo etenduraren mailaketa bat bezala, elementu ostentsiboak ager ditzakeena.

Egia esateko, kapituluaren aztergaia begiradaren fenomeno izateak zaildu egiten du bereiztea enuntziatzailetzat eratzen den *NI* noiz den enuntziatzaile nagusiak objektu eta aztergai duen kontzeptu teoriko abstraktua (*Nia*) eta noiz kontzeptuaren ahotsa bera (*fikzioa*). Izan ere, begiradari lotutako giza jarreraren aipamen hutsak bidea zabaltzen diote irudimenari eta birtualtasuna ematen diote enuntziatuari. Horrela, tratatuaren irakurketak eskatzen du, esaterako, *lotsa*, *harrotasuna* eta *beldurra* aipatzean, horiek situazioan jartzea, hau da, *lotsa* duen norbait bat eta *norbait* horrek *lotsa* norekiko duen.

Hortaz, birtualtasuna iradokitzeko, sarritan nahikoa da ekintza bat, egoera bat edota, besterik gabe, giza jarrera bat:

Lotsak eta harrotasunak **agerrarazten didate** Bestearen begirada eta **ni neu begiradaren muturrean** [...] [319]

Ni **lotsa naiz** nirekin **Bestearen aurrean**, genioen. [331]

Hizkuntzak salatu dukeenean ere **Besteak gaiztotzat eta jeloskortzat naukala**, ezingo dut inoiz izan nire gaiztotasun eta jeloskortasunaren intuizio konkreturik. [334]

**Edonora noala, zernahi egiten dudala**, Beste-objektuarekiko distantziak aldatu besterik ez dut egiten, Bestearenganako bideak hartu besterik ez. **Urruntzea, hurbiltzea**, objektu-Beste jakin bat **deskubritzea** [...] [339]

[Beste-objektua] Ez da bakarrik objektu bat askatasuna transzendentzia transzendentitu modura *ezaugarritzat* duena. Bera “**haserre**” ere badago, eta “**pozik**” eta “**arretatsu**”, “**jatorra**” eta “**uzkurra**” da, “**berekoia**”, “**asaldatua**” eta abar. [352]

Horrez gain, elementuren bat ager daiteke birtualtasuna areago bermatuko duena:

Atzematen badut begirada, **begiak** ikusteari uzten diot: [...] hitz batean esateko, ni Bestearen **begien aurrean** nago, distantziarik gabe presente, baina **begiak** distantzia jakin batera daude ni “nagoen” lekutik. [316]

Hasteko, ni ez naizelako niretzat gaiztoagoa, **funtzionarioa** edota **sendagilea** naizena baino; nire izateko modua zera baita: ez naiz naizena eta banaiz ez naizena. [332]

Era berean, Beste-objektuaren **haserrea**, niri agertzen zaidan bezala bere **garrasien** bidez, bere **ostiko** eta **keinu mehatxatzaileen** bidez, ez da haserre subjektibo eta ezkutu baten *zeinua* [...] [354]

Esanak esan, enuntziatzailearen etendura atzematea edota, azken batean, determinatzea kontzeptu teorikoak noiz hartzen duen (fikziozko) enuntziatuaren ardura eta ahotsa, hori egiteko ikerketa-corpus osoa lerroz lerro arakatzea inoperantea da. Fikziozkotasuna zenba daitekeen ikusteko, lehen urratsa egin dugu, alegia, enuntziatzailearen etendurari eta *Niaren* (gogoratu, halere, tratatuak *Nia* barik ‘*bere baitarako* izatea’ aipatzen duela) kontzeptuari erreparatzea. Bigarren urrats batek lagundu beharko liguke zalantzazkotzat jo daitezkeen enuntziatuen fikziozkotasuna gehiago zedarritzen.

## 4.2. Fikzioaren denbora: idazketa-denboraren neutralizazioa

### 4.2.1. Denborazko deikien presentzia

4.1. irizpidearen arabera, fikziotzat jotzen dugu enuntziatu bat non kontzeptuak ahots enuntziatzaile propioa hartzen duen eta non, horren ondorioz, jakinik ere diskurtsoak hor kontzeptuari egiten diola erreferentzia, enuntziatzailea ezin ordezkari daitekeen abstraktuan emandako kontzeptuarekin (*Nia, Nitasun, etab.*), kontzeptua nolabait *hezur-haragizkoa* baita orduan.

Horra atetik hamabost pausora nagoela, leihotik sei metrora. [328]

Eta alderantziz, trabarik gabe ordezkari badaitezke izenordain enuntziatzailea eta ‘Nia’ kontzeptua, orduan, printzipioz ez dugu enuntziatua fikziotzat joko, ulertzen baitugu, besterik gabe, biak bergauza direla eta, beraz, enuntziatzaile orokortzailea ez dela ahots autonomoa, baizik eta enuntziatzaile efektiboaren objektu aztergaia, berau, hain zuzen ere, 1. pertsonan adierazia.

*Bestearen begirada*, beharrezko baldintza dena nire objektibotasunarentzat, niretzat objektibotasun ororen suntsipena da. [328]

Bestalde, zalantzazkotzat jo dugu enuntziatuaren fikziozkotasuna, kontzeptuari giza jarrera, egoera eta ezaugarriak aitortzen zaionean. Kontzeptu bat ezin da lotsatu edota haserretu, genioen, adibidez; eta begiratu ere ezin du.

Bereziki, Bestearen begiradak, berau begirada-begiratzaila eta ez begirada-begiratu, ukatu egiten ditu nire distantziak objektuei eta bere distantzia propioak zabaltzen ditu. Bestearen begirada hori bat-batean agertzen da distantzia mundura datorreneko zera bezala, distantziarik gabeko presentzia baten baitan. [328]

Horiek horrela, fikziozkotasuna *ahots* enuntziatibo autonomotzat jotzen badugu, orduan, ulertu behar da horrek enuntziatioaren gainerako ardatzetan ere eragiten duela, beraz, enuntziatuak denborazkotasun propioa ere zabaltzen duela. Horren arabera, fikzioaren denborak ez du progresio kronologikorik diskurtso nagusiarekiko, denbora-sistema propioa eskatzen baitu. Hala, denbora neutralizatu egiten dela esaten dugu; horri esaten diogu fikzioaren denbora. Hortaz, baldin eta denborak progresiorik badu, horrek fikzio-barruko progresioari egingo dio erreferentzia eta ez diskurtso nagusiaren denborari.

Enuntziatuaren denborazkotasuna denborazko deikiak adierazten du esplizituki. Deikiak enuntziatuaren denborazko ardatza salatzen du eta enuntziatua une konkretu batean aktualizatzea eskatzen du. Demagun ‘ordura arte’ deikia, esaterako. Enuntziatu zehatz batean, deiki horrek erreferentzia zuzena egingo lioke enuntziatio-ekintzaren denborazkotasunari eta linealtasun kronologiko batean kokatuko luke enuntziatua.

Ordea, kontua hemen ez da testuan deikiak besterik gabe identifikaztea, baizik eta zehaztu ahal izatea horrelakoak noiz dagozkion testuaren idazketa-denborari (eta teoriaren garapenari) eta noiz fikziozko denborari. Ondoko adibideei erreparatuz, ‘oraindik’ aditzondoa, itxura guztien arabera, lehenengo adibidean diskurtso nagusiari dagokio; bigarren adibidean, aldiz, aditzondoa fikzioaren barruko denborari dagokio, *Soldaduari* fikzio-eszenaren argitan irakur baitaiteke (*orduante*, *aldi berean*, etab).

Baina oztopo ugari dago **oraindik** [DISKURTSOA]. Bereziki, lotsaren bitartez, presentzia zalantzagabea aitortzen diogu Besteari. Baina, ikusi dugunez [...] [334]

Ihesi doan soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan **arestian oraindik** [FIKZIOA] bere fusilaren aurrean [...] Baina hara non fusila zulora bota duen eta babesean jarri den. **Orduante** [FIKZIOA] etsaiaren presentziak bildu eta presioa egin dio; etsaia, balen traiektoriari esker distantziara zegoena, gainera datorkio traiektoria hori desagertu den une berean. **Aldi berean** [FIKZIOA], defenditzen zuen atzealdeko herri hori, eta horma baten antzera tinkatzen zenekoa, bihurtu egin da bat-batean [...] [356]

Era berean, fikziozko eszena horretan ‘arestian’ aditzondoari erreparatzen badiogu, ulertzen dugu aditzondo horrek fikzioaren *barruko* denborari egiten diola erreferentzia, hots, soldaduari denborari, ez diskurtso nagusiaren idaketa-denboraren progresioari. Baina, jakina, alderantziz ere gerta daiteke beste enuntziatu batzuetan, alegia, ‘arestian’ aditzondoak diskurtso nagusiaren garapenari erreferentzia egitea, hain zuzen ere, diskurtsoan lehendik aipatutako zerbait gogora ekarri nahi denean:

Hortaz, nire *Egoa* Bestearantz naiz, Bestearenganantz isurtzen den mundu baten erdian. Baina, **arestian** [DISKURTSOA], barne-hemorragia deitu ahal izan diogu *nire* mundua Beste-objektuarengantz isurtzeari; orduan, hain zuzen [...] [319]

Bestalde, fikzioaren denborak eszena bat gaindi dezake eta, nolabait esateko, fikziotik fikziorako igorpena egin. Horrek diskurtsoan fikzio-sarerik egon daitekeen susmoa



#### 4.2.2. Aditzaren puntukaritasuna

Aditzondoez gain, enuntziatu batean askotarikoak dira fikziozko eszena baten denbora-ardatza adieraz dezaketen denbora-markatzaileak, esate baterako, forma inesiboak eta menpeko perpausak. Horra hainbat adibide:

**Eraso batean** [ohar jatorrizkoan denborazkotzat aurkezten dela: “*pendant...*”], sasitzan herrestan doazen soldaduek *saihesteko begiradatzat* hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena [...]. [315]

Soilik probablea da **mugitu berri den** sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. [315]

Baserri hori mendi-kaskoan, miliziako soldaduei begira dirudiena, ziurra da etsaiak okupatu duela, baina ez da ziurra soldadu etsaiek **une honetan** leihoetatik zelatatzea. [335]

Denborazko markatzaileak esplizituki ematen ez denean, denborazkotasunari aditzaren bitartez errepara dakioke. Fikziozko enuntziatua beti aditzaren orainaldiak ezaugarritzen du. Baina fikzioaren orainaldiak ez du adierazten idazketa-denbora orainaldiko bat, baizik eta inoizkoa den denbora bat. Aditzaren aspektuari erreparatzen badiogu, alde batetik, fikziozko eszena adizki trinkoak emana denean, adizkiaren puntukaritasunak salatzen du fikzioa, fikzio-ekintza *orain-eta-hemen* batean gertatzen (ari) den seinale.

Imajina dezagun heldu naizela [...] sarraila baten zuloatik begiratzera. Bakarrik **nago** [...] [317]

Horra atetik hamabost pausora **nagoela**, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila **datorkit** berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. [328]

Baina ez nuke esango, haatik, apartamentu horretan absente **direnik** Aga Khan eta Marokoko Sultana, eta bai, ordea, bertan egon ohi den Pierre ordu laurdenez absente **dagoela**. [337]

Pierre *beste gizaki* batzuentzat **dago** absente. [...] Teresarentzat **dago** Pierre absente *leku horretan*. [338]

Uste izan dezaket Anny dela nigana **datorena** bidean eta deskubritu pertsona ezezagun bat dela: horrekin ez da aldatzen Annyren funtsezko presentzia niretzat. [339]

Ihesi **doan** soldadu horrek Bestea-etsaia **zeukan** arestian oraindik bere fusilaren aurrean. [356]



Dena den, puntukaritasun horrek batzuetan erlatiboazko forma har dezake (-eN) edota hori aditz jokatugabe batek adieraz dezake (-tea, -tzea) eta, beraz, mendeko perpausaren barruan txertatuta joan daiteke. Demagun hainbat adibide eta bestela formula ditzagun:

Nigana **etortzen ikusten dudan** emakume hori, **kaletik doan** gizon hori, nire leihotik **kantatzen aditzen dudan** eskale hori niretzat *objektuak* dira, hori ez da zalantzazkoa. [310]

*\*Ikusi dut emakume hori nigana datorrela, gizon hori kaletik doala, entzun dut eskale hori nire leihotik kantatzen ari dela...*

Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. [315]

*\*Sasitza mugitu berri da, norbait ezkutuan dagoen seinale...*

Nigana jauzika datorren oinezko gizen eta itsusi horrek begiratzen badit, akabo bere itsustasuna, bere loditasuna eta bere jauziak. [335-336]

*\*Oinezko gizen eta itsusi hori jauzika dator nigana eta begiratzen ari zait...*

Aditz perifrastikoei dagokienez, aipatu dugu, euskaraz, tankera narratiboa duen enuntziatuak formaren aldetik *orainaldi burutua* eskatzen duela. Hala, ikerketa-corpora euskaratzean bertan ohar gaitezke fikzioak *-T(Z)EN* ez baizik eta *-TU/DU* aspektu-marka eskatzen duela, arestian aipatzen genuen eszenaren *orain-eta-hemen* hori adierazteko. Horrek ez du adierazten, jakina, ekintza bukatua denik, baizik eta, kontakizunean etenda bezala, orainaldian, ekintza gertatzen 'ari' den denboran kontatzen dela. Aditzak efektu puntukaria du hor ere, betikotasunezkoa barik.

Hara non **nagoen** sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak **entzun ditut**. Lotsa-hotzikara batek **bildu nau**: norbaitek **ikusi nau**. **Zutitu naiz**, begiekin **zeharkatu dut** korridore hutsa: alerta faltsua zen. **Arnasa hartu dut**. [336]

Hori dela eta, testuaren itzulpena batzuetan problematikoa gerta daiteke, hain zuzen ere, fikziozkotasuna den bezainbatean, zenbait zalantzazko enuntziatu bi modutara har daitezkeelako, alegia, alde batetik, fikziozko denboraren barrukotzat eta, beste alde batetik, diskurtso nagusiaren objektu aztergaitzat eta, beraz, fikziozko denboratik kanpo. Demagun etendura enuntziatiboari buruzko atalean aipatu dugun adibide berbera eta errepara diezaigun azpimarrari:

Lorategi publiko batean **nago**. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat **pasatu da** aulkien ondotik. **Ikusten dut** gizon hori, **aldi berean hartzen dut** objektutzat eta **gizakitzat**. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz *gizaki bat dela?* [311]

Ondoko galdera egin daiteke: adibide horretan, ‘ikusten’ duen eta ‘-tzat hartzen’ duen *NI*, alde batetik, eta lorategian dagoen *NI* [*Lorategi publiko batean nago*], beste alde batetik, *NI* berberak dira? Edo diskurtso nagusiak lehenik fikziozko egoera bat aurkezten du lan tresnatzat eta, ondoren, ‘Nia’ kontzeptua tresna diskurtsibo horren arabera kokatzen du 1. pertsonan? Bata zein bestea izan daiteke. Lehen kasuan, aditzak orainaldi burutuan behar luke: ***\*Ikusi dut*** gizon hori; ***hartu dut*** objektutzat eta ***gizakitzat***. Kasu horretan, *isilpeko* deiki batek fikzioa eta diskurtsua lotuko lituzke:

*\*[FIKZIO-ESZENA] Gizon bat pasatu da aulkien ondotik, orduan, nik ikusi dut eta aldi berean hartu dut objektutzat eta gizakitzat. [DISKURTSOA] Zer esan nahi du horrek [...]*

Ordea, bigarren kasuan, diskurtsuaren azalpenaren kohesioa gordeko lukeen beste esapide batek, berau ere isilpekoa, diskurtso nagusiaren barruan eta fikziotik kanpo, tankera honetako zerbait formulatuko luke:

*\*[FIKZIO-ESZENA] Gizon bat pasatu da aulkien ondotik. [DISKURTSOA] Eszena horren arabera, nik gizona [=Niak Bestea] ikusi eta aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitzat [=subjektutzat]. Zer esan nahi du horrek [...]*

Adibide horretan, badirudi *Niaren* abstraktutasuna saihestu nahi dela konkretutasunaren mesedetan. Alde batetik, ‘gizon hori’ erakusle anaforikoa da, hor zehazki adierazten baitu eszena emana dagoela aurretik, eta, ondoren, horri buruz zehaztapen (teorikoa edo ez teorikoa) egiten dela; beste alde batetik, ‘gizaki’ terminoa hobesten da (frantsesez, ‘*homme*’ darabil Sartrek ‘gizon’ nahiz ‘gizaki’ adierazteko) ‘subjektu’ kontzeptuaren aldean: *\*Niak Bestea ikusi eta aldi berean hartzen du objektutzat eta subjektutzat.*

Sarritan, beraz, fikziozko eszena diskurtsuan *isolatzen* duena aditzaren efektu puntukaria da (edo aditz jakin bati efektu puntukaria aitortzea). Horrelakoetan, aditzaren betikotasunak zedarritzen du, aurretik eta ondotik, eszenaren efektu puntukari hori; bestela esateko, orokortasunak zedarritzen du konkretutasuna eta unekotasuna. Eta fikziozkotasuna, hain zuzen ere, konkretutasun horren bidez dator diskurtsora.

[*BETIKOTASUNA*]: Baina gertatuko da [=gertatzen da] adaxka batzuk astintzean ere, isiltasunaren aurreko oin-hotsekin, leiho erdi ireki batekin, gortina baten mugimendu arinarekin. [*PUNTUKARITASUNA*]: Eraso batean, sasitzan herrestan **doazen** soldaduek *saihesteko begiradatzat hartu dute* ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen **dena** muino baten gainean. [*BETIKOTASUNA*]: **Bistakoa da** horrela eraturako objektuak **ez duela** begirada **adierazten** probable gisa besterik. [315]

Adibidearen lehen zatian, *adaxka*, *gortina*, *leiho* eta abar agertu arren, aditzak ez du fikzioarena litzatekeen denbora propioa zabaltzen; bai, ordea, bigarrenak. Azkenik, hirugarren zatiak itxi egiten du fikzioaren aurkezpena. Ondoko adibideari erreparatzen badiogu, gauza bera, alegia, fikzioa gelditzen da denborazkotasunak isolatuta, nahiz eta hemen ere agertzen den elementu ostentsiborik (goiko adibidean *gortina* etab. bezala) fikziozkotasuna iradoki dezakeenik.

[*BETIKOTASUNA*]: Bestearen begirada hori bat-batean **agertzen da** distantzia mundura datorreneko zera bezala, distantziarik gabeko presentzia baten baitan. [*PUNTUKARITASUNA*]: Atzera **egin dut**, nire munduarekiko presentzia distantzia gabeaz gabetuta **nago** eta Bestearekiko distantzia batez hornituta: horra atetik hamabost pausora **nagoela**, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila **datorkit** berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. [*BETIKOTASUN*]: Besteak **erutzen nauenez** berarekiko sei metrora, bera niri distantziarik gabe **egiten zait** presente. Horrela, [...] Bestearen presentzia distantziarik gabea **bizi dut**. [328]

Adibidearen hirugarren zatiari erreparatuz, ‘sei metrora’ elementu ostentsiboak ez liguke nahasi behar, bai baitirudi enuntziatua aise ordezkara litekeela, esaterako, beste enuntziatu orokorrago honekin: \**Besteak distantzia batera erutzen nauenez [duenez Nia]*. Ohar, gorago aipatu bezala, diskurtsoak fikzioan irauteko bokazioa duela. Jakina, kontrakoan, hots, elementu ostentsiboen faltan, areagotu egiten da sentsazioa fikzioa isolatuta gelditzen denekoa, ostentsibotasuna soilik tartekoak (fikzioak) dakarrenean:

[*BETIKOTASUNA*]: Jakina, gerta daiteke [=gertatzen da] nik ekintza bat burutzea bakardade hertsian eta ondorioak zeharo nire aurreikuspenen eta desiren kontrakoak izatea. [*PUNTUKARITASUNA*]: Poliki **erakarri dut** taulatxoak ontzi hauskor hori nireganatzeko [...] [*BETIKOTASUNA*]: Alabaina, Bestearen agertzeak situazioari aspektu bat **ekartzen dio** nik nahi ez nuena, menperatzen ez dudana eta ihes egiten didana printzipioz, *Bestearentzat* baita. [323-324]

[*BETIKOTASUNA*]: Besteak nire nortasunaren deskribapen bat **egiten didanean**, ni ez **naiz** deskribapen horretan “**ikusten**” eta, halere, **badakit** “ni naizela”.

[*PUNTUKARITASUNA*]: **Aurkeztu didaten** arrotz hori berehala **asumitu dut**, berak arrotza izateari utzi gabe. [*BETIKOTASUNA*]: Eta **hori ez da** nire irudikapen subjektiboen bateratze soila, ezta ni naizen “Ni” bat ere “Ich bin Ich” horren ildotik. [333]

[*BETIKOTASUNA*]: Beste-objektua ikustean atzeman dezakegun [=atzematen *dugun*] beldur objektiboa ez da esfigmografoarekin eta estetoskopioarekin ikus edo neur dezakegun [=neurtzen *dugun*] etsipenaren seinale [...] [*PUNTUKARITASUNA*]: Ihesi **doan** soldadu horrek [...] defenditzen zuen atzealdeko herri hori, eta horma baten antzera tinkatzen zenekoa, **bihurtu egin da** bat-batean, abanikoan **ireki da** eta aurrealde **bilakatu da**, babes bila doan horizonte eroso. [*BETIKOTASUNA*]: Hori guztia objektiboki **egiaztatzen dut** eta *horixe* da, hain zuzen ere, nik *beldur* modura **hartzten dudana**. [356]

Aditzaren efektu puntukariari erreparatzeak balio dezake alde batera edo bestera egiteko zalantzazkoak diren enuntziatuetan. Printzipioz nekez joko dugu fikziotzat testuko enuntziatu bat efektu puntukaria eta konkretutasuna adierazten ez duena, nahiz eta baliatu 1. pertsona, elementu ostentsiboak eta giza jarrerak; esaterako, ondoko adibidea:

Besteak **ez nau erutzen**, bestalde, niretzako objektu gisa, baizik eta *berarentzat*. Bestela esateko, berak **ez du balio** nik nitaz dituzkidan *ezagutzen* kontzeptu erregulatzailerik edo eratzailerik gisa. Bestearen presentziak **ez du**, beraz, ni-objektua **agerrarazten: atzematen dudan** bakarra zera da, nigandik inoranzko ihesa. Hizkuntzak salatu dukeenean [=salatzen *duenean*] ere Besteak gaiztotzat eta jeloskortzat naukala, **ezingo dut** [=ezin *dut*] inoiz izan nire gaiztotasun eta jeloskortasunaren intuizio konkreturik. [334]

Ohar gaitzkeenez, aditzaren efektu puntukariak enuntziatuan parterik ez duenean, enuntziatzailea eta kontzeptu abstraktua aise ordezkatu daitezke. Labur esateko, aditzaren efektu puntukariak oztopatu egiten du enuntziatuan kontzeptu abstraktuaren ordezkagarritasuna. Demagun goiko adibidea kontzeptu-terminotan:

*\*Besteak ez du Nia erutzen, bestalde, Niaretzako objektu gisa, baizik eta berarentzat. Bestela esateko, Besteak ez du balio Niak bere buruaz dituzkeen ezagutzen kontzeptu erregulatzailerik edo eratzailerik gisa. Bestearen presentziak ez du, beraz, ni-objektua agerrarazten: Niak atzematen duen bakarra zera da, beregandik inoranzko ihesa. Hizkuntzak salatu dukeenean ere Besteak Nia era batera edo bestera erutzen duela, Niak ezin du inoiz izan eraketa horren intuizio konkreturik.*

### 4.2.3. Baldintza eta Ahalera

Baldintzazko eta ahalerazko formek enuntziatuaren tankera hipotetikoa nabarmentzen dute, unekotasuna baino gehiago. Ordea, horiek zenbaitetan egoera baten aurkezpenean gauden sentsazioa eman dezakete, alde batetik, balizko egoera puntual bat aditzera ematen dutelako diskurtsoaren hari nagusian eta, beraz, enuntziatuan etendura moduko bat gauzatzen dutelako; eta, beste alde batetik, balizko enuntziatu horrek elementu ostentsiboak ager ditzakeelako adibide-xede nabarmenarekin.

Ondoko bi adibideetan, inplizituki bada ere, iradoki egiten da lehendik fikziozko eszena baten aurkezpena egingo dela, hain zuzen ere, balizkoa den heinean ez dagokiona diskurtso nagusiaren denborari. Sentsazio hori areagotu egiten du elementu ostentsiboen (adib. *tabako-paketea*, *auditorioa*, *jendaurrea*, *konferentzia*, *gela*, *begia*, *burua*) eta denborazkotasun-markatzaileen presentziak (adib. *mintzo garen bitartean*; *arretatsu* [gaudelarik]; *begiratzen badut orduan*; *ikusiko ditut agertzen bat-batean*).

Erabilera enpirikoan eta egunerokoan hartuta, “absentzia” adigaia ez nuke baliatuko edozein motatako “hor-*ez-egotea*” adierazteko, hori garbi dago. Hasteko, **ez badut nire tabako-paketea bere lekuan aurkitzen**, ez dut esango *absente* dagoenik; nahiz eta adieraz nezakeen “hor egon behar zuela”. [337]

Ikuspegi pragmatiko batetik, ezinbestekoa da arreta jartzea fikziorako iraganbidea edo sarbidea nola gertatzen den. Badirudi baldintzazko forma dagoen lekuan orainaldia eta estilo zuzena balia daitezkeela traba handirik gabe: *\*Hasteko, ondoko fikzio-egoera imajina dezagun: “ez dut nire tabako-paketa aurkitzen”. Fikzio horren arabera [...].* Eta are gehiago, aurrerago ere komatxoak baliatzen direnean estilo zuzenaren adierazgarri: *\*zera adieraz nezake: “hor egon behar zuen”*. Horra bigarren adibidea:

Zehatzagoak egingo ditu ohar horiek edonork egin dezakeen obserbazio honek: **agertzen bagara “jendaurrean” rol bat interpretatzeko edo konferentzia bat emateko**, ez dugu galtzen begiratuak garen ikuspuntua eta betetzen dugu egitera etorri garen ekintza-multzoa begiradaren *presentzian*, areago, saiatzen gara [...]. Mintzo garen bitartean, garatu nahi ditugun ideiei bakarrik arretatsu, Bestearen presentzia ez da nabarmentzen. Okerra litzateke hori bateratzea, esaterako, “gela” edo “auditorio” izenen pean [...]. **Ordea, baieztatu nahi badut nire gogoeta ondo ulertu dela, begiratzen badut orduan auditorioa**, *begiak* eta *buruak* ikusiko *ditut* agertzen bat-batean. [341]

Bigarren adibidean, eszena beraren bi une desberdin daude eta baldintzazko formak ematen die sarbidea bi une horiei, batetik, ‘*agertzen bagara*’, eta bestetik, ‘*baieztatu nahi badut*’ eta ‘*begiratzeko badut*’, eta bi eszenak adibidearen hasieran esplizituki daude iragarriak: *Zehatzagoak egingo ditu ohar horiek edonork egin dezakeen obserbazio honek*. Baldintzazko formak, aurreko adibidean ere ikusi bezala, orainaldi soilean eman daitezke:

*\*Jendaurrean agertu gara [=naiz] rol bat interpretatzeko edo konferentzia bat emateko...*

*\*Ordea, baieztatu nahi dut nire gogoeta ondo ulertu dela [...] begiratu dut orduan...*

Bi enuntziatu horiek idazketa-denboratik kanpoko dauden fikzio-tresnatzat ulertu behar dira. Esatari nagusiak, fikzioa eman eta gero, tresna horien gainean dihardu: *\*[Fikzio horretan] ez dut [=da] galtzen begiratuak garen [=izatearen] ikuspuntua [...]* eta abar. Baldintzen ondoko azalpen guztia kontzeptu terminotan eman daiteke. Izan ere, aiseago eman liteke fikzioaren ondoko azalpena kontzeptu-terminotan, fikziotzat jo ditugun enuntziatuak baino. Nekez ulertuko genituzke horrelakoak: *\*Nia agertzen bada jendaurrean rol bat interpretatzeko; \*Niak ez badu tabako-paketea aurkitzen; eta abar.*

Gauza bera gertatzen da ahalerazko formak dakartzaten hainbat enuntziatutan, alegia, fikzio-egoera bat aurkezten da (unekotasun-efektuduna) eta, ondoren, garatu egiten da kontzeptua. Ondoko adibidean, ahalerazko formak aurkezten dituen fikzio-egoerak nekez ordezkaturiko dira kontzeptuarekin (adib. *Nia tronpatu ahal da kalean topatu berri duen objektu-Bestearekin*).

Bestea presente zait leku orotan objektu bihurtzen naizeneko zera hori bezala. Horren ondotik, **tronpatu ahal naiz** kalean topatu berri dudana objektu-Beste baten presentzia enpirikoaz. **Uste izan dezaket** Anny dela nigana datorrena bidean eta deskubritu pertsona ezezagun bat dela: horrekin ez da aldatzen Annyren funtsezko presentzia niretzat. **Uste izan dezaket** gizon bat dagoela nire zelatan ilunpean eta deskubritu zuhaitz-enbor bat dela gizakitzat hartzen nuena: horrekin ez da aldatzen nire funtsezko presentzia gizaki guztientzat eta gizaki guztiena niretzat. [340-341]

Bestalde, fikzio-egoera horiek fikzioaren ezaugarri den orainaldi neutroan eman daitezke traba handirik gabe.

\*[...] Horren ondotik, [zera imajina dezagun]: **tronpatu naiz** kalean topatu berri dudan norbaiten presentziarekin; **pentsatu dut** Anny dela nigana datorrena bidean eta **deskubritu dut** [...]; **pentsatu dut** gizon bat dagoela nire zelatan ilunpean eta **deskubritu dut** [...]. Horrekin ez da aldatzen nire [=Niaren] funtsezko presentzia gizaki guzientzat [=Bestearentzat] eta gizaki guztiena [=Bestearena] niretzat [Niarentzat].

Baina, fikziozkotasuna soilik denborazkotasunaren argitan ebazten bada, zalantza sarritan sor daiteke enuntziatu baten aditzak unekotasuna adierazten duen edo ez. Ondoko adibidean, esate baterako, nola ebatzi tarteko zatia? Zalantzazkoa dateke. Zer dira ‘ni esklaboa naiz’, ‘ni esklabotzan nago’ eta ‘arriskuan nago’? Orain gertatzen (ari) direla ulertu behar da edo, aurretik eta ondotik dituen zatietan bezala, hori egitate bat da eta, beraz, horrela (izaten) da?

[*BETIKOTASUNA*]: Zentzu horretan **kontsidera gaitzke** “esklabo”, hau da, Besteari **agertzen gatzazkion** heinean. Baina esklabotasun hori **ez da** emaitza bat [...] kontzientziaren *bizitza* batena bere forma abstraktuan. [*ZALANTZAZKO PUNUKARITASUNA*]: **Ni esklaboa naiz** nire izatean nirea ez den askatasun baten menpekota naizelako eta berau nire izatearen baldintza bera delako. [...] horregatik, bada, **ni esklabotzan nago**. Era berean, nireak ez diren posibilitateen bitartekoa naizelarik [...] **arriskuan nago**. [*BETIKOTASUNA*]: Eta arrisku hori **ez da** istripu bat, baizik eta nire Bestearentzako-izatearen oinarritzko egitura. [326]

Formula dezagun galdera beste era batera: adibide horretan, zilegi da isilpeko enuntziatu bat (esaterako, *azal dezagun bestela; eman dezagun adibide bat; horra fikzio-egoera bat horren adibidegarri*, batzuk aipatzearen) fikzioari sarbidea emango liokeena? Horra hirugarren urratsa eta irizpidea fikziozkotasuna diskurtsoan zedarritzeko balio diguna: fikzioaren aurkezpena.

Dena den, egin dugun galderari berehala erantzun barik, esan gabe doa, baiezkoan, fikzioak ordain kontzeptuala berdin gordeko lukeela, hau da, ‘esklabo’ izateak *Niaren* menpekotasuna adieraziko luke; eta ‘arriskuan’ egoteak, *Niarentzat*, uneoro *Ni-objektu* bihurtu ahal izatea: fikziozkotasunak kontzeptuen arteko menpekotasuna ez ezik, esklabotza eta arriskua irudikatzen ginderamatzake.

### 4.3. Fikzioaren aurkezpena

#### 4.3.1. Markatzaile esplizituak

Diskurtsoaren fikziozkotasuna aurkezpen-marka esplizitu batek iragar dezake. Jakina, aurkezpen-marka hori diskurtsoaren enuntziatzaile nagusiari dagokio. Horrela, bada, enuntziatzaile nagusiak aurkeztu egiten du fikziozko eszena bat eta aurkezpen horren aztarna uzten du enuntziatuan. Beraz, diskurtsoaren markatzailea ‘zubi’ modukoa da diskurtsoak erakusten dituen bi enuntziatzaileen artean, alegia, batetik, erregistro teorikoari dagokion enuntziatzaile efektiboarena eta, bestetik, fikzioari dagokionarena.

Halatan, fikzioaren aurkezpen-markak sarbidea ematen dio fikziozkotzat hartzen dugun enuntziatu bati, enuntziatzailearen eta denborazkotasunaren argitan ez ezik, hizkuntza-erregistroan ere aldi berean etendura sortzen duena. Hizkuntza-erregistro teorikotik hizkuntza-erregistro narratiborako iraganbidea, aurkezpen-marka tarteko, diskurtsiboki gauzatzen da. Markatzailea diskurtsoan agertzen da, nolabait, bi hizkuntza-erregistroen talka edota etendura leuntzeko. Bi markatzaile-mota bereiz daitezke:

##### a) Erakusle ezohikoa

Lehenengo markatzaile-motari dagokionez, erakusle ezohikoak ez dio erreferentzia anaforikorik ez kataforikorik egiten aurretik zein ondotik aipatutako ezeri. Erakusle hori diskurtsoak sortzen du, erreferentziaren ikuspegitik desberdina den enuntziatu baten sarbide gisa. Enuntziatu hori fikziozko eszena konkretua da eta erakusle ezohikoak presentziatzko eta gertutasunezko efektu ostentsiboa ematen dio. Horra hainbat adibide:

Nigana etortzen ikusten dudan **emakume hori**, kaletik doan **gizon hori**, nire leihotik kantatzen aditzen dudan **eskale hori** niretzat objektuak dira, hori ez da zalantzarikoa. [310]

**Baserri hori** mendi-kaskoan, miliziako soldaduei begira dirudiena, ziurra da etsaiak okupatu duela, baina ez da ziurra soldadu etsaiek une honetan leihotatik zelatatzea. **Gizon horrek**, bere oin-hotsa entzun baitut atzean, ez da ziurra berak niri begiratzea, aurpegia biratuta eduki dezake. [335]

Ezagutzen ez dudan eta metroan irakurtzen dagoen **gizon horren** inguruan mundua oso-osorik dago presente. [354]



## b) Presentaziozko esapideak

Hirugarren markatzaile-motari dagokionez, frantsesez presentaziozko esapide ohikoak diren ‘*voici*’ eta ‘*voilà*’ (batez ere lehena) erabil daitezke fikzio-eszena oso bat gertutik eta konkretuki aurkezten den efektua sortzeko. Orobat, eta ildo horretatik, gonbitea adierazten duten aditzak ere, esate baterako, ‘imajina dezagun’ eta ‘demagun’, eszenak aurkezteko erabiltzen dira. Horra hainbat adibide:

**Hara, adibidez**, gizon bat irakurtzen doana paseoan [313]

**Imajina dezagun** heldu naizela, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zuloatik begiratzera. [317]

**Horra** atetik hamabost pausora nagoela, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila datorkit berarekiko distantzia jakin batera eratzeko [328]

**Hara non** nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun ditut. [336]

### 4.3.2. Bestelako markatzaile batzuk

#### a) Eszena narratibo baten irrupzioa

Batzuetan, egoera jakin baten aurkezpena nahikoa izan daiteke diskurtso-etendura gauzatzeko eta hizkuntza-erregistroaren aldaketa gertatzeko. Horietan, enuntziatuaren tankera narratiboa eta enuntziatio-ardatzen neutralizazioa (gorago aipatu bezala) dira, hain zuzen ere, eta zehazki, diskurtsiboki aurkezpen-markatzailearen funtzioa betetzen dutenak, nahiz eta ez diren *stricto sensu* fikzioaren aurkezpen-markatzaileak. Diskurtso-etendura hori, gainera, enuntziatuaren aurretik ez ezik ondotik ere gertatzen da, izan ere, fikzio-eszena eman ondoren, kontzeptua azaldu eta garatu egiten da. Sarritan fikzioaren ondotik ematen den azalpenak fikzio-egoerako zenbait elementu ostentsibo berrartzen ditu. Horra hainbat adibide:

**Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat pasatu da aulkien ondotik.** Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitzat. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz *gizaki bat dela?* [311]

**Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek *saihesteko begiradatzat hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena***

**muino baten gainean.** Bistakoa da horrela eraturako objektuak ez duela begirada adierazten probable gisa besterik. Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. [315]

**Atzera egin dut, nire munduarekiko presentzia distantzia gabeaz gabetuta nago eta Bestearekiko distantzia batez hornituta:** Horra atetik hamabost pausora nagoela, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila datorkit berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. Besteak eratzen nauenez berarekiko sei metrora, bera niri distantziarik gabe egiten zait presente. [328]

## **b) Marka tipografikoak**

Marka tipografiko baten presentziak ere bete dezake aurkezpen-funtzioa. Oro har, fikziozko eszena konkretu bat aurkezteko, diskurtsoak baliatzen duen aurkezpen-markatzaile tipografiko ohikoena ‘bi puntu’ izaten da. Horietan, traba diskurtsiborik gabe, isilpeko esapide batek aise ordezkia dezake marka tipografikoa, esate baterako, ‘adibidez’, ‘esaterako’, ‘demagun adibide bat’ eta tankerakoak. Adibidez:

Jakina, gerta daiteke nik ekintza bat burutzea bakardade hertsian eta ondorioak zeharo nire aurreikuspenen eta desiren kontrakoak izatea: **poliki erakarri dut taulatxoa ontzi hauskor hori nireganatzeko** [...] [323-324]

Dena den, batzuetan, marka tipografikoaz gain, esplizitu ematen da aurkezpena aurretik. Ondoko adibideetan, erreparatu ‘obserbazio honek’ eta ‘irudi on bat...’ esapideetan:

Zehatzagoak egingo ditu ohar horiek edonork egin dezakeen obserbazio honek: **agertzen bagara “jendaurrean” rol bat interpretatzeko edo konferentzia bat emateko, ez dugu galtzen begiratuak garen ikuspuntua** [...] [341]

Irudi on bat ni atzemateko ahaleginena eta horien alferrikakotasunarena Poincarék aipatzen duen esferarena litzateke, alegia, tenperatura zentrotik azalera gutxiagotzen denekoa: **izate bizidunak esferaren azalera heltzen saiatzen dira zentrotik abiatuta, baina tenperaturaren jaitsierak** [...] [346-347]

Baina bi puntuez gain, komatxoak ere erabiltzen dira, nahiz eta horiek estilo zuzena adierazteko eman ohi diren, batez ere. Kasu horietan, fikziozko adibideak enumerazioz edo zerrenda modura eman ohi dira, eta ez dira izaten egoera zehatz baten aurkezpena, baizik eta ‘erantsi’ parentetiko modukoak. Edozein kasutan, komatxoak daramatzaten

fikziozko enuntziatu oro beti agertzen da bi punturen ondoren, azken helburua ez baita hitz edo esapide baten ezohiko adiera nabarmentzea, baizik eta fikzio-egoera aurkeztea. Horra hainbat adibide:

[...] erlazio objektiboa adierazten baitut zera esaten dudanean: "**Pierrek begiratu bat eman dio bere erlojuari**", "**Jeannek leihotik begiratu du**", eta abar [312]

Geroago, hizkuntza bitarte Bestearekin lotuta gaudenean eta pixkana gutaz zer pentsatzen duen asmatzen dugunean, horrek liluratu eta izutu egingo gaitu batera: "**Zin egiten dizut egingo dudala!**"; "**Litekeena da. Hala diostazu, sinetsi nahi zaitut; posible da, noski, zuk hori egitea**". [323]

[...] nire "engaiamendua" situazio batean ulertu behar da zera esaten den zentzuan: "**Zereko horrekin engaiatu naiz, engaiatu naiz diru hori itzultzera**, eta abar". [...] Baina engaiamendu objektibatu hori, Bestea objektutzat hartzen dudanean, degradatu egiten da eta engaiamendu-objektu bat bihurtzen da zera esaten den zentzuan: "**Aiztoa sakon engaiatu da zaurian; armada desfile batean engaiatu da**". [352]

Orduan, zalantzagarrria dena berez ez da Bestea, baizik eta Bestearen *hor-egotea*, hau da, gertakizun historiko eta konkretu hori horrelaxe adieraz dezakeguna: "**Norbait dago gela horretan**". [337]

### 4.3.3. Markatzailearen absentsia

#### a) Isilpeko esapidea edo esapide implizitua

Fikzioaren aurkezpen-markatzaile espliziturik ez agertzeak ez du esan nahi, ikuspegi pragmatiko batetik, fikzioaren *isilpeko* aurkezpenik iradoki eta irudika ez daitekeenik. *Esklabotzaren* adibidean ikusten genuen, gorago. Adibide horretan, ordea, kontua zera da, *esklabotza* eta *arriskua* irudi-eskemak direla, fikzio-egoerak baino gehiago. Itzuliko gara 5. kapituluan.

Demagun ondoko adibidea. Marka tipografikoen harira genioen bezala, alegia, bi puntuak esapideren batek ordezkari zitzakeela aurkezpen-xede batekin, ondoko adibidean ere, fikziozko egoera zuzenean eman barik, diskurtsoak traba handirik gabe, aise txerta zezakeen tankera bereko esapide batekin, esate baterako, 'demagun adibide bat', 'fikzio-egoera batekin azal dezagun', edo, besterik gabe, 'adibidez' esapide soilarekin.

Areago, *begirada* agertzen da, erakutsi dugunez, begirada agerian jartzen duen objektuaren suntsipenezko planoan. **Nigana jauzika datorren oinezko gizen eta itsusi horrek begiratzen badit, akabo bere itsustasuna, bere loditasuna eta bere jauziak:** begiratua sentitzen naizen denbora-tartean, bera askatasun bitartekari hutsa da ni eta nire buruaren artean. [335-336]

## b) Paragrafo-aldaketa

Paragrafo-aldaketak soilak ere lagun dezake diskurtso-etendura gauzatzen. Urrutira gabe, ikerketa-corpustzat dugun “3.1.4. Begirada” kapituluari (berau paragrafo baten hasiera, bistakoa denez) eszena batek ematen dio hasiera. Eta areago, aipa daiteke hainbat adibide, non eta paragrafoak, testuaren kohesioari dagokion enuntziatu-aldaketarekin batera, hizkuntza-erregistroaren aldaketaz aparte, osorik eta bakarrik fikziozko eszena bat aurkezten duena.

Testuaren antolamenduari dagokionez, hori aipatzekoa da. Alegia, testuko paragrafo arras luzeak eta sarritan amaigabeak diruditenen artean, fikziozko egoera narratibo eta konkretu batek paragrafo berri bati hasiera ematen dio, baina ez hori bakarrik, fikzioak berak osorik paragrafo bakarra eta laburra osatzen du eta, testuaren ikuspegi global batetik, behintzat, hori oso bisuala da, fikzioa orduan nabarmendu egiten baita testuan.

[...] funtsezko erlazio horretara igortzen duena, azaldu ahal izan beharko digu, atzemandako errealitate gisa, behintzat, zer nolako erlaziotara igortzen duen.

[**Paragr.-aldaketa**] Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat pasatu da aulkien ondotik. Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitatzat. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz *gizaki bat dela?* [311]

*Hor ez dago ezerez huts bat besterik, nolabaiteko osotasun objektibo bat inguratzen eta azaleratzen duena, eta munduan nabarmentzen dena, egiazko sistema bat, bitartekoen antolaketa bat jomuga baten inguruan.* [318]

[**Paragr.-aldaketa**] Eta hara non entzun ditudan oin-hotsak korridorean: begiratzen didate. Zer esan nahi du horrek? Bat-batean nire izatean atzeman naizela eta nire egituretan funtsezko aldaketak agertzen direla —aldaketa horiek atzeman ditzaket eta kontzeptualki finkatu *cogito* erreflexiboaz.

Horrelakoetan, eszena konkretua lan-tresnatzat uler daiteke. Aurretik eta ondotik isolatuta gelditzen da: aurretik, paragrafo- eta erregistro-aldaketa gertatzen da; ondotik, berriz, diskurtso nagusiari dagozkion galderak formulatzen dira (alegia, “*zer esan nahi du horrek?* eta *zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz gizaki bat dela?*”). Galdera horiek enuntziatzaile nagusiak formulatzen ditu, ostera ere *hitza* hartzen baitu (diskurtso nagusiaren barne eta fikziotik kanpo, jakina) fikzioaz jarduteko.

Ordea, gerta daiteke paragrafo-aldaketak zuzenean ez ekartzea fikzioari aitortzen diogun etendura enuntziatiboa eta, fikziozko eszenaren irrupzioa ez izatea berehalakoa. Bestela esateko, fikzioak sarrera moduko bat eduki dezake paragrafoaren hasieran. Haatik, kasu horretan ere, ulertu behar da fikzioaren irrupzioak, azken batean, paragrafo-aldaketari obeditzen diola, aldaketaren horren xedea fikzioa aurkeztea den heinean. Bihoa azpimarrarekin fikzioari ondotik egiten zaion erreferentzia, eta fikzioaren aurkezpena diskurtsiboki ixten duena.

Ohar horiek urrunago eramango gaituzte. Zera, Bestearen presentzia munduan ezin ondoriozta daiteke analitikoki Beste-subjektuaren niganako presentziatik, jatorrizko presentzia hori transzendentea baita, hau da, munduaz-haragoko-izatea. **Uste nuen Bestea presente zegoela gelan, baina nahastuta nengoen: ez zegoen hor, “absente” zegoen.** Eta zer da, bada, *absentzia*? [337]

Aurretik ezin asmatu hori da Kafka baten jainua *Prozesuan* eta *Gazteluan* deskribatzen saiatzen dena: **nolabait ere, K.-k eta lur-neurtzaileak egiten duten guztia berez beraiei dagokie eta, munduan eragiten duten heinean, emaitzak bat datoz erabat beraien aurreikuspenekin: ekintza osoak dira. Baina, aldi berean, ekintza horien *egiak* ihes egiten die etengabe; printzipioz zentzu bat dute, euren *egiazko zentzua*, baina K.-k eta lur-neurtzaileak ez dutena inoiz ezagutuko.** Zalantzarik gabe, Kafkak horrekin dibinotasunaren transzendentzia erdietsi nahi du [...] Baina hor Jainkoa ez da Bestearen kontzeptua muturreraino eramana besterik. Itzuliko gara. [324]

#### 4.4. Fikzioaren hizkuntza erregistroa: situazioaren gutxieneko konposizioa

Hizkuntza erregistroari gagozkiolarik, fikziozkotzat jotzen dugun enuntziatua, zehazki, egoera edota gertakizun bat kontatzen edo aurkezten duena da. Atal honetan bereziki gertakizunari buruz jardungo dugu. Lehen begiratuan, zilegi da pentsatzea gertakizun-tankera duen enuntziatua gertuago dagoela hizkuntza erregistro literariotik xede espekulatiboa ohi duen argudio teorikotik baino; nahiz eta pentsatzen ere dugun, Sartrearen tratatuan, teorikoa berau, printzipioz, idaztanka literario eta narratiboak ere helburu teoriko batekin jokatu behar duela, aldez edo moldez.

Atal honetan, hizkuntzaren erregistro narratiboa fikzio-irizpidetzat ulertuko dugu, eta ez erregistro desberdinen talkaren ildotik. Erregistro narratiboari erreparatzeko, arreta ipiniko dugu bereziki kontakizunaren edo egoeraren konposizioan, eta ez hainbeste narratzailean (jardun baitugu gorago fikzioaren enuntziatzaileaz). Kontakizuna giza-situazio bat da gutxieneko hiru elementu biltzen dituen: gertakizuna, horrek inplikatzend(it)uen subjektua(k) eta horrek hartzen duen eremua edo espazioa. Horiek atzemateko, diskurtsoak ematen dituen giza-egoerei eta elementu ostentsiboiei erreparatu behar zaie.

Nolanahi ere, diskurtsoan, fikziozko situazioa definitzen eta bermatzen duena ez da ekintza, egoera, eremu, subjektu-pertsonaia eta objektu-gauza baten presentzia isolatu hutsa. 4. irizpide honi jarraikiz, fikzioari ‘situazio’ deritzogu, eta, beraz, situazioaren gutxieneko hiru elementuak derrigorrez agertu behar dira. Horren arabera, giza-egoera baten (adib. *lotsa*, *beldurra*, *ihesa*, *begirada*) aipamen soila ez dugu joko situaziotzat, baldin eta horrekin ez bada adierazten *lotsa*, *beldur*, *ihes* eta *begirada* hori subjektu batek nonbait edo norbaiten aurrean duela, hots, baldin eta hori ez bada situazio oso bat.

Ildo beretik, subjektua aipatze hutsa (adib. *Ni*, *Beste*, *gizon*), ikusi dugunez, tratatuak ikergai duen kontzeptua izan daiteke besterik gabe, alegia, *kontzientzia*, *nia*, *nitasuna*, *bere baitarako izatea* eta abar, baina kontzeptua ezin ulertu delarik *NI-pertsonaia* baten iragazitik aurkeztutakoa bezala. Eta berdin objektu bat aipatzen duen edota espazio bati erreferentzia egiten dion enuntziatuari buruz; zera, ez da situazioa izango, demagun, ‘aulki’ izenaren aipu hutsa, gertakizunik ez badakar; adibidez (*EN*: 311): “Baina pertzepzio horrek [...] ezin duenez igorri ez mota bereko agerpen-segida infinitu batera –egiten duen bezala, idealismoarentzat, **mahaiaren** edota **aulkiaren** pertzepzioak [...]”.

#### 4.4.1. Situazioaren gertakizun nagusia

Oro har, kontatzen den gertakizuna edo aurkezten den egoera ez da larregi zehazten edo osatzen. Irudi dezake ekintza bukatu gabea kontatzen dela edo kontaketa baten hasiera baino ez dela ematen, nonbait helburu nagusia situazio konkretu bat aurkeztea balitz bezala, ondoren kontzeptu teorikoak situazio horretan kokatzeko eta nolabait irudiz ilustratzeko, eta ez hainbeste, ordea, situazioa bera. Horrela, situazioaren progresioari dagokionez, situazioak gertakizun bakarra izan ohi du eta, situazio berean une bat baino gehiago bereiz daitezkeenean ere, gertakizun bakarraren tankera hartzen du.

[**1. unea**] Atzera egin dut [...] Horra atetik hamabost pausora nagoela [...] [**2. unea**] Baina Bestea bila datorkit [...] [328]

[**1. unea**] Hara non nagoen sarraila-zuloan [...] [**2. unea**] Bat-batean oin-hotsak entzun ditut [...] [336]

[**1. unea**] Mintzo garen bitartean [...] [**2. unea**] Ordea, baieztatu nahi badut nire gogoeta ondo ulertu dela [...] [341]

[**1. unea**] Soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean [...] [**2. unea**] Baina hara non fusila zulora bota duen eta babesean jarri den [...] [356]

Dena den, situazioa progresioduna izan edo ez, hau da, hainbat gertakizun-une bereizi ahal izan arren, gerta liteke horietan guztietan situazioa bakarra izatea. Funtsean, fikzioa ulertu behar da situazio-gertakizun konkretu bakar eta osotzat. Eta, beraz, ez da horren salbuespena ikerketa-corpuseko *Sarrailaren* adibide luze eta ezaguna, nahiz eta hor situazio berbera hainbat unetan banatu ez ezik (goiko lau adibideetan bezala) zatitu edo ebaki ere egiten den zeharo eta une horiek situazioaren une autonomotzat aurkezten diren, une batetik bestera kontzeptu teorikoaren garapena tarte luzea hartuz.

Imajina dezagun [**1. unea**] heldu naizela, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zuloatik begiratzera [...] [317]

[*TEORIA*]

Eta hara non [**2. unea**] entzun ditudan oin-hotsak korridorean: begirutzen didate [...] [318]

[*TEORIA*]

Baina gerta daiteke [3. *unea*] [...]: hara non nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau: norbaitek ikusi nau. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa: alerta faltsua zen. Arnasa hartu dut. [336]

[TEORIA]

Besterik gertatzen da, esaterako, situazio bikoitza eta hirukoitza erakusten duten zenbait adibidetan. Horietan dagoena ez da situazio beraren progresioa uneka, baizik eta hainbat situazio desberdin kateatuta. Ordea, desberdinak izan arren situazioak, eta bakoitza gertakizun autonomotzat har daitekeen arren, guztiak elkarren parekotzat aurkezten dira enumerazio gisa, teoriaren aspektu jakin, bakar eta beraren inguruan baitihardute. Horrelakoetan, pertsonaia, espazio eta objektu zeharo ezberdinak agertzen badira ere elkarren segidan, bakarra den gertakizun bakar baten kariaz agertzen dira guztiak.

[1. *situazioa*] Nigana etortzen ikusten dudan emakume hori, [2. *situazioa*] kaletik doan gizon hori, [3. *situazioa*] nire leihotik kantatzen aditzen dudan eskale hori niretzat objektuak dira, hori ez da zalantzazkoa. [310]

[1. *situazioa*] Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek saihesteko begiradatzat hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena muino baten gainean. [...] [2. *situazioa*] Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. [315]

[1. *situazioa*] Baserri hori mendi-kaskoan, miliziako soldaduei begira dirudiena, ziurra da etsaiak okupatu duela, baina ez da ziurra soldadu etsaiek une honetan leihotatik zelatatzea. [2. *situazioa*] Gizon horrek, bere oin-hotsa entzun baitut atzean, ez da ziurra berak niri begiratzea, aurpegia biratuta eduki dezake, eta begirada lurrean edo liburu batean finkatuta; eta azkenik, modu orokor batean, [3. *situazioa*] nigan finkatuta dauden begiak, ez da ziurra begiak izatea, izan daitezke benetako begien “antzera eginak”. [335]

[1. *situazioa*] Uste izan dezaket Anny dela nigana datorrena bidean eta deskubritu pertsona ezezagun bat dela: horrekin ez da aldatzen Annyren funtsezko presentzia niretzat. [2. *situazioa*] Uste izan dezaket gizon bat dagoela nire zelatan ilunpean eta deskubritu zuhaitz-enbor bat dela gizakitzat hartzen nuena: horrekin ez da aldatzen nire funtsezko presentzia gizaki guztientzat eta gizaki guztiena niretzat. [339-340]

Enumerazio horiek, funtsean, situazio bakartzat har daitezke ikuspegi teoriko batetik hurbiltzen bagatzaizkie. Izan ere, fikziozko situazio bikoitzak zein hirukoitzak



proposizio bakar batean biltzeko, samurrena kontzeptuak baliatzea da, era horretan aiseago bil baitaitezke, esate baterako, situazio-segida berean aipatzen diren elementu ostentsibo desberdinak (adib. *sasitza* eta *baserria*; *oin-hotsak* eta *begiak*) edota subjektu singularra eta plurala (adib. *soldaduak* eta *ni*; *gizon horrek* eta *etsaiak*).

**1. situazio-katea:**

*Nik Bestea ikusten eta entzuten dut eta Beste-Objektutzat hartzen dut printzipioz.*

**2. situazio-katea:**

*Niri begiratzen didan Besteak ez du zertan izan Beste-Objektu presente bat.*

**3. situazio-katea:**

*Ez da ziurra Nik ikusten dudan Beste-Objektuak Niri begiratzen didanik.*

**4. situazio-katea:**

*Niretzat Beste-subjektua jatorrizko presentzia da, ez Objektuzko presentzia.*

Horrela, fikziozko situazio-gertakizunak diskurtsoan inplikazio teoriko zuzena du, nahiz eta tankera literarioa edota kontakizunezkoa hartzen duen eta, fikzioaren malgutasuna tarteko, horrek kontzeptu teorikoa hainbat modutara azaltzeko bide ematen duen. Begiradaren fenomenoaren inguruan, berau ikerketa-corpuseko ikergai behinena, diskurtsoak behin eta berriro hartzen du hizpide *Izatearen* subjektutasunaren eta objektutasunaren auzia, eta dialektika horren deskribapenaren baitan ulertu behar dira situazioen arteko ñabardura guztiak. Nolabait esateko, situazio-gertakizun orok begirada hartzen du plataforma nagusitzat eta gertakizun bakoitzak ordain teoriko zehatza dauka.

Halere, badira hainbat situazio non, lehen begiratuan, antza, gertakizunak ez duen lotura zuzenik begiradarekin, edo areago, non zerikusirik batere ez duen (adib. etsaien ihesi doan soldadua adibidea). Ordea, situazio horiek ere begiradaren teoriari lotzen zaizkio, zalantzarik gabe, baina beste maila batean, ez zuzenean. Situazio horiek irudiak dira. Horri hurrengo kapituluan helduko diogu. Labur esateko, kontua da kontzeptu teorikoa tratatuan irudi-bidez garatzen dela eta, hortaz, kontzeptua puntualki fikzio-bidez adierazten den bezalaxe, bada, irudia bera ere puntualki fikzio-bidez ematen da.

#### 4.4.2. Gertakizunaren subjektua

Situazioaren gertakizunak askotariko subjektuak inplika ditzake. Subjektua izan daiteke, adibidez, pertsonaia historikoa (*EN*: 337): “Baina ez nuke esango, haatik, apartamentu horretan absente direnik **Aga Khan** eta **Marokoko Sultana**, eta bai, ordea, bertan egon ohi den Pierre ordu laurdenez absente dagoela”; edota izan daiteke obra jakin baten pertsonaia (*EN*: 324): “Aurretik ezin asmatu hori da Kafka baten jeinua *Prozesuan* eta *Gazteluan* deskribatzen saiatzen dena: nolabait ere, **K.-k** eta **lur-neurtzaileak** egiten duten guztia [...]”; (*EN*: 339): “**Swann-en** eta **Guermantes-ko dukesaren** bat-bateko presentzia da espazio “hodologiko” hori zabaltzen uzten duena [...]”.

Bestalde, tratatuan zehar badago adibiderik (ez zehazki ikerketa-corpus honetan) non eta autore jakin bat ez den hartzen autoretzat baizik eta pertsonaia historikotzat, eta non situazio jakin batean aipatzen den (*EN*: 45): “Baina ondoren erraz egiten dituzkedian juizioak esanahi abstraktuak dira, esaterako, **Wellington** ez dago kafetegian, ezta **Paul Valéry** ere, eta abar”. Esan gabe doa autoreen erreferentziak (adib. Descartes, Kant, Husserl, Kafka etab.) ez direla ulertu behar fikziozkotasunaren parte bezala edo situazio baten barruan, bai baitakigu horiek erregistro teorikoari dagozkion iturriak direla.

Horiez aparte, diskurtsoak sortutako pertsonaiak askotarikoak dira. Maizenik agertzen dira pertsona-izenak (adib. *Anny, Teresa, René, Lucien, Jeanne, Paul* eta *Pierre*), izen orokorrak (adib. *gizon, pertsona, emakume, jende, begi, gorputz*) eta izen arruntak (adib. *ibiltari, oinezko, itsu, etsai, arrotz, atzerritar, europar, lehengusu, senar, funtzionario, sendagile, soldadu, zelatari, paristar, aleman, eskale* eta *frantses*); nahiz eta tarteka agertzen ere diren, esaterako, erlijioari dagozkion izenak (adib. *Adam, Eva* eta *Jainko*) edo bestelakoak (adib. *mamu, munstro, armada, desfile, milizia* eta *elkargo*).

Gainerakoan, eta eskuarki, *NI* eta *BESTE* izenordainak dira kontzeptuak adierazteko situazioen ‘pertsonaia’ nagusiak. Ikerketa-corpustzat hartu dugun testuaren aztergaiak halaxe agintzen duenez, aurkezten den situazioa, oro har, begiratzearekin eta begiratua izatearekin du zerikusia eta, beraz, bi termino eskatzen ditu: begiratzailea eta begiratua. Tratatuaren atal horretan, beraz, *Nia* eta *Bestea* kontzeptu teorikoak zehazki begiradabitartez deskribatzen dira; baina hori, sarritan, subjektuak asmatu barik, urrutira gabe, *NI* eta *BESTE* subjektuen bidez gauzatzen da, pertsonaia-kutsua hartzen dutenak.

[*Nik*] Uste nuen **Bestea** presente zegoela gelan, baina nahastuta nengoen: ez zegoen hor, “absente” zegoen. [337]

Hala eta guztiz, batzuetan gertatzen da 3. pertsonak bi termino horiek edota horietako bat ordezkatzea. Halatan, *NI* eta *BESTE* izan daitezke, besteak beste, Paul, gizon anonimo bat edota soldadu-talde bat. Horiekin zehazki *subjektutasuna* eta *objektutasuna* kontzeptuak nabarmendu nahi dira; beraz, izenek ere balio dute. Oro har, enunziatu batean bietako bakarra ordezkatzen denean, hori *Bestea* izan ohi da (*NI* bere horretan gelditzen da sarriago). Baina, aipatu bezala, biak ordezka ditzake izen arrunt zein berezi batek. Haatik, subjektu-pertsonaia horien deskribapen zehatzik ez dago, lausoak dira.

Oro har eta maizenik, beraz, *Nia* eta *Bestea* kontzeptu teorikoen subjektutasuna eta objektutasuna, alde batetik, izen arrunt batek ordezka ditzake:

Eraso batean, sasitzan herrestan doazen **soldaduek** [=*Nik*] *saihesteko begiradatzat* hartu dute [*dut*] ez **bi begi** [=*Bestea*] baizik eta **baserri zuri** [=*Objektu*] oso bat [...] [315]

**Baserri** [=*Objektu*] hori mendi-kaskoan, **miliziako soldaduei** [=*Niri*] begira dirudiena, zurrak da **etsaiak** [=*Besteak*] okupatu duela, baina ez da zurrak **soldadu etsaiek** [=*Besteak*] une honetan leihotatik zelatatzea. [335]

[*Nik*] Ezagutzen ez dudak eta metroan irakurtzen dagoen **gizon horren** [=*Bestearen*] inguruan mundua oso-osorik dago [*Niretzat*] presente. [354]

Beste alde batetik, aipatu dugunez, kontzeptu horiek izen berezi batek ordezka ditzake:

Egia bada **Pierrek** [=*Besteak*], nire aurrean irakurtzen, objektibotasun partikular bat ematen diola bere aldera biratzen den **liburu-azalari** [=*Objektuari*], printzipioz nik ere ikus dezakedan **liburu-azal** [=*Objektu*] bat da. [331]

**Pierre** [=*Ni*] **beste gizaki batzuentzat** [=*Bestearentzat*] dago [*nago*] absente. Absentzia da **Pierrek** [=*Nik*] **Teresarentzat** [=*Bestearentzat*] duen [*dudan*] izateko modu konkretu bat: giza errealitateen arteko lotura da, ez giza errealitatearen eta munduaren artekoa. **Teresarentzat** [=*Bestearentzat*] dago [*nago*] **Pierre** [=*Ni*] absente *leku horretan*. [338]

#### 4.4.3. Gertakizunaren espazioa

Zehatzak izaten ez diren bezala, batetik, situazioaren gertakizuna (berau, sarritan, gertakizun bezala baino gehiago, progresiorik gabeko egoera ‘izoztu’ bezala aurkeztua baita) eta, bestetik, gertakizunaren subjektua (berau, sarritan, izenordain edota izen soil batek adierazia baita), situazioaren espazioa ere lausoa da. Batzuetan eremu konketuak aipatzen dira, baina horietan ere azken helburua situazioaren lokalizazioa adieraztea da, hau da, gertakizunari gutxieneko espazialtasuna ematea, eta ez hainbeste leku hori deskribatzea edo ezaugarritzatzea.

Hainbat modutara adieraz daiteke situazioak hartzen duen lekua. Maizenik, eremua adierazten duena izen arrunta da (adib. *apartamendu, auditorio, baserri, bazkari, belar, bide, borroka-plaza, etorbide, etxe, ezkutaleku, gela, horizonte, ilunpe, irla, irundegi, jendaurre, kale, kamera iluna, korridore, lorategi, lur, mendi-kasko, metro ‘garraioa’, muino, paseo, zelai, zoko*). Areago, objektu konketua aipatzea nahikoa da gertakizuna eta subjektua espazioan kokatzeko (adib. *ate, estatua, eskailera, horma, leiho, sarraila-zulo, sasi* eta *sasitza*). Adibidez, (EN: 310): “Nire **leihotik** kantatzen aditzen dudan eskale hori [...]”; (EN: 311): “hara non **zelai** bat eta, **zelai** horretan zehar, **aulkiak**”.

Baina, batzuetan, espazio geografiko jakin bati egiten zaio erreferentzia (ikerketakorpus honetan zehazki aipatzen direnen artean, *Amerika, Indiak, Paris, London, Maroko* eta *Frantzia* izen bereziak eta *nazio, hiri* eta *eskualde* izen arruntak). Eta, beste batzuetan, espazio orokor bat aipatzen da (adib. *unibertso, mundu* eta *leku*). Bestalde, distantziari erreferentzia egiten dioten neurriek ere, zalantzarik gabe, espazialtasuna adierazten dute (adib. *pauso, urrats* eta *metro*). Adibidez, (EN: 313): “gizona hor dago, nigandik hoge **pausora**, bizkarra ematen dit [...] zela **2,20 metrora** dago”.

Espazio fisikoaren erreferentziarik ez dagoenean, zenbaitetan, aditzondo soil batek sala dezake situazioaren espazialtasuna (adib. *urrun, hurbil, inguruan, ondoan, hor*): (EN: 356): “Ihesi doan soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren **aurrean** [...]”; (EN: 358): “Beste-objektua tresna lehergarria da eta tentuz maneiatzen dut, bere **inguruan** etengabeko posibilitatea sentitzen baitut [...]”. Eta baita erakusle ezohiko batek eta norantza adierazten duen aditzlagun batek ere. Adibidez, (EN: 310):

“**Nigana** etortzen ikusten dudan emakume **horrek** [...]”; (EN: 336): “Bestearen begiek **nigana** egitea”; (EN: 340): “milioika begiradapean eta **nigandik** ihesi”.

#### 4.4.4. Situazioaren beste elementu batzuk

Aipatzekoa da situazio jakin batean agertzen diren bestelako objektuak, hots, elementu ostentsiboak esaten diegunak, ez direla izaten aurkeztu situazioaren apaingarriak edo ken daitezkeenak; zuzenean dagozkio situazioari. Objektuen presentzia diskurtsoan ekonomikoa da eta, beraz, elementu horiek ulertu behar dira eszenan jarri nahi den egoeraren gutxieneko elementuak bezala, dela lekua adierazteko (adib. *leihoa*, arestian aipatu bezala), dela subjektutasuna edota objektutasuna adierazteko (adib. guri begira dirudien *baserria* edo gizakitizat jo dugun *oin-hotsa*, *enborra* etab.), dela gertakizunaren eskakizuna delako (adib. ihesi doan soldaduaren *fusila*).

Horren salbuespen gisa, aipa daiteke han-hemenka badaudela kontzeptuaren azalpena bermatzeko soberakoak diruditen elementuak ere, antza denez, arrazoi estilistikoari obeditzen diotenak. Horiek izan daitezke espazioari dagozkionak (EN: 313): “Bestearen eta etorbidea inguratzen duten gaztainondo **handien** artean”; gertakizunari dagozkionak (EN: 315): “Eraso batean, sasitzan **herrestan** doazen soldaduek”; edota subjektuari dagozkionak (EN: 335): “Nigana jauzika datorren oinezko **gizen eta itsusi** horrek”.

Esanak esan, testuan elementu ostentsiboak identifikatze hutsak (bistakoak dira, gainera, diskurtso teoriko batean ezohikoak direnez gero), situazioak identifikatzera garamatza sarritan. Ondoren, kasuan kasu zehaztu daiteke objektu konkretua gertakizunari, subjektuari edota espazioari lotzen zaion. Ikerketa-corpuseko objektu konkretuen zerrenda luzea da: *adaxka, aizto, argazki-tresna, arma, atomo, atzamar, aulki, aurpegi, buru, bihotza, belarri, edalontzi, kutxa, liburu, mahai, mailu, makina, esku, eskuargi, enbor, erloju, eraztun, esfera, esfigmografo, estatua, estetoskopio, fonografo, fusil, gaztainondo, gortina, gutun, harri, poltsa, ile, ispilu, karta, marmol, metroko linea, nortasun agiri, odol, oihal, panel, panpina, patrika, pelikula ‘argazkigintzako’, prefekturako zerrenda, posta, robot, tabako, tinta, tintontzi, txirrina elektriko, xukagarri, zelai, zerra, zigilu, zizeilu, zuhaitz eta zuhaixka*.

Jakina, objektu horiek guztiak betiere ‘giza-espazio’ batean kokatuta ulertzen dira eta, beraz, diskurtsoan agertzen den beste hainbat elementu ere, zehazki objektuak ez izan

arren, multzo berean sartu behar dira, giza errealitatetik mailegatzen baitira, esate baterako, *ahots, alerta, amets, argi, arnasa, elkarrizketa, espektakulu, euri, garrasi, haize, italiara, itzal, konferentzia, korrika, lanbide, leherketa, hotzikara, kraska* ‘*egurrezko eskaileretakoa*’, *meza, nederlandera, oin-hots, ostia, soinu, zama, eta zauri*.

Horietako batzuk, arestian aipatu bezala, subjektuari dagozkio (adib. gizakitzat hartzen dudan entzundako *ahotsa*), edo espazioari (adib. jendaurrean ematen dudan *konferentzia*), edo gertakizunari (adib. *garrasia* eta *elkarrizketa*). Horrez gain, gertakizunaz den bezainbatean, aipatzekoak dira giza-jarrerei dagozkien terminoak. Gehien agertzen direnak, bistakoa denez, begiradaren fenomenoari dagozkionak dira, testuaren ikergaia horixe baita; baina agertzen dira beste batzuk ere, adibidez, *alienazioa, lotsa, haserrea, beldurra, ihesa* eta *mesfidantza*; edota konketuagoak, esaterako, ‘*etxean gelditu*’, ‘*jauzika ibili*’ etab. Giza-jarrera horiek situaziotzat joko ditugu espazioa eta subjektua ere nolabait adierazten duten heinean.

## 5. KAPITULUA

### 5. Testu-mailako fikziozkotasuna

#### 5.1. Fikzio-bidezko eta irudi-bidezko kontzeptu teorikoa

##### 5.1.1. Kontzeptu teorikoa adierazteko bide nagusiak

Tratatuan fikzioak eta irudiak kontzeptu teorikoaren bisualizazioa dakarte. Baina bisualizazio hori modu desberdinean gauzatzen dute batak eta besteak. Orain arte eutsi diogunez, fikziozkotasuna enuntziatio-irizpideek definitzen dute, zera, fikzioa funtsean fenomeno diskurtsiboa da. Beraz, testuari erreparatzen badiogu, kontzeptu teorikoa fikzio-bidez adieraz daiteke edo ez. Ikusi dugunez, fikzioa puntualki baliatzen da.

Ordea, irudiak oinarrian kontzeptu teorikoaren eskematizazioari obeditzen dio, fikzioa baliatu edo ez baliatu, eta ez enuntziatzeko moduari. Hala, kontua da kontzeptu-eskematizazio hori, alegia, irudi-bidez ematen dena, ostera ere fikzio-bidez enuntzia daitekeela edo ez. Hala, alde batetik, kontzeptua bi modutara ematen da (dela dagoen-dagoenean dela iruditan); eta, beste alde batetik, horietako bakoitza diskurtsiboki fikzioa izan daiteke edo ez.

*5.1.1.a eskema: Kontzeptu teorikoa adierazteko lau bide nagusiak*

*Kontzeptu teorikoa dagoen-dagoenean*

*1) Fikziorik gabeko enuntziatua*

*2) Fikzio-bidezko enuntziatua*

*Irudi-bidezko kontzeptu teorikoa*

*3) Fikziorik gabeko enuntziatua*


*4) Fikzio-bidezko enuntziatua*

Ikerketa-corpusean bi kontzeptu teoriko nagusi nabarmen daitezke: alde batetik, Izatearen *subjektutasuna*; eta, beste alde batetik, Izatearen *objektutasuna*. Bi kontzeptu horien dialektika Izatearen *bestetasun* kontzeptuaren iragazitik deskribatzen eta garatzen da “3.1.4. Begirada” kapituluan; nolabait esateko, *bestetasuna* deskribapen horrek leku hartzen duen plataforma moduko bat balitz bezala. Eta bestelako kontzeptuak ere (adib. *ezereza* eta *faktikotasuna*) garapen kontzeptual nagusi horri lotzen zaizkio kapituluan.

Zalantzarik gabe, kapituluaren izenburua ‘Bestetasuna’ ere izan zitekeen. Ordea, bistakoa denez, ‘begirada’ adigaiak kutsu birtual nabarmena ematen dio kontzeptuaren deskribapenari eta ahalbidetzen du kontzeptuaren eszenan jartzea, izan ere, adigai soilak jada gutxienerako espazialtasuna ematen dio kontzeptu nagusien azalpenari eta, gainera, zubia da kontzeptuaren abstraktutasunaren eta giza existentziaren konkretutasunaren artean. Nolabait esateko, Izatearen *subjektutasuna* eta *objektutasuna* begiradaren fenomenoaren bitartez deskribatzeak *bizitza* eta *errealitatea* ematen die kontzeptuei.

*Izatearen bestetasun* kontzeptuak eskatzen duenez, Izatea bitan banatzen da, halaberharrez: *NI* eta *BESTE*A. Eta begiradari gagozkiola, beraz, bi horiek izate begiratzaileri eta izate begiratuari egiten diete erreferentzia. Horri jarraikiz, testuan lau kontzeptu bereizten dira modu simetrikoan:

5.1.1.b eskema: *Bestetasun kontzeptu teoriko nagusiaren banaketa*



Lau kontzeptu horiek erlazioan jartzen dira testuan eta, hain zuzen ere, erlazio hori da kapituluaren deskribatzen dena. 5.1.1.a eskemaren arabera, lau modutara adierazten da kontzeptu teorikoaren garapen hori. Nagusiki, kontzeptu teorikoa dagoen-dagoenean adierazten da, hau da, 5.1.1.b eskemako lau kontzeptu abstraktuak esplizituki aipatuz. Baina, ikerketan zehar ikusi dugunez, kontzeptu horiek adierazteko, diskurtsoak fikzioa balia dezake eta, kontzeptu horien ordeztu, elementu ostentsiboak eta situazio konkretuak baliatu. Ikusi dugu horrek enuntziatuan aztarnak uzten dituela, adibidez, *Ni-subjektua* ‘Pierre’ izan daiteke eta *Beste-subjektua* ‘soldadu-etsai’ bat.

Bada, irudia denaz bezainbatean, gauza bera gertatzen da. Esan nahi baita, iruditan ematen den kontzeptua edo, hobeto esateko, lau kontzeptuen arteko erlazioa eta igorpena (demagun *ihesa*, hau da, *Ni-subjektuaren* eta *Ni-objektuaren* ezin bateratua suposatzen duena), alde batetik, irudiaren aipu hutsean gera daiteke eta dauden-



daudenean eman (adib. *bere baitarako izatearen ihesa*); eta, beste alde batetik, *ihes* hori, esaterako, situazio konkretu batean deskriba daiteke (adib. soldaduak etsaiari ihes egitea). Hel diezaiozun gertuagotik irudi-bidezko kontzeptuaren eskematizazioari.

### 5.1.2. Irudi-bidezko kontzeptu teorikoaren eskematizazioa

Irudiaren errekurtsua tratatua ez da ulertu behar teoriaren aspektu jakin baten apaingarri edo kanpoko zerbait bezala. Alderantziz, teoria irudi-bidez ematen da. Batera doa, beraz, irudiaren erabilera teoriaren garapenarekin. Nolabait esateko, fikzioa tresna diskurtsiboa den bitartean, irudia kontzeptuak erlazioan ulertzeko tresna logikoa da. Baina testuaren ‘trama figuratiboa’ edo ‘irudi-sarea’ dei daitekeena ez da irudi-zerrenda lineal eta ordenatu bat, izan ere, testuan aurrera eta atzera eginez, kontzeptu teorikoak bezalaxe, eten gabe hartu eta berrartu egiten dira irudien eskema berberak.

Halatan, tratatuak irudi-eskema logiko mugatu bat dauka. Irudi horiek guztiek eskema nagusi bati obeditzen diote:

#### ***Izatearen Osotasuna ↔ Izatearen Osagabetasuna***

Ikerketa honen alde teorikoan aipatu dugunez, Izateak osotasunerantz jotzen du baina halabeharrez da betiro Izate osagabea. *Bestetasunak*, genioen, Izatearen hirugarren eta azken diaspora [*sic*] azaltzen du. Bi tasun horien dialektikak eratzen du tratatuaren teoria atalez atal. Hala, eskema nagusi horren kontu emateko, testuak hainbat irudi baliatzen ditu aldian-aldian. Irudi horien bitartez, teoriaren atal desberdinak esplikatzen dira obran zehar eta Izatearen teoria nagusia azaltzen da. Haatik, aipatzekoa da ere, batzuetan, teoriaren aspektu jakin bat azaltzeko, irudi-eskema bat baino gehiago baliatzen dela, testuan printzipioz erredundantzia horren beharrik izan gabe.

Baina, edozein kasutan, zehazki corpus kapitulu honi dagokionez, testuaren trama figuratiboa, funtsean, elkarren osagarri diren bi eskema nagusitan sailka daiteke: alde batetik, *Izatearen* suntsipenari eta hondamendiari dagozkion irudiek adierazten dutena (*Niaren* ‘ihesa’ eta ‘isuria’, nagusiki); eta, beste alde batetik, suntsipen horrek *Niaren* izateari dakarkion mehatxuari eta arriskuari dagozkionak (*Bestearen* ‘alienazioa’, nagusiki). Bi irudi-eskema horiek Izatearen halabeharrezko osagabetasunari dagozkio: Izateak bere osagabetasunaren kontzientzia hartzen du. Lot ditzagun irudi-eskema horiek begiradarekin eta testuko ‘bestetasun’ kontzeptuarekin.

Lehenengo irudi-eskemari dagokionez, *ihesa* eta *isuria* zera dira, *Ni-begiratuak* (hots, *Ni-objektuak*) bere izatean bizi duen *ez-izatea* eta *ezereza* (*Nia* orduan ez baita bere baitarakoa; *ezereza* lerratzen da *Ni-subjektuaren* eta *Ni-objektuaren* artean). Begirada gertatzen denean, *Ni-begiratu* Bestearen objektu hutsa da eta erabat Bestearen menpeko. Bestalde, *ihesa* eta *isuria* irudi nagusiak sarri bestelako irudi batzuekin batera agertzen dira, hala nola, *Izatearen* (beraz, *Niaren* edo, besterik gabe, *Niaren* munduaren) desintegratzea, transformazioa, metamorfosia, deszentralizazioa, desegitea, degradazioa, jauzia, galera, heriotza, desitsastea, suntsipena, desagertzea, disoluzioa, pitzadura, artesia, hemorragia, husketa eta jariadura. Horra adibide batzuk:

Gauzen atzeko plano baten modukoa da, niri printzipioz **ihes egiten didana** eta gauzei kanpotik ematen zaiena. Horrela, *nire* unibertsoko objektuen artean, unibertso hori **desintegratzen** datorren elementu bat agertzeari, horri esaten diot gizaki *bat* agertzea *nire* unibertsoan. [312]

Baina, arestian, **barne-hemorragia** deitu ahal izan diogu *nire* mundua Beste-objektuarenganantz **isurtzeari**; orduan, hain zuzen, **odolustea** tinkatuta eta lokalizatuta zegoen, Beste hori *nire* munduko objektu gisa finkatzen bainuen, eta mundu hori bere aldetik **husten** zen. [319]

Bigarren irudi-eskemari dagokionez, *Ni-begiratuak*, bere izatea *Bestearena* izaki, alienazio eta arrisku gisa bizi du *ihes* egiten dion eta *isurtzen* zaion izatea: bere *Nia Bestearena* da. Hala, lehen irudi-eskemaren arabera, *Ni-begiratuari* izatea ‘desagertu’ eta ‘galdu’ egiten zaio: osagabetasunaren eskema hor modu pasiboan ulertu behar da. Ordea, bigarren eskema-multzoaren arabera, *Beste-begiratzailleak* (hots, *Beste-subjektuak*) ‘galarazi’ egiten dio *Niari* bere izatea, eta beraz, mugatu egiten du, ‘esklabo’ bihurtzen, ‘jokoz kanpo’ uzten, ‘lapurtzen’. Bigarren eskeman, osagabetasuna aktiboa da, Izateari kanpotik (*Bestearengandik*) eragina. Horra adibide batzuk:

Hala, ikusia izateak bihurtzen nau **defentsarik gabeko** izate bat nirea ez den askatasun batentzat. Zentzu horretan kontsidera gaitezke “**esklabo**”, hau da, Besteari agertzen gatzazkion heinean. [326]

Horrela, begiradan, *nire* posibilitateen **suntsipenak** Bestearen askatasuna biziarazten dit eta askatasun horren baitan bakarrik gertatzen da; eta ni, neuk atzeman ezin eta haatik neu naizen hori, **jaurtia** eta **utzia** naiz Bestearen askatasunaren barruan. [330]

Izan ere, beste ezerk **ezin nau mugatu** ezpada Besteak. Modu horretan agertzen da, beraz, bere askatasun osoz eta bere posibleetarako proiektzio askean, **jokoz kanpo ezartzen nauena** bezala eta nire transzendentzia **ebasten didana** bezala [347]

### 5.1.3. Fikzioa irudi-bidezko kontzeptu teorikoan

Irudia eta fikzioa batera joan daitezke kontzeptu teorikoa azaltzeko orduan, baina ez du zertan horrela izan. Irudi oro ez da fikziora lerratzen. Irudiaren aipamen hutsa ez da fikziotzat ulertu behar (Izatearen *desintegrazioa*, *desitxuratzea*, *galera*, etab.), irudi hori ez bada ‘situazio’ batean ezartzen den egoera edo ekintza jakin bat eta elementu ostentsibo konkretuak dakartzana; nahiz eta aitortu behar den irudiak kontzeptuari nolabaiteko gorpuzkera ere ematen diola eta testuan jomuga bisual garbia duela.

Horrela, giza egoeraren eta jarreraren inguruan genioen bezala (*lotsa*, *beldurra*, etab.), badirudi irudiak ere (demagun aurreko atalean zerrendatutako edozein: *desitsastea*, *suntsipena*, *esklabotza*, etab.) baduela bere baitan gutxieneko espazialtasunik eta eszena bat errepresentatzera ‘gobidatzen’ duela nolabait. Haatik, irudia ez dugu fikziozkotzat jotzen xede bisual bat duelako bakarrik, lehenago ere kontzeptua fikziozkotzat jotzen ez genuen bezala bakar bakarrik *NI* orokor baten ahotsetik adierazten zelako.

Beraz, enuntziatu bat fikziozkotzat jotzeko, beharrezkoa da diskurtsoan etendura enuntziatiboa gertatzea, ‘situazio’ kontzeptuari gorago aitortu dizkiogun gutxieneko elementuak agertzea (ekintza, subjektua eta espazioa) eta elementu ostentsiboen presentzia egotea. Beraz, horren arabera ez dira fikziozkotzat ulertu behar kontzeptu teorikoa irudi-bidez azaltzen duten enuntziatuak, soil-soilik irudia aipatzen baldin bada. Demagun, bada, fikzio ez diren hainbat irudiren adibidea:

- **Izatearen alienazioa:**

Baina presentzia hori, *niri* presente egiten zaidana, niretzat **alienatu** egiten da: nire presentzia orduan Bestea presente egiten zaion presentea da. [325]

- **Izatearen askapena:**

Besteari **ihes** egiten diot nire Ni **alienatua** bere eskuetan utziz. Baina nire burua Besteagandik **askatutzat** jotzen dudanez, nirea bezala hartzen eta onartzen dut Ni alienatu hori. Nire **askatzea** Besteagandik, hots, nire Ni-neu, bere oinarritzko egituran, Besteak ukatzen duen Nia *nirea* badela onartzea da. [345]

- **Izatearen degradazioa:**

Bestea presentzia **degradatu** gisa agertzen zait. Bestea eta ni, azken batean, bata bestearen existentziaren erantzuleak gara, baina hori gertatzen da bi ezeztapenen bitartez non ezin baitut bata jaso, une berean bestea ezkututzen ez badu. [348]

- **Izatearen desintegrazioa:**

Mundua **desintegratu** egiten da ostera ere harago munduan integratzeko, baina **desintegratze** hori ez da emana, ezin dut ez ezagutu ezta pentsatu ere egin. [331]

- **Izatearen desitsastea:**

Beharrezkoa da kontzientziak berak espontaneoki *ez-izate* hori izateko edukitzea, beharrezkoa da *Besteagandik* **askatzea** eta **desitsastea**, horretarako, ezerez bat bezala eratuz [...]. Bere baitarakoaren izateari dagokion **desitsaste** horrexek egiten du *Bestea* egotea. [343]

- **Izatearen galera:**

Zehazki esateko, kontua ez da nire askatasuna **galtzen** sentitzen dudala *gauza* bilakatzeko, baina hor dago, nire bizipenezko askatasunetik at, Bestearentzat naizen izate horren tasun emana bezala. [321]

- **Izatearen heriotza:**

Bestea nire posibilitateen **heriotza isila** da, eta **heriotza** hori bizi dut munduaren barruan ezkutatuta balego bezala. [323]

- **Izatearen ihesa:**

Erlazio horren funtsezko terminoa objektu-gizakia den heinean eta erlazio hori berarenganantz doan heinean, erlazio horrek **ihes** egiten dit, ezin naiz erdian kokatu. [312]

- **Izatearen isuria:**

Gizakia munduarekiko eta neurekiko definitzen da; unibertsoaren **barne-isuri** bat eragiten duen munduko objektu hori da, **barne-hemorragia** bat. [315]

- **Izatearen lapurketa:**

Horrela, bat-batean objektu bat agertu da **mundua ostu didana**. [313]

- **Izatearen jaurtitzea:**

Nire gizaki izatearen esperientzia, beste gizaki bizidun *guztientzat* objektu, **borroka-plazara jaurtia** milioika begiradapean eta nigandik ihesi milioika aldiz, konkretuki bizi dut *nire* unibertsoan objektu bat agertzen denean. [340]

- **Izatearen jauzia:**

Lotsa da jatorrizko **jauziaren** sentimendua, ez halako eta horrelako akatsa egin dukedalako, baizik eta munduan “**jauzi**” naizelako, gauzen artera, eta Bestearen bitartekotza behar dudalako naizena izateko. [349]

- **Izatearen lerratzea:**

Bestea munduan agertzea, beraz, unibertso osoaren **lerratze** finkatu bati dagokio, munduaren **deszentralizazio** bati, azpiak jaten dizkiona nik aldi berean burutzen dudana **zentralizazioari** [313]

- **Izatearen neutralizazioa:**

[Begiak] hor daude, nire pertzepzio-eremuan, *presentazio* hutsak dira, baina ez ditut baliatzen, **neutralizatuta** daude, **jokoz kanpo**, ez dira jada tesi baten objektu, “**zirkuitutik kanpo**” gelditzen dira. [316]

- **Izatearen suntsipena:**

Begirada atzeman beharrean begirada erakusten didaten objektuen *baitan*, niri zuzendutako begirada atzematen dut “begiratzen didaten” begien **suntsipenaren** planoan. [316]

- [...]

Ikuspegi diskurtsibo batetik, irudi-bidezko kontzeptua fikzio-bidez ere ematen dela ulertzeko, kontzeptu teorikoaren fikziozkotasunaren ezaugarri berberak bete behar ditu. Hala, genioenez, fikzioa dagoen unetik egon behar da, halaber, fikzio horren ardura hartzen duen enuntziatzailea (berau diskurtso nagusiarenetik desberdina), fikzioaren denborazkotasun propio bat, fikzioaren aurkezpena eta, hainbat elementu ostentsibo solte barik, gutxieneko gertakizun edota egoera baten kontaketa, hau da, situazioa.

Ikerketa-corpusean, irudi-eskema bat aurkezten den hainbat kasutan, fikziozko eszena baliatzen da. Horrelakoetan, fikzioa ematen da zehazki irudi-eskema jakin hori ondoren garatzeko edota, behin irudi-eskema aurkeztuta, eskema horren zehaztapenak egiteko. Sarritan elkarren segidan doaz, batetik, kontzeptu teorikoa irudi-bidez emana, eta bestetik, irudi hori fikzioz-bidez emana; edo alderantziz. Demagun hainbat adibide. Eta, adibide bakoitzaren aurretik, bihoa irudi-bidezko kontzeptua biltzen duen azalpen teorikoa:

- **Izatearen jabegoa:**

*Beste*-subjektuak deuseztu egiten du *Ni*-subjektuak bere izateaz duen jabegoa. Hein batean, *Niak* subjektu dirau (bere baitarako) baina ez dauka bere *Ni* osoa kontrolpean; ihes egiten dio.

***Irudia:*** Bestearen begiradarekin **situazioak ihes egiten dit** edo [...] *jada ez naiz situazioaren jaun eta jabe*. Zehazkiago esateko, oraindik banaiz **situazioaren jaun eta jabe**, baina dimentsio erreal bat dauka situazioak **niri hortik ihes egiten didana** eta bat-bateko aldaketek situazioa niri agertu ez bestelakoa *izatea* egiten dutena. [323]

***Fikzioa:*** Jakina, gerta daiteke nik ekintza bat burutzea bakardade hertsian eta ondorioak zeharo nire aurreikuspenen eta desiren kontrakoak izatea: **poliki erakarri dut taulatxoa ontzi hauskor hori nireganatzeko, baina mugimendu horren efektua da brontzezko estatua txiki bat botatzea eta ontzia mila zatitan txikitzea**. [324]

- **Izatearen alienazioa:**

*Ni*-objektua ez da *Ni*-subjektuaren objektu bat, baizik eta, guztiz bestela, *Beste*-subjektuaren objektua da. Beraz, *Nia* alienatuta gelditzen da bere izatearen kanpotik.

***Fikzioa:*** Besteak nire nortasunaren deskribapen bat egiten didanean, ni ez naiz deskribapen horretan ikusten eta, halere, badakit ni naizela. **Aurkeztu didaten arrotz hori berehala asumitu dut, berak arrotza izateari utzi gabe**. [333]

**Irudia:** Ni hori, ezin dena alderatu nik izateko dudan niarekin, ni naiz, baina inguru berri batek aldatua eta egokitua [...] Bestearentzako nire izatea **jauzi** bat da huts absolututik zehar objektibotasunerantz. Eta **jauzi** hori **alienazioa** denez, ni ezin naiz bihurtu nire baitarako objektu, nik ezin baitut inola ere nire burua **alienatu**. [333-334]

- **Izatearen muga:**

*Ni*-subjektuak ezin du *Ni*-objektua ezagutu, ez baita bere izateari dagokion zerbait, baizik eta *Beste*-subjektuarena da. Hurbilpenak egin ditzake izate hori inoiz ere atzeman gabe.

**Irudia:** Mugatzailearen aldetik, bada, **muga** hartzen da naukan eta inguratzen nauen edukitzat, ni **jokoz kanpo** uzten nauen eta osotasun gisa salbuesten nauen **hutsezko zakutzat**. Mugatuaren aldetik, berriz, **muga** ipseitatearen fenomenoarentzat da **limite matematikoa segidarentzat den modukoa**, bereganantz doa inoiz atzeman ezinik: izateko dudan izate guztia **bere limiteari zaio kurba asintota zuzen bati zaiona bezalakoa**. [346]

**Fikzioa:** Irudi on bat *ni* atzemateko ahaleginena eta horien alferrikako-tasunarena Poincarék aipatzen duen esferarena litzateke, alegia, tenperatura zentrotik azalera gutxiagotzen denekoa: **Izate bizidunak esferaren azalera heltzen saiatzen dira zentrotik abiatuta, baina tenperaturaren jaitsierak kontrakzio bat eragiten die etengabe handituz doana. Infinituki zapalak bihurtzera jotzen dute helburutik gerturatzen diren heinean eta, hori dela eta, distantzia infinitu batek bereizten ditu helburutik**. [346-347]

- **Izatearen ihesa:**

*Ni*arentzat, *Beste*-objektua uneoro bihur daiteke *Beste*-subjektu (eta *Nia*, orduan, *Ni*-objektu *Beste*-subjektu horrentzat). Iraganbide horrek *Niaren* ihesa dakar, eta ihes horren beldurrak salatzen du *Niak bestetasuna* bere baitarako bizi duela.

**Irudia:** Halatan, **Beste**-objektua ikustean atzeman dezakegun beldur objektiboa ez da esfigmografoarekin eta estetoskopioarekin ikus edo neur dezakegun etsipenaren seinale fisiologikoen multzoa bezalakoa: **beldurra ihesa da, zorabioa da**. [...] Bestea erdigune zuten antolamendu-tresnen **hankaz gora jartzea da**. [356]

**Fikzioa:** Ihesi doan soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean. Etsaiarekiko distantzia bere balaren traiektoriaz neur zitekeen eta neronek ere atzeman eta transzendi nezakeen distantzia hori “soldadu” erdigunearen inguruan antolatutako distantzia bezala. Baina hara non fusila zulora bota duen eta babesean jarri den. Orduantxe etsaiaren presentziak bildu eta presioa egin dio; etsaia, balen traiektoriari esker distantziara zegoena, gainera datorkio traiektoria hori desagertu den une berean. Aldi berean, defenditzen zuen atzealdeko herri hori, eta horma baten antzera tinkatzen zenekoa, bihurtu egin da bat-batean, abanikoan ireki da eta aurrealde bilakatu da, babes bila doan horizonte erosoan. [356]

Ikus daitekeenez, diskurtsiboki garbi bereizten da kontzeptuen arteko erlazioaren irudi-eskema bati dagokiona eta irudi horren berorren eszena-jartzeari dagokiona. Baina gerta daiteke, elementu ostentsibo ugarien presentziagatik, giza jarreraren eta egoeren aipamenagatik, irudiaren eta situazioaren arteko bereizketa ez izatea hain nabaria. Ikerketa-corpus honetan, adibide bakar bat dago zalantza hori sortzen duena, hau da, irudi-bidezko kontzeptua izateaz gain, antza fikzio-bidezko kontzeptua ere badena.

Adibide horretan ematen den irudi-eskema Izatearen ‘leherketaren arriskua’ da eta adierazten du *Izatearen ezegonkortasuna bestetasunaren aurrean*. Irudiaren azalpen teorikoa horrela formula daiteke: **Beste-objektua uneoro izan daiteke Beste-subjektu; baina, ezegonkortasun horretan, Niaren esku dago eta bere ardura da Besteak Beste-objektu izaten iraun dezan**. Lehergailuak adierazten duena da *Izatearen transzendentziaren norabidearen ezegonkortasuna:  $Nia > Bestea$  edo  $Bestea > Nia$* .

Kontua da gertakizunaren ardatza (hots, *leherketa bat ekiditea*) eta irudi-eskema bat bera direla. Bestela esateko, aurreko adibideetan desberdinak ziren irudi-eskemak (*ihesa, muga, hemorragia, jauzia, alienazioa* etab.) eta irudi-eskema horien fikziozko eszenak (arrotza aurkeztea, esferaren azalera jotzea, soldaduaren beldurra eta ihesa, etab.); aparte ematen ziren. Baina ondoko adibidean batera ematen da irudia (*I*) eta fikziozko situazioa (*F*). Eta nekezago bereiziko ditugu biak.

Halatan, Beste-objektua **tresna lehergarria da** [*I*] eta **tentuz maneiatzen dut** [*F*], bere inguruan etengabeko **posibilitatea sentitzen baitut leherraraz dezaten** [*F*] eta **leherketa**



**horrekin** [I] bat-batean bizi dezadan **munduaren ihesa nigandik kanpo** [I] eta **nire izatearen alienazioa** [I]. Horregatik, **nire ardura konstantea** [F] Bestea bere objektibotasunean edukitzea da eta, beraz, Beste-objektuarekin dudan **harremana batik bat abileziaz eratu ohi da** [F] berak objektu izaten jarrai dezan. Baina nahikoa da Bestearen begirada bat **amarru horiek guztiak** [F] bertan behera **desegiteko** [I] eta berriz ere Bestearen **antzaldatzea** [I] sentitzeko. **Horrelaxe nabil** [F], Bestearen **antzaldatzetik degradaziora** eta **degradaziotik antzaldatzera** [I], Bestearen izateko bi moduen **ikuspegi orokorra inoiz osatu ezinik** [F] [...] eta bakar bati ere **tinko eutsi ezinik** [F]. [358]

Adibide hori salbuespena da. Oro har, irudia fikzio-bidez ematen denean, fikzioak erantsiaren edo txertatuaren tankera hartzen du, hots, ken litekeen zerbaitena. Aurreko hiru adibideetan, fikziozko pasartea parentesi artean ere eman zitekeen hari diskurtsibo nagusia oztopatu gabe. Baina hori ez da gertatzen leherketaren adibidean. Ikusiko dugunez, kapituluan, leherketaren adibidea garapen teorikoaren ondorio gisa aurkezten da; pentsa daiteke bertan irudia eta fikzioa batera eman nahi izan direla azalpenaren itxieratzat. Itzuliko gara.

Esanak esan, fikzioa testu-mailan esanguratsua den edo kontuan hartu behar den jakiteko, testu-zati luzeagoak hartu behar dira aztergai; ez da nahikoa lerro-mailan eta gehienez ere paragrafo-mailan enuntziatu soilari erreparatzea. Baina, lehenik, testu-egiturari hertsiki heldu aurretik, zehaztu behar da (eta testua hustu, beraz), diskurtsoaren fikziozkotasunean, zer hartzen dugun kontuan eta zer ez fikzio-unitate bezala.

## **5.2. Fikziozkotasunaren egitura**

### **5.2.1. Testu-mailako fikziozkotasuna: fikzio-unitatea**

Orain arteko guztia kontuan izanik, badugu nahiko elementu ikerketa-corpuseko fikzioaren zerrenda egiteko. Baina, horretarako, zehaztu behar da lehen-lehenik zer hartzen den testu-mailako fikzio-unitatetzat, horixe baita, printzipioz, ikerketa honen hipotesiaren arabera, testuan fikziozkotasunaren hezurdura osatuko lukeena. Eta, ondoren, beraz, zera atzeman beharko da, testu-mailan fikzio-unitatea, ‘baliza’ moduan, horrela adieraztea zilegi bada, testu-egituratzailea den.

Fikzio-unitatea ulertu behar da enuntziatu oso eta autonomo bat bezala, batetik, zehaztutako fikzio-irizpideak betetzen dituen eta, bestetik, ez dena beste fikziozko enuntziatu baten menpekoa. Izan ere, tratatuan fikziozkotasuna iradokitzen duen elementu ugari dago (han-hemenka aipatzen diren elementu ostentsibo solteak, ematen diren irudi-eskema aski bisualak, hizpide hartzen diren giza jarrerak, baliatzen diren pertsona izenordainak, zalantzazkotzat jotzen diren fikziozko enuntziatuak, eta abar).

Ordea, elementu horiek guztiak fikzio-unitatetzat jotzea inoperantea da, diskurtsoaren egiturari arreta ipini nahi badiogu, behintzat. Horiek salatu baizik ez dute egiten tratatuak duen konkretutasunerako joera. Horrela, bada, galdera hau da: fikziozko zein enuntziatu hartu behar da kontuan eta zein ez testu-egitura baten argitan? Kontuan hartzeko fikziozkotasunari dagokionez, aurreko ataletan (4. kap.) eman ditugun fikzio-irizpideei jarraiki, fikzio-unitateari eskatzen zaio:

- i) Diskurtso efektiboaren esatari nagusia ez den fikzioaren enuntziatzaile propioa izatea.
- ii) Fikzioaren denbora propioa zabaltzea, orainaldi *neutroa*, eta denbora hori ez izatea diskurtso efektiboarena.
- iii) Fikzioaren aurkezpena gertatzea, nahiz eta aurkezpen hori isilpekoa edo inplizitua izan
- iv) Hizkuntzaren erregistro narratiboa baliatzea, batik bat ‘situazio’ baten gutxieneko elementuak ekarriz: subjektua, gertakizuna eta espazioa.

Horrez gain, fikzio-unitateari eskatzen zaio osoa izatea, hau da, beste enuntziatu baten menpekoa ez izatea. Alegia, aurreko baldintzak betetzen dituen fikzio bat ez da unitate izango, argi baldin badago aurretik edo ondotik emandako beste fikzio baten osagarri soila dela. Bestalde, baztertzeko fikziozkotasunari dagokionez, gorago aipatu dugunez, nahiz eta nekez ukatuko zaion guztiz fikziozkotasuna hainbat enuntziaturi (nolabaiteko fikziozkotasuna iradoki dezakeen heinean), hori ez da fikzio-unitatetzat ulertu behar kontzeptua *NI*-enuntziatzaile orokor baten ahotik ematen duelako bakarrik edota giza errealitatean irudika dezakeelako bakarrik. Adibidez:

Bestearen begiradaz, **nire buruari bizi natzaio** munduaren barruan finkatuta bezala, **arriskuan** bezala, erremediorik gabe bezala. **Baina ez dakit** ez *zein* naizen, ez *zein* den **nire lekua** munduan, ez **ni nagoen mundu horren** zein alde biratzen duen Bestearengana. [327]

Horrek ez du esan nahi horrelakoei fikziozkotasunik batere aitortu behar ez zaienik, izan ere, enuntziatu horiek irudikarazten digute *Ni* bat munduan *Besteari* buruz eta bere buruari buruz gogoeta egiten. Gainera, ‘bizi natzaio’, ‘ez dakit’ eta ‘ni nagoen’ aditzen puntukaritasunak fikzioaren orainaldi propio bat iradoki lezakete; eta ‘mundu horren’ eta ‘Bestearen begiradaz’, berriz, espazialtasuna. Baina, ikuspegi diskurtsibo batetik, enuntziatu-mota hori gertuago dago diskurtso efektiboaren azalpen batetik (beraz, esatari nagusiaren ahotsetik), diskurtso-etendura lekarkeen situaziotik baino.

Azken batean, horrelakoak ere fikzio-unitatetzat hartu nahi izatera, ia testu osoa hartu beharko litzateke fikzio luze baten modura, eta horrek ez luke zentzurik batere. Errepara daitekeenez, tratatua giza errealitatea hartzen da uneoro hizpide (*L'Être et le Néant* giza existentziaren teoria bat da). Horrela, ‘begirada’ adigaiak berak (bera ikerketa-corpuseko aztergai nagusia), esate baterako, aise kokatuko dugu giza situazio batean; eta baita testuan begiradarekin lotzen diren giza jarrerak ere. Horra adibide batzuk:

- **Beldurra:**

Beldurrak, izan ere, zera inplikatzan du, **ni mehatxatua agertzen naizela** munduaren barruan presentzia gisa, eta ez mundu bat egotea bermatzen duen bere baitarako gisa. *Ni* naizen objektua da **munduan arriskuan** dagoena [...]. Beraz, beldurra zera da, **nire ni-objektua deskubritzea** nire pertzepzio-eremuan beste objektu bat agertzen denean. [348]

- **Hantustea:**

Hantustean, ni objektu naizelarik saiatzen naiz Bestearengan eragiten. Eta objektu gisa eratzen nauenarekin batera, **aitortzen didan edertasun, indar edota gogo hori** erabili nahi dut, errebotez, Besteari lilurazko edo maitasunezko sentimendu bat pasiboki eragiteko. Baina **exijitzen dut** Besteak sentimendu hori, nire objektu-izatearen ordain gisa, **subjektu gisa senti dezan**, hau da, askatasunez. Izan ere, hori da modu bakarra nire indarrari edo nire edertasunari objektibotasun absolutua aitortzeko. [352]

- **Lotsa:**

Lotsa da *jatorrizko jauziaren* sentimendua, ez halako eta horrelako **akatsa egin dukedalako**, baizik eta **munduan “jauzi” naizelako, gauzen artera**, eta Bestearen bitartekotza behar dudalako naizena izateko. [349]

Zalantzarik gabe, testuan nahi beste enuntziatu aurki daiteke fikzioranzko eta giza errealitateranzko eta konkreturanzko joera nabarmen baten adibidegarriztat har daitekeena; haatik, askok ez dute testuan urrunago joateko bokaziorik eta, besterik gabe, idaztanka propio baten adierazleak dira. Ikerketa honen jomuga diskurtso-egitura da, eta, horretarako, testuaren ikuspegi global batetik, bakarrik ardura zaigu egitura-tresna diskurtsiboa izan daitekeen fikziozkotasuna.

Hala, auzitan dagoena ez da hainbeste enuntziatu bat fikziozkoa den edo ez den frogatzea edota enuntziatu baten fikziozkotasun-maila zehaztea, baizik eta testu-egitura baten argitan enuntziatu hori tresna diskurtsibotzat hartu behar den edo ez. Ikusi dugunez, fikziozkotasuna zenbakarria da, ‘situazioka’ zenbatzen da eta irizpide enuntziatibo jakin batzuen arabera. Aitzitik, fikzio-unitateen zerrenda bat eman aurretik, bereizi egin behar da, fikzio-unitatetzat hartzen ez dugun fikziozkotasunean, zer den gerora baztergarria fikzio-egitura baten argitan eta zer den kontuan hartzekoa.

### **5.2.2. Fikzio-unitatearen adarkadura: fikzio osagarria**

Fikzio-unitatea, fikziozko situazio konkretu bat adierazten duen enuntziatu autonomoa izanagatik, testu-mailari dagokionez, ez dago isolatuta. Sarritan fikzio-unitatea hainbat eszena osagarrik biltzen du. Horrek, alde batetik, luzatu egiten du testuan zehar diskurtsoaren fikziozkotasunaren errekurtsua; eta, beste alde batetik, bermatu eta zilegiztatu egiten du fikzio-bidezko azalpen teorikoaren garapena. Fikzio osagarria, beraz, fikzio-unitate nagusi baten menpeko fikziozkotasuna da. Fikzio-unitatea ez da ulertu behar uneko etendura enuntziatibo soiltzat, baizik eta bere adarkadura osoan eta beste eszena konkretu batzuekiko harremanean.

Testuan aise atzematen da fikzio osagarria, izan ere, fikzio-unitateari dagozkion elementu ostentsiboak baliatu ohi ditu. Nolabait esateko, fikzio osagarria fikzio-unitatetik elikatzen da, noiztenka eta *behar* teorikoaren arabera elementuak hartuz. Dena dela, ikuspegi enuntziatibo batetik, enuntziazio-ardatzen etendurazko efektua testuan

fikzio-unitateak gauzatzen du aurretik. Ondoren, fikzio osagarriak berriro gauza dezake edo ez beste etendura enuntziatibo bat situazio beraren ildotik; baina ez du zertan.

Hortaz, fikzio osagarriari dagokionez, gerta daiteke enuntziatuaren arduraren diskurtsoaren enuntziatzaile nagusiak hartzea, 1. zein 3. pertsonan, eta, beraz, fikzioari gorago aitortu dikziogun lau irizpideak ez betetzea. Azken buruan, fikzio osagarria ulertu behar da diskurtso efektibo edo nagusiaren barrukotzat edo, nahi bada, plataforma moduko bat bezala fikzioak eta teoriak bat egiten eta uztartzen direna; zera, erdibideko bat azalpen teorikoaren eta fikzioaren artean eta, oinarrian, teoria garatzeko garraio bat bezala.

Fikzio osagarriak diskurtso-marka askotarikoak dituen arren, hiru multzo nagusi bereiz daitezke: eszena konkretua, erreferentzia anaforikoa eta elementu ostentsiboaren presentzia.

#### **a) Eszena konkretua:**

Fikzio-unitateak ematen duen situazioaren gertakizunari dagokionez, haren menpekoa den fikzio osagarriak ez du erakusten ekintza-progresiorik batere, soilik egoeraren edota ekintzaren aldaeraren bat, kasuan kasu, teoria garatzeko balio diona. Bestalde, oro har, fikzio osagarria ez da ematen enuntziatu autonomotzat eta, beraz, teoriarekin batera doa. Ondoko adibidean, esaterako, situazio bat aurkezten da (alegia, sarraila-zulo batetik begiratzera makurtzearena) eta, ondotik, situazio horri lehen ñabardura bat ematen zaio (alegia, situazio horretan ‘bakarrik’ egoteak zer adierazten duen teoriaren argitan).

Imajina dezagun [FIKZIO-UNITATEA] heldu naizela, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zulotik begiratzera. [FIKZIO OSAGARRIA eta TEORIA] Bakarrik nago, ni(re) kontzientzia ez-tetikoaren planoan. Horrek esan nahi du, hasteko, ez dagoela nire kontzientzia habitatuko duen *ni* bat. Ez dago zeri zuzendu [...]. [317]

Haatik, batzuetan, fikzio osagarrian ere irizpide enuntziatibo guztiak konbokatzen dira eta, funtsean, diskurtso nagusiarekiko enuntziatu desitsatsizat aurkezten da hori ere. Egia esateko, testu-mailako erreferentziarik ezean, horrelakoak fikzio-unitatetzat ere har daitezke. Osagarriak esaten diegu fikzio-unitate jakin baten menpekoak diren heinean. Dena den, berariazko fikziotzat hartuta ere, horrelakoak katafora-bidez aurkezten dira

maizenik, alegia, uneko azalpen teoriko jakin baten ordain fikzioduna bezala, beraz, aurreko zerbaiten garapen bezala eta ez abiapuntu bezala.

[*FIKZIO-UNITATEA*] **Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun** [...] [311]

[*TEORIA*] [...]

[*TEORIA*] Baina Bestea oraindik objektua da nirtzat. Nire distantzietan dagokie: [*FIKZIO OSAGARRIA*] **gizona hor dago, nigandik hogeit hamar pausora, bizkarra ematen dit. Berari dagokionez, zelaitik 2,20 metrora dago berriro, estatuatik sei metrora.** [313]

---

[*FIKZIO-UNITATEA*] **Eta hara non entzun ditudan oin-hotsak korridorean: begiratzen didate.** [318]

[*TEORIA*] [...]

[*TEORIA*] Ordura arte, posibilitate horiek munduaz eta munduan tetikoki atzematen nituen, tresnen potentzialtasun gisa: [*FIKZIO OSAGARRIA*] **zoko ilunak korridorean ezkutatzeko aukera zekarkidan.** [321]

## b) Erreferentzia anaforikoa:

Sarritan, fikzio osagarria agertzen da aurretik formulatu den fikzio-unitate jakin bateko elementuei egindako erreferentzia modura. Horretarako, erakusleak eta izenordainak erabiltzen dira, batik bat. Horra adibide batzuk:

Haatik, hipotetikoa ez ezik probablea da aditzen dudana **ahots hori** gizaki batena izatea eta ez fonografo baten kantua. [310]

Ezagutzaren objektua da oraindik; adieraziko dut esanez, adibidez, **gizon horrek** zelaia *ikusi* egiten duela, edota gertu dagoela [...]. [312]

**Bere liburuaren eta beraren artean** erlazio ukaezin eta distantziarik gabeko bat atzematen dut [...] [313]

Zelaia gauza kalifikatua da: **zelai berde hori** da Bestearentzat existitzen dena. Zentzu horretan, objektua beraren ezaugarria, **bere berde sakonak eta gordinak** erlazio zuzena dauka **gizon horrekin.** [313]

### c) Elementu ostentsiboaren presentzia:

Elementu ostentsiboak aurreko fikzio-unitate batean aipatu diren elementu berberak izan daitezke eta erreferentzia zuzena egin dieazaiokete fikzio-unitate delako horri. Aipatu dugunez, elementu ostentsiboen aipatze soila ez da nahikoa diskurtsoaren fikziozkotasuna bermatzeko eta enuntziatua situaziotzat jotzeko. Baina zilegi da pentsatzea elementu ugari horien izateko arrazoia fikzio-unitatearekin zerikusia duela.

Halatan, elementu horiek enuntziatzaile nagusiari dagozkio eta ez fikziozko situazioari. Diskurtsoak elementu horiek baliatzen ditu enuntziatu teorikoa emateko, baina, bide batez, diskurtsoak azalpen teorikoa aurretik aipatutako fikzio-unitate batekin lotzen du eta, beraz, areagotu egiten du diskurtsoaren fikziozkotasun-efektua, hau da, oraindik ere aurreko situazioan eta fikzioan gauden sentsazioa. Esate baterako, gorago aipatu dugun *Lorategiko gizonaren* adibidetik paragrafo batzuk beherago, diskurtsoaren garapen teorikoak berriro dakartza zenbait elementu ostentsibo:

Objektu-**gizonaren** eta objektu-**zelaiaren** arteko erlazio berri horrek ezaugarri berezi bat dauka: aldi berean osorik ematen zait, **hor baitago munduan** ezagut dezakedan objektu gisa [...] eta aldi berean osorik egiten dit ihes. [312]

Halaz ere, fikzio-unitate jakin bati erreferentzia egiteko, ez da derrigorrezkoa aurretik aipatutako elementu ostentsibo berberak aipatzea. Fikzio osagarriak balia ditzake elementu ostentsibo berriak ere. Eta, are gehiago, fikzio osagarriak ez du zertan erreferentzia egin dagokion fikzio-unitatearen gertakizun berari; izan daiteke zeharo bestelako situazio bat eta elementuren bat egon lotura bermatzen duena. Ondoko adibideetan, esaterako, ‘Pierre’ elementua da fikzio osagarriak batzen dituen.

Baina ez nuke esango, haatik, apartamentu horretan absente direnik Aga Khan eta Marokoko Sultana, eta bai, ordea, bertan egon ohi den **Pierre** ordu laurdenez absente dagoela. [337]

Baina bere absentsia sala nezake, ordea, bazkari batean bera inoiz egon ez den eskualde bat izan duena gertaleku. **Pierreren** absentsia definitzen da leku baten arabera non eta bera hor egotera determinatu beharko litzatekeen. [337]

Izan ere, absentziak hor ez du esanahirik ez baldin badaude bermatuta **Pierreren** Teresarekiko lotura guztiak: maite du, bere senarra da, bere iraupena ziurtatzen du, eta abar. Absentziak, bereziki, **Pierreren** existentzia *konkretuaren* iraupena dakar. [338]

Esanak esan, ikuspegi diskurtsibo batetik, fikzio osagarria menpeko perpaus gisa agertzen da enuntziatuan (oro har, baldintzazkoa, hipotetikoa, ahalerazkoa, denborazkoa eta erlatibozkoa). Halatan, fikzio osagarrian elementu ostentsiboak teoriarekin batera ematen dira. Menpeko perpaus-mota horiek sarri ordezkatu egin daitezke. Ondoko adibideetan, esaterako, lehenengoan, "*pentsatu beharko banu*" bihur liteke "*zera pentsa dezaket*"; eta, bigarrean, "*nik ikusten dudanean*" bihur liteke "*nik ikusten badut*".

**Pentsatu beharko banu** ez dela panpina bat besterik, **aplikatuko nizkioke** espazio-denborazko "gauzak" sailkatzeko balio ohi didaten kategoriak. Alegia, **hartuko nuke** aulkien "ondoan" kokatua bezala, zelaitik 2,20 metrora, lurrean [...] [312]

Objektu hori gizaki bat izatea *probablea* da; ondoren, ziorra izanik ere gizaki bat dela, **nik ikusten dudanean**, soilik probablea da berak zelaia *ikustea*, zera, konturen batekin **egin dezake amets eta inguruan duenari ez ondo erreparatu**, edo **itsua izan daiteke**. [312]

Egia esateko, ez du hainbeste axola adibide horietan perpaus-mota zein den zehazteak, azken batean, fikzio osagarri guztiek nolabait adierazi asmo dutena horrela formula liteke aldez aurretik: *Gogoan harturik aurreko fikziozko situazioa eta horrek teorikoki inplikatzeko duena, demagun zera (...)*. Horregatik, ez diogu hainbeste erreparatuko fikzio osagarriak hartzen duen forma sintaktikoari, baizik eta fikzio osagarriak teorikoki zer adierazten duen eta teoriaren garapenean kokaleku esanguratsua aitor dakioken. Izan ere, gerta ere liteke perpausa ez den esapide soil batek eszena bat iradokitzea. Ondoko adibidean, esaterako, eszena posible batzuen enumerazioa ematen da.

Zalantzarik gabe, maizenik begirada bat erakusten duena bi begi-globoren niganako konbergentzia da. Baina gertatuko da [i] **adaxka batzuk astintzean ere**, [ii] **isiltasunaren aurreko oin-hotsekin**, [iii] **leiho erdi ireki batekin**, [iv] **gortina baten mugimendu arinarekin**. [315]



### 5.2.3. Fikzio-unitateari ez dagokion fikziozkotasuna: fikzio gehigarria

Fikzio gehigarria uneko adibide soila da testuan, ez doa adibideaz harago, azalean gelditzen da. Fikzio-mota horren errekurtsoa tratatuaren idaztankerari dagokio, besterik gabe; ez du xede egituratzaile edo globalik. Horregatik, testu-mailako fikziozkotasuna atzemateko, fikzio gehigarria ez da kontuan hartzekoa. Testuan adibide erantsiaren tankera hartzen du, beraz, nahiz eta diskurtsoa nolabait eteten den adibidea emateko, nahiz eta elementu ostentsiboak aurkezten diren eta diskurtsotik kanpoko gertakizun bat aditzera ematen den, nahiz eta ugari izan, testuan jarraipenik gabe gelditzen da.

Fikzio gehigarria sarritan fikzio-bidezko irudi-eskema bat izaten da. Horrelakoetan, fikziozko situazioak ez ohi du progresio edo garapenik erakusten, irudi-eskemaren birformulazioa da eta kito. Alegia, irudia fikzioz ematean, fikziozko eszena ez ohi da ezeren aurkezpen edo abiapuntu, baizik eta azalpen teoriko baten uneko zehaztapena. Haatik, fikzio-bidezko irudi oro gehigarritzat baztertu beharrean, zehaztu egin behar da zenbaitek balio egituratzailea izan dezakeen eta, beraz, kontuan hartzekoa izan.

Edozein kasutan, fikzio-bidez emandako zenbait irudi-eskema noiz den gehigarria (eta, beraz, baztertzekoa) eta noiz den egituratzailea modu definitiboan zehaztu nahi bada, hori testu-egitura teorikoaren argitan egin behar da. Izan ere, ikuspegi egituratzaile batetik, aipatzekoa da irudiak batzuetan hartzen duen ‘ondorio’ tankera (ikus *leherketaren* irudi-eskemaz gorago aipatutakoa) eta, halaber, aipatzekoa da fikzio-bidezko irudia batzuetan diskurtso nagusiaren ahotsak berak ematen duela, kataforaz, irudia garapen teorikoaren aldi berean txertatu nahiz bezala.

[DISKURTSO NAGUSIA] Aurretik ezin asmatu hori da [laburbilduz] Kafka baten jainua [...]: Nolabait ere, [FIKZIOA] **K.-k eta lur-neurtzaileak egiten duten guztia berez beraiei dagokie eta, munduan eragiten duten heinean, emaitzak bat datoz erabat beraien aurreikuspenekin** [...]. [DISKURTSO NAGUSIA] Zalantzarik gabe, Kafkak horrekin [...] [324]

[DISKURTSO NAGUSIA] Baina hortik bi ondorio garrantzitsu ateratzen dira. Lehena da [...]. Geroago [...]: [FIKZIOA] **“Zin egiten dizut egingo dudala!”; “Litekeena da. Hala diostazu, sinetsi nahi zaitut; posible da, noski, zuk hori egitea”**. [DISKURTSO NAGUSIA] Dialogo horren zentzuak berak inplikatzeko du [...] [323]

[DISKURTSO NAGUSIA] Bestalde [...] Zehazkiago esateko [...] Jakina, gerta daiteke [...]:  
[FIKZIOA] **poliki erakarri dut taulatxoa ontzi hauskor hori nireganatzeko, baina mugimendu horren efektua da brontzeko estatua txiki bat botatzea eta ontzia mila zatitan txikitzea.** [DISKURTSO NAGUSIA] Ordea, ez dago hor [...] [324]

Dena den, badirudi fikzio-bidez ematen den zenbait irudi, ezeren abiapuntua baino gehiago, teoriaren aspektu jakin baten iritsiera-puntua dela; adibidearen irismena eman bezain laster amaitzen da. Horiek printzipioz fikzio gehigarritzat hartu baditugu, horren arrazoa zera da, fikzio-bidezko irudi-eskemak ez ohi duela xedetzat hartzen irudiak deskribatzen duen fikziozko eszena garatzea. Testuan aurrera eta atzera eginez, irudi-eskema dezente aurki daiteke fikzio-bidez emana, baina gerora eszena konkretu horien arrastorik ez dago. Fikzio horiek lehen begiratuan ez dirudite egituratzaileak.

Ez da alferrik irudia askotan konparazioz ematen (konparazio horiek trabarik gabe meta daitezke bata bestearen atzetik) teoriarekin batera eta, beraz, menpeko zerbait bezala. Enuntziatu horiek laburrak izaten dira beti eta esplizitu ematen dute daukaten erantsi-izaera edota balio parentetikoak, dela konparaziozko markatzaileak horixe salatzen duelako dela fikzioak orduan enumerazio-tankera hartzen duelako, nolabait esateko, ostean nahi adina adibide ipini litekeela adieraziz eta zehazki adibide konkretu horri edo hari jarraipenik emateko xede berezkorik ez dagoela erakutsiz. Horra adibide batzuk:

Nire kontzientzia nire ekintzei itsasten zaie, bera *da* nire ekintzak [...] bateratze hutsa da, munduan galtzeko modua baino ez, gauzek edanarazia izateko modu soila, **xukagarri batek tintarekin bezala**, jomuga jakin baterantz bideraturiko tresna-sare bat [317]

Nik ez dut bere izatea fundatzen, nik ez dut zuzenean ekoizten, eta ez da nire ekintzen efektu zeharkakoa eta zorrotza ere, **astintzen denean bezala nire itzala lurretik edota nire isla ispiluan egiten ditudan keinuekin batera.** [319-320]

Alderantziz, izate hori [*Ni-objektua*] nire askatasunaren muga da, “atzealdea”, **karten atzealdea esaten den zentzuan**; emana zait **gainean daramadan zama bat balitz bezala** [...] eta ezin sentiturik ere bere pisua. [320]

Nire begiradak erlazio bat adierazten du bakarrik, munduaren barruan, objektu-niaren eta objektu-begiratuaren artean, **bi masa elkar erakartzen diren bezala distantzian**, nolabait esateko. [324]

Bestea objektutzat agertzen zaidan unetik, [...] Beste-objektuak subjektibotasun bat “dauka” **kutxa huts horrek “barnealde bat” daukan bezalaxe**. Eta ni, horrela, *berreskuratu* egiten naiz, ezin baitut izan *objektu batentzako objektu*. [349]

Barnealde[*Bestea*] eraginkortasunik gabeko barnealde baten modura ageri zait: bera “barnealde” horren beste ezaugarrietako bat besterik ez da, eta **konpara daitekeena inprima litekeen pelikula batekin argazki-tresna baten kamera ilunean**. [350]

Bestea **makina batekin konpara daiteke**, hain zuzen, makinari jada suposatzen zaiolako, gizakiaren tresna den heinean, transzendentzia-transzenditu baten tankera, **irundegi bateko ehungailuak eurek sortzen dituzten oihalen baitan ulertzen diren bezala**. [355]

Nire “engaiamendua” situazio batean ulertu behar da zera esaten den zentzuan: “**Zereko horrekin engaiatu naiz, engaiatu naiz diru hori itzultzera, eta abar**”. [...] Baina engaiamendu objektibatu hori, Bestea objektutzat hartzen dudanean, degradatu egiten da eta engaiamendu-objektu bat bihurtzen da zera esaten den zentzuan: “**Aiztoa sakon engaiatu da zaurian; armada desfile batean engaiatu da**”. [352]

Bestalde, ikuspegi global batetik, badago polikiago begiratzea merezi duen fikziozko irudirik, esate baterako, *Soldaduen ihesarena* (EN: 356): “Thesi doan soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean. Etsaiarekiko distantzia bere balaren traiektoriaz neur zitekeen [...]”. Adibide horretan, *ihesaren* irudi-eskema fikzio-bidez ematen da uneko azalpen bezala eta, printzipioz, fikzio gehigarritzat. *Lehergailuaren* irudian bezala, hor Iztearen *bestetasunaren* bi norantzak nabarmentzen dira, hau da, aldizkako menpekotasuna nire izatearen eta Bestearenaren artean.

Haatik, ‘soldadu’ subjektua gehiagotan agertzen da testuan zehar, adibidez (EN: 315): “Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek saihesteko begiradatzat hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena muino baten gainean”. Baina hor ez dago, ordea, aurrekoan bezala, irudi-eskemarik, baizik eta *begirada* kontzeptuaren zehaztaperen huts bat: *Niak objektuak ikusiagatik, berak bestetasuna bizitzeak ez dio obeditzen ‘objektu’ zehatz baten presentziari*. Haatik, ez dirudi bi fikzioen lotura ausazkoa denik; printzipioz kontuan hartzekoa da testuaren fikzio-egitura mailan, fikzioen arteko lotura ere gogoan hartu behar baita fikzio gehigarria dirudiena osagarria datekeen aztertzeko.

### 5.3. Ikerketa-corpuseko fikzio-egituraren zerrenda

#### 5.3.1. Fikzio-unitateen zerrenda

Ondoko zerrendan ikerketa-corpuseko fikzio-unitateak ematen ditut. Ikerketa honen auzia, funtsean, fikzio-unitate horiek testuaren egitura teorikoan nolabaiteko hezurdura osatzen duten zehaztea da. Zerrenda honetan, fikzio-unitate bakoitzari  $F$  esaten diot eta hurrenkeraren araberrako zenbakiarekin ematen dut, hau da,  $F1$ ,  $F2$ ,  $F3$  etab. Horrekin batera, fikzio-unitatea agertzen den orrialde-zenbakia adibidearen aurretik ematen dut kortxeteen artean, berehalakoan nabarmentzeko ikerketa-corpuseko fikzio-unitateen distribuzioa. Testu-orrialdeen kontu emango dugu aurrerago ere testu-egitura teorikoari heltzean.

Bestalde, fikzio-unitate bakoitzari izenburu labur bat ematen diot. Izenburu horrek situazioaren gerta-eremuari, subjektuari edota gertakizunari erreferentzia egiten dio eta, zehazki esateko, fikzio-unitatea berehalakoan irudikatzeko eta laburki emateko balio du. Gerta daiteke, izan ere, fikzio-unitatea bikoitza edota hirukoitza izatea; eta situazioa(k) bateratzea ezinbestekoa da fikzio-unitatea, ondoren, tresna diskurtsibotzat aztertzeko. Hala, dakigunez, tratatuan “3.1.4. Begirada” kapituluak 310-364 orrialdeak hartzen ditu. Bada, testuko fikzio-unitateak zehazki hamaika situazio dira eta horrela banatzen dira:

- **F1 [310]: *Hirian jendea ikusten edota entzuten dut***

Nigana etortzen ikusten dudana emakume hori, kaletik doan gizon hori, nire leihotik kantatzen aditzen dudana eskale hori niretzat objektuak dira, hori ez da zalantzazkoa.

- **F2 [311]: *Lorategian gizona ikusten dut zelai eta aulkien ondoan***

Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat pasatu da aulkien ondotik. Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitzat.

- **F3 [313]: *Paseoan gizona liburua irakurtzen ikusten dut***

Hara, adibidez, gizon bat irakurtzen doana paseoan. Adierazten duen unibertsoaren desintegratzea birtuala da soilik: tutik entzuten ez duten belarriak ditu, eta bere liburua baizik ikusten ez duten begiak.

- **F4 [315]: *Atzetik nork begiratzten didan ez dut ikusten***

Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek saihesteko begiradatzat hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena muino baten gainean. [...] Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan.

- **F5A [317]: *Sarraila-zulotik jendea ikusten dut***

Imajina dezagun heldu naizela, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zulotik begiratzera.

- **F5B [318]: *Korridorean oin-hotsek begiratua sentiarazten didate***

Eta hara non entzun ditudan oin-hotsak korridorean: begiratzten didate.

- **F5C [336]: *Korridorean ez dago inor***

Hara non nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau: norbaitek ikusi nau. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa: alerta faltsua zen. Arnasa hartu dut.

- **F6 [337]: *Gelan absentzia bat sumatzen dut***

“Norbait dago gela horretan”.

Uste nuen Bestea presente zegoela gelan, baina nahastuta nengoen: ez zegoen *hor*, “absente” zegoen.

- **F7 [340]: *Bestearentzat presentzia ezaugarri gisa existitzen naiz***

Ni presente moduan existitzen naizela objektu gisa aleman batentzat, zeinahi delarik ere, hori ez da zalantzazkoa. Baina, existitzen naiz europar, frantses, paristar gisa kolektibitate horietan desberdinu gabe edo paristar *hori* gisa zeinaren inguruan Pariseko populazioa eta kolektibitate frantsesa bat-batean antolatzen den bere atzealde gisa eratzeko?

- **F8 [352]: *Bestea objektu ikusten dut baina giza ezaugarri zehatzekin***

Bat-batean agertu zaidan Beste-objektu hori ez da abstrakzio objektibo hutsa, bere esanahi bereziekin sortu da nire aurrean. Ez da bakarrik objektu bat askatasuna transzendentzia transzenditu modura *ezaugarritzat* duena. Bera “haserre” ere badago, eta “pozik” eta “arretatsu”, “jatorra” eta “uzkurra” da, “berekoia”, “asaldata” eta abar.

- **F9 [354]: *Metroko gizona liburua irakurtzen ikusten dut***

Ezagutzen ez dudan eta metroan irakurtzen dagoen gizon horren inguruan mundua oso-osorik dago presente.

- **F10 [356]: *Soldaduak ihes egiten dio etsaiari (Besteari)***

Ihesi doan soldadu horrek Beste-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean. Etsaiarekiko distantzia bere balaren traiektoriaz neur zitekeen eta neronek ere atzeman eta transzendi nezakeen distantzia hori “soldadu” erdigunearen inguruan antolatutako distantzia bezala. Baina hara non fusila zulora bota duen eta babesean jarri den. Orduantxe etsaiaren presentziak bildu eta presioa egin dio; etsaia, balen traiektoriari esker distantziara zegoena, gainera datorkio traiektoria hori desagertu den une berean. Aldi berean, defenditzen zuen atzealdeko herri hori, eta horma baten antzera tinkatzen zenekoa, bihurtu egin da bat-batean, abanikoan ireki da eta aurrealde bilakatu da, babes bila doan horizonte eroso. Hori guztia objektiboki egiaztatzen dut eta *horixe* da, hain zuzen ere, nik *beldur* modura hartzen dudana.

- **F11 [358]: *Bestea uneoro leher (edo, bestela esateko, bihur) daiteke***

Halatan, Beste-objektua tresna lehegarria da eta tentuz maneiitzen dut, bere inguruan etengabeko posibilitatea sentitzen baitut leherraraz *dezaten* eta leherketa horrekin bat-batean bizi dezadan munduaren ihesa nigandik kanpo eta nire izatearen alienazioa. Horregatik, nire ardura konstantea Beste bere objektibotasunean edukitzea da eta, beraz, Beste-objektuarekin dudan harremana batik bat abileziaz eratu ohi da berak objektu izaten jarrai dezan. Baina nahikoa da Bestearen begirada bat amarru horiek guztiak bertan behera desegiteko eta berriz ere Bestearen antzaldatzea sentitzeko. Horrelaxe nabil, Bestearen antzaldatzetik degradaziora eta degradaziotik antzaldatzera, Bestearen izateko bi moduen ikuspegi orokorra inoiz osatu ezinik.

### 5.3.2. Fikzio osagarrien zerrenda

Ondoko zerrendan fikzio-unitateen fikzio osagarriak ematen ditut. Zerrenda horretan, fikzio osagarriari *O* esaten diot eta zenbakitu egiten dut zein fikzio-unitateren menpeko den adierazteko, hau da, *O1*, *O2*, *O3* etab. Ordea, fikzio-unitate bakoitzaren osagarritasunari sarrera bakarra eman ordez edota bloke bakarrean, testuan zehar fikzio-unitateari erreferentzia egiten zaion aldiro sarrera desberdin batekin adierazten dut.

Horrez gain, fikzio osagarriaren sarrera bakoitzean orrialde-zenbakia ematen dut eta, halaber, letra lodiz adierazten dut fikzio-unitatearen situazioarekiko unean uneko lotura.

Bestalde, orrialde berean agertzen diren fikzio osagarrien sarrerak izenez bereizi ahal izateko, hizkiak ipintzen ditut, adibidez, *O2a [311]*, *O2b [312]*, *O2c [312]* etab. Eta, nomenklatura bateratzeko, fikzio osagarria bakarra denean ere (adibide bakarra *O1a* da) hori ere hizkiarekin ipintzen dut. Horrela banatzen dira, beraz, ikerketa-corpuseko fikzio osagarriak:

- **F1 [310]: *Hirian jendea ikusi edota entzuten dut***

**O1a [310]:** Probablea da aditzen dudan **ahots** hori **gizaki** batena izatea eta ez **fonografo** baten kantua, eta guztiz *probablea* da ikusten dudan **oinezkoa gizaki** bat izatea eta ez **robot** perfektionatu bat [...] ikusten dudan **aurpegiak** ez du kontzientzia horretara igortzen.

- **F2 [311]: *Lorategian gizona ikusten dut zelai eta aulkien ondoan***

**O2a [311]:** Pentsatu beharko banu ez dela **panpina** bat besterik [...] hartuko nuke **aulkien** “ondoan” kokatua bezala, **zelaitik 2,20 metrora**, **lurrean** nolabaiteko presioa egiten, eta abar.

**O2b [312]:** **Gizakitzat** hartzea, aldiz, **aulkiak** berarekiko duen erlazio ez emendiozko bat atzematea da eta nire unibertsoko gauzen antolamendu bat jasotzea, *distantziarik gabea*, objektu pribilegiatu horren inguruan. Jakina, **zelaia** beragandik **2,20 metrora** dago betiere, baina **zelai gisa** berari lotuta ere badago distantzia transzenditzen duen erlazio batean [...] distantzia *zabalduegiten da* abiatzen ikusten dudan **gizonarengandik zelairaino**, erlazio uniboko baten agertze sintetikoa bezala.

**O2c [312]:** Ezagutzaren objektu da oraindik; adieraziko dut esanez, adibidez, **gizon** horrek **zelaia ikusi** egiten duela, edota gertu dagoela, hori egitea galarazten dion **panela** gorabehera, **belarretatik** ibiltzeko, eta abar.

**O2d [312]:** Objektu hori **gizaki** bat izatea *probablea* da; ondoren, ziurra izanik ere **gizaki** bat dela, nik ikusten dudanean, soilik probablea da berak **zelaia ikustea**, zera, konturen batekin egin dezake **amets** eta inguruan duenari ez ondo erreparatu, edo **itsua** izan daiteke, eta abar. Hala ere, objektu-

**gizonaren** eta objektu-**zelaiaren** arteko erlazio berri horrek ezaugarri berezi bat dauka: aldi berean osorik ematen zait [...] eta aldi berean osorik egiten dit ihes.

**O2e [312]:** **Zelaiaren** eta **gizonaren** artean zabaltzen den distantzia, jatorrizko erlazio horren agertze sintetikoaren bitartez, nik ezartzen dudana distantziaren ezeztapena da –kanpoko ezeztapen-mota garbi bat– bi objektu horien artean.

**O2f [313]:** Baldin eta **zelaiaren** eta Bestearen artean lotura distantziarik gabea eta distantziaren sortzailea badago, egon ere badago derrigorrez Bestearen eta **zelai erdian** bere oinarrietan zutitzen den **estatuaren** artean, Bestearen eta etorbidea inguratzen duten **gaztainondo handien** artean.

**O2g [313]:** **Zelaia** gauza kalifikatua da: **zelai berde hori** da Bestearentzat existitzen dena. Zentzu horretan, objektu beraren ezaugarria, bere **berde sakonak eta gordinak** erlazio zuzena dauka **gizon** horrekin; **berde** horrek niri ihes egiten didan alde bat biratzen du Bestearengana. Hartzen dut **berdearen** eta Bestearen arteko *erlazioa* lotura objektibo bat bezala, baina ezin dut **berdea** atzeman Besteari agertu *bezala*.

**O2h [313]:** Baina *Bestea* oraindik objektua da *niretzat*. *Nire* distantzietan dagokien: **gizona** hor dago, niganik hogeit hamar **pausora**, **bizkarra** ematen *dit*. Berari dagokionez, **zelaitik** 2,20 **metrorra** dago berriro, **estatuatik** sei **metrorra**; horrela, nire unibertsoaren desintegrazioa unibertso horren beraren mugetan kokatzen da.

**O2i [314]:** Ni ezin ager naiteke objektu probable bihurtzen ari ezpada subjektu ziur batentzat. Eta gertakari hori ezin da ondorioztatu *nire* unibertsoa objektu-Bestearentzat objektu den egitatek abiatuta, Bestearen begirada nigan pausatzerantz baletor bezala bide definitu bati jarraiki, **zelaian** eta inguruko objektuetan zehar noraezean ibili ondoren.

**O2j [314]:** Ez dut, bada, kontsideratuko Besteak luzatzen didan begirada bere objektuzko-izatearen adierazpen posibleetako bat bezala: Besteak ezin *dit* begiratu **zelaiari** begiratzen dion bezala.

- **F3 [313]:** *Paseoan gizona liburua irakurtzen ikusten dut*

**O3a [313]:** Bere **liburuaren** eta beraren artean erlazio ukaezin eta distantziarik gabeko bat atzematen dut, arestian **ibiltaria zelaiarekin** lotzen zuenaren motatakoa.



Baina orain forma bere baitan bildu da: objektu oso bat atzeman dezaket. Munduaren barruan, “**gizon-irakurtzen**” esan dezaket “**harri hotza**” eta “**huri fina**” esango nukeen eran.

**O3b [314]:** Soilik zera, “**gizon-irakurtzen**” ezaugarria bera, **gizonaren** eta **liburuaren** arteko lotura gisa, nire unibertsoko artesi txiki eta berezi bat da. [...] bere berezko zentzua nire unibertsoaren barruan egotea da, nigandik hamar **urratsetara**, trinkotasun horren barruan, ihesaldi zorrozki tapatua eta lokalizatua.

**O3c [331]:** Egia bada **Pierrek**, nire aurrean **irakurtzen**, objektibotasun partikular bat ematen diola bere aldera biratzen den **liburu-azalari**, printzipioz nik ere ikus dezakedan **liburu-azal** bat da (nahiz eta ihes egiten didan, ikusi dugun bezala, hain zuzen, berak irakurria den neurrian), ni nagoen munduari dagokiona eta, horrenbestez, **Pierre**-objektuarekin uztartzen dena distantziaz harago eta lotura magiko batez. [331]

- **F4 [315]: *Atzetik nork begiratzen didan ez dut ikusten***

**O4a [315]:** Zalantzarik gabe, *maizenik* begirada bat erakusten duena **bi begi-globoren** niganako konbergentzia da. Baina gertatuko da **adaxka** batzuk astintzean ere, isiltasunaren aurreko **oin-hotsekin**, **leiho** erdi ireki batekin, **gortina** baten mugimendu arinarekin.

**O4b [316]:** Baina **sasitza** eta **baserria** ez dira begirada, **begia** bakarrik irudikatzen dute, **begia** ez baita hartzen lehen-lehenik ikusmenaren organotzat, baizik eta begiradaren euskarritzat. Eta, beraz, ez dagozkie **gortinaren** atzean ezkutaturik edo **baserriko leiho** baten atzean dagoen **zelatariaren haragizko begiei**. Eurak bakarrik jada **begiak** dira.

**O4c [316]:** Atzematen badut begirada, **begiak** ikusteari uzten diot: hor daude, nire pertzepzio-eremuan, *presentazio* hutsak dira, baina ez ditut baliatzen, neutralizatuta daude, jokoz kanpo [...] **Begiak** ezin dira inoiz edertzat edo itsusitzat hartu, edo bere kolorea atzeman, begiratzen dizutenean.

**O4d [316]:** Nik nabaritzen dudana atzean **adaxkak** kraskatzen entzun eta berehala ez da *nor bait dagoela*, baizik eta ahula naizela, zauri daitekeen gorputz bat dudala,

leku bat okupatzen dudala eta ezin dudala inondik ere ihes egin babes gabe nagoen leku horretatik, hots, *ikusia naizela*.

**O4e [334-335]:** **Baserri hori mendi-kaskoan, miliziako soldaduei** begira dirudiena, ziorra da **etsaiak** okupatu duela, baina ez da ziorra **soldadu etsaiak** une honetan **leihoetatik zelatatzea**. **Gizon** horrek, bere **oin-hotsa** entzun baitut atzean, ez da ziorra berak niri begiratzea, **aurpegia** biratuta eduki dezake, eta begirada **lurrean** edo **liburu** batean finkatuta; eta azkenik, modu orokor batean, nigan finkatuta dauden **begiak**, ez da ziorra **begiak** izatea, izan daitezke benetako **begien** “antzera eginak”.

**O4f [335]:** Baina litekeena da nahasi izana. Agian **begizat** nituen munduko objektu horiek ez ziren **begiak**, agian **haizeak** bakarrik astintzen zuen **zuhaixka** nire atzean; hitz batean esateko, agian objektu konkretu horiek ez zuten *errealiki* adierazten begirada bat. Zertan geratzen da kasu horretan nire *begiratuia izatearen* ziurtasuna? Nire lotsa zera zen, hain zuzen ere, *lotsa norbaiten aurrean*. Baina hor ez dago inor.

**O4g [335]:** Probablea da **oinezkoa gizaki** bat izatea; eta nigana biratzen baditu **begiak**, une horretan *begiratuia-izatearen* ziurtasuna sentitu arren, ezin dut eraman ziurtasun hori nire Beste-objektuaren esperientziara.

**O4h [335-336]:** Nigana **jauzika** datorren **oinezko gizen eta itsusi** horrek begiratzen badit, akabo bere **itsustasuna**, bere **loditasuna** eta bere **jauziak**: begiratuia sentitzen naizen denbora-tartean, bera askatasun bitartekari hutsa da ni eta nire buruaren artean.

- **F5A [317]: *Sarraila-zulotik jendea ikusten dut***

**O5Aa [317]:** Bakarrik nago [...] Gauzen kontzientzia hutsa naiz [...] Horrek esan nahi du ate horren atzean **espektakulu** bat ageri dela “ikusgai”, **elkarrizketa** bat “entzungai”. **Atea** eta **sarraila** bitartekoak eta trabak dira aldi berean, aurkezten dira “tentuz maneiatzeko” modukoak; **sarraila** aurkezten da “apur bat zeharka eta gertutik ikusteko” modukoa, eta abar. Hortik aurrera, “egin behar dudana egiten dut”.

- O5Ab [317]:** Ez dago **ate atzeko espektakulurik** *ikusgai* jeloskor nagoelako ez bada, baina nire jeloskortasuna ez da, hain zuzen ere, **ate atzean espektakulu bat** *ikusgai dagoen* gertakari objektibo hutsa besterik.
- O5Ac [318]:** Situazio horrek nire faktikotasuna eta nire askatasuna islatzen dizkit batera: [...] Hortaz, ezin dut nire burua benetan definitu situazioan *izaten* bezala [...] ezin dut nire burua zinez definitu **ateetan** entzuten *izaten*.
- **F5B [318]:** *Korridorean oin-hotsek begiratu sentiarazten didate*
- O5Ba [319]:** Ni naiz Beste batek ezagutzen duen *ni* hori. Eta naizen ni hori Besteak alienatu didan mundu batean naiz, Bestearen begiradak nire izatea besarkatzen baitu eta, ildo beretik, **hormak, atea, sarraila**.
- O5Bb [320]:** Zera, nik ezin dut erreparatu nire “**eserita-izatea**” [...] ezin erreparatuko dut inoiz ere Bestearen begiradan atzematen dudan **eserita-izate** hori; kontzientzia izaten jarraituko dut betiere, baina Bestearentzat.
- O5Bc [321]:** Bestearentzat, *ni eserita nago tintontzi* hori **mahai gainean dagoen** bezala; Bestearentzat, **sarrailako zuloan nago makurtuta, zuhaitz** hori **haizeak makurtuta** dagoen bezala.
- O5Bd [321]:** Ordura arte, posibilitate horiek munduaz eta munduan tetikoki atzematen nituen, tresnen potentzialtasun gisa: **zoko ilunak korridorean ezkutatzeko** aukera zekarkidan, bere iluntasunaren ezaugarri potentzial gisa, bere ilunpearen gonbite gisa. [...] Baina Bestearen begiradarekin sarearen antolaketa berri bat gainjarri zaio lehengoari.
- O5Be [321-322]:** Begiradak ez nau unibertsoan nabarmentzen, bila datorkit nire situazioaren baitan eta, nitaz, tresnekiko lotura zatiezinak bakarrik atzematen ditu: **eserita** bezala ikusia banaiz, “**aulki-batean-eserita**” bezala behar dut izan, **makurtuta** bezala ikusia banaiz, “**sarraila-zuloan-makurtuta**” bezala behar du izan, eta abar. [...] **Aulki horretan eserita** naiz ikusia, baina **aulkia ikusten ez dudalarik**, ezinezkoa delarik nik ikustea, ihes egiten didalarik, beste erlazio eta distantzia batzuekin, beste objektu batzuen erdian antolatzeke; objektu horiek niretzat alde ezkutu bat dute, era berean, sare berri eta beste era batera orientatu batean.

- O5Bf [322]:** Adibidez, **zoko ilunaren** potentzialtasuna zokoan ezkutatzeko posibilitate emana bihurtzen da, soilik Besteak gaindi dezakeelako **eskuargi** batekin **zokoa** argitzeko duen posibilitaterantz. Hor dago posibilitate hori, baina absente bezala, *Bestearengan* balego bezala, eta atzematen dut nire atsekabearen bitartez eta “ziurregia ez den” **ezkutaleku** hori baztertzeko nire erabakiaren bitartez.
- O5Bg [322]:** Beraz, nire posibilitateak presente agertzen zaizkio nire kontzientzia ez erreflexuari Besteak *zelatzen* nauenarekin batera. Edozertarako prest ikusten badut bere jarrera, **esku** **arma** gordeta duen **patrikan** sartuta, **atzamarra txirrina elektrikoan** “nire **keinu** txikienaz” **zelatariari alerta** emateko puntuan, nire posibilitateez kanpotik eta beregatik jabetzen naiz, eta aldi berean posibilitate horiek naiz.
- O5Bh [322]:** Iheserako joera hori, banaukana, banaramana eta *banaizena*, irakurri egiten dut **begirada zelatari** horretan eta beste begirada horretan: **arma niri apuntatzen**.
- O5Bi [322-323]:** Hiltze leuna da, ezen ezkutatzeko posibilitatea oraindik *nire* posibilitatea baita eta, bera *naizeino*, bizirik baitago; eta **zoko ilunak** dei egiten dit eten gabe eta bere potentzialtasuna bidaltzen. [...] **Zokoan** gordetzeko nire posibilitatea bihurtzen da, horrela, Besteak bere posibilitaterantz gaindi dezakeen zerbait, ni agerian uzteko, identifikatzeko eta atzemateko. *Bestearentzat* aldi berean da traba eta bitarteko, edozein tresna bezalaxe: traba, zenbait ekintza berritara behartuko baitu (**niganantz hurbiltzera**, **eskuargia piztera**); bitartekoa, kale itsuan aurkituz gero, ni “harrapatua bainaiz”. [...] Besteak *aldi berean* gainditzen ditu **zoko ilunaren** iluna eta nire ezkutatzeko posibilitatea, babesteko ezer egin ahal izan aurretik, **zokoa eskuargiarekin** argitzen duenean.
- O5Bj [324]:** Nire lotura mintzo den eta **espiatzen** dudan **jende** horrekin kolpe batean eta nigandik kanpo ematen da [...] *Ikusten dudan* jendea, noski, objektutan finkatzen dut; beraiantzat ni naiz Bestea niretzat den modukoa [...] Baina Besteak begiratzen badie eta badit, nire begiradak indarra galtzen du, ezingo luke bihurtu jende hori *Bestearentzako* objektu, jadanik bere begiradaren objektu baitira.

**O5Bk [328]:** Atzera egin dut, nire munduarekiko presentzia distantzia gabeaz gabetuta nago eta Bestearekiko distantzia batez hornituta: horra **atetik hamabost pausora** nagoela, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila datorkit berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. Besteak eratzen nauenez berarekiko **sei metrora**, bera niri distantziarik gabe egiten zait presente.

- **F5C [336]: *Korridorean ez dago inor***

**O5Ca [336-337]:**Hain dago urrun Bestearen existentzia zalantzan jartzea, ezen **alerta faltsu** horrek nire egitasmoa bertan behera uzteko ondorioa izan baitezake. Eta existentzia horri eusten badiot, aldiz, **bihotza taupaka** sentituko dut eta adi egongo natzaio **soinu** txikienari eta **eskailera-maila** bakoitzaren **kraska** txikienari. Nire lehen **alertarekin** Bestea desagertu ez baizik, areago, nonahi dago orain, nire azpian, nire gainean, ondoko geletan, eta jarraitzen dut sakonki sentitzen nire Bestearentzako izatea. Eta litekeena da nire lotsa ez desagertzea: **musugorri makurtu** naiz orain **sarrailara**, etengabe *bizi* dut nire Bestearentzako izatea; nire posibilitateak etengabe “hiltzen” dira eta distantziak etengabe zabaltzen dira nigana norbait egon “litekeen” eskaileretatik, giza presentzia bat ezkuta “litekeen” **zoko ilun** horretatik. Areago, ikarutzen banaiz **soinu** txikienarekin, **kraska** bakoitzak begirada bat iragartzen badit, izate-begiratuaren egoeran nagoen seinale. Zer da funtsean, beraz, gezurretan agertu dena eta suntsitu egin dena **alerta faltsu** horretan?.

- **F6 [337]: *Gelan absentzia bat sumatzen dut***

**O6a [337]:** Hasteko, ez badut nire **tabako-paketea** bere lekuan aurkitzen, ez dut esango *absente* dagoenik; nahiz eta adieraz nezakeen “**hor** egon behar zuela”.

**O6b [337]:** Baina ez nuke esango, haatik, **apartamentu** horretan *absente* direnik Aga **Khan** eta **Marokoko Sultana**, eta bai, ordea, **bertan** egon ohi den **Pierre ordu laurdenez absente** dagoela.

**O6c [337-338]:** **Pierre** leku jakin baten arabera determinatzen dut, *absente* dagoela adierazten dudanean. Alegia, ez nuke hitz egingo **Pierreren** absentziaz naturako leku jakin baten arabera, bertatik pasatzeko ohitura badu ere. Baina bere absentzia sala nezake, ordea, **bazkari** batean bera inoiz egon ez den **eskualde** bat izan duena “gertaleku”. **Pierreren** absentzia definitzen da **leku** baten arabera non eta bera hor egotera determinatu beharko litzatekeen.

Baina **leku** hori berori mugatuta dago leku gisa, ez kokapenagatik edo **lekuaren** eta **Pierre** beraren arteko erlazio bakarkakoak direla eta, baizik eta beste giza errealitate batzuen presentziagatik. **Pierre** *beste gizaki* batzuentzat dago absente.

**O6d [338]:**

Absentzia da **Pierrek Teresarentzat** duen izateko modu konkretu bat [...] **Teresarentzat** dago **Pierre** absente *leku horretan*. [...] **Teresarentzat** absente egotea, **Pierrentzat**, **Teresari** presente egoteko modu jakin bat da. Izan ere, absentziak hor ez du esanahirik ez baldin badaude bermatuta **Pierreren Teresarekiko** lotura guztiak: **maite** du, bere **senarra** da, bere iraupena ziurtatzen du, eta abar. Absentziak, bereziki, **Pierreren** existentzia *konkretuaren* iraupena dakar: heriotza ez da absentzia bat. Horregatik, **Pierreren** eta **Teresaren** arteko *distantziak* ez du ezertan aldatzen euren elkarrenganako presentziaren funtsezko izatea. Izan ere, hartzen badugu presentzia hori **Pierreren** ikuspuntutik, ikus dezakegunez, horrek zera esan nahi du: *edo Teresa* objektu-Beste gisa da munduaren barruan izatedun, *edo* subjektu-Beste batentzat balitz bezala, Teresarentzat existitzen dela sentitzen du. Lehenengo kasuan, distantzia egitate kontingentea da eta ez du esanahirik, funtsezkotzat jotzen baita **Pierre** dela Totalitate gisa mundu bat “badela” ahalbidetzen duen hori eta bera presente zaiola mundu horri distantziarik gabe, distantzia berak existiarazten duen heinean. Bigarren kasuan, nonahi egonik ere, **Pierrek** sentitzen du distantziarik gabe existitzen dela **Teresarentzat**. **Pierrarentzat**, **Teresa distantziara** dago, **Teresa** urrundu egiten baita beragandik eta bion artean distantzia bat zabaltzen baitu: mundu osoak bereizten ditu. Baina bera distantziarik gabe dago **Teresarentzat**, bera **Teresak** izatera eta mundura dakarren objektua baita. Horrenbestez, urruntzeak ezin ditu inola ere aldatu funtsezko erlazio horiek. Distantzia handia nahiz txikia izan, **Pierre**-objekturen eta **Teresa**-subjekturen artean, eta **Pierre**-subjekturen eta **Teresa**-objekturen artean, mundu baten geruza infinitua dago. **Pierre**-subjekturen eta **Teresa**-objekturen artean, eta **Teresa**-subjekturen eta **Pierre**-objekturen artean ez dago distantzia txikiena ere. Horrela, absentziaren eta presentziaren kontzeptu enpirikoak, beraz, bi zehazpen dira funtsezko presentzia batena, hots, **Pierregandik Teresagana** eta **Teresagandik Pierregana**; presentzia hori modu batera edo bestera adierazten dute eta hor datza bere zentzua.

**Londonen, Indietan, Ameriketan, irla bakarti** batean, **Pierre** presente zaio **Parisen** geratu den **Teresari: Teresa** hiltzen denean bakarrik utziko dio **Pierrek** presente izateari.

**O6e [339]:** Izate bat ez da *kokatzen lekuen* arabera, longitude eta latitude graduen arabera, baizik eta giza espazio batean, "**Guermantes-enetik**" eta "**Swann-enetik**", eta **Swann-en** eta **Guermantes-ko dukesaren** bat-bateko presentzia da espazio "hodologiko" hori zabaltzen uzten duena, non eta berak leku hartzen duen [...] **Marokoko nire lehengusuaren** presentzia da zabaltzen uzten didana, transzendentzian, nire eta bere artean munduan-kokatzen nauen bide hori, eta "Marokoko bidea" dei litekeena.

**O6f [339]:** Ohar horiek orokortu egin daitezke: ez dira bakarrik **Pierre, René, Lucien** niretzat absenteak eta presenteak direnak jatorrizko presentzia baten planoan, ez baitira ni kokatzen nauten bakarrak: kokatzen ere naiz **europar** gisa **asiarren** edota **beltzen** aldean, **zahar** gisa **gazte jendearen** aldean, **magistratu** gisa **gaizkileen** aldean, **burgese** gisa **langileen** aldean, eta abar.

**O6g [339-340]:** Horren ondotik, tronpatu ahal naiz kalean topatu berri dudana objektu-Beste baten presentzia enpirikoaz. Uste izan dezaket **Anny** dela nigana datorrena **bidean** eta deskubritu pertsona ezezagun bat dela: horrekin ez da aldatzen **Annyren** funtsezko presentzia niretzat. Uste izan dezaket **gizon** bat dagoela nire zelatan **ilunpean** eta deskubritu **zuhaitz-enbor** bat dela **gizakitzat** hartzen nuena: horrekin ez da aldatzen nire funtsezko presentzia **gizaki** guztientzat eta **gizaki** guztiena niretzat.

- **F7 [340]:** *Bestearentzat presentzia nabarmendu gisa existitzen naiz*

**O7a [340-341]:** Nire **gizaki** izatearen esperientzia, beste **gizaki bizidun guztientzat** objektu, **borroka-plazara jaurtia milioika begiradapean** eta nigandik ihesi milioika aldiz, konkretuki bizi dut *nire* unibertsoan objektu bat agertzen denean, baldin eta objektu horrek aditzera ematen badit probablea dela presentean ni kontzientzia batentzat objektu izatea *hori-nabarmendu* gisa.

**O7b [341]:** Ordea, begiratzen didatenak *begiratzen* ditudan unetik, hots, *beste-kontzientziak*, isolatu egiten dira askotasunean. [...] Agertzen bagara "jendaurrean" rol bat **interpretatzeko** edo **konferentzia** bat emateko, ez dugu galtzen begiratuak garen ikuspuntua eta betetzen dugu egitera etorri

garen **ekintza-multzoa** begiradaren *presentzian*, areago, saiatzen gara eratzen izate bat eta objektu-multzo bat begirada *horrentzat*. Baina ez dugu zenbatzen begirada. Mintzo garen bitartean, garatu nahi ditugun ideiei bakarrik arretatsu, Bestearen presentzia ez da nabarmentzen. [...] Ordea, baieztatu nahi badut nire **gogoeta** ondo ulertu dela, begiratzen badut orduan **auditorioa**, **begiak** eta **buruak** ikusiko ditut agertzen bat-batean. [...] Baina desagertu egin da begirada ere.

- **F8 [352]: *Bestea objektu ikusten dut baina giza ezaugarri zehatzekin***

**O8a [353]:** Bestea bihurtzen da beste tresna guztiekiko harremanaz definitzen den tresna: *nire* tresnen antolamendu jakin bat da nik tresna horiei ezarritako antolamenduaren barruan bertan. [...] **mailuaren** eta **iltzeen** edota **zizeiluaren** eta **marmolaren** antolamendua da, nik antolamendu hori transzenditzen dudalarik bere fundatzailea izan gabe, mundu-arteko hemorragia horren zentzua definitzen duena.

**O8b [353]:** Zehaztu ahalko banitu tresna-sare guztiak Bestearengana biratuta dauden bezala, alegia, atzeman ahalko banu ez bakarrik **mailuak** eta **iltzeak** tresna-sare horretan okupatzen duten lekua, baizik eta baita **kalea**, **hiria**, **nazioa** eta abar ere, zehazki eta osoki definituko nuke Bestearen izatea objektu gisa.

**O8c [353-354]:** Bestearen **intentzio** bati buruz tronpatzen banaiz, ez da inola ere bere **keinua** subjektibotasun helezin batekin lotzen dudalako [...] tronpatzen naiz mundu osoa **keinu** horren inguruan antolatzen dudalako berez antolatzen den eran ez baizik eta bestela.

**O8d [355]:** Beste-objektuaren **haserrea**, niri agertzen zaidan bezala bere **garrasien** bidez, bere **ostiko** eta **keinu mehatxatzaileen** bidez, ez da **haserre** subjektibo eta ezkutu baten **zeinua**; ez du ezertara igortzen, soilik beste **keinu** eta beste **garrasi** batzuetara. Horrek definitzen du Bestea, hori *da* Bestea. Jakina, tronpa naiteke eta benetako **haserrealditzat** hartu **sumindura** antzeztua baino ez dena; baina bakarrik tronpa naiteke objektiboki atzeman daitezkeen beste **keinu** eta **ekintza** batzuen arabera: tronpatzen naiz hartzen badut **eskuaren mugimendua jotzeko intentzio** errealizat, alegia, tronpatzen naiz hori interpretatzen badut **keinu** baten arabera objektiboki atzeman daitekeena eta gertatuko ez dena.



**O8e [355]:** Eta **mailua** eta **zerra**, ez bairik gabe, ez dira desberdin ulertzen. Bata zein bestea bere funtzioaren arabera hartzen da, hau da, bere helburuaren arabera. Baina kontua da, hain zuzen ere, izatez **gizakiarenak** direla. Ezin ditut ulertu ez bada Bestea erdigune duen tresna-antolamendu batera igortzen didatela, ez bada antolamendu oso baten parte direla nik ere transzenditzen dudan helburu baterantz transzenditzen dena. Bestea **makina** batekin konpara daiteke, hain zuzen, **makinari** jada suposatzen zaiolako, **gizakiaren** tresna den heinean, transzendentzia-transzenditu baten tankera, **irundegi** bateko **ehungailuak** euren sortzen dituzten **oihalen** baitan ulertzen diren bezala.

- **F9 [354]:** *Metroko gizona liburua irakurtzen ikusten dut*

**O9a [354]:** Eta ez da bakarrik bere **gorputza**, munduko objektu gisa, bere izatea definitzen duena, baita bere **nortasun agiria** ere, eta igo den **metroko linearen norabidea**, eta **atzamarrean daraman eraztuna**.

**O9b [354-355]:** Ordea, **bera** munduaren barruan *dagoela jakin badakit* ere, **Frantzian**, **Parisen** irakurtzen, bere nortasun agiria ikusi ezean, *suposatu* baino ez dezaket egin bera **atzerritarra** dela (horrek zera esan nahi du: pentsatu **kontrol** baten menpe dagoela, **prefekturako zerrendaren** batean dagoela, hitz egin behar zaiola **holandesez**, edo **italieraz**, bere aldetik jarrera bat edo beste lortzeko, **nazioarteko posta gutun-bide** batetik edo bestetik heltzen dela bereganaino halako eta horrelako **zigiluarekin**, eta abar). Haatik, **nortasun agiri** hori printzipioz munduaren barruan ematen zait. Ez dit ihes egiten —sortu denetik, existitzen jarri da niretzat. Baina inplizitu existitzen da niretzat, nik forma bukatutzat ikusten dudan zirkuluaren puntu bakoitza bezala. Aldatu egin beharko litzateke munduarekiko nire erlazioen osotasun presentea, nik hori agerrarazteko unibertsoa atzeko planoan duen *hori* esplizitu bat bezala.

### 5.3.3. Fikzioen arteko igorpen nagusiak

Fikzioen zerrendak ikusita, atentzioa ematen duen lehen gauza zera da, *F10* eta *F11* fikzio-unitateek ez dutela fikzio osagarririk. Gorago aipatu dugunez, horiek fikzio-bidez ematen diren irudi-eskemak dira, zehazki, ihesarena eta leherketarena, hurrenez hurren. Eta bietan nabarmentzen dena zera da, Izatearen transzendentzia *galtzeko arriskua*,

alegia, transzendentzia transzenditua bihurtzekoa. Gainerako fikzio-unitateetan (*F1-F9*), hainbat ikuspegitatik, eszenan jartzen diren situazioak zuzenean dagozkio begiradari eta *Bestearen* existentziari (dela absentsia gisa dela presentzia gisa); eta ez horiek azaltzeko baliatu ohi den irudiren baten eszenifikazioa (*isurtzea, degradatzea, suntsitzea, etab.*).

Hortaz, *F10* eta *F11* fikzioetan, begiradaren azalpenak irudiaren ‘erantsia’ dauka. Horietan begirada ez da bakarrik begiratzearen ‘aktoa’ eta *Bestearen* halako edo bestelako presentzia, baizik eta existentziaren norabide-aldaketa, hain zuzen, ihes bezala ulerrarazi den norabide-aldaketa. Eta, norabide-aldaketa hori uneoro gertatzeko arriskua dagoen heinean, *F11k* salatzen duenez, horrek ardura eskatzen du, hain justu, (ihesaren) norabide ‘zuzena’ mantentzeko (hots, nigandik *Bestearengana*) “berak objektu izaten jarrai dezan”. Horren arabera, beraz, *F10* eta *F11* lotutzat eman daitezke, non eta bi fikzio-unitateak batzen dituen terminoa ‘ihesa’ baita:

**F10:** **Ihesi doan** soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean [...]

**F11:** [...] leherraraz *dezaten* eta leherketa horrekin bat-batean bizi dezadan munduaren **ihesa** nigandik kanpo eta nire izatearen alienazioa.

Halaber, *F10*eko ‘beldur’ adigaiak (ohar, beldurrarekin aise lot daitezkeen *fusila, bala, etsaia* ere aipatzen direla) eta *F11*ko ‘tentuz maneiatu’ eta ‘tresna lehergarri’ adigaiak eremu berekotzat jo daitezke, gogoan izaten badugu horiek heriotza-arriskua adierazten dutela nolabait. Ohartzekoa da testuan zehar begiraturia izatea ‘ihes’ eta ‘alienazio’ (*F11n* aipatua) irudiekin ez ezik, parekotzat ulertu behar diren ‘galera’, ‘desintegrazio’, ‘suntsipen’ eta ‘heriotza’ irudiekin ere ematen dela, besteak beste. Adibidez (*EN: 323*): “Bestea nire posibilitateen **heriotza isila** da, eta **heriotza** hori bizi dut munduaren barruan ezkutatuta balego bezala”.

Itxura guztien arabera, testuko hamaika fikzioek eta beren osagarriek bloke edo sare itxia osatzen dute. Ideia horri helduz, *F10* eta *F11* sare horren amaierako fikzioak dira, baina ematen duten ‘ihesaren’ irudia, horratik, fikzio gehienetan agertzen da (*O2d, O2g, O3b, O3c, O4d, O5Bh, O7a, O9b*) eta, nolabait ere, badirudi guztiak lotzen dituen haria ‘ihesaren’ eskema bera dela: *Bestearen begiradak ihes egiten dit nirea ez den heinean*. Aipatzekoa da, halere, fikzio-sarean ihesa ez dela soilik iruditzat ulertzen (adibidez,

*O2g-en zentzuan: berde horrek niri ihes egiten didan alde bat biratzen du Bestearengana*); ihes fisiko bezala ere ulertzen da, adibidez, *ihesi doan soldadua (F10)* eta *arma niri apuntatzen (O5Bh)*.

Era berean, *O5Bd*, *O5Bf* eta *O5Bi* fikzio osagarriek adierazten duten ezkutatzeko beharrak ematen du ihesari egiten diola erreferentzia (hortik *O4d* eta *O5Bi* fikzioek babesaren irrika adieraztea), nolabait esateko, Izateak babestu nahi balu bezala, baina ez hainbeste *Bestearengandik* baizik eta ihesetik beretik. Hala, beldurra ez luke emango *Besteak* (norbere esku baitago beregananzko ‘norabidea’ mantentzea), baizik eta *ihesak* (ihesean nire Izatea ez baitago nire esku). Nolabait esatearren, *F5b*-eko *Ni-begiratuak* ezkutatu egin nahi du, hain zuzen ere, ihes ez egiteko.

Beraz, norbere existentziaren norabide-aldaketa eta horren arriskua ‘lehia’ bezala ere uler daiteke. Horixe adierazten dute *O5Bg*, *O5Bh* eta *F10* fikzioetan armak hartzen duen bateko edo besteko norabideak. Zalantzarik gabe, *F11*ko leherketa bi norabidetakoa izan daiteke. Alegia, *Bestea* lehertzeak adierazten du *Beste*-objektua *Beste*-subjektu bihurtu dela, baina *Bestearentzat Ni* naiz leher daitekeena (eta, beraz, *Ni* subjektu bihurtu eta *Bestea*, aldiz, *Nire* objektu, berari ihes egiten diona). Ildo beretik, pentsa daiteke *O7a*-ko “borroka plazara jaurtia” zentzu horrekin aipatzen dela, *Izate-norgehiagoka* bezala.

Halatan, situazio guztietako gertakizunei dagokienez, *begirada* eta *ihesa* nabarmen daitezke nagusiki. Ordea, begiradaren barruan ekintza gutxi batzuk errepikatzen dira, hain zuzen, irakurtzen dagoen gizonarena (*F3*, *F9*) eta paseoan doanarena (*F1*, *F2*, *F3*, *O4g*, *O4h*, *O6g*). Hori dela eta, zilegi da lotura egitea situazioetako subjektuei dagokienez. Esaterako, *F3*en irakurlearen izenik aipatzen ez den arren, hori eta testuko orrialdeetan askoz hurrunago dagoen *O3c* (‘Pierre’ aipatzen duena) situazio berekotzat har daitezke. Izan ere, metadiskurtsiboki ere *F3*ri erreferentzia egiten dio: “nahiz eta ihes egiten didan, **ikusidugun bezala**, hain zuzen, berak irakurria den neurrian”.

Bestalde, traba handirik gabe pentsa liteke ‘Pierre irakurlea’ *O6b*, *O6c*, *O6d* eta *O6f*-eko ‘Pierre’ dela, alegia, ‘Teresaren’ laguna, eta *F1*eko ‘emakumea’ eta *F4*ko ‘oin-hotsa’, aldiz, *O6g*-ko ‘Anny’ eta ‘gizona’ direla, hurrenez hurren. Halaber, ilunpetik edo atzetik begiratzen duen *O6g*-ko ‘gizona’ *F4*ko sasitzako begiratzaila bera dela uler daiteke; era berean, *Ni* berbera dela uler daiteke *F1*en leihotik eta *F5*en sarrailatik begira dagoen

pertsona, edota *F4*en eta *O6g*-en paseoa doana, batez ere situazioaren espazioari edo gertalekuari arreta ipintzen badiogu.

Azken batean, situazioak maizenik urbanoak dira (*gela*, *lorategia*, *kalea*, *metroa* eta, zergatik ez, baita *Bestearen* ‘presentzia’ soilaren aipamena ere) eta, gertakizunak eta espazioak gehiegi zehazten ez direnez (akaso espreski bilatzen dena, bide batez), situazioan leku hartzen duten subjektuek eta espazioek beti berberak dirudite. Gauza bera, hortaz, *F4*ko eta *F10*eko eremu belikoari dagokionez (ohar *F4* situazio bikoitza dela, bata hirian eta bestea mendian gertatzen dena).

Hala, aise pentsa liteke *F4* eta *F10*eko soldaduak berberak direla eta, berdin, *F1*, *F2*, *F3* eta *F4* situazioak, *Ni* bati jarraian gertatzen zaizkion bizipenak direla, alegia, lehenik lehiotik jendea ikustea, gero lorategian gizon bat ikustea, ondoren paseoa irakurtzen doan beste bat, eta, azkenik, norbait atzeko sasitzan zelatan nabaritzea. Fikzio-segida hori dela eta, *O6g*-ko ‘gizona’ eta ‘Anny’, nahiz eta *tronpa naiteke* eta *uste izan dezaket* esapideek *Niaren* gogoetatzat aurkezten duten, fikzio-segida berekotzat jo litezke. Eta *F9* ere multzo berean sar liteke.

Halatsu, *F5* eta *F6* situazioak jarraian gertatzen direla pentsa liteke, hau da, *F5*ko *Ni*-begiralea, *F5C*en inor begira ez dagoela ohartu eta gero, sarrailatik berriro ere ondoko gela zelatatzea eta bertan Pierreren absentsia sumatzea (hots, *F6*). Azkenik, *F7*, *F8* eta *F9* situazioei buruz, jarraian gertatzen direla pentsa liteke, funtsean, egoera-segida bat ematen baita *Bestearen* jatorrizko presentzia nola bizi dudan eta *Besteak* nirea nola bizi duen adierazteko. Hipotesiak dira, baina onargarriak dirudite.

Hipotesiak muturrera eramanez, irudika liteke eszena bat zeinak hasiera *F5*en hartzen duen. Ematen du sarraila-zulotik begira dagoen *Nia*, *F6*en Pierre aretoan faltan botatzen duen *Nia* eta *O7b*-en konferentzia eman behar duen *Nia* pertsona bera dela eta espazio eta denbora berean dagoela. Azken batean, *F6*eko fikzio osagarriak eta *F7*k ez dute talkarik egiten, *F6*ek ez baitu situazio-garapenik. *F6* gela batean gertatzen da eta ondoko fikzio osagarriek ez dute egoera horren progresioa osatzen, baizik eta mugatzen dira *F6* bestela azaltzera. Funtsean, gertaleku beretik ateratzen ez garen inpresioa hartzen da, nahiz eta fikzioen arteko erreferentzia anaforikoak eta metadiskurtsiboak urriak izan, esaterako, *F2-F3* artean gertatu bezala:

**O3a:** Bere liburuaren eta beraren artean erlazio ukaezin eta distantziarik gabeko bat atzematen dut, **arestian ibiltaria zelaiarekin** lotzen zuenaren motatakoa

Bestalde, aipatzekoa da, batetik, gainerako fikzioen aldean osagarritasun zabalagoa duten lau fikzio-unitate daudela: *F2*, *F4*, *F5*, *F6*. Hartzen duten orrialde-kopurua albo batera, *F2i* hamar aldiz egiten zaio erreferentzia; *F4ri*, zortzi; *F5i*, hamabost; *F6ri*, zortzi. Horrek pentsaraz lezake, gainerako fikzio-unitateak, funtsean, fikzio-unitate sarearen garapenean, uneko erreferentzia erantsiak direla eta, beraz, beste situazio baten menpeko direla, esate baterako, *F1* eta *F3*, *F2rena*; *F7* eta *F8*, *F6ena*; eta *F9* jarraipen soil bat besterik ez dela, bai *F1-F4* bai *F5-F8* fikzio-multzoena.

Esanak esan, fikzio-hierarkia baten adibidetzat aipa daiteke, esaterako, *F3*en ondoren ere oraindik *F2*en osagarriak agertzea (*F3*, azken batean, *F2*ren barrukoa balitz bezala); edota, ildo beretik, *F4*ko atal osagarri dezente *F5B-F5C* artean agertzea; halaber, baita orrialde-kopuru zabala egotea zenbait fikzio osagarritan (adib. *O3b-O3c* eta *O4d-O4e* artean); eta *F5* hirukoitza izatea eta horren atal bakoitzak beste hainbat fikziotara igortzea, esaterako, *F5A*-ko *Ni*-begiraleak *F1*kora, *F5B*-eko *Ni*-begiratuak *F4*kora eta *F5C*-eko *Bestearen* absentsiak *F6*kora. Ordea, fikzio-lotura horiek hobeto zehazteko, fikzioaren ordain teorikoari heldu behar zaio.

#### **5.4. Fikzio-multzoak ordain-teorikoaren arabera**

Fikzio-unitateen eta fikzio osagarrien ordain teorikoa proposiziotan emanik, atzematen da horren garapena urratsetan egiten dela eta jauzirik gabe, baina ez bakarrik fikzio-unitatetik unitatera baizik eta baita fikzio osagarritik osagarrira ere. Horrekin batera, atzematen da fikzio-sorta osoak multzoka jorratzen dituela teoriaren lerro nagusiak: **(i)** *Niaren* subjektutasuna eta *Bestearen* objektutasuna; **(ii)** *Niaren* objektutasuna eta *Bestearen* subjektutasuna; **(iii)** *Bestearen* jatorrizko presentzia eta transzendentzia.

Lehen bi fikzio-multzoak Izatearen transzendentzia-ezaren planoan kokatzen dira; esan nahi baita, *Bestea* objektu delarik, atzematen dena ez da berez *Bestea*, baizik eta objektu ziurgabe bat; eta *Bestea* subjektu delarik, *Nia* objektu soila da eta nekez atzeman dezake *bestetasuna*. Hirugarren fikzio-multzoak Izatearen transzendentziaren planoan kokatzen da, alegia, *Bestearen* existentzia atzemaleak eskatzen du *Bestea* 'ez-objektu' izatea

(bestela ez da *Bestea*) baina, era berean, ‘ez-subjektu’ ere izatea (bestela ez dago hori atzemango duen *Ni-rik*, *Nia* objektu bihurtzen duelako).

Edozein kasutan, fikzio-multzo bakoitza ez da hertsia eta igorpenak egiten ditu aurrera eta atzera. Horri erreparatzeko, eman dezagun beraz lehenik fikzio-sarrera bakoitzaren ordain teorikoa proposiziotan. Ondoko zerrendan, proposizio teorikoak emateko orduan, ‘Ni’ eta ‘Bestea’ kontzeptutzat ulertu behar direla jakinik ere, izenordaintzat ematen ditut, ordain teorikoak fikzio-tankera osoa gal ez dezan.

- **F1 [310]: *Bestea ikusten edota entzuten dut***

**O1a [310]: *Litekeena da ikusi edota entzuten dudana ez izatea Bestea***

- **F2 [311]: *Bestea ikusten dut***

**O2a [311]: *Bestea uler dezaket nire inguruko Objektuetako bat bezala***

**O2b [312]: *Bestea uler dezaket bere inguru propioa duen Objektu bat bezala***

**O2c [312]: *Besteak ikus ditzake inguratzen dioten Objektuak***

**O2d [312]: *Besteak inguratzen dionari erreparatzen dion ezin dut jakin***

**O2e [312]: *Besteak eta nik inguratzen digunarekiko erlazio propioa dugu***

**O2f [313]: *Besteak inguratzen dioten gauzekiko erlazio propioa du***

**O2g [313]: *Besteak inguratzen dionarekin zer erlazio duen nik ezin dut atzeman***

**O2h [313]: *Ikusten dut Besteak baduela inguratzen dionarekin erlazio propioa***

**O2i [314]: *Ikusten dudana Besteak ezin dit begiratu inguratzen dion Objektutzat***

**O2j [314]: *Begiratzen didan Besteak ezin dit begiratu inguruko Objektuei bezala***

- **F3 [313]: *Bestea ikusten dut Objektu jakin bat ikusten duela***

**O3a [313]: *Besteak Objektu jakin batekin erlazio propioa duela ikusten dut***

**O3b [314]: *Besteak Objektuarekin duen erlazioa nik berarekin dudanari dagokio***

**O3c [331]: *Erlazioa dut ‘Objektuarekin-erlazioa-duen’ Bestearekin***

- **F4 [315]: *Nork begirutzen didan ez dut ikusten***

**O4a [315]:** *Begiraturia senti naiteke eta Beste-objekturik ez ikusi*

**O4b [316]:** *Begirada ez dago lotuta Objektu begiratzailer jakin bati*

**O4c [316]:** *Begirutzen didan Bestea ikusezina da niretzat*

**O4d [316]:** *Begiraturia izatea niretzat begiradaren menpe nagoela ikustea da*

**O4e [334-335]:** *Ez da ziurra ikusten dudana Bestea begirutzen didanik*

**O4f [335]:** *Begiraturia senti naiteke Bestearen presentziarekin tronpatu arren*

**O4g [335]:** *Ez da ziurra begirutzen didana ikusten dudana Beste-objektua denik*

**O4h [335-336]:** *Besteak begirutzen didanean, nik ez dut bera ikusten*

- **F5A [317]: *Besteari begirutzen diot***

**O5Aa [317]:** *Bakarrik nago begira eta Besteak ezin nau ikusi*

**O5Ab [317]:** *Nik Bestea ikusi baino gehiago, Bestea ikusgai dago*

**O5Ac [318]:** *Ez naiz begiratzaileria, ez baitago begiraturia senti daitekeen Besterik*

- **F5B [318]: *Sentitzen dut beste Beste batek begirutzen didala***

**O5Ba [319]:** *Bestearen inguru (mundu) propioari dagokion Objektu bat naiz*

**O5Bb [320]:** *Begirutzen didan Bestearentzat zer naizen nik ezin dut atzeman*

**O5Bc [321]:** *Besteak begirutzen dit bere inguruari dagokion Objektu bati bezala*

**O5Bd [321]:** *Begiraturia izan aurretik nire ingurua 'antola' nezakeen*

**O5Be [321]:** *Besteak ikusten nau inguruko beste Objektuekiko erlazioan*

**O5Bf [322]:** *Begiraturia naizelarik nire ingurua Besteak antolatzen du*

**O5Bg [322]:** *Jabetzen naiz Besteak antolatzen dituela nire posibilitateak*

**O5Bh [322]:** *Jabetzen naiz begiradaren (ihes) bidea Besteagandik nigana dela*

**O5Bi [322-323]:** *Nire ezkutatzeko posibilitatea Besteak bere egiten du*

**O5Bj [324]:** *Besteak ikusten nau jendeari begirutzen, baina ez begiratzaileriaz*

**O5Bk [328]:** *Bestea presente egiten zait baina berak antolatzen ditu distantziak*

- **F5C [336]:** *Besterik ez da inon ageri*

**O5Ca [336-337]:** *Begirada ez da Beste-objektuaren presentzia, baizik eta nire posibilitateen hiltzea (Niaren transzendentziaren ihesa)*

- **F6 [337]:** *Bestearen absentsia sumatzen dut*

**O6a [337]:** *Objektua ezin da inoiz 'absente' egon*

**O6b [337]:** *Edozein Beste ez egotea ez da 'absente' dagoen seinale*

**O6c [337-338]:** *Ni Beste norbaitentzat baizik ez nago 'absente'*

**O6d [338]:** *Ni Bestearentzat nago 'absente'*

**O6e [339]:** *Giza espazio eta jatorrizko presentzia batekiko egon naiteke 'absente'*

**O6f [339]:** *Munduan kokatzen naiz Bestearen jatorrizko presentzia baten arabera*

**O6g [339-340]:** *Munduan ez naiz kokatzen nire inguruko objektu baten arabera*

- **F7 [340]:** *Bestearentzat presentzia nabarmendu gisa existitzen naiz*

**O7a [340-341]:** *Begiradarekin Bestearen Objektu nabarmendu bat sentitzen naiz*

**O7b [341]:** *Begirada zenbatezina da, zenbatzen (ikusten) dena ez da begiratzailea*

- **F8 [352]:** *Bestea Objektu ikusten dut baina giza ezaugarri zehatzekin*

**O8a [353]:** *Bestea nire inguru-antolamenduaren antolamendu propio bat da*

**O8b [353]:** *Bestearen antolamenduaren hurbilpenak bakarrik egin ditzaket*

**O8c [353-354]:** *Tronpa naiteke Beste-objektua ulertzeko unean*

**O8d [355]:** *Tronpa naiteke Objektu-antolamendu batean oinarritzen naizelako*

**O8e [355]:** *Bestea ulertu behar da mundu-antolamendu autonomo bat bezala*

- **F9 [354]:** *Mundua presente dago Bestearen mundu-antolamenduan*

**O9a [354]:** *Bestea (ni bezala) situazioan dagoen Subjektutzat ulertzen dut*

**O9b [354-355]:** *Bestearen situazioa nirea ez delarik nirearen barne gertatzen da*



- **F10 [356]: *Beste-subjektuak eragiten du Ni-objektuak ihes egitea***
- **F11 [358]: *Beste-objektua uneoro bihur daiteke Beste-subjektu***

#### **5.4.1. *Ni*-subjektua situazioan: *Beste*-objektuaren agerpena**

Ikerketa honen atal teorikoan genioenez, Sartreren filosofian *Nia* ez da ulertzen subjektu bezala, baizik eta bat-bateko transzendentzia bezala, faktikotasunak biltzen duena eta, *mundu* deritzan izate-eremuan betiro situazioan egonik, bere izatea etengabe gainditzen duena: bere izatea bere transzendentzia da. Hala, *Niari* inguratzen dioten objektuak tratatuan ez dira ulertu behar subjektu batenak liratekeen objektutzat, baizik eta *bere baitarako* izatearen situazioaren egiturari dagokion tresna-sarearen parte bezala, alegia, ‘hor’ dauden (*ditudan*) tresnetariko bat bezala (*ustensiles*).

Areago, faktikotasunari dagozkion tresna horiek, objektutzat baino gehiago, *bere baitako* izatetzat ulertu behar dira, hots, izate mortu, itxi eta bukatu bezala, eta beraz, *bere baitarakoak* ez diren izateak bezala eta, hain zuzen ere, nire Izatea ‘izate-jomuga’ baterantz transzenditzea ahalbidetzen dutenak. Horren arabera, situazio konkretu bat ematearren, nik ondoko atea irekitzen badut, esaterako, hor ez dago, alde batetik, *Ni* tetiko bat eta, beste alde batetik, ondoko ate-objektua, baizik eta hor existitzen dena *ni-atea-irekitzen* da, bat-batekotasun eta osotasun bezala.

Halatan, ‘*Ni*-subjektu’ kontzeptua tratatuan ez da agertzen ezpada *bestetasunari* lotuta (ohar, bestela, obran zehar garatzen den dialektika ez dela subjektu-objektuarena, baizik eta *bere baitarako* eta *bere baitako* izatearena; eta, erreflexioaren kasua, ez *Ni-objektuaren* bidez, baizik *islatu-islatzaile* eta *erreflexibo-erreflexu* terminotan azaltzen dela). Zera, *Ni-subjektua* agertzen da *Ni* hori objektu bihur daitekeen heinean; ez *Niaren* pertzepzio-eremuan *Bestea* objektutzat ager daitekeen heinean. *F5A*-n erreferentzia zuzena egiten zaio *Ni* ‘ez-tetiko’ horri (*O5Aa*, *O5Ab*, *O5Ac*) eta *F1*en iradoki egiten da.

Fikzioei gagozkielarik, *F1*en objektutzat ikusten direnak hiru *Beste* dira: emakumea, gizona eta eskalea. *Niak* objektutzat har ditzakeenez, horiek objektuekin ordezkatzeko dira fikzio osagarriaren azalpenean: *ahotsa*, *robot*, *fonografoa* eta *aurpegia*. Eta balio berarekin aipatzen da *O2a*-ko *panpina* (*zelai* eta *aulki* objektuen parekotzat hartua) eta baita *O6g*-eko *zuhaitz-enborra* eta objektutzat hartutako *pertsona* ezezagunak ere, nahiz

eta hor, *F2ri* eta *F3ri* jarraiki, *Besteari* nolabaiteko subjektutasuna ere aitortzen zaion, *Beste*-objektua *gizaki*-objektutzat hartzen baita (eta ez *bere baitako* objektutzat).

*Besteari* aitortzen zaio nolabaiteko subjektutasunik nahiz eta aldi berean objektutzat mantendu, hain zuzen, *Niak* bere subjektutasuna galdu gabe, *Bestearen* subjektutasuna *Niaren* beraren eremukotzat hartzen baita (alegia, *Niaren* transzendentziari legokiokeen subjektutasun izoztutzat). Horixe adierazten du *F2ko* fikzio osagarriak nagusiki, zera, *zelaia*, *aulkiak*, *panela*, *belarra*, *estatu*, *gaztainondoa*, *berde kolorea*, *O2i*-n aipatzen den zeinahi '*inguruko objektu*' eta *F3ko* *liburua*, esaterako, *Bestearentzat* objektu direla *Niarentzat* bezainbat, nahiz *Niari* objektuen antolamendu horrek ihes egiten dion. *Beste*-objektuaren transzendentziaren susmo horrek nolabait 3. fikzio-multzora igortzen gaitu.

Gauzak horrela, *Niaren* subjektutasunaren eta *Bestearen* objektutasunaren argitan, *F1*, *F2* eta *F3* fikzio-unitateek bloke bakarra osatzen dute; bloke horrek, *Bestea* betiere objektutzat hartuz, *Bestearen* subjektutasunera igortzen du (adib. *O2i* eta *O2j*). Lehen fikzio-multzo horren arabera, *Bestea* soilik objektutzat ikus daiteke, baina ez dago forma jakin bati lotuta. Hori azaltzeko, *F4eko* fikzio osagarrietan luzatu egiten da *Beste*-objektuen zerrenda: *begia*, *baserria*, *sasitza*, *adaxka*, *oin-hotsa*, *gortina*, *lehio*, *adaxka*.

Adibide horiek guztiak *Beste*-objektuak dira, baina *Ni* (begiratu) batek subjektutzat hartu uste dituenak. *Bestearen* subjektutasuna, alegia, *Ni*-objektuaren sortzailatzat ulertu behar dena, bereziki *F5etik* aurrera ematen da aditzera. Ordea, aipatu bezala, *F1-F2-F3* fikzio-multzoan jada igorpenak egiten dira *Bestearen* objektutasunetik *Bestearen* transzendentziara (berau atzemanezina eta ihes egiten duena). Esan nahi baita, *Besteari* aitortzen zaio bere ingurua (hots, bere mundua eta izatea) antola dezakeen izate bat dela, nahiz eta hori objektu-transzendentzia bat bezala ulertzen eta esplizitu aipatzen den.

Beraz, *F4* lotunea dela dirudi, batetik, lehen fikzio-multzoari dagokion '*Beste*-objektu' eta, bestetik, jarraiko fikzio-multzoei dagozkien '*Beste*-subjektu' (2. fikzio-multzoa) eta '*Beste*-jatorrizko-presentzia' (3. fikzio-multzoa) kontzeptuen artean; nahiz eta *O4h*-ek garbi bereizten duen *Bestearen* objektutasun eta subjektutasunaren ezin bateratua. Egon *Bestearen* objektutasuna dago soilik ikusgai; *Bestea* ezin ikus daiteke baldin eta subjektua bada eta begiratzen badu (objektutasuna galtzen baitu). Zera, *Besteak Ni*-objektua sortzen du eta talka dakar *Ni*-subjektu eta *Ni*-objektuaren artean (*O4h*):

“begiratu sentitzen naizen denbora-tartean, bera askatasun **bitartekari hutsa da ni eta nire buruaren artean**”.

Fikzio-sortan zehar igorpenak joan-etorrikoak dira. Hala, lehen fikzio-multzoko ‘Ni-subjektu’ kontzeptua berrartu egiten da aurrerago ere, esaterako, *Bestea* objektutzat jotzen den auditorioaren situazioan (*O7b*), *Beste*-objektuaren ‘haserrea’ aipatzean (*O8c-O8d-O8d*), subjektuzko presentzia-ezaugarriak dituen baina *Beste*-objektu den ‘metroko gizonaren’ situazioan (*O9a-O9b*) edota *Bestearen* ‘subjektu-objektu’ tasun bikoitza adierazten duten *F10n* eta *F11n*. Aitzitik, igorpen horiek lehen fikzio-multzoarekiko duten alde nagusia (horregatik baitira fikzio-multzo desberdinak) zera da, horietan *Nia Bestearen* objektu bihur daiteke, eta ez oraindik, ordea, *F1-F2-F3* fikzioen arabera.

#### **5.4.2. Ni-objektua situazioan: Beste-subjektuaren bizipena**

*Beste*-subjektuari erreferentzia lehen fikzio-multzoan bertan egiten zaion arren (ohar *F2n* eta *F3n* *Beste*-objektuari mundu-antolamendu propioa aitortzen zaiola, eta *F4an* zehar, objektu batek begiratzeko duen susmoa hartzen dela, hau da, *baserriak*, *sasitzak* eta *begiak*), funtsean, hor subjektutasun *izoztu* bati egiten zaio erreferentzia, alegia, *Niak* objektutzat hartzen duen subjektutasun lokalizatu bati. Zentzu hertsiago batean, *Beste*-subjektua ulertzen da *Beste*-subjektu horrek *Nia* bere objektu bihurtzen duen heinean, eta ez *Besteari* bere mundua bere kasa antola dezakeela aitortzen zaion heinean.

Fikzio-unitateei gagozkielarik, hori zehazki *F5B*-etik aurrera gertatzen da, nahiz eta, arestian aipatu dugunez, *O4h*-en jada aurrerapena egiten den *Bestearen* subjektutasuna ez dagoela eta ezin dela egon inoiz ikusgai, *Niak* (*Bestearen*) objektu bezala ezin baitu ezer ikusi. Horrela, 2. fikzio-multzoa *F5B* eta bere fikzio osagarri luzeak osatzen du. Hortxe jorratzen da batez ere ‘Ni-objektu’ kontzeptua. Funtsean, 2. fikzio-multzoak simetrikoki lehen fikzio-multzoaren egoera alderantzikatua adierazten du: *Besteak ikusten nau bere munduko objektuen erlazioaren iragazitik. Besteak ikusten du nik nire mundua antolatzen dudala, baina hori bere munduaren antolaketari dagokio (O5Bd): “Bestearen begiradarekin sarearen antolaketa berri bat gainjarri zaio lehengoari”.*

Hori dela eta, *F5A*, besterik gabe, *F5B*-en sarrera-moduko bat bezala ulertu behar da, non eta, ondoren, *F5B*-ek *Ni*-objektua azaltzen du (fikzio-unitatearen xede behinena), izan ere, *F5* fikzio-unitatearen *A* zatian, ezkutuan jendea (hots, *Bestea*) ikusten ari den

*Nia* ez da *Ni*-subjektu bat, ez baitago bere eremu pertzeptiboan *Beste*-subjektu bihur litekeen *Beste*-objekturik. Horiek horrela, *F5B*-en fikzio osagarrietan zehar adierazten dena zera da, funtsean, *Beste*-subjektua *Ni*-objektuaren sortzailatzat bakarrik agertzen dela eta orduan bakarrik, eta ez kontingentziaz subjektu bihur litekeen objektu bezala.

Ordea, *Bestea* objektu bezala bakarrik da ikusgai, beraz, probablea eta ziurgabea baino ez da. Zentzu horretan, fikzio-unitate horren ondoko *F5C*-ek lehen fikzio-multzoaren bukaerako *F4* gogorarazten du, hots, fikzio-multzoen lotunea. Ohar hor ere ziurgabeak direla *Bestetzat* jotzen diren *soinu*, *oin-hots* eta *egur-kraska*, ‘alerta faltsu’-tzat hartzen direnak eta, beraz, *Beste*-absentziatzat. Horrek lotzen ditu lehen bi fikzio-multzoak (bloke bakarra osatzen dutenak eta *Bestea* ‘subjektu-objektu’ planoan kokatzen dutenak) hirugarrenarekin (*Bestea* jatorrizko presentzia eta transzendentziatzat duena).

Azpimarratu dugunez, *Bestea* ezin liteke sor bere objektutasunetik, hori ziurgabea baita halabeharrez. *Bestearen* transzendentzia ezin da izan *Beste*-objektuaren presentzia tetiko baten menpeko edo ondoko zerbait. Baina *Beste*-subjektuaren iragazitik ere *Niak* ezin du transzendentzia horren kontu eman. *Nia* jabetzen da *Bestearen* transzendentziaz, hain zuzen, *Ni*-objektu bihurtu den susmoa duen unetik. Lotsa eta beldur sentimenduak jartzen ditu harremanetan *Nia* eta *Ni*-objektu balizko hori. Ikus lotsari (*O4f*, *O5Ca*) edo atsekabeari (*5Bf*) egin erreferentziak, eta *Niaren* objektutasun sentsazioari *O4d*-en:

Nik **nabaritzen dudana** atzean adaxkak kraskatzen entzun eta berehala **ez da norbait dagoela**, **baizik** eta ahula [*objektu*] **naizela**, zauri daitekeen gorputz bat dudala [*objektu bat naizela*], **leku** bat okupatzen [*duen objektu naizela*] dudala eta ezin dudala inondik ere ihes egin **babes gabe** nagoen leku horretatik, hots, [*objektu*] **ikusia naizela**.

Antza denez, *Beste*-objektuaren absentziak, zeina haatik presentzia-motatzat bizitzen baita, lotunea dirudi ostera ere. Hala, horrek lotzen ditu lehen bi fikzio-multzoak *F6*tik aurrera jorratzen den *Bestearen* ‘jatorrizko presentzia’ kontzeptuarekin. Bestalde, *F5*ek jorratzen duen ‘*Ni*-objektu’ kontzeptuari igorpenak egiten zaizkio atzera eta aurrera, esaterako, *F4*ko eta *F7*ko osagarrietan (*O7a*): “Nire gizaki izatearen esperientzia, **beste gizaki bizidun guztientzat objektu**, borroka-plazara jaurtia milioika begiradapean”.

Dena den, 2. eta 3. fikzio-multzoak *Bestearen* ez-objektuzko izaerak lotzen ditu. Baina, bigarrenean, *Bestea* *Nia* objektu bihurtzen duen subjektua den bitartean, hirugarrenean,

urrats bat harago eramaten da ez-objektutasuna: *Besteak* ez du *Ni*-objekturik sortzen, zeren *bestetasunaz* jabetzen dena ezin baita *Ni*-objektua izan, transzendentzia baizik. Orain arte dakigunez, *Ni*-objektua ezin da jabetu ez *Besteaz* ez ezertaz, ezen izate hori *Bestearena* baita. Bestalde, *Beste*-objektuaz jabetzea ez da *bestetasunaz* jabetzea, ezen hor, ostera, *Bestea Niaren* munduko eta menpeko objektu baita, hau da, transzendentzia-transzenditu hutsa. Horra, beraz, 3. fikzio-multzoaren erronka, bi transzendentzia osoren jatorrizko presentzia adieraztea ‘subjektu-objektu’ dialektika gaindituz.

#### **5.4.3. *Bestearen* jatorrizko presentzia situazioan**

*Beste*-subjektua ez da ikus daitekeen zerbait. Horregatik, fikziozko situazioa ematean, eszenak *Beste*-objektua bakarrik eman dezake aditzera. Horixe adierazten da lehen bi fikzio-multzoetan, alegia, *Niak* bere munduko objektutzat hartzen duen *Bestea* (lehen fikzio-multzoa) eta *Besteak* bere munduko objektutzat hartzen duen *Nia* (2. fikzio-multzoa). Baina 3. fikzio-multzoan, arestian aurreratzen genuenez, *Beste*-subjektutasuna situazioan jartzea da xedea, eta kontu ematea *Niak* hori nola bizi duen. Ordea, *bestetasuna* bizipen izateko, *Bestea* ez ezik *Nia* ere *ez-objektu* izan behar da nahitaez.

Hirugarren fikzio-multzoa luzea da (*F6-F11*), baina hiru urratsetan ematen du kontu *Bestearen* jatorrizko presentziarena: (i) Absentzia objektuzko ezaugarritzat baztertuz eta presentzia-motatzat joz (*F6*); (ii) *Niak* eta *Besteak* (hurrenez hurren, *F7* eta *F8-F9*), elkarren *objektu* direlarik, transzendentzia-adierazleak dira bata bestearentzat, nahiz eta transzendentzia hori bera ezin atzeman duten bere transzenditze eta bat-batekotasunean; (iii) *Nia* uneoro iragan daiteke egoera batetik non bere transzendentzia den eta non *Bestearen* jatorrizko presentziaz (eta transzendentziaz) jabetzen den, egoera batera non transzendentzia propio hori galdu eta non bere izatea *Ni* ‘arrotz’ batekin bikoizten den.

Jada *F4* fikzio-unitatearen osagarrietan aurreratzen da *Bestearen* presentzia bat-batean agertu objektuan irudikatzen dela, baina, haatik, *bestetasuna* zehazki ez dela agertutako *Beste*-objektua. Adibidez, (*O4b*): “sasitza eta baserria ez dira begirada [hots, *bestetasuna*], begia [hots, *objektutasuna*] bakarrik irudikatzen dute”; (*O4g*): “ezin dut eramán ziurtasun hori [hots, *bestetasunarena*] nire *Beste*-objektuaren esperientziara”.

Halaber, *F5*en aurreratzen da faktikotasunaren interpretazioak Izatearen *bestetasuna* ager dezakeela baldin eta *Besteari* jatorrizko presentzia bat aitortzen bazaio, uneoro *Ni*

antolamendu arrotz baten objektu bihur nazkeena. Adibidez (O5Be): “eserita ikusia banaiz [...] beste erlazio eta distantzia batzuekin, beste objektu batzuen erdian antolatzeko; objektu horiek niretzat alde ezkutu bat dute, era berean, sare berri eta beste era batera orientatu batean”. Edo (O5Bg): “Edozertarako prest ikusten badut bere jarrera [...] nire posibilitatez kanpotik eta beregatik jabetzen naiz”.

Baina *Bestearen* objektuzko absentiaren eta jatorrizko presentziaren arteko erlazioa, eta *bestetasuna Niaren* faktikotasunaren edo objektu-antolamenduaren interpretazioari dagokiola, zehazki, eta aipatu bezala, F5Ca-n ematen da argienik:

Hain dago urrun Bestearen existentzia zalantzan jartzea [...], ezen alerta faltsu horrek nire egitasmoa bertan behera uzteko ondorioa izan baitezake [...] Bestea desagertu ez baizik, areago, nonahi dago orain [...] Eta litekeena da nire lotsa ez desagertzea [...]

Funtsean, 3. fikzio-multzoaren abiapuntua *Beste*-objektuaren absentsia da. Baina *Bestearen* jatorrizko presentzia esplikatzeko da, hain zuzen, absentsia objektutasunaren esparrutik baztertuz eta giza espazio batean kokatuz (O6c): “Pierre *beste* gizaki batzuentzat dago absente”. O6d-ek luze azaltzen du *absentsia-presentzia* erlazio bikoitza eta absentiaren presentziakotasuna eta ‘giza’ tasuna. Horren ildotik, O6f-ek eta O6g-ek esplizitu aipatzen dute izate bat jatorrizko *giza*-presentziaren arabera bakarrik koka daitekeela (objektu bat beti baita kokatutako zerbait, eta ez kokatzaile).

**O6f:** Ez dira bakarrik Pierre, René, Lucien niretzat absenteak eta presenteak direnak **jatorrizko presentzia** baten planoan, ez baitira ni kokatzen nauten bakarrak. Kokatzen ere naiz [...]

**O6g:** Tronpatu ahal naiz [...] horrekin ez da aldatzen nire **funtsezko presentzia** gizaki guztientzat eta gizaki guztiena niretzat.

Halatan, *Bestearen* jatorrizko presentziari, lehenik, *Niaren* funtsezko presentziatik heltzen zaio: *Nia Bestearentzat* ez da objektu, baizik eta bere objektu probablea bakarrik. Horrek eskatzen du *Bestea ez*-objektutzat hartzea ere (O7a): “probablea dela presentean **ni kontzientzia** [ez-objektu] **batentzat objektu izatea** hori-nabarmendu gisa”; (O7b): “ez dugu galtzen begiratuak garen ikuspuntua [...] Baina ez dugu **zenbatzen** begirada [...] Bestearen presentzia ez da **nabarmetzen** [ez da objektu zenbakarria]”.

Aurrerago, *F8* eta *F9* fikzio-unitate eta osagarriek ideia hori garatzen dute, hain justu, jada lehen fikzio-multzoan *Beste*-objektuari aitortzen zitzaion antolamendu propioaren haritik (ohar *F8*ren osagarrietan zehar, transzendentzia-transzendituaren adibidegarri aipatzen diren *mailu-iltze*, *zizeilu-marmol*, *irundegi-oihal* bikoteak; “ezin ditut ulertu ez bada **Bestea erdigune duen** tresna-antolamendu batera igortzen didatela”). Hala, *Niak* interpreta dezakeena soilik objektuen mundua da, eta *Beste*-objektua ikusten du beste tresna batzuekiko erlazioan. Infinituraino hurbil dakioko erlazio-sare horri (*O8b*), sekula ez du *Bestearen* transzendentzia atzemango, eta beti tronpa naiteke (*O8c-O8d*).

*Niak* ‘bere’ faktikotasuneko tresnak interpretatzen ditu (inoiz osorik atzeman ezinik) transzendentzia-adierazletzat, esaterako, *O8f*-ko ‘haserre-keinua’ eta *F9*ko gizonaren balizko situazioa munduan eta bere tresnen-antolamendua (*Niarentzat*, hori printzipioz objektuzko erlazio-sare bat besterik ez dena) bere transzendentzia propioa galdu gabe. Haatik, *Niak* kontzientzia du *Bestea* ez-objektu gisa betiro hor dagoela (alderantziz ere, bera *Bestearentzat* ez-objektu eta transzendentzia gisa dagoen bezalaxe) jatorrizko presentzia gisa, baina eta betiro *senti* dezakeela, ez *Bestea* ez-objektutik subjektura iragaten dela, baizik eta bere transzendentzia suntsitu egiten dela (diotela).

Horrek *F10* eta *F11* fikzio-unitateetara garamatza eta *Bestearen* jatorrizko presentziaren multzoa ixten du. Funtsean, *Niarentzat* *Bestearen* jatorrizko presentzia konpatiblea da *Beste*-objektuaren existentziarekin, *bestetasuna* nire faktikotasunari baitagokio; ordea, ez da konpatiblea *Beste*-subjektuarekin. *Beste*-subjektuak *Niaren* eskumenetik kanpo dagoen *Ni*-objektu bat sortzen du. *Bestetasuna* transzendentzia gisa bizitzea ez da *Nia* objektuzko *Ni* arrotz bat bihurtzea (*F10*eko *ihesa* eta *alienazioa* litzatekeena edota *F11*ko *leherketa* eta izatearen *heriotza*, *isuria*, *suntsitzea*, *desintegrazioa* eta abar), baizik eta ‘arrisku’ horren kontzientzia izatea transzendentzia gisa.

## 6. KAPITULUA

### 6. Fikziozkotasuna “Begirada” kapituluaren oinarri teorikoan

#### 6.1. “Begirada” kapituluaren abiapuntu teorikoa

##### 6.1.1. “Begirada” kapituluaren oinarrizko ardatz teorikoa

“Begirada” kapitulua ez da ez begiradari buruzko lan monografiko bat eta ezta gai edo adigai horri buruzko azterketa orokor eta zabal bat ere. Arestian aipatu bezala, kapituluaren xede behinena tratatuan aurrera egitea da. Hala, tratatuan osotasun gisa kontu eman nahi da giza izatearen ‘*munduan-izate*’ eta, azken batean, existentziarena. Horregatik, halabeharrez, kapituluan ez zaio heltzen *Begiradaren* aztergaiari ahalik eta aspektu gehienak kontuan hartuz, baizik eta, soilik, begirada giza existentzian *Bestearen* existentziaren adierazgarri den heinean. Horrek ez du adierazi nahi kapituluak muga teorikoak dituenik, baizik eta oinarri eta jomuga teoriko jakin bat nahikotzen dela.

Sartrearen hiztegi nagusiak (Noudelmann & Philippe, 2004) ‘begirada’ adigaiari egiten dion sarreran, kapituluaren jomuga fenomenologiko-deskriptiboa nabarmentzen du eta agerian uzten du begiradaren deskribapenak, hainbat kontestu baliatuta, bereziki *Niaren* alteritatea hartzen duela hizpide, begirada bitartekarizat hartzen baita *Niak* bere buruarekin duen erlazioan. Beste hiztegi batzuek ere (Cox, 2008; Cabestan, 2009) aipatzen dute alteritate horrek gidatzen duela kapituluan deskribapen fenomenologikoa. Halatan, *Niaren* alteritate hori *Bestearen* begiradaren bidez sortzen delarik, kapituluaren xede nagusizat zera jotzen da, *Niak Bestearekin* duen funtsezko erlazioa determinatzea.

Sartrearen kapituluan sakondu duten autoreek jomuga zehatz hori aitortzen diote begiradaren deskribapenari. Stack & Plant (1982) autoreen iritziz, esaterako, xede teorikoa aski zehatza da, *Bestearen* existentziaren kontu ematea, hain zuzen, *Bestea Niari* izate kontzientziadun eta eragiletzat agertzen zaioneko moduak zehaztuz, nahiz eta leporatzen ere dioten deskribapen horri osagabea edo murrizta izatea, kanpoan uzten baititu begiradari hertsiki lotu behar bide zaizkion ezaugarri eta esanahi emozionalak, psikologikoak, kulturalak eta, zergatik ez, biologikoak; eta, batik bat, Sartrek gatazkan



bakarrik oinarritzen duelako *Bestearekiko* funtsezko erlazioa eta ez dituelako gogoan hartzen gizakiak begirada (ber)interpretatzeko garatuta dituzkeen estrategiak.

Edozein kasutan, autore horiek aitortzen dutenez, fenomenologiaren arlotik baino gehiago, begiradaren aspektu horiei, 60-70eko hamarkadatik aurrera batez ere, hizketaz kanpoko komunikazioaren alorretik heltzen zaie. Bestalde, aitortzen ere diote Sartreren kapituluari begiradaren deskribapenaren ardatz nagusia garbi zehaztea, esan nahi baita, *Beste-objektu*  $\Rightarrow$  *Beste-subjektu*. *Bestea* objektutzat bakarrik ager daiteke baina subjektu gisa bakarrik eragin dezake. Jakina, beste teoria batzuen argitan (adib. Lacan, 1964), eztabaidagarria izan daiteke objektuaren eta subjektuaren estatusa Sartrek planteatzen duen eran. Horren arabera, galde daiteke izate begiraturia *objektu* erabat 'pasiboa' den edo aitordakiokoen, Lacanekin, zerekikotasunik edo nolabaiteko bultzadarik (*object à*). Baina zehaztapen horiek egitea ez dagokio ikerketa honi.

Nola heldu auzi horri? Horra Sartreren erronka, hau da, begiradaren deskribapen fenomenologikoa egitea (*loc. cit.* 368.) "in order to bridge the gap between my consciousness of the other as an object and the other as a conscious subject"; edota Catalano (1974: 159) autoreak adierazten duenez, "The ultimate purpose of the study of the look (*le regard*) is to reveal the existence of other persons (the "other") precisely as free subjects". Baina ez dirudi *Bestearen* subjektutasuna denik azken jomuga.

Halatan, ardatz edo jarraibide teoriko horrek jarraipena eskatzen du. Sartreentzat, *Beste-subjektua* eta *Bestearen* existentzia ez dira gauza bera (printzipioz lehena atzemanezina baita, *Ni*-objektuak ezin duelako inoiz inongo ikuspunturik hartu eta, beraz, *Beste-subjektua* atzeman). Sartreren jomuga *Bestearen* existentzia da, berau *Niaren* eta *Ni*-objektuaren erlazioan bilatu behar dena. 'Beste-subjektu' kontzeptua beharrezko urratsa da, baina ez jomuga. Gómez Garcíak (2002: 11) formulatzen duenez, "La mirada aparece en *El Ser y la Nada* como un reclamo a la consolidación definitiva del prójimo".

Sartreren tesia, *Bestearen* existentziari dagokionez, Munono Muyembe (1991: 28) autoreak zehaztu bezala, galdera-bidez formula daiteke. Ikuspegi filosofiko batetik, egon badago *Bestearen* esperientziarik? Edo, bestela, zein da bizipen erabakigarria *cogitoak* *Bestearen* existentziaz jabetzeko? Sartreren abiapuntua *Beste-objektuaren*

pertzepzioan kokatzen da; eta horrek ‘begirada’ kontzeptura eramaten du (berau pertzepzioaren desberdina bezala ulertzen dena). Autore horren iritziz, Sartreren tesiaren indarra iradokitzen duen sinpletasunean datza: ‘*Bestea* da begiratzen didana’.

Hala, Sartreren teoriak giza izatearen existentzia muturreraino erreduzitzen du (*loc. cit.* 67), “Sartre rejoint l’homme dans la nudité de son être, au coeur même de son existence quotidienne qu’il dépouille de tous ses voiles”. *Bestea Niaren* bizipen existentzialari dagokio, hain zuzen, norbere izatearen presentzia erreflexio-aurrekoa eta izate horri buruzko erreflexioa ere badagozkion bezala. Sartrerentzat, beraz, *Bestearekiko* erlazioa izatetik izaterakoa da, ez ezagutzatik ezagutzarakoa. Sartrek gaiari aurretik heldu diotenei leporatzen die, hain justu, eremu epistemologiko hutsean kokatu izana.

Autore horrentzat, haatik, Sartreren deskribapena murrizta da maila ontologikoan, izan ere, kontzeptuen zehaztapena batzuetan problematikoa gerta daiteke. Esate baterako, Sartrek ‘*Bestearentzakoa*’ kontzeptu hibridoa aurkezten du ‘*bere baitarako*’ eta ‘*bere baitako*’ kontzeptuen alboan, aurretik erreduzi-ezintzat jo dituenak, eta bataren eta bestearen ezaugarriak aitortzen dizkio. Eta murrizta, halaber, maila ontikoan, adibidez, deskribapenak *Bestearen* auzia agortu gabea dagoen inpresioa sor dezakeelako.

Autrui demeure ainsi un mystérieux insaisissable se manifestant tantôt directement au bout d’un regard, tantôt indirectement sur fond de présence originelle. Toujours est-il qu’on ne parvient jamais à dire sous quel visage concret il se manifeste. (Munono Muyembe, 1991: 71)

Edozein kasutan, adigai horiek dira tratatuaren oinarritzko hiru tresna kontzeptualak Sartreri Izatearen teoria eratzeko balio diotenak, areago, tratatu osoa horien joko dialektikoan oinarritzen da eta, beraz, baita *begiradaren* kapitulua ere. Zer dira, bada, *bere baitarako* izatearentzat (hots, *Nia* edo kontzientziarentzat), *Beste*-objektua eta *Ni*-objektua, ezpada *bere baitako* izateak; eta zer *Bestearentzakoa*, ezpada *bere baitarako* izateak begirada tarteko (bere izate *bere-baitakotua* [sic] dela kausa) bere buruarekin bizi duen erlazioa, *Ezerezak* bereizitakoa. Areago, Dawans (2001) autorearentzat, esaterako, *Bestearentzako* kontzeptua da, hain zuzen, obraren funtsezko bi kontzeptuak orekatzen dituen (loc. cit. 24): “Sartre élabore avec beaucoup d’effort une théorie qui tente de tenir en équilibre ces deux dimensions fondamentales de l’être-pour-autrui”.

Dena dela, kapituluaren oinarritzko ardatz teorikoa sailkatu egin daiteke. Dolezal (2012: 16) autoreak irizten dionez, “Sartre’s account of the look seems to be a multi-layered account, which can be described as having three schematic layers”. Hala, hiru geruza nabarmentzen ditu kapituluaren *Bestearen* existentziaren kontu ematen dutenak:

- i) Teoriaren geruza epistemologikoa: *Bestea* presente dago ezagut daitezkeen objektu-begiratu gisa saihestu ezin duen munduaren faktikotasunean.
- ii) Teoriaren geruza auto-ebaluatiboa: *Bestea* absente dago edota irudikatu egiten da, *Beste* pertsona bat bezala bainoago, munduaren beste ‘ikuspuntu’ bat bezala.
- iii) Teoriaren geruza ontologikoa: *Bestearen* jatorrizko presentziak ahalbidetzen du kontzientzia propioa eta erreflexiboa, eta erakusten du giza izateak berezkoa duela intersubjektibitatea.

Haatik, autore horrek adierazten duenez (*loc. cit.* 16, 24), geruza desberdin horiek sarri batera eta nahasirik agertzen dira kapituluaren, hain zuzen, *Bestearen* existentzia ere ez delako ulertzen geruza hertsia bezala, lehenik objektu, ondoren absente eta, azkenik, auto-kontzientzian eragiten. Sartreentzat, ikuspegi fenomenologiko batetik, *Bestearen* jabetzean geruza horiek nahitaez batera ematen dira kontzientzian, areago, ezin da zehaztu zein ematen den lehen eta zein ondoren. *Bestearen* existentzia ez da *bigarren* gauza bat, alegia, objektu-gorputz ikusiaren ondotik letorkeena; batera ematen da. Ohartzekoa da, autore horren iritziz, sarraila-zuloko fikzioak (*F5* deitu dioguna) hiru geruzak bateratzen dituela eta, zentzu horretan, kapituluaren adibide paradigmatikotzat har daitekeela.

Esanak esan, *Bestearen* existentziaren deskribapena kapituluaren diskurtso filosofiko antolatu bati obeditzen dio eta filosofiaren oinarri teorikoa antolamendu horri datzekio. Sartrek *Bestearen* existentziaren deskribapena urratsez urrats jorratzen du. Gatozen sailkatzera aipatu dugun oinarritzko ardatz teorikoa, esan nahi baita, *Beste*-objektutik *Beste*-subjektura eta *Beste*-subjektutik *Bestearen* funtsezko presentziara, ataletan nola banatzen eta multzokatzen den edota zein eskema jarraitzen duen oinarritzko ardatz hori urratsetan xehatzeko.

### 6.1.2. “Begirada” kapituluaren zedarritze teorikoa

Kapituluak han-hemenka tratatuko beste atal batzuetara igortzen duen arren, *Begirada* testu osoa eta autonomia da, abiapuntu eta helburu teoriko jakin batzuk esplizitu ematen dituen eta zehazki horiek garatzea bilatzen duena. Kapituluaren xede teorikoaren ikuspegitik, testuaren hasiera eta bukaera ondo zedarrituta agertzen dira, eta bi muga horiek espresuki adierazten dira kapituluaren bi muturretan. Izan ere, horrek ahalbidetzen du kapitulua garapen eta *continuum* teoriko baten parte bezala ulertzea.

Testuaren mutur batean, kapituluaren justifikazio teoriko zehatza ematen da (307.-310. or.). Zehazkiago esateko, kapituluaren eduki teorikoaren justifikazio metadiskurtsiboa testuaren aurretik ematen da, hots, *Begiradaren* kapitulutik kanpo, hain zuzen, aurreko kapitulu-zatian. Eta horrek osatzen du testu-egituraren lehen geruza edo sakoneko egitura. Hala, aurreko hiru kapitulu-zatien amaiera gisa, *Bestearen* existentziaren teoria baterako funtsezkotzat jotzen diren lau baldintzak argi zerrendatzen eta azaltzen dira.

Doktrinazko azalpen luze hau ez da alferrekoa izango, baldin eta zehaztea ahalbidetzen badigu zein diren beharrezko eta gutxieneko baldintzak *Bestearen* existentziaren teoria bat onargarria izateko. [307]

- **Teoriaren 1. baldintza:** *Bestearen existentzia ziurra da*

*Bestearen* existentzia ezin da mugatu ez hipotesi batera ez probabilitate batera. Zeharo baztertzekoa da solipsismoa *Bestearen* existentziari buruzko teoria batean. Eta, ildo horretatik, baldin eta *Bestea*, *bere baitarako* izate gisa, *Niaren* (berau ere *bere baitarako* izatea) esperientziatik kanpo existitzen baldin bada, *bere baitarakoa* den *Ni* batek ezin du *Bestearen* existentziaren probabilitatea neurtu, hau da, ezin du ez balioetsi ez ezetsi. *Bestearen* existentzia ezin da izan probabilitate hutsa, hori *Niari* ager dakizkiokeen objektuei bakarrik baitagokie; baina ezin da izan hipotesi hutsa ere, *Niak* baieztatu egiten baitu *Bestearen* existentzia. *Bestetasunaz* jabetzea ulermen preontologikoa da.

Horregatik,

*Bestearen* existentziaren teoria batek ez du baieztapen hori frogatu beharrik, baizik eta argitu, zehaztu eta ziurtasun horren funtsa esplizitu egin. [...] *Bestearen* existentzia hipotesi hutsa ez bada, horrek esan nahi du badagoela lot dakioken *cogito* moduko zerbait; *cogito* horren egituraren eta irismenaren kontu eman behar da. [308]

- **Teoriaren 2. baldintza:** *Bestearen existentzia zehazteko abiapuntua cogitua da*

*Bestea* ‘ni-ez-izaten’ moduan agertu behar da. Horretarako, *bestetasunaren* zeinahi deskribapenaren abiapuntua *cogito* kartesiarra izan behar da. Halatan, *cogitoak Beste* konkretuaren presentzia ziur eta zalantzagabearen bidean jarri behar gaitu. Azken buruan, bi traba nagusi daude *Bestearen* existentzia zehazteko orduan: alde batetik, *Bestearen* kontzientzia ezagutezina da baldin eta *Bestea* objektu soiltzat hartzen bada; eta, beste alde batetik, *Bestearen* kontzientzia atzemanezina da baldin eta *Bestea* subjektutzat jotzen bada, hots, *Beste-izaten*. Hala, bada, beharrezkoa da *cogitua* nolabait beragandik desitsatsi eta *Bestearen* bidean jartzea, baina ez *Bestea* ulertuz *cogitua*ren egituraren barrukotzat, baizik eta agertzen den ‘beste’ presentzia konkretu eta zalantzagabetzat.

Horregatik,

Bere baitarakoari eskatu behar zaio Bestearentzakoa azal diezagun [...]: nire sakon-sakonenean aurkitu behar dut *ez Bestea badela sinesteko arrazoiak*, baizik eta *Bestea* bera ni-ez-izaten. [309]

- **Teoriaren 3. baldintza:** *Cogitua* erakutsi behar digu *Beste-subjektua* konkretua

*Cogitua* *Bestea* erakutsi behar digu, baina ez *Beste* hori objektu delarik, baizik eta parte zuzena duelarik *cogitua*ren izatean bertan. *Cogitua* erakutsi behar diguna ez da *Beste*[objektu]a, ezen horrek halabeharrez probabilitatearen eta ziurgabetasunaren eremura baikaramatza. *Bestea* ezin da izan ez objektu eta ezta probablea den *zerbait* ere. Bestela esateko, *Bestea* ezin da izan *Niak* munduaz eta bere buruaz duen intuizioaren eta ezagutzaren faktore eratzailea. *Bestea Niari* dagokio baina ez da beregandik deribatzen.

Horregatik,

[Bestea izan behar da] gure izateari "dagokiona", baina ez gure izateari eraten laguntzen diokeelako *a priori*, baizik eta gure faktikotasunaren situazio enpirikoetan konkretuki eta "ontikoki" dagokiolako. [309]

- **Teoriaren 4. baldintza:** *Cogitua* ezin du *Bestea* bere kanpotik atzeman

*Bestearen* ‘ez-ni-ez-objektu’ izatea barneko ezeztapena da, hau da, *cogitua* inplikatu dago ezeztapen horretan eta ezin du kanpotik atzeman ezeztapen horren osotasuna.

Horrek zera adierazten du, *Besteak* eta *Niak* batasun sintetiko eta oso bat eratzen dutela eta euren izatea eratzeko modua zera dela, bata bestea denik ukatzea. Bestalde, horrek zera adierazten du, *Niak* ezin duela (nahiz eta *Bestearekin* batera 'izate-batasuna' osatu) izate horren osotasunaren ikuspuntutik hartu eta, beraz, *Bestearen* existentziaren bizipena *Niak* betiro osagabea den osotasuntzat bizitzen duela.

Horrela, bada, *Bestea cogitoari* agertu behar zaio, batetik, *ni-ez-izaten* eta, bestetik, *ez-objektu* bezala. Horregatik, *Niarentzat* nekez izango da kanpoko ezeztapen bat bera *Bestea* denik ukatzea, alegia, *Bestea* eta *Nia* bereizita baleude bezala (bi substantzia desberdin bereizten diren bezala, nolabait esateko), ezen orduan *Bestea* izate atzemanezina baita, ezinezkoa baita sintesi bateratzaile bat ulertzea kanpoko ikuspuntu bat tarteko. *Bestea ni-ez-izaten* eta *ez-objektu* gisa agertzeak barneko ezeztapena eskatzen du, alegia,

[...] bi terminoren lotura sintetikoa eta aktiboa non bata erazten baita besteagandiko ukazioz eta non ukazio hori elkarrekikoa baita. Beraz, erlazio negatibo hori elkarrekikoa izango da eta barnekotasun bikoitzekoa. Horrek esan nahi du, hasteko, "Besteen" aniztasuna ezin dela izan *kolekzioa*, baizik eta *osotasuna*. [...] baina baita Osotasun horretan ezinezkoa dela printzipioz "osotasunaren ikuspuntutik" hartzea. [309]

Baldintza horiek begiradaren deskribapenaren abiapuntutzat hartzen dira eta horien arabera egituratzen da kapitulu osoa (EN: 310): "Ohar-sorta horietatik abiatuta saiatuko gara heltzen gure aldetik Bestearen auziari". Jomuga zehatz horrekin, beraz, kapituluak funtsean begiradaren deskribapen fenomenologikoari heltzen dio 50 orrialde luzeetan. Deskribapen hori, begiradarena, tratatua aurrera egiteko balio duen zehaztapen teorikoa da. Hala, testuaren beste muturrean, *Bestearen* existentziaren ebidentziari buruzko azalpena agortutzat jotzen da ikuspegi teorikotik eta Izatearen faktikotasunari heltzen zaio. *Nia* eta *Bestea* hezur-haragizko gorputz bezala agertzen eta existitzen dira. Eta, adierazten denez, aztergai berri horrek beste kapitulu bat eskatzen du.

Horrela, bada, **gure deskribapenak balio izan digu** Bestearen existentziari buruzko zeinahi teoriari ezarri dizkiogun alde aurretiko baldintzen kontu emateko. [...] **Ez dugu urrunago joaterik**. [363]

Ohartzekoa da *Begiradaren* kapitulua teoriaren une agortu horri buruzko gogoeta laburbildu batek eta galdera bikoitz eta zehatz batek ixten dutela, eta hori, nolabait, ondoko kapituluaren abiapuntutzat ere hartzen dela.

**Hara non heldu garen** azalpen honen amaierara. **Argitu dugu** Bestearen existentzia ebidentzia osoz bizitua dela nire objektibotasunaren gertakarian eta gertakariaz. **Eta ikusi ere dugu** nire Bestearentzako alienazio propioaren aurrean dudan jarrera Bestea objektutzat hartzea dela. **Labur esateko**, Bestea guretzat bi modutara existi daiteke: ebidentzia osoz bizi badut, ezin dut ezagutu; ezagutzen badut, beragan eragiten badut, bakarrik atzematen dut bere izate-objektua eta bere existentzia probablea munduaren barruan. Bi forma horien sintesirik ez da posible. **Baina ezin gara hemen gelditu**. Bestea niretzat den objektu hori eta ni Bestearentzat naizen objektu hori, *gorputz gisa* agertzen dira. **Zer da, bada, nire gorputza? Zer da Bestearen gorputza?** [363-364]

## **6.2. Diskurtso teorikoaren antolamendua “Begirada” kapituluan**

### **6.2.1. Sekuentzia bidezko antolamendu diskurtsiboa**

Ikusi dugunez, kapituluaren abiapuntu teorikoa (hots, aipatu lau baldintza teorikoak) eta eta kapituluaren izaera agortzailea (adierazten baita kapituluaren jomuga erdietsi dela eta beste ikuspegi bat jorratuko dela hurrengo kapituluan) metadiskurtsoak adierazten du. Diskurtsoaren sekuentzia nagusiak ebakitzean, ostera ere, metadiskurtsoa da ebazten duena sekuentzia bakoitza nondik noraino hartu behar den bloke homogeneousat. Hala, metadiskurtsoaren irakurketa erregresiboari arreta ipintzen badiogu, erreparatuko dugu atzetik aurrera ixten doazela sekuentziak, hain zuzen ere, aldiro nagusitzat jo behar den sekuentzia batekiko.

Eta berdin alderantziz ere, metadiskurtsoaren irakurketa progresiboari arreta ipiniz gero, erreparatuko dugu, diskurtsoak sekuentziak bikoizten dituen bakoitzean, sekuentzia bat beti dela sekuentzia nagusia; eta beste sekuentzia bat, lehenengo horrekiko bikoizten dena eta laburragoa dena, aldiz, haren osagarria dela. Horrela, metadiskurtsoak bost bider bikoizten du sekuentzia nagusia eta, beraz, bost bider ematen du horren ondotik, azaldu bezala, laburragoa den eta erantsiaren tankera duen menpeko sekuentzia bat.

Oro har, sekuentzia erantsi hori agertzen da teoriaren azalpen nagusian sortzen den eta gainditu behar den oztopo jakin baten kariaz. Oztopo teoriko hori sarritan galdera

implizitu bat darama edota galdera batek ordezkatu dezake. Horrela, sekuentzia aldiro erantsiak oztopo-galdera hori argitzea izaten du xede eta azalpenaren osotasun horrek sekuentzia nagusi berri eta zabalago bat osatzen du, ostera ere oztopo bat aurkeztuko duena aurrerago eta sekuentzia horren menpekoa izango dena. Sekuentzia guztien multzoa kapitulua da, ‘*n* sekuentzia’ (*Sek. n*) deritzona.

$$\text{Sek. 1} + 1. \text{ oztopoa} = \text{Sek. 2}$$


$$\text{Sek. 2} + 2. \text{ oztopoa} = \text{Sek. 3}$$

$$\text{Sek. 3} + 3. \text{ oztopoa} = \text{Sek. 4}$$

$$\text{Sek. 4} + 4. \text{ oztopoa} = \text{Sek. 5}$$

$$\text{Sek. 5} + 5. \text{ oztopoa} = \text{Sek. n}$$

6.2.1. eskema: Diskurtoaren sekuentzia-antolamendu metadiskurtsiboa



Eskema horri jarraiki, sekuentzia bakoitza tesi batek biltzen duela adieraz badaiteke ere, aipatzekoa da, sekuentziatik sekuentziara oztopoak argitzen diren heinean, sekuentzia nagusia osatuz eta osotuz doala oztopoen azalpenekin eta, beraz, hasierako tesia ere osatuz eta osotuz doala testuan aurrera egiten den ahala. Horra, luze gabe, sekuentzien ebakera.



• **Sek. 1 [310-326]:**

Lehenengo sekuentziak *Bestearen* begirada deskribatzen du, zehazki, berau *Beste*-subjektu eragile eta autonomo baten sortzaile den heinean. Horrela, *cogitoa* ezagutzaren planoan kokatzen da, *cogito* erreflexiboa da, eta jabetzen da begiradak hainbat erreakzio eragiten dituela beragan, hala nola, lotsa, harrotasuna eta beldurra. Sekuentzia horren tesia horrela formula daiteke lehen pertsonan:

**1. Tesia:** *Besteak* nigan eragiten duela atzematen dut, ezen egiazta baitezaket nire hainbat erreakzioren sorburua dela.

Lehen sekuentzia horrek aurkezten duen gainditu beharreko lehen oztopoa [326-330] Izatearen *ez-agerikotasuna* da. Oztopo hori zeretik dator, *Bestea* subjektu gisa izate *ez-agerikoa* da, ezen *cogitoak* ezagutu subjektutasun horren ondorioak bakarrik ezagut baititzake (eta ez subjektutasuna bera), *Bestea* objektu gisa bakarrik ager baitakioke. Ez hori bakarrik, *Beste*-subjektuak begiratzen duen objektua berea denez, hori ere objektu *ez-agerikoa* da. Beraz, lehenengo sekuentziaren oztopoa horrela formula daiteke.

**1. Oztopoa:** *Cogitoak* ez du erakusten ez *Beste*-subjektua ez *Ni*-objektua; izate *ez-agerikoa* da. Orduan, zerk salatzen du bere subjektutasuna? Zer da *Bestea*?

Metadiskurtsoak mugatzen du lehen sekuentziaren eta lehen oztupoaren banaketa:

**Horrek deskribapen honen amaierara garamatza.** Gogoan izan behar da, lehenik, *Bestea* ezagutzera emateko erabili ahal izan baino lehen, *osorik cogitoaren mailan burutua* izan dela. **Zehaztu besterik ez dugu egin** *Bestearen* begiradari buruzko erreakzio subjektibo horien zentzua, alegia, beldurra [...], harrotasuna edota lotsa [...], eta nire esklabotasunaren onarpena. [...] **Baina zehaztapen hori** ez da inola ere ilunak eta ez hain ilunak diratekeen *ezagutzen* finkatze kontzeptuala.

Orduan [lotsan etab.] jasaten dugun berehalako aldaketa ez du ezagutza baten irrupzioak eragiten, inondik ere ez. Hori gehiago dagokio berez nire bat-bateko solidotze eta estratifikatze [...] deblauki bultzatzen nauena existentziaren dimentsio berri batera: ***ez agerikoaren dimentsiora.***

**Horrezkero, Bestearen sortze horren zentzua zehatz dezakegu** bere begiradan eta bere begiradaz. **Bestea** ez zaigu inola ere objektutzat ematen. [...] ezingo luke ez objektu izan eta ezta [*Ni*] objektu baten elementu formal eta eratzaile ere. [...] **Zer da, orduan?**

- **Sek. 2 [310-330]:**

Lehen sekuentziak eta lehen oztupoaren argitzeak bigarren sekuentzia osatzen dute. Sekuentzia horretan, *Bestearen* existentzia objektutasunaz eta subjektutasunaz harago eramaten da. Zera, *Bestea* ez da *Niak* ezagut dezakeen zerbait, baizik eta bere izatean bizi duen zerbait: *bestetasuna*. Ezagutzaren planoaz harago kokatu behar gara, beraz. Kontzientziak, bere bat-batekotasunean, bere existentziaz jabetzen denarekin batera dauka ere *Bestearen* existentziaren eta askatasunaren kontzientzia. Bestela esateko, existitzea eta *Bestea* existitzen den kontzientzia izatea bergauza da.

Horrela, erantzunik baluke lehen sekuentziaren oztupoak formulatzen duen galderak. Eta erantzun hori bigarren sekuentziaren tesizat har daiteke:

**2. Tesia:** *Bestea* da bitartekorik gabeko presentzia beharrezko hori eta, *ni* bezala, ‘bere baitarako’ izatea da.

Horrela, begiradaz, *Bestea* subjektu libretzat eta kontzientetzat bizi dut konkretuki [...] Eta subjektu horren bitartekorik gabeko presentzia beharrezko baldintza da niri buruz eratzen dudana zeinahi pentsamendurena. **Bestea zera da, beragandik ezerk bereizten ez nauen *ni neu* hori, ez bada bere askatasun erabatekoak eta osoak**, alegia, berez eta bere baitarako, berak bakarrik izateko daukan bere indeterminazio horrek. [330]

Sekuentzia berri horrek (*Sek. 2*) planteatzen duen oztupoa [330-334] solipsismoarena da. Horrela azal daiteke, alegia, *Bestearen* subjektutasuna ez-agerikoaren dimentsioari dagokiolarik eta bere existentziaz kontzientzia erreflexiboan zein erreflexio-aurrekoan ohartzen naizelarik, zilegi izan daiteke pentsatzea *Bestearen* existentziaren funtsa *Ni neu* naizela, hau da, neronek sortzen dudala edota nire luzapena dela, nolabait esateko.

Metadiskurtsoak ematen du ostera ere oztupo berriari aurre egiteko abiapuntua:

**2. Oztupoa:** Solipsismoan erortzen gara *Bestea* ulertzen badugu *Niak* fundatzen duen ‘beste-izate’-tzat.

**Beharrezkoa badakigu jada zentzutasunak argudio solipsistari beti oposatu izan dizkion aurkakotasun apurtezin horiek azaltzen hasteko.** Aurkakotasun horien oinarria da, hain zuzen, Bestea presentzia konkretu eta ziur gisa ematen zaidala ezin dudana inola ere nigandik ondorioztatu eta ezin dena inola ere zalantzatan ipini eta ezta bihurtu ere erredukzio fenomenologikoaren zein beste “ἐποχή” baten objektu. [330]

*Bestea* ez da emana den zerbait:

Operazio hori orokorrean posible den edo ez **esatea ez dagokigu orain. Baina, hizpide dugun kasuan**, *Bestea* ezingo luke jokoz kanpo utzi, zeren begirada-begiratzaille delarik, Bestea ez baitagokio munduari. Ni lotsa naiz *nirekin Bestearen aurrean*, **genioen**. Erredukzio fenomenologikoak lotsaren objektua jokoz kanpo uztea izan behar du ondorio, lotsa bera hobeto agerrarazteko, bere subjektibotasun absolutuan. Baina Bestea ez da lotsaren *objektua*: lotsaren objektua da nire ekintza eta nire situazioa munduan. Horiek bakarrik “erreduzi” daitezke, azken batean. [331]

Bestea ezin da ulertu behar *Niaren* egitura ontologikotik eratorritako zerbait bezala, ikсутen dudan objektuari itsatsita lihoakeen subjektu bat bezala:

**Eta zera pentsa daiteke**, ez ote da izango Bestearen begirada nire-baitarako-objektibotasunaren *zentzua* dela? **Ildo horretatik solipsismoan eroriko ginатеke berriro.** [332]

- **Sek. 3 [310-334]:**

Diskurtso nagusiak ez-agerikotasunaren eta solipsismoaren oztopoak gainditzen ditu. Horrek guztiak hirugarren sekuentzia osatzen du. *Bestearen* existentzia zalantzagabea da, ez-agerikoa izan arren, eta subjektu askea eta autonomia da, alegia, ez da nire izatetik eratorritakoa, bere existentzia ez dut nik fundatzen. *Bestea* jatorrizko gertakaria da, beharrezkoa eta erreduziezina, ez nik edota nigan sortua, baizik eta nire kontzientziarekin batera sortzen dena. Halatan, sekuentzia honetan auzia dagoena zera da, *Beste*-objektuaren presentzia faktikoaren beharrik badagoen *Besteari* subjektutasuna aitortzeko. Erantzuna ezezkoa da sekuentziako tesiaren arabera.

**3. Tesia:** *Bestea* niretzat ez da ez ezagutza ez kategoria, baizik eta jatorrizko gertakaria.

Horrela, nire ni-objektua ez da ez ezagutza ez ezagutza-unitate, atsekabe baizik [...] lortu ezin dudan limitea eta, haatik, banaizena. Eta **Bestea**, zeinagatik ni hori *datorkidan*, **ez da ez ezagutza ez kategoria, baizik eta askatasun arrotz baten presentziaren egitatea**. Azken buruan, bat egiten dute nire deserrotzeak eta Bestearen askatasuna sortzeak, batera baino ezin ditut sentitu eta bizi, bata bestea gabe ulertzen ere alferrik saiatuko naiz. Bestearen auzia saihestezina da eta bete-bete harrapatzen nau. [...] Bestea ez zait agertzen izate bat bezala lehenik eratu dena ondoren ni topatzeko, baizik eta izate bat bezala **nirekin batera sortzen dena, izatezko harreman jatorrizko** batean, non eta bere zalantzagabetasuna eta *beharrezkotasuna* nire kontzientziarenak berberak diren. [334]

Ordea, lehenengo sekuentziaren arabera dakigunez, pertzepzioaren eremuan agertzen den *Bestea* soilik probablea da objektu gisa, bere objektuzko presentzia ez da inoiz ziurra. Bestela esateko, *Bestearen* presentziaren eta absentiaren inguruan ezin dut izan ziurtasun erabatekorik. Hortik dator diskurtso nagusiaren hirugarren oztopoa [334-342], alegia, nola gainditu gertatzen den talka *Beste-objektuaren* ziurgabetasunaren eta *Beste-subjektuaren* ziurtasunaren artean? Oztopo berri hori metadiskurtsoak salatzen du luze:

**3. Oztopoa:** Gerta liteke erratzea eta *Beste*-subjektuaren presentzia akatsean oinarritzea, alegia, *Beste*-objektu ‘absente’ batean.

**Baina oztopo ugari dago oraindik.** Bereziki, lotsaren bitartez, presentzia zalantzagabea aitortzen diogu Besteari. **Baina, ikusi dugunez, probablea** baino ez da Besteak niri begiratzea. [...] **Hitz batean esateko**, begirada ez al da orduan *probable* bihurtzen uneoro begiratu senti naitekeenez gero, hala izan gabe? Eta Bestearen existentziaz dugun ziurtasun osoak ez al du hartzen, horrenbestez, tankera hipotetiko hutsa? [334-335]

**Oztopoa termino hauetan enuntzia daiteke:** begirada bat adierazten dutela iruditzen zaidan munduko hainbat agerpen dela bitarte, nigan nolabaiteko “begiratu-izate” bat atzematen dut, bere egitura propioak dituen eta Bestearen existentzia errealera naramana. Baina litekeena da nahasi izana. [...] **Zertan geratzen da kasu horretan nire begiratu izatearen** ziurtasuna? [...] **Horrenbestez, lotsa inoren aurrean** ez al da bihurtzen lotsa *faltsua*, inor ez zegoen tokian lotsak norbait ezarri duenez gero? [335]

**Oztopo horrek ezin gaitzake luzaro eragotzi, eta ez genuen aipatuko ez balu gure ikerketan aurrera egiteko** eta gure Bestearentzako izatearen izaera zehatzago mugatzeko abantaila. [335]

**Gertuagotik begira diezaiozun horri.** Errakuntza bezala agertu dena nire Bestearentzako izate-objektiboa da? Inola ere ez [...] zalantzarria dena berez ez da Bestea, baizik eta Bestearen *hor-egotea* [336-337]

**Ohar horiek urrunago eramango gaituzte.** Zera, Bestearen presentzia munduan ezin ondoriozta daiteke analitikoki Beste-subjektuaren niganako presentziatik, jatorrizko presentzia hori transzendentea baita, hau da, munduaz-haragoko-izatea. [...] **Eta zer da, bada, absentsia?** [337]

- **Sek. 4 [310-342]:**

Ordura arte, beraz, *begirada* hartzen da *Niak* funtsezko gertakari bezala bizitzen duen fenomenotzat, zeinak, alde batetik, *Bestearen* existentzia salatzen duen eta, beste alde batetik, *Niaren* izatearen dualtasuna sortzen duen. Horren arabera, *Bestearen* existentzia ez datza bere objektuzko presentzian, baizik eta subjektuzkoan. Horrela, absente delarik ere, *Bestearen* absentsia subjektu gisa bera presente egoteko moduetariko bat da. Azken batean, ziurgabeak objektuak bakarrik izan daitezke, ez *Bestea*, eta ezta *Bestearentzako* (*nire*) izatea ere, nahiz eta, zalantzarik gabe, nire kontzientziak lotura egiten duen *Bestearen* eta eremu pertzeptiboan agertu ‘*Beste-objektu*’ jakin baten artean.

Azalpen horrek laugarren sekuentziako tesira garamatza:

**4. Tesia:** Nire izatean, *Bestea* konstante bat da, ezen nire ‘*Bestearentzako-izatea*’ nire izatearen egiturari berari baitagokio.

**Bestearentzako izatea konstante bat da** nire giza errealitatean eta, niri buruz osatzen dudana pentsamendu txikienean ere, bere **beharrezkotasun fisikoa** nabari dut. [...] **Bestea presente zait leku orotan objektu bihurtzen naizeneko zera hori bezala.** Horren ondotik, tronpatu ahal naiz kalean topatu berri dudana objektu-Beste baten presentzia enpirikoaz. [339]

**Uler dezakegu orain begiradaren izaera.** Begirada orotan, Beste-objektu baten agerpena gertatzen da presentzia konkretu eta probable gisa nire eremu pertzeptiboan. Eta Beste horren zenbait jarreraren kausaz, nire “begiratu-izatea” atzematen hasten naiz, lotsaz, atsekabeaz, eta abar. “Begiratu-izate” hori agertzen da *hori* konkretu hori izateko dudana probabilitate hutsa bezala [...] non eta Bestea beti zaidan niri presente ni beti *Bestearentzako* naizen heinean [...] **Begirada esaten diogu fenomenoaren osotasunari.** [340-341]

Alabaina, gertakari horrek *Nia* eta *Bestea* inplikatzen baditu ere, ez ditu zertan bi izateak lotzen; izan ere, *Bestea* (EN: 329) "transzendentzia nonahikoa eta atzemanezina da [...] izatearen infinitutasunak bereizten du nigandik". Alegia, transzendentzia batek ez du ez tarterik ez parterik beste transzendentzia batean. Horrek diskurtsoaren laugarren oztopoa [342-358] dakar, zera, transzendentziaren 'limitea' esan dakiokena edo bestela, nahi bada, transzendentzien talka. Oztopo hori bi partetan garatzen da.

**4. Oztopoa:** *Bestearen* existentziaren ziurtasuna ez da aski *bestetasunaren* teoria bat eratzeko. Horregatik, argitu behar da *bestetasun* hori, hor dagoena eta atzemanezina dena, nola lotzen zaion *Niari*.

Oztopo hori galdera-modura horrela formula daiteke. Zera, baldin eta transzendentziatik kanpoko ikuspuntutik hartzerik ez badago eta, beraz, ez badago kanpokotasunik bi transzendentzia horiek lotuko dituenik, zein da, orduan, bi izate edo transzendentziaren arteko lotura? Zein da *Ni-Bestea* erlazioaren funtsa? Metadiskurtsoak adierazi bezala:

**Horrela, begiradak jarri gaitu** gure *Bestearentzako izatearen* arrastoan eta **agertu digu** berarentzat garen Beste horren existentzia ziurra. **Baina ezin gaitu eraman urrunago.** **Orain aztertzea dagokigu** Nire eta Bestearen arteko funtsezko lotura guri agertzen zaigun eran; edo, nahi bada, tematikoki **zehaztu eta finkatu behar dugu orain** oinarritzko lotura horren mugen barruan dagoen guztia **eta galdetu** zein den nire Bestearentzako-izate horren *izatea*. [342]

Bada, lehen hiru oztupoak argituta (ez-agerikotasuna, solipsismoa eta absentsia), laugarrenari heltzeko, sekuentziak 'ezeztapen' kontzeptua hartzen du oinarri. Horren arabera, baldin eta talkarik badago bi transzendentzien artean, orduan, bion artean nolabaiteko erlaziorik ere badagoen seinale, hain zuzen ere, talkarena, edo, besterik ez bada ere, 'bata-beste-ez-izatearena'. Hala, *Bestea* 'ez-ni-ez-objektua' da. Ezeztapen hori elkarrekikoa da. Bi transzendentzien arteko talkan gertatzen den ezeztapena barne-ezeztapena da (ez kanpoko), alegia, batak bestea inplikatzen duenekoa.

Metadiskurtsoak bideratzen du laugarren oztupoaren azalpena eta garapena:

**Gure bilaketan lagunduko digun gogoeta bat eta aurreko oharretatik ondorioztatzen dena zera da,** Bestearentzako izatea ez dagokio bere baitarakoaren egitura ontologikoari. **Izan ere, ezin dugu pentsatu** deriba dezakegunik printzipio baten

ondorio gisa Bestearentzako izatea bere baitarako izateetik; ezta alderantziz ere, bere baitarako izatea Bestearentzako izateetik. **Zalantzarik gabe**, gure giza errealitateak eskatzen du aldi berean bere baitarako eta Bestearentzako izatea, **baina gure ikerketaren jomuga** ez da antropologia bat eratzea. [342]

*Cogito* kartesiarrak baieztatu baino ez du egiten *egitate* baten egia absolutua, nire existentziaren egitatea; era berean, hemen darabilgun *cogito* zabalagoak egitatetzat aurkezten digu Bestearen existentzia eta nire Bestearentzako-existentzia. **Hori da esan dezakegun guztia**. [342]

**Ikusi dugu lehenago** zein den barneko eta kanpoko ezeztapen-motak bereizten dituen desberdintasuna. **Zera erreparatu dugu bereziki**, izate determinatu baten ezagutza ororen funtsa jatorrizko erlazio bat da, non eta bere baitarakoak, bere sortzean bertan, "izateko" baitauka izate *hori* ez-izateko moduan. [...] **Idatzi dugunez**, bere baitarakoak bere izatean biltzen du bera ez den objektuaren izatea, bere izateari baitagokio izate *hori* ez izatea. [343]

**Ohar horiek, funtsezko aldaketarik egin gabe, bere baitarakoaren eta Bestearentzakoaren oinarrizko erlazioari aplikatu dakizkioke**. [343]

**Ordea, deskribapen horrek funtsezko erantsi bat eskatzen du, bere garrantzia errotik aldatuko duena**. Izan ere, kontzientzia munduan agertzen zenean halako eta horrelako *hori* ez izaten, erlazio negatiboa ez zen elkarrenganakoa. [...] Besteaz dihardugunean, ordea, barne-ezeztapena elkarrekikotasunezko erlazioa da: kontzientziak ez-izateko duen izatea definitzen da izate bat bezala kontzientzia hori ez-izateko duena. [344]

Halatan, ‘*Bestea-ez-izatea*’ eta ‘nire-kontzientzia-izatea’ aldi berean geratzen dira. Eta hor gertatzen den ezeztapena, beraz, ez da kanpoko ikuspuntu batetik egin litekeena. Ordea, kontua da *Besteak* ere, bere aldetik, *Bestea-ez-izaten* (hau da, *Ni* ez izaten) bizi duela bere izatearen transzendentzia eta, beraz, bestetasuna elkarrekikotasunezkoa dela. Zera, *Bestea ni-ukatzuz* moduan existitzen da, *Nia* bezalaxe (EN: 346): “Bakarrik uka dezaket niganetik Bestea, hain zuzen, Bestea *subjektu* den heinean”.

Batak ‘ni-objektua’ ekoizten du eta besteak asumitu egiten du, eta hori bi zentzuetan gertatzen da. Hala, atzeman ezin dudana *Besteak* ere *bestetasuna* bizi du, bere izatearen parte da, berarentzat ni bainaiz *Bestea*. Horregatik, *Bestea* objektutzat agertzeak bion

arteko erlazioaren *bigarren* unetzat jo daiteke, alegia, *Bestearen* existentzia ziurrak ahalbidetzen du *Bestea* objektutzat agertu ahal izatea. Nire transzendentziaren silueta moduko bat balitz bezala, *Bestea* da *Nik* limitatzen dudana nire *Bestea-ez-izateko* proiektzioan. Jakina, iraganbide hori modu afektiboan bizitzen da, laugarren sekuentzian zehar (348.-352. or.) aitortzen denez.

Paragrafo labur eta solte batek laburbiltzen du hori:

Lotsa, beldurra eta harrotasuna dira, beraz, nire oinarrizko erreakzioak eta *Bestea* nire eskumenetik kanpo dagoen subjektutzat hartzeko moduak; euren baitan nire ipseitatearen ulerpen bat biltzen dute, motibazio gisa balio izan ahal eta behar didana *Bestea* objektu gisa eratzeko. [352]

Laugarren oztopoa bitan bana daitekeela esan dugu gorago. Bada, lehen parteak [342-352] transzendentzia-mugaren oztopoa saihestea du jomugatzat, azaldu berri dugunez; eta, bigarren parteak [352-358], zehazki, ‘Bestearentzako-izate’ kontzeptuaren argitan, *Beste*-subjektu eta *Beste*-objektuaren arteko loturaz dihardu. Hala, bigarren partean ondorioztatzen denez, *Beste*-objektuaren balizko subjektutasunak faktikotasunera garamatza: edo *Besteak* ikusten nau edo *Nik Bestea* ikusten dut; aldiro, nor norentzat subjektu eta objektu den erabakitzen duena zera da, *Nire* situazioa eta *Bestearen* situazioa munduan.

Funtsean, *Beste*-objektuaren eta *Beste*-subjektuaren arteko erlazioa ondoko terminoetan azaltzen da: *Beste*-objektua agertzean, subjektutasun oroz erantzia agertuagatik, uneoro bizi dut sentipena izatearen beste dimentsio batean izan naitekeena. Labur esateko, *Nik Bestea* subjektutzat transzenditzen dut, baina objektutzat soilik ager dakidake nire faktikotasunean. Aurreko hiru oztopoen antzera, laugarrenak ere abiapuntua ematen du sekuentzia berri bati heltzeko. Ordea, jarduera hori ondoko kapitulurako uzten da, metadiskurtsoak salatzen duenez:

**Horrek guztiak faktikotasunera garamatza.** Nire faktikotasuna eta *Bestearen* faktikotasuna dira erabakitzen dutenak *Besteak* ni *ikus* nazakeen edota *nik ikus* dezakedan *Beste hori*. [...] **Baina faktikotasunaren arazo hori azalpen orokor honen mugetatik kanpo gelditzen da. Hurrengo kapituluan zehar helduko diogu.** [357]



- **Sek. 5 [310-358]:**

Laugarren sekuentziak eta laugarren oztopoaren azalpenak 5. sekuentzia osatzen dute. Aipatu dugunez, oztopo horrek hurrengo kapitulura igortzen du. Beraz, 5. sekuentziaren tesia har daiteke “Begirada” kapituluaren tesizat. Hala, “3.2. Gorputza” kapituluaren jorrazeko ikergaiari ematen zaion abiapuntua eta “3.1.4. Begirada” kapitulua biltzen duen tesia berbera da; faktikotasunarekin du zerikusia. Ez hori bakarrik, ‘situazio’ kontzeptuaren aipamenak tratatuaren 4. atalera garamatza, horrek erlazioan ipintzen baititu ‘begirada’ eta ‘askatasun’ kontzeptuak. Ohartzekoa da, beraz, “Begirada”-k tratatuaren bi kapitulu (3.1. eta 3.2.) ez ezik bi atal (I-III eta IV) ere lotzen dituela.

Gatozen bosgarren sekuentzia tesi batean biltzera:

**5. Tesia:** *Bestea* nire situazioaren egitura ontologikoari dagokio (beste egitura batzuk ere badagozkion bezainbat: nire iragana, heriotza, lekua eta inguratzen didana). Situazio faktiko horrekiko hartzen dudun uneko ardurak parte zuzena du *Ni* bestetasunaz jabetzeko.

Ordea, arestian aipatu bezala eta gorago ekarri aipuak salatzen duenez, deskribapenaren amaiera-puntua ‘faktikotasun’ kontzeptuarekin lotzen da, eta faktikotasuna aurreraxeago ere aipatzen da testuan, azken paragrafoetan, hain zuzen. Aipu batetik bestera, tartean, kapituluaren zehar jorratutako guztia gogoeta metafisiko baten iragazitik aurkezten da [358-364]. Gogoeta hori ulertu behar da ez hainbeste gaintitu beharreko bosgarren oztopoztat, baizik eta gogoeta erantsi edo periferikotzat; funtsean, begiradari buruzko kapitulua ez ezik “3.1. Bestearen existentzia” kapitulu osoa ere ixten duena bezala.

Horrenbestez, *bestetasunaren* auzia lerratzea Izatearen ‘faktikotasun’ eta ‘situazio’ kontzeptuetara kapituluko deskribapen teorikoaren amaieratzat har daiteke. Genioenez, *Bestea Beste*-objektutzat bakarrik ager daiteke, baina (EN: 357) "bera atzemateak zera ulertarazten dit, Besteari buruz nik beti bizi ahalko dudala printzipioz beste *esperientzia* bat, izatearen beste maila batean kokatuz". Kontua da nik ezin dudala transzendentzia bat bizitu nirea ez denik ezta posibilitaterik kontzebitu ere nirea ez denik.

Horregatik, azken batean, emana den zerbait bezala bizi dut eta osorik transzendentzen dut *Bestearen* existentzia-transzendentzia. *Bestearen* posibilitateak gaintitu egiten ditut,

baina ez objektu baten posibilitate bezala, baizik eta subjektu batenak bezala. Horrela, ondoko fikzio-irudiak itxiko luke *Bestearen* existentziaren bizipenaren deskribapena.

Halatan, Beste-objektua tresna lehegarria da eta tentuz maneiatzen dut, bere inguruan etengabeko posibilitatea sentitzen baitut leherraraz *dezaten* eta leherketa horrekin bat-batean bizi dezadan munduaren ihesa nigandik kanpo eta nire izatearen alienazioa. Horregatik, nire ardura konstantea Bestea bere objektibotasunean edukitzea da eta, beraz, Beste-objektuarekin dudana harremana batik bat abileziaz eratu ohi da berak objektu izaten jarrai dezan. [358]

Dena den, orain arte aipatutakoaren arabera, *Bestearentzako* izatea delarik nire izatearen egituraren funtsa, alde batetik, nik *Besterik* badagoen kontzientzia daukat, eta, beste alde batetik, baita ere *Ni* bat badagoen kontzientzia (ez dudana baina banaizena) *Besteari* dagokiona. Halaber, horrek guztiak zilegiztatzen du nik *Bestea* objektutzat ikusi ahal izatea. Horiek horrela, sortzen den galdera metafisikoa bistakoa da: Zergatik da hori horrela? Zergatik daude *Besteak*?

Kapitulua gogoeta metafisikoa, beraz, aurretik agortutzat jo den azalpen baten azken gogoeta modukoa da. Metadiskurtsoak ekartzen du gogoeta horren azaltzeko beharra.

**5. Oztopoa:** Oztopoa bainoago, galdera metafisikoa: Zergatik daude Besteak?

**Gure ikerketaren maila honetan, Bestearentzako-izatearen funtsezko egiturak argitu eta gero, tentatuta gaude, nola ez, galdera metafisikoa egitera:** “Zergatik daude Besteak?” Besteen existentzia [...] jatorrizko gertakaria da segurik, baina izaera *metafisikoa* duena, alegia, izatearen kontingentziaren ondorena da. Funtsean, existentzia metafisiko horien harira egiten da *zergatiaren* galdera. [358]

Galdera horri aurre egiteko, Izatearen ‘osotasun’ izaera hartzen da abiapuntutzat. Zalantzarik gabe, Izatearen teoria batek *Bestearen* existentzia eta Izatearen *Ezereza* (hots, *Niaren* alteritate edota bikoiztea) Izate-osotasun baten argitan ulertu behar ditu; bi horiek batera sortzen dira nire izatean. Osotasun hori atzemanezina da, horratik. Hori gertakari kontingentea eta erreduziezina da. Hala, erantzun metafisikoak "halaxe da" eta gisako erantzunak eskatzen ditu, halabeharrez (*EN*: 363):

Orduan, galdera metafisikoak jada ez du zentzurik; **aurkitu dugu** funtsezko kontingentzia eta **erantzun dezakegun bakarra zera da**, “horrela da”.

Horrela, galdera metafisikoari erantzuteko, *Bestearentzako* izatearen ek-stasia hartzen da hizpide. *Bestearentzako izatea* ‘banaizen’ eta ‘ez naizen’ izatea da eta, beraz, *Bestearentzako* naizen heinean, Ezerezak nire izatea zeharkatzen du: ‘banaiz, baina *Bestearentzat*’. Kontua da kontzientzia-aniztasuna (*Bestea* egotea) eta *Bestearentzako* izatearen dualtasuna (*Ni* aldi berean izatea eta ez-izatea, alegia) batera eta osotasun beraren barruan sortzen direla; ezin da bata bestearen aurretik ezta ondotik ere ulertu. Izatearen dualtasunak, alde batetik, nekez sortuko du *Bestearentzako izate* bat baldin eta beste kontzientzien aniztasuna soil-soilik dualtasun horren ondorengo zerbait bada.

Bestela esateko, *Bestearentzako izaterik* egongo bada, orduan *Besteak* jada badauden seinale. Baina, beste alde batetik, kontzientzien aniztasun hori ez daiteke izan lehen gertakaria, orduan ez bailegoke aniztasun hori fundatuko lukeen kontzientziarik. Ezin urrunago joan, erreduziezina baitirudi aniztasun horren faktikotasunak. Kontzientzien aniztasuna agertzen da kontingente eta erreduziezinezkotzat. Osotasun batek sortzen eta biltzen ditu baina ezin da hartu osotasun horren ikuspunturik, osotasun ‘birrindua’ da. *Bestearen* eta *Ezerezaren* aldibereko sortze horri testuan "Bestearen faktikotasuna" esaten zaio. *Bestearen* existentzia faktikotasunari eta ezerezari lotuta agertzen da.

***Faktikotasuna bezalako zerbait aurkitzen dugu eta ezin irudika dezakegu*** nola ekoiztuko zuen bere izatean ***arestian aipatzen genuen*** osotasunak, desitsaste erabatekoenean izanik ere, inondik ere izateko ez duen ezerez bat. [362]

***Zalantzarik gabe***, noranahi zuzentzen dugula ere gure begirada, barneko ezeztapen huts eta soil bat besterik ez dugu aurkitzen deskripzioaren objektutzat. Eta ezereza, haatik, hortxe dago, ezeztapenen *dualtasuna* badagoeneko gertakari erreduziezinean. [...] agertzen da kontingentzia soil eta erreduziezin bezala, agertzen da gertakari bat bezala non *ez baita nahikoa nik Bestea naizela ukatzea Bestea existitzeko, baizik eta non beharrezkoa baita Besteak ere ni dela ukatzea nire ezeztapen propioaren aldiberekotasunean. Hori Bestearentzako izatearen faktikotasuna da.* [362]

Faktikotasunak sortze-maila berean ipintzen ditu *Bestea* eta (nire) izatearen Ezereza. *Bestearentzako* izatearen egitatearen aurrean, *Besteen* existentziaren zergatiaz bainoago, zuzenagoa da bestelako galdera egitea: zer da edo zerk behar du lehenago, (i) *nire-izatearen-dualtasunaren-kariaz-bizi-dudan* ‘Bestearen existentzia’ edo (ii) *Bestearen-*

*existentziaren-kariaz-bizi-dudan* ‘izatearen dualtasuna’? Baina hori ere erantzunezina da, kausa-efektuzko gurpil-zorua, ‘*Bestearentzako*’ kontzeptuak biak biltzen baititu.

**Halatan, kontrakotasunezko ondorio honetara heltzen gara:** Bestearentzako izatea soilik izan daiteke baldin eta osotasun batek *izana* bada desagertu egiten dena hura sortzeko. [...] Baina, bestalde, Bestearentzako-izate hori ezin existi daiteke ez baldin badarama berarekin ez-izate bat, kanpoko eta atzemanezina, inongo osotasunek ezin duena, *gogoarena* izanik ere, ez sortu ez fundatu. Zentzu batean, kontzientzien aniztasunaren existentzia ezin da izan aurreneko gertakari bat bat, eta norberarekiko desitsastearen jatorrizko gertakari batera garamatza [...] Baina, beste zentzu batean, aniztasun horren faktikotasunak erreduziezina dirudi. [362]


Aipatu dugunez, ‘faktikotasuna’ berriz ere hizpide hartzen da testuaren bukaeran. *Oztopo* berri horren azalpenari eta irtenbideari kapitulu oso eta berri bat eskaintzen dio: “3.2. Gorputza”. Kapituluak metadiskurtsoak ixten du:

**Hara non heldu garen azalpen honen amaierara. Argitu dugu** Bestearen existentzia ebidentzia osoz bizitua dela nire objektibotasunaren gertakarian eta gertakariaz. **Eta ikusi ere dugu** nire Bestearentzako alienazio propioaren aurrean dudan jarrera Bestea objektutzat hartzea dela. [...] Baina **ezin gara hemen gelditu**. Bestea niretzat den objektu hori eta ni Bestearentzat naizen objektu hori, *gorputz gisa* agertzen dira. Zer da, bada, nire gorputza? Zer da Bestearen gorputza? [363-364]

### 6.2.2. Fikzioaren presentzia diskurtso teorikoaren antolamenduan

Ikusi dugunez, kapitulu-hasierako sekuentzia bost bider bikoizten da. Aipatu dugunez, azken bikoiztea desberdina da besteen aldean, genioenez, tratatuko 3. kapitulu osoa ixten duen gogoeta metafisikoa baita. Ordea, beste bikoizte guztiak ere ez dira berdinak. Multzokatze horren kontu emateko, sekuentziak ataletan banatuko ditugu eta eskema berri bat osatuko dugu, ondoren, fikzioaren presentzia nabarmentzeko. Hiru atal osatuko ditugu ‘*Sek. 5*’ deitu dugun sekuentziatik abiatuta. Ohartzekoa da, bestalde, hiru atal horiek orrialde-kopuru aldetik berdintsuak direla.

6.2.2. eskema: Diskurtoaren sekuentzia-antolamendua ataletan multzokatua



Halatan, *A* atala [310-326] lehen sekuentziak osatzen du, alegia, kapitulari hasiera ematen dionak. Atal horrek *Bestearen* existentziaren auzia ‘objektutasun-subjektutasun’ terminotan azaltzen du, zera, *Bestea subjektua da, nahiz eta Niak Beste-objektutzat ikusten duen*. *A* atalak 16-17 orrialde ditu eta hainbat fikzio-unitate eta osagarri biltzen ditu, hain zuzen ere, *F1, F2, F3, F4, F5A* eta *F5B*, nahiz eta horietako batzuen osagarriak aurrerago ere agertzen diren: *O3c, O4e, O4f, O4g, O4h, O5Bk, F5C, O5Ca*.

Ondoren, *B* atala [326-342] lehen hiru oztopo teorikoen azalpenak osatzen du, alegia, lehen atalean baliatzen diren lau kontzeptu nagusiei dagozkien oztopoak.

Kontzeptuak	Oztopoa
<i>Beste-subjektua, Ni-objektua</i>	<i>EZ-AGERIKOTASUNA</i>
<i>Nia</i>	<i>SOLIPSISMOA</i>
<i>Beste-objektua</i>	<i>ABSENTZIA</i>

Horrela, *B* atalak ere 16-17 orrialde zenbatzen ditu eta hainbat fikzio eta fikzio osagarri biltzen ditu; oztopo bakoitzak kopuru desberdina du. Eta horrela banatzen dira, beraz: ez-agerikotasunaren oztopoak, *O5Bk*; solipsismoarenak, *O3c*; eta, absentiarenak, *O4e, O4f, O4g, O4h, F5C, O5Ca, F6, F7*. Laugarren oztopoa bereizi egin dugu *B* ataletik eta

estatus propioa eman diogu, izan ere, *A-B* atalek (horri gorago *Sek. 4* esan dioguna) agortutzat ematen dute *Bestearen* subjektuzko existentzia ziurra eta, metadiskurtsoak salatzen duenez, gaiari beste ikuspegi batetik heltzen diote.

**Orain aztertzea dagokigu** Nire eta *Bestearen* arteko funtsezko lotura guri agertzen zaigun eran; edo, nahi bada, tematikoki **zehaztu eta finkatu behar dugu orain** oinarritzako lotura horren mugen barruan dagoen guztia **eta galdetu** zein den nire *Bestearentzako-izate* horren *izatea*. [342]

Beraz, *C* atala [342-358] gorago laugarren oztopoa deitu dioguna da, alegia, xedetzat bi transzendentzien arteko erlazioaren kontu ematea duena, hau da, zein erlazio gordetzen dute *Niak* eta *Besteak* ‘subjektu-objektu’ joko dialektikoaz harago. Hala, atal horrek, ikuspegi ontologiko batetik, ‘*Bestearentzako-izate*’ kontzeptuari heltzen dio eta zehaztu asmo du *bestetasunak* ‘izate’ horrekiko duen erlazioa. Beste atalek bezala, horrek ere 16-17 orrialde hartzen ditu. Biltzen dituen fikzioak kapituluko azkenak dira (*F8*, *F9*, *F10*, *F11*), izan ere, atal honen ostean gogoeta metafisikoa dator, ataltzat hartuko ez duguna eta batere fikziorik ez duena.

6.2.2. taula: *Fikzioaren presentzia atalez atal eta orrialdez orrialde*

<i>A</i> atala		<i>B</i> atala		<i>C</i> atala	
Or.	Fikzioa	Or.	Fikzioa	Or.	Fikzioa
310	<b>F1</b> , <i>O1a</i>	326		342	
311	<b>F2</b> , <i>O2a</i>	327		343	
312	<i>O2b</i> , <i>O2c</i> , <i>O2d</i> , <i>O2e</i>	328	<i>O5Bk</i>	344	
313	<i>O2g</i> , <i>O2h</i> , <b>F3</b> , <i>O3a</i>	329		345	
314	<i>O2i</i> , <i>O2j</i> , <i>O3b</i>	330		346	
315	<b>F4</b> , <i>O4a</i>	331	<i>O3c</i>	347	
316	<i>O4b</i> , <i>O4c</i> , <i>O4d</i>	332		348	
317	<b>F5A</b> , <i>O5Aa</i> , <i>O5Ab</i>	333		349	
318	<i>O5Ac</i> , <b>F5B</b>	334		350	
319	<i>O5Ba</i>	335	<i>O4e</i> , <i>O4f</i> , <i>O4g</i> , <i>O4h</i>	351	
320	<i>O5Bb</i>	336	<i>O4h</i> , <b>F5C</b> , <i>O5Ca</i>	352	<b>F8</b>
321	<i>O5Bc</i> , <i>O5bd</i> , <i>O5Be</i>	337	<i>O5Ca</i> , <b>F6</b> , <i>O6a</i> , <i>O6b</i> , <i>O6c</i>	353	<i>O8a</i> , <i>O8b</i> , <i>O8c</i>
322	<i>O5Be</i> , <i>O5Bf</i> , <i>O5Bg</i> , <i>O5Bh</i> , <i>O5Bi</i>	338	<i>O6d</i>	354	<i>O8c</i> , <b>F9</b> , <i>O9a</i> , <i>O9b</i>
323	<i>O5Bi</i>	339	<i>O6e</i> , <i>O6f</i> , <i>O6g</i>	355	<i>O9b</i> , <i>O8d</i> , <i>O8e</i>
324	<i>O5Bj</i>	340	<i>O6g</i> , <b>F7</b> , <i>O7a</i>	356	<b>F10</b>
325		341	<i>O7a</i> , <i>O7b</i>	357	
326		342		358	<b>F11</b>

### 6.3. Fikzioaren betekizuna diskurtso teorikoaren antolamenduan

#### 6.3.1. Fikzioaren betekizun nagusia diskurtsoaren antolamenduan

Fikzioaren presentziari buruzko taulak erakusten duenez, fikzioa multzotan biltzen da. Bistakoa denez, fikzioaren presentziak ez du distribuzio homogeneorik, fikzioa hantemenka agertzen baita eta orrialde-hutsune luzeak agertzen baitira testuan fikziorik batere gabeak. Ordea, taulari arretaz erreparatzen badiogu, hiru multzokatze nagusi bereiziko ditugu: lehenak testuaren abiapuntu osoa hartzen du bere gain, alegia,  $A$  atala edota sekuentzia nagusia esan dioguna; bigarrenak,  $B$  ataleko hirugarren parte edota 3. oztopoa deitu dioguna; eta, hirugarrenak, aldiz,  $C$  ataleko azken erdia edo 4. oztopoa.

Horrela, fikzioa testuaren hasieran eta bukaeran baliatzen da, batik bat. Azken batean, tarteko fikzio-multzoa (bigarren multzoa, alegia) sekuentzia erantsizat har daiteke; ez bakarrik diskurtsoan sekuentzia nagusiaren oztopo soiltzat aurkezten delako (zehazki, hirugarren oztopotzat), baizik eta sekuentzia horren funtzio nagusia, besterik gabe, garapen teorikoan aurrera egitea delako, metadiskurtsoak hala adierazten duenez (335. or.): “[...] ez genuen aipatuko ez balu gure ikerketan aurrera egiteko eta gure Bestearentzako izatearen izaera zehatzago mugatzeko abantaila”.

Aipatzen denez, beraz, sekuentziaren jomuga zehatza da. Funtsean, ‘Bestearentzako izate’ kontzeptua zehaztu nahi da, hain zuzen ere, kontu emateko *Bestearen* existentzia artekorik gabeaz. Hori bereziki  $C$  atalean jorratzen da. Bada,  $C$  atalaren aurreko  $A$ - $B$  atal-multzoak jomuga zehatz horrekiko aurkezpen-tankera hartzen du. Horren arabera, eta bestela esateko, *Bestearen* faktikotasuna eta faktikotasun horri lot dakizkioken hiru oztopo nagusiak (ez-agerikotasuna, solipsismoa, absentzia) abiapuntua baino ez lirateke testuaren benetako muinari heltzeko: *Bestearen* existentziarekiko funtsezko erlazioa.

Edonola ere, badirudi sekuentzia nagusiaren oztopo teorikoak fikzioz ez ezik fikziorik gabe ere adieraz daitezkeela, nolabait ere, fikzioa noiz baliatu eta noiz ez filosofoaren esku geratuko balitz bezala. Horrela, fikzioz osorik eta urratsez garatzen den oztopo teoriko bakarra absentziarena da, izan ere, ez-agerikotasunarenak eta solipsismoarenak fikzioa baliatzen dute berez baina oztopoa aurkezteko bakarrik, ez garatzeko (*O5Bk* eta *O3c*, hurrenez hurren). Ohar, izan ere, fikzio osagarri horiek biltzen dituen deskribapenaren ostean metadiskurtsoa baliatzen dela:

Norberak igarriko du, **deskripzio abstraktu horretan**, Bestearen begiradaren presentzia bat-bateko eta kiskalgarri hori sarritan lotsaz bete duena [...] [328]

**Baldintza horiekin**, zalantzarik gabe, bestetasunaren kontzeptua forma hutsa balitz bezala finka daiteke eta [...]. Alabaina [...] [331]

**Eta zera pentsa daiteke**, ez ote da izango Bestearen begirada nire-baitarako-objektibotasunaren *zentzua* dela? [...] Baina **zera hartu behar da kontuan** [...] [332]

Ordea, zilegi da pentsatzea, zoriz eta kasuan kasu hautatutako idaztankera baino gehiago, 3. oztupoan ematen den fikzio-multzoak, nolabait ere, itxi egiten duela  $A-B$  atalek osatzen duten abiapuntua eta, beraz, hori ere badela fikzioaren eginkizuna, oztupo teoriko hori urratsetan garatzea ez ezik. Horren arabera, aurkezpen-funtzioari eta teoria urratsetan garatzeko funtzioari beste funtzio bat gehi geniezaioke, hain zuzen ere, laburbiltze edo ondorioztatzearena. Hala,  $F7$  fikzio-unitatea biltzen duen deskribapenak, azken batean, itxi egiten du ez bakarrik  $B$  atala, baizik eta  $A-B$  atal multzo osoa ere:

**Uler dezakegu orain begiradaren izaera**. Begirada orotan, Beste-objektu baten agerpena gertatzen da presentzia konkretu eta probable gisa nire eremu pertzeptiboan. Eta Beste horren zenbait jarreraren kausaz, nire “begiraturia-izatea” atzematen hasten naiz, lotsaz, atsekabeaz, eta abar [...] **Begirada esaten diogu fenomenoaren osotasunari** [...] [EN: 340-341]

Horren ildotik, gauza bera pentsa liteke  $A-C$  atal-multzoa itxiko lukeen fikzio-multzoaz. Zera, ematen du  $F8-F11$  fikzio-segidak biltzen duen azalpena (berau  $C$  ataleko bigarren partea, hau da, *Bestearen* jatorrizko presentziarena)  $C$  atalaren lehen partearen luzapena dela, non azaltzen baita *Niaren* eta *Bestearen* existentziaren erlazioa hiru erreakzio zehatzen bitartez gauzatzen dela: lotsa, beldurra eta harrotasuna.

Hori paragrafo batean laburbiltzen da:

Lotsa, beldurra eta harrotasuna dira, beraz, nire oinarrizko erreakzioak eta Bestea nire eskumenetik kanpo dagoen subjektutzat hartzeko moduak; euren baitan nire ipseitatearen ulerpen bat biltzen dute, motibazio gisa balio izan ahal eta behar didana Bestea objektu gisa eratzeko.

Eta badirudi ondoko orrialdeetan zera azaldu asmo dela, nola ezkontzen diren *Bestearen* objektutasuna eta *Bestearen* izaera ez-objektuzkoa, alegia, *lotsa*, *beldur* eta *harrotasun*



horren sortzailea dena. Fikzio baten tankerarekin hasten da azalpen luze hori (EN: 352): “Bat-batean agertu zaidan Beste-objektu hori ez da abstrakzio objektibo hutsa, bere esanahi bereziekin sortu da nire aurrean [...]”.

Esanak esan, fikzioari hiru betekizun aitor dakizkioke diskurtsoaren antolamenduan:

**a) Sekuentzia aurkezteko betekizuna:**

- *F1-O5Bj* fikzio-multzoak kapitulu osoari ematen dio abiapuntua. Abiapuntu hori horrela formula daiteke: *Bestea objektu bezala ikusten dut eta, begiradaz, subjektutasuna aitortzen diot.*
- *O5Bk* fikzio osagarriak sekuentzia nagusiaren lehen oztupoari ematen dio abiapuntua. Abiapuntu hori horrela formula daiteke: *Bestea subjektu gisa ezin dut atzeman, ez-ageriko izatea baita.*
- *O3c* fikzio osagarriak sekuentzia nagusiaren bigarren oztupoari ematen dio abiapuntua. Abiapuntu hori horrela formula daiteke: *Solipsismoan eror naiteke, Bestearen subjektutasuna nik fundatua dela ulertzen badut.*
- *O4e-F6* fikzio-multzoak sekuentzia nagusiaren hirugarren oztupoari ematen dio abiapuntua. Abiapuntu hori horrela formula daiteke: *Bestearen begirada Beste-objektuaren presentzia konkreturik gabe gauza daiteke.*

**b) Sekuentzia garatzeko betekizuna:**

- *F1-O5Bj* fikzio-multzoak urratsetan garatzen du lehen sekuentzia edo *A* atala. Sekuentzia horrek zera adierazten du: *Besteak badu subjektutasunik.* Urratsetan garatzen den azalpenak bidea egiten du *Bestearen* objektutasunetik *Bestearen* subjektutasunera.
- *O4e-O7b* fikzio-multzoak urratsetan garatzen du *B* ataleko 3. oztupoa. Sekuentzia horrek zera adierazten du: *Beste-objektuaren absentziak ez dakar berarekin Bestearen absentzia.* Urratsetan garatzen den azalpenak bidea egiten du *Beste-objektuaren* absentziatik *Bestearen* jatorrizko presentziara.

- *F8-F11* fikzio-multzoak urratsetan garatzen du *C* ataleko bigarren partea. Sekuentzia horrek zera adierazten du: *Bestearen presentzia jatorrizkoa da, nahiz eta objektu bezala ziurgabea izan*. Urratsetan garatzen den azalpenak bidea egiten du *Bestearen* objektuzko ezaugarrietatik *Bestearen* transzendentziara.

**c) Sekuentzia ixteko betekizuna:**

- *O4e-O7b* fikzio-multzoak *A-B* atal-multzoa ixten du. Atal-multzo horrek zera adierazten du: *Bestearen existentzia ziurra da eta existentzia hori bere objektuzko presentziaz harago dago; funtsean, Bestearentzako-izateak bermatzen du bai bata eta bai bestea*.
- *F8-F11* fikzio-multzoak *A-C* atal-multzoa ixten du. Atal-multzo horrek zera adierazten du: *Bestearen existentzia nire faktikotasunean bizi dut, jatorrizko presentzia bezala, uneoro nire izatean eragin dezakeena bezala*.

Dena dela, fikzioaren betekizuna hemen azaldu dugun eran, printzipioz, “Begirada” kapitulura mugatu behar dugu. Zera, nahikoa da tratatuaren azaleko irakurketa egitea erreparatzeko kapitulu-zati batzuetan ia fikziorik ez dagoela (urrutira gabe, “Begirada” kapituluaren aurreko kapitulu-zatietan) eta beste batzuetan, aldiz, fikzio ugari dagoela. Ordea, bereziki atentzioa ematen duena ez da hainbeste, ikerketa honen 5. kapituluan adierazi dugun bezala, fikzioen artean igorpenak egotea eta, beraz, nabarmena izatea sekuentzien arteko lotura teorikoa, baizik eta fikziozkotasunaren multzokatzea bera.

Zalantzarik gabe, “Begirada”-ren egitura teorikoa sekuentziantan ulertu behar da; eta fikzioa, kasuan kasu, sekuentziak eta sekuentzia-multzoak aurkezten, garatzen eta ixten. Dakigunez, testu bezala, “Begirada” zabalagoa den zerbaiten parte da. Parte zabalago horren atal guztiek, jakina, ez dute zertan baliatu fikziozkotasuna hein berean. Haatik, kontuan hartzekoa da “Begirada” tratatuan atal jakin baten amaiera-puntua dela, eta kapitulu hori, beraz, aurretik aurkezten den problematika teoriko baten proba-eremutzat jo daitekeela, genioen bezala, xede teoriko zehatz batekin.

Funtsean, kapitulu jakin batean gertatzen dena tratatu osora eramatea ez da zertan zilegi izan. Ikerketa honek idaztankera jakin baten zantzuak ematen dizkigu eta argitzen digu,

gutxienez, fikzioaren multzokatzeari erreparatu behar diogula baldin eta ulertu nahi badugu fikziozkotasunak duen erlazioa testu osoarekin, nolabait esateko, fikzio-multzoa gordailu-moduko bat balitz bezala filosofia eta fikzioa uztartzen duena, eta uztartze hori bloke edota osotasun modura aurkezten duena. Hel diezaiozun gertuagotik.

### **6.3.2. Teoriaren eta fikzioaren uztartzea: ikuspegi globala**

Teoria eta fikzioa uztartzen direla adieraztean, horrekin ez dugu ulertu behar bakarrik aldiari azalpen teorikoak fikziozko ordaina hartzen duela (alegia, fikzio-unitate, fikzio osagarri edota fikzio gehigarri baten bitartez ematen den ordaintzat) edo onar lezakeela fikziozko ordainik (alegia, *Ni* filosofikoa sarri espazio-denborazko ‘situazio’ konkretuan ipini daitekeelako, eta gertakizuneko koordenatuak, elementu ostentsiboak eta balio orokortzailea ematen zaiolako). Uztartzeak beharrezkotasuna ere adierazten du nolabait, non eta uztartzen diren elementuak, beraz, ez baitira bereizirik ulertu behar.

Fikzioaren unekotasun-mailan kokatuz gero, sarri erreparatuko dugu, fikzio-unitatearen edota fikzio osagarriaren aurretik eta ondotik, errepikatu edo birformulatu egiten dela fikzioak adierazten duena, nolabait ere, fikzioa eta teoria elkarren ordaintzat ulertu beharko balira bezala. Nahiz eta hori ere baden teoriaren eta fikzioaren uztartzetzat hartzekoa (ikerketa honetan zehar aipatu bezala, fikzioak teoria garraiatzen baitu, funtsean kontzeptuak baitira eszenan jartzen direnak), uztartze hori ‘ordain’ kontzeptuaz harago ulertuko badugu, diskurtso globalaren mailan ipini behar dugu arreta.

Dakigunez, “Begirada” kapituluaren nagusiki *Bestearen* existentziaren kontu eman nahi da; aparatua teoriko osoa horretara bideratzen da. Ordea, kapituluaren amaieran, *Faktikotasuna* muga teoriko gaindiezintzat aurkezten da. Teoriak ezin du *Bestearen* transzendentziaren kontu eman, transzendentzia hori *Bestearen* izateari (hots, ikuspuntuari, munduari) dagokion heinean. Transzendentzia ‘arrotz’ hori soilik aurkez daiteke *Niaren* ikuspuntutik, *Niaren* transzendentziatik. ‘Beste-subjektua’ kontzeptua bera ere nekez ulertzen da, halabeharrez, emana den zerbait bezala aurkezten bada. Ohar, bestela, hiru fikzio-multzo nagusiek *Beste*-objektua hartzen dutela abiapuntu eta oinarri, dela (i) *Bestearen* subjektutasunera heltzeko, dela (ii) *Bestearen* jatorrizko presentziara heltzeko, dela (iii) *Bestearen* transzendentziara heltzeko.

Azken buruan, *Bestearen* kontu emate soilak *Bestea* objektutzat ematea dakar berarekin. Traba teoriko hori gainditzeko, *Bestea* ulertzen da ‘izate-batasun’ baten baitan, hau da, bi transzendentzien osotasunaren baitan, zeina ezinbestean osagabetasun bezala bizitzen den zeren ezin baita atzeman ez kanpotik (ez bailitzateke osotasun) ez barrutik (ikuspuntua bakarria izan baitaiteke aldiro). Halaber, *Bestearen* subjektutasuna izate-osotasuna adierazten duen kontzeptu batez esplikatzeko da (*Bestearentzako* izatea), berau *Bestearen* begiradarekin eta horrek sortzen dituen erreakzioekin lotzen dena. Baina hor ere ikuspuntua *Bestearentzako*-den *Niarena* da, zera, *Bestearen* kontu ez da ematen *Bestearen* transzendentziatik (hori ez baita posible).

Hori ezinezkotzat jotzen da; testuan zehar ez da ezintasun hori ezkututzen. Adibidez:

Bestearen begiradaz, aitzitik, konkretuki jabetzen naiz **munduaz haragokorik** badagoela. Bestea presente zait inongo bitartekaririk gabe, **nirea ez den transzendentzia bat bezala**. Baina presentzia hori ez da elkarrekikoa: munduko lodiera osoa behar da, ni ere aldi berean Besteari presente izateko. **Transzendentzia nonahikoa eta atzemanezina da**, eta bitartekorik gabe nigan kokatua ni nire izate ez-agerikoa naizen heinean; izatearen infinitutasunak bereizten du nigandik, bere distantziak eta tresnak dituen **mundu batera jaurtitzen nauen heinean: horrelakoxea da Bestearen begirada** lehenik begirada modura bizi dudanean. [EN: 329]

Horrela, bada, testuan, *Beste*-objektutik *Beste*-subjektura heltzeko eta hortik *Bestearen* transzendentziara, teoriak betiro *Niaren* ikuspuntua bakarrik balia dezake, eta beraz, ezin gaindi dezake *Niaren* faktikotasuna. Fikzioaz den bezainbatean, *Bestea* soilik *Niak* ‘emana’ den objektutzat ager daiteke, fikzioz ere ezin baita *Bestearen* ikuspuntua atzeman. Halaxe agertzen da lehen fikziotik azkenera: *Bestea* betiro objektua da (nahiz eta subjektu gisa eragiten duela adierazi edo jatorrizko presentzia gisa ulertu). Azken batean, fikzioan *Bestea* ikuspuntu-transzendentzia propiodun bezala aurkezten denean ere, *Bestearen* rola hartzen duena *Nia* da ere; zeren, bestela, objektutzat ulertu behar da.

Bi transzendentzien ezeztapena barnekoa da, ez kanpoko; osotasun bati dagozkio biak (ikus EN: 343 eta hur.).

Bestea ere bera den hori da, alegia, bere baitarakoa eta kontzientzia; bere posibleak diren posibleetara igortzen du; **bera da Bestea ez den heinean**; [...] Ez daude hemen *bi* edo *hainbat* kontzientzia, zenbatzeak kanpoko lekukotasuna eskatzen baitu eta

kanpokotasunaren egiaztapena hutsa baita. Bere baitarakoarentzat ezin da egon Besterik, ez bada ezeztapen bat-bateko eta zenbaki-aurreko batean. Kontzientziarentzat, **Bestea norbere buruaren ukapen bezala baizik ez da existitzen**. [344]

Ezeztapen hori bere bi zentzuetan ulertu behar da: *Bestea ez-Nia* da eta *Nia ez-Bestea* da. Horra, beraz, teoriaren muga eta bermea: muga, teoriak ezin diolako ihes egin *Niaren* faktikotasunari *bestetasuna* adierazteko orduan; eta bermea, aldiz, *Niaren* kontu ematea, funtsean, *Bestearen* kontu ematea ere badelako. *Bestea* adierazi nahi denean, *Beste* hori *Nia* da, ezen biak ontologikoki berdinak baitira, alegia, ‘ez-Beste’ izaera duten transzendentziak. Zera, pentsatu behar da, *Niaren* lekuan *Nia* ez ezik, *Bestea* ere badagoela aldiro, eta ezin duela, bere faktikotasunean, berea ez den ikuspuntutik hartu, *Bestea* atzemanezina baita beti. Baina *Bestearentzat*, ordea, *Nia* da hain justu *Bestea*.

Eta fikzioari gagozkiola ere, berdin. Fikzioan *Bestea Niaren* iragazitik bakarrik eman daiteke. Baina diskurtsoaren fikziozkotasunak ezeztapenaren alde bikotasuna bermatzen du, ikuspuntuak batetik bestera lerratzen baititu. Fikzioaren muga eta bermea, hortaz, teoriarenaren ildotik ulertu behar da: muga, fikzioak ezin baitu *Bestea* aurkeztu *Beste* gisa, baizik eta soilik objektu gisa (nahiz subjektu eragiletzat aurkezten den, lotsa bezalako erreakzioak sortzen dituelarik, nahiz eta *Nia* munduko objektu horretatik abiatuta jabetzen den *bestetasunaz*, eta abar), bestela esateko, fikzioan *Bestea* ezinbestez *Niaren* ikuspuntutik ematen da beti, ez du ikuspuntu propiorik; eta bermea, aldiz, fikzioan bi poloak alderantzika daitezkeelako.

Hori garbi ikusten da lehen fikzio-multzoan, besteak beste, esate baterako, *F5B* sarraila-zuloko situazioan, non eta bi bizipen jartzen diren eszenan kasik aldiberean (izate begiratuarena eta izate begiratzaillearena) eta non batak zein besteak har dezakeen *Niaren* zein *Bestearen* rola ikuspegi teorikoaren arabera jokoan dagoena azaltzeko: objektuaren subjektuarekiko menpekotasuna. Situazioaren lehen partean, *Bestea* da *Niarentzat* begiratzaillea, baina eszenaren bigarren partean, *Beste* horrek *Bestetzat* hartzen du situazioaren lehen parteko *Nia*, eta beraz, biak alderantzika daitezke fikzio-unitate beraren baitan.

Ordez kagarritasun hori nabarmen ematen da ere bigarren fikzio-multzoan, demagun, esate baterako, absentziaz diharduen *O6d* fikzioan, non eta ‘Pierre’ eta ‘Teresa’ izateen

artean gutxi axola duen nor den *Nia* eta nor den *Bestea*; edota hirugarren fikzio-multzoa ixten duten *F10* eta *F11* fikzioetan, non eta *Niarengandik Bestearenganago* igarobidea eta *Bestearengandik Niarenganako*a maila berean dauden, hain zuzen, soldadu-armen norabidea eta lehergailuaren eztanda, hurrenez hurren, alde batera zein bestera uler daitekeen heinean.

Bada, teoriaren eta fikzioaren uztartzea kapituluaren ildo horretatik ulertu behar da, alegia, fikzioak aldiro *Nia Bestetzat* eta *Bestea Nitzat* hartzera deituko edo eskatuko balu bezala, kapituluaren lehen lerrotik bertatik (leihotik norbait ikustea edo leihotik norbaitek ikusia izatea), fikzioz fikzio nahiz fikzio-multzoka: lehen fikzio-multzoan, *Niaren* eta *Bestearen* ‘objektu-subjektu’ joko dialektikoari dagokionez; bigarren fikzio-multzoan, *Niaren* eta *Bestearen* ‘absentzia-presentzia’ faktikoari dagokionez; eta, hirugarren fikzio-multzoan, *Niaren* eta *Bestearen* faktikotasun eta transzendentziari dagokionez. Eta hori guztia, nolabait esateko, faktikotasunaren traba teorikoa gainditzeko xedez.

# ONDORIOAK

## 7. KAPITULUA

### 7. Ondorioak

Ikerketa honen ondorioak emateko, ikerketaren abiapuntua gogora ekartzea funtsezkoa da, izan ere, ikerketa osoaren ardatza lan-hipotesi zehatz batek bideratu du. Horrela formulatu dut hipotesi hori: *L'Être et le Néant* obra filosofikoan, *begiradaren* fenomenoaz diharduen “3.1.4. Le Regard” kapituluan, diskurtsoaren fikziozkotasunak diskurtsoaren eduki teorikoa egituratzeko eta antolatzeko betekizuna du. Hipotesi hori baliozkotzeko hiru ikerketa-galdera erantzutea ezinbestekotzat jo dut. Hala, ondorioen atal hau hiru urratsetan ulertu behar da, hau da, galdera horiei eginiko erantzuna bezala.

#### Lehen ikerketa-galdera

Nola zenbatu dezaket diskurtsoaren fikziozkotasuna eta hori nola ulertu behar dut ikuspegi teoriko batetik?
--

- **Lehen ondorioa: Fikziozkotasunak irizpide enuntziatiboei obeditzen die**

*L'Être et le Néant* testu filosofiko teorikoa da, atalez atal *Izatearen* teoria bat jorratzen duena. Han-hemenka literariotzat jo daitezkeen adibideak ematen ditu, beraz, bi enuntziatu-mota txandakatzen ditu. Adibideen fikziozkotasuna ulertzeko, irizpide enuntziatiboei ipini behar zaie arreta. Funtsean, fikzioa enuntziatu egiten den zerbait da eta enuntziazio horrek arrasto diskurtsibo jakin bat uzten du.

Hortaz, diskurtso teorikoaren fikziozkotasuna atzemateko eta diskurtso horren arabera zedarritzeko, enuntziazioaren hiru ardatzei erreparatu behar zaie, hurrenez hurren, enuntziatzailea, denbora eta espazioa. Fikzioa testuan estatus enuntziatibo propio batekin agertzen da, diskurtso teoriko efektiboari ez dagokiona; nahiz eta diskurtsoak berak sarri fikzioa aurkezteko diskurtso-markatzaileak ere baliatu, hala nola, erakusle ezohikoa (ez anaforikoa ez kataforikoa dena), aurkezpen-esapideak (*horra...*, *demagun...*) eta markatzaile tipografikoak edota puntuazioa.



Lehen ardatza enuntziatio-instantziari dagokio: fikzioak enuntziatzaile propioa eskatzen du. Enuntziatzaile hori ez dagokio diskurtso nagusiari, hain zuzen ere, diskurtso horrekiko etenduratzat ulertzen da, eta fikziozko enuntziatuaren ‘ardura’ hartzen duen ahotsa bezala. Hala, izaera diskurtsiboa duen esatari nagusiarekin batera (berau, oro har, ‘gu’ izenordainez ematen dena) testuan izaera filosofikoa aitortu dakioken *Ni* bat ere agertzen da tarteka. Subjektu enuntziatzaile horrek balio orokortzailea eta prototipozkoa dauka, ez da inor eta edonor identifika daiteke berarekin; diskurtsoari baino gehiago diskurtsoaren teoriari dagokio.

Bigarren ardatza enuntziatio-denborari dagokio: fikzioak bere denbora propioa eskatzen du. Fikzioaren denbora ez dagokio diskurtso efektiboaren idazketa-denborari, hain zuzen ere, denbora horrekiko etenduratzat ulertzen da. Horrela, fikzioaren denbora orainaldi ‘izoztu’ bat da, orainaldi *tabularra* dei dakiokete, eta ez du batere progresiorik erakusten diskurtso nagusiaren argitan. Denbora fikzioaren neutralizatuta gelditzen da eta, horrenbestez, denborazko erreferentziak fikzioaren denbora-ardatz propioari dagozkio.

Hirugarren ardatza enuntziatioak adierazten duen espazioari dagokio: fikzioak bere espazio propioa eskatzen du. Espazio hori ez dagokio diskurtso nagusiari. Fikzioaren ‘topografiari’ erreparatzeko, espazioa adierazten duten deikiei ez ezik (erakusleak, batik bat), fikzioaren hizkuntza erregistro literarioari ipini behar zaio arreta, hots, fikzioaren ‘kontaketa’. Fikzio-enuntziatzaileak, oro har, gertakizun bat ematen du aditzera; eta elementu ostentsiboen bidez adierazten da gertalekua.

- **Bigarren Ondorioa: Fikziozkotasunak izaera teorikoa du**

Fikziozkotasunaren irizpide enuntziatiboak betetzen dituen enuntziatua fikziotzat ulertzen da; baina irizpide horiek fikzioa hizkuntza erregistro teorikotik bereizten dute bakarrik. Etendura diskurtsiboa oinarri duelarik, eta etendura hori, hain justu, eduki teorikoaren argitan gertatzen delarik, fikzioa ulertu behar da teoria adierazteko beste bide bat bezala. Fikzioari printzipioz diskurtso teorikoari adina balio teoriko aitortu behar zaio, zera, ez gehiago ez gutxiago, baizik eta *bestela*.

Fikzioaren helburuetako bat teoria giza-espazio batera hurbiltzea da. Ikuspegi filosofiko batetik, fikzioak kontzeptu teorikoa ematen du aditzera, errealitatearen

egunerokotasunaren moldeko gertakizunen bitartez. Baina aitortu behar zaio xede komunikatiborik ere; fikzioa aurkeztu egiten da. Hala, ikuspegi pragmatiko batetik, fikzioa teoria *bestela* adierazteko ematen da, ez hainbeste teoria hobeto ulertzeko, baizik eta, kontzeptu teorikoa eszenan jarriz, berau ‘gure’ errealitatera hurbiltzeko. Bestalde, ikuspegi semantiko batetik, fikziozkotasuna homogenea da: giza esperientzia oinarri, fikzio-sareak molde bereko errealitatea islatzen du.

Dena den, fikzioa laburra da, diskurtsiboki ekonomikoa, luzamendutan galtzen ez dena. Puntualki agertzen da, uneko kontzeptu teorikoa adieraztea du zehazki xede, eta horretara mugatzen da. Haatik, lotura zuzena du teoriak deskribatzen duen aparatu kontzeptualarekin. Funtsean, fikzioak ‘nitasun’ kontzeptura igortzen du (beste adigai batzuk ere balia daitezke, hala nola, ‘kontzientzia’, ‘nia’, ‘*cogitua*’ eta ‘*bere baitarako izatea*’).

Hala, *nitasuna* objektu-aztergaitzat eta diskurtsoak *emana* den zerbait bezala ulertu ordez, kontzeptu ‘bizi’ hori bera trebatzen da bere egitura ontologikoaren kontu ematera. Horretarako, *nitasuna* fikziozko ‘orain-hemen’ batean kokatzen da, kontzeptua konkretutasunera lerratuz eta, nolabait esateko, fikzioa plataformamodukotzat hartuz, berau beste kontzeptu teoriko batzuekiko erlazioan aztertzeko, batik bat, *bestetasuna*, *faktikotasuna*, *ezereza* eta *transzendentzia*.

Bestalde, diskurtsoak irudia ere baliatzen du kontzeptu teorikoa adierazteko. Irudia eskema logikotzat ulertu behar da. Tratatuaren eduki teorikoaren arabera, *Nia* izate ‘pitzatua’ da, *ezerezak* biltzen baitu, halabeharrez. Tratatuaren ardatza Izatearen ‘osotasun-osagabetasun’ joko dialektikoa da; eta, “Begirada”-n, *ezereza bestetasunak* dakar: *Nia* osotasun osagabea da, begiradak bikoiztu egiten baitu. Hala, izatearen osagabetasuna adierazteko, irudia eskema modura baliatzen da (*isuria*, *ihesa*, *hemorragia*, batzuk aipatzearren). Bada, irudi horiek ere batzuetan fikzioz ematen dira, alegia, gertakizun konkretu eta diskurtso-etendura bezala.

## Bigarren ikerketa-galdera

Zein da zehazki kontuan hartu behar dudun fikziozkotasuna  
diskurtso teorikoaren antolamenduan?

- **Hirugarren ondorioa: Fikziozkotasunak fikzio-sarea osatzen du**

*L'Être et le Néant* tratatuko “Begirada” kapituluan, diskurtsoaren fikziozkotasuna irizpide enuntziatiboen argitan zedarrri daiteke. Baina horrek fikziotzat zer hartzen den deskribatzen du bakarrik. Haatik, azaldu bezala, fikzioak izaera enuntziatiboa ez ezik, izaera teorikoa ere badu eta, hala, kapituluan zehar, ‘nitasun’ kontzeptua bera da giza-koordinatu batzuen arabera ‘ematen’ dena, hain justu, ‘emana’ den kontzeptu bezala ez baizik eta *bizi* eta *existitzen* ‘den’ kontzeptutzat uler dadin.

Halatan, testuaren idaztankerak fikziozkotasunerantz egiten du, baina hori modu heterogeneo batean gertatzen da; alegia, testuan fikziozko zantzu guztiak ez dira diskurtsoaren ikuspegi global batetik gogoan hartzekoak. Estilistikaren arlora jo gabe, Sartrearen tratatuari aitor dakioke, gutxienez, hizkuntzarekiko ardura eta kezka nabaria. Fikziozkotasuna kezka espresibo horren barruan ulertu behar da.

Alabaina, inoperantea da lerroz lerro fikziozkotasuna iradoki lezakeen oro (hala nola, elementu ostentsiboen presentzia, uneko adibide solte bat, *Ni* baten ahotsa, irudi, metafora edota konparazio jakin bat) tresna antolatzaile diskurtsibotzat hartzea, ezen, orduan, nahas-mahas horretan, kapitulu osoa hartu beharko litzateke fikziotzat, eta errekurso horren berezitasunak bere ikuspegi funtzionala galduko luke. Baztertzekoa den fikziozkotasuna fikzio ‘gehigarritzat’ jo behar da.

Horregatik, diskurtso-antolamenduaren argitan zehazki kontuan hartu behar den fikziozkotasuna unitateka ulertzen dena da. Fikzio-unitatea da beste fikzio-unitateekiko menpekotasun-erlaziorik ez duena eta aldi berean gutxieneko adarkadura bat zabaltzen duena diskurtsoan zehar, alegia, bere menpeko diren beste enuntziatu fikziozko batzuk. Azken horiek ‘fikzio osagarriak’ dira. Horiek ez dute zehatz-mehatz bete beharrik fikzio-unitateari eskatzen zaion etendura enuntziatiboa, funtsean, xedetzat teoria garatzea (*garraiatzea*) baitute.

## Hirugarren ikerketa-galdera

Zertan bermatzen du fikziozkotasunaren egiturak  
diskurtsoaren antolamendu eta jomuga teorikoa?

- **Laugarren ondorioa: Fikziozkotasuna bat dator antolamendu teorikoarekin**

“Begirada” kapituluaren diskurtso-egitura teorikoa sekuentzian ulertu behar da. Diskurtsoaren oinarrizko ardatz teorikoak *Bestearen* existentziaren kontu ematea du jomuga nagusizat; horretarako, *Bestearen* objektuzko izaera hartzen du abiapuntuztat. Diskurtsoaren sekuentzia nagusia bost bider bikoizten da, hain zuzen ere, metadiskurtsoak aldiro oztopo teoriko berri bati heltzen dionean. Teoriaren garapenean aurrera egiteko, argitu egiten da oztopo bakoitza eta argitze horrek aldiro osatu egiten du sekuentzia nagusiaren tesia.

Funtsean, sekuentzia nagusi bakarra dago, sekuentzia ‘ireki’ bat, zeina urratsetan, oztopoz oztopo, *Bestearen* objektutasunetik abiatuta, *Bestearen* transzendentzia deskribatzea baitu azken jomugatzat. Sekuentzia-egitura hori hiru ataletan bil daiteke. Atal horiek ‘Beste-objektua’ hartzen dute abiapuntuztat: (i) *Bestearen* objektuzko ziurgabetasunetik abiatuta, *Bestearen* subjektutasuna deskribatzeko; (ii) *Bestearen* objektuzko absentsiatik abiatuta, *Bestearen* jatorrizko presentzia deskribatzeko; (iii) *Bestearen* faktikotasunetik abiatuta, *Bestearen* transzendentzia deskribatzeko.

Diskurtsoan fikziozkotasuna multzokatu egiten da eta diskurtso-antolamenduaren hiru atal teorikoei fikzioak multzoka heltzen die. Horrela, fikziozkotasunak hiru betekizun nagusi ditu diskurtsoaren antolamendu teorikoaz den bezainbatean: (i) fikzioak aurkeztu egiten du problematika teorikoa, dela multzoka dela fikzio-unitateka; (ii) fikzioak urratsetan garatzen du sekuentzia teorikoa; eta garapen hori fikzio-unitateek eta fikzio osagarriek mailakatzen dute; (iii) fikzioak itxi egiten ditu atalak eta atal-multzoak.

- **Bosgarren ondorioa: Fikziozkotasunak diskurtso teorikoa bermatzen du**

Teoriaren eta fikzioaren uztartzea fikzio-unitatearen ikuspegitik ez ezik, diskurtsoaren ikuspegi globaletik ere ulertu behar da. Funtsean, “Begirada” kapituluak *Bestearen* existentziaren deskribapen fenomenologikoa egiten du, *cogittoa* abiapuntu hartuta eta betiere *cogittoa*ren ikuspuntutik; esan nahi baita, *Bestearen* existentzia bera baino gehiago, testuan deskribatzen dena ‘ni-izate-begiratu’-aren existentzia da, hain zuzen ere, *Bestearen* existentzia inplikatzeko duen ‘*Bestearentzako-izate*’ kontzeptua dela bitarte.

Hala, *Besteari* izate transzendentziadunaren estatusa aitortzen zaio, alegia, *Nia* bezalako izate bat izatea. Ordea, diskurtso teorikoaren ondorio nagusiak salatzen duenez, *bestetasunaren* deskribapen fenomenologikoan *Bestearen* faktikotasuna gaindiezina da. Zera, *Nia* bitarte nekez atzemango dugu beste ikuspuntu edota transzendentzia bat (hori ezinezkoa da). Horiek horrela, diskurtso teorikoak *Bestea* gehienez ere ‘ez-Ni’ bezala deskribatzen du, baina ezin du *Bestea* aldiro aurkeztu ezpada objektutzat.

Traba teoriko hori dela kausa, diskurtso teorikoak *Bestea* objektu-aztergaitzat aurkeztu du, eta ez *Bestetzat* edo *Beste-izaten*. Diskurtsoaren fikziozkotasunak muga teoriko berbera erakusten du printzipioz, alegia, *Bestea Niaren* (ni-begiratuaren) iragazitik bakarrik atzeman daiteke, objektu bezala, nahiz eta bide ematen duen objektutasun horrek, begiradaz, *Besteari* subjektutasuna, jatorrizko presentzia eta transzendentzia aitortzeko. Hala, diskurtsoaren fikziozkotasuna muga teoriko hori gainditzeko saiakeratzat uler daiteke, ikuspegi global batetik.

Zera, diskurtsoaren fikziozkotasuna, lehen-lehenik, kontzeptu teorikoen eszenan jartzea da. Baina, itxura guztien arabera, fikzioaren bidez, diskurtsoak *Besteari* transzendentzia baten tankera ematen dio, bere objektutasunaz harago. Halatan, fikzioan *Izatea* (*Nia* zein *Bestea*) errepresentatzen da, emana den zerbait bezala barik eta kontzeptu bezala barik, diskurtso teoriko nagusiaren koordinatu enuntziatiboetatik at, transzendentzia *bizi* eta bat-bateko bezala ulertzeko.

Halaber, fikzioak erakusten du *Nia* eta *Bestea* egituraren ikuspegitik berdinak direla, eta fikzioak uneoro alderantzika dezakeela *Izatearen* transzendentziaren

limite ontologikoa (hots, *nitasun* eta *bestetasunaren* arteko muga), hain justu, teoriak defenditzen duen 'izate-batasun'-aren baitan, non eta *bestetasuna* bakarrik uler daitekeen transzendentzia batetik besterako muga horretan, barne-ezeztapen bezala. Azken buruan, diskurtsoaren fikziozkotasuna bloke osotzat hartuta, erlatiboa da fikzio-sarean nor den *Nia* eta nor den *Bestea* zehaztea; funtsean, fikzioak bermatu egiten du Izatea (eta, beraz, *Bestea*) bere transzendentzian ulertzea.

## BIBLIOGRAFIA

- Adam, J.-M.** (1984). *Le récit*. Collection “Que sais-je?”. Paris: PUF.
- \_(1987). Types de séquences textuelles élémentaires. *Pratiques*, 56, 54-79.
- \_(1990). *Éléments de linguistique textuelle: théorie et pratique de l'analyse textuelle*. Bruxelles-Liège: Éditions Mardaga.
- \_(1992). *Les textes: types et prototypes*. Paris: Nathan.
- \_(1993). Le texte et ses composantes. Théorie d'ensemble des plans d'organisation. *Semen. Revue de sémio-linguistique des textes et discours*, 8. [Sarean jaso] <http://semen.revues.org/4341>
- Adloff, J. G.** (1981). *Sartre: Index du Corpus philosophique I. L'Être et le Néant. Critique de la Raison Dialectique*. Paris: Klincksieck.
- Álvarez González, E.** (2008). La cuestión del sujeto en la fenomenología existencial de Jean-Paul Sartre. *Estudios de Filosofía*, 38, 9-45.
- Arias, M.** (2005). Ficción y realidad en Jean-Paul Sartre. *Clarín: Revista de nueva literatura*, 60, 88-92.
- Aristoteles** (1966). *Poética* (itzultzailea, Francisco de P. Samaranch). Madrid: Aguilar.
- \_(1968). *Retórica* (itzultzailea, Francisco de P. Samaranch). Madrid: Aguilar.
- Audet, R.** (2002). La fiction à l'essai. In R. Audet & A. Gefen (ed.). *Frontières de la fiction*. Québec/Bordeaux: Éditions Nota bene/PUB. 133.-157. or. [Sarean jaso] <http://www.fabula.org/colloques/frontieres/215.php>
- Austin, J. L.** (1975 [1962]). *How to do things with words*. Oxford Univ. Press.
- Azpeitia, A.** (2012). *Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* [Doktorego tesia]. Euskaltzaindia.
- Bachelard, G.** (1970). *Le droit de rêver*. Paris: Jose Corti.

- Banfield, A.** (1982). *Unspeakable Sentences: Narration & Representation in the Language of Fiction*. Boston: Routledge and Kegan Paul.
- \_(1995). *Phrases sans paroles*. Paris: Seuil.
- Barthes, R.** (1966). Introduction à l'analyse structurale des récits. *Communications*, 8(1), 1-27.
- \_(1973). *Le plaisir du texte*. Paris: Seuil.
- Bassols, P. & Badia, T.** (1997). *Modelos textuales*. Barcelona: Eumo.
- Beaugrande, R., & Dressler, W.** (1981). *Introduction to text linguistics*. New York: Longman.
- Beauvoir, S.** (1948). *L'Existentialisme et la sagesse des nations*. Paris: Nagel.
- \_(1949). *Le Deuxième Sexe*. Paris: Gallimard.
- \_(1981). *La Cérémonie des adieux suivi de Entretiens avec Jean-Paul Sartre : août - septembre 1974*. Paris: Gallimard.
- Bentham, J.** (1997). *De l'Ontologie et autres textes sur les fictions*. Paris: Points.
- Benveniste, E.** (1966). *Problèmes de linguistique générale I*. Paris: Gallimard.
- \_(1970). L'appareil formel de l'énonciation. *Langages*, 17, 12-18.
- Bonnemann, J.** (2007). *Der Spielraum des Imaginären. Sartres Theorie des Imagination und ihre Bedeutung für sein phänomenologische Ontologie, Ästhetik und intersubjektivitätskonzeption*. Hamburg: Meiner Verlag.
- Bordron, J.-F.** (1995). Signification et subjectivité. *Langages*, 119, 63-78.
- Botet, S.** (2007). *La philosophie de Nietzsche, une philosophie "en actes". Analyse de la structure illocutoire du Zarathoustra*. Paris: Harmattan.
- Bouacha, A.** (1995). De l'Ego à la classe de locuteurs: lecture linguistique des Méditations. *Langages*, 119, 79-94.
- Brisson, L.** (1996). *Introduction à la philosophie du mythe: Sauver les mythes I*. Paris: Vrin.



- Brouillette, C.** (1972). L'Essai: une frivolité littéraire? *Études littéraires*, 1(5), 37-46.
- Cabestan, P.** (2009). *Dictionnaire Sartre*. Paris: Ellipses.
- Cassou-Noguès, P.** (2010). *Mon zombie et moi. La philosophie comme fiction*, Paris: Seuil.
- Catalano, J. S.** (1974). *A Commentary on Jean-Paul Sartre's Being and Nothingness*. University of Chicago Press.
- Charaudeau, P.** (1992). *Grammaire du sens et de l'expression*. Paris: Hachette.
- Charolles, M.** (1988). Les études sur la cohérence, la cohésion et la connexité textuelles depuis la fin des années 1960. *Modèles linguistiques*, 10(2), 45-66.
- Contat, M.** (1993). "L'être et le néant" à 50 ans. Jean-Toussaint Desanti explique comment fut accueilli, en 1943, le maître-livre de Sartre. *Le Monde* (1993/VII/02), ?-31. or.
- Conte, M. E., Petöfi, J. S. & Sözer, E. (ed.)**. (1989). *Text and Discourse Connectedness: Proceedings of the Conference on Connexity and Coherence. Urbino, July 16-21, 1984*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing.
- Cossutta, F.** (1989). *Éléments pour la lecture de textes philosophiques*. Paris: Bordas.
- \_(1995). L'analyse du discours philosophique. *Langages*, 119, 12-39.
- Cox, G.** (2008). *The Sartre Dictionary*. London: Continuum.
- \_(2009). *Sartre and fiction*. London: Continuum.
- Crismore, A. et al.** (1990). Metadiscourse in Popular and professional Science Discourse. In W. Nash (ed.) *The Writing Scholar*. (118.-136. or.). California: Sage Publications.
- Culioli, A.** (1990). *Pour une linguistique de l'énonciation I*. Paris: Ophrys.
- \_(1999 [1980]). Valeurs aspectuelles et opérations énonciatives: l'aoristique. In J. David & R. Martin (ed.). *La notion d'aspect* (181.-193. or.). Paris: Klincksieck.
- Currie, G.** (1990). *The nature of fiction*. Cambridge University Press.

**Dafouz Milne, E.** (2000). *El metadiscurso como estrategia retórica en un corpus de textos periodísticos: estudio contrastivo de la lengua inglesa y lengua española* [Doktorego tesi argitaragabea]. Universidad Complutense de Madrid.

**Dällenbach, L.** (1976). Intertexte et autotexte. *Poétique*, 27, 282-296.

\_(1991 [1977]). *El relato especular* (itzultzailea, Ramón Buenaventura). Madrid: Literatura y Debate Crítico.

**Dawans, S.** (2001). Une (h)ontologie phénoménologique? In *Sartre: le spectre de la honte. Une introduction à la philosophie sartrienne* (15.-74. or.). Université de Liège.

**Depraz, N.** (1997). Selon quels critères peut-on définir une écriture phénoménologique? In A. Simon & N. Castin. *Merleau-Ponty et le littéraire: actes du colloque tenu à l'École Normale Supérieure le 12-13 janvier 1996* (39.-51. or.). Paris: Éditions Rue d'Ulm.

\_(1999). *Écrire En Phénoménologie: "une autre époque de l'écriture"*. Paris: Éditions Encre Marine.

\_(2011). Lire et écrire en phénoménologie: Sartre et l'accès au vécu en première personne. In N. Depraz & N. Parant (ed.). *L'écriture et la lecture: des phénomènes miroir? L'exemple de Sartre* (45.-54. or.). Publications des universités de Rouen et du Havre.

**Díaz, C.** (1973). *Introducción a la fenomenología*. Madrid: Zero.

**Diderot, D. & D'Alembert, J.** (1751-1772). *Encyclopédie ou Dictionnaire raisonné des sciences, des arts et des métiers. Vol. VI.* [Sarean jaso] <http://artflsrv02.uchicago.edu/cgi-in/philologic/getobject.pl?c:5:835.encyclopedie0513>

**Dolezal, L.** (2012). Reconsidering the Look in Sartre's *Being and Nothingness*. *Sartre Studies International*, 18(1), 9-28.

**Ducrot, O.** (1980a). *Echelles argumentatives*. Paris: Minuit.

\_(1980b). Analyses pragmatiques. *Communications* 32, 11-59.

\_(1984). *Le dire et le dit*. Paris: Minuit.

**Ducrot, O. et al.** (1973). *La preuve et le dire: langage et logique*. Paris: Mame.

- Enthoven, R.** (2004). Le style de *L'Être et le Néant*. Les vendredis de la philosophie. *France Culture* (2004-I-23). [Sarean jaso] <http://boutique.ina.fr/audio/P12026187/le-style-de-l-etre-et-le-neant.fr.html>
- Eshlman, M. C.** (2008). The misplaced chapter on bad faith, or reading *Being and Nothingness* in reverse. *Sartre Studies International*, 14(2), 1-22.
- Fernandois, E.** (2008). De por qué en la filosofía importan los ejemplos. *Areté. Revista de Filosofía*, 2(20), 189-216. Pontificia Universidad Católica de Chile.
- Fuchs, C.** (1980). Quelques réflexions sur le statut linguistique des sujets énonciateurs et de l'énonciation. In *La phycotématique et les théories de l'énonciation* (143.-152. or.). Presses universitaires de Lille.
- Gale, R. M.** (1971). The fictive use of language. *Philosophy*, 46, 324-340.
- García Berrio, A. & Albaladejo Mayordomo, T.** (1983). Estructura composicional: macroestructuras. *ELUA. Estudios de Lingüística*, 1, 127-179.
- Gary-Prieur, M. N. & Noailly, M.** (1996). Démonstratifs insolites. *Poétique*, 105, 111-121.
- Gély, R.** (2012). *Imaginaire, perception, incarnation. Exercice phénoménologique à partir de Merleau-Ponty, Henry et Sartre*. Bruxelles: Peter Lang.
- Genette, G.** (1982). *Palimpsestes: la littérature au second degré*. Paris: Seuil.
- \_(1983). *Nouveau discours sur le récit*. Paris: Seuil.
- Glaudes, P.** (2002). Introduction. In P. Glaudes (ed.). *L'essai : métamorphoses d'un genre* (i.-xxvi. or.). Toulouse: Presses universitaires du Mirail.
- Golder, C.** (1996). *Le développement des discours argumentatifs*. Paris: Delachaux et Niestlé.
- Gómez García, J. C.** (2002). La mirada. In *El ser-para-otro sartreano* (11.-45. or.) [Doktorego Tesia]. Universitat de Barcelona. [Sarean jaso] <http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/35634/1/TOL190.pdf>

- Goodman, N.** (1972). *Problems and projects*. Indianapolis: Bobbs-Merrill.
- \_(1978). *Ways of worldmaking*. Indianapolis: Hackett Publishing.
- Greimas, A.** (1966). *Sémantique structurale. Recherche de méthode*. Paris: Larousse.
- Grossmann, F.** (2010). El autor científico. De las retóricas a las epistemologías. *Revue d'anthropologie des connaissances*, 3(4), 1-27.
- Guijarro García, R.** (2002). Le présent de l'indicatif et la construction d'univers fictifs: le problème de la situation d'énonciation. In M. C. Figuerola et al. (ed.). *La lingüística francesa en el nuevo milenio: Congreso internacional de lingüística francesa* (341.-350. or.). Universidad de Lleida.
- Hamburger, K.** (1986). *Logique des genres littéraires*. Paris: Seuil.
- Heidegger, M.** (2014 [1927]). *Ser y Tiempo* (itzultzailea, Jorge Eduardo Rivera). Madrid: Editorial Trotta.
- Howell, R.** (1979). Fictional objects: How they are and how they aren't. *Poetics*, 8(1-2), 129-177.
- Hume, D.** (2015 [1739]). *A treatise of human nature*. London: John Noon.
- Huneman, P. & Kulich, E.** (1997). *Introduction à la phénoménologie*. Paris: Armand Colin.
- Husserl, E.** (1962 [1913]). *Ideas relativas a una fenomenología pura y una filosofía fenomenológica I* (itzultzailea, José Gaos), Buenos Aires: F.C.E.
- \_(1980 [1904-1907]). Phantasie, Bildbewusstsein, Erinnerung. *Husserliana*, 23: § 28-29.
- \_(1982 [1907]). *La idea de fenomenología. Cinco lecciones* (itzultzailea, Miguel García Baró). Madrid: F. C. E.
- Husson, L.** (2001). Devoilement du monde et apprehension existentielle de l'etre dans *L'être et le néant* de Jean-Paul Sartre [Doktorego tesia]. Université de Paris XII.
- Jacquenod, C.** (1988). *Contribution à une étude du concept de fiction*. Berne: Peter Lang.

- Jakobson, R.** (1963). *Essais de linguistique générale*. Paris: Éditions de minuit.
- Kant, I.** (2003 [1798]). *Anthropologie in pragmatischer Hinsicht*. Meiner Verlag.
- Kerbrat-Orecchioni, C.** (1980). *L'Énonciation*. Paris: Armand Colin.
- \_(1998). *Les interactions verbales. Approche interactionnelle et structure des conversations I*. Paris: Armand Colin.
- Kotschi, T.** (1986). Procédés d'évaluation et de commentaires métadiscursifs comme stratégies interactives. *Cahiers de linguistique française*, 7, 207-230.
- Kremer-Marietti, A.** (2005). *Jean-Paul Sartre et le désir d'être: une lecture de L'être et le néant*. Paris: L'Harmattan.
- Lacan, J.** (1964). *Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis* (itzultzaileak, Juan Luis del Monte Mauri eta Julieta Sucre). Barcelona: Paidós.
- Lanteri-Laura, G.** (1954). L'usage de l'exemple dans la phénoménologie. *Les études philosophiques*, 9(1), 57-72.
- Lardreau, G.** (1988). *Fictions philosophiques et science-fiction*. Arles: Actes Sud.
- Larousse.** Dictionnaire de Français Larousse [hiztegia]. [Sarean jaso] <http://www.larousse.fr/dictionnaires/francais/fiction/33587?q=fiction#33530>
- Leak, A.** (1995). Writing and Seduction: Sartre's *L'Être et le néant* I. Actaeon. *Sartre Studies International*, 1(1-2), 57-75.
- \_(1996). Writing and Seduction: Sartre's" *L'Être et le néant* II. Narcissus. *Sartre Studies International*, 2(1), 57-75.
- \_(2011). The significance of context in illustrative examples. In J. Webber. *Reading Sartre. On Phenomenology and existentialism* (118.-129. or.). New York: Routledge.
- Levy, B. H.** (2000). *Le siècle de Sartre*. Paris: Éditions Grasset & Fasquelle.
- Lewis, D.** (1973). *Counterfactuals*. Malden: Basil Blackwell.
- \_(1978). Truth in fiction. *American Philosophical Quarterly*, 15(1), 37-46.
- Lhomme, A.** (2005). Entre concept et métaphore: existe-t-il une écriture spécifiquement philosophique? *Rue Descartes*, 50(4), 58-72.

- Lloyd Smith, A.** (2014). La mirada sartriana: poder y otredad en *L'Être et le Néant*, *La Nausée* y *Huis Clos*. *Letras* 55(1). [Sarean jaso] <http://www.revistas.una.ac.cr/index.php/letras/article/view/7459>
- Lobo, C.** (2000). *Le phénoménologue et ses exemples: étude sur le rôle de l'exemple dans la constitution de la méthode et l'ouverture du champ de la phénoménologie husserlienne*. [Sarean jaso] <http://www.academia.edu/696392>
- \_(2001). L'Écriture phénoménologique II: le phénomène de l'exemple et son contexte structurel. *Recherches Husserliennes*, 15, 53-82.
- Longracre, R. E.** (1979). The paragraph as a grammatical unit in Discourse and Syntax. *Text Syntax and Semantics*, 12, 115-134.
- López Alonso, C.** (1989). La organización enunciativa del discurso. *Revista Española de Lingüística*, 19, 377-387.
- Louette J.-F.** (2005). *L'Être et le Néant*, une autobiographie masquée? [Ikus-entzunezkoa] <http://www.diffusion.ens.fr/index.php?res=conf&idconf=957#>
- \_(2009). Éclats autobiographiques dans *L'Être et le Néant*. In *Traces de Sartre*. (95.-124. or.). Grenoble: Ellug. Université Stendhal.
- Maingueneau, D. & Cossutta, F.** (1995). L'Analyse des discours constituants: Les Analyses de discours en France. *Langages*, 117, 112-125.
- Maingueneau, D.** (1976). *Initiation aux méthodes de l'analyse du discours*. Paris: Hachette.
- \_(1987). *Nouvelles tendances en analyse de discours*. Paris: Hachette.
- \_(1995). L'énonciation philosophique comme institution discursive. *Langages*, 119, 40-62.
- \_(2005). Code langagier et scène d'énonciation philosophique. *Rue Descartes*, 50(4), 22-33.
- Marcuse, H.** (1948). Existentialism: Remarks on J.-P. Sartre's *L'Être et le Néant*. *Philosophy and Phenomenological Research*, 8, 309-336.

- Maristany, J.** (1987). *Sartre. El círculo imaginario: Ontología irreal de la imagen*. Barcelona: Anthropos.
- Martín Menéndez, S.** (1995). *Análisis pragmático del discurso: perspectiva textual y perspectiva discursiva*. *Anuario de Lingüística Hispánica*, 11, 239-253.
- Martin, R.** (1983). *Pour une logique du sens*. Paris: PUF.
- Martinot, S.** (2005). Sartrean account of the Look as a Theory of Dialogue. *Sartre Studies International*, 11(1-2), 43-61.
- Moreno, C.** (2000). *Fenomenología y filosofía existencial I-II*. Madrid: Síntesis.
- Munono Muyembe, B.** (1991). *Le regard et le visage; de l'altérité chez Jean-Paul Sartre et Emmanuel Levinas*. Paris: Peter Lang.
- Noudelmann, F.** (1993). *Huis Clos et Les Mouches de Jean-Paul Sartre*. Paris: Folio-Gallimard.
- \_(1996). *L'incarnation imaginaire*. Paris: L'Harmattan.
- Noudelmann, F. & Philippe, G.** (2004). *Dictionnaire Sartre*. Paris: Honoré Champion.
- Ohmann, R.** (1971). Speech acts and the definition of literature. *Philosophy and Rethoric*, 4, 1-19.
- Ozaeta, A.** (2010). *Agirre Asteasukoaren Eracusaldia. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan* [Doktorego tesia]. Euskaltzaindia.
- Philippe, G.** (1995). Embrayage énonciatif et théorie de la conscience: à propos de l'être et le néant. *Langages*, 117, 95-108.
- \_(2002a). Fiction et argumentation dans l'essai. In P. Glaudes, P. (ed.). *L'essai: métamorphoses d'un genre* (63.-82. or.). Presses Universitaires du Mirail.
- \_(2002b). L'appareil formel de l'effacement énonciatif et la pragmatique des textes sans locuteur. In R. Amossy (éd.). *Pragmatique et analyse des textes* (17.-34. or.). Université de Tel-Aviv.
- \_(2005). Existe-t-il un appareil formel de la fiction. *Revue de linguistique française*, 1, 75-88.

- Platon** (1999). *La República* (itzultzaileak, José Manuel Pabón eta Manuel Fernández-Galiano). Alianza Editorial.
- Provenzano, F.** (2010). Effacement énonciatif et *doxa* dans le discours théorique: l'exemple de Julia Kristeva. *Argumentation et Analyse du Discours*, 5. [Sarean jaso] <http://aad.revues.org/973>
- Rabatel, A.** (2004). Effacement énonciatif et effets argumentatifs indirects dans l'incipit du *Mort qu'il faut* de Semprun. *Semen*, 17. [Sarean jaso]: <http://semen.revues.org/2334>
- Reboul, A.** (1992). *Rhétorique et stylistique de la fiction*. Presses Universitaires de Nancy.
- Reguera, I.** (2002). Pensar y palabra: filosofía y ficción, *Endoxa Series filosóficas*, 16, 87-112. Madrid: UNED.
- Ricœur, P.** (1968). *Mythe. L'approche philosophique*. Encyclopædia Universalis. [Sarean jaso] <http://www.universalis.fr/encyclopedie/mythe-l-interpretation-philosophique/>
- Roulet, E.** (1991a). Le modèle genevois d'analyse du discours. *Pragmatics*, 1, 243-248.
- \_(1991b). Une approche discursive de l'hétérogénéité discursive. *Etudes de linguistique appliquée*, 83, 117.
- Roulet, E., Fillietaz, L., Grobet, A., & Burger, M.** (2001). *Un modèle et un instrument d'analyse de l'organisation du discours*. Berne: Peter Lang.
- Rousseau, J.-J.** (2011 [1817]). *Les Rêveries du Promeneur solitaire*. Paris: Flammarion.
- Ryan, M. L.** (1980). Fiction, non-factuals and the principle of minimal departure. *Poetics*, 9(4), 403-422.
- \_(1981). When "Je" Is "Un Autre": Fiction, Quotation and the Performative Analysis. *Poetics Today*, 2(2), 127-155.
- Sainsbury, R. M.** (2010). *Fiction and fictionalism*. Routledge.
- Sartre, J.-P.** [Sartrearen obrei dagokienez, ikus II. *Eranskina*]



- Savater, F.** (2008). *La aventura de pensar*. Barcelona: Debolsillo.
- Schaeffer, J.-M.** (2000). *Pourquoi la fiction?* Paris: Seuil.
- Searle, J.** (1969). *Speech acts: an essay in the Philosophy of Language*. Cambridge university press.
- \_(1975). The Logical Status of Fictional Discourse. *New Literary History*, 6, 319-332.
- \_(1991 [1976]). Una taxonomía de los actos ilocucionarios (itzultzailea, Luis M. Valdés Villanueva). *Teorema* 6(1),43-77.
- Slakta, D.** (1977). Introduction à la grammaire de texte. *Actes de la session de linguistique de Bourg-Saint-Maurice (4-6 septembre)*, 7-63. Sorbonne-Paris III.
- Spinoza, B.** (2006 [1662]). *Tratado de la reforma del entendimiento* (itzultzailea, Atilano Domínguez). Madrid: Alianza editorial.
- Stack, G. & Plant, R.** (1982). The phenomenon of “The look”. *Philosophy and Phenomenological Research*, 41(3), 359-373.
- Temmar, M.** (2003). Effets de présence et ostension. *Studia Phaenomenologica*, 3(3/4), 163-184.
- \_(2007). L’inscription de la fiction dans le texte philosophique. In B. Curatolo & J. Poirier (ed.). *Le style des Philosophes* (19.-26. or.). Presses universitaires de Franche-Comté.
- \_(2013). *Le recours à la fiction dans le discours philosophique*. Paris: Lambert-Lucas.
- Txillardegui.** (2007). Sartre: Ehun urte. In *Horretaz: Zazpi saiakera labur* (9.-38. or.). Elkar.
- Van Dijk, T. A.** (1980a). *Texto y contexto, semántica y pragmática del discurso*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- \_(1980b). *Macrostructures: An Interdisciplinary Study of Global Structures in Discourse, Interaction and Cognition*. N. Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.
- \_(1983). *La ciencia del texto* (itzultzailea, Sibila Huzinger). Barcelona: E. Paidós.

\_(1996). *Estructuras y funciones del discurso: Una introducción interdisciplinaria a la lingüística del texto y a los estudios del discurso* (itzultzaileak, Myra Gann eta Marti Mur). Mexico: Siglo XXI Editores.

**Vande Kopple, W.** (1985). Some exploratory Discourse on Metadiscourse. *College Composition and Communication*, 36, 82-83.

**Varet, G.** (1948). *L'ontologie de Sartre*. Paris: PUF.

**Vassallo, S.** (2003). *Sartre et Lacan. Le verbe être: entre concept et fantasme*. Paris: L'Harmattan.

\_(2005). Du texte philosophique au texte littéraire : d'un double sujet de l'énonciation chez Sartre. *Rue Descartes*, 47, 19-30.

**Vignaux, G.** (1988). *Le discours, acteur du monde. Énonciation, argumentation et cognition*. Paris: Ophrys.

**Vion, R.** (2001). Effacement énonciatif et stratégies discursives. In M. de Mattia & A. Joly (ed.) *De la syntaxe à la narratologie énonciative* (331.-354. or.). Paris: Ophrys.

**Webber, J.** (2011). *Reading Sartre. On Phenomenology and existentialism*. New York: Routledge.

**Zubiri, I. & Zubiri, E.** (2012). *Euskal Gramatika Osoa*. IkasBook, SL

# ERANSKINAK

## I. Eranskina

### I. Bibliografia nagusia Sartreri eta Sartreren obrari buruz

Sartreren inguruan asko idatzi da. Idatzitakoaren dokumentazioari dagokionez, Sartreri eta Sartreren obrari buruz mundu osoan idatzi direnak (hala nola, tesiak, artikuluak, testu-bildumak, lan monografikoak, itzulpenak eta iruzkinak), 1993az geroztik, Parisen dagoen Sartreri buruzko elkarteak (*Groupe d'Études Sartriennes*) jasotzen ditu urtean behin argitaratzen duen *L'année sartrienne* boletinean; bibliografia hori urtetik urtera eguneratzen dute. Hain zuzen, ardura hori aurretik egin den hainbat bilaketa-lan bibliografiko orokorren jarraipena da:

**Contat, M., & Rybalka, M.** (1993). *Sartre: bibliographie (1980-1992)*. Paris: CNRS.

**Lapointe, F. & Lapointe, C. S.** (1981). *Jean-Paul Sartre and His Critics; An International Bibliography (1938-1980) with Annotations*. Bowling Green, Ohio: State University, Philosophy Documentation Center.

**Wilcocks, R.** (1975). *Jean-Paul Sartre: A Bibliography of International Criticism*. University of Calgary Press.

Erreferentzia guztien artean, bada hainbat irakurketa funtsezko Sartreren obrara ikuspuntu bio-bibliografiko batetik hurbildu nahi duenarentzat eta baita *L'Être et le Néant* tratatuaz eta, bereziki, *BEGIRADA* atalaz ere irakurri nahi duenarentzat. Horrez gain, aipatzekoak dira, alde batetik, Sartreri egin zaizkion elkarrizketa zenbait; beste alde batetik, Sartreren obran eta pentsamenduan oinarritutako hainbat hiztegi; eta, azkenik, Sartreren obra euskaratuen zerrenda.

#### a) Sartreren ibilbidea hizpide hartzen duten obra nagusiak:

**Cohen-Solal, A.** (1985). *Sartre: 1905-1980*. Paris: Gallimard.

**Contat, M. & Rybalka, M. (ed.)** (1970). *Les écrits de Sartre*. Paris: Gallimard.

**Galster, I.** (2001). *La naissance du "phénomène Sartre": Raisons d'un succès, 1938-1945*. Paris: Seuil.

**Jeanson, F.** (1955). *Sartre par lui-même*. Paris: Seuil.

**Lévy, B. H.** (2000). *Le siècle de Sartre*. Paris: Grasset.

**b) Sartreren bizitza agertzen duten eleberri biografiko nagusiak:**

**De Beauvoir, S.** (1958). *Mémoires d'une jeune fille rangée*. Paris: Gallimard.

\_(1960). *La Force de l'âge*. Paris: Gallimard.

\_(1963). *La Force des choses*. Paris: Gallimard.

\_(1964). *Une mort très douce*. Paris: Gallimard.

\_(1972). *Tout compte fait*. Paris: Gallimard.

**Sartre, J.-P.** (1972 [1963]). *Les Mots*. Paris: Gallimard.

**c) Sartreri egin dizkioten elkarrizketa nagusiak:**

**Astruc, A. & Contat, M. (ed.)** (1977). *Sartre, un film réalisé par Alexandre Astruc et Michel Contat*. Paris: Gallimard.

**De Beauvoir, S.** (1981). *La Cérémonie des adieux suivi de Entretiens avec Jean-Paul Sartre : août - septembre 1974*. Paris: Gallimard.

**Gerassi, J.** (2009). *Talking with Sartre: conversations and debates (1970-1974)*. Yale University Press.

**Rousset, D. & Rosenthal, G.** (1949). *Entretiens sur la politique*. Paris: Gallimard.

**Sartre, J.-P.** (1972). *Situations, IX*. "Mélanges". Paris: Gallimard.

\_(1976). *Situations, X*. "Politique et autobiographie". Paris: Gallimard.

**Sartre, J.-P. & Gavi, P. & Victor, P.** (1974). *On a raison de se révolter*. Paris: Gallimard.

**d) Sartreren obra eta pentsamendua oinarri duten hiztegi nagusiak:**

**Cabestan, P.** (2009). *Dictionnaire Sartre*. Paris: Ellipses.

**Cox, G.** (2008). *The Sartre Dictionary*. London: Continuum.

**Noudeimann, F. & Philippe, G.** (2004). *Dictionnaire Sartre*. Paris: Honoré Champion.

**e) *L'Être et le Néant* tratatua hizpide hartzen duten obra nagusiak:**

**Barnes, H. E.** (1956). Translator's introduction [hitzaurrea]. In J.-P. Sartre, *Being and Nothingness* (viii.-xliii. or.) [*L'Être et le Néant*, 1943]. New York: Washington Square Press, Philosophical Library Inc.

**Catalano, J. S.** (1974). *A Commentary on Jean-Paul Sartre's Being and Nothingness*. University of Chicago Press.

**Gadamer, H.-G.** (1992 [1987]). *L'Être et le Néant*. *Les Temps Modernes*, 48(547), 1-20.

**Jaoua, M.** (2011). *Phénoménologie et ontologie dans la première philosophie de Sartre*. Paris: L'Harmattan.

**Jeanson, F.** (1965 [1947]). *Le problème moral et la pensée de Sartre*. Paris: Seuil.

**Kremer-Marietti, A.** (2005). *Jean-Paul Sartre et le désir d'être: une lecture de L'être et le néant*. Paris: L'Harmattan.

**Maristany, J.** (1987). *Sartre: El Círculo Imaginario: Ontología Irreal de la Imagen*. Barcelona: Anthropos.

**Rouger, F.** (1986). *Le Monde et le Moi: Ontologie et système chez le premier Sartre*. Paris: Méridiens Klincksieck.

**Salzmann, Y.** (2000). *Sartre et l'authenticité: vers une éthique de la bienveillance réciproque*. Genève: Labor et Fides.

**Sartre, J.-P.** (1946). *L'existentialisme est un humanisme*. Paris: Nagel.

**Varet, G.** (1948). *L'Ontologie de Sartre*. Paris: PUF.

**f) Tratatuako 'begirada' kontzeptua hizpide hartzen duten obra nagusiak:**

**Dawans, S.** (2001). Une (h)ontologie phénoménologique? In *Sartre: le spectre de la honte. Une introduction à la philosophie sartrienne* (15.-74. or.). Université de Liège.

**Dolezal, L.** (2012). Reconsidering the Look in Sartre's *Being and Nothingness*. *Sartre Studies International*, 18(1), 9-28.

**Fontaine, P.** (1999). L'expérience d'autrui comme expérience du regard objectivant; le surgissement d'autrui dans la honte. In *La question d'autrui* (46.-72. or.). Ellipses-Marketing.

**Gómez García, J. C.** (2002). La mirada. In *El ser-para-otro sartreano* (11.-45. or.) [Doktorego Tesia]. Universitat de Barcelona. [Sarean jaso] <http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/35634/1/TOL190.pdf>

**Lacan, J.** (1964). *Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis* (itzultzaileak, Juan Luis del Monte Mauri eta Julieta Sucre). Barcelona: Paidós.

**Lloyd Smith, A.** (2014). La mirada sartriana: poder y otredad en *L'Être et le Néant, La Nausée y Huis Clos*. *Letras* 55(1). [Sarean jaso] <http://www.revistas.una.ac.cr/index.php/letras/article/view/7459>

**Martinot, S.** (2005). Sartrean account of the Look as a Theory of Dialogue. *Sartre Studies International*, 11(1-2), 43-61.

**Munono Muyembe, B.** (1991). *Le regard et le visage; de l'altérité chez Jean-Paul Sartre et Emmanuel Levinas*. Paris: Peter Lang.

**Overgaard, S.** (2014). The look. In S. Churchill & J. Reynolds (ed.). *Jean-Paul Sartre. Key concepts*. (106.-117. or.). New York: Routledge.

**Reginster, B.** (2007). Le Regard et l'aliénation dans *L'Être et le Néant*. *Revue philosophique de Louvain*, 105(3), 398-427.

**Sartre, J.-P.** (1944). *Huis Clos*. Paris: Gallimard.

\_(1970 [1939]). Visages. In M. Contat & M. Rybalka (ed.). *Les Écrits de Sartre* (560.-564. or.). Paris: Gallimard.

**Sharma, P.** (2015). *Problem of the other in Jean Paul Sartre's existentialism phenomenology* [Doktorego Tesia]. Indian Institute of Technology, Guwahati.

**Stack, G. & Plant, R.** (1982). The phenomenon of "The look". *Philosophy and Phenomenological Research*, 41(3), 359-373.

**g) Euskaraz dauden Sartrearen obrak:**

**Sartre, J.-P.** (1971). Burgos'ko epaitza [Préface au *Procès de Burgos* de Gisèle Halimi, 1971] (itzultzailea, Txillardegi). *Zutik*, 61.

\_(1980). *Paretaren kontra* [*Le mur*, 1939 (narrazio-bildumatik lehen)] (itzultzailea, Mikel Lasa). Kriselu.

\_(1985). *Nekrassov* [*Nekrassov*, 1955] (itzultzailea, Xabier Olarra). Susa. Antzerti-75.

\_(1989). *Existenzialismoa humanismo bat da* [*L'existentialisme est un humanisme*, 1946] (itzultzailea, Juanita Atxabal). Kriselu.

\_(2003). *Goragalea* [*La nausée*, 1938] (itzultzailea, Monika Etxeberria). Alberdania, Elkar.

\_(2005). Husserlen fenomenologiaren oinarritzko ideia bat: intenzionalitatea [Une idée fondamentale de la phénoménologie de Husserl: l'intentionnalité, 1939] (itzultzailea, Jesus Mari Larrazabal). *Gogoia* 5(1), 51-53.

\_(2005). Burgosko prozesua [Préface au *Procès de Burgos* de Gisèle Halimi, 1971] (itzultzailea, Markos Zapiain).

-(2017). Begirada [Le regard, 1943. In *L'Être et le Néant* (310.-364. or.)]. (itzultzailea, Juan Mari Agirreurreta). Jakin.



## II. Eranskina

### II. Sartreren obren zerrenda

#### a) Obra filosofikoak:

*La transcendance de l'Ego* (Vrin, 1965, 2012 [*Recherches philosophiques VI*, 85-123, 1936]).

*L'imagination* (Alcan, 1936).

*Esquisse d'une théorie des émotions* (Hermann, 1938).

*L'imaginaire. Psychologie phénoménologique de l'imagination* (Gallimard, 1940).

*L'Être et le Néant. Essai d'ontologie phénoménologique* (Gallimard, 1943).

*L'existentialisme est un humanisme* (Nagel, 1946).

*Réflexions sur la question juive* (Paul Morihien, 1946).

*Cahiers pour une morale* (Gallimard, 1983 [1947-1948]).

*Vérité et existence* (Gallimard, 1989 [1948]).

*L'Affaire Henri Martin, recueil de textes commentés par Jean-Paul Sartre* (Gallimard, 1953).

*Critique de la Raison dialectique I*, précédé de *Questions de méthode* (Gallimard, 1960).

*Critique de la Raison dialectique II* (Gallimard, 1985 [1958-1962]).

#### b) Eleberrigintza:

*La nausée* (Gallimard, 1938).

*Le mur* (Gallimard, 1939).

*L'âge de raison (Les chemins de la liberté, I)* (Gallimard, 1945).

*Le sursis (Les chemins de la liberté, II)* (Gallimard, 1945).

*La mort dans l'âme* (*Les chemins de la liberté*, III) (Gallimard, 1949).

**c) Antzerkigintza:**

*Bariona* (Gallimard "La pléiade", 2005 [1940])

*Les mouches* (Gallimard, 1943).

*Huis clos* (Gallimard, 1944).

*Morts sans sépulture* (Lausanne, Marguerat, 1946).

*La Putain respectueuse* (Nagel, 1946).

*Les Mains sales* (Gallimard, 1948).

*Le Diable et le Bon Dieu* (Gallimard, 1951).

*Kean* (d'après Alexandre Dumas) (Gallimard, 1954).

*Nékrassov* (Gallimard, 1956).

*Les Séquestres d'Altona* (Gallimard, 1960).

*Les Troyennes* (d'après Euripide) (Théâtre national populaire, 1965; Gallimard, 1966).

**d) Zinema-gidoiak:**

*Les jeux sont faits* (Nagel, 1947).

*L'engrenage* (Nagel, 1948).

*Scénario Freud* (Gallimard, 1984 [1958-1960]).

**e) Idazleen obra monografikoak:**

*Baudelaire* (Gallimard, 1947).

*Saint Genet, comédien et martyr* (Gallimard, 1952).

*L'idiot de la famille. Gustave Flaubert de 1821 à 1857* (Gallimard I-II, 1971; III, 1972).

*Mallarmé. La lucidité et sa face d'ombre* (Gallimard, 1986).

**f) Testu-bildumak:**

**Contat, M. & Rybalka, M. (ed.):**

*Les écrits de Sartre* (Gallimard, 1970).

*Un théâtre de situations* (Gallimard, 1974).

*Écrits de jeunesse* (Gallimard, 1990).

“Visages” [1939]. *Les écrits de Sartre* (560.-564. or.).

***Situations* artikulu-bildumak:**

*Situations, I* « Essais critiques » (Gallimard, 1947).

“Une idée fondamentale de la phénoménologie de Husserl: l'intentionnalité” [1939]: 31.-35. or.

*Situations, II* « Qu'est-ce que la littérature ? » (Gallimard, 1948).

*Situations, III* « Lendemain de guerre » (Gallimard, 1949).

*Situations, IV* « Portraits » (Gallimard, 1964).

*Situations, V* « Colonialisme et néocolonialisme » (Gallimard, 1964).

*Situations, VI* « Problèmes du marxisme, 1 » (Gallimard, 1964).

*Situations, VII* « Problèmes du marxisme, 2 » ” (Gallimard, 1965).

*Situations, VIII* « Autour du 68 » (Gallimard, 1972).

*Situations, IX* « Mélanges » (Gallimard, 1972).

*Situations, X* « Politique et autobiographie » (Gallimard, 1976).

**g) Idatzi autobiografikoak:**

**Beauvoir, S. (ed.)** (1983). *Lettres au Castor et à quelques autres* (t. I: 1926-1939; t. II: 1940-1963). Paris: Gallimard.

**Elkaïm-Sartre, A. (ed.)** (1995). *Carnets de la drôle de guerre (septembre 1939 - mars 1940)*. Paris: Gallimard.

**Elkaïm-Sartre, A. (ed.)** (1991). *La Reine Albermarle ou le dernier touriste* [1951-1952]. Paris: Gallimard.

**Le Bon de Beauvoir, S. (ed.)** (1990). *Lettres de Sartre* (t. I: 1930-1939; t. II: 1940-1963). Paris: Gallimard.

**Sartre, J.-P.** (1964). *Les mots*. Paris: Gallimard.

### III. Eranskina

#### III. Ikerketa-corpusaren itzulpena

##### a) Bi ohar

Itzulpen hau egiteko, jatorrizko obraren edizioa hartu dut oinarri (Gallimard, 1943). Kortxeteen artean adierazi dut uneoro jatorrizko edizioari dagokion orrialde-zenbakia, horrela, ikerketan zehar egiten diren corpuserako igorpenak aiseago atzemateko. Ordea, paragrafoei dagokienez, Sartrerenak sarri luzeegiak baitira, hobetsi dut paragrafoak ebakitzea Hazel E. Barnes (*Being and Nothingness*, 1957) *L'Être et le Néant* obran aditu eta obraren ingelesezko itzultzaileak ebaki dituen bezala.

Bestalde, testuan zehar aipamen esplizitu batek tratatuko beste atal eta kapitulu batzuetara igortzen duenean, erreferentzia horiek (dagokion zenbakia edota orrialdea) kortxeteetan adierazi ditut; bai, halaber, jatorrizko testuak helburu berarekin dakartzan hiru oin-ohar laburrak ere (ikus 316., 353. eta 356. or.). Era berean, kortxeteetan adierazi dut, kasuan kasu, itzulpenarekin lotutako zeinahi ohar linguistiko edota beharrezko azalpen.

##### b) Itzulpena

#### “3.1.4. BEGIRADA” [310.-364. or.]

[310] Nigana etortzen ikusten dudan emakume hori, kaletik doan gizon hori, nire leihotik kantatzen aditzen dudan eskale hori niretzat *objektuak* dira, hori ez da zalantzazkoa. Egia da, beraz, niretzat Bestearen presentziaren moduetako bat gutxienez *objektutasuna* dela [*objectité*’, Sartrek sortutako adigaia]. Baina, ikusi dugunez [ikus *EN*: “3.1.2.” (278.-279. or); “3.1.3.” (307.-310. or.) atalak], objektutasunezko erlazio hori baldin bada Bestearen funtsezko erlazioa nirekin, Bestearen existentzia hipotesi hutsean gelditzen da. Haatik, hipotetikoa ez ezik *probablea* da aditzen dudan ahots hori gizaki batena izatea eta ez fonografo baten kantua, eta guztiz *probablea* da ikusten dudan oinezkoa gizaki bat izatea eta ez robot perfektionatu bat. Horrek adierazten du nik Bestea objektu gisa atzemateak, probabilitatearen mugetatik irten gabe eta probabilitate horren beraren kausaz, funtsean Bestearen oinarrizko atzemate batera

igortzen duela non eta Bestea jada ez zaidan agertzen objektu gisa, baizik eta “pertonazko presentzia” gisa. Hitz batean esateko, Bestea objektu probable izateko, eta ez objektuzko amets, bere objektutasunak ez du igorri behar jatorrizko bakartasun batera nire eskumenetik kanpo legokeena, baizik eta funtsezko erlazio batera, non eta Bestea agertzen den ez nik beraz dudan ezagutzaren bitartez baina beste modu batean. Teoria klasikoak hizpidean daude giza organismo ikusi orok zerbaitetara *igortzen duela* aintzakotzat hartzen dutenean, eta zerbait hori dela bere probabilitatearen funtsa eta bermea. Baina erratzen dira igortze horrek existentzia bereizi bat adierazten duela uste izatean, edota pertzepziozko bere agerpenen atzean legokeen kontzientzia bat, noumenoa *Empfindung* kantiarraren atzean dagoen bezala. Kontzientzia hori era berezian existitu edo ez, ikusten dudan aurpegiak ez du kontzientzia horretara igortzen; kontzientzia hori ez da ikusten dudan objektu probablearen *egia* dena. Ezagutza beretik kanpo gertatzen da bat-bateko agerkidetzat batera igortzen duen izatezko gertakaria non eta Bestea niretzat presentzia den —intuizioaren tankerako forma ilun eta adierazezin baten modura ulertuko balitz ere—, hots, “Bestearekin-batera-izate” batean. Bestela esateko, Bestearen auzia ulertu izan da, oro har, Bestea agertzen deneko lehen erlazioa objektutasunarena balitz bezala, hau da, [311] lehenik Bestea agertuko balitz bezala, zuzenean edo zeharka, gure pertzepzioan. Baina pertzepzio horrek, bere izaeragatik beragatik, bera ez beste zerbaitetara *igortzen duenez* eta ezin duenez igorri ez mota bereko agerpen-segida infinitu batera —egiten duen bezala, idealismoarentzat, mahaiaren edota aulkiaren pertzepzioak— eta ezta printzipioz nire eskumenetik kanpo kokatuta legokeen entitate isolatu batera ere, funtsean nire eta Bestearen kontzientziaren lehen erlazio batera igorri behar du, non eta Bestea, niri lotuta bada ere, zuzenean subjektu gisa agertu behar zaidan, eta non erlazio hori den nire oinarritzko lotura Bestearekin, nire Bestearentzako izatearen modua bera.

Alabaina, kontua ez da hona nolabaiteko bizipen mistiko edota adierazezin bat ekartzea. Bestea eguneroko errealitatean agertzen zaigu eta bere probabilitatea eguneroko errealitateari dagokio. Arazoa zehaztu egiten da, hortaz: eguneroko errealitatean, badago Bestearekiko jatorrizko erlaziozko uneoro atzeman litekeenik eta, horrenbestez, niri ager lekidakeenik, ezagutezin erlijiozko eta mistiko ororen erreferentziatik kanpo? Hori jakiteko, argiago galdekatu behar da Bestearen agertze arrunt hori nire pertzepzioaren

eremuan: *bera* denez funtsezko erlazio horretara igortzen duena, azaldu ahal beharko digu, atzemandako errealitate gisa, behintzat, zer nolako erlaziotara igortzen duen.

Lorategi publiko batean nago. Nigandik ez urrun, hara non zelai bat eta, zelai horretan zehar, aulkiak. Gizon bat pasatu da aulkien ondotik. Ikusten dut gizon hori, aldi berean hartzen dut objektutzat eta gizakitzat. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi dut adierazten dudanean objektu horri buruz *gizaki bat dela?*

Pentsatu beharko banu ez dela panpina bat besterik, aplikatuko nizkioke espazio-denborazko “gauzak” sailkatzeko balio ohi didaten kategoriak. Alegia, hartuko nuke aulkien “ondoan” kokatua bezala, zelaitik 2,20 metrora, lurtean nolabaiteko presioa egiten, eta abar. Bere erlazioa beste objektuekin soilik emendiozkoa izango litzateke; horrek esan nahi du desagerraraz nezakeela beste objektuek euren artean gordetzen duten erlazioa gehiegi eraldatu gabe. Hitz batean esateko, *beregandik* ez litzateke inongo erlazio berririk agertuko nire unibertsoa gauza horien artean: tresna-sareetan multzokatuak eta sintetizatuak *nire aldetik*, gauza horiek *bere aldetik* banandu egingo lirateke erlazio axolagabe askotarikoan. *Gizakitzat* hartzea, aldiz, aulkiak berarekiko duen erlazio ez emendiozko bat atzematea da eta nire unibertsoa gauzen antolamendu bat jasotzea, *distantziarik gabea*, objektu pribilegiatu horren inguruan. Jakina, zelaia beragandik 2,20 metrora dago betiere, [312] baina *zelai gisa* berari lotuta ere badago distantzia transzenditzen duen erlazio batean eta aldi berean barruan daramana. Distantziaren bi terminoak indiferenteak eta aldagarriak izan beharrean, eta elkarrekikotasunezko erlazioa eduki, distantzia *zabaldu egiten da* abiatzen ikusten dudana gizonarengandik *zelairaino*, erlazio uniboko baten agertze sintetikoa bezala. *Alderik gabeko* erlazioa da gertatzen dena, bat-batean gertatzen dena eta bere barruan *nirea* ez den espazio-tarte bat zabaltzen duena, ezen, objektuak *niganantz* bildu beharrean, *ihes egiten didan* orientazio bat hartzen baitute.

Jakina, distantziarik eta alderik gabeko erlazio hori ez da inola ere Bestearen eta nire artean bilatzen dudana jatorrizko erlazioa. Hasteko, erlazio hori gizakiari eta munduko gauzei bakarrik dagokie. Gainera, ezagutzaren objektu da oraindik; adieraziko dut esanez, adibidez, gizon horrek zelaia *ikusi* egiten duela, edota gertu dagoela, hori egitea galarazten dion panela gorabehera, belarretatik ibiltzeko, eta abar. Azkenik,

probabilitatezko izaera garbi bat gordetzen du: lehenik eta behin, objektu hori gizaki bat izatea *probablea* da; ondoren, ziuira izanik ere gizaki bat dela, nik ikusten dudanean, soilik probablea da berak zelaia *ikustea*, zera, konturen batekin egin dezake amets eta inguruan duenari ez ondo erreparatu, edo itsua izan daiteke, eta abar. Hala ere, objektu-gizonaren eta objektu-zelaiaren arteko erlazio berri horrek ezaugarri berezi bat dauka: aldi berean osorik ematen zait, hor baitago munduan ezagut dezakedan objektu gisa (erlazio objektiboa adierazten baitut zera esaten dudanean: "Pierrek begiratu bat eman dio bere erlojuari", "Jeannek leihotik begiratu du", eta abar) eta aldi berean osorik egiten dit ihes. Erlazio horren funtsezko terminoa objektu-gizakia den heinean eta erlazio hori *berarenganantz* doan heinean, erlazio horrek ihes egiten dit, ezin naiz erdian kokatu: zelaiaren eta gizonaren artean zabaltzen den distantzia, jatorrizko erlazio horren agertze sintetikoaren bitartez, nik ezartzen dudana distantziaren ezeztapena da –kanpoko ezeztapen-mota garbi bat– bi objektu horien artean. Eta agertzen da nire unibertsoko objektuen artean atzematen ditudan erlazioen *desintegratze* huts bat bezala. Baina desintegratze hori ez dut nik burutzen; gauzen artean jatorriz ezartzen ditudan distantzien bitartez, alferrik atzematen ahalegintzen naizen erlazio bat bezala agertzen da. Gauzen atzeko plano baten modukoa da, niri printzipioz ihes egiten didana eta gauzei kanpotik ematen zaiena. Horrela, *nire* unibertsoko objektuen artean, unibertso hori desintegratzerako datorren elementu bat agertzeari, horri esaten diot gizaki *bat* agertzea nire unibertsoan.

Bestea, lehenik, gauzen ihes etengabea da muga baterantz nik objektu gisa atzematen dudana, nigandik distantzia jakin batera, eta aldi berean [313] ihes egiten didana bere inguruan bere distantzia propioak zabaltzen dituen heinean. Eta desitsaste hori pixkana handituz doa; baldin eta zelaiaren eta Bestearen artean lotura distantziarik gabea eta distantziaren sortzailea badago, egon ere badago derrigorrez Bestearen eta zelai *erdian* bere oinarrietan zutitzen den estatuaren artean, Bestearen eta etorbidea inguratzen duten gaztainondo handien artean. Bestearen inguruan espazio oso bat biltzen da eta espazio hori *nire espazioarekin* egin dago; biltze hori, nire unibertsoa osatzen duten objektu guztiena, bizi egiten dut eta ihes egiten dit. Baina biltze hori ez da hor amaitzen; zelaia gauza kalifikatua da: zelai berde *hori* da Bestearentzat existitzen dena. Zentzu horretan, objektu beraren ezaugarria, bere berde sakonak eta gordinak erlazio zuzena dauka gizon



horrekin; berde horrek niri ihes egiten didan alde bat biratzen du Bestearengana. Hartzen dut berdearen eta Bestearen arteko *erlazioa* lotura objektibo bat bezala, baina ezin dut berdea atzeman Besteari agertu *bezala*. Horrela, bat-batean objektu bat agertu da mundua ostu didana. Hor dago dena, denak existitzen jarraitzen du niretzat, baina dena ihesaldi ikusezin eta objektu berri baterantz finkatutako batek zeharkatzen du. Bestea munduan agertzea, beraz, unibertso osoaren lerratze finkatu bati dagokio, munduaren deszentralizazio bati, azpiak jaten dizkiona nik aldi berean burutzen dudana zentralizazioari.

Baina *Bestea* oraindik objektua da *niretzat*. *Nire* distantziei dagokie: gizona hor dago, nigandik hogeit hamar pausora, bizkarra ematen *dit*. Berari dagokionez, zelaitik 2,20 metrora dago berriro, estatuatik sei metrora; horrela, nire unibertsoaren desintegratzea unibertso horren beraren mugetan kokatzen da. Beraz, munduaren ihesa ez da ezerezerantz edo mundu beretik kanpo gertatzen; horren ordez, badirudi hustubide batek zulatzen duela bere izatearen barruan, eta etengabe isurtzen dela zulo horretatik. Unibertsoa, isurtzea eta hustubide-zuloa, guztia errekuperatu egiten da ostera ere, berriz atzeman eta objektu gisa finkatzen da: hori guztia hor dago *niretzat* munduaren egitura partzial gisa, nahiz eta unibertsoaren desintegratzea berez osoa den. Sarritan, gainera, desintegratze horiek muga estuagoetan eduki ditzaket: hara, adibidez, gizon bat irakurtzen doana paseoan. Adierazten duen unibertsoaren desintegratzea birtuala da soilik: tutik entzuten ez duten belarriak ditu, eta bere liburuak baizik ikusten ez duten begiak. Bere liburuaren eta beraren artean erlazio ukaezin eta distantziarik gabeko bat atzematzen dut, arestian ibiltaria zelaiarekin lotzen zuenaren motatakoa. Baina orain forma bere baitan bildu da: objektu oso bat atzeman dezaket. Munduaren barruan, “gizon-irakurtzen” esan dezaket “harri hotza” eta “euri fina” esango nukeen eran. “Gestalt” itxi bat atzematzen dut *irakurketa* funtsezko ezaugarritzat duena eta, [314] gainerakoan, itsu eta gor, ezagutzen eta ikusten uzten dena espazio-denborazko gauza soil bat bezala eta munduko beste gauza guztiekin kanpoko erlazio axolagabe hutsean dirudiena. Soilik zera, “gizon-irakurtzen” ezaugarria bera, gizonaren eta liburuaren arteko lotura gisa, nire unibertsoaren artesi txiki eta berezi bat da. Forma solido eta ikusgai horren baitan, hustuketa berezi bat gertatzen da azaletik bakarrik dena trinkoa; bere berezko zentzua nire unibertsoaren

barruan egotea da, nigandik hamar urratsetara, trinkotasun horren barruan, ihesaldi zorrozki tapatua eta lokalizatua.

Horrek guztiak, bada, ez digu inola ere bazterrarazten Bestea *objektu* deneko eremua. Gehienez ere, objektibotasun mota berezi baten aurrean gaude, Husserlek "absentzia" hitzarekin izendatzen duenetik gertu, nahiz eta ez duen azpimarratzen Bestea definitzen dela ez kontzientzia baten absentzia bezala nik ikusten dudana gorputzari buruz, baizik eta nik atzematen dudana munduaren absentzia bezala, hain zuzen, mundu horretaz dudana pertzepzioaren baitan bertan. Bestea da, maila horretan, munduko objektu bat munduak defini dezan uzten duena. Baina nirekin duen erlazio hori, ihesezkoa eta munduaren absentziatzat, soilik probablea da. Bestearen objektibotasuna erlazio horrek definitzen badu, Bestearen jatorrizko zein presentziari dagokio? Orain erantzun diezaiokegu galderari: Beste-objektua definitzen bada, munduarekiko erlazioan, nik ikusten dudana *ikusten duen* objektu gisa, nire funtsezko erlazioa Beste-subjektuarekin lotu ahal izan beharko da Besteak *ikusia izateko* dudana etengabeko posibilitatearekin. Bestearentzako naizen objektu-izateaz jabetzean, eta jabetze horrengatik beragatik, Bestearen subjektu-izatearen presentzia atzeman ahal izan beharko dut. Zeren Bestea ni-subjektuentzat objektu probablea den bezalaxe, ni ezin ager naiteke objektu probable bihurtzen ari ezpada subjektu ziur batentzat. Eta gertakari hori ezin da ondorioztatu *nire* unibertsoa objektu-Bestearentzat objektu den egitateatik abiatuta, Bestearen begirada nigan pausatzerik baletor bezala bide definitu bati jarraiki, zelaian eta inguruko objektuetan zehar noraezean ibili ondoren. Azpimarratu dudanez, ni ezin naiz objektu izan objektu batentzat: beharrezkoa da Bestearen aldaketa bat errotik objektibotasunetik libratuko duena. Ez dut, bada, kontsideratuko Besteak luzatzen didan begirada bere objektuzko-izatearen adierazpen posibleetako bat bezala: Besteak ezin *dit* begiratu zelaia begiratzen dion bezala. Gainera, nire objektibotasuna bera ezin da *niretzat* ondorioztatu munduko objektibotasunetik, ni bainaiz, hain zuzen ere, mundu bat *egotea* ahalbidetzen duena; eta ni bainaiz, alegia, ezin dena printzipioz berarentzako objektu izan.

Halatan, "Besteak-ikusia-izan" deitzen dudana erlazio horrek, besteak beste "gizaki" hitzarekin adierazi ohi den erlazioa izateaz harago, gertakari erreduziezin bat adierazten du, ezin dena deduzitu [315] ez Beste-objektuaren esentziaz eta ezta nire subjektu-

izatearenetik ere. Alderantziz baina, Beste-objektuaren kontzeptuak zentzurik izatekotan, jatorrizko erlazio horren aldaketatik eta degradaziotik jasoko du. Hitz batean esateko, nik Bestea munduan atzematea *izaten agian* gizaki bat, beraz, *berak-ikusia-izateko* dudan posibilitate etengabeari dagokio, alegia, ni nakusan subjektu batek nik ikusitako objektua ordezkatzeko duen posibilitate etengabeari. “Besteak-ikusia-izatea” “Bestea-ikustearen” *egia* da. Hortaz, "Beste" adigaiak ezin du inondik ere apuntatu kontzientzia bakarti eta mundutik kanpoko batera, nik pentsatu ere ezin dudana egin. Gizakia munduarekiko eta neurekiko definitzen da; unibertsoaren barne-isuri bat eragiten duen munduko objektu hori da, barne-hemorragia bat; bera da agertzen zaidan subjektua nire objektutasuneranzko ihesean. Baina nire jatorrizko erlazioa Bestearekin ez da bakarrik *egia* absente bat, nire unibertsoko objektu konkretu baten presentziaren bidez atzemana; erlazio konkretu eta eguneroko bat ere bada, nik uneoro bizi dudana: uneoro *begirutzen dit* Besteak. Beraz, erraza izango zaigu adibide konkretuekin oinarritzko lotura horren deskribapenera jotzea, Besteari buruzko teoria ororen funtsa izan behar duena. Bestea *begirutzen didana* baldin bada printzipioz, zehaztu ahal izan beharko dugu Bestearen begiradaren zentzua.

Nigana zuzendutako begirada oro agertzen da gure pertzepzio-eremuko forma nabari baten agertzeari lotuta, baina ez dago, pentsa litekeenaren kontra, inongo forma determinatuari lotuta. Zalantzarik gabe, *maizenik* begirada bat erakusten duena bi begi-globoren niganako konbergentzia da. Baina gertatuko da adaxka batzuk astintzean ere, isiltasunaren aurreko oin-hotsekin, leiho erdi ireki batekin, gortina baten mugimendu arinarekin. Eraso batean, sasitzan herrestan doazen soldaduek *saihesteko begiradatzat* hartu dute ez bi begi baizik eta baserri zuri oso bat zeruaren kontra nabarmentzen dena muino baten gainean. Bistakoa da horrela eratutako objektuak ez duela begirada adierazten probable gisa besterik. Soilik probablea da mugitu berri den sasitzan norbait ezkutuan egotea nire zelatan. Baina probabilitate horrek ez gaitu geldiarazi behar oraingoz; itzuliko gara, lehenik eta behin axola duena begirada bera definitzea da. Baina sasitza eta baserria ez dira begirada, *begia* bakarrik irudikatzen dute, *begia* ez baita hartzen lehen-lehenik ikusmenaren organotzat, baizik eta begiradaren euskarrizat. Eta, beraz, ez dagozkie [316] gortinaren atzean ezkutaturik edo baserriko leiho baten atzean dagoen zelatariaren haragizko begiei. Eurak bakarrik jada begiak dira. Bestalde,

begirada ez da begi-funtzioa betetzen duen objektuaren ezaugarrietako bat, ezta objektu horren forma osoa ere, eta ez da objektu horren eta nire artean eratzen den lotura “mundutar” bat ere. Guztiz bestela, begirada atzeman beharrean begirada erakusten didaten objektuen *baitan*, niri zuzendutako begirada atzematen dut “begiratzen didaten” begien suntsipenaren planoan. Atzematen badut begirada, begiak ikusteari uzten diot: hor daude, nire pertzepzio-eremuan, *presentazio* hutsak dira, baina ez ditut baliatzen, neutralizatuta daude, jokoan kanpo, ez dira jada tesi baten objektu, “zirkuitutik kanpo” gelditzen dira, mundua aurkitzen den egoeran Husserlek preskribitutako erredukzio fenomenologikoa egingo lukeen kontzientzia batentzat. Begiak ezin dira inoiz edertzat edo itsusitzat hartu, edo bere kolorea atzeman, begiratzen dizutenean. Bestearen begiradak ezkutatu egiten ditu bere begiak, *beraien aurretik* doala dirudi. Ilusio hori gertatzen da ezen begiak, nire pertzepzioko objektu direlarik, distantzia jakin batera geratzen baitira, nigandik beraiengana zabaltzen den distantziara –hitz batean esateko, ni Bestearen begien aurrean nago, distantziarik gabe presente, baina begiak distantzia jakin batera daude ni “nagoen” lekutik–; ordea, begirada distantziarik gabe dago nigan eta aldi berean distantziara nauka, alegia, begiradaren niganako presentzia bat-batekoak distantzia bat zabaltzen du beragandik urruntzen nauena. Nik ezin diot, beraz, begiradari arreta zuzendu nire pertzepzioa aldi berean desegin eta atzeko planora pasatu gabe. Zerbait gertatzen da hemen irudimenari buruz beste nonbait [*L’imaginaire, 1940*] erakusten saiatu naizenaren antzekoa; ezin dugu, nioen orduan, aldi berean begiz atzeman eta imajinatu, bata edo bestea izan behar da. Hemen aise esango nuke: ezin dugu atzeman aldi berean mundua eta gudan finkaturiko begirada bat, bata edo bestea izan behar da. Kontua zera da, pertzepzioz atzematea *begiratzea* da, baina begirada bat atzematea ez da objektu-begirada bat atzematea munduan (salbu eta begirada hori guri zuzenduta ez badago), baizik eta *begiratu izatearen* kontzientzia hartzea. *Begiek* adierazten duten begirada, zeinahi dela ere euren izaera, igorpen hutsa da nigana. Nik nabaritzen dudana atzean adaxkak kraskatzen entzun eta berehala ez da *nor bait dagoela*, baizik eta ahula naizela, zauri daitekeen gorputz bat dudala, leku bat okupatzen dudala eta ezin dudala inondik ere ihes egin babes gabe nagoen leku horretatik, hots, *ikusia naizela*. Horrela, lehenik eta behin, begirada bitartekari bat da nigandik nigana igortzen duena. Nolakoa da bitartekari hori? Zer da niretzat ikusia izatea?

[317] Imajina dezagun heldu naizela, jeloskortasunez, interesez, bizioz, belarria ate batean jartzera, sarraila baten zulotik begiratzera. Bakarrik nago, ni(re) [**genitibo parentesidunaren azalpenerako, ikus EN: “Hitzaurrea” (20. or.)**] kontzientzia ez-tetikoaren planoan. Horrek esan nahi du, hasteko, ez dagoela nire kontzientzia habitatuko duen *ni* bat. Ez dago zeri zuzendu, beraz, nire ekintzak kalifikatzeko. Ekintza horiek ez ditut inola ere *ezagutzen*, baizik eta *beraiek naiz*; eta horregatik, hain zuzen, eurengan bertan daukate justifikazio osoa. Gauzen kontzientzia hutsa naiz eta gauzek, nire ipseitatearen zirkuituan [**ikus EN: “2.1.5.” atala**] harrapatuta, beren potentzialtasunak eskaintzen dizkirate nire posibilitate propio(en) kontzientzia ez-tetikoaren erreplika bezala. Horrek esan nahi du ate horren atzean espektakulu bat ageri dela “ikusgai”, elkarrizketa bat “entzungai”. Atea eta sarraila bitartekoak eta trabak dira aldi berean, aurkezten dira “tentuz maneatzeko” modukoak; sarraila aurkezten da “apur bat zeharka eta gertutik ikusteko” modukoa, eta abar. Hortik aurrera, “egin behar dudana egiten dut”. Inongo ikuspegi transzendentek ez die aitortzen nire ekintzei *emanaren* tankera bat juzkurik jaso lezakeena: nire kontzientzia nire ekintzei itsasten zaie, bera *da* nire ekintzak, jomugek eta jomugetarako bitartekoek bakarrik gobernatzeko dituztenak. Nire jarrerak, adibidez, ez dauka inongo “kanpokorik”, bitartekoa (sarraila) eta jomuga (espektakulua ikusgai) bateratze hutsa da, munduan galtzeko modua baino ez, gauzek edanarazia izateko modu soila, xukagarri batek tintarekin bezala, jomuga jakin baterantz bideraturiko tresna-sare bat, mundua atzeko planoan duelarik, sintetikoki askatzeko. Kausazko hurrenkeraren kontrakoa da: jomugak antolatzen ditu aurreko une guztiak. Bitartekoak helburuak justifikatzen ditu; bitartekoak ez dira existitzen bere kabuz eta helburutik kanpo.

Bestalde, osotasuna bakarrik existitzen da nire posibilitateen proiektu libre bati lotuta; jeloskortasuna da, hain zuzen, ni *naizen* posibilitate gisa, tresna-sare hori antolatzen duena beregana transzendituz. Baina jeloskortasun hori ni *naiz*, ez dut ezagutzen. Munduzko tresna-sareak bakarrik erakutsi liezadake jeloskortasuna, tresna-sarea egin ordez kontenplatuko baldin banu. Munduko osotasun hori da, bere determinazio bikoitz eta alderantzikatu —ez dago ate atzeko espektakulurik *ikusgai* jeloskor nagoelako ez bada, baina nire jeloskortasuna ez da, hain zuzen ere, ate atzean *espektakulu bat ikusgai dagoen* gertakari objektibo hutsa besterik— *situazio* izendatuko duguna. Situazio horrek

nire faktikotasuna eta nire askatasuna islatzen dizkit batera: inguratzen nauen munduko egitura objektibo jakin baten haritik, situazioak nire askatasuna igortzen dit libreaki betetzeko jarduerak bezala. Hor ez dago inongo eragozpenik, nire askatasunak nire posibleak hortzikatzen baititu eta, ildo beretik, munduko potentzialtasunak [318] eurak bakarrik agertzen eta proposatzen baitira. Hortaz, ezin dut nire burua benetan definitu situazioan *izaten* bezala: hasteko, ez naizelako neronen kontzientzia posiziozkoa; ondoren, nire ezerez propioa naizelako. Zentzu horretan, eta zeren ez naizena naizen eta naizena ez naizen, ezin dut nire burua zinez definitu ateetan entzuten *izaten*, eta ihes egiten diot nire transzendentzia osoz nire buruaren behin-behineko definizio horri. Hor dago, ikusi dugunez [ikus *EN*: “1.2. atala”], asmo txarraren jatorria. Beraz, kontua ez da bakarrik nire burua ezin *ezagut* dezakedala, areago, nire izateak berak egiten dit ihes, nahiz eta nire izatearekiko ihes hori bera ni *naizen*, eta ez naiz ezer guztiz. *Hor* ez dago ezerez huts bat besterik, nolabaiteko osotasun objektibo bat inguratzen eta azaleratzen duena, eta munduan nabarmentzen dena, egiazko sistema bat, bitartekoen antolaketa bat jomuga baten inguruan.

Eta hara non entzun ditudan oin-hotsak korridorean: begiratzen didate. Zer esan nahi du horrek? Bat-batean nire izatean atzema naizela eta nire egituretan funtsezko aldaketak agertzen direla —aldaketa horiek atzeman ditzaket eta kontzeptualki finkatu *cogito* erreflexiboaz.

Hasteko, hara non existitzen naizen *ni* bezala nire kontzientzia ez erreflexuarentzat. Gehien deskribatu izan dena, hain zuzen, niaren bat-bateko agertze hori da: nik ikusten *dut* nire burua ni ikusten *nautelako*, idatzi izan dugunez. Modu horretan, ez da erabat zuzena. Azter dezagun hobeto: bere baitarakoa bere bakardadean kontsideratu dugun bitartean, eutsi ahal izan dugu ni batek ezin zuela kontzientzia ez erreflexua habitatu: objektu gisa, nia kontzientzia erreflexiboarentzat bakarrik ematen zen. Baina hara non datorren nia kontzientzia ez erreflexua habitatzera. Eta kontzientzia ez erreflexua munduaren kontzientzia da. Nia, beraz, munduko objektuen maila berean existitzen da orain kontzientziarentzat; niaren presentifikazioa, lehen kontzientzia erreflexiboari bakarrik zegokion egiteko hori, orain kontzientzia ez erreflexuari dagokio. Soilik zera, kontzientzia erreflexiboak *nia* hartzen du zuzenean objektutzat; ordea, kontzientzia ez erreflexuak ez du *pertsona* hartzen zuzenean eta *bere* objektutzat: pertsona

kontzientziari zaio presente *Bestearentzako objektu delarik*. Horrek esan nahi du bat-batean nire kontzientzia hartzen dudala nigandik ihes egiten bezala; ez nire ezerez propioaren funtsa naizelarik, baizik eta nire funtsa nigandik kanpo dudalarik: ni niretzat Bestearenganako igorpen hutsa baino ez naiz.

Alabaina, hortik ez da ondorioztatu behar objektua Bestea denik eta nire kontzientziari presente zaion *Egoa* objektu-Bestearen bigarren mailako egitura edo adiera denik. Bestea hemen ez da objektu eta ezingo luke objektu izan, azaldu dugunez, non eta niak ez dion aldi berean Bestearentzako-objektu izateari uzten eta desegiten. [319] Horrela, nik ez dut Bestea objektutzat jotzen, ezta nire *Egoa* ere niretzako objektutzat, eta ezin diot *Ego* horri intentzio huts bat zuzendu ere egin nire eskumenetik orain kanpo dagoen objektu bati bezala. Horrela, ezerez batek bereizten du *Ego* hori nigandik eta ezin dut asebate, *niretzat ez delarik* atzematen baitut eta printzipioz *Bestearentzat* existitzen delarik; beraz, ez dut hartzen noizbait emana izan dakidakeena bezala, baizik eta, alderantziz, printzipioz ihes egiten didana bezala eta nirea inoiz izango ez dena bezala. Eta, haatik, *banaiz*, ez dut baztertzen irudi arrotz bat balitz bezala, baina presente zait *ezagutu ez eta banaizen* ni bat bezala, lotsaren kasuan deskubritzen baitut (eta harrotasunean, beste kasu batzuetan). Lotsak eta harrotasunak agerrarazten didate Bestearen begirada eta ni neu begiradaren muturrean, beraiek *biziarazten* didate, eta *ezagutarazten*, begiratua izatearen situazioa.

Lotsa, beraz, kapitulu honen hasieran adierazten genuenez [ikus *EN*: “3.1.” atala], *norberarenganako* lotsa da, Besteak begiratzen eta juzkatzen duen objektu hori *naizela* onartzea. Nire askatasunaz bakarrik lotsa naiteke, objektu *emana* bilakatu eta ihes egiten didalarik. Horrela, jatorriz, nire kontzientzia ez erreflexuaren eta nire *Ego*-begiratuaren arteko lotura ez da ezagutzazkoa, baizik eta izatezkoa. Hau da, eduki daukadan ezagutza guztiaz harago, ni naiz Beste batek ezagutzen duen ni hori. Eta naizen ni hori Besteak alienatu didan mundu batean naiz, Bestearen begiradak nire izatea besarkatzen baitu eta, ildo beretik, hormak, atea, sarraila. Gauza-tresna horiek guztiek, non eta ni erdian bainago, alde bat biratzen dute Bestearenganantz niri printzipioz ihes egiten didana. Hortaz, nire *Egoa* Bestearentzat naiz, Bestearenganantz isurtzen den mundu baten erdian. Baina, arestian, barne-hemorragia deitu ahal izan diogu *nire* mundua Beste-objektuarenganantz isurtzeari; orduan, hain zuzen, odolustea tinkatuta eta lokalizatuta

zegoen, Beste hori *nire* munduko objektu gisa finkatzen bainuen, eta mundu hori bere aldetik husten zen. Horregatik, odol-tantarik ez zen galtzen, dena errekueratzen, zedarritzen eta lokalizatzen zen, nik barnera ezin nezakeen izate batean baldin bazen ere. Baina orain, ordea, ihesa mugarik gabea da, galdu egiten da kanpoan, mundua mundutik kanpo isurtzen da eta ni nigandik kanpo isurtzen naiz. Bestearen begiradak nire munduan-izateaz harago izanarazten nau, mundu baten erdian aldi berean dena *hauxe* eta honexetatik harago. Ni naizen eta lotsak deskubritzen didan izate horrekin, zein erlazio-mota gorde dezaket?

Lehenik eta behin, izatezko erlazio bat dago. Ni *naiz* izate hori, ez dut ezeztatzeko asmorik, ezta une batez ere; nire lotsak salatzen du. Ezkutatze erabili ahalko dut gero, asmo txarrez, baina asmo txarra bera ere adierazgarri bat da, banaizen izateari ihes egiteko ahalegina baita. Baina naizen izate hori ez naiz “izateko dudana” moduan, [320] ezta “nintzen” moduan ere: nik ez dut bere izatea fundatzen, nik ez dut zuzenean ekoizten, eta ez da nire ekintzen efektu zeharkakoa eta zorrotza ere, astintzen denean bezala nire itzala lurretik edota nire isla ispiluan egiten ditudan keinuekin batera. Naizen izate horrek nolabaiteko indeterminazioa gordetzen du, ezin da aurretik asmatu. Eta ezaugarri berri horiek ez datoz bakarrik nik Bestea *ezagutu* ezin dudalako; etorri ere badatoz, batez ere, Bestea libre delako; edo, zehatzago esateko eta terminoak inbertituz, Bestearen askatasuna agertzen zait berarentzat naizen izatearen indeterminazio larriaren bitartez. Horrela, izate hori ez da nire posiblea, ez dago betiro nire askatasunaren menpe. Alderantziz, izate hori nire askatasunaren muga da, “atzealdea”, “karten atzealdea” esaten den zentzuan; emana zait gainean daramadan zama bat balitz bezala, bera ezagutzeko beragana inoiz ere ezin biraturik, eta ezin sentiturik ere bere pisua. Nire itzalarekin konparatu beharko balitz, itzal horrek materia mugikor eta aldakor batean proiektatuko litzatekeena behar luke, non inongo erreferentzia-taulak ezingo lituzkeen kalkulatu mugimendu horietatik sortutako deformazioak. Eta, haatik, *nire* izatea da eta ez nire izatearen irudi bat. Nire izatea da, Bestearen askatasunean eta askatasunagatik idatzia. Dena gertatzen da izatearen dimentsio bat izango banu bezala non ezerez batek errotik bereiziko nindukeen: ezerez hori Bestearen askatasuna da. Besteak eginkizun dauka nire berarentzako-izatea bere izatea izateko ere eginkizun daukalarik. Hori horrela, nire jarrera libre bakoitzak inguru berri batean engaiatzen nau non eta nire



izatearen materia bera Beste baten askatasunaren aldakortasuna baita. Haatik, nire lotsagatik beragatik, nirea balitz bezala aldarrikatzen dut Beste baten askatasun hori, kontzientzien batasun sakona adierazten dut; baina ez monaden harmonia hori, batzuetan objektibotasunaren bermetzat jo izan dena, baizik eta izate-batasun bat, ezen ezaguna egiten zaidan izate bat nahi eta onartzen baitut Besteek aitor diezadaten.

Lotsak erakusten didanez, izate hori *banaiz*, baina ez "nintzen" eta "izateko eduki" moduan, baizik eta *bere baitan*. Zera, nik ezin dut erreparatu nire "eserita-izatea", esan daiteke, gehienez ere, aldi berean naizela eta ez naizela. Nahikoa da Besteak niri begiratzea ni naizena izateko. Baina ez nire baitarako, jakina: ezin erreparatuko dut inoiz ere Bestearen begiradan atzematen dudan eserita-izate hori; kontzientzia izaten jarraituko dut betiere, baina Bestearentzat. Berriz ere bere baitarakoaren ihes ezereztatzailea finkatu egiten da, berriz ere bere baitakoa bere baitarakoaren barruan eratzen da, eta metamorfosi hori, beste behin ere, *distantzian* burutzen da. Bestearentzat, *ni eserita nago tintontzi hori mahai gainean dagoen* bezala; [321] Bestearentzat, sarrailako zuloan nago makurtuta, *zuhaitz hori haizeak makurtuta* dagoen bezala. Bestearentzat, beraz, nire transzendentzia galdu dut. Azken batean, lekuko datekeen edonorentzat, hau da, transzendentzia hori *ez izaten* bezala determinatzen denarentzat, transzendentzia hori transzendentzia egiaztatua bihurtzen da, transzendentzia-emanan; alegia, izaera bat hartzen du soilik *Besteak* kanpoalde bat aitortzen diolako, eta ez bere kategorien bitartez ezarriko liokeen deformazio edo errefrakzio batez, baizik eta bere izateaz beraz. Baldin eta Besterik baldin badago, zeinahi dela ere, nonahi dela ere, zeinahi direla ere bere erlazioak nirekin, eta nigan lukeen eragina bere izatearen sortze hutsagatik bakarrik balitz ere, orduan nik kanpoalde bat daukat, nik *izaera* bat daukat. Nire jatorrizko jauzia Bestearen existentzia da; eta lotsa, harrotasuna bezalaxe, nire burua izaeratzat hartzea da, nahiz eta izaera horrek ihes egiten didan eta berez ezagutezina den niretzat. Zehazki esateko, kontua ez da nire askatasuna galtzen sentitzen dudala *gauza* bilakatzeko, baina hor dago, nire bizipenezko askatasunetik at, Bestearentzat naizen izate horren tasun emana bezala.

Bestearen begirada nire *ekintzaren* barruan bertan atzematen dut, nire posibilitate propioen solidotze eta alienazio modura. Posibilitate horiek, izan ere, *ni naizenak* eta nire transzendentziaren baldintza direnak, beldurraz, itxarote urduriaz edota zuhurraz,

sentitzen dut beste nonbait Beste bati ematen zaizkiola, berak bere posibilitate propioekin transzenditu beharreko zatia. Bestea, begirada gisa, hori besterik ez da: nire transzendentzia transzenditua. Eta ni, zalantzarik gabe, nire posibilitateak *naiz* betiere, posibilitate hori(en) kontzientzia ez-tetiko moduan; baina, aldi berean, begiradak alienatu egiten dizkit. Ordura arte, posibilitate horiek munduaz eta munduan tetikoki atzematen nituen, tresnen potentzialtasun gisa: zoko ilunak korridorean ezkutatzeko aukera zekarkidan, bere iluntasunaren ezaugarri potentzial gisa, bere ilunpearen gonbite gisa; objektuaren nolakotasun edo tresnatasun hori objektuari bakarrik zegokion eta ezaugarri objektibo eta ideal bezala agertzen zen, *situazio* deitu dugun sare horren benetako parte bat zela adierazten zuen. Baina Bestearen begiradarekin sarearen antolaketa berri bat gainjarri zaio lehengoari. Nire burua ikusitzat hartzea *munduan* ikusitzat hartzea da, eta mundutik abiatuta. Begiradak ez nau unibertsoan nabarmentzen, bila datorkit nire situazioaren baitan eta, nitaz, tresnekiko lotura zatietan bakarrik atzematen ditu: eserita bezala ikusia banaiz, “aulki-batean-eserita” bezala behar dut izan, makurtuta bezala ikusia banaiz, “sarraila-zuloan-makurtuta” bezala behar du izan, eta abar. Baina nire alienazioa den *begiratu-izateak*, [322] orduan, berarekin dakar nik antolatzen dudana munduaren alienazioa. Aulki horretan eserita naiz ikusia, baina aulkia ikusten ez dudalarik, ezinezkoa delarik nik ikustea, ihes egiten didalarik, beste erlazio eta distantzia batzuekin, beste objektu batzuen erdian antolatzeko; objektu horiek niretzat alde ezkutu bat dute, era berean, sare berri eta beste era batera orientatu batean.

Horrela, hara non ni, nire posibleak naizelarik, eta naizelarik ez naizena eta ez naizelarik naizena, norbait *naizen*. Eta naizen hori, ihes egiten didana, printzipioz, *munduaren barruan* naiz, baina ihes egiten didalarik. Horrenbestez, nire lotura objektuarekin edo objektuaren potentzialtasunarekin desegin egiten da Bestearen begiradapean, eta agertzen zait munduan objektua baliatzeko posibilitatea bezala, baina posibilitate horrek printzipioz ihes egiten didan heinean, hau da, Besteak bere posibilitate propioetarantz gaituzten den heinean. Adibidez, zoko ilunaren potentzialtasuna zokoan ezkutatzeko posibilitate emana bihurtzen da, soilik Besteak gaituzten dezakeelako eskuarki batekin zokoa argitzeko duen posibilitaterantz. Hor dago posibilitate hori, baina absente bezala, *Bestearengan* balego bezala, eta atzematen dut nire atsekabearen bitartez eta “ziurregia ez den” ezkutaleku hori baztertzeko nire erabakiaren bitartez. Beraz, nire posibilitateak

presente agertzen zaizkio nire kontzientzia ez erreflexuari Besteak *zelatatzen* nauenarekin batera. Edozertarako prest ikusten badut bere jarrera, eskua arma gordeta duen patrikan sartuta, atzamarra txirrina elektrikoan “nire keinu txikienaz” zelatariari alerta emateko puntuan, nire posibilitateez kanpotik eta beregatik jabetzen naiz, eta aldi berean posibilitate horiek naiz; esate baterako, hizkuntzaren bitartez gure pentsamenduaz objektiboki jabetu ohi garen bezala eta aldi berean pentsatu, pentsamendua hizkuntzara lerratzeko. Iheserako joera hori, banaukana, banaramana eta *banaizena*, irakurri egiten dut begirada zelatari horretan eta beste begirada horretan: arma niri apuntatzen. Besteak erakusten dit, berak ezarri eta ahalbidetu baitu. Berak erakusten dit, berak gainditzen eta desmuntatzen baitu. Baina nik ez dut atzematen gainditze hori bera, soilik atzematen dut nire posibilitatearen akabera. Hiltze leuna da, ezen ezkutatzeko posibilitatea oraindik *nire* posibilitatea baita eta, bera *naizeino*, bizirik baitago; eta zoko ilunak dei egiten dit eten gabe eta bere potentzialtasuna bidaltzen. Ordea, tresnatasuna zerak definitzen badu, “...-erantz gainditua izan ahal”, orduan nire posibilitatea bera tresnatasun bihurtzen da. Zokoan gordetzeko nire posibilitatea bihurtzen da, horrela, Besteak bere posibilitaterantz gaindi dezakeen zerbait, ni agerian uzteko, identifikatzeko eta atzemateko. *Bestearentzat* aldi berean da traba eta bitarteko, edozein tresna bezalaxe: traba, zenbait ekintza berritara behartuko baitu (niganantz hurbiltzera, eskuargia piztera); [323] bitartekoa, kale itsuan aurkituz gero, ni “harrapatua bainaiz”. Bestela esateko, Bestearen kontra bideratutako ekintza oro, printzipioz, nire kontra balia dezakeen bitarteko bat izan daiteke *Bestearentzat*. Hain zuzen ere, nik Bestea atzematen dut ez berak nire ekintzaz egin dezakeenaren ikuspegi garbi batekin, baizik eta beldur batekin nire posibilitate guztiak anbibalenteak balira bezala *bizi* dituen. Bestea nire posibilitateen heriotza isila da, eta heriotza hori bizi dut munduaren barruan ezkutatuta balego bezala. Nire posibilitatearen lotura tresnekin bi tresnen arteko lotura bezalakoa baino ez da, kanpotik antolatzen dira bata bestearekin eta ihes egiten didan jomuga bat daukate. Besteak *aldi berean* gainditzen ditu zoko ilunaren iluna eta nire ezkutatzeko posibilitatea, babesteko ezer egin ahal izan aurretik, zokoa eskuargiarekin argitzen duenean. Horrela, Bestearen begirada atzematean astintzen nauen dardara zakarrean, zera gertatzen da, bat-batean alienazio leun bat bizi

dut nire posibilitateena, nigandik urrun kokatzen dira, munduaren barruan, munduko objektuekin.

Baina hortik bi ondorio garrantzitsu ateratzen dira. Lehena da nire posibilitatea nigandik kanpo *probabilitate* bihurtzen dela. Besteak nire posibilitatea bera ez den askatasun batek hortzikatua bezala atzematen duelarik, bera lekuko gisa eratuz eta bere efektuak kalkulatz, nire posibilitatea indeterminazio hutsa da posibleen jokoan, eta nik horrelaxe nabari dut. Geroago, hizkuntza bitarte Bestearekin lotuta gaudenean eta pixkana gutaz zer pentsatzen duen asmatzen dugunean, horrek liluratu eta izutu egingo gaitu batera: “Zin egiten dizut egingo dudala!”; “Litekeena da. Hala diostazu, sinetsi nahi zaitut; posible da, noski, zuk hori egitea”. Dialogo horren zentzuak berak inplikatz du Bestea jatorriz nire askatasunaren aurrean kokatua dagoela, indeterminaziozko propietate baten aurrean bezala, eta nire posibleen aurrean nire probableak balira bezala. Izan ere, funtsean harago sentitzen naiz, *Bestearentzat*, eta nire izatearen mamu-tankerak nire baitan bertan ziztatzen nau, ezen, lotsaz, amorruez eta beldurraz, horrelakotzat hartzen baitut eten gabe nire burua. Eta hori itsu-itsuan onartzen dudanez, *ez baitut ezagutzen* onartzen dudan hori, besterik gabe, *naiz*.

Bestalde, nire tresna-posibilitate multzoa tresnaren aurrean Besteak gainditua agertzen zait eta mundu modura antolatua. Bestearen begiradarekin “situazioak” ihes egiten dit edo, arrunta izan arren, gure pentsamendua ongi adierazten duen espresio bat erabiliz, *jada ez naiz situazioaren jaun eta jabe*. Zehazkiago esateko, oraindik banaiz situazioaren jaun eta jabe, baina dimentsio erreal bat dauka situazioak niri hortik ihes egiten didana eta bat-bateko aldaketek situazioa niri agertu ez bestelakoa *izatea* egiten dutena. Jakina, gerta daiteke nik ekintza bat burutzea bakardade hertsian eta ondorioak [324] zeharo nire aurreikuspenen eta desiren kontrakoak izatea: poliki erakarri dut taulatxoak ontzi hauskor hori nireganatzeko, baina mugimendu horren efektua da brontzezko estatua txiki bat botatzea eta ontzia mila zatitan txikitzea. Ordea, ez dago hor aurreikus ez nezakeen ezer: tentuz ibili banintz, objektuen antolamenduan erreparatu banu, eta abar; *ihes egiten didan ezer ez printzipioz*. Alabaina, Bestearen agertzeak situazioari aspektu bat ekartzen dio nik nahi ez nuena, menperatzen ez dudana eta ihes egiten didana printzipioz, *Bestearentzat* baita. Hori da Gidek airoski “deabruaren parte” deitu duena. Asmaezina den *atzealdea* da eta, haatik, erreal dena.

Aurretik ezin asmatu hori da Kafka baten jainua *Prozesuan* eta *Gazteluan* deskribatzen saiatzen dena: nolabait ere, K.-k eta lur-neurtzaileak egiten duten guztia berez beraiei dagokie eta, munduan eragiten duten heinean, emaitzak bat datozen erabat beraien aurreikuspenekin: ekintza osoak dira. Baina, aldi berean, ekintza horien *egiak* ihes egiten die etengabe; printzipioz zentzu bat dute, euren *egiazko zentzua*, baina K.-k eta lur-neurtzaileak ez dutena inoiz ezagutuko. Zalantzarik gabe, Kafkak horrekin dibinotasunaren transzendentzia erdietsi nahi du: dibinotasunarentzat eratzen da giza ekintza egiazko. Baina hor Jainkoa ez da Bestearen kontzeptua muturreraino eramana besterik. Itzuliko gara. Atmosfera iheskor eta mingarri hori *Prozesuan*; ezjakintasun hori, ezjakintasun modura bizitzen dena, gainera; erabateko opakutasun hori, zeharrargitasun zabal batetik bakarrik suma daitekeena; hori ez da gure munduaren-barruan-Bestearentzat-izatearen deskribapen hutsa baizik.

Horrela, beraz, nire situazioa, Besteak gainditzen duenean eta gainditzen duelako, finkatu eta antolatu egiten da nire inguruan *forma* moduan, *gestalt* zaleek termino hori darabilten zentzuan: badago hor emana den sintesi bat non eta ni funtsezko egitura naizen, eta sintesi horrek aldi berean dauka kohesio ek-statikoa eta bere baitakoaren tankera. Nire lotura mintzo den eta espiaitzen dudan jende horrekin kolpe batean eta nigandik kanpo ematen da, neronek ezarritako loturaren oinarri ezagutezin bat bezala. Bereziki, nire *begiradak* edo jende horrekiko lotura distantziarik gabeak bere transzendentzia galtzen du, nire begirada *begirada-begiratu*a denez gero. *Ikusten dudan* jendea, noski, objektutan finkatzen dut; beraientzat ni naiz Bestea niretzat den modukoa; beraiei begiratu, nire ahalmena neurtzen dut. Baina Besteak begiratzen badie eta badit, nire begiradak indarra galtzen du, ezingo luke bihurtu jende hori *Bestearentzako* objektu, jadanik bere begiradaren objektu baita. Nire begiradak erlazio bat adierazten du bakarrik, munduaren barruan, objektu-niaren eta objektu-begiratuaren artean, bi masa elkar erakartzen diren bezala distantzian, nolabait esateko. Begirada horren inguruan, alde batetik, [325] objektuak antolatzen dira —distantzia *existitzen* da orain nigandik begiratuenganaino, baina nire begiradak itxia, zedarritua eta konprimitua; “distantzia-objektuak” multzoa atzealde moduko bat da eta begirada nabarmendu egiten da mundua atzeko planoan duen “hori” bat bezala—; eta, beste alde batetik, nire jarrerak agertzen dira, begirada “mantentzeko” bitartekoak balira bezala.

Horren arabera, nik osotasun antolatu bat osatzen dut, hain zuzen ere, begirada *dena*; ni objektu-begirada bat naiz, hau da, tresna-sare bat barne-jomuga bat duena eta bere kabuz antola daitekeena, bitarteko-jomuga moduko erlazio batean, distantziaz harago presentzia bat gauzatzeko beste objektu jakin bati buruz. Baina *emana zaidan* distantzia da. Begiratua naizenez gero, ez dut nik distantzia zabaltzen, distantzia *zeharkatzera* mugatzen naiz. Bestearen begiradak espazialtasuna ematen dit. Nire burua begiratutzat hartzea zera da, espazioaren-zabaltzaile-espazioan-kokatutzat hartzea.

Baina Bestearen begirada ez da hartzen espazioaren zabaltzailatzat bakarrik, *denboraren zabaltzailea* ere bada. Bestearen begirada “Erlebnis” baten modura agertzen zait, bakartasunean ezin nezakeena printzipioz atzeman: aldiberekotasunarena. Bere baitarako bakar batentzat litzatekeen mundu batek ezingo luke eduki aldiberekotasunik, baizik eta kopresentziak bakarrik, ezen bere baitarakoa beregandik kanpo galtzen baita munduan zehar eta bere presentzia bakarraren batasunaz lotzen baititu izate guztiak. Aldiberekotasunak, ordea, denborazko lotura bat eskatzen du beste ezerk lotzen ez dituen bi izatedunena. Bi izatedun elkarri ekintza bat egiten diotenak ez dira aldiberekoak, hain zuzen ere, sistema berari dagozkiolako. Aldiberekotasuna ez da, beraz, munduko izatedunena: eskatzen du munduko bi presenteren kopresentzia *presentziak-zerari* bezala ulertuak. Aldiberekoa da Pierreren presentzia munduari eta nirea. Zentzu horretan, aldiberekotasunaren oinarrizko fenomeno zera da, edalontzi hori Paulentzat izatea niretzat den *une berean*. Horrek eskatzen du, beraz, aldiberekotasun ororen fundatzea, berau ezinbestez bere denbora zabaltzen duen Beste baten presentzia izan behar dena, hain justu, nire denboraren zabaltzean bertan. Baina, hain zuzen ere, Besteak bere denbora zabaltzen *duenez* gero, berarekin batera zabaltzen *nau* denboran; eta bere denbora propiorantz jotzen duelarik, denbora unibertsean agertzen natzaio. *Bestearen begiradak*, nik atzematen dudanean, *nire* denborari dimentsio berri bat ematen dio. Besteak nire presentzia *nirea* den presentetzat jotzen duenez, nire presentziak kanpoalde bat hartzen du. Baina presentzia hori, *niri* presente egiten zaidana, niretzat alienatu egiten da: nire presentzia orduan Bestea presente egiten zaion presentea da. Eta ni presente unibertsean jaurtia naiz, Bestea nire presentziatzat bihurtzen den heinean. Haatik, lekua hartzera natorren presente unibertseala nire presente unibertsealaren alienazio hutsa da, denbora fisikoa isuri egiten da denboraren zabaltze

soil eta libre baterantz, eta ni ez naizena. [326] Bizi dudan aldiberekotasunaren muga nabarmentzen dena denboraren zabaltze absolutu bat da, beretik ezerez batek bereizten nauena.

Munduko espazio-denborazko objektu gisa, munduko espazio-denborazko situazio baten funtsezko egitura gisa, nire burua Bestearen ikuspegiaren menpe uzten dut. Eta hori ere *cogitoa* dela bitarte atzematen dut: begiratu izatea da norbere burua atzematea ikuspegi ezagutezinen objektu ezezagun gisa, bereziki baliozko ikuspegiena. Baina ikuspegi horiek, hain zuzen, lotsaren eta harrotasunaren bidez beraien sendotasuna onartzen dudanarekin batera, diren horixe izaten jarraitzen dute niretzat: transzenditze libre bat emana den horretatik bere posibilitateetarantz. Juzgu bat izate libre baten ekintza transzendentala da. Hala, ikusia izateak bihurtzen nau defentsarik gabeko izate bat nirea ez den askatasun batentzat. Zentzu horretan kontsidera gaitezke “esklabo”, hau da, Besteari agertzen gatzaizkion heinean. Baina esklabotasun hori ez da emaitza bat –historikoa eta gaindi daitekeena– kontzientziaren *bizitza* batena bere forma abstraktuan. Ni esklaboa naiz, nire izatean nirea ez den askatasun baten menpekoa naizelako eta berau nire izatearen baldintza bera delako. Kalifikatzera datozkidan balioen objektu naizelarik eta ezin dudalarik kalifikazio horretan eragin, ezta ezagutu ere, horregatik, bada, ni esklabotzan nago. Era berean, nireak ez diren posibilitateen bitartekoa naizelarik, non eta sumatu besterik ez baitut egiten euren presentzia nire izateaz harago, non eta nire transzendentzia ukatzen baitute ni bitarteko gisa eratuz ezagutzen ez ditudan jomugetarantz, horregatik, bada, *arriskuan* nago. Eta arrisku hori ez da istripu bat, baizik eta nire Bestearentzako-izatearen oinarritzko egitura.

Horrek deskribapen honen amaierara garamatza. Gogoan izan behar da, lehenik, Bestea ezagutzera emateko erabili ahal izan baino lehen, *osorik cogitoaren mailan burutua* izan dela. Zehaztu besterik ez dugu egin Bestearen begiradari buruzko erreakzio subjektibo horien zentzua, alegia, beldurra (arriskuan egotearen sentimendua Bestearen askatasunaren aurrean), harrotasuna edota lotsa (azkenik naizena izatearen sentimendua, baina urrun, hor nonbait Bestearentzat), eta nire esklabotasunaren onarpena (nire posibilitate guztien alienazioaren sentimendua). Baina zehaztapen hori ez da inola ere ilunak eta ez hain ilunak diratekeen *ezagutzen* finkatze kontzeptuala. Norberak bere esperientziara jo dezala: ez da inor ez dena noizbait atzemana izan jarrera errudunean

edo, besterik gabe, barregarrian. Orduan jasaten dugun berehalako aldaketa ez du ezagutza baten irrupzioak eragiten, inondik ere ez. Hori gehiago dagokio berez nire bat-bateko solidotze eta estratifikatze bati, bere horretan uzten dituen "nire baitarako" nire posibilitateak eta egiturak, baina deblauki bultzatzen nauena [327] existentziaren dimentsio berri batera: *ez agerikoaren* dimentsiora. Horrela, begiradaren agerpena atzematen dut izatezko erlazio ek-statiko baten sortzea bezala, non terminoetako bat ni naizen, hau da, bera ez dena den eta bera dena ez den bere baitarako hori; eta non beste terminoa ere ni naizen, baina nire eskumenetik at, nire ekintzatik at, nire ezagutzatik at. Eta termino hori, hain zuzen, libre den Beste baten posibilitate infinituekin erlazioan dagoenez, propietate ez agerikoen sintesi agortezina eta infinitua da berez. Bestearen begiradaz, nire buruari *bizi* natzaio munduaren barruan finkatuta bezala, arriskuan bezala, erremediorik gabe bezala. Baina *ez dakit ez zein* naizen, *ez zein* den nire lekua munduan, ez ni nagoen mundu horren zein alde biratzen duen Bestearengana.

Horrezkero, Bestearen sortze horren zentzua zehatz dezakegu bere begiradan eta bere begiradaz. Bestea ez zaigu inola ere objektutzat ematen. Bestearen objektibatzeak bere begirada-izatearen suntsitzea ekarriko luke. Gainera, ikusi dugunez, Bestearen begirada bere *begien* desagerpena bera da begirada adierazten duten objektu modura. Besteak ezingo luke ere objektu bat izan nire Bestearentzako izatearen mugan oharkabez atzeman nezana. Bestearen objektibatzea, ikusiko dugun bezala, nire izatearen defentsa bat da, hain zuzen ere, nire Bestearentzako izateaz askatzen nauena Bestea *niretzako* izate bat bihurtzen duen heinean. Begiradaren fenomenoan, Bestea da printzipioz objektu izan ezin duena. Ikus dezakegu, era berean, ezingo lukeela izan nire eta nire buruaren arteko erlazioaren *mugetako* bat ni *ez ageriko* gisa sortuko nindukeena nire baitarako. Besteak ezingo luke ere izan nire *arretak* atzema: baldin eta Bestearen begirada sortzean begiradari edo Besteari *erreparatuko banio*, derrigorrez *objektutzat* hartu beharko nuke, arreta norabide intentzionala baita objektuetarantz. Baina ez litzateke hortik ondorioztatu beharko Bestea baldintza abstraktua edo erlazio ek-statikoaren egitura kontzeptuala denik: izan ere, hor ez dago egiazki pentsatutako objekturik bera horren egitura unibertsal eta formal bat izan litekeenik. Bestea, jakina, nire izate-ez-agerikoaren baldintza da izatez, baina baldintza konkretua eta indibiduala. Ez dago engaiatua nire munduan-izatean, bertako osagarri bat bezala, izan ere, bera da



transzenditzen duena mundu hori ni barruan nagoena ez-ageriko gisa. Modu horretan, bada, ezingo luke ez objektu izan eta ezta objektu baten elementu formal eta eratzaille ere. Eta ezin zait agertu, ikusi dugunez, nire esperientziaren kategoria bateratzaile eta erregulatzaille bezala, ni topatuz bezala baitatorkit. Zer da, orduan?

Lehenik eta behin, beragana arretarik biratzen ez dudan izatea da, begiratzen didana eta nik oraindik begiratzen ez dudana, [328] ni *ez-ageriko* gisa uzten nauena baina bera ere agertu gabe, presente egiten zaidana berak begiratzen didalarik eta ez begiratu delarik. Nire ihesaren muga konkretua da eta eskumenetik kanpo dagoena, nire posibleen alienazioarena eta munduaren isurtzearena beste mundu baterantz, *berbera* izanagatik mundu horrekin komunikaezina dena. Baina ezingo luke izan delako alienazio eta isurtze horren desberdina, horren berorren zentzua eta norabidea baita. Berak habitatu egiten du isurtze hori, baina ez *egiazko* edo *kategoriazko* elementu bat bezala, baizik eta finkatzen den eta mundutar egiten den presentzia bat bezala bera “presente egiten” saiatzen baldin banaiz, eta ez dena inoiz hain presente eta hain larri bihurtzen erreparatzen ez diodanean baino. Baldin eta osorik errenditzen banatzaio nire lotsari, adibidez, Bestea da lotsa hori eusten duen presentzia itzela eta ikusezina, eta alde orotatik besarkatzen duena, nire izate-ez-agerikoaren euskarri-eremua bera. Ikus dezagun zer agertzen den Besteaz *ageri ezin* nik bizitutako ez-ageriko esperientziaren bitartez.

Hasteko, *Bestearen begirada*, beharrezko baldintza dena nire objektibotasunarentzat, niretzat objektibotasun ororen suntsipena da. Bestearen begiradak munduaren barruan harrapatzen nau, eta ez da bakarrik nire transformazioa, baizik eta *munduaren* erabateko metamorfosia. Begiratu naiz mundu begiratu batean. Bereziki, Bestearen begiradak, berau begirada-begiratzaillea eta ez begirada-begiratu, ukatu egiten ditu nire distantziak objektuekin eta bere distantzia propioak zabaltzen ditu. Bestearen begirada hori bat-batean agertzen da distantzia mundura datorreneko zera bezala, distantziarik gabeko presentzia baten baitan. Atzera egin dut, nire munduarekiko presentzia distantzia gabeaz gabetuta nago eta Bestearekiko distantzia batez hornituta: horra atetik hamabost pausora nagoela, leihotik sei metrora. Baina Bestea bila datorkit berarekiko distantzia jakin batera eratzeko. Besteak eratzen nauenez berarekiko sei metrora, bera niri distantziarik

gabe egiten zait presente. Horrela, gauzekiko eta Bestearekiko nire distantziaren esperientzian bertan, Bestearen presentzia distantziarik gabea bizi dut.

Norberak igarriko du, deskripzio abstraktu horretan, Bestearen begiradaren presentzia bat-bateko eta kiskalgarri hori sarritan lotsaz bete duena. Bestela esateko, nire burua begiratutzat hartzen dudanean, nigan Bestearen presentzia munduarterkoa gertatzen da. Besteak ez dit begiratzen *nire* munduaren “barruan” dagoelako, baizik eta mundurantz eta niganantz bere transzendentzia osoarekin datorrelako, eta ez duelako nigandik ez inongo distantziak bereizten, ez munduko inongo objektuk, erreal zein ideal, ez munduko inongo gorputzek, ezpada bere Bestetasunak. Horrela, Bestearen begirada agertzea ez da agertze bat *munduan* gertatzen dena, ez “nirean” ez “Bestearenean”. Bestearekin lotzen nauen erlazioak ezin du izan kanpoko erlazio bat munduaren barruan. [329] Bestearen begiradaz, aitzitik, konkretuki jabetzen naiz munduaz haragokorik badagoela. Bestea presente zait inongo bitartekaririk gabe, *nirea ez den* transzendentzia bat bezala. Baina presentzia hori ez da elkarrekikoa: munduko lodiera osoa behar da, ni ere aldi berean Besteari presente izateko. Transzendentzia nonahikoa eta atzemanezina da, eta bitartekorik gabe nigan kokatua ni nire izate ez-agerikoa naizen heinean; izatearen infinitutasunak bereizten du nigandik, bere distantziak eta tresnak dituen mundu batera jaurtitzen nauen heinean: horrelakoxea da Bestearen begirada lehenik begirada modura bizi dudanean.

Baina, horrez gain, nire posibilitateak finkatzen dituelarik, Besteak agerrarazten dit nik objektu izateko dudan ezintasuna, ezpada beste askatasun batentzat. Nik orduan ezin dut niretzat objektu izan, objektu gisa ni neu naizena bainaiz. Bere baliabideen menpe utzia, bikoizteko ahalegin erreflexiboak porrot egiten du, eta ni betiro naiz neronek berriz atzemana. Eta inuzenteki adierazten badut posible dela ni izate objektibo bat izatea ohartu ere egin gabe, horrekin inplizituki Bestearen existentzia ari naiz suposatzen: bada, nola izan ninteke objektu subjektu batentzat ez bada? Beraz, Bestea, lehenik, ni objektu naizeneko izatea da niretzat, alegia, nire objektutasuna *beraren bitartez* jasotzen dut. Nire ezaugarrietako bakar bat modu objektiboan ulertu ahal izango badut, Bestea jadanik emana den seinale. Baina ez da emana nire unibertsozko izate gisa, baizik eta subjektu huts gisa. Horrela, subjektu huts hori, *ezagutu* ezin dudana definizioz, hau da, ezin dudana objektutzat jo, beti dago *hor*, nire eskumenetik at eta distantziarik gabe,

nire burua objektutzat hartzen saiatzen naizenean. Eta begiradaren esperientzian, nire burua objektutasun ez agerikotzat bizi dudanean, zuzenean eta nire izatearekin jasotzen dut Bestearen subjektutasun atzemanezina.

Orduan, Bestearen askatasun mugagabea sentitzen dut. Izan ere, nire posibleak askatasun batek bakarrik muga eta finka ditzake, eta askatasun batentzat bakarrik muga eta finka daitezke. Traba material batek ezingo lituzke nire posibilitateak finkatu, niretzat hori ez baita beste posibilitate batzuetara proiektatzeko aukera besterik, eta ezingo lieke *kanpoalderik* ezarri. Ez da gauza bera etxean geratzea euria ari duelako eta etxean geratzea debekatu zaizulako. Lehenengo kasuan, behartu egiten naiz ni neu geratzera, nire ekintzen ondorioak hartzen ditut kontuan; “euri” traba niganantz transzenditu eta tresna bihurtzen dut. Bigarren kasuan, ateratzeko eta geratzeko nire posibilitate horiek gainditutzat eta finkatutzat aurkezten zaizkit, eta askatasun batek aurreikusten eta mugatzen ditu aldi berean. Ez da kapritxo kontua sarritan egiten badugu naturalki eta gogo onez zerbait Beste batek hala eskatuz gero haserretuko ligukeena. Azken batean, aginduek eta debekuek Bestearen askatasuna bizitzea eskatzen digute [330] gure esklabotza bera bitarte. Horrela, begiradan, nire posibilitateen suntsipenak Bestearen askatasuna biziartzten dit eta askatasun horren baitan bakarrik gertatzen da; eta ni, neuk atzeman ezin eta haatik neu naizen hori, jaurtia eta utzia naiz Bestearen askatasunaren barruan. Bizipen horri lotuta, ni denbora unibertsalari banagokio, hori gertatzen da denbora-zabaltze autonomo baten barruan eta bati esker: bakarrik jaurti nazake denboran denborazkotasuna zabaltzen duen bere baitarako batek.

Horrela, begiradaz, Bestea subjektu libretzat eta kontzientetzat bizi dut konkretuki, bere posibilitate propioetarantz denbora zabaldu eta mundu bat egotea ahalbidetzen duen subjektutzat. Eta subjektu horren bitartekorik gabeko presentzia beharrezko baldintza da niri buruz eratzen dudana zeinahi pentsamendurena. Bestea zera da, beragandik ezerk bereizten ez nauen *ni neu* hori, ez bada bere askatasun erabatekoak eta osoak, alegia, berez eta bere baitarako, berak bakarrik izateko daukan bere indeterminazio horrek.

Beharrezkoa badakigu jada zentzutasunak argudio solipsistari beti oposatu izan dizkion aurkakotasun apurtezin horiek azaltzen hasteko. Aurkakotasun horien oinarria da, hain zuzen, Bestea presentzia konkretu eta ziur gisa ematen zaidala ezin dudana inola ere

nigandik ondorioztatu eta ezin dena inola ere zalantzatan ipini eta ezta bihurtu ere erredukzio fenomenologikoaren zein beste “ἐποχή” baten objektu.

Begiratzen badidate, objektu *izatearen* kontzientzia hartzen dut, jakina. Baina kontzientzia hori bakarrik gertatzen da Bestearen existentzian eta existentziaz. Horretan Hegelek arrazoi zuen. Ordea, *beste* kontzientzia hori eta *beste* askatasun hori niretzat ez dira inoiz *emanak*, ezen emanak baldin balira ezagunak bailirateke, beraz objektu, eta orduan nik objektu izateari utziko nioke. Ezin ondoriozta nezake ere kontzeptua edo irudikapena nire funtsetik. Lehenik eta behin, ez ditudalako nik “sortzen” eta “irudikatzen”: horrelako espresioek “ezagutu” eremura ginderamatzakete berriro, eta hori printzipioz jokoz kanpo geratu da. Baina, gainera, nire kabuz burutzen dudana askatasun-bizipen konkretu oro *nire* askatasunaren bizipena da, kontzientziaren jabetze konkretu oro *nire* kontzientzia(ren) kontzientzia da; “kontzientzia” adigaiak berak *nire* kontzientzia posibleetara igorri besterik ez du egiten. Izan ere, hitzurrean ezarri dugun bezala, askatasunaren eta kontzientziaren *existentzia* aurretik doa eta baldintzatzen du bere esentzia; eta, ondorioz, esentzia horiek *nire* kontzientziaren eta *nire* askatasunaren adibide konkretuak besterik ezin dituzte barne hartu. Hirugarrenik, Bestearen kontzientzia eta askatasuna ezin daitezke izan nire irudikapenen batasunerako balio duten kategoriak. Jakina, Husserlek erakutsi duenez, [331] “nire” munduaren egitura ontologikoak eskatzen du mundu hori *Bestearentzako mundu* ere izatea. Baina Besteak *nire* munduko objektuei objektibotasun-mota jakin bat aitortzen dien heinean, horrek adierazten du bera jada mundu horretan dagoela objektu gisa. Egia bada Pierrek, nire aurrean irakurtzen, objektibotasun partikular bat ematen diola bere aldera biratzen den liburu-azalari, printzipioz nik ere ikus dezakedan liburu-azal bat da (nahiz eta ihes egiten didan, ikusi dugun bezala, hain zuzen, berak irakurria den neurrian), ni nagoen munduari dagokiona eta, horrenbestez, Pierre-objektuekin uztartzen dena distantziaz harago eta lotura magiko batez. Baldintza horiekin, zalantzarik gabe, bestetasunaren kontzeptua forma hutsa balitz bezala finka daiteke eta uneoro erabili objektibotasunaren sendotze modura nirea den munduarentzat. Alabaina, bere begirada-begiratzailan, Bestearen presentziak nekez lagun dezake mundua sendotzen; alderantziz, mundukoa izateari uzten dio, niri munduak ihes egitea baitakar. Niri munduak ihes egiteak, ihesa *erlatiboa* denean eta objektu-Besterantz gertatzen denean, objektibotasuna indartzen du;

baina niri munduak ez ezik neuk ere ihes egiteak, ihesa absolutua denean eta nirea ez den askatasun baterantz gertatzen denean, nire ezagutzaren disoluzioa ekartzen du: mundua desintegratu egiten da ostera ere harago munduan integratzeko, baina desintegratze hori ez da emana, ezin dut ez ezagutu ezta pentsatu ere egin. Beste-begiradaren presentzia ez da, beraz, ezagutza bat, ez da nire izatearen luzapen bat, ez da batasunezko forma bat edo kategoria bat. Besterik gabe *da* eta ezin dut nigandik ondorioztatu.

Bestalde, ezingo nuke ἐποχή fenomenologikoaren menpe ezarri, horrek mundua parentesien artean jartzea baitu xede, kontzientzia transzendentala bere errealtate absolutuan deskubritzeko. Operazio hori orokorrean posible den edo ez esatea ez dagokigu orain. Baina, hizpide dugun kasuan, *Bestea* ezingo luke jokoz kanpo utzi, zeren begirada-begiratzaille delarik, *Bestea* ez baitagokio munduari. Ni lotsa naiz *nirekin Bestearen aurrean*, genioen [ikus *EN: “3.1.1.” atala*]. Erredukzio fenomenologikoak lotsaren objektua jokoz kanpo uztea izan behar du ondorio, lotsa bera hobeto agerrarazteko, bere subjektibotasun absolutuan. Baina *Bestea* ez da lotsaren *objektua*: lotsaren objektua da nire ekintza eta nire situazioa munduan. Horiek bakarrik “erreduzi” daitezke, azken batean. *Bestea* izatez ez da nire lotsaren baldintza objektibo bat ere. Eta, haatik, lotsaren izatea balitz bezalakoxea da. Lotsa *Bestearen* agerpena da, baina ez kontzientzia batek objektu bat agerrarazten duen modura, baizik eta kontzientziaren une batek zeharka beste une bat inplikatzeko duen modura, bere motibazioa balitz bezala. Kontzientzia purua atzeman bagenu ere *cogitoaz*, [332] eta kontzientzia puru hori lotsa (izatearen) kontzientzia hutsa balitz ere, oraindik ere *Bestearen* kontzientziak habitatu luke, presentzia atzeman bezala, eta ihes egingo lioke zeinahi erredukziori. Horrek garbi erakusten digu *Bestea* ez dela lehenik munduan bilatu behar, baizik eta kontzientziaren ondoan, kontzientzia bat bezala zeinetan eta zeinagatik kontzientzia, bada, bera den hori bihurtzen den. *Cogitoak* eutsia den nire kontzientziak bere buruaz eta existentziaz lekukotasun zalantzarik gabea ematen duen bezala, zenbait kontzientzia partikularrek ere, “lotsa-kontzientziak” esaterako, *cogitoari* lekukotasun zalantzarik gabea ematen dio bere buruaz eta *Bestearen* existentziaz.

Eta zera pentsa daiteke, ez ote da izango *Bestearen* begirada nire-baitarako-objektibotasunaren *zentzua* dela? Ildo horretatik solipsismoan eroriko ginateke berriro:

nire irudikapenen sistema konkretuan objektu gisa integratuko nintzatekeenean, objektibatze horren zentzua nigandik kanpo proiektatuko litzateke eta *Beste* bezala hipostasiatuko litzateke.

Baina zera hartu behar da kontuan:

1) Niretzako objektutasuna ez da inola ere Hegelen “Ich bin ich”-en zehaztapena. Ez da inola ere identitate formal bat; sakonean desberdinak dira nire objektu-izatea edo nire Bestearentzako izatea eta nire baitarako izatea. Izan ere, “objektutasun” adigaiak, lehenengo atalean [ikus *EN*: “Lehen atala”] azpimarratu dugunez, ezeztapen esplizitua eskatzen du. Objektua da nire kontzientzia ez dena eta, horrenbestez, kontzientziaren ezaugarriak ez dituen, ezen niretzat kontzientziaren ezaugarriak dituen izatedun bakarra *nirea* den kontzientzia baita. Horrela, nire-baitarako-ni-objektua ni bat da baina *ez dena* ni, hau da, ez dituen kontzientziaren ezaugarriak. Hori kontzientzia *degradatua* da; objektibatzea oinarrizko metamorfosia da, eta nire burua argi eta garbi atzeman ahalko banu ere objektutzat, ikusiko nukeen hori ez litzateke izango irudikapen zuzen bat nire baitan eta nire baitarako naizenarena, edo Malrauxek aipatzen duen “munstro paregabe eta edozer baino nahiago” horrena, baizik eta Bestearentzat naizen nire nigandik-kanpo-izatearen atzematea, alegia, nire Beste-izatea objektiboki atzematea, berau nire baitarako izatearen desberdina errotik eta beragana igortzen ez duena.

Nire burua *gaiztotzat* hartzeak, adibidez, ezingo lioke erreferentziarik egin nire baitarako naizenari, ez bainaiz eta ezin bainaiz izan niretzat gaizto. Hasteko, ni ez naizelako niretzat gaiztoagoa, funtzionarioa edota sendagilea naizena baino; nire izateko modua zera baita: ez naiz naizena eta banaiz ez naizena. Gaizto modura kalifikatzeak, ordea, *bere baitako* gisa ezaugarritzen nau. Gainera, nire baitarako *izan* beharko banu gaizto, *izateko-eduki* moduan izan beharko nukeelako, [333] alegia, nire burua gaiztotzat hartu eta gaizto nahi izan beharko nukeelako. Baina horrek adieraziko luke nire Ongiaren kontrakoa agertzen zaidana nahi izaten azaldu behar naizela, eta hori Gaizkia edo nire Ongiaren kontrakoa den heinean, hain zuzen ere. Beraz, espresuki nahi izan behar dut une berean eta maila berean nahi dudanaren kontrakoa, alegia, nire burua gorrotatu, hain zuzen, ni neu naizen heinean. Eta bere baitarakoaren esparruan gaiztotasunaren esentzia hori bete-betean gauzatzeko, nire burua gaiztotzat jo beharko

nuke, hots, nire burua onartu, ni neu gaitzetsarazten nauen ekintza berberaz. Bistakoa da gaiztotasunaren nozio horrek ezin duela bere oinarria nigandik atera ni, hain justu, ni neu naizen heinean. Eta alferrik eramango dut muturreraino ek-stasia, edo nire-baitarako gisa eratzen nauen nigandiko deserrotzea; ezingo diot nire buruari gaiztotasuna aitortu eta ezta niretzat pentsatu ere, nire baliabideetara mugatuta egonik.

Azken batean, ni *naiz* nigandiko deserrotzea, ni *naiz* nire ezereza bera. Nahikoa da nire eta nire buruaren artean neu izatea nire bitartekari propioa, objektibotasun oro desagertzeko. Nik ezin dut *izan* ni-objektutik bereizten nauen ezerez hori, ezen ni naizen objektuaren *presentazioa* gertatu behar baita. Horregatik, ezin diot nire buruari ezaugarririk aitortu ez bada ahalmen objektibatzaile baten bitartekotzaz, baina ez dena nire ahalmen propioa eta ezin dudana nik simulatu eta sortu. Zalantzarik gabe, auzia ez da gaurkoa: aspalditik esan da Besteak irakasten didala nor naizen. Baina tesi hori defendatzen zutenek modu berean baieztatzen zuten Bestearen kontzeptua nigandik ateratzen dudala, nire ahalmenei buruzko hausnarketaz eta proiektzioz edota analogiaz. Gurpil zoro baten erdian gelditzen ziren, ezin irten. Azken batean, Bestea ezin da izan nire objektibotasunaren zentzua, Bestea objektibotasun horren baldintza konkretua eta transzendentea baita. Jakina, “gaizto”, “jeloskor”, “jator”, “betilun” eta tankera horretako ezaugarriak ez dira ameskeria soilak: Bestea ezaugarritzeko erabiltzen ditudanean, garbi ikusten dut bere izatearen muinera heldu nahi dudala. Ordea, ezin bizi ditzaket nire errealitate propiotzat: Besteak aitortzen dizkidalarik, ez dira niretzat naizenaren kontrakoak; Besteak nire nortasunaren deskribapen bat egiten ditanean, ni ez naiz deskribapen horretan “ikusten” eta, halere, badakit “ni naizela”. Aurkeztu didaten arrotz hori berehala asumitu dut, berak arrotza izateari utzi gabe. Eta hori ez da nire irudikapen subjektiboen bateratze soila, ezta ni naizen “Ni” bat ere “Ich bin Ich” horren ildotik, ezta Besteak nitaz egiten duen irudi lauso bat ere non berak ardura osoa lukeen. Ni hori, ezin dena alderatu nik izateko dudan niarekin, ni naiz, baina inguru berri batek aldatua eta egokitua. [334] Izate bat da, *nire* izatea, baina izatearen dimentsio eta modalitate erabat berriekin. Ni naiz, baina nigandik ezerez gaindiezin batek bereizia, ni hori ni neu *bainaiz*, baina ez nigandik bereizten nauen ezerez hori. Azken ek-stasi bati esker naizen nia naiz, nire *ek-stasi* guztiak transzenditzen dituen, zeren ez baita nik izateko dudana. Bestearentzako nire izatea jauzi bat da huts

absolututik zehar objektibotasunerantz. Eta jauzi hori *alienazioa* denez, ni ezin naiz bihurtu nire baitarako objektu, nik ezin baitut inola ere nire burua alienatu.

2) Besteak ez nau eratzen, bestalde, niretzako objektu gisa, baizik eta *berarentzat*. Bestela esateko, berak ez du balio nik nitaz dituzkedan *ezagutzen* kontzeptu erregulatzailerik edo eratzailerik gisa. Bestearen presentziak ez du, beraz, ni-objektua “agerrarazten”: atzematen dudana bakarrik zera da, nigan inoranzko ihesa. Hizkuntzak salatu dukeenean ere Besteak gaiztotzat eta jeloskortzat naukela, ezingo dut inoiz izan nire gaiztotasun eta jeloskortasunaren intuizio konkreturik. Nozio iheskorak baino ez dira izango beti, ihes egiteko izaera izango dutenak: ez dut nire gaiztotasuna atzemango ez bada ekintza horren edo haren baitan, ihes egingo diot nire buruari, sentituko dut nire alienazioa eta nire isurtzea izate baterantz alferrik baino ez dudana gaiztotzat hartu ahalko eta, haatik, banaizela *sentituko* dudana eta distantziara biziko dudana, lotsa edota beldurra dela bitarte.

Horrela, nire ni-objektua ez da ez ezagutza ez ezagutza-unitate, atsekabe baizik, bere baitarakoaren unitate ek-statikoan bizitutako deserrotzea, lortu ezin dudana limitea eta, haatik, banaizena. Eta Bestea, zeinagatik ni hori *datorkidan*, ez da ez ezagutza ez kategoria, baizik eta askatasun arrotz baten presentziaren *egitatea*. Azken buruan, bat egiten dute nire deserrotzeak eta Bestearen askatasuna sortzeak, batera baino ezin ditut sentitu eta bizi, bata bestea gabe ulertzen ere alferrik saiatuko naiz. Bestearen auzia saihestezina da eta bete-betean harrapatzen nau. *Atsekabearen* bidez atzematen dut. Beragatik etengabe nago arriskuan mundu batean, mundu *horretan*, baina nik ezin dut eduki mundu horren susmoa besterik. Eta Bestea ez zait agertzen izate bat bezala lehenik eratu dena ondoren ni topatzeko, baizik eta izate bat bezala nirekin batera sortzen dena, izatezko harreman jatorrizko batean, non eta bere zalantzagabetasuna eta *beharrezkotasuna* nire kontzientziarenak berberak diren.

Baina oztopo ugari dago oraindik. Bereziki, lotsaren bitartez, presentzia zalantzagabea aitortzen diogu Besteari. Baina, ikusi dugunez, *probablea* baino ez da Besteak niri begiratzea. Baserri hori mendi-kaskoan, miliziako soldaduei begira *dirudiena*, [335] ziurra da etsaiak okupatu duela, baina ez da ziurra soldadu etsaiek une honetan leihotatik zelatatzea. Gizon horrek, bere oin-hotsa entzun baitut atzean, ez da ziurra



berak niri begiratzea, aurpegia biratuta eduki dezake, eta begirada lurrean edo liburu batean finkatuta; eta azkenik, modu orokor batean, nigan finkatuta dauden begiak, ez da ziurra begiak izatea, izan daitezke benetako begien “antzera eginak”. Hitz batean esateko, begirada ez al da orduan *probable* bihurtzen uneoro begiratua senti naitekeenez gero, hala izan gabe? Eta Bestearen existentziaz dugun ziurtasun osoak ez al du hartzen, horrenbestez, tankera hipotetiko hutsa?

Oztopoa termino hauetan enuntzia daiteke: begirada bat adierazten dutela iruditzen zaidan munduko hainbat agerpen dela bitarte, nigan nolabaiteko “begiratu-izate” bat atzematen dut, bere egitura propioak dituen eta Bestearen existentzia errealera naramana. Baina litekeena da nahasi izana. Agian begizat nituen munduko objektu horiek ez ziren begiak, agian haizeak bakarrik astintzen zuen zuhaixka nire atzean; hitz batean esateko, agian objektu konkretu horiek ez zuten *erreal*ki adierazten begirada bat. Zertan geratzen da kasu horretan nire *begiratua izatearen* ziurtasuna? Nire lotsa zera zen, hain zuzen ere, *lotsa norbaiten aurrean*. Baina hor ez dago inor. Horrenbestez, *lotsa inoren aurrean* ez al da bihurtzen lotsa *faltsua*, inor ez zegoen tokian lotsak norbait ezarri duenez gero?

Oztopo horrek ezin gaitzake luzaro eragotzi, eta ez genuen aipatuko ez balu gure ikerketan aurrera egiteko eta gure Bestearentzako izatearen izaera zehatzago mugatzeko abantaila. Bada, hor nahasten dira bi ezagutza-arlo desberdin eta bi izate-mota parekaezin. Betidanik jakin dugu munduko-objektua probablea bakarrik izan zitekeela; hori bere objektuzko izaeratik dator. Probablea da oinezkoa gizaki bat izatea; eta nigana biratzen baditu begiak, une horretan *begiratua-izatearen* ziurtasuna sentitu arren, ezin dut eraman ziurtasun hori nire Beste-objektuaren esperientziara. Agerrarazten didan bakarra, izan ere, Beste-subjektua da, hots, mundua transzenditzen duen presentzia eta nire objektu-izatearen baldintza erreal. Nolanahi ere, Beste-subjektuaren izateaz dudan ziurtasuna ezin zaio egotzi ziurtasun horren abiapuntua izan den Beste-objektuari. Eta alderantziz, ezin da gezurtatu Beste-subjektua agertzearen ebidentzia Beste-objektuaren probabilitatezko izaeratik. Areago, *begirada* agertzen da, erakutsi dugunez, begirada agerian jartzen duen objektuaren suntsipenezko planoan. Nigana jauzika datorren oinezko gizen eta itsusi horrek begiratzen badit, akabo bere itsustasuna, [336] bere loditasuna eta bere jauziak: begiratua sentitzen naizen denbora-tartean, bera askatasun

bitartekari hutsa da ni eta nire buruaren artean. Izate begiratu ez daiteke izan begirada agerian jartzen duen objektuaren *menpeko*. Eta erreflexiboki atzeman daitekeen “Erlebnis” izaki, nire lotsak Bestearen lekukotza ematen duenez lotsa berarena bezainbat, ez dut kolokan jarriko printzipioz zalantzan jar daitekeen munduko objektu baten kariatz. Berdina litzateke, orduan, nire existentzia propioa zalantzan jartzea, nire gorputzaz ditudan pertzepzioak (nire eskua ikusten dudanean, esaterako) erra daitezkeelako. Beraz, baldin eta *izate-begiratu* ez badago, bere erabateko purutasunean nabarmen, *Bestearen gorputzari* lotuta, nire kontzientzia-izatearen kontzientzia *nire gorputzari berari* lotuta dagoen bezalaxe *cogitoaren* gauzatze puruan, orduan, kontsideratu behar da nire esperientzia-eremuan hainbat objektu agertzea, bereziki Bestearen begiek nigana egitea, *monizio* hutsa bezala, alegia, nire *begiratu-izatea* gauzatzeko aukera hutsa bezala, Platonentzat zentzumenen munduko kontradikzioak konbertsio filosofiko bat burutzeko aukera diren bezala. Hitz batean esateko, ziurra dena da *ni begiratu naizela* eta probablea baino ez dena, ordea, begirada lotuta egotea munduarterko presentzia horri edo hari. Dena den, horrek ez gaitu zertan harritu, ezen, ikusi dugunez, inoiz ez baitira *begiak* begiratzen digutenak, baizik eta Bestea, subjektu gisa.

Baina gerta daiteke, pentsatuko du zenbaitek, tronpatu naizela deskubri dezakedala: hara non nagoen sarraila-zuloan makurtuta; bat-batean oin-hotsak entzun ditut. Lotsa-hotzikara batek bildu nau: norbaitek ikusi nau. Zutitu naiz, begiekin zeharkatu dut korridore hutsa: alerta faltsua zen. Arnasa hartu dut. Hor ez da egon esperientzia bat bera bakarrik suntsitu dena?

Gertuagotik begira diezaiozun horri. Errakuntza bezala agertu dena nire Bestearentzako izate-objektiboa da? Inola ere ez. Hain dago urrun Bestearen existentzia zalantzan jartzea, ezen alerta faltsu horrek nire egitasmoa bertan behera uzteko ondorioa izan baitezake. Eta existentzia horri eusten badiot, aldiz, bihotza taupaka sentituko dut eta adi egongo natzaio soinu txikienari eta eskailera-maila bakoitzaren kraska txikienari. Nire lehen alertarekin Bestea desagertu ez baizik, areago, nonahi dago orain, nire azpian, nire gainean, ondoko geletan, eta jarraitzen dut sakonki sentitzen nire Bestearentzako izatea. Eta litekeena da nire lotsa ez desagertzea: musugorri makurtu naiz orain sarrailara, etengabe *bizi* dut nire Bestearentzako izatea; nire posibilitateak

etengabe “hiltzen” dira eta distantziak etengabe zabaltzen dira niganor bait egon “litekeen” eskaileretatik, [337] giza presentzia bat ezkuta “litekeen” zoko ilun horretatik. Areago, ikaratzen banaiz soinu txikienarekin, kraska bakoitzak begirada bat iragartzen badit, izate-begiratuaren egoeran nagoen seinale. Zer da funtsean, beraz, gezurretan agertu dena eta suntsitu egin dena alerta faltsu horretan? Ez da ez Beste-subjektua eta ezta bere niganako presentzia ere: Bestearen *faktikotasuna* da, alegia, Bestearen lotura kontingentea izate-objektu batekin *nire* munduan. Orduan, zalantzagarrria dena berez ez da Bestea, baizik eta Bestearen *hor-egotea*, hau da, gertakizun historiko eta konkretu hori horrelaxe adieraz dezakeguna: “Norbait dago gela horretan”.

Ohar horiek urrunago eramango gaituzte. Zera, Bestearen presentzia munduan ezin ondoriozta daiteke analitikoki Beste-subjektuaren niganako presentziatik, jatorrizko presentzia hori transzendentea baita, hau da, munduaz-haragoko-izatea. Uste nuen Bestea presente zegoela gelan, baina nahastuta nengoen: ez zegoen *hor*, “absente” zegoen. Eta zer da, bada, *absentzia*?

Erabilera enpirikoan eta egunerokoan hartuta, “absentzia” adigaia ez nuke baliatuko edozein motatako “hor-ez-egotea” adierazteko, hori garbi dago. Hasteko, ez badut nire tabako-paketea bere lekuan aurkitzen, ez dut esango *absente* dagoenik; nahiz eta adieraz nezakeen “hor egon behar zuela”. Azken batean, objektu material edota tresna baten lekua, nahiz eta zenbaitetan leku zehatz bat egoki dakioken, ez da bere *izaeratik* ondorioztatzen. Horrek leku bat aitor liezaioke soilik, baina nire bitartez hartzen du tresna batek *lekua*. Giza errealitatea da objektuetara *leku* bat datorreneko izatea. Eta giza errealitatea da, bera baita bere posibilitateak, jatorriz leku bat har dezakeen bakarra. Baina ez nuke esango, haatik, apartamentu horretan absente direnik Aga Khan eta Marokoko Sultana, eta bai, ordea, bertan egon ohi den Pierre ordu laurdenez absente dagoela. Hitz batean esateko, absentzia definitzen da giza errealitatearen izateko modu bat bezala, berak bere presentziarekin determinatu dituen leku eta tokien arabera. Absentzia ez da loturen ezereza leku bati buruz. Alderantziz, Pierre leku jakin baten arabera determinatzen dut, absente dagoela adierazten dudanean. Alegia, ez nuke hitz egingo Pierreren absentziaz naturako leku jakin baten arabera, bertatik pasatzeko ohitura badu ere. Baina bere absentzia sala nezake, ordea, bazkari batean bera inoiz

egon ez den eskualde bat izan duena “gertaleku”. Pierreren absentzia definitzen da leku baten arabera non eta bera hor egotera determinatu beharko litzatekeen. Baina leku hori berori mugatuta dago leku gisa, [338] ez kokapenagatik edo lekuaren eta Pierre beraren arteko erlazio bakarkakoak direla eta, baizik eta beste giza errealitate batzuen presentziagatik. Pierre *beste gizaki* batzuentzat dago absente. Absentzia da Pierrek Teresarentzat duen izateko modu konkretu bat: giza errealitateen arteko lotura da, ez giza errealitatearen eta munduaren artekoa. Teresarentzat dago Pierre absente *leku horretan*. Beraz, absentzia lotura bat da bi giza errealitate edo gehiagoren artean, eskatzen duena errealitate horien elkarrenganako presentzia funtsezko bat, eta ez dena, gainera, presentzia horren zehaztasun partikular bat baizik. Teresarentzat absente egotea, Pierrrentzat, Teresari presente egoteko modu jakin bat da. Izan ere, absentiak hor ez du esanahirik ez baldin badaude bermatuta Pierrerren Teresarekiko lotura guztiak: maite du, bere senarra da, bere iraupena ziurtatzen du, eta abar. Absentiak, bereziki, Pierrerren existentzia *konkretuaren* iraupena dakar: heriotza ez da absentzia bat. Horregatik, Pierrerren eta Teresaren arteko *distantziak* ez du ezertan aldatzen euren elkarrenganako presentziaren funtsezko izatea. Izan ere, hartzen badugu presentzia hori Pierrerren ikuspuntutik, ikus dezakegunez, horrek zera esan nahi du: *edo* Teresa objektu-Beste gisa da munduaren barruan izatedun, *edo* subjektu-Beste batentzat balitz bezala, Teresarentzat existitzen dela sentitzen du. Lehenengo kasuan, distantzia egitate kontingentea da eta ez du esanahirik, funtsezkotzat jotzen baita Pierre dela Totalitate gisa mundu bat “badela” ahalbidetzen duen hori eta bera presente zaiola mundu horri distantziarik gabe, distantzia berak existiarazten duen heinean. Bigarren kasuan, nonahi egonik ere, Pierrek sentitzen du distantziarik gabe existitzen dela Teresarentzat. Pierrrentzat, Teresa *distantziara* dago, Teresa urrundu egiten baita beragandik eta bion artean distantzia bat zabaltzen baitu: mundu osoak bereizten ditu. Baina bera distantziarik gabe dago Teresarentzat, bera Teresak izatera eta mundura dakarren objektua baita. Horrenbestez, urruntzeak ezin ditu inola ere aldatu funtsezko erlazio horiek. Distantzia handia nahiz txikia izan, Pierre-objekturen eta Teresa-subjekturen artean, eta Pierre-subjekturen eta Teresa-objekturen artean, mundu baten geruza infinitua dago. Pierre-subjekturen eta Teresa-objekturen artean, eta Teresa-subjekturen eta Pierre-objekturen artean ez dago distantzia txikiena ere. Horrela, absentiaren eta

presentziaren kontzeptu enpirikoak, beraz, bi zehazpen dira funtsezko presentzia batena, hots, Pierregandik Teresagana eta Teresagandik Pierregana; presentzia hori modu batera edo bestera adierazten dute eta hor datza bere zentzua. Londonen, Indietan, Ameriketan, irla bakarti batean, Pierre presente zaio Parisen geratu den Teresari: Teresa hiltzen denean bakarrik utziko dio Pierrek presente izateari.

Azken batean, izate bat ez da *kokatzen* lekuen arabera, longitude eta latitude graduen arabera, [339] baizik eta giza espazio batean, "Guermantes-enetik" eta "Swann-enetik", eta Swann-en eta Guermantes-ko dukesaren bat-bateko presentzia da espazio "hodologiko" hori zabaltzen uzten duena, non eta berak leku hartzen duen. Baina presentzia hori transzendentzian gertatzen da. Marokoko nire lehengusuaren presentzia da zabaltzen uzten didana, transzendentzian, nire eta bere artean munduan-kokatzen nauen bide hori, eta "Marokoko bidea" dei litekeena. Izan ere, bide hori distantzia hutsa da, batetik, nire "-rentzako izateari" lotuta *atzeman* nezakeen Beste-objektuaren eta, bestetik, distantziarik gabe presente zaidan Beste-subjektuaren artean. Horrela, bada, *nire* munduko objektuetara naramaten bide infinituek eta askotarikoek *kokatua* naiz, subjektu transzendenten presentzia zuzenarekin batera. Eta mundua izate horiekin guztiekin batera ematen zaidanez gero, bide horiek tresna-sareen multzo bat besterik ez dute adierazten; tresna-sare horiek objektu-Beste bat agertzea ahalbidetzen dute mundua atzeko planoan duen "*hori*" gisa, baina inplizituki eta egiazki jada barruan dagoena.

Ordea, ohar horiek orokortu egin daitezke: ez dira bakarrik Pierre, René, Lucien niretzat absenteak eta presenteak direnak jatorrizko presentzia baten planoan, ez baitira ni kokatzen nauten bakarrak: kokatzen ere naiz europar gisa asiarren edota beltzen aldean, zahar gisa gazte jendearen aldean, magistratu gisa gaizkileen aldean, burges gisa langileen aldean, eta abar. Hitz batean esateko, gizaki bizidun ororen arabera dago giza errealitate oro presente edo absente jatorrizko presentzia baten planoan. Eta jatorrizko presentzia horrek izate-begiratu gisa edo izate-begiratzaille gisa bakarrik izan dezake zentzurik, alegia, Bestea niretzat objektu den edo ni neu naizen Bestearentzako-objektu. Bestearentzako izatea konstante bat da nire giza errealitatean eta, niri buruz osatzen dudana pentsamendu txikienean ere, bere beharrezkotasun fisikoa nabari dut. Edonora noala, zernahi egiten dudala, Beste-objektuarekiko distantziak aldatu besterik ez dut egiten, Bestearenganako bideak hartu besterik ez. Urruntzea, hurbiltzea, objektu-Beste

jakin bat deskubritzea, hori bariazio enpirikoak egitea besterik ez da nire Bestearentzako izatearen funtsezko gaiaz. Bestea presente zait leku orotan objektu bihurtzen naizeneko zera hori bezala. Horren ondotik, tronpatu ahal naiz kalean topatu berri dudan objektu-Beste baten presentzia enpirikoaz. Uste izan dezaket Anny dela nigana datorrena bidean eta deskubritu pertsona ezezagun bat dela: horrekin ez da aldatzen Annyren funtsezko presentzia niretzat. Uste izan dezaket gizon bat dagoela nire zelatan ilunpean eta deskubritu zuhaitz-enbor bat dela [340] gizakitzat hartzen nuena: horrekin ez da aldatzen nire funtsezko presentzia gizaki guztientzat eta gizaki guztiena niretzat. Izan ere, nire esperientziaren eremuan gizon bat objektu gisa agertzea ez da gizakiak *daudela* erakusten didana. Bestearen existentziaz dudan ziurtasuna ez dago esperientzia horien menpe, alderantziz baizik, ziurtasun hori da posible egiten dituen.

Agertzen zaidana, orduan, eta berarekin tronpa naitekeena, ez da ez Bestea eta ezta Bestearen nirekiko lotura erreala eta konkretua ere, baizik eta *hori* bat gizaki-objektu bat adieraz *dezakeena* edo ez. Probablea baino ez dena zera da, Bestearen distantzia eta hurbiltasun erreala, alegia, ez dira zalantzarriak ez bere objektutasuna ezta bera nik zabaltzen dudan munduaren parte izatea ere, zeren nire agertze hutsarekin egiten baitut Bestea ere agertzea. Kontua da objektibotasun hori munduan eratzen dela “Bestea hor nonbait munduan” bezala. Beste-objektua gauza ziurra da agerpen gisa, eta bat egiten du nire subjektibotasuna berratzematearekin, baina ez da inoiz ziurra Bestea objektu *hori* den. Eta funtsezko gertakaria ere, nire objektu-izatea subjektu batentzat, ebidentzia erreflexiboaren tankerako ebidentzia da; baina ez, ordea, beste gertakari hori non eta ni, une jakin batean eta Beste singular batentzat, nabarmendu egiten naizen mundua atzeko planoan duen “*hori*” gisa, atzealde horretan itota gelditu ordez. Ni presente moduan existitzen naizela objektu gisa aleman batentzat, zeinahi delarik ere, hori ez da zalantzazkoa. Baina, existitzen naiz europar, frantses, paristar gisa kolektibitate horietan desberdindu gabe edo paristar *hori* gisa zeinaren inguruan Pariseko populazioa eta kolektibitate frantsesa bat-batean antolatzen den bere atzealde gisa eratzeko? Puntu horretan ezagutza probableak bakarrik eduki ditzaket, infinituraino probableak izan badaitezke ere.

Uler dezakegu orain begiradaren izaera. Begirada orotan, Beste-objektu baten agerpena gertatzen da presentzia konkretu eta probable gisa nire eremu pertzeptiboan. Eta Beste

horren zenbait jarreraren kausaz, nire “begiratu-izatea” atzematen hasten naiz, lotsaz, atsekabeaz, eta abar. “Begiratu-izate” hori agertzen da *hori* konkretu hori izateko dudan probabilitate hutsa bezala, ezin duena probabletasunaren izaera eta zentzua atera ez bada oinarrizko ziurtasun batetik non eta Bestea beti zaidan niri presente ni beti *Bestearentzako* naizen heinean. Nire gizaki izatearen esperientzia, beste gizaki bizidun *guztientzat* objektu, borroka-plazara jaurtia milioika begiradapean eta nigandik ihesi milioika aldiz, konkretuki bizi dut *nire* unibertsoan objektu bat agertzen denean, [341] baldin eta objektu horrek aditzera ematen badit probablea dela presentean ni kontzientzia batentzat objektu izatea *hori-nabarmendu* gisa. *Begirada* esaten diogu fenomenoaren osotasunari. Begirada bakoitzak sentiarazten digu konkretuki —eta *cogitoaren* ziurtasun ziurrenean— gizaki bizidun guztientzat existitzen garela, alegia, kontzientzia(k) badaudela zeinarentzat ni existitzen naizen. Parentesi artean jarri dugu “k”, ongi markatzeko begirada horretan presente zaidan Beste-subjektua ez dela agertzen pluralezko forman, ez behintzat unitate gisa agertzen dena baino gehiago (salbu eta Beste-objektu jakin batekiko erlazio konkretuan). Pluraltasuna, izan ere, objektuei bakarrik dagokie, bere baitarako izate “mundugile” baten agerpenaren bidez dator izatera. Izate-begiratuak subjektua(k) agerrarazten di(zki)gunez, errealitate ez zenbakituaren presentzian jartzen gaitu.

Ordea, begiratzen didatenak *begiraten* ditudan unetik, hots, *beste*-kontzientziak, isolatu egiten dira askotasunean. Bestalde, begiradaren esperientzia konkretutik aldenduz, *hutsetik* pentsatzen saiatzen baldin banaiz giza presentziaren berdintasun infinituan, eta hori batzen inoiz objektu ez den subjektu infinituaren kontzeptuaren arabera, nozio formal soila ateratzen dut, Bestearen presentziari buruzko esperientzia mistikoen segida infinitu bati dagokiona: Jainkoaren nozioa, subjektu nonahiko eta infinitu gisa, *zeinarentzat* ni existitzen naizen. Baina bi objektibatze horiek, hots, konkretua eta zenbatzailea zein abstraktua eta bateratzailea, batak zein besteak bizitutako errealitatea falta du, alegia, Bestearen presentzia zenbaki-aurrekoa.

Zehatzagoak egingo ditu ohar horiek edonork egin dezakeen obserbazio honek: agertzen bagara “jendaurrean” rol bat interpretatzeko edo konferentzia bat emateko, ez dugu galtzen begiratuak garen ikuspuntua eta betetzen dugu egitera etorri garen ekintza-multzoa begiradaren *presentzian*, areago, saiatzen gara eratzen izate bat eta objektu-

multzo bat begirada *horrentzat*. Baina ez dugu zenbatzen begirada. Mintzo garen bitartean, garatu nahi ditugun ideiei bakarrik arretatsu, Bestearen presentzia ez da nabarmentzen. Okerra litzateke hori bateratzea, esaterako, “gela” edo “auditorio” izenen pean, ez baitugu izate konkretu eta bereizi baten kontzientziarik kontzientzia kolektiboa lukeenik. Horiak gerora balia daitezkeen irudiak dira gure esperientzia azaltzeko, eta erdizka baino gehiago salatuko dutena. Baina ez dugu atzematen ere begirada plural bat. Hori beharrez, gehiago da errealitate nabarigaitz, iheskor eta nonahiko bat gure Ni ez-agerikoa agerrarazten duena gure aurrean eta gurekin batera sortzen duena ihes egiten digun Ni hori. Ordea, baieztatu nahi badut nire gogoeta ondo ulertu dela, begiratzen badut orduan auditorioa, [342] *begiak* eta *buruak* ikusiko ditut agertzen bat-batean. Bestearen errealitate zenbaki-aurrekoa objektibatzearekin batera, deskonposatu eta pluralizatu egin da. Baina desagertu egin da begirada ere. Komeni da "forma inpersonala" [jatorrizkoan, ‘on’ izenordaina aipatzen da] errealitate zenbaki-aurreko eta konkretu horrentzat gordetzea, giza errealitatearen egoera ez-autentiko batentzat baino gehiago. Non egonik ere, eten gabe begiratzen *zait*. "Forma inpersonala" ez da inoiz objektutzat hartzen, berehalakoan desegiten baita.

Horrela, begiradak jarri gaitu gure *Bestearentzako izatearen* arrastoan eta agertu digu berarentzat garen Beste horren existentzia ziurra. Baina ezin gaitu eraman urrunago. Orain aztertzea dagokigu Nire eta Bestearen arteko funtsezko lotura guri agertzen zaigun eran; edo, nahi bada, tematikoki zehaztu eta finkatu behar dugu orain oinarrizko lotura horren muge barruan dagoen guztia eta galdetu zein den nire Bestearentzako-izate horren *izatea*.

Gure bilaketan lagunduko digun gogoeta bat eta aurreko oharretatik ondorioztatzen dena zera da, Bestearentzako izatea ez dagokio bere baitarakoaren egitura ontologikoari. Izan ere, ezin dugu pentsatu deriba dezakegunik printzipio baten ondorio gisa Bestearentzako izatea bere baitarako izatetik; ezta alderantziz ere, bere baitarako izatea Bestearentzako izatetik. Zalantzarik gabe, gure giza errealitateak eskatzen du aldi berean bere baitarako eta Bestearentzako izatea, baina gure ikerketaren jomuga ez da antropologia bat eratzea. Beharbada ez litzateke ezinezkoa bere baitarako bat irudikatzea Bestearentzako orotatik erabat salbu legokeena eta objektu izateko posibilitatearen batere susmorik gabe existituko litzatekeena. Baina bere baitarako hori ez litzateke izango “gizakia”.



*Cogitoak* hemen erakusten diguna beharrezkotasun fisiko hutsa da: kontua zera da, eta horretan ez dago zalantzarik, gure izatea, bere baitarakoari lotuta egonik, Bestearentzakoa ere bada: kontzientzia erreflexiboari agertzen zaion izatea bere-baitarako-Bestearentzakoa da. *Cogito* kartesiarrak baieztatu baino ez du egiten *egitate* baten egia absolutua, nire existentziaren egitatea; era berean, hemen darabilgun *cogito* zabalagoak egitatetzat aurkezten digu Bestearen existentzia eta nire Bestearentzako-existentzia. Hori da esan dezakegun guztia. Nire Bestearentzako izateak, nire kontzientzia ere izatera sortzen den bezalaxe, gertakari absolutu baten tankera dauka. Eta gertakari hori aldi berean denez historiaren zabaltzea [**jatorrizkoan**, ‘*historialisation*’] —Bestearentzako presentzia gisa zabaltzen baitut nik nire denbora— eta historia orenen baldintza, historiaz aurreko [**jatorrizkoan**, ‘*antéhistorique*’] historiaren zabaltzea esango diogu. Eta horrela ulertuko dugu hemen, alegia, aldiberekotasunaren historiaz-aurreko-denboraren-zabaltze bat bezala. Historiaz aurrekoa esatean, ez dugu ulertuko historiaren aurreko denbora batean dagoela, horrek ez bailuke zentzurik, [343] baizik eta historia zabaltzen duen eta ahalbidetzen duen jatorrizko denbora-zabaltze horri dagokiola. Egitate gisa aztertuko dugu hemen Bestearentzako izatea, egitate lehen eta betiereko gisa, eta ez esentziazko beharrezkotasun gisa.

Ikusi dugu lehenago [**ikus EN: “2.3.” (223. or. eta hur.) atala**] zein den barneko eta kanpoko ezeztapen-motak bereizten dituen desberdintasuna. Zera erreparatu dugu bereziki, izate determinatu baten ezagutza orenen funtsa jatorrizko erlazio bat da, non eta bere baitarakoak, bere sortzean bertan, "izateko" baitauka izate *hori* ez-izateko moduan. Bere baitarakoak hor gauzatzen duena barneko ezeztapena da; eta askatasun osoz gauzatzen du. Areago, bera *da* ezeztapen hori, bere burua mugatutzat hartzen duenez gero. Baina ezeztapenak lotu egiten dio, bereizi ezinik, bera ez den izateari. Idatzi dugunez, bere baitarakoak bere izatean biltzen du bera ez den objektuaren izatea, bere izateari baitagokio izate *hori* ez izatea.

Ohar horiek, funtsezko aldaketarik egin gabe, bere baitarakoaren eta Bestearentzakoaren oinarritzko erlazioari aplikatu dakizkioke. Baldin eta Besterik badago orokorrean, orduan nik izan behar dut lehenik eta behin Bestea ez den hori, eta nigan neronek operatzen dudana ezeztapen horretan bertan, ni izate bihurtzen naiz eta Bestea Beste gisa sortzen

da. Nire izatea eratzen duen ezeztapen horrek eta, Hegelek dioenez, Bestearen aurrean *Bera* bezala agerrarazten nauenak, “*Ni-neu*” bezala eratzen nau ipseitate ez-tetikoaren eremuan. Horrekin ez da ulertu behar *ni* bat gure kontzientzia habitatzera datorrenik, baizik eta ipseitatea indartu egiten dela beste ipseitate baten ezeztapen gisa sortzen delarik, eta errefortzu hori positiboki hartzen dela ipseitate horren berorren aukera etengabetzat ipseitate *berbera* izateko eta *ipseitate hori berori* izateko. Irudika daiteke bere baitarako bat *bera* izan gabe bere *bera* izateko duena. Kontua da ni naizen bere baitarakoak Bestearen-ukazio-bezala daukala *bera* dena izateko, alegia, *bera* bezala. Horrela, Ez-niaren ezagutzari oro har aplikatzen zaizkion formulak erabiliz, esan dezakegu bere baitarakoak, berez, bere izatearen barnean daramala Bestearentzako izatea, hain zuzen ere, Bestea ez izatea bere izateari dagokion heinean. Bestela esateko, kontzientziak Bestea ez-izan ahal izateko eta, beraz, *Beste* bat “egon” ahal izateko —non eta *bera* izateko baldintza den “ez-izate” hori ez baita “hirugarren gizaki” moduko lekuko baten egiaztapenaren objektu huts bat—, beharrezkoa da kontzientziak berak espontaneoki *ez-izate* hori izateko edukitzea, beharrezkoa da *Besteagandik* askatzea eta desitsastea, horretarako, ezerez bat bezala eratuz ez dena Bestea-ez-den-Bestea baizik, eta bilduz, horren bitartez, “berarengan” bertan. Bere baitarakoaren izateari dagokion desitsaste horrexek egiten du *Bestea* egotea. [344] Horrek ez du esan nahi Besteari izatea ematen dionik, baizik eta *Bestetasuna*, besterik gabe, berau “egote” horren oinarritzko baldintza. Eta esan gabe doa, bere baitarakoarentzat, Bestea-ez-dena-izateko modua Ezerezak zeharkatuta dagoela erabat. Bere baitarakoa Bestea ez den hori da “isla-islatzaile” modu ezereztatzailean. Bestea-ez-izatea ez da inoiz *emana*, baizik eta uneoro hautatua eta eten gabe birsortua; kontzientziak ezin du Bestea *ez-izan*, ez bada bere burua(ren) kontzientzia bezala Bestea-ez-izaten. Hor ere, beraz, barneko ezeztapena, munduaren aurreko presentziaren kasuan bezala, izatezko lotura bateratzailea da: beharrezkoa da Bestea kontzientziari presente izatea alde orotatik, eta baita osorik zeharkatzea ere, kontzientziak ihes egin ahal izan diezaion, *ezer ez delarik*, hain zuzen, *bera* irents dezakeen *Beste* horri. Kontzientzia bat-batean zerbait izango baldin *balitz*, norberaren eta Bestearen arteko bereizketa desagertu egingo litzateke berdintasun erabatekoan.

Ordea, deskribapen horrek funtsezko erantsi bat eskatzen du, bere garrantzia errotik aldatuko duena. Izan ere, kontzientzia munduan agertzen zenean halako eta horrelako *hori* ez izaten, erlazio negatiboa ez zen elkarrenganakoa: kontuan hartutako *hori* hori ez zen agertzen kontzientzia ez izaten. Kontzientziak, *hori* horretan eta horrengatik, *hori* ez izatera jotzen zuen, baina *hori* hori kontzientziaz kanpo eta ezaxolatasun hutsean gelditzen zen eta, azken batean, *bere baitako* izaera gordetzen zuen; kontzientziari *bere baitako* gisa agertzen zitzaion, hain zuzen ere, bere baitarakoa, bere baitakotasuna ukatuz, izatera jotzen zuen ezeztapen berean. Besteaz dihardugunean, ordea, barne-ezeztapena elkarrekikotasunezko erlazioa da: kontzientziak ez-izateko duen izatea definitzen da izate bat bezala kontzientzia hori ez-izateko duena. Zera, munduan *hori*-ren pertzepzioa gertatzen zenean, kontzientzia ez zen *hori* horretaz desberdintzen berezkoa zuen banakotasunagatik bakarrik, baizik eta bere izateko moduagatik: *bere baitarako* kontzientzia zen *bere baitakoaren* aurrean. Bestea agertzean, ordea, izateko moduan kontzientzia ez da Bestearen desberdina. Bestea ere bera den hori da, alegia, bere baitarakoa eta kontzientzia; bere posibleak diren posibleetara igortzen du; bera da Bestea ez den heinean; ezin kontrajar lekiok Besteari determinazio numeriko hutsez. Ez daude hemen *bi* edo *hainbat* kontzientzia, zenbatzeak kanpoko lekukotasuna eskatzen baitu eta kanpokotasunaren egiaztapena hutsa baita. Bere baitarakoarentzat ezin da egon Besterik, ez bada ezeztapen bat-bateko eta zenbaki-aurreko batean. Kontzientziarentzat, Bestea *norbere buruaren ukapen* bezala baizik ez da existitzen. Baina, hain zuzen, Bestea ere berarentzat *bere burua* denez, bakarrik izan daiteke nire baitarako eta nire baitatik *nire buruaren ukapen*, [345] noiz eta bera *ni ukatzen nauena bera* den. Nik ezin dut kontzientziarik atzeman eta irudikatu ni atzematen ez nauenik. Kontzientzia bakarra berak ni atzeman eta ukatu gabe badena eta neronek irudika dezakedana ez da kontzientzia isolatu bat mundutik kanpo hor nonbait dagoena, baizik eta neurea bera. Horrela, nire izatea ukatzen duelarik aitortzen dudana Bestea zera da lehenik eta behin, *nire baitarako izatea ahalbidetzen duen hori*. Izan ere, kontua ez da izate hori, nik ez-izatera jotzen dudana, ez dela ni ukatu egiten dudalako ni denik, baizik eta nik ez-izatera jotzen dudalako izate bat ni ez-izatera jotzen duena.

Baina ezeztapen bikoitz hori, nolabait ere, bera bakarrik suntsitzen da: edo jotzen dut, bada, izate jakin bat ez-izatera eta, orduan, bera objektua da niretzat eta nik nire

objektutasuna galtzen dut berarentzat; kasu horretan, Besteak utzi egiten dio Beste-ni izateari, alegia, ni izaterik ukatuz objektu bihurtzen nauen subjektu izateari; edo, bestela, izate hori zinez Bestea da eta ni ez-izatera jotzen du; baina, kasu horretan, ni objektu bihurtzen naiz berarentzat eta berak galdu egiten du bere objektutasuna. Horregatik, funtsean, Bestea Ez-ni-ez-objektua da. Zeinahi direlarik ere Besteari buruzko dialektikaren ondorengo prozesuak, Bestea ezer baino lehenago Bestea izango bada, izan behar du printzipioz agertu ezin duena nik bera izaterik ukatzen dudana agertze berean. Ildo horretatik, nire funtsezko ukapena ezin da zuzena izan, ezer ere ez baitago zeri zuzendua. Nik izaterik ukatzen dudana zera baino ez da, azken batean, Besteak objektu egiten naueneko nia izatearen ukapena; edo, nahi bada, nire Ni-ukatua ukatzen dut. Eta ni-ukatua ukatuz, ni neu bezala eratzen naiz: ni ukatu hori Ni-alienatutzat jotzen dut Besteagandik askatzen naizenarekin batera. Baina horrekin batera, Bestearen existentzia ez ezik, Ni-Bestearentzakoarena ere onartzen eta aitortzen dut; azken batean, nik ezin dut Bestea *ez-izan*, ez badut onartzen nire Bestearentzako objektu-izatea. Ni alienatuaren desagertzeak Bestearen desagertzea ere ekarriko luke, Ni neu suntsitzearekin batera. Besteari ihes egiten diot nire Ni alienatua bere eskuetan utziz. Baina nire burua Besteagandik askatutzat jotzen dudanez, nirea bezala hartzen eta onartzen dut Ni alienatu hori. Nire askatzea Besteagandik, hots, nire Ni-neu, bere oinarritzko egituran, Besteak ukatzen duen Nia *nirea* badela onartzea da; eta *hori besterik ez da*, funtsean.

Horrela, Ni alienatu eta ukatu hori, nire Bestearekiko lotura ez ezik, gu bion bereizketa absolutuaren sinboloa da aldi berean. Izan ere, ni naizenez Bestea *egotea* ahalbidetzen duena nire ipseitatearen baieztapenez, Ni-objektua nirea da eta aldarrikatu egiten dut, zeren Bestearen eta nire arteko bereizketa ez baita inoiz emana eta, nire izatean, ni betiro bainaiz bereizketa horren erantzule. Baina Bestea ko-erantzulea denez gure arteko oinarritzko bereizketan, [346] Ni horrek ihes egiten dit, Besteak ez-izatera jotzen duen nia baita. Hortaz, *nirea* bezala eta niretzat aldarrikatzen dut ihes egiten didan ni bat eta, nik Bestea ez-izatera jotzen dudanez, Besteak nire bat-batekotasun bertsua duelarik, Ni-objektu hori ihes-egiten-didan-Ni gisa aldarrikatzen dut, hain zuzen. Ni-objektu hori da ihes egiten didan neurrian *naizen* Nia, areago, nirea denik ukatuko nuke nirekin bat egin balezake ipseitate hutsean.

Halatan, nire Bestearantzako izatea, hots, nire Ni-objektua, ez da nire irudi desitsatsi bat kontzientzia arrotz batean alderrai: izate zeharo erreala da, *nire* izatea da Bestearen aurreko nire ipseitatearen baldintza gisa, eta Bestearen ipseitatearena nire aurrean. Nire *kanpoko-izatea* da: ez menpeko izate bat kanpotik etorritakoa, baizik eta kanpokotasun bat *nire* kanpokotasuntzat hartu eta onartutakoa. Bakarrik uka dezaket nigandik Bestea, hain zuzen, Bestea *subjektu* den heinean. Bestea bat-batean objektutzat hartu eta ukatuko banu —alegia, munduaren barruan existitzen bezala— ez nuke *Bestea* ukatuko, baizik eta objektu bat printzipioz zerikusirik ez lukeena subjektibotasunarekin; babesik gabe geratuko nintzateke nire eta Bestearen arteko asimilazio erabatekoaren menpe, tentuz ez ibiltzeagatik Bestearen benetako eremua den subjektibotasunean, eta *nire* eremua ere badena. Bestea ezin dut distantziara eduki ez bada nire subjektibotasunari muga bat aitortuz. Baina muga hori ezin da izan nigandik etorria eta nik pentsatua, nik ezin baitut nire burua mugatu, bestela osotasun finitua nintzateke. Bestalde, Spinozaren hitzetan, pentsamenduak bakarrik muga dezake pentsamendua. Kontzientziak bakarrik muga dezake kontzientzia. Bi kontzientziaren arteko muga, berau kontzientzia mugatzaileak ezarria eta kontzientzia mugatuak aitortua, horixe da nire Ni-objektua. Eta hori ulertu behar dugu “muga” hitzaren bi zentzuetan. Mugatzailearen aldetik, bada, *muga* hartzen da naukan eta inguratzen nauen edukitzat, ni jokoz kanpo uzten nauen eta osotasun gisa salbuesten nauen hutsezko zakutzat. Mugatuaren aldetik, berriz, muga ipseitatearen fenomenoarentzat da limite matematikoa segidarentzat den modukoa, bereganantz doa inoiz atzeman ezinik: izateko dudan izate guztia bere limiteari zaio kurba asintota zuzen bati zaiona bezalakoa. Beraz, osotasun osagabea eta zehaztugabea naiz, distantziara mugatzen duen osotasun finitu baten barruan dagoena eta nigandik kanpo naizena inoiz ere nabari edota atzeman ezinik.

Irudi on bat *ni* atzemateko ahaleginena eta horien alferrikakotasunarena Poincarék aipatzen duen esferarena litzateke, alegia, tenperatura zentrotik azalera gutxiagotzen denekoa: [347] izate bizidunak esferaren azalera heltzen saiatzen dira zentrotik abiatuta, baina tenperaturaren jaitsierak kontrakzio bat eragiten die etengabe handituz doana. Infinituki zapalak bihurtzera jotzen dute helburutik gerturatzen diren heinean eta, hori dela eta, distantzia infinitu batek bereizten ditu helburutik. Alabaina, nire Ni-objektua den muga helezin hori ez da ideala: izate erreala da. Izate hori ez da inola ere *bere*

*baitakoa*, ez baita kanpokotasun eta ezaxolatasun betean sortu, baina ezta *bere baitarakoa* ere, ez baita nik izateko dudan izatea nire burua ezereztatzen dudalarik. Izate hori nire *Bestearentzako izatea* da, hain zuzen, oinarrian aurkakoak eta zentzuz alderantzizkoak diren bi ezeztapenen artean zatikatua dagoen izate hori; Bestea *ez baita* berak intuizioz daukan Ni hori eta nik *ez baitaukat* ni naizen Ni horren intuiziorik. Nolanahi ere, batak sortutako eta besteak bere gain hartutako Ni horrek bere errealitate absolutua zeretik ateratzen du, bera da bereizketa posible bakarra bi izateren artean izateko moduan funtsean berdintsuak direnak eta elkarri zuzenean presente zaizkionak, ezen ez baita euren artean erdibideko terminorik zilegi, kontzientzia kontzientziak bakarrik muga dezakeenez gero.

Beste-subjektuaren niganako presentzia horren ildotik, eta aitortzen dudan nire objektutasun horretan eta horrengatik, Bestearen objektibatzea har dezakegu Bestearekiko nire erlazioaren bigarren unetzat. Bestearen presentzia nire muga ez agerikoaz harago, izan ere, eragile izan daiteke nire burua berriro ipseitate aske modura hartzeko. Nire burua *Beste* modura ukatzen dudanez, eta lehen-lehenik Bestea agertzen denez, Bestea *Beste* modura bakarrik ager daiteke, alegia, nire mugaz haragoko subjektu modura, alegia, mugatzen nauen zera horren modura. Izan ere, beste ezerk ezin nau mugatu ezpada Besteak. Modu horretan agertzen da, beraz, bere askatasun osoz eta bere posibleetarako proiektzio askean, jokoaz kanpo ezartzen nauena bezala eta nire transzendentzia ebasten didana bezala, “batera egitea” ukatuz (alemanez duen zentzuan: *mit-machen*). Halatan, lehenik eta bakarrik erreparatzen diot bi ezeztapenetatik ni erantzule ez naizen horri, nigandik nigana ez datorren horri. Baina ezeztapen horren atzemate berean sortzen da ni(re) kontzientzia ni neu bezala, alegia, ni(re) kontzientzia esplizitu bat har dezaket non eta ni ere banaizen Bestearen ezeztapen baten erantzule, nire posibilitate propioa ere badena. Hori bigarren ezeztapenaren azalpena da, nigandik Bestearengana doana. Egia esateko, hortxe zegoen hasieratik, baina Besteak ezkutatua, gorde egiten baitzen Bestea agerrarazteko. Baina Bestea, hain zuzen ere, ezeztapen berria agertzeko arrazoia da: ezen, baldin eta *Beste* bat badago jokoaz kanpo jartzen nauena eta nire transzendentzia, besterik gabe, kontenplatutako transzendentzia bezala ezartzen duena, horrek esan nahi du *Besteagandik* askatu egiten naizela nire muga aitortuz. [348] Eta askatze horr(en) kontzientzia *edo* Bestearen aldean *norbera*

(izatearen) kontzientzia nire espontaneotasun askea(ren) kontzientzia da. Bestea nire mugaren jabe bihurtzen duen askatze horren bitartez, Bestea jokoz kanpo ezartzen dut. Ni(re) kontzientzia hartzen dudanean nire posibilitate libreetako baten kontzientziatzen, eta nire burua nireganantz proiektatzen dudanean ipseitate hori gauzatzeko, orduan ni naiz Bestearen existentziaren erantzule: nire espontaneotasun askearen baieztapenaz beraz, nik neuk ahalbidetzen dut Beste bat *egotea* eta ez, ordea, igorpen infinitu huts bat kontzientziak berarengana lukeena. Bestea, beraz, jokoz kanpo geratzen da, nire esku geratzen baita bera ez izatea eta, horrenbestez, bere transzendentzia jada ez da berarenganantz *transzenditzen nauen* transzendentzia, baizik eta transzendentzia kontenplatu hutsa, ipseitate-zirkuitu *emana* baino ez. Eta ezin ditudanez bi ezeztapenak aldi berean gauzatu, ezeztapen berriak, oinarrian beste ezeztapena duen arren, ezkutatu egiten du lehengoa: Bestea presentzia degradatu gisa agertzen zait. Bestea eta ni, azken batean, bata bestearen existentziaren erantzuleak gara, baina hori gertatzen da bi ezeztapenen bitartez non ezin baitut bata jaso, une berean bestea ezkututzen ez badu. Bestea bihurtzen da, orduan, nik mugatzen dudana nire Bestea-ez-izateko proiektzioan.

Jakina, hemen kontuan izan behar da pasaera horren motibazioak izaera afektiboa duela. Ezerk ez luke saihestuko, adibidez, ni liluratuta gelditzea Ez-ageriko horrekin eta bere haratago horrekin, baldin eta Ez-ageriko hori, hain zuzen, beldurrean, lotsan edota harrotasunean atzemango ez banu. Eta motibazio horren izaera afektiboak, hain zuzen, kontu ematen du ikuspuntu-aldaketaren kontingentzia enpirikoaz. Baina sentimendu horiek beroriek ez dira gure Bestearentzakoa afektiboki bizitzeko dugun modua besterik. Beldurrak, izan ere, zera inplikatzeko du, ni mehatxatua agertzen naizela munduaren barruan presentzia gisa, eta ez mundu bat egotea bermatzen duen bere baitarako gisa. *Ni* naizen objektua da munduan arriskuan dagoena eta, *ni* horrek nik izateko dudak izatearekin daukan izatezko batasun bereizezina dela kausa, hondamendia ekar diezaioke, berearekin batera, nik izateko dudak bere baitarakoari. Beraz, beldurra zera da, nire ni-objektua deskubritzea nire pertzepzio-eremuan beste objektu bat agertzen denean. Horrek beldur ororen jatorrira igortzen du, berau nire objektutasun hutsaren beldurrezko deskubrimendua, nire posibleak ez diren posible batzuek gaintzen eta transzenditzen dutenean. Beldurrari ihes egingo diot nire posible propioetarantz jotzen dudak heinean, hau da, nire objektutasuna ez esentziazkotzat

jotzean. Hori bakarrik gerta daiteke baldin eta Bestearen izatearen erantzule modura eratzen banaiz. *Bestea* bihurtzen da, [349] orduan, *ez-izatera jotzen dudana* eta bere posibilitateak dira nik ukatu egiten ditudan posibilitateak eta kontenplatu baizik ezin ditudanak, alegia, posibilitate-hilak. Horrekin, bada, gaintitu egiten ditut nire posibilitate presenteak, hartzen baititut Bestearen posibilitateek gainti ditzaketen posibilitatetzat, baina Bestearen posibilitateak ere gaintitu egiten ditut, hartzen baititut bere ezaugarri bakarraren ikuspegitik berak ezin duena berezko posibilitatetzat jo —Bestetasuna, nik ahalbidetzen baitut *Bestea* egotea—, eta hartzen ere baititut ni gainti nazaketelarik nik posibilitate berrietarantz gainti ditzakedan posibilitatetzat. Horrela, ni(re) kontzientziaren bere baitarako izatea berreskuratu dut posibilitate infinituen sorgune etengabetzat eta, aldi berean, Bestearen posibilitateak posibilitate hilak bihurtu ditut, guztiei egotzi baitiet *ez-nik-bizituaren* izaera, alegia, zerbait *emana* izatearena.

Lotsa ez da, ildo beretik, nire izatea *kanpoan* edukitzearen jatorrizko sentimendu bat baizik, hau da, nire izatea beste izate batean engaiatua edukitzea eta, beraz, inongo babesik gabe eta subjektu puru bati darion argi absolutuak argizatua: beti izan nintzena derrigorrez izatearen kontzientzia, “luzapen” moduan, alegia, “oraindik-ez” eta “ez-gehiago” moduan. Lotsa betea ez da objektu gaitzesgarri bat edo beste izatearen sentimendua, baizik eta, oro har, *objektu* izatearena, hau da, nire burua errekonozitzea Bestearentzat naizen izate degradatu, menpeko eta finko horretan. Lotsa da *jatorrizko jauziaren* sentimendua, ez halako eta horrelako akatsa egin dukedalako, baizik eta munduan “jauzi” naizelako, gauzen artera, eta Bestearen bitartekotza behar dudalako naizena izateko.

Pudorea eta, bereziki, biluzik harrapatua izatearen beldurra jatorrizko lotsaren zehaztapen sinbolikoa baino ez dira: gorputzak hor gure babesik gabeko objektutasuna irudikatzen du. Janztea objektutasuna disimulatzea da, ikusia izan gabe ikusteko eskubidea aldarrikatzea, alegia, subjektu hutsa izatea. Horregatik, jatorrizko bekatuaren ondoren, jauziaren irudi biblikoa zera da, Adamek eta Evak “biluzik daudela jakitea”. Hain zuzen ere, lotsaren aurkako erantzuna zera da, objektutzat jotzea *nire* objektutasuna bera atzematen duena.



Bestea objektutzat agertzen zaidan unetik, bada, bere subjektibotasuna delako objektu horren ezaugarri huts bihurtzen da, degradatu egiten da eta “printzipioz ihes egiten didaten propietate *objektiboen* multzo” bezala definitzen da. Beste-objektuak subjektibotasun bat “dauka” kutxa huts horrek “barnealde bat” daukan bezalaxe. Eta ni, horrela, *berreskuratu* egiten naiz, ezin baitut izan *objektu batentzako objektu*. Ukatu ez dut inola ere ukatzen Bestea nirekin erlazioan dagoenik bere “barnealdetik”, baina berak nitaz duen kontzientzia kontzientzia-objektu bat denez, [350] eraginkortasunik gabeko barnealde baten modura ageri zait: bera “barnealde” horren beste ezaugarrietako bat besterik ez da, eta konpara daitekeena inprima litekeen pelikula batekin argazki-tresna baten kamera ilunean. *Beste* bat egotea nik ahalbidetzen dudalarik, nire burua hartzen dut Besteak nitaz duen ezagutzaren sorburu asketzat, eta Bestea ageri zait nire izateaz duen ezagutza hori bere izatean *atxikita* duela, hain zuzen, nik berari bestetasuna *atxiki* diodan neurrian. Ezagutza horrek izaera *subjektiboa* hartzen du orduan, baina zentzu berri batean ulertuta, zentzu “erlatiboan”, hau da, ezagutza hori subjektu-objektuan gelditzen da neronek aitortu diodan bestetasunaren ezaugarri *erlatibo* bezala. Jada ez nau *ukitzen: beragan* dagoen *nire* irudi bat da. Horrela, subjektibotasuna barnetasunean degradatu da; kontzientzia librea, printzipioen absentsia hutsean; posibilitateak, propietateetan; eta ezagutza, Besteak nire izatean atzematen nauenekoa, Bestearen “kontzientzian” dagoen *nire irudi* hutsean. Lotsak erreakzio bat dakar Bestearen ezagutza hori gainditzen eta ezabatzen duena, barruan baitarama ulermen inplizitua eta ez tematizatua ni objektu natzaion subjektua objektu-izan-ahal-izan daitekeena. Eta ulermen inplizitu hori zera baino ez da, nire “ni-neu-izatea”(ren) kontzientzia, hau da, nire ipseitate indartuarena. “Ni nirekin lotsatu naiz” esapideak adierazten duen egituran, izan ere, lotsak Bestearentzako ni-objektu bat dakar, baina lotsatu den ipseitate bat ere eskatzen du, esapidearen “ni” horrek erdizka baino adierazten ez duena. Beraz, lotsa hiru dimentsioren atzemate unitarioa da: “*Ni nirekin* lotsatu naiz *Bestearen* aurrean”.

Dimentsioetako bat desagertzen bada, lotsa ere desagertu egiten da. Ordea, "forma inpersonal" hartzen badut bere aurrean lotsatzen naizeneko subjektutzat, ezinezkoa duelarik objektu bilakatzea *Beste* askotarikoan sakabanatu gabe, eta ezartzen badut inola ere objektu bilakatu ezin duen subjektuaren batasun absolututzat, orduan nire objektu-izatearen betikotasuna ezartzen dut eta nire lotsa betikotzen. Jainkoaren aurreko lotsa da

hori, alegia, nire objektutasuna onartzea subjektu baten aurrean inoiz ere objektu bilakatuko ez dena. Nire objektutasuna absolutuan *gauzatu* eta, aldi berean, hipostasiatu egiten dut: batera datoz Jainkoaren leku-hartzea eta nire objektutasunaren gauzatasuna; areago, errealagotzat jotzen dut nire Jainkoarentzako-objektu-izatea nire baitarako izatea baino; alienatua existitzen naiz eta nire kanpokotasunak erakusten dit nik zer izan behar dudan. Jainkoaren aurreko beldurraren jatorria horixe da. Meza beltzak, ostien profanazioak, elkargo demoniakoak eta abar, horiek Subjektu absolutuari objektuzko izaera emateko ahaleginak dira. Gaizkiarengatiko Gaizkia nahi dudalarik, saiatzen naiz kontenplazten transzendentzia dibinoa —Ongia duena berezko posibilitatetzat— emana baizik ez den transzendentzia bezala eta nik Gaizkirantz transzenditzen dudana. Orduan, Jainkoa “sufriarazten” dut, “aztoratzen” dut, eta abar. [351] Saiakera horiek, inplikatzan dutelarik Jainkoaren *onarpen* absolutua objektu izan ezin duen subjektutzat, barruan daramate euren kontradikzioa eta porrot egiten dute eten gabe.

Harrotasunak ez du jatorrizko lotsa kanpoan uzten. Areago, eraikitzen da funtsezko lotsaren edo objektu izatearen lotsaren eremu berean. Sentimendu anbigua da: harrotasunean, Bestea hartzen dut objektutasuna nire izatera datorreneko subjektutzat, baina, gainera, nire burua hartzen dut nire objektutasunaren erantzuletzat; arreta nire erantzunkizunean jartzen dut eta nire gain hartzen dut. Nolabait ere, beraz, harrotasuna lehenik etsimendua da: *hori izateaz* harro izateko, etsi egin behar izan dut lehenik *hori baino ez izatera*. Lotsaren aurrean izaten den lehen erreakzioetako bat da, baina iheseke eta asmo txarreko erreakzioa besterik ez da, ezen nire burua hartzen baitut, Bestea betiere subjektutzat joz, nire objektutasunarekin Besteari *eragiten* diokeena bezala. Hitz batean esateko, bi jarrera autentiko daude: lehenengoan, Bestea hartzen dut ni objektutasunera datorreneko subjektutzat —eta hori lotsa da; bigarrenean, nire burua hartzen dut Bestea Bestetasunera datorreneko proiektu libretzat —eta hori buru-estimua da, edo nire askatasunaren baieztapena Beste-objektuaren aurrean. Baina harrotasuna, eta hantustea, orekarik gabeko eta asmo txarreko sentimendua da: hantustean, ni objektu naizelarik saiatzen naiz Bestearengan eragiten. Eta objektu gisa eratzen nauenarekin batera, aitortzen didan edertasun, indar edota gogo hori erabili nahi dut, errebotez, Besteari lilurazko edo maitasunezko sentimendu bat pasiboki eragiteko. Baina exijitzen dut Besteak sentimendu hori, nire objektu-izatearen ordain gisa, subjektu gisa senti

dezan, hau da, askatasunez. Izan ere, hori da modu bakarria nire indarrari edo nire edertasunari objektibotasun absolutua aitortzeko. Bestearengandik exijitzen dudana sentimenduak, horregatik, bere baitan bertan darama berezko kontrakotasuna, bera aske delarik eragin behar baitut Bestearengan. Hori asmo txarreko eran bizitzen da eta bere barne-garapenak bera desegitera darama. Zera, nire gain hartzen dudana objektu-izate horretaz atsegin hartzeko, *objektu gisa* berreskuratzen saiatzen naiz; eta Bestea denez horretarako gakoa, nireganatzen ahalegintzen naiz nire izatearen sekretua erakuts diezadan. Horrela, hantusteak bultzatu egiten nau Bestea nireganatzera eta objektu gisa eratzera, objektu horren barruan arakatzeko eta nire objektutasun propioa bertan deskubritzeko. Baina hori urrezko arrautzen oiloa hiltzea da. Bestea objektu gisa eratzen dudanean, ni irudi gisa eratzen naiz Beste-objektuaren barruan. Hantustearen desilusia hortik dator: atzeman nahi izan dudana irudi horretan, errekuperatzeko eta nire izatean txertatzeko, ez dut nire burua *jada errekonozitzen* eta Besteari egotzi behar diot, gogo onez edo txarrez, bere ezaugarri subjektiboetako bat bezala. Nire objektutasunetik halabeharrez askatua, [352] bakarrik gelditzen naiz Beste-objektuaren aurrean, nire ipseitate kalifikaezinean, izateko dudana baina izan ezin dudana nire funtziotik kanpo.

Lotsa, beldurra eta harrotasuna dira, beraz, nire oinarrizko erreakzioak eta Bestea nire eskumenetik kanpo dagoen subjektutzat hartzeko moduak; euren baitan nire ipseitatearen ulerpen bat biltzen dute, motibazio gisa balio izan ahal eta behar didana Bestea objektu gisa eratzeko.

Bat-batean agertu zaidan Beste-objektu hori ez da abstrakzio objektibo hutsa, bere esanahi bereziekin sortu da nire aurrean. Ez da bakarrik objektu bat askatasuna transzendentzia transzenditu modura *ezaugarritzat* duena. Bera “haserre” ere badago, eta “pozik” eta “arretatsu”, “jatorra” eta “uzkurra” da, “berekoia”, “asaldatua” eta abar. Izan ere, ni neu eratzen naizenarekin batera egiten dut Beste-objektua munduaren barruan existitzea. Bere transzendentzia aitortzen diot, baina ez transzenditzen duen transzendentzia bezala, baizik eta transzendentzia transzenditu bezala. Beraz, agertzen da tresnen gainditze baten modura helburu jakin batzuetarantz, hain zuzen eta zehazki, nik ere gainditzen ditudan heinean, proiektu bateratzaile batean, helburu horiek, tresna horiek eta Besteak gauzatzen duen tresnen gainditze hori helburuetarantz. Izan ere, nik ezin dut nire burua inoiz hartu modu abstraktuan ni neu izateko posibilitate soiltzat, eta

nire ipseitatea bere proiektzio konkretuan bizi dut honako eta halako helburuetarantz: ni *engaiatua* existitzen naiz beti eta modu horretan bakarrik hartzen dut izatea(ren) kontzientzia. Era berean, Beste-objektua soilik hartzen dut bere transzendentziaren gainditze konkretu eta *engaiatu* bat bezala. Baina alderantziz ere, Bestearen engaiamendua, berau bere izateko modua, nire transzendentziak transzendentia delarik, engaiamendu *erreal* bezala agertzen zait, *sustraitze* bat bezala. Hitz batean esateko, *nire baitarako* existitzen naizelarik, nire “engaiamendua” situazio batean ulertu behar da zera esaten den zentzuan: “Zereko horrekin engaiatu naiz, engaiatu naiz diru hori itzultzera, eta abar”. Eta engaiamendu horrek berak ezaugarritzen du Beste-subjektua ere, bera beste *ni neu* bat baita. Baina engaiamendu objektibatu hori, Bestea objektutzat hartzen dudanean, degradatu egiten da eta engaiamendu-objektu bat bihurtzen da zera esaten den zentzuan: “Aiztoa sakon engaiatu da zaurian; armada desfile batean engaiatu da”. Gogoan eduki behar da, halere, *nigandik* datorren Bestearen munduaren-barruan-izatea izate erreala dela; ez da inola ere beharrezkotasun subjektibo huts bat bera munduaren-barruan-existitzen ezagutarazten didana. Bestalde, ordea, Bestea berez ez dago mundu horretan galduta, baina nik galarazi egiten dut nire munduaren barruan, hain zuzen ere, [353] niretzat nik ez-izateko dudana delako, alegia, nigandik aparte dudalako kontenplatu eta nire helburuetarantz gainditua baizik ez den errealitatetzat. Beraz, objektibotasuna ez da Bestearen errefrakzio hutsa nire kontzientzian zehar, kalifikazio erreal bat bezala baitator nigandik Bestearengana: nik egiten dut Bestea munduaren barruan izatea.

Hortaz, atzematen dudana Bestearen ezaugarri errealtzat zera da, izate-bat-situazioan; alegia, nik bera munduaren barruan antolatzen dut berak mundua berarenganantz antolatzen duelarik, eta tresnen eta traben batasun objektibotzat hartzen dut. Obra honetako bigarren atalean [ikus *EN*: “2.3.3.” atala] azaldu dugunez, tresna guztien osotasuna nire posibilitateen korrelazio zehatza da. Nire posibilitateak ni *naizenez*, munduko tresnen antolamendua nire posibilitateen irudia da bere baitakotasunean proiektatua, hau da, ni naizenaren irudia. Baina munduko irudi hori ezin dut inoiz dezifratu, egokitu egiten natzaio ekintzan eta ekintzaz. Bestea ere, subjektua izaki, *bere irudian engaiatua* aurkitzen da; baina bera objektutzat jotzen dudanean, ordea, munduko irudi hori da begien bistan jartzen zaidana. Bestea bihurtzen da beste tresna

guztiekiko harremanaz definitzen den tresna: *nire* tresnen antolamendu jakin bat da nik tresna horiei ezarritako antolamenduaren barruan bertan. Bestea atzematea barne-antolamendu hori atzematea da eta absentsia-gune edo “barnekotasun” batera eramatea; eta absentsia hori definitzea *nire* munduko objektuen isurtze izoztua bezala *nire* unibertsoko objektu definitu baterantz. Isurtze horren zentzua objektu horiek beraiek ematen didate: mailuaren eta iltzeen edota zizeiluaren eta marmolaren antolamendua da, nik antolamendu hori transzenditzen dudalarik bere fundatzailea izan gabe, mundu-arteke hemorragia horren zentzua definitzen duena.

Horrela, munduak Bestea iragartzen dit bere osotasunean eta osotasun gisa. Iragartzea anbigua gelditzen da berez. Baina hori gertatzen da osotasun berdindu gisa atzematen dudalako munduaren antolamendua Bestearenganantz, atzeko planoan zenbait egitura esplizitu erakusten dituen. Zehaztu ahalko banitu tresna-sare guztiak Bestearengana biratuta dauden bezala, alegia, atzeman ahalko banu ez bakarrik mailuak eta iltzeak tresna-sare horretan okupatzen duten lekua, baizik eta baita kalea, hiria, nazioa eta abar ere, zehazki eta osoki definituko nuke Bestearen izatea objektu gisa. Bestearen intentzio bati buruz tronpatzen banaiz, ez da inola ere bere keinua subjektibotasun helezin batekin lotzen dudalako —subjektibotasun horrek, bere baitan eta bere aldetik, ez dauka berezko neurririk keinuarekin, bere baitarako transzendentzia baita, transzendentzia gaindiezina—, tronpatzen naiz [354] mundu osoa keinu horren inguruan antolatzen dudalako berez antolatzen den eran ez baizik eta bestela. Horrela, Bestea objektu gisa agertze hutsagatik osotasun gisa ematen zait printzipioz, osorik barreiatzen da mundutik zehar mundu horren antolamendu sintetikoaren indar mundutar gisa. Ordea, nik ezin dut zehaztu antolamendu sintetiko hori, mundua bera ere zehaztu ezin dudan bezala *nire* mundua den heinean. Eta Beste-subjektuaren, hots, Bestea bere baitarako denaren, eta Beste-objektuaren artean dagoen desberdintasuna ez da osotasunak zatiarekin eta ezkutua agerikoarekin duenaren modukoa; zeren Beste-objektua printzipioz osotasun subjektiboaren hedadura bereko osotasuna baita. Ez dago ezkutuko ezer eta, objektuek beste objektu batzuetara igortzen dutenez, eten gabe zabal dezaket Besteaz dudan ezagutza bere munduko beste tresnekin dituen erlazioak eten gabe zehaztuz; Bestearen *ezagutza* ideala orduan zera da, munduko isurtzearen zentzua sakonki zehaztea. Beste-objektuaren eta Beste-subjektuaren arteko desberdintasuna printzipioz zeretik dator,

Beste-subjektua ezin da inola ere bere horretan ezagutu eta ulertu. Beste-subjektuaren ezagutzari buruzko auzirik ez dago eta munduko objektuek ez gaituzte bere subjektibotasunera eramaten; munduko bere objektutasunari bakarrik dagozkio, munduar-teko isurtzearen —eta nire ipseitaterantz transzenditzen den— zentzua bezala.

Halatan, Bestearen niganako presentzia, nire objektutasuna gauzatzen duena bezala, subjektu-osotasun bezala bizitzen da; eta presentzia horretarantz biratzen banaiz bera atzemateko, Bestea osotasun bezala atzematen dut ostera ere: munduko osotasunaren hedadura bera duen objektu-osotasuna. Eta atzemate hori bat-batean gertatzen da: munduaren osotasuna abiapuntu hartuta nator Beste-objektuarengana. Haatik, erlazio singularrak bakarrik nabarmenduko dira, mundua atzeko planoan duten *formak* bezala. Ezagutzen ez dudana eta metroan irakurtzen dagoen gizon horren inguruan mundua oso-osorik dago presente. Eta ez da bakarrik bere gorputza, munduko objektu gisa, bere izatea definitzen duena, baita bere nortasun agiria ere, eta igo den metroko linearen norabidea, eta atzamarrean daraman eraztuna. Baina ez bera denaren *zeinuen* modura —zeinuaren nozioak, izan ere, subjektibotasun batera eramango gintuzke nik atzeman ezin dudana eta non bera zehazki ezer ez den, izatez bera ez dena baita eta ez baita bera dena—, baizik eta bere izatearen ezaugarri errealean modura. Ordea, bera munduaren barruan *dagoela jakin badakit* ere, Frantzian, Parisen irakurtzen, bere nortasun agiria ikusi ezean, *suposatu* baino ez dezaket egin bera atzerritarra dela (horrek zera esan nahi du: pentsatu kontrol baten menpe dagoela, prefekturako zerrendaren batean dagoela, [355] hitz egin behar zaiola holandesez, edo italieraz, bere aldetik jarrera bat edo beste lortzeko, nazioarteko posta gutun-bide batetik edo bestetik heltzen dela bereganaino halako eta horrelako zigiluarekin, eta abar). Haatik, nortasun agiri hori printzipioz munduaren barruan ematen zait. Ez dit ihes egiten —sortu denetik, existitzen jarri da niretzat. Baina inplizitu existitzen da niretzat, nik forma bukatutzat ikusten dudana zirkuluaren puntu bakoitza bezala. Aldatu egin beharko litzateke munduarekiko nire erlazioen osotasun presentea, nik hori agerrarazteko unibertsoa atzeko planoan duen *hori* esplizitu bat bezala. Era berean, Beste-objektuaren haserrea, niri agertzen zaidan bezala bere garrasien bidez, bere ostiko eta keinu mehatxatzaileen bidez, ez da haserre subjektibo eta ezkutu baten *zeinua*; ez du ezertara igortzen, soilik beste keinu eta beste garrasi batzuetara. Horrek definitzen du Bestea, hori *da* Bestea. Jakina, tronpa naiteke

eta benetako haserrealditzat hartu sumindura antzeztua baino ez dena; baina bakarrik tronpa naiteke objektiboki atzeman daitezkeen beste keinu eta ekintza batzuen arabera: tronpatzen naiz hartzen badut eskuaren mugimendua jotzeko intentzio errealtzat, alegia, tronpatzen naiz hori interpretatzen badut keinu baten arabera objektiboki atzeman daitekeena eta gertatuko ez dena. Hitz batean esateko, objektiboki atzemandako haserrea munduaren antolamendu jakin bat da mundu-arteke presentzia-absentzia baten inguruan.

Horrek esan nahi du konduktistei arrazoia eman behar zaiela? Zalantzarik gabe, ez. Zeren nahiz eta konduktistek gizakia bere situaziotik abiatuta interpretatzen duten, ez dute kontuan hartu bere ezaugarri nagusia den transzendentzia-transzenditua. Bestea, izan ere, bere baitara mugatu ezin den objektua da, bere helburutik abiatuta bakarrik uler daitezkeen objektua da. Eta mailua eta zerra, ez bairik gabe, ez dira desberdin ulertzen. Bata zein bestea bere funtzioaren arabera hartzen da, hau da, bere helburuaren arabera. Baina kontua da, hain zuzen ere, izatez gizakiarenak direla. Ezin ditut ulertu ez bada Bestea erdigune duen tresna-antolamendu batera igortzen didatela, ez bada antolamendu oso baten parte direla nik ere transzenditzen dudan helburu baterantz transzenditzen dena. Bestea makina batekin konpara daiteke, hain zuzen, makinari jada suposatzen zaiolako, gizakiaren tresna den heinean, transzendentzia-transzenditu baten tankera, irundegi bateko ehungailuak eurek sortzen dituzten oihalen baitan ulertzen diren bezala. Konduktismoaren ikuspegia alderantzikatu egin behar da, eta aldaketa horrek, gainera, bere horretan utziko du Bestearen objektibotasuna, zeren lehen-lehenik objektiboa dena zera baita —dei dakiok *esanahi*, psikologo frantsesek eta ingelesek bezala; *intentzio*, fenomenologoen bezala; *transzendentzia*, Heideggerrek bezala; edo *forma*, gestaltistek bezala—, [356] Bestea munduaren antolamendu oso batek bakarrik defini dezakeela eta bera dela antolamendu horren giltza. Hortaz, Bestea definitzeko, mundutik itzultzen banaiz beragana, ez da munduak Bestea ulertaraz diezadakeelako, baizik eta Beste-objektua *nire* munduaren erreferentzia-gune autonomo eta mundu-arteke bat delako.

Halatan, Beste-objektua ikustean atzeman dezakegun beldur objektiboa ez da esfigmografoarekin eta estetoskopioarekin ikus edo neur dezakegun etsipenaren seinale fisiologikoen multzoa bezalakoa: beldurra ihesa da, zorabioa da. Eta fenomeno horiek

beroriek ez datozkigu *keinuen* segida bat balira bezala, baizik eta transzendentzia-transzendentia bezala. Ihesa eta zorabioa ez da bakarrik korrika aztoratu hori sasietatik, ezta jauzi astun hori bideko harrietara; Bestea erdigune zuten antolamendu-tresnen hankaz gora jartzea da. Ihesi doan soldadu horrek Bestea-etsaia zeukan arestian oraindik bere fusilaren aurrean. Etsaiarekiko distantzia bere balaren traiektoriaz neur zitekeen eta neronek ere atzeman eta transzendi nezakeen distantzia hori “soldadu” erdigunearen inguruan antolatutako distantzia bezala. Baina hara non fusila zulora bota duen eta babesean jarri den. Orduantxe etsaiaren presentziak bildu eta presioa egin dio; etsaia, balen traiektoriari esker distantziara zegoena, gainera datorkio traiektoria hori desagertu den une berean. Aldi berean, defenditzen zuen atzealdeko herri hori, eta horma baten antzera tinkatzen zenekoa, bihurtu egin da bat-batean, abanikoan ireki da eta aurrealde bilakatu da, babes bila doan horizonte eroso. Hori guztia objektiboki egiaztatzen dut eta *horixe* da, hain zuzen ere, nik *beldur* modura hartzen dudana. Beldurra jarrera magiko bat baino ez da xarmaduraz ezabatu asmo dituen distantziara eduki ezin ditugun objektu beldurgarriak [ikus *Esquisse d'une théorie phénoménologique des émotions, 1938*]. Eta bere emaitzen bidez, hain zuzen, atzematen dugu beldurra, munduko barne-hemorragia mota berri bat bezala ematen baitzaigu: munduaren iraganbidea existentzia-mota magiko batera.

Kontuan izan behar da, halere, Bestea ez dela niretzat objektu kualifikatua ezpada ni ere berarentzat halakoxea izan naitekeen heinean. Bestea objektibatuko da, beraz, edo ‘subjektu inpersonal’ baten zati bereizezina bezala, edo ‘absente’ bezala, bere gutunek eta kontakizunek bakarrik ordezkaturia, edo izatez presente den ‘gizon hori’ bezala, hain zuzen ere, [357] ni berarentzat izan naizenaren arabera: ‘subjektu inpersonal’ baten elementua, ‘absente maitea’ edo ‘gizon hori’ konkretu bat. Bestearen objektibatze-mota eta bere ezaugarriak kasuan kasu erabakitzen dituen zera da, aldi berean nire situazioa munduan eta bere situazioa, alegia, gutako bakoitzak antolatu dituen tresna-sareak eta batari zein besteari mundua atzeko planoan dutela agertzen zaizkigun *hori* guztiak. Horrek guztiak faktikotasunera garamatza. Nire faktikotasuna eta Bestearen faktikotasuna dira erabakitzen dutenak Besteak ni *ikus* nazakeen edota nik *ikus* dezakedan Beste *hori*. Baina faktikotasunaren arazo hori azalpen orokor honen



mugetatik kanpo gelditzen da. Hurrengo kapituluan zehar helduko diogu [ikus *EN*: “3.2.” atala].

Horrela, Bestearen presentzia subjektuen kuasi-osotasun bat bezala bizi dut nire Bestearantzako-objektu-izatean eta, osotasun hori atzeko planoan dagoela, zehazkiago nabari dezaket subjektu konkretu baten presentzia, nahiz eta zehaztu ezin izan, horratik, Beste *hori* den. Objektutasunaren aurrean hartzen dudana defentsazko jarrerak Bestea nire aurrean agerraraziko du *halako* eta *horrelako objektu* gisa. Beraz, “horixe” bat bezala agertuko zait, alegia, bere kuasi-osotasun subjektiboa desegin eta objektu-osotasun bihurtzen da, munduaren osotasunaren hedadura berekoa. Osotasun hori agertzen zait Bestearen subjektibotasunari buruzko erreferentziarik gabe. Ezin da inola ere alderatu Beste-subjektuaren eta Beste-objektuaren arteko erlazioa, esaterako, fisikako objektuaren eta pertzepzioaren objektuaren artean ezarri ohi denarekin. Beste-objektua agertzen zait bera *den* horrengatik, bera berari bakarrik dagokio. Beste-objektua agertzen zaidan bezalakoa da, besterik gabe, objektutasunaren mailan, oro har, eta bere objektu-izatean; izan ere, pentsaezina da nik berari buruz dukedan zeinahi ezagutza bere subjektibotasunarekin lotzea, begiradaren kasuan bizi dudanarekin, alegia. Beste-objektua objektu hutsa da, baina bera atzemateak zera ulertarazten dit, Besteari buruz nik beti bizi ahalko dudala printzipioz beste *esperientzia* bat, izatearen beste maila batean kokatuz. Ulerpen hori osatzen dute, alde batetik, nire iragan esperientziaren *jakintza empirikoak* —hain zuzen, eta ikusi dugunez [ikus *EN*: “2.2.1.” (150.-164. or.) atala], esperientzia horren iragan absolutua dena (helezina eta izateko dudana); eta, beste alde batetik, Besteari buruzko dialektikaren jabetze implizituak: Bestea da nik presentean ez-izatera jotzen dudana. Baina nahiz eta momentuz beragandik libratu eta ihes egin, bere inguruan gelditzen da bera Beste *bihurtzeko* posibilitate etengabea. Edozein kasutan, posibilitate hori, traba eta eragozpen modura sumatzen dudana eta Beste-objektuaren aurrean dudana jarreraren bereizgarria dena, zorrozki adieraztearren, *pentsaezina* da: lehenik, nik ezin dudalako posibilitaterik kontzebitu *nire* posibilitatea ez denik, ezta transzendentziarik atzeman ere ezpada hori transzendentituz, hau da, transzendentzia transzendentituzat hartuz; [358] bigarrenik, sumatutako posibilitate hori ez delako Beste-objektuaren posibilitatea: Beste-objektuaren posibilitateak posibilitate-hilak dira eta Bestearen beste aspektu objektibo

batzuetara igortzen dute. Nire burua objektutzat hartzeko dudan berezko posibilitatea Beste-subjektuaren posibilitatea denez, niretzat orduan ez da inoren posibilitatea: Beste-subjektu bat sortzeko posibilitate absolutua da —eta bere burua sorburu duena— atzeko planoan Beste-objektuaren erabateko ezereztapena duena [*‘néantisation’*, *‘néantiser’* eta *‘néantisé(e)’ Sartrek sortutako adigaiak dira*] eta nik berarentzako objektibotasuna dela bitarte jasoko dudana.

Halatan, Beste-objektua tresna lehegarria da eta tentuz maneiitzen dut, bere inguruan etengabeko posibilitatea sentitzen baitut leherraraz *dezaten* eta leherketa horrekin bat-batean bizi dezadan munduaren ihesa nigandik kanpo eta nire izatearen alienazioa. Horregatik, nire ardura konstantea Bestea bere objektibotasunean edukitzea da eta, beraz, Beste-objektuarekin dudan harremana batik bat abileziaz eratu ohi da berak objektu izaten jarrai dezan. Baina nahikoa da Bestearen begirada bat amarru horiek guztiak bertan behera desegiteko eta berriz ere Bestearen antzaldatzea sentitzeko. Horrelaxe nabil, Bestearen antzaldatzetik degradaziora eta degradaziotik antzaldatzera, Bestearen izateko bi moduen ikuspegi orokorra inoiz osatu ezinik —bietako bakoitza beregaina baita eta berari bakarrik baitagokio— eta bakar bati ere tinko eutsi ezinik —ezegonkortasun propioa baitaukate eta bata desegin egiten baita bestea bere arrastoetatik sortzeko. Hildakoak bakarrik izan daitezke betiro objektu inoiz ere subjektu bilakatu gabe, ezen hiltzea ez baita inola ere munduan objektibotasuna galtzea —hildako guztiak hor daude munduan, gure inguruan—, baizik eta aukera guztiak galtzea Besteari subjektu gisa agertzeko.

Gure ikerketaren maila honetan, Bestearantzako-izatearen funtsezko egiturak argitu eta gero, tentatuta gaude, nola ez, galdera metafisikoa egitera: “Zergatik daude Besteak?” Besteen existentzia ez da, ikusi dugunez, bere baitarakoaren egitura ontologikotik erator daitekeen ondorio bat, hain zuzen ere. Jatorrizko gertakaria da segurik, baina izaera *metafisikoa* duena, alegia, izatearen kontingentziaren ondorena da. Funtsean, existentzia metafisiko horien harira egiten da *zergatiaren* galdera.

Jakin badakigu zergatiaren erantzunak ez garamatzala jatorrizko kontingentzia batera baizik, baina frogatu egin behar da, halere, auzian dugun fenomeno metafisikoa kontingentzia erreduziezinezkoa den. Ildo horretatik, ontologia defini daiteke, uste

dugunez, osotasuntzat hartutako izatedunaren izate-egituren zehaztapena bezala, eta metafisika definituko dugu, ordea, izatedunaren existentziaz galdegitea bezala. [359] Horregatik, bada, izatedunaren kontingentzia absolutuaren haritik, ziur gaude edozein metafisikak “hori horrela da” batekin amaitu behar duela, hau da, kontingentzia horren intuizio zuzen batekin.

Zilegi da Besteen existentziaren galdera egitea? Existentzia hori gertakari erreduziezina da, edo funtsezko kontingentzia batetik ondorioztatu behar da? Horiek dira gure aldetik alde zurretik egin diezazkiokegun galderak Besteen existentziaz galdetzen duen metafisikariari.

Azter dezagun gertuagotik galdera metafisikoaren zilegitasuna. Aurrenik zera agertzen zaigu, Bestearentzako izateak bere baitarakoaren hirugarren ek-stasia adierazten duela. Lehen ek-stasia, bada, bere baitarakoaren proiektu tridimentsionala da izate baterantz berak izateko duena ez-izatearen moduan. Horrek lehen pitzadura adierazten du, hau da, bere baitarakoak izateko duen ezereztapena bera izateko: bere baitarakoa desitsatsi egiten da bera den guztiaz eta desitsaste hori bere izatearen egiturari dagokio. Bigarren ek-stasia edo ek-stasi erreflexiboa desitsaste horrekiko desitsastea da. Erdibiketa [jatorrizkoan, ‘*scissiparité*’] erreflexiboa alferreko ahalegina da ikuspuntu bat hartzeko bere baitarakoak izateko duen ezereztapenari buruz, harik eta ezereztapen hori, beste gabe *emana* den fenomeno bezala, *baden* ezereztapena izateko. Baina erreflexioak, aldi berean, emandakotzat jaso nahi du kontenplazten ahalegintzen den desitsaste hori eta, beraz, baieztatzen du bera *dela* baden ezereztapen hori. Kontrakotasuna bistakoa da: nire transzendentzia atzeman ahal izateko, transzenditu egin beharko nuke transzendentzia hori. Baina nire transzendentziak, hain zuzen, transzenditu besterik ezin du egin, bera *naiz*, ezin dut bera baliatu "transzendentzia transzenditu" bezala eratzeko: kondentatua nago betiro nire ezereztapen propioa izatera. Labur esateko, erreflexioa erreflexua bera *da*.

Nolanahi ere, ezereztapen erreflexiboa urrunago doa bere baitarako hutsarena baino norbera(ren) kontzientzia soil gisa. Norbera(ren) kontzientzian, dakigunez, “islatu-islatzaille” dualtasunaren bi terminoek halako ezintasuna zuten bereizirik agertzeko [ikus *EN*: “2.1.1.” atala], ezen dualtasuna betiko gelditzen baitzen iheskor, eta

terminoetako bakoitza, bata bestearantzat ezartzen zenez gero, bestea *bihurtzen* baitzen. Ordea, erreflexioaren kasuan besterik da [ikus *EN: “2.2.3.” atala*], zeren “islatu-islatzaile” erreflexua “islatu-islatzaile” erreflexibo batentzat existitzen baita. Horrela, bai erreflexuak bai erreflexiboak burujabetasunerantz jotzen du bakoitzak, eta bereizten dituen *ezer* horrek askozaz sakonago zatitzen ditu biak bere baitarakoak izateko duen ezerezak islatua eta islatzailea bereizten dituen baina. Alabaina, ezin dute ez erreflexiboak ez erreflexuak ezerez bereizle hori sortu, bestela erreflexioa bere baitarako autonomo bat izango litzateke erreflexuari zuzendua, eta horrek eskatuko luke onartzea kanpoko ezeztapen bat [360] barneko ezeztapen baten aurreko baldintzat. Ezin egon liteke erreflexiorik erreflexioa ez bada *izate* oso bat, bere ezerez propioa izateko duen izate bat.

Halatan, ek-stasi erreflexiboa funtsezkoagoa den ek-stasi baten bidean aurkitzen da: Bestearantzako izatea. Ezereztapenaren azken terminoa eta polo ideala, ezbairik gabe, kanpoko ezeztapena izan beharko litzateke, hau da, bere baitako erdibiketa bat edo espazioaren kanpokotasun bat indiferentziazkoa. Delako kanpoko ezeztapen horren arabera, hiru ek-stasiak azaldu dugun hurrenkeran ordenatzen dira, baina ezin dute ezeztapen hori inola ere atzeman, eta kanpoko ezeztapena ideala gelditzen da printzipioz; hain zuzen ere, bere baitarakoak ezin du gauzatu inongo izateren aurrean —une berean bere baitarako izateari utzi gabe— bere baitakoa litzatekeen ezeztapen bat bere buruaz. Bestearantzako izatearen funtsezko ezeztapena, beraz, *barneko ezeztapen* bat da, bere baitarakoak izateko duen ezereztapena, ezereztapen erreflexiboak duen bezalaxe. Ordea, hemen erdibiketa ezeztapenari berari dagokio: orain kontua bakarrik ez da ezeztapenak izatea islatuan eta islatzailean bikoizten duela lehenik eta, ondoren, islatu-islatzaile bikotea (islatu-islatzaile) islatuan eta (islatu-islatzaile) islatzailean. Zera, ezeztapena bikoiztu egiten da barneko eta alderantzizko bi ezeztapenetan, non eta bakoitza barneko ezeztapen bat den eta non, haatik, kanpoko ezerez helezin batek bereizten duen bata bestearengandik. Horrela, bietako bakoitzak eten gabe ukatzen duelarik bere baitarako hori Bestea denik, eta izateko duen izate horretan zeharo engaiaturik, jada ez du ukatzeko modurik bera alderantzizko ezeztapena den. Hemen, bat-batean, *emana* agertzen da, baina ez bere baitakoa izatearen identitate baten emaitzat, baizik eta nolabaiteko kanpoko mamutzat, bi ezeztapenetatik ez bata

eta ez besteak izateko ez duena eta, halere, biak bereizten dituena. Egia esateko, izate erreflexiboan jada aurkitzen genituen alderantzikatze negatibo horren lehen printzak. Hain zuzen ere, bere erreflexibotasuna dela kausa, erreflexiboa lekuko gisa bete-betean da bere izatean atzemana eta, horrela, erreflexibo egiten delarik, erreflexua ez-izatera jotzen du. Eta alderantziz ere, erreflexua bere burua(ren) kontzientzia da transzendentziazko fenomeno baten kontzientzia erreflexu gisa. Berari buruz zera esaten genuen, badakiela begiratu dela. Ildo horretatik, berak erreflexiboa ez-izatera jotzen du, kontzientzia oro bere negatibotasunaren arabera definitzen baita. Baina zisma bikoitz baterako joera hori gertakari batek berreskuratzen eta gainditzen zuen, ezen, guztiarekin ere, erreflexiboak erreflexua izatera jotzen baitzuen eta erreflexuak erreflexiboa izatera jotzen baitzuen. Ezeztapen bikoitza ezegonkorra zen.

Hirugarren ek-stasiaren kasuan, urrunago doan erdibiketa erreflexibo moduko baten aurrean gaude. Ondorioek harritu egin gaitzakete. Alde batetik, ezeztapenak barrukoak bezala bizitzen dira: Bestea eta ni ezin etor gaitzake elkarrengana kanpotik. Beharrezkoa da “ni-Beste” den *izate* bat egotea Bestearantzakoaren alderantzizko erdibiketa izateko duena, [361] hain zuzen, “erreflexibo-erreflexu” osotasuna ere izate bat den bezalaxe bere ezereza izateko duena, alegia, non eta nire ipseitatea eta Bestearena izate-osotasun bakar baten eta beraren egiturak diren. Hegelek arrazoia luke, beraz: osotasunaren ikuspuntua da izatearen ikuspuntua, *benetako* ikuspuntua. Guztia gertatzen da nire ipseitatea Bestearenaren aurrean osotasun batek eragin eta eutsiko balu bezala, zeinak bere ezereztapena bera muturreraino leramakeen. Bestearantzako izatea agertzen da erdibiketa erreflexibo soilaren luzapena balitz bezala. Ildo horretatik, guztia gertatzen da Besteak eta ni neu bere-baitarako-osotasun baten alferreko ahalegina bagina bezala berak *izateko duena* errekuperatu eta biltzeko bere baitakoaren modu soil eta hutsean. Bere burua objektutzat hartzeko ahalegin horrek, hemen muturreraino eramana, hots, zatiketa erreflexiboaz baino askoz harago, osotasun horrek lukeen jomugaren kontrako emaitza ekarriko luke: *bere* kontzientzia izateko ahaleginean, bere-baitarako-osotasuna eratuko litzateke *bere* aurrean bera-kontzientzia bat bezala, baina bera kontzientzia deneko *bera* hori ez-izateko duen kontzientzia bat bezala. Orobat, bera-objektua, *izateko*, agertu beharko litzateke kontzientzia batek eta batentzat *izana* bezala, hain zuzen, berak ez-izateko duena baldin eta bera izango bada. Hortik letorke

Bestearentzakoaren zisma, eta bereizketa dikotomiko hori infinituraino errepikatuko litzateke, kontzientziak oinarrizko leherketa baten pusketak balira bezala eratzeko. *Besteak* “leudeke” porrot erreflexiboaren kontrako porrot batengatik. Azken batean, erreflexioan, ezin badut nire burua objektutzat hartu eta kuasi-objektutzat bakarrik har badezaket, horrek esan nahi du atzeman nahi dudan objektua neroni naizela; nigandik bereizten nauen ezereza izateko dut. Nik ezin diot ihes egin nire ipseitateari eta ezin dut nitaz ikuspunturik hartu (horrela ezin dut nire burua izatetzat hartu), ezta nire burua “dago” moduko formatzat hartu ere (izatearen atzemateak huts egiten du, atzemailea aldi berean atzemaia delako). Bestearentzako izatearen kasuan, ordea, erdibiketa urrunago doa, izan ere, (islatu-islatzaile) islatua errotik bereizten da (islatu-islatzaile) islatzailetik eta, horrexegatik, objektu izan daiteke berarentzat. Baina, kasu horretan, izatearen atzemateak kale egiten du atzemaia *ez delako* atzemailea. Beraz, osotasunak, *bera ez dena den eta bera dena ez den* modukoa delarik, beragandik desitsasteko errotikako ahaleginaz, alde guztietara ekoizten du bere izatea haragoko izate bat balitz bezala. Bere baitakoa izatearen dirdira osotasun pitzatu batentzat, beti harago, beti distantzian, inoiz ez bere baitan, baina beti izateari atxikia osotasun horren eztanda etengabeaz, horrelakoxea litzateke Beste izatea eta nire izatea Beste gisa.

Baina, beste alde batetik, nire buruaren ezeztapenaren *aldibereko*, Besteak ukatu egiten du bera ni denik. Bi ezeztapen horiek [362] ezinbestekoak zaizkio Bestearentzako izateari eta ezin batera ditzake inongo sintesik. Hori ez da inola ere kanpoko ezerez batek jatorrian bereizi lituzkeelako, baizik eta bere baitakoak bata bestearen arabera berratzemango lukeelako bakoitza, hain soilik bata *ez delako* bestea baina ez-izateko beharrik ere ez duelarik. Bere baitarakoaren muga moduko bat dago hemen bere baitarakotik bertatik datorrena, baina muga den heinean bere baitarakoaren desberdina dena. *Faktikotasuna* bezalako zerbait aurkitzen dugu eta ezin irudika dezakegu nola ekoiztuko zuen bere izatean arestian aipatzen genuen osotasunak, desitsaste erabatekoenean izanik ere, inondik ere izateko ez duen ezerez bat. Zera ematen du, ezereza osotasuna bera birrintzeko lerratu dela osotasun horretan, Leuziporen atomismoan ez-izatea parmenidear izate-osotasunean lerratzen den bezala atomotan leherrarazteko. Eta adierazten du, beraz, osotasun sintetiko ororen ezeztapena abiapuntutzat hartu nahiko litzatekeena kontzientzien pluraltasuna ulertzeko.

Zalantzarik gabe, atzemanezina da, ez baitu ekoizten ez Besteak, ez neronek, ez bitarteko inork, zeren finkatu dugunez, kontzientziek bitartekorik gabe baitute beste kontzientzien berri. Zalantzarik gabe, noranahi zuzentzen dugula ere gure begirada, barneko ezeztapen huts eta soil bat besterik ez dugu aurkitzen deskripzioaren objektutzat. Eta ezereza, haatik, hortxe dago, ezeztapenen *dualtasuna* badagoeneko gertakari erreduziezinean. Hori ez da, ezbairik gabe, kontzientzia-aniztasunaren *funtsa*, ezen existituko balitz aniztasun horren aurretik, ezinezko egingo bailuke edozein *Bestearentzako izate*. Alderantziz, aniztasun horren espresiotzat hartu behar da: berarekin batera agertzen da. Baina bera funda dezakeen *ezer ez dagoenez*, ez kontzientzia partikularrik ez kontzientziatan lehertzen den osotasunik, agertzen da kontingentzia soil eta erreduziezin bezala, agertzen da gertakari bat bezala non *ez baita nahikoa nik Bestea naizela ukatzea Bestea existitzeko, baizik eta non beharrezkoa baita Besteak ere ni dela ukatzea nire ezeztapen propioaren aldiberekotasunean*. Hori Bestearentzako izatearen *faktikotasuna* da.

Halatan, kontrakotasunezko ondorio honetara heltzen gara: Bestearentzako izatea soilik izan daiteke baldin eta osotasun batek *izana* bada desagertu egiten dena hura sortzeko. Horrek *gogoaren* existentzia eta indarra postulatzera ginderramatzake. Baina, bestalde, Bestearentzako-izate hori ezin existi daiteke ez baldin badarama berarekin ez-izate bat, kanpoko eta atzemanezina, inongo osotasunek ezin duena, *gogoarena* izanik ere, ez sortu ez fundatu. Zentzu batean, kontzientzien aniztasunaren existentzia ezin da izan aurreneko gertakari bat, eta norberarekiko desitsastearen jatorrizko gertakari batera garamatza, gogoari dagokiona. Horrela, erantzunik baluke galdera metafisikoak: “Zergatik daude kontzientzi(ak)?”. Baina, beste zentzu batean, aniztasun horren faktikotasunak erreduziezina dirudi, eta gogo ulertzen baldin bada [363] aniztasunaren *gertakariaren* abiapuntutik, desegin egiten da. Orduan, galdera metafisikoak jada ez du zentzurik; aurkitu dugu funtsezko kontingentzia eta erantzun dezakegun bakarra zera da, “horrela da”. Beraz, jatorrizko ek-stasia sakondu egiten da: ematen du ezin zaiola ezerezari tarterik egin. Bere baitarakoa agertu zaigu existitzen den izate bat bezala ez delarik bera dena eta badelarik bera ez dena. Baina gogoaren osotasun ek-statikoa ez da bakarrik osotasun osagabea, izate birrindu bat bezala agertzen zaigu eta ezin dugu esan existitzen denik ezta existitzen ez denik ere. Horrela, bada, gure deskribapenak balio

izan digu Bestearen existentziari buruzko zeinahi teoriari ezarri dizkiogun [ikus *EN: “3.1.3.” (307.-310. or.) atala*] aldez aurretiko baldintzen kontu emateko. Kontzientzien aniztasuna *sintesi* modura agertzen zaigu eta ez *bilduma* modura, baina sintesi bat non eta bere osotasuna pentsaezina den.

Horrek esan nahi du osotasunaren izaera antinomiko hori erreduziezina dela? Edo, goragotik ikusita, desagerraraz dezakegu? Zehaztu behar dugu gogoia dela *den eta ez den izatea*, zehaztu dugun bezala bere baitarakoa badela bera ez dena eta ez dela bera dena? Galderak ez du zentzurik. Horrek esan nahiko luke osotasunaren *ikuspuntua* bat har genezakeela, alegia, kanpotik kontsideratu. Baina hori ezinezkoa da, ezen ni, hain zuzen, osotasun horren funtsaren arabera existitzen bainaiz, eta horretan engaiatua naizen heinean. Inongo kontzientziak, Jainkoarena izanik ere, ezin du “atzealdea” ikusi, alegia, osotasuna bere horretan atzeman. Jainkoa kontzientzia bada, osotasunean integratzen da. Eta, bere izaeragatik, *kontzientziaz haragoko* izate bat bada, hots, bere fundatzailea litzatekeen bere baitako bat, osotasuna soilik ager dakioke edo *objektutzat* —eta orduan galdu egiten du osotasunaren barneko desintegratzea bere burua horren ahalegin subjektibo gisa berratzemateko— edo *subjektutzat* —eta orduan, bera subjektu hori *ez denez*, bizi besterik ez du egingo, ezagutu gabe. Hortaz, osotasunaren ikuspuntu oro pentsaezina da: osotasunak ez dauka “kanpokotasunik” eta bere “atzealdearen” auzia bera esanahirik gabekoa da. Ez dugu urrunago joaterik.

Hara non heldu garen azalpen honen amaierara. Argitu dugu Bestearen existentzia ebidentzia osoz bizitua dela nire objektibotasunaren gertakarian eta gertakariaz. Eta ikusi ere dugu nire Bestearentzako alienazio propioaren aurrean dudan jarrera Bestea objektutzat hartzea dela. Labur esateko, Bestea guretzat bi modutara existi daiteke: ebidentzia osoz bizi badut, ezin dut ezagutu; ezagutzen badut, beragan eragiten badut, bakarrik atzematen dut bere izate-objektua eta bere existentzia probablea [364] munduaren barruan. Bi forma horien sintesirik ez da posible. Baina ezin gara hemen gelditu. Bestea niretzat den objektu hori eta ni Bestearentzat naizen objektu hori, *gorputz gisa* agertzen dira. Zer da, bada, nire gorputza? Zer da Bestearen gorputza?